

LATIEGI'tar BIXENTE
(Euskerazaintzakoa)

DENBORA BERRIETAKO
ELIZA

(Argikuntza, Jakintza Berriak, Iraultza)

ELIZ - EDESTI - SORTA

Argitaldari: EDILI - Donosti
Irarkola: LOREA - Donosti
Dep. Leg. S.S. 939/86
ISBN 84-600-4821-7

Pozik eta maitasun aundiz

Ebetxo

Nere illoba kuttunari

*ain era dotorean albaiterutzarako ikasketak
bukatu dituan urtean*

1986 Abenduak 24. Eguberri - bezpera

EUSKERAZAINNTZA'ren ARGITALDIA

ELIZ-EDESTI ONEN ITURBURUAK

Liburu au, Irakurle, "Elizaren Edestia" izen daraman idaztiaren bigarren zatia duzu' Jainkoa lagun, gero emango dizkizut beste iruak'

Aurreneko zatiak Birjaiotza'ko Eliza, ots, San fñazoren Den bora-ko Eliza izan zuan gai. Bigarren onena, Argikuntza-Aroko Eliza da. Ona berriz zein izango diran beste iruen gaiak: Demokrazi•Aroko Eliza, Aro-Zarreko Eliza, eta Erdi-Aroko Eliza'

Aurreneko zatia,— "San Iñazioren Denborako Eliza" izen daramakiana—, Donosti'n aurkeztu nuanean, liburu ura idazteko erabilli nituan liburu eta aldizkarien zerrenda eman nien nere entzuleei; eta zerrenda ura urrena argitaratzera nijoan liburuaren asieran ipintzea oso gauza egokia izango zala esan zidaten nere adiskide, gai auetan, txit jakintsu batzuek. Ikus bā "Eliza'ren Edestia"ren liburu auek idazteko erabilli ditudan idaztiak. Guztiak, Gazteiz'ko Seminario-ko Liburutegian aurkitu dezazkezunak dira, ondo eta egoki ornitua bait dago gai oni eta onen antzekoei dagokienez, gure Seminarioko liburutegi ura.

—"Histoire de L'Eglise depuis les origines jusqu'a nos jours, sous fa direction de Augustin Fliche et Victor Martin". 20 tomo eder dira, aurrenekoa 1938'koa; azkenekoa, 1949'koa' Gaztelerara itzuliak daude, eta 33 tomoetan lujo aundiz argitaratuak. Lenengo nere bi tomoetarako nik erabilli ditudan liburu aundi ortako tomoak, (eta beren idazleak), auek dituzu. 15^a, (R' Auberas eta R. Ricard' Aix-en-Provence'ko Unibertsitateko irakaslea aurrenekoa, Sorbona'koa bigarrena). 16^e, (E. Moreau, P. Jourda, P. Jauelle' "Belxika'ko Akademia"koa lendarbizikoa, Montpellier'en Unibersitateko irakasle, bigarrena; eta Clermond-Ferrand'en irugarrena), 17^a (L' Cristiani, Lyon'go Unibersitatekoa), 18^e, (L. Willaert, Belxika'n Namur'ko Unibersitatekoa, 19a, (E. Jarri eta E. Prec lin, au Besantzon'en ura Paris'en irakasle).

—"Historia de la Iglesia desde la perspectiva de las ideas", Alemani'ko erderaz L. Lortz Maguntzi'ko irakasleak idatzia. Nik erdera ori ez bait dut ezagutzen, 1962'an argitaratu zan gaztelerazko itzulpen bat erabilli dut. Bi tomo dira.

—"Historia de la Iglesia", 1960'ean alemanieraz L. Hertling'ek egiña. Tomo bakarra. Era bikaiñean idatzia.

—"Histoire de l'Eglise du Christ", 9 tomotan Daniel-Rops ospetsuak idatzia. Aurreneko tomoa, 1948'koa duzu; azkenekoa, 1963'koa. Daniel-Rops, Frantzi'ko Akademian aulkiduna, txit idazle yayo eta atsegiña dugu' Ori dala ta, bederatzitomo oiek, elertiari dagokionez, Eliz-Edestirik goxoena eta irakurtzeko errezena osatzen dute; naiz, agian istoriologi edo edestiztiaren aldetik onenak izan ez' Gaztelerara itzulirik daude. Erosi eta irakurri itzezu edestigai auek atsegin ba'zaizkizu.

—"Historia de la Iglesia", alemanieraz, 4 tomotan A. Ehrhard eta W. Neus irakasleek idatzia. 1962'ean egiña da nik aztertu dedan itzulpena.

—"Manual de Historia de la Iglesia bajo la dirección de H. Jedin". Jedin au Bisgrob'i'ko Freiburg'en irakasle duzu. "Manual deitu zioten liburu oni bere egilleek, baiña, alemaniarak izen aundien etsaiak izakita, "manual" onek baditu zortzi tomo; 8 tomo lodi! Nik eskuetan artu ditudanen egilleak auek dira: H. Wolter, E. Iserloh, J. Glazik, H' Zedin, Muller, Beckman, Cognet, Corish, Koller, Raab, Schneider, Stasiwsky, Lill, Aldea' Aurreneko tomoa 1962'an agertu zan; azkenekoa, 1973'an.

—"Nouvelle Histoire de l'Eglise" 1963'tik 1975'era 5 tomotan Roger (Nimega), R' Aubert (Lovaina) eta Knowles (Cambridge) zuzendari zituala argitaratua. Nik ikusitako tomoen idazleak: Tuchle, Bouman, Le Brum, Rogier, de Bertier de Sauvigny, Hajjar. Gazteleraturik dago.

—"Histoire du Christianisme", 1932'tik 1966'era Dom Charles Poulet'ek beneditarrak 6 tomotan argitaratua.

—"Historia Ilustrada de la Iglesia", Frantzi'ko Akeademiak sari-tutako idatzia. Bi tomo dira; aurrenekoa 1956'koa; bigarrena, 1961'ekoa. Egilleak G. Plinval eta R. Pittet, biak, Suizi'n, Friburg'eko irakasleak. Gaztelerazko itzulpena bakarrik izan dut eskuetan; Justo Perez de Urbel'k egiña.

—"La Chiesa nell'eta dell'assolutismo, del liberalismo, del totalitarismo". 4 tomo. G' Martina'ren lana. 1970'ean argitara emana. Gaztelerazko itzulpenak izen-buru au darama: "La Iglesia, de Lutero a nuestros dias".

—"Historia de la Iglesia" (4 tomo (1960-1961). Zuzendari, Francisco J. Montalbán. Egilleak: Llorca eta Garcia Villoslada; iñakitarrak

irurak. Ez da edestiztiaren aldetik, geiegi balio duan liburua. Franco diktatore zala argitaratua da-ta, españizalekeriz betea dago.

* * *

Liburuetaz gaiñera, erabilli ditut iztegi edo Dikzionarioak ere. Batez ere Elizaren Edestia edo Arkeologia (antziñiztia) eta Teologia (jainkiztia) gai dituzten iztegi oparoak.

—"Dictionaire d'Archeologie Chrétienne et de Liturgie". 26 tomo dira, (eta baita 30 ere, tomo batzuk bi liburu marduletan bait datoz). Oraindik amaitu gabe dagoan lana da. Aurreneko 5 tomoek Dom F' Cabrol beneditarra Farn Borough'eko Abata izan zuten zuzendari. Azkenekoek, Dom E. Leclercq, beneditarra au ere, izan dute eta oraindik ere dute.

—"Dictionaire d'Histoire et de Géographie Eclésiastiques". Zuzendariak: Baudrillart, Vogt, eta Rouciès. Amaitu gabe dago iztegi au ere' 20 tomo argitaratu ditu, eta oraindik "G" izkira besterik ez da iri txi' Ortaz igarri dezakezu, gai auetan nolako benetasunaz egiten dan fana.

—"Diccionario de Historia Eclesiástica de España. Dirigida por Q. Aldea Vaquero, T. Marin Martinez, y J. Vives Gastel'" 1972' Ez da balio aundiko gauza, Españi'ko elizjendearen biografia ezagutzeko ez ba'da.

—"Encyclopaedia Judaica", Jerusalem'en 1972'an inglanderaz argitaratua. Oso lan ederra, Judutarren edestia ezagutzeko bikaiñena. 16 tomo.

—"Enciclopedia Judaica Castellana" Mexiko. 1948. II tomo'

—"Catholicisme Hier Aujourd'hui Demain, dirigée par G. Jacquement'" 1948-1979. Argitaratu dituzte 8 tomo, baiña, alare "M" izkira besterik ez dira iritxi.

—"The Catholic Encyclopedia". Laterri Alkartuetako irakasle-sail ugari batek 1934'etik 1951'era 18 tomotan edatua.

—"Enciclopedia Cattolica". Pizzardo Kardenalaren babespean Itali'ko irakasle-talde eder batek 1948'tik 1954'era 12 tomotan argitara emana.

—"Dictionaire Apologétique de ra Foi Catholique sous la direction de A. d'Alès". 4 torno. Liburu zarxamarra, baiña bere denboran ospe aundia izan zuana. Guk 4'garren argitalpena, 1925'ekoa dugu gure bibliotekan.

—"Dictionnaire de Théologie Catholique". Zuzendariak, A. Vacant, E. Manquenot, E. Amann. 1930'tik 1972'ra bitartean argitaratua. 32 liburu dira guztira, tomo batzuk liburu bat baino geiago betetzen bait dituzte.

—"Historia de la Iglesia Católica". 5 tomo. Egilleak: Llorca, García Villoslada, Laboa. 1980. Ez da liburu txarra.

—"Dizionario Enciclopedico di Spiritualita". Zuzendari, Ermanno Ancilli. 1975' 3 tomo. Badu gaztelerazko itzulpena.

—"Nuevo Diccionario de Teología" Italicieratik itzulia. 1982. Zuzendari, G. Barboglio eta Dianich' 2 Tomo.

—"Dizionario dei Concili". 1963-1966. Zuzendari, P. Palazzini. 5 tomo'

Nere gaiari zuzenean dagozkion iztegi auetaz gainera erabilli izan ditut gai-oroko-iztegiak ere:

"Enciclopedia Italiana". 1929'an asi zan. Bereala artu zuan Mussolini'k bere zaintzapean. Eta diru asko erabilli bait zezakean Mussolini'k, txit lan ederra agertu zan 29 tomotan entziklopedi au. Erljioari-buruzko gaiak ederki aurkezten ditu eta batez ere Aitansantuek Erroma'ko Errege bezala egin zutena ezagutzeko oso liburu egokia da'

"Gran Enciclopedia Rialp ("GER"). 1979'an asia. 24 tomo. Berriagoa dalako gauza askotarako "Espasa" baino ohea da'

—"Grand Dictionnaire Universel.". par Pierre Larousse. 14 tomo ditu; nolakoak ordea! Liburu aundiak, eta orri bakoitza, extu-extu, goitik beerako lau xerra edo kolumnetan, batere marrazki, mapa, edo oien antzeko edergaillurik gabe izki txikitxikiz idatzia' Beste edozein iztegi bezala aurkeztua balego, izango lituzke gutxienez 80 tomo. Agian orregaitik esan oi zaio "Le Grand Larousse". Beste iñork ematen ez dituan gauza txiki jakingarri asko aurkitzeko berdiñik gabeko liburua da' Orregaitik, eta, guk 1865'ean egin zan argitalpena ba'dugularik, liburu au gertakizunetatik bertago dagoalako, maiz erabilli izan ditut bere 14 tomo mardulak.

—"Encyclopaedia Britannica", with the editorial advice of faculties of the University of Chicago," Oxford, Cambridge, London, Toronto, and, Tokyo". 24 tomo eder. Bein eskuetan artu ezkeru, uste osoa irabazten dizun liburua duzu au. Zaarra, —1768'an izan bait zuan lenen argitalpena—, eta berria ta gaztea beti, sei-zortzi urtetik sei-zortzi urtera, geigarri edo suplementuk ez baiña liburu osoa, 24 tomo guztiak, argitaratzen bait ditu berriro, azken-azkeneko gertakizun eta

idoroketa guztiak jasoaz. Gai bakoitza mundu zabaleko jakintsurik ya-yoenen eskuetan ipintzen dualako, erlijioariburuzko arazoak, zeaztasun osoz eta begirune aundiz aurkeztuak agertuko zaizkizu bertan. Oso maiz erabifli dedan liburua da'

Liburu eta Iztegietaz gaiñera, bear-bearreko gauzak dira gaur-egun aldizkariak edozer gaietaz era zuzenean idatzi nai ba'da. Liburuak berealaxe zartzen dira. Esan ere esan leike zartuta jaiotzen dirala, liburua irarkolan sartu zanetik andik atera daneko bitarte ortan zerbait berri eta arras interesgarri gertatu, egin, idoro, edo jakin bait da munduan. Albiste berri oiek jasotzeko, aldizkarietara jo bear duzu naitanaiez' Gaurko aldizkarietan aurkituko duzu biarko liburuetan agertuko dana'

Aldizkari asko sartzen da gure Seminarioko Bibliotekara' Aldizkari oietatik, nere gaiarekin zer ikusirik izan zezaketen guztiei begiratu izan diet aurkibidea, eta baita, oso maiz, liburu ontarako aldizkari oietan albiste bitxiak aurkitu ere.

Baiña bereiziki laguntza aundia eman didatenak auetxek dituzu:

—"The Journal of Ecclesiastical History" (Cambridge)

—"Revue d'Histoire Ecclesiastique". (Université de Louvain. Belgique)

—"Revue d'Histoire de l'Eglise de France" (Société d'Histoire. Paris)

—"Revista della Storia deffa Chiesa in Italia" (Roma)

Agian, irakurle, bein adiskide batek bezala, Seminarioko liburu guztiak irakurri ditudan galdetuko didazu, eta ezetz erantzungo dizut. Eun da berrogei milla liburu badaude gure bibliotekan aldizkarien bildumak zenbatzeke' Geiegi, guztiak irakurri aal izateko, batez ere liburu oietatik bat baiño gaiegi, ia-ia danak, tomo askotan edatuak dirala kontuan artzen ba'dugu. Ez ditut danak irakurri, baiña bai emen aipatu ditudanak.

Eta emen aipatutako auek ere askotxo iruditzen bazaizkizu, geldigeldi, presarik gabe, patxadan eta ez arfan bezala, baiña jarraituz eta jarraituz, urteen buruan lan aundia egin daitekeala erantzungo dizut. 1966'ean asi nintzan ni Elizaren Edesti au idazteko lanean, eta ogei urte auetan, irakaskintzak libre uzten zizkidan une labur guztiak eginkizun ontan akitu izan ditut. Eta pozik gaiñera, beste batzuek eizara, edo arrantzara edo jukura jotzen duten bezala, edestirako eta edestiarren antzeko ikaskizunetarako izan bait da beti neronen joera. Fakultateko ikasketan ere, Elizaren Edestiarekin zer ikusi aundia zuana izan

zan 10(10 edo "Summa cum Laude"rekin saritu zidaten tesia.

Jasa berria dut Yorke Berritik idatzia, Latxaga izkuntzalari txit ospetsu eta nere adiskide kutunaren eskutiza. Edesti onen lenen tomoa, "San Inazioaren Denborako Eliza", irakurria duala dio eskutitz antan, eta begira zer dion gaiñera beste esari batzuen artean:

"Pozik, atsegiñ aundiz irakurri det zure liburua. Ondo oartu naiz zuk ere poz aundiz idatzi dezula; zoriotsu izan zerala ori idazten ari izan zeran denbora guztian; egiazko gozotasuna izan dela zuretzat eginkizun au.

"Lan ederra egin dezu; bikaiña; argiñen lana, arriz-arri arreta aundiz, poliki eta dotera landutako arriz egiña; mamiz eta azalez lan biziro egokia".

Ez uste izan, Latxaga nere adiskide aundia dalako, itz oiek txuriketa uxtela besterik ez dirala. Ez duzu ezagutzen nere adiskide ori, orrela pentzatzea gogora etorri bazaizu, arentzat adiskiderik aundiena. egiazko adiskide bakarra, EGIA bait da. "Amicus Plat() sed magis arnica veritas": "Adiskide dut Plate; baiña EGIA adiskidego"

Badu gaiñera Latxaga'k nere liburu onen mamiz eta azalez iritzi-emateko beste iñork ez aiñako eskubide berezia; bera, Izkuntzizti edo Linguistikian Doktore izateaz gaiñera, Doktore bait da Teologian; eta baita Antropologian ere. Ez ditu gaiñera iru oiek nun-nai ateratako doktoradutzak, Paris'en irabaziak bait ditu irurak. An izan nintzan ni Sorbona'ko gela nagusian, Latxaga'k bere izkuntziztiko tesia aurkeztu eta aldeztu zuanean eta an entzun aal izan nituan, tesiari-buruz. Sorbona'ko izkuntzalariek egin zituzten goratzarreak. Tesi aren gala: "La Rrepresentation du Temps dans le Verbe Basque"

¶

Ez dut amaitu nai itzaurre au, Joseba Zubikarai Markiñako Karmeldar zintzo eta euskalzale bikaiñari nere eskerrik onena agertu gabe' Berak irakurri dizkit "Argikuntza'Aroko Eliza" izen daraman liburu onen orri guztiak, nik idaztean egin ditudan "lapsus calami" edo "lumaren utsegite" danak zuzentzeko' Eta ez uste izan utsegite oiek gutxi izan diranik. Berandu ikasi nuan nik idazki ña edo idazteko makiña erabiltzen. Ta'.. "berandu, baiña alatagutziz azkar eta ongi" gaiztake-ria bakarrik ikasten zala, esaten zuan nere ama Benite zanak. Ori gertatzen zait neri ere: ezin dedala idazkiñik ongi erabili!!!

Eta azkenik, irakurle, liburu ontan irakurri dezakezunari-buruz zerbait galdetu, edo, —naiz alde, naiz aurka—, zerbait esan nai badidazu, au duzu nere norabidea: "Instituto Politecnico.— Nieves Cano kalea-10-Gazteiz". Begirunez eta maiteki artuak izango dira zure oarpen guztiak.

ARGIKUNTZA

XVII eta XVIII mendeetan Europa'ko eta Ameriketako jakite ororen gidari izan zan pentsakerari deitu oi zaio ARGIKUNTZA. Izena, Alemaniarrek eman zioten: AUFKLARUNG. ingladerriarrek, ENLIGHTMENT itzuli zuten itz ori; eta Frantziarrek ILLUMINISME. ILUSTRACION, berriz Españiarrek.

Argikuntza orrek "argitu" bear zuan mundua, gizakumearen adimena zan. Zekarren "argi" salbatzaillea, Jakintza Berria; eta argi orren "eguzkia", Arrazoa: Giza-Arrazoa.

Maiz esan oi da Jakintza Berri ura IzadiJakintza izan zala: Biologia, Fisia, Kimia; eta jakintza auen oiñarri diran Matematikak. Ez da ori oso-osoan egia; jakite-egarri aientzat jakintzarik garrantzitsuena, gauza guztiak aztertzeo "Arrazoa-Erabilitzen-jakitea" bait zan. Gauza guztiak aztertzeo, ots, Jainkoa beragandik asi ta izakirik txikienera. Ez bait zuan esirik "argituen" jakite-miñak!

Ororen epaille egiten zuten Giza-Arrazoa, eta oro izan bear zuan, epaiketa zorrotz baterako, Arrazoiaren epaimaiera ekarria.

Arrazoa egoki erabilli aal izate orri deitu zioten "Filosofia"; eta ori egiteko gauza zan gizakumeari esaten zioten "argitua". Ori egiteko gai ez zan guztia, "illunpean" zezan "ezjakin" bat besterik ez zan'

Ez zebiltzen oker. "Egiaren" eta "gezurraren" artean bidea billatzeko arrazoa bait du gizakumeak gidari gurena' Baita Sinispenaren barrutian ere. Oroi Augustin Deunak idatzia: "Non crederem nisi viderem credendum esse". "Ez nuke sinistuko sinisgarria dala ikusiko ez ba'nu".

Siniskeri ustelez betea aurkitu zuten gaiñera argituek erria. Ta gogo beroz saiatu ziran sasi-sinisketa orren aurka borrokan. Ala A. Feijoo, espñiarren arteko "argiturk" ospetsuenetako bat izan zana.

Agian, Argikuntza "jainkogabekeri" utsa izan zala entzunik egonen zera, eta arrigarri egigingo zaizu, Elizaren Edesti batean Argikuntzari buruzko solas-aldi luze bat aurkitzen. Oker zabiltz, orrela pentsatzen duzula ba'zabiltz.

Egia da Argikuntzakoan sinisgabe batzuk izan zirala. Baiña oso-oso gutxi. Argituak, geienak, erlijio-arazoetan buru belarri sartuak ibilli ziran. Inghlanderriko edestilariei Argikuntza zer izan zan galdetzen badiezu, "erlijio-igikunde" bat izan zala erantzungo dizute: "A movement of thought and belief, developed from interrelated conceptions of God, reason, nature and man, to which there was wide assent in Europe during the 17'th and 18'th centuries" (Argikuntza ongien eza-gutzen dutenen baten itzak dira. David Harries'en itzak. Berari eman zion "Encyclopaedia Britanica'k liburu ortarako "argikuntza" deritzan atala idazteko eginkizuna. Liburu aundi ortan aurkituko dituzunik azaldu dizkizudan itz oiek' Euskeraz: "Jaungoikoa, izadia, arrazoia, eta gizadia alkarrekin kidatu naietik sortutako oldozkeraren eta sinetkeraren barrutiko igikunde bat izan zan Argikuntza. XVII eta XVIII mendeetan Europa'n arras zabaldu zana")'

Ala ere, egia da, erlijio-gaiak arrazoiaren argira aztertzen asi zira-nean, aurreraegi joan zirala batzuk, "arrazoiak argi ulertzen ez duan gauzarik ezin dezakeaia gizakumeak sinistu" oiu egin bait zuten' Orre-la, "arrazoikerira" jausi ziran. Eta arrazoikeritik, kristautasun orori uko egiñaz, "deismora".

Arrazoiari geiegizko garrantzia emateak berekin daraman arriskua duzu arrazoikeria; eta arrazoikeritik deismurako pausoa. Eta ez ziran danak deismuan gelditu. Batzuen batzuk, arrazoimena ta zentzumenena bat egiñaz, "ikusten ez danak izaterik ez duala" uste izanik, Jainkorik ez dala deadar egin bait zuten.

Alatagutziz, esan dezagun berriro "jainkogabe" auek oso gutxi izan zirala argikuntza-aroan. Geixago, deistak; baiña ez asko auek ere, naiz izen aundiko gizonak eta eragimen aundigaitzekoak izan: Voltaire, adi bidez, Robespierre, eta batez ere Rousseau.

"Argiturk" geienak, —naiz protestalari izan naiz katoliko—, kristauak izan ziran. Baiña, geiago edo gutxiago, danak izan zioten arrazoiari izugarritzko jaiera.

Arrazoia jasotzean, jaso zuten Gizadia ere izadiaren gaillurrera. Biotzez eta benetan maite izan zuten Gizadia, eta Gizadia zorionarik garaienera igotzea izan zuten ekintza guztien azken-elburua. Bazuten ortarako, orduantxe, arrazoirik naiko; mixer' beltzean ondatua ikusten bait zuten gizadiaren zatirik aundiena, erriko jende landerra, Ogeitamarr Urteko Gudatearen ostean.

Erri gaixo orren zoriona lortu nai izan zuten' Orregaitik, erri gaixo orren serbitzura egon bear zuan oro: jakintza, eta politika.

Ortik, Argituek izadijakintzei izan zieten zaletasuna, eta jakintza oiek teknikaren serbitzura ipintzeko guraria; bai nekazaritzan, bai olagintzan eta bai bidegintza edo beste edozein gintzan teknika edo arikeria obeagotzea naitanaiezko gauza bait zuten erri gaixoaren biziera obeagotzeko'

Ainbeste gudateek, eta batez ere azkeneko "Ogeitamar Urteko" arek gose eta izurripean amildurik utzi zuan erri xea.

Aundikiek, eta aitorensemeeek gudagintza beste eginkizunik ez zuten aintzat artzen' Lotsagarri zan aientzat salerosketan edo nekazaritzan edo olagintzan astea. Salerosketa, judutarren ariketa nazkagarria zala uste zuten; eta eskulana, jopu eta serbitzarien fana: "opus servile".

Jakintza Berrietan ondo jantzitako "argituek" bakarrik zuzpertzuzaketen, beraz, ekonomia, erri landerra mixeritik ateratzeko. Argituek bakarrik ikustarazi zezakiekeen agintariei eta aundikiei IzadiJakintzen edertasuna, aundiki eta agintari aiek gizadiarentzat onuragarri ziran oflzioetara, ta ekintzetara, erakartzeko.

"Onuragarria". Ori izanen da, giza-ekintza orori, argituek eskatu dioten baldintza: "Utilis", "Onuragarria" izatea.

Ori orrela zalarik ez zioten egiazko Filosofiari, oldozketa-guren-utsezkojarduketari, jaramonik egin. Alperrikako jarduketa iruditzen zitzaion: gizadiaren arazo larriak konpontzeko balio ez zuana. Jakintza orok ere "utilis", "emankorra" izan bear bait zuan, kontuan artua izan nai ba'zuan,

Aiabazanere, garai artakoak ditugu filosofi utsak izan dituan filosofilaririk bikaiñenetako batzuk: Descartes, Leibnitz, Spinoza'..

Ez zuten argituen begirunerik eta adeitasunik irabazi. Filosofieraketa-egille lez, ez ziran "argituak" izan, beren filosofia, okerra edo zuzena, egiazko filosofia bail zan: espekulazio edo adimen-lan billutsez eraikitako oldozketa-sistema sakona.

Baiña, filosofi-egille izateaz gaiñera, matematikalari yayoak ere izan ziran-da, arlo ortatik so-egiten bazaie, esan daiteke argituen saillekoak izan zirala. Descartes batez ere; bere filosofia "more mathematico" "matematikeen erarara" tajutu nai izan zualako, Argikuntzaren aitzindaririk eraginkorrenetakoa izan zala esan ere esan bait daiteke. Ez dezagun aantzi, Argikuntza-aroan matematikek filosofiak baiño garrantzi geiago izan zuala!.

Ez da aztutzekoa Leibnitz xalo maitagarria ere. Berak sortu bail zuan beste iñork baiño lenago, Berlin'en, jakintza eta ekintza berriak

asmatu eta egintzara eramateko, Ienen Akademia' Jakiña da, gero argituek Akademi edo Batzar oiei eman zieten garrantzia.

Baiña, zalantzarik gabe, Newton izan zan argituentzat jakintsurik aundiena. Eta Newton'en ondorean, Bacon. Fifosofilarien artean berriz Locke izan zuten irakasle nagusi; onen filosofia, zentzuetan oiñarritutako filosofia, legiztira, politikara, ekonomira, ta oituriztira itzulia zegoalako, osoro "utilis" edo "onurakorrra" ikusten bait zuten.

Argituek bide onetik zebiltzala ikusteko, gogora dezagun zenbateraiño zeuden izadijakintzak baztertuta:

—XVIII mendearen bigarren erdian, III Karlos'en Españietan ez zan Matematikarik unibersitateetan erakusten. Are gutxiago Kimiarik edo Fisiarik.

(Jakintza aantzi oiek erakusteko eratu zuten emen Euskalerrian "Errialdearen Adiskide" edo "Los Amigos del Pais" argituek, Bergara'ko Ikastetxe bikaiña, Auñamenditik onuntz Ienen "Injenieri-Ikastola").

—Españietako unibersitateetara ez ziran oraindik sendalaritza ikasteko Olanda'n sortutako era berriak iritxi. Españietan Hipokrates eta Galeno grezierromatarrek idatzitako liburuak bakarrik erabiltzen ziran, unibersitateetan' Hipokrates Kristoren aurretiko 460'garren urtekoa da; Kristoren ondorengo 131'garrengo berriz Galeno. XVIII mendean Argikuntza sortu arte, bi antziña-antziñako sendagille aien li buruak ziran Europa osoko beste unibersitateetan ere ikas-liburu bakarrak.

—Izadi-jakintzengaitik jendeak ardurarik ez ba'zuan, ardua-falta baiño geiago, egiazko nazka eta gorrotoa zion jendeark eskulanari; Españietan bereiziki. Kosta zitzaien Bergara'ko Ikastetxea sortu zuten "Lurraldearen Adiskide" euskotarrei, esku-lanean aritzeak jatorrizko odol-garbitasunik zikintzen ez zuala erabakitzen zuan lege bat Karlos ! n'ari emanaraztea!

Bear-bearrezkoa zan beraz Argituek ekarri zuten oldozkera berria. Baiña Argikuntza-aroan ere, —giza-igikunde guztietan gerta oi dan bezela— jakintsu argituetako batzuk, ziurki irten ziran neurritik kanpora' Egiazko Filosofia eta Teologia isekatuaz, adibidez.

Ez zan Argitu aiena erru guzia; aldi artako Teologia, Luter'en aurrekoa bezela, arras zimeldua, legortua, eta antzutua bait zegoan. Ez zan, tamalez, Argikuntzakoan Frantzisko Bitori`koaren edo Suarez inakitarren antzeko teologilaririk sortu!

Jakintza oro, eta beste edozein ekintza bezela, politika ere erriaren serbitzura egon bear zuan Argituen iritziz. Erriaren biziera obeagotu nai zuten Argituek, bazekusatzen bâ erriaren zoritxarra.

Zoritxar orren sustraia, beste gaitz eta okerkeri guztien sustraia bezela, "illuntasuna" zan Argituen ustez. "Illuntasuna", ots, "jakiterik-eza".

Jakiterik-eza, "illuntasuna", erriagan eta baita erriez arduratzen ez ziran aundikien eta Errege ber-bereren buruetan ere. Argikuntza zan beraz salbamenerako bidea.

Nork egin zezakean ordea adimenen argikuntza? Ez noski illunbean zegoan jendeak, illunbean dagoana ez bait da Arrazoaia zuzenki erabiltzeko gauza. Nork, orduan? Argituek bakarrik!

Ori, berak-bakarrik-zirala-gizadia-goratu-zezaketanak, sendo sarturik euki zuten beren baitan XVII eta XVIII mendeetako Argituek.

Ikusten zuten ordea berak bakarrik ez zutela mundua igitzeko indarrik aski; Errege, Agintari eta Aundikien laguntza naitanaiezko zutela' Oridala-ta asi ziran beste edozertan baiño len, goimailleetako jende aien adimenak argitzen' Errege, Aundiki eta Agintari "argituen" laguntzarekin erreza ikusten bait zuten erri xearen "argiketa".

Orrela jaio zitzaigun Europa'n "Despotismo Argitua" esan oi zaion politika-era.

Era orrek, Erregeari bakarrik ematen dio almen guzia; agintaritza osoa. Orregaitik da egiazko "despotismoa": bakar-agintaritza orokorra. Erregeak ez dio iñorreri eskubiderik edo aolkurik eskatu bear. Beragan dauzka eskubide guztiak. Bere izenean agintzen du; ez beste iñorren edo ezerren izenean. (Bai: Europa'ko Erregeek Jainkoaren izenean agintzen zutela zioten. Baiña ez ezazu aztu Europa'ko errege aiek danak kristauak zirala Lisboa'tik Katalin II'aren Mosku'raiño')

Bakar-Agintze ura ordea, erriaren serbitzura egon bear zuan. Erriak ez zuan batere eskubiderik' Erriari obeditzea bakarrik zegokion. Baiña erria zan Erregeen ekintza guztien elburua. "Oro erriarentzako, baiña erririk gabe" izan zan Despotismo Argituaren ikur-itza. "Tout pour le peuple mais sans le peuple".

Oro erriaren onerako, bai; baiña, agindu, Erregeak bakarrik eta bere-gisara. Erriak, soilki obeditu!

Orrela, berak uste gabe, Erregeen "absolutismoa" edo "bakarrik-agintzeko-grña" puztu zuan mugarik gabe Argikuntzak.

Baiña, XVIII mendearen azkenean, Argikuntza erriko jendearen artean zabaldu zanean, laister oartu ziran erriko jendeak beren biziera

jasotzeko Errege-bearrik ez zutela. Berak bakarrik naikoak zirala; Erregeen "despotismoa" naiz argitua izan, eragozpena geiago zitzaiela laguntza baiño. Ortik sortu zitzaigun, Ipar-Amerika'n aurrena, eta Frantzi'n gero, Demokrazirako Iraultza.

Ara nola ikusten zuan Imanol Kant filosofilariak Argikuntzaren zertasuna:

"Argikuntza zer dan? Gizakumea aurtzarotik aterata gizon izaten astea. Aurtzarotan bere buruaz bal atzeko gai ez da gizakumeak besteren laguntza bear izaten du' Argikuntza, alderantziz, gizakumea bere arrazoi bakarraz baliatzeko gauza izatera iristea da. Aur izan da gizakumea; BERE ERRUZ GAIÑERA. Ez, adimenik falta zitzaiolako, ez; aurtzaiñen mendetik irtenda, adimen ori nork bere iritzira iareki erabiltzeko ausardirik eta kemenik izan ez dualako baizik. Sapera aude! Ausartu adi jakintzara! Ezak kemen gauzei ik bakarrik ire adimen utsez soegiteko! Orixe da Argikuntza".

Olanda'n eta Inghlanderria'n sortu zan Argikuntza. Erljiozko igikunde lez sortu zan. Oldozkerari eta siniskerari buruzko igikunde izan zan: "A movement of thought and belief". Eta, gero ere, Argikuntza Frantzi'ko jende batzuen buruetan "sinisgabea" egin zanean ere, bai alde bai aurka egiteko, erlijioa izan zuan gairik erabilliena.

Bere sustrairik sakonenak, Birjaiotza eta Ostelaritza edo Protesalaritza ditu Argikuntzak.

—Birjaiotza..., Birjaiotzak gizakumea jakintza-gai egin zualako' Ordurarte Jainkoa izan zan jakintzaren muiñ bakarra. Arrezkero, Jainkorik baztertu gabe, gizakumearengana itzuli ziran jakintsuen begiak. Ortik datorkio Argikuntzar gizadiaganako ardura.

—Ostelaritza, jarduketa ariñaren erruz, Autoritatea bere tokitik aldatu zualako. Aitansuaren, Gotzaien, Eliz osoaren autoritatea, zearo txikitu eta porrokatu zuten protestalariak. Baiña garai artako jendearen pentsaeran Elizaren Autoritatea ezereztu ezkeror, oiñarritik gabe gelditzen zan Errege eta LaterriBuruea ere. Oridalata eman zien protestalaritzak Erregeari eta Laterri Buruei beren Laterrietako elizen jabetasun osoa. Laterriaren eta Elizaren jabe bakarra, Errege ta Aitasuntu, oro bat zan "Printzipe" protestalari bakoitza. Ori izan zuan iturburu Argikuntza-aroko "Despotismoak"

Erljio utsaren arloan berriz, Protestalaritzak ez du iñoren autoritaterik onartzen. Biblia bakarrik. Baiña biblia... bakoitzak bere erara ulertua!

Ondo gerturik zegoan beraz Birjaiotza-osteko jendea Kant'ek zion bezela "gidari oro lagata" bere-kasa pentsatzen asteko. Ez aztu Kant bera ere lutertarra zala; lutertar zintzoa gaiñera'

Baiña bi sustrai oiek, —Birjaiotza-Protestalaritza—, sustrai zârregiak, antziñakoegiak ziran Argikuntzari sortzea emateko, XVII mendean giro egokia aurkitu ez balute. Giro ori "Ogeitamar-urteko-Gudu" zikiñak gertutu zuan. Eta, baita onen aurreko Erljio gудuek ere.

Protestalaritzaren sorkun;-teak, izugarrizko odolketak ekarri zituan atzetik' Esmalkalda'ko Gudatik asita Ogeitamar Urtekoa bukatu zan arte, ez zuan Kristaudiak pakerik izan. Eta azkeneko gudu au izan zan ankerrena eta gaiztoena' Izugarrikeri aundiak egin ziran gudate aietan, eta azkeneko ortan bereiziki. Jaungoikoaren izenean egindako zugarrikeriak! Jesukristoren Ebangelioa, —maitasunezko Ebangelioa—, babesteko egiñak! Lutertarrak, Katolikoak, Kalbindarrak..', danak izan ziran, ebangelioa salbatzeko!, gaizkille berdiñak'

Ori ikustean, jendea, ordurarte Elizetan izan zuan konfiantza galten asi zan. Kristau-Elizek aipatzen zuten Jainko odoltsu ura egiazko Jainkoa ez ote zan pentsatzen ere asi zan bateren bat. Edo beintzat odolez gorritutako Eliz aiek Jainkoaz itzegiteko izan zezaketen esku-bidea zalantzan ipintzen.

Beste batzuek bazuten Elizan konfiantza. Baiña Kristau-Eliza mila zati egiñik zekusaten-da, ez zitzairen iruditzen Elizaren Autoritateak Kristaudian pakea ipintzeko balio zezakeanik. Eliz batek erakusten edo agintzen zuana, besterik gabe zan beste Eliz guztiek ukatua. Izan ere, kristau bakoitzarentzat bere Eliza ez gaiñerako guztiak "deabruaren erreiñu" bait ziran! Izugarrizko utsunea utzi zuan Kristaudian Autoritatearen itzaltze orrek.

Autoritateagan konfiantza galdu ba'zan, nork erakutsi zezaiokean gizakumeari gizarte-pakerako eta Jainkoaganako bidea? Bat bakarrik izan zitekean irakasle ori: ARRAZOIA.

Elizen dotriñetan ustea galduaz gero, non aurkitu zitekean ain bearrezkoa zan bide ori? IZADIAN. Jakintza Berriek orduanxe idoroa zuten izadian, ain zuzen.

Bi gizonek sortu zuten Lenen Argikuntza: Erljiozko Argikuntza: Cherbury'ko Lord Herbert aristokrazikumeak Inghlanderrian; Ugo Van Groot legiztilariak Olanda'n.

Bi gizon auk ez zuten alkarrekin artuemanik izan, eta oso ezberdiña da bien oldozkera' Zearo kristaua, Groot edo Grozio'rena; Deista, Cherbury'koarena.

Cherbury'ko Jaunak, liburu-santu guztiak ukatu zituan, Bere usetze Izadia zan Jainkoak guri emandako Liburu Santu bakarra. Izadia-baitan Jainkoariburuz giza-arrazoiak ezagutu dezazkean egiak bakkarik osatzen omen dute egizko erlijioa: beste erlijio guztien azpian, guztiak batera alkarganatuaz, dagoan "Erljio Sakona" axaleko erlijio aien egiazko dogma guztiak bere altzoan gordetzen dituana'

IzadiErljio ori, arrazoa erabiltzeko gai diran gizakume guztiei omen dago irikia, eta erlijio orren legeak jarraitzea naikoa omen da ludi ontako salbamena eta, bestean, betiko zoriona lortzeko'

Orra nola sortu zigun Cherbury'ko Jaunak, Filosofian "Deismua" edo "Arrrazoi-utsetiko-Jainko-gurketa", esan oi zaion oldozkera.

Gogoeta ori, "De Veritate" izeneko liburu batean eman zuan argi tara; 1624'garren urtean. Sutan zegoan ordurako Ogeitamar Urteko Gudua (1618-1648).

Urrengo urtean, 1625'ean, agertu zan Olanda'n legiztiko liburuetan garrantzitsuenetako bat: "De jure Belli et Pa^p is", "Pake-Guduen Legea". Cherbury'ko Jauna baiña milla aldiz ezagunagoa da liburu eder onen egillea: Ugo Van Groot, edo "Grozio". Grotius esaten bait zion berak bere buruari lateraz'

Grozio kristaua zan bene-benetan; kalbindarra; zintzoa; pakearen maitalea, gizon ona eta xamurra, bai, baiña zuzentasuna babesten sendoa; Elizen batasuna billatzen nekaeziña'

Miñ ematen zion Kristaudia odoiustutzen ari zala ikusteak, eta Kristaudi orren pakea eta batasuna izan ziran bere bizitza osoko guria.

Munduaren pakea lortzeko ordea, naitanaiezkoa zuan Grozio'k danak ontzat artu zezaketen oiñarrizko ARAU bat: OiñarriLege bat.

Non ordea OiñarriLege ori aurkitu? Eliza-baitan? Ez noski, Eliza zatiturik bait zegoan; eta zati aietako baten Legea beste zati guztiek ukatzen bait zuten.

Izadira jo zuan Grozio'k oiñarrizko Lege orren billa' Izadiaren Legea, "Lex Naturalis", uste izan zuan izanen zitzaiola, mundu guztiari mintzatzeko ain bearrezkoa zuan ARAU nagusi ori: IzadiLegea gizakume orok ezagutzen duan eta ontzat artzen duan Legea dalako. Izan ere..!', "bi eta bi lau dirala beti ere egia dan bezela, Jainkorik ez balitz ere, egizkoa izanez litzake beti IzadiLegea", esan oi zuan.

"Jainkorik ez balitz izadiLegerik ere ez litzakela izango , eran-tzun oi zaio Grozio'ri' Bazekian ori berak ere. Orrela mintzatzen diran-ak ez dute Grozio'ren oldozkerarik ulertzen. Ark esan nai zuana, au besterik ez da: "Jainkoa sinistu nai ez dutenek ere, Izadi-legea ontzat artu bearrean aurkitzen dirala, eta, orregaitik, mundu guztiarentzat ba-lio duan legea dala Izadi-legea.

Ta ez zebillen gaizki' Betidanik zan, kristau-teologian, IzadiLe-gea balio aundikotzat eukitako gauza. Orri sakonak idatzi zituan Aki-na'ko Tomas Deunak ere IzadiLegeari buruz"

Tomas Deunarentzat, Izadi-legea Jainkoaren legea da: "Jain-koaren betidaniko NAIA izakien zertasunean mamitua" Ta, lege orren araura antolatu bear dugu gizakumeok gizarteko bizitza'

Bitori'ko Frantzisko ere, bikainki mintzatu zan Birjaiotzakoa IzadiLegeaz.

Grozio'k ez zuan Akina'koak eta Bitori'koak esandakorik ukatzen, lenen mailleko kristaua bait zan bera ere' Alare izan ziran olandarra-ren esakizun ura, —Jainkorik ez balitz ere, bi ta bi lau diran bezela, Izadi-legea egiazkoa izango litzakela—, arras gaizki ulertu zutenak' Gizarte-bizitza antolatzeke, Izadi-legea naikoa zala, eta Jainkoaren bearrik ez zala, ulertu bait zuten.

Orrela sartu zan "Ateismoaren" edo "Jainkorik-ezaren" atsa Ar-gikuntzaren muiñean' Ala ere, esan dezagun berriro, Jainkorik-gabeko "argituak" oso gutxi izan zirala. Kristautasuna utzi zutenak, geienak, deismora igaro bait ziran: Izadi-Erlijiora.

Ain zuzen, 1794'ean agertu zan IzadiErlijio onen bigarren Liburu Nagusia: Tomas Pain'ek idatzitako "Age of Reason" edo "Arrazoiaren Aroa". Liburu orrek dionez, jauregi baten antzekoa omen da izadia. Jauregi orrek erakusten omen digu bere Arkitektoa nolakoa dan. Jau-regi ori omen da Jainkoak bere Nortasunaz eman digun ezagubide ba-karra. Ez omen digu Jainkoak, bera nor eta nolakoa dan ezagutzeko, Izadia beste Liburu Santurik eman. Beraz, Izadi-legea bakarrik da Jainkoaren legea; eta izadi jakintzak bakarrik dira egiazko teologia.

Izadi-legea omen da Jainkoak eman duan lege bakarra. Eta ez nolanaiko legea! Jainkoa berbera ere azpian arrapatzen duana! Ez omen dezake bâ Jainkoak ain ederki egin dituan izadiLegearen atale-tatik bat bakarrik ausi!; bere burua ukatuko omen luke bâ ori egingo balu!

Orra nola desegiten dituan Pain'ek, tankatako batez, milagroaren posibilitate guztiak. Jainko kaxkarra, Pain'ek iragartzen digun Jain-

koa! Eroek eta zoroek egin oi duten lez, berak bere eskuak Jotzen di-tuan Jainkoa'

Alatagutziz, gauza bat ipintzen digu argi begien aurrean Pain'en izkerak: "argituek" izadiari izan zioten maitasuna, eta izadilegeari be-ti gorde zioten eraspena'

Ez zan asko zabaldu inglanderrian deismoa. Baiña izan zuan Ipar-Amerika'ra eta Europa'ra igarotzeko modua, ta gizaburu "argitu" askotan kokatu zan.

Orduantxe sortua da masoneritza ere, eta ez dezagun aztu. ma-soiek, Pain'ek bezela, Arkitekto Gurena esaten diotela Jainkoari; ezta ere, ez dezagun aztu, Laterri Alkartuen sorkundeko buruzagi asko ma-soiak izan zirala, ta, Europa'ko politikalarietan, bat baiño geiago ere bai' Izugarritzko arrakasta, uste ai dan baiño askoz-eta askoz aundia-go, izan zuan gaiñera Europa'ko "argituen" artean Ipar Amerika'ko Iraultzak, eta Iraultza artatik sortutako Laterri Alkartuen oiñarrilege "argituak".

Badu, izan ere, "deismoak" gogapen ederrik aski: Adibidez,

Giza-arrazoia Jainkoa ezagutzeko gai dala;

—Gizakume oren barnean kontzientzi bat badala;

Kontzientzi ori lagun, gizakume orok, zer dagoan gaizki eta zer ongi, ezagutzen duala;

Mundu onen ondorean beste mundu betikor bat badala;

Mundu onetan irabazi bear dugula betiko zoriona: Jainkoak beste munduan emango diguna;

Erljio guztiak badituztela, beren baitan, Egiaren puska ede-rak. (Jende gutxik ikusten zuan orduan azkeneko punttu au. Orregai-tik izan zuten Nobili eta Ricci iñakitarrek alako merezimendu aundia).

Deismoak ordea, "Rebelazioa" edo Jainkoak-gizadiari-itzegiñaz-erakutsiduana, eta Izadiz-Gaindiko bizitza, zearo ukatzen zituan; eta baita Elizaren maixutasuna ta izatea bera ere. Orregaitik katolikotasu-netik txit urruti gelditu zan.

Europa'ko filosofilarien artean, Rousseau eta Voltaire izan ziran deistarik aipatuenak. Rousseau, gero aztertuko dugu. Baiña, Argi-kuntzaren filosofian osa garrantzi gutxi izan zualako Voltaire ez dugu gelago aipatuko-ta, esan ditzagun itz bi berari buruz orain.

Pertsona bezela, gizon koxkorra izan zan Frantzisko Mari Arouet Voltaire. Orduango aundiki guztiak lotsarik gabe zurikatzen eta aien aurrean lurreraiño bizkarrezurra makurtzen igaro zuan bizia' Adimen

aundikoa zan, baiña batere sakontasunik gabeakoa; kaxkariña, axal-axaleko oro jakintzalea' Bere lumak jorratu ez zuan gairik ez da; baiña beti patxadarik gabe, irazezan, izparringietako idazlariek egin oi duten bezela, bere gogamenaren zorrotzetasuna adierazteko, irria sor zezaketen izkera ta idazkera erabiliak. Izan ere, orixe bait zan Voltaire: periodista, izparringilaria; iaioenetakoa; ziria sartzeko berdiñik gabea.

Gaur ez luke iñortxok aspertzeke bere liburu bat irakurriko, mami rik ez duten liburuak dira-ta' Baiña XVIIil mendean arrigarria izan zan Voltaire'ren aipua. Europa'ko Aundikiak, eta Erregeak berak, aren adiskidetasunaren egarri izan ziran; Aitasantu 'bateri bezela entzuten zioten ' Deitu ere, ala deitu bait zitzaion: "Ferney'ko Aitasantua"; Sui-zi'ko errixka ontara bildu zan bâ bere bizitzaren azkeneko urteetan.

Bazter guztietan irakurtzen ziran "Ferney'ko Aitasantuaren" liburuak; lekaidetik santuenak ebangelioa irakurri dezakean eraspenez. Orregaitik, naiz berak gogapen berri bat iñoiz sortu ez, —ez bait zuan ezer bererik Voltaire'k bere buruan—, lenen mailleko idazle trebe jostalari gizatxar oneri zor dio Argikuntzak punttu askotan bere zabai kunea: Voltaire'ri, eta beste idazle "argitu" frantziarrei. Auek izan bait ziran (Entziklopediaren bitartez batez ere), Europa'ko pentsalarien asmakizun bakoitza izkera ariñ, xamur, polit, dizdiratsu, eta errezez, txit ulert-errezez, jantzi zutenak' Ez ziran, berak, pentsalariak; baiña bai besteek asmatzen zutena era atsegiñean zabaltzeko izparringilari bikaiñak

* * *

Osa dezagun gure jarduketa au Argikuntzaren puntturik nabar-
menenak aipatuaz:

ARRAZOIA. Giza-arrazoi "argituak" ezin dezake utsik egin. Eta Arrazoia, edestia-barna eta ludia-zear, gizakume guztietan berdiña dalako, gizakume oro iritxi daiteke utsezintasun ortara. "Argitua" izatea besterik ez du bear ortarako.

Ez da Autoritatearen bearrik' Arrazoia utseziña dalako, gizakume guztiek ikusi dezakete zer dan egia eta zer dan ona. Eta zintzoa ere bai bait da Arrazoia, gizakume guztiak egongo dira on eta egia dala ikusten dutena pozik egiteko gerturik. (Orra or, "Anarkismo" edo "Agintaritzarik-Ezarako" bideak irikita).

—IZADIA. Arrazoiarentzat Libururik garrantzitsuena' Arrazoia utseziña bezela, aberastasunean agortueziña uste izan zuten "argituek" izadia.

MEKANIZISMOA, edo izadia eta gizadia mekanika utsezko makina dirala uste izatea' Makina bat bere osagaien bilduma utsa besterik ez dan bezela, Lateralria ere ez da Lateralrideren bilduma besterik. Autoritatea berriz, lateralrider guztien naimenen bilduma'

—BERDINTASUNA' Izadiak ez du gizakumeen artean bereizketarik egiten. Danak berdiñak eta danak senide sortzen ditu; iñorengana-ko menpetasunik gabe. "Askatasuna, Berdintasuna, Senidetasuna" izan zan iru margozko ikurriñaren bidez ikusgarri biurtua, Frantzi'ko iraultzaren ikur-itza.

BAKOIZKERIA: `indibidualismoa". Nork-bakoitzaren gidari guren bakarra nor-beraren arrazoia ba'da, nor-bera da bere buruaren egiazko jaun, epaille, eta errege bakarra; beste iñorreri konturik eman bear ez diona. Nor-bera da munduaren zilborra'

—DEMOKRAZIA, "erkala". Len ere ondo ezaguna zan erkala, "erriaren aala", teologilari kristaudentzat. Almen ori Jainkoagandik erriarengana eta erriarengandik Agitariarengana zijoala erakutsi zuten teologilariak. Orrela omen dago IzadiLegean ezarria' Bestelakoa izan zan "argituen" oldozkera. IzadiLegeak ez omen du politikariburuz ezer erakusten. Orregaitik, ain zuzen, politikaren antolaketan sartu nai ez dualako egiten omen ditu Izadiak gizakume guztiak berdiñak' Politika, gizakumeen naimen iareen eginkizuna omen da. Lateralria ere gizakumeen naimenak sortu omen du. Eta politika guztia eta Lateralria bera gizakumeen naimenen sorkuntza diran ezkeru, gizakumeen nai mena beste legerik ez omen da politikarako' Gizakumeen naimena omen da legea.

Errez ikusi daitezke pentsakera orren barrunbean erne-min zeuden arrisku gaitzak:

Arrazoia geiegi goratzeak, ots, "arrazoikeriak", gizonaren gaindik dagoan guztia ukatzera eramane zituane "argitu" batzuk.

—Bakoizkeriak berriz, gizakumea bera ukatzera. Ekonomiaren arloan bereiziki. Gizakumea osoro iare zala uste izateak, eta norberaren arrazoiak landa beste autoritaterik ez ezagutzeak "kapitalismoaren" ankerkerira eramane zuan gizadi berria. Errez lausotzen bait da edozei-ñen arrazoia dirua tarteko danean!

Alatagutziz lan ederra egin zuten "argituek" ekonomiaren barrutian' Esane ere esane daiteke Ekonomia "argituek" sortutako jakintza dala. Oral "argituen" ariketa kutuna izadi-jakintza izane zala; eta izadi-jakintzen arloan fisia eta kimia. Fisiaren bidez "makinismora" edo makina-arora eramane zuan Argikuntzak mundua. Kimiaren bitartez be-

rriz, arras bizkortu zituan nekazaritza eta burnilangintza. Matematika-lari "Argituek", beren aldetik, era berriak sortu zituzten dirua salerosketan erabiltzeko; "Erantzukizun Mugatutako Alkarteak" adibidez.

Ezaguna da gaiñera lurraldea obeagotzeko "argituek" izan zuten leia; lei orrek eraginda, bideak, ubideak, eta kaiak, egokiagotzen atsendenik gabe aritu ziran lanean. Beraiek asi zuten, "Indietako Lagundien" bitartez, uraz-aruntzko munduaren kolonizaketa ere.

Neurtu eziñ alakoak dira ekintza bikaiñ ortatik sortu zitzaizkigun aberastasunak'

Aberastasun oiek ordea ez ziran bear bezela zabaldu' Ez zitezkean gaiñera bear bezela zuzentasunaren araura zabaldu, ekonomian ez bait du liberalen usiez zuzentasunak zer egiñik. Ez aztu Argikuntzari ekonomiaren barrutian Liberalismoa esaten zaiola.

Argikuntzarentzat, ekonomia, matematikaren zati bat besterik ez da: matematika utsen zatia; etikarekin zer-ikusirik ez duana' Matematiketan, berriz, zuzentasunak tokirik ez izaki! Matematikaren legeak utseziñak dira; utseziñak eta zuzenak' Ez Eliza ez Laterria ez daitezke matematikaren arloan legeak ematera sartu. Egin nai izate utsa, parregarri izango litzake.

Izadijakintza danez, matematikaren beste edozein zatik bezela, ekonomiak ere baditu bere legeak: matematika-legeak: utseziñak eta zuzenak. Ez Laterriak ez Elizak ez dezazke lege oiek aldatu, matematikaren beste lege guztiak bezela aldakaitzak bait dira! Soilki aztertu, eza-gutu eta ikasi egin daitezken legeak; baiña ez, aldatu, edo beste era batera moldatu!

Gizakume orok badu ekonomia ikasi eta ekonomian aritzeko eskubidea. Eta Laterriaren eginkizuna, eskubide ori gizakume danentzat neurri berean eta askatasun berdiñean zaintzea da' Danentzat ekonomiaren landan baldintza berdiñak; danentzat askatasun bera. laretasun osoa Ekonomiaren legeen jokurako! "Laissez faire, laissez passer": "Egiten utzi, ibiltzen utzi" lareki.

laretasun ortan ekonomiaren legeak zuzen ulertu eta egoki erabiltzen dituana, ziur-ziurki iritxiko da aberastasun oparora. Aberastasuna, Ama Izadi naroak bere seme erneein ematen dien saria bait da! Orrela, IzadiErljio berrian, aberatsa, gizadiak eredutzat artu bear duan santu berria izanen da. Ori gertatzen zan Itun Zarreko judutarren artean ere, eta era berean pentsatu zuan Jon Kalbiñ'ek berak.

Bazuan, alaz ere, Argikuntzak, arrazoittantta polita Ekonomiarentzat askatasuna eskatzen zuanean, ordurarte aristokrazikumeek

izan zituzten zerga-ipintzeko-eskubide eta abantail orokorrak ezereztu nai bait zituan. Baiña ekonomiaren legeak alda-eziñak zirala iduritzen zitzaiolako, eta ekonomiaren gudian askatasuna danentzat berdiña izan daitekeala uste zualako, askatasun osoa eskatu zuan, ekonomirako, Argikuntzak, eta, ortan, uts egin zuan' Oianeko gudueta askatasuna ez daiteke pizti guztientzat berdiña izan; an, leoia da nagusi. Ekonomirako askatasun orokorrean ere indartsuak irten ziran nagusi, eta errez aldatu aal izan zituzten ekonomiaren legeak beren onturrerako eta erri landerraren kalterako' Orrela piztua dugu kapitalismoa; eta onen ondorio mingarri beltza: proletarismoa.

Ots, ordea! Akats oiek, naiz mardulak izan, ez dezakete "argituen" asmo zuzenik zikindu' Gai askotan izan zitzaigun gizadiarentzat, Argikuntza, aro zoriontsuago baten egunsentia. Jakintza eta langintza-gaietan adibidez. Eta baita politika eta soziologi-gaietan ere. Puntu askotan Argikuntzak, Grozio'ren bidetik, Akino'ko Donetomas'en eta Bitori'ko Frantzisko'ren gogoetak berbiztu bait zizkigun!

Ez zioten, adibidez, aitzaki aundirik jarriko Akino'koak eta Bitori'koak Amerika'ko Laterri Alkartuen oiñarrilegari'

Oiñarri-lege edo Konstituzio ori izanen da eskierki Argikuntzak politikaren eta soziologiaren arloan sorturiko ziturik ederrenetako bat. Gero ainbat Laterrietako oiñarrilegeetan eredutzat artua izan bait da! Bai azkar zabalduko zala Europa'ra demokrazia, eta demokraziarekin "errepublika-era", Ipar-Amerika'ko iraultzaren atzetik, demokraziaren eta errepublikaren izenak iguingarri egitera, Frantzi'ko Iraultza etorri ez balitz!

Billatu zezakean Elizak Argikuntzaren erakusketa "berri" aietan gai ederrik naiko Teologia erabeerritu ta bizkortzeko. Baiña, len esan dugun lez, ez zitzaigun aro artako Elizan teologilaririk sortu; ez zan ia ia santurik ere sortu; ezta mistikurik, gogo-gaietako idazle aundirik, mixio-ekintza berririk, eta apika erlijioso-anaidirik ere. Antzu bezela gelditu zan Eliza.

Osoro galdu zuten teologilariek asmamena. XIV mendeko aien antzera, "lengoek" esandakoaren ikasle eta irakasle biurtu ziran. XIV'ean, ala ere, izan zan Okarn bat, okerkeri askoren artean gauza eder bat baiño geiago erakutsi zuana' Argikuntza-arloan ez zan iñor aipagarririk agertu, teologiaren barrutian, Ligorio'ko Alfontso Deuna izan ezik, eta ura ere oituriztiaren arloan bakarrik ari izan zan, eta len-esandakoen-biltzaille geiago izan genduan, gauza eta gertakizun berrien ikerle baiño.

Bildurra zioten teologilariek berria izan zitekean guztiari' Ereji usaia artzen zioten berri agertzen zan orori' Antziñako; teologilariek teologiaz-jakin-daiteken-guztia erakutsi zutela sinisturik zeuden Argikuntzako teologilari eta eliz-gizonak; Trento'ren aroko teologilariekin betirako osoturik gelditu zala teologia, uste izan zuten; ezer geiago jakiterik ez zegoala; are gutxiago ezer aldatzerik.

Izan zuan ortan erru galanta Inkisizioaren gogortasunak! Baita "De Auxiliis" edo "Jainkoagandiko Laguntzei"-buruzko eztabaida ai perrikakoak ere, auzi ortara jo bait zuten, eskomikapenen bildurrik gabe, Elizako pentsalariek.

Ez gizadiaren erakunde zuzenerako, ez kristauen barruko bizitza zintzorako, deus ere balio ez zuan arazoa zan "Laguntzei"-buruzko arazo ura; baiña, bai egokia nork bere arrazoiketak-josteko trebetasuna erakusteko! Eta, ain zuzen, orixe izan zan batez ere Argikuntza-aroko teologia: "dialektika": arrazoiketarako trebetasuna erakustea: Argikuntza berak sortu zituan arazo berriei bizkarra emanaz, arazo zaarrak bein da berriro irauliaz jostaketan ibiltzea'

Alexander VII'a Aitasantu zala amaitu zuan 1657'an Lorentzo Bernini'k Erroma'n Kepa Donearen Enparantza bikaiña, zutabe liraiñeko bi beso zoragarriez inguratua. Lau zutabe-illara ditu beso bakoitzak, eta 182 santuen irudi, zutik, dakuskizu bi besoen gaiñean. Besartean gelditzen dan zelaiak 239 metro ditu luzean eta 196 zabalean. Barrokeraren eraiketarik ederrenetakoa da Bernini'ren zutabedia. Atzeko Jaurretxearekin eta onen erpiñeko kupula ikusgarriarekin gorputz bat osatzen duala, bera liteke, —Erroma'ko Kepa Deunaren Jauretxe osoa— Trento'ko Kontziliotik irten zitzaigun Elizaren irudirik egokiena: Sendoa, bikaiña, ederra, ikusgarria.', baiña gogortxoa, zailla, igi-kaitza, eta aski legorra.

Trento amaituta bereala ez zitzaizkion oraindik Elizari akats oiek ikusten, bizirik bait zirauten, artean, Kontzilioa piztu zuten kemena eta indarra, eta santutasun-gurari bizkorra. Baiña argi agertuko zaizkio gero, amazpigarren mendean, indar eta kemen aiek agortzen diranean.

Ta orrela irau du Elizak gure egunok arte. Egia da XIX mendean eta XX'aren asieran Goi-Biziaren ezetasuna bizkor asi zitzaiola berriro bere zaiñetan ernetzen. A! nolako santu bikaiñak sortu dituan azkeneko bi mende auen luzaroan! eta, a! nolako zitu ederrak eman dituan erlijio-anaidiak sortzen, apaizen ariketa bizkortzen, mixiolurretan ebangelioa zabaltzen, eta kristauen barre,-bizitza sendotzen! Baiña egiazko itxarkunde berria gure egunotan izan du: XXIII Jon'ek bilduta-

ko II Batikan-Kontzilioan.

Bitartean, mundua, Elizatik urrunduaz, gero ta geiago sekurari-tzatzen joan zaigu: jainkotasun-usaia galtzen' Argikuntza izan zan ain zuzen sekularizatze orren bidean munduak eman zigun lenengo urra-tsa, Birjaiotzako "gizazale" aietako batzuen zalantza ta kolokan ibil-tze aiek baiña milla aldiz benazkoagoa, larriagoa, bildurgarriagoa.

Jon XXIII'aren izpirituak ekarri dezake mundua Elizaren babese-ra. "Fuit homo missus a Deo cui nomen erat Joannis". "Izan zan Jain-koak bidalitako gizona; bere izena, Jon".

X IÑOZENTZIO (1644.1665)

Len aipatu ditugun iru Aitasantu sendizaleetako bat izan zan X Iñozentzio' Ala ere, aipatu bearra dugu orain, bere sendikeritza, anai baten alargunari eskubide geiegi ematea izan zala; eta ori, agure zalarik azkeneko urteetan egin zuala. Ez, beraz, garai aietarako pekatu aundia.

Izenez, Panfili'tar Jon Batiste genduan X Iñozentzio. VII Urban'en ondorean igo zan Aulki Donera' Otoizlaria zan; eta zuzentasunaren maitale sendoa. Orregaitik ain zuzen, zuzentasunaren maitale zalako, erabaki zuan Urban VII'aren illoba eta aren sendikoak, epaituta, bearrezkoa zan bezela zigortzea. Baiña Frantzi'ra alde-egin zioten aiek; eta VIII Urban Aitasantua Ogeitamar Urteko Guduan Frantzi'aren aldekoa izan zalako, bere babes-pean artu zituan Mazarino Kardenalak. Oroi Kardenal au izan zala urte aietan Frantzi'ko Agintari nagusia, beste Kardenala, Richelieu, il zanez gero. Eta Iñozentzio X'a il baiño lentxeago, barkapena ere lortu zien Mazarino'k, Aitasantua engandik, VIII Urban'en senditar aiei.

Aitasantu bezela, Aitasantu egokia irten zitzaigun X Iñozentzio. Jantsenitarrek sortutako ixkamilletan batez ere, gero ikusiko dugunez' Frantziko Jaurle zan Mazarino'r ere, bildur-gabe eman zion aurpegi, ala egin-bearra zuala iruditu zitzaionean.

Erroma'ko Errege lez, —aspaldidanik Erroma'ko eta Itali'aren gerraldeko Errege bait ziran Aitasantuak—, egin zuan lan ederrik X Iñozentzio'k ekonomia jasotzen. Zearo diruz ustuta utzi bait zizkion Urban VIII'ak Elizaren Laterriak'

Aitasantutzara igotzerakoan, Parma'ko Dukea altxa zitzaion, Aitasantu-Erregeei zor zien mempetasuna urratu nairik' Gogor erantzun zion Iñozentzio'k eta baita laister menderatu ere'

Baita're, egin zuan oiua, naiz alperrik, Ogeitamar urteko Gudua amaitu zuan Westfali'ko Pakearen aurka, pake artako erabakiak baliorik gabeak zirala esanaz'

Ta Westfali'ko Pakeak naigabe samiña eman ba'zion ere, eman zion pozik naiko 1650'eko Urte Doneak; jendetza aundia etorri bait zi-

tzaion Erroma'ra, urte ortan erromes. Barrokera oparoaren aldia zan ura-ta, diru asko urtu zan Erroma'n Urte Doneko jaiak al zan aberatse-nik irten zitezen' Ospetsua izan zan batez ere Españi'ko enbaxadaria irureun karroza edo pesta-gurdi apaiñen aitzinean egin zuan agerketa. Guda-leku guztietan zapaldua izan zan Españi'k, bere erria goseak zeukan Españi'k, bazuan oraindik dirurik naiko bere arrotasuna puz-tutzeko'

Itali'n bertan ere, orduantxe Napoles'ko jaurerria galdu ez bazuan Españi'k, Aitasantu-Erregeari eskerrak izan zan, aski neurri aundian; Iñozentzio X'ak lagundu bait zion Masaniello iraultzalariaren matxinada zapaltzen! Zorrak ordaintzeko lagundu zion noski Iñozen-tzio'k Españi'ri, Españi'ko IV Felipe, Konklabean, aide jarri zitzaioiako igo bait zan bera Kepa Deunaren Aulkira.

Konklabe edo Giltzapeko Batzar artan Frantzi'k eta VIII Urban'ek izendatutako Kardenal guztiek, Sacchetti Kardenala atera nai izan zu-ten Aitasantu. Benetan gizon egokia zan Sacchetti Aitasantutzarako; biotz, adimen, eta esku zabaleko gizona, bizitza zintzoko eliztarra, eta jakintsua, benetan jakintsua..., baiña Alborno Kardenal españiarrak, Konklabearen asieran bertan jaurti zuan aren aurka, IV Felipe'ren ize-
nean, "exclusiva" esaten zitzaion "itzulpenik-gabekoezeta". Irtenbi-derik gabeko eztabaida neketsuetan sartu ez zitezen, Konklabea aitorleak, Españi'ko Erregearen naia, arren, kontuan artzeko eskatu zien konklabekideei. Orrela atera zan Aitasantu Jon Batiste Panfilli, X Iñozentzio.

Arantz mingarria izan da luzaroan Elizarentzat, erregeek aitasan-tuen autaketan nagusi bezela sartu aal izate ori. ,Erregeen "absolu-tismo" edo "nagusitasun orokorraren" ondorio? Baleike; baiñan ez ori bakarrik. Bai bait zuten erregeek Aitasantu-autaketan eskua sartu nai izateko arrazoitxo bat. Eta baita bat baiño geiago ere beren ustez. Ikus arrazoi oiek:

—Bene-benetan uste zuan Errege aietako bakoitzak bere Jaure-rriko Elizaren zaindari zala. Ez da arritzekoa; Aitasantuek berak maiz gogoratzen bait zieten erregeei Elizaren "babesle", "laguntzaille", eta "zaindari", izatera bearturik zeudela bakoitza bere Jaurerrian' Ize-nak ere, alako izen ederrak eman zizkieten Aitasantuek Erregeei Erre-ge aiek Elizari emandako laguntzaren saritzat! "Rex Fidelissimus", zan Portugal'eko Erregea; "Rex Catholicus", Españietakoa; "Rex Christianissimus", Frantzi'koa. "Defensor Fidei", "Sinismenaren Ba-besle", izan zan izendatua Inghlanderriko VIII Enrike bera!

—Eta usteak eta izenak zokoan utzita ere, gertakizunek berak

Erregeei arrazoi ematen zietela zirudian, zori txarrez' Izan ere, danen gogoan zeuden oraindik, Birjaiotzakoan Kardenalek aukeratu oi zituzten Aitasantu doakabe batzuen izenak. Ez ote dira orain ere Kardenalek beste orrenbeste egiten asiko, Aitasantuen autaketa nik nere ardurapean artzen ez badut? —pentsatzen zuten Errege aiek'

Ez da noski arrazoia; lendabizi, Erregeak Kardenalak baiño fida-garrigoak ez ziralako; eta bigarren, Aitasantu doakabe aien autaketa, neurri aundian beintzat, Erregeek Giltzapeko-Batzarretan eskua sartu zutelako egiña izaten zalako' Baiña naiz egiazko arrazoia izan ez, bazuan arrazoi txurarik aski, loikeri guztien azpitik beren biotzen barnean egiaz Kristau ziran Errege aientzako. Ez ziran Erregeak osoro gezurti Eliza zaindu eta gorde nai zutela esaten zutenean. Izan ere, Elizaren zaintza zala, erakutsi zitzaien umetatik, Errege baten lenengo eginkizuna eta Karloman "Elizaren Zaindari Nagusia, ipiñi oi zitzaien Errege Kristauaren eredutzat' Karloman..., eta Kostantino!

—Ekonomiaren aldetik ere bazituzten Erregeek arrazoiak. Abiñon'go Aitasantuek Eliza zentralizatuta Elizako diru guztiak Abiñon'go kutxetara biltzen asi ziran ezkerok bildurgarri egin ziran Erregeentzat, dirutza aundia irtetzen bait zitzaien Jaurerrietatik' Lais-ter asi ziran Erregeak Aitasantuekin asarretzen diru-irtetze ura zala-ta. Egokia zirudian, beraz, Errege bakoitzak, bere jaurreriko dirua Jaurerribarruan gordetzeko, bere gustoko Aitasantua aukeratu nai izatea. Diru-arazoak errezago konpontzen dira bâ, Aitasantu adiskide batekin, Aitasantu etsaiarekin baiño!

Elizako karguetarako gizonak izendaratzekoan berriz, ikusi dugu, Birjaiotzako denboran, Errege kristauek izendatutakoak, Aitasantuek aide eta adiskide-tartean izendatu ai zituzten aiek baiño obeak izaten zirala. Ori apalki aitortu-bearrean aurkitu gera. Ta ori bazekiten orduan Erregeek ere. Ta bildur zioten gaiñera Aitasantuen sendi eta lagunarteko gotzai diruzale aiei.

Laterri bateko Errege izateak ere ez zion on aundiegirik egiten, —arazo antan—, Aitasantuari. Maizegi sartu oi ziran Aitasantuek, Errege lez, politikazko eskamilletan eta guduetan, beren aberastasunak naroki erabilliaz eta beren gudaroztea borroketara jaurtiaz. Ori orrela izanik, ez al zan legezkoa Errege bakoitzak etsai ez baiña, gudan, lagun izan zezakean Aitasantu bat aukeratu nai izatea?

—Aitasantuen animei-buruzko almenari, —eskomikapenari eta interdikoari batez ere—, bildur aundia zioten Erregeek. Eskomikak berekin eraman oi zuan Errege eskomikatuari erregetza kentzea. Zigor gogorra eta arrisku tamala, bere mendeko guztiak katolikoak zituan

Erregearentzat. Ta aipatu dezagun, naiz negargarria izan, len ere bere tokian aipatu genduana: Aitasantu batzuek, eskomika nolako aritasunez erabili zuten alegia' Etsairik bildurgarriena izan zitzaiokean beraz Aitasantua Errege Kristau bateri' Batez ere, Teokrazia oraindik Kristauen buruetan aski errotua zegoala oroitzen ba'dugu; Aitasantuek beintzat aski ziur uste zuten mundu guziko Errege zirala, eta Jainkoaren ordezkari izateak zemakien Erregetza Guren eta orokor orren arauz munduan edozein errege jarri eta kentzeko eskubidea bazutela. Giro ortan zu irakurle Frantzi'ko Errege edo Parma'ko Duke edo beste edonungo Laterri-Buru izan ba'ziñan, ez al ziñan al zenduan guztia saiatuko Giltzape-Batzarreko Kardenalek zure gustoko Aitasantu bat aukeratu zezaten? Bâ, orixe bera egiten zuten orduango Erregeek ere'

—Erljio utsaren aldetik ere kezka garri gertatzen zitzaien askotan Erregeei Aitasantuen jokaera: amaitu-berria zan Eun Urteko Gudian VIII Urban'ek erabilitakoa, adibidez. Gudu Done batean ari zirala uste zuten Españi'ko Erregeak eta Alemani'ko Inperatoreak. Uste ortan ustu zituzten diruz eta odolez, protestalarien aurka, beren Jaurreriak. Alde izan zitzaizkien ordurarte Aitasantuak, baiñan ez orduan VIII Urban. Bazituan onek protestalariekin bat eginik gudan zebillen Richelieu'ren aurka ez altxatzeko arrazoiak, baiña Alemani'k eta Españi'k ezin ulertu izan zituzten arrazoi oiek eta Protestalarien alde ari zala Aitasantua bera pentsatu zuten. Alemani'ko eta Españi'ko edes-tilari katolikoek ere luzaroan ezin izan diote Urban VIII'ari alako politi karik barkatu.

Ez gaitezen beraz arritu Erregeek Giltzape-Batzarretan muturra sartzeko sentitzen zuren zaletasunaz; ezta ori egitean Erregeek beren eskubideen alde eta Eliza berberaren alde ari zirala uste izateaz; Errege batzuek beintzat, ez bait gera danetaz ori esatera ausartuko.

Ta, esan dizudan ori guzia kontuan artzen ba'duzu, aisa sinistuko didazu Españietako Erregea izan zala Aitasantuen autaketan era nabarmenean, lendabizi eskuak sartu zituana. 1644 Giltzape-Batzarrean entzun zan aurreneko aldiz aren oiva, naiz Teen ere, aurreko konklabe batzuetan ere sudurra sartu naiean ibill . Laister eginkizun ontan ai kartu zitzaion Frantzi'ko Erregea. Bi Errege auek baztertuarazi zituzten 1670'ean Aulki Donerako txit egokiak ziran gizonak. Urte batzuk geroago, 1691'ean, Inperatorea izan zan, orain aldereetan daukagun bateri aitasantutzarako bidea eragozi ziona.

Alatagutziz, aski katolikoak bait ziran Erregeak Aitasantu ustel bat aukeratzeko, Aitasantutza ez zan Birjaiotzako nasaikerira edo Burni-Mendeko illunpera jausi' Baiña, zati ederrean Errege aien erruz,

ez zuan Elizak Argikuntzakoan Aitasantu argi, bizkor eta kementsu bat izan; ez bait zuten Erregeek orrelako Aitasanturik nai. Ikusten zuten bâ orrelako Aitasantu batek Elizari iaretasun osoa eman naiko zio-la eta iaretasun ori, ordura arte Erregeek Eliza-baitan izan zituzten eskubideen amaia izanzen zala, eta eskubide oietatik politikarako sortzen zitzaizkien onturreak betirako galtzen zituztela'

Ori guzia orrela izanik, ez zera noski arrituko, Argikuntza-aroko Aitasantuak, gizon onak eta eraspenkoiak bai, baiña motelak, aulak, giartasunik eta trebetasunik gabeak izan zirala ia danak, esaten ba'di zut

Ez ziran, ez orixel!, bi mende aien luzaroan Eliza gobernatu zutenak, Elizak orduan zituan gizonik argienak eta yayoenak izan! Ezta santuenak ere!

gr le

Totalismoaren Lenen•Sustraiak.— Gure Aitasantu onen denboran, X Iñozentzio'ren denboran, asi ziran zabaltzen Inghlanderriko Thomas Hobbes'en gogoetak; orduantxeakoak bait ditu bere idaztirik aipatue-nak: "De Cive" ("Urikideaz"), (1642); "Leviathan" (1654); "De Corpore" ("Gorputzaz"), (1655), eta "De Homine" ("Gizakumeaz"). Elizaren Edesti bat ere idatzi zigun ("Historia Ecclesiastica"), Argikuntzako gi-zakumeak, —Birjaiotzako beste aiek bezala—, erlijio miñak jotako gi-zakumeak izan bait genituan.

Argikuntza-aroko idazle guztietan, Hobbes da zakarrena. Filoso-fiaren arloan, Okam frantziskotarraren oiñordekoa: nominalista; ez or-dea soziologiaren; Okam demokraziale izan ba'zan, "despotismoaren" zalea, indarkeriaren aldekoa, "totalismoaren" aitzindaria, izan bait zitzaigun Hobbes'

Esan ere, esan dezakegu Hobbes izan zala "despotismo" edo erregeen "bakar-aginduzalekeriari" filosofizko mamia eman ziona, eta orduango erregeen "absolutismo" edo "orotan-agindu-nai-izateari" oiñarriak ipiñi zizkiona.

Erlijioz, "deista" izan genduan Hobbes'

Aztertut'itzegun bere oldozkerak, arrakasta aundia izango bait du-te, ondorean, liberalismotik marxismora eta positibismotik anarkis-mora, kristautasunaren ezkerrera eta eskubira sortuko diran aburu-bide guztietan.

—Materialismoa: izate-dun guztia "izpirituz gabeko gorpuzki" utsa dala usteizatea. Bizia bera ez da gorpuzki utsaren igikundea bes-

terik: gorputzen mobimentua. Gizakumeok ere beste izaki guztiak bezalakoak gera: gorpuzki utsak.

—Mekanizismoa: "tramankulukeratasuna", —itz basati au ontzat ematen bazait—, ots, izadi osoa tramakulu baten antzekoa dala uste izatea: aneika eta aneika zatiz osotutako tramakulua; beti-eta-beti, gelditzeke, ari eta ari dan tramakulua' Gizakumeok, tramakulu orren zatitxoak gera.

—Utilitarismoa: "onurakortasuna". Bere onturrea aurkitu nai du izatea duan guztiak' Gizakumearen elburua ere, bere onturrea da, bere zoriona, bere atsegiña, gozamenaren atsedena.

—Despotismoa. "Despotes" eta "turannos" gauza bera dira ele-neraz; lateraz, "tyrannus": "bakarrik agintzen duana"; "lege guztien gaindik agintzeko" almena duana'

Hobbes'ek ez du sinisten Izadia ona danik. Ezta Gizadia ere' "Homo homini lupus", "gizakumea gizakumearentzat otso", amen da. Gaiztotasun ori berez omen datorkio gizakumeari; bere izadiaren zertasunetik' Ta, beren gaiztakeri ori ondo ezagutzen zutelarik, bata bestearen bildurrak eraman omen zituan gizakumeak Laterria asmatzera.

Laterria ez da, beraz, izadiak sortutako gauza, gizakumeen naimen iareek sortutakoa baizik. Bildurrak eraginda, baiña naimen iarez, auzokoengandik nork bere burua babesteko, **Itunben** iare baten bidez eman bait zioten gaizakumeek Laterriari sortzea.

Bildurrak eraman zituan ortara; berez gizakumea "antisocialis" omen da bâ, "alkarte ooren etsaia", berekoia, "individualista", "bere buruaren maitalea"; eta bere atsegiñ utsaren billatzaillea, naiz ortarako indarra erabilli bear izan'

"On" atsegin-damaikionari esaten omen dio; "txar" eta "gaizto" berriz miñ-egiten dionari'

Ortaz, basapisti utsa da, Hobbes'en usiez, gizakumea: bidutzi bat; "lebiatan", ots, Idazti Doneko "erensugea" Ta, indarra amen da berriz gizakumeok osatzen dugun gizadiaren legea.

Alatagutziz, bai omen du serbait ona gizakumeak: Arrazoiak' Ta arrazoiak erakutsi omen zien gizakumeei, ezin zitezkeala beti otsoke-rian bizi; alkar artzea bearrezkoa zutela, beren neurririk gabeko askatasunari zentzuzko neurri bat ipintzeko. Ez bait zan bestela posible bizia

Ta, nork bere berekoikeriari neurriipintze ori lortzeko Itun edo tratu bat egin amen zuten danen artean, bakoitzak bere almen, esku-bide, eta askatasuna, une berean sortu zuten Agintzaritza orokor ba-

ten eskuetan ipiñiaz.

Itun aren bidez danak alkarrekin bizitzea erabaki zuten. Orrela sortu zan Laterria.

Itun aren bidez, agintari bat izendatu zuten. Orrela sortu zan Laterrietako Almena, autoritatea.

Itun aren bidez, izendatu zuten agintari orri eman zizkioten len bakoitzak bere zituan eskubide, almen, eta indar guztiak. Orrela sortu zan despostismoa.

—Ausolutismoa edo "almen orokorra". Despotismoa eta ausolutismoa ez dira gauza berdiñak. Aurreneko ura, "iñorri konturik eman gabe agindu aal izatea" da; bigarren au, "edozein gauza agindu aal izatea" "Aginte-kiderik ez izatea", ura; "aginte-neurri edo mugarik ez izatea", au.

Hobbes'en aburuz, Izadiak, "jus in omnia", "eskubide orokoia", ematen omen dio gizakume bakoitzari jaiotzean. Baiña gizakumeek, Laterria sortzerakoan, Agintariari igaro omen zioten eskubide orokor ori. Obeto esateko, Agintariari ematen omen dio orain Izadiak len gizakume bakoitzari emandako "jus in omnia" ura, gizakumeek, Laterria sortzean, "jus in omnia" ari uko egin ziotelako. Zuzenean ematen omen dio gaiñera: bitartekorik gabe. Agintariak ez du beraz agintaritzaren erriagandik artzen, zuzenki izadiagandik baizik. Agintaria ez da iñoren ordezkari, izadiarena izan ezik; ez beintzat erriarena. Agintariak ez du iñoren izenean agintzen, izadiarenean ezik; ez beintzat Erriarenean' Berak ditu eskubide guztiak Agintariak; zuzenean izadiaren eskuetatik artuak! "Eskubide" bat besterik ez zaio erriari gelditu: Agintariari apalki obeditzeko eskubidea. "Gogorra, —esango luke Hobbes'ek—, baiña, pakerik nai ba'dugu, naitanaiezkoa"

Nola sortu ziran aburu latz oiek Hobbes'en buruan?. Oro dezagun, nola zegoan XVII mendeko Inghlanderrria: eten-gabeko gudateek porrokatua' Pakea nai zuan jendeak Inghlanderrrian!

Gudate aiek gaiñera, anaiarteko borrokak izan ziran' Orregaitik, Agintari indartsu gogor batek bakarrik ekarri zezakeala pakea, uste izan zuan Hobbes'ek; laterkide danen berekoikeri guztien gaidik, mendekoen iritzi ezberdiñei kasorik egin gabe, berak bakarrik, fñori kontu-eman bearrrik gabe, agindu zezakean Agintari gogor batek.

Au begien aurrean daukagula errez ulertu aal izango dugu Hobbes'ek Agintari gogor orren eskubideetaz dioskuna:

—Agintariak ez dezake, ezta gaizki jokutzen ba'du ere, agintaritarik galdu. Erriak ez dazaioke agintaritarik kendu'. Agintari okerren

aurka jeikitzeke eskubidea ere galdu bait zuan erriak, gizartean bizitzeko, Itun ura egin zuanean.

Siniskeri iñoz batek naasi zion burua Hobbes zakarrari orrelako zentzugabekeriak esateko: Jainko biurtu. zuan Hobbes'ek "Autoritatea", Agintaritzat- Utseziña zala Autoritatea, uste izan zuan: utseziña eta mirariegillea: Gizakumea Jainko biurtu zezakean Jainko aalguztiduna!; bein Autoritateak gizadiaren zuzendaritza artuz gero, len "gizakumearentzat otso" izandako gizakumea, Jainkoa izaten asiko zala bait zion! "Gizakumea gizakumerarentzat Jainko"!

—Laterriaren elburua laterkide guztien zoriona dala esan zigun Hobbes'ek, eta ez zigun gezurrik esan. Baiña elburu ori lortzeko, Agintariaren almena "Auctoritas Absoluta" izan bear omen du, eta mende-koen erantzuna, "Oobedientia Absoluta": neurri-gabeko almena. neurrigabeko menpetasuna".

Dakusazunez, mando biurtzen zuan Hobbes'ek gizakumea: Agintariaren serbitzurako zamari!

Izkera ere zakarra bait zuan, izkera orren aurka izan zituan "argituak" asarre. Baiña izkera orren azpiti, sakon sartu ziran Argikuntzaren barnera politikolari zakar aren pentsaera bat baiño geiago, eta berb zturik ikusiko ditugu Locke'ren filosofian, Rousseau'ren soziologian, eta geroagoko ezker eta eskubiko totalitarismo eta fatxismo guztien mamian.

ELIZEN BATASUNERAKO SAIAKETA

Ez zan berria protestalarien eta katolikoaren artean, elizen batasuna lortzeko leia, egin bait ziran ortarako saioak Trento`ko Kontzilioaren aurretik ere.

Kristau guztiak ez ziran, Jainkoari eskerrak, kristaudiko auziak zuzentzeko eriotza eta guda erabiltzearen aldeko' Pake-zale aiek orde, askotan, sinismenaren egiak moztu eta biurrituaz osa nai izan zuten Elizen arteko batasuna. Baiña batasun ortatik irten zitekean Eliza Batua, ez zan Kristo'k sortu zuan Eliza!

Giroak ere ez zeuden orduan, ez orixe, lenen orduko ameslari pake-etsu aien asmoak ontzat artzeko. Ezpata zan, giro aietan, agintarien eta zuzendarien arrazoia, edo, beintzat, arrazoia aurrera ateratzeko argumenturik erabiliena.

Esan dugu Aitasantuak ez zirala igikunde artan sartu. Baiña zintzotasunari uko egingo genioke, sartu ez ba'ziran ere, aurka beintzat ez zirala jarri esango ez bagendu- Areago oraindik. Izan zan. naiz ixillean jarduketa aiek ontzat artu zituan Aitasantu bat baiño geiago.

"Irenistak" esan oi zitzaien batasun-zale aiei. Gaur badu itz orrek, zorrozkerizaleen ezpainetan batez ere, alako zentzu okerraren aztarnatxoa; eta ez arrazoirik gabe; gaur-egun, askoren izkeran, itz orren azpian, eliz eta sinispide guztiak balio berekoak diralaren ustea bait dago izkutuan. Orduan ez zuan zentzu okerrik-eta, pakearen bidez eliz guztien batasunaren billa zebiltzanei, danei, esaten zitzaien "irenista".

—Gorka Wintzel izan zan, garai artan, aurrenekoa (1501-1571). Ez, sotiltasun aundiko gizona' Eliz batetik bestera ibilli ondorean, katoliko il zan, azkenean. Ez zuan batasun-bidean ezer aundirik lortu; baiña bera izan zan aro artan aurrenekoa-ta, merezi du aipatua izatea.

—Garrantzi aundiagokoa dugu Gorka Kassander belxikatarra (1513-1566). Itzal aundiko idazlea. Frantzi'ko Katalin Medizi'tar Erregeordezkoak eta Alemani'ko I eta II Fernando Inperatoreek ere eskatu zioten laguntza; uste izan zuten bâ, Kassander'en pentsaerak balioko-
-edo zuala protestalarien eta katolikoaren artean pakea lortzeko.

"Consultatio" edo "Itaunketa" izeneko idazti batean aurkeztu zuan Kassander'ek pentsaera ori. Ikus bere muiña:

—Eliz guztien gaindik Eliza bat bada.

—Bosgarren mendean puskatzen asi zan arte, bat eta bakarra izan zan Eliz ori.

—Lutertarrek eta kalbindarrek adituko balute Elizaren Garbitasuna antziñako Eliz bat eta bakar aren izakerara itzultzea besterik ez dala, egiñik legoke besterik gabe batasuna.

—Kristau guztiek Kristo sinisten eta Kristo maitatzen duten biartean, zabalik dago. dana-den, alkarkunderako ate nagusia.

—Aurreneko bost mende aietako sinispidera eta tradizio edo "agozko erakusketa eta oituretara" itzuli bear dute Eliz guztiek.

—Agoz-agotko dotriña zaar edo "tradizio" ura, idazti Doneen azalpena amen da' Orregaitik, Eliz danek naitanaiez ontzat artu-bearra.

—Eliza Katolikoak ez omen lituzke, sinispenarentzat garrantzi aundikoak ez diran gaiak ain estuki artu bear. Apaizak ezkontzea, adi bidez, eta kristau guztiak ogiaren itxurapean ez ezik ardoarenean ere Jauna artu aal izatea.

Katolikoak izan zan beti eta katoliko il zan Kassander'

Trento'ko Asabek ezagutzen zituzten aren oldozketak, baiña ez zituzten Kontzilioan aintzakotzat artu.

Aski kukildurik gelditu ziran, ori ikustean, irenista katolikoak. Baiña 1570'ean kalbindarren bataioa Eliza Katolikoak ontzat artu zuan, zuzpertzat zan berrero aien itxaropena, naiz Kassander'en idaztia li buru debekatuen zerrendan sartua izan'

—Protestalarien artean Hemstendt'eko Gorka-Kalixto'k jarraitu zuan Kassander'en aria. Lutertarra zan, eta miñ ematen zion protestariariak ere beren artean aiñ asarre ikusteak. Izan ere, alkar ezin ikusirik zebiltzan lutertarrak eta kalbindarrak. Auek ziran, geienbat protestalariaren bi adarrak bateratu nai zituztenak, baiña lutertarrak ez zeuden ezertan ere amorerik emateko prest, ordurako osoro gogortua eta zaii dua bait zegoan beren teologia. Altaguztiz izan zuten, protestalariena ez ezik kristau guztien batasuna gura zuan teologilari bat: Gorka-Kalixto'

Kassander'entzat bezala, "Antziñako Eliza" da, Gorka-Kalixto'rentzat ere, egiazko Eliza.

Oranxe'ko Kontzilioaraiño iraun omen zuan "Antziñako Eliz"

orrek, ots, VI mendean, —529'an—, erdipelajiotarren aurka egin zan Kontzilio artaraiño. "Consensus Quinqueseularis", "Bost Mendeko Siniste-Berdintasuna", esaten zion bost lenen-mende aietako kristau guztien batasunari. Oranxe'ko Kontzilio ura ezkerero erakutsi dana omen dugu batasun ura porrokatu duana' A!; eta... Aitasantuen geiegizko jauntxokeria!

Gorka-Kalixtoren izkera, —protestalari zar aietako bat izaki!—, Kassander'ena baiño gordiñagoa eta latzagoa da.

Egiaz lutertarra zan Gorka-Kalixto. Baiña ala ba'zan ere, laister gaitzetsi zuten Lutertarrek, bera oartzeko infernuetara botatzen bait zuan Gorka-Kalixto'k lutertasuna' Zergaitik? Gorka-Kalixto'k egiazko sinispide bakar lez aurkezten zuan, "Bost Mendeko "Consensus" edo "Kristau Guztien Siniste Berdin" artan, "salbamena fede utsaren bitartez" lortzen dala dion dotriñik agertzen ez dalako!!!

Alatagutziz izan zuan Gorka-Kalixto'k, Kassander'ek bezala, osperik ugari. Poloni'tik, IV Bladislao'k deitu zion, Baleriano Magni buruñurdun kalbindarrarekin eta lutertarrekin eratutako batzar batera. Aita Magni au, arastokrazirik garaieneko semea, eta frantziskotar apala, Boemi'ko apostolurik bikaiñenetakoa izan genduan' Boemi'tik Poloni'ra igaro zanean, kalbindarrek Poloni'n zuten izlaririk yayoena ekarri zuan Eliza katolikoaren altzora: Nigrino, Dantzing'eko sermoilari ospetsua'

Urduritasun aundia sortu zuan kalbindarren artean, Poloni'n, Nigrino'ren aldakuntzak, eta asko ziran kalbintasuna utzita katolikotasunera itzuli ziranak.

Egin zan, Torm deritzan urian, Erroma'ren baimenarikin Magni'k eratutako batzarra; baiña, Erroma'k aurretik iragarri zuan bezala, ez zan jarduketa artatik ezer garbirik atera.

Ez bait zan, izan ere, zuzena irenista "antziñazale" aiek zerabilkiten bidea! Aurreneko bost mende aietako "Tradizioak", Idatzi Deunaren azalpena dalako ontzat artua izan bear ba'du, era berean ontzat artua izan bear bait du ondorengo mendeetako tradizioak, au ere Idatzi Deunaren azalpena dalako!

Oroi: Elizaren izkuntzan, "traditio", Idatzi Deunetik landa Elizak Egi-Sinisbearra lez erakusten duana da. Ta, lenen bost mendeetako Elizak erakusketa orl egiteko eskubidea baldin ba'zuan, era berberean izan bear du eskubide ori bera ondorengo Elizak ere.

Ori guzia egia dalarik, aitortu dezagun ala ere, "antziñazale" aiek borondate oneko gizonak izan zirala; zintzoak; asmo zuzenez beteak.

Ez zan nolanaikoa izan, asmo oiek aurrera ateratzeko jasan bear izan zuten erasoa.

—Frantzi'n beste erabatera antolatu ziran pakezaleen artean protestalariekingo arremanak, batez ere Sales'ko Frantzisko'k, Paul'eko Bixente'k eta Berulle Kardenalak Frantzi'ko katolikotasuna ber-indartu zutenez gero. Badakizu, Frantzi'n, protestalariak kalbindarrak zirala: ugonotak. Bâ, Frantzi'ko "irenisten" solasen elburua zeneduan "elizak bateratzea" izan, kalbindarrak ostera katoliko biurtzea baizik, eta garaipen aundiak (ortu zituzten arlo ontan'

Badira, garaipen oiek Richelieu'k nai izan balu aundiagoak izan-goz zirala esaten dutenak, —alemaniar eta españiar edestilari katolikoak batez ere—, eta ona zergaitik: Roxela'ko uria galdu zutenean, guztiro kuzkurturik gelditu omen ziran kalbindarrak, eta naikoa omen zan orduan Richelieu'k katoliko egin ziran kalbindar "predikatzaileei" diruz lagundu izatea, Frantzi'n kalbintasuna erabat ezerezteko.

Bada norbait, garaipen ori Richelieu'k naita atzeratu zuala diona ere' Bere bizitza dizdiratsua era bikaiñean amaitzeko, Sarkaldeko Elizaren Patriarka edo Arbaso izan nai omen zuan Richelieu'k. Ori omen zan bere asmoa' Eta bere buruaren goratarre ori lortu zezakean unerako atzeratu omen zuan, berariz, Frantzi'ko Kalbindar Elizaren katolikotasunera biurtzea!

OiñarriTik gabeko asmakizun ustelak, danak. Etsai asko izan bait ditu Kardenalak, Españi'n, Itali'n, Alemani'n, eta baita Frantzi'n ere. Askok ez diote oraindik Ausburgetarren aurka borrokan sartzerik bar-katu.

* * *

Bearbada, batasunaren bearra geiago sentitzen zan protestalarien artean katolikoaren artean baiño.

Badu ortan Trento'ko Kontzilioak zer-ikusirik.

Bikainki marraztu eta margoztu zuan Trento'ko Kontzilioak ELIZAREN edertasuna. Ikusi zuten katolikoek Elizaren edertasun ori, eta berari begira gelditu ziran pozik. Baiña, protestalariak ere ikusi zuten Eliz eder ura, oartu ziran edertasun aren oiñarria batasuna zala, ta batasunaren gurari bizia sortu zitzaizen erraiñetan. (Ots: "katolikoak" eta "protestalariak" aipatzean, katoliko eta protestalari erne eta ardurasuetaz ari gera)'

Protestalari arduratsu eta oartuetakoa izan zan Jon Kepler izarritilaria. Ain batasun-zalea izan zalako, protestalariak berak "esko

mikatu" zuten.

Kepler ez ezê, oso gaizki ibilli zan, protestalarien eskuetan, Kepler'en ama zarra ere. Sorgiña zala-ta sutan iltzera galdua izan zan bâ Witemberg'en egindako epaiketa batean' Bai; Witemberg'en: Martin Luter'ek protestalaritza sortu zuan uri artan bertan. Semeak berak etorri bear izan zuan ama galdetatik gaizkatzera!

Kristau zintzoa izan genduan Kepler. Egunero otoitz egiten zuala "pro tripliciter divisae Ecclesiae unitate", —idatzi zuan 1618'an—: "Iru zati egindako Elizaren batasunaren aide".

Jakob l'ak Inghlanderriko buruntza artu zuanean, Errege oni eskeiñ zion bukatu-berria zuan "Harmonia Mundi" ("Ludiaren Egokitasuna") deritzan liburua. Zergaitik? Jakob l'a Mari Stuart erregiñ katoliko "martiriaren" semea zalarik, mundu guztiak, —eta Kepler'ek ere bai—, Errege arek Inghlanderriko kristautasunaren batasuna eg ñen zuala uste zualako!

Inghlanderria aipatu dugu' Aipa dezagun Inghlanderrian batasunaren aide lan egin zuan De Dominis gotzaia ere' Gizon au, Spalato'ko goigotzai izan ondorean, ostelari edo protestalari biurtu zitzaigun. Bera gotzai zalarik, gotzaiak ip ñi zituen lortu-bearra zan batasunaren oiñarri. Gotzaien arteko alkarte omen zan Elizen alkarterako bidea. Gotzaien alkartasuna lortzea zan, beraz, aren ustez lenengo eginkizuna. Ez zigun esan De Dominis gotzaiak, presbiteroutsezko-Eliz-kalbindarra beste Elizekin nola alkartu pentsatzen zuan'

- zuan bâ batasuna, kalbindarren artean, batek baiño geiagok! Auen artean, Ugo Van Groot dugu danetan ospetsuena. Grozio idatzi zuan beti berak, bere izena lateraz' Edestian izan dan legiztilaririk argienetakoa izan zan eskierki. Berak, Bitori'ko Frantzisko'ren ikasletzat euki zuan, pozik, bere burua. Kristaua bikaiña, eta biotz garbiko gizona, benetan.

Espetxera sartu zuten kalbindarrek Olanda'n; ez da arritzekoa, Ogeitamar Urteko Gudua garretan zegoalarik, Aitasantuari antikristo deitzea biurrikeri aundia zala esan bait zuan!

Olandarra zan Ugo Van Groot. Espetxetik atera zanean, erbestera jaurti zuten bere aberkide kalbindarrek. Alemani'ko Rostok'en jarri zan bizitzen; eta an il zan, aberritik urruti, ekumenismoaren aitorle.

Ugo Van Groot izan zan kalbindarretan ekumenezalerik aundiena; eta baita Argikuntzaren gurasoetan garrantzitsuenetakoa ere. Bere lagunak bai, bere lagunak egin ziran katoliko; baiña bera... kalbindar il zan. Arrigarria izaten bait da beti Jainkoagandiko Graziaren ari

neta!

—Ekumenismoaren edestian oroitzik maitetsuena merezi du "Hannover'ko Bazkunak" Bazkun artako alkarrizketa sakonetan orduango bi gizonik ospetsuenetakoez artu zuten parte: Bossuet, izlari rik onenak, eta Leibnitz, filosofilaririk ospetsuenetako batek' XI Inozentzio ere, Argikuntza-aroko Aitasanturik jakintsuena, borondate osoz egon zan Hannover'ko ekumenelariei laguntzeko asmotan.

Giroa bera, ezin ohea zan, jarduketa aietarako' Hannover'ko Dukea, katoliko biurtutako lutertar bat zan. Inperatorea, I Leopold, Alemani'ko eta Ungari'ko protestalarien laguntzaren billa zebillen, bere aurka alkatu bait zitzaizkion XIV Koldobika Borboia eta IV Maonet Sultana'

Jerard Molano zeritzan lutertar batek asi zuan Hannover'ko ekin-tza. Alemani'n lutertar jainko-zale batzuek, Lekaidetxe bat sortu zuten Loccum'en, an Benito Deunaren araura bizitzeko. Lekaidetxe artako abata zan Jerard Molano; Kalixto'ren jarraillea, ekumenegintzaren bi-deetan. Adimen zabaleko gizona, Elizaren batasuna zuan irrika.

Bazan orduan Alemani'n gotzai bikain bat ere: Wiener-Neustadt'eko Gotzaia: Kristobal Rojas de Spinola, Flande'n Españi'ko Erregearen serbitzura ibillitako guda-buruzagi jenobatar yayo aren oiñordekoa, elizgizon otzana, paketsua, ekumenezalea, Jerard Molano'ren adiskidea. Onek ain zuzen, Jerard Molano'k, kutsutu zion Elizaren batasunaren maitasuna, eta, batasun ori lortzearren zerbait egiteko guraria.

Laister iritxi zitzaian XI Inozentzio Aitasantuaren onespena' 1683'an alkatu zitzaian Leibnitz filosofilari lutertarra, kristau zuzena bait zan au ere, eta Elizaren batasunaz txit arduratua.

Lan aundia egin zuten naimen oneko gizon auek, eta iritxi ere iritxi ziran batera, sinismeneko atalik nagusienetan. Auetan adibidez:

Kontzilio Ekumenikoak utseziñak dirala'

Kontzilio batek, egiazko Kontzilio izateko, bearrezkoa duala Aitasantuaren onespena.

—Kristo, egiaz dagoala Eukaristian; Kristo osoa, ogiitxurapean; eta Kristo osoa ardo-itxurapean. Kristo osoa artzeko, ez dala beraz kaliza ere artu-bearrik.

Mezariburuz Eliza Katolikoak erakusten duan dotriña, zuzena eta egiazkoa dala.

Baitare, gauza zuzena dala Eukaristia sagrario edo oteundegian gordetzea; eta oteundegiko Kristo orri gure eraspenna agertzea.

—Aitorketa, sakramentua dala.

—Santuenganako eraspena, ildakoen aldeko otoitza, eta induljentiak, oitura zuzenak eta santuak dirala, okerrik gabeak eta bearezkoak.

Trentoaurreko kontzilioek erakutsi zuten guztia egiazkotzat jotzen zutela.

Trento'k Kontzilioak ematen zien kezka lutertar irenistei, ziur bait zeuden Lutertar-Elizak Kontzilio ura sekulan ez zuala ontzat artuko. Orregaitik eskatzen zuten beste Kontzilio baten biltzea. Gogo Deunaren goiargiz utseziña izanen zala aitortzen zuten Kontzilio berri bat eskatzen zioten Elizari.

Erroma'k ordea ez zezakean Trento'ko Kontzilioari ukorik egin. Kontzilio berri bat egitekotan Trento'ko Kontzilioak erakutsitako guztia ontzat artuaz asi bearko zuan, eta orrela astekotan alperrikakoa zirudian Kontzilio barri arek. Orregaitik, Erroma'k ez zuan lutertar irenisten eskari ura sekulan arretaz artu. Oraingo ontan ez zuan gaiñera erantzuteko denborik izan ere; Hannover'ko Batzarraren aurka jarri bait zan Frantzi'ko Erregea' ikusten zuan bâ, Batzar arek Alemani'ko Printzipeak alkartasunera eraman zezazkeala, eta Printzipe aiek alkartzea, ziur, inperatorearen indarra sendotzea izango zala.

Iñozentzio XI'a, bai, beti egon zan biotzez ain zitugarri zirudian Batzar aren aide, baiña Frantzi aurka irten zanez gero, ez zezakean ezer egin, agirian beintzat.

Ala're, ez zuan etsi Spinola gotzaiak' Bere asmorik ezin ba'zuan Hannover'en burutu, egin aal izanen zuan ori beste tokiren batean! Orrela, Ungari'n sortu nai izan zuan Hannover'koaren antzeko beste Bazkun bat, baiña, oraingoan, berotasun urriarekin artu zuten Alemani'ko teologilari lutertarrek gotzai katolikoaren deia. 1695'ean il zitzai-gun elizgizon jator ura.

Auxe izan zan bere burutapenen muiña: "Leenik, eta beste ororen gaindik, Sinismenaren arloan egin nai dut lan batasunaren alde' Batasunari-buruz, kristau guztiak fede bateko izatea bait da gauzarik garrantzitsuena. Kristau-sendiaren gobernutza, oiturak, eta gaiñerako beste gauza guztiak, Elizako Agintaritzaren eskuetan uzten ditut, iñoiz Elizen batasuna lortzekoa ba'da, adieraziko bait dio Jainkoak Elizako Agintaritzari, batasunaren onerako zertan amore aman dezakean".

Spinola ð-ondorean, beste aristokrazikume batek artu zuan aren gotzai-kargua' Beste erabateko gizona zan, ekumenegintzari zegoz-

kion gauzetarako' Elizen batasunerako bide egokirik ikusten ez zualako? Bide oh arrisku eta amildegi aundiko bidea iduritzen zitzaiolako? Danadala ez zuan bide ortatik ibiltzeko zaletasunik geiegi asieran azaldu. Zorionez, bein da berriro egon zan Molano, berarekin mintzatzzen, eta abata lutertar onek eman zion falta zitzaion zaletasun ori. Itzegin zuan, gotzai berriak, Leibnitz filosofilar arekin ere, eta ikusi aal izan zuan onen borondate zuzena, eta gogo osoz sartu zan Spino-la'k utzi zion bidetik.

Berbiztu zuten iru gizon bikain auek Hannover'ko Bazkuna, ta Aitasantua egiazko Elizaren buru zala aitortzea izan zan berbizkunde orren lendabiziko emaitza. Jesukristo omen da Elizaren egiazko Burua; baiña gaur ezin ikusi daiteken burua. Eta Buru ikustezin orren Ordezkarri lez, egiazko Elizaren Buru omen da Aitasantua ere.

Ordurako hannovertarrekin arremanetan sartua zan Bossuet Meaux'ko Gotzai ospetsua' Leibnitz'ekin batez ere, eskutitzen bidez. Ta esan dezakegu ez ziola on aundirik ekarri Bossuet'ek Hannover'ko Bazkunari.

Ez zuten alkar ulertu Bossuet galikeri-zaleak eta Leibnitz lutertarrak. Bossuet integristeegia zan, amorekaitza. Eta Leibnitz'ek ere, bearbada, setakeri geiegirekin eskatzen zuan Trento'ko Kontzilioaren ordezkoa izango zan Kontzilio Ekumeniko berri baten billera'

Giroa ere, gero ta okerragoa biurtu zan Hannover'ko bazkideentzat. Etsai biurtu zitzaizkien ordurarte adiskide izan zituzten Leopold Inperatorea eta Aitasantua. Inperatorea, Bossuet Hannover'ko Bazkunean sartu zanez gero, Bazkun aren zituak Frantzi'rentzat izango zira-la uste izan zualako; eta Aitasantua, —Aitasantu berria—, Bossuet Bazkun antan garaille irtetzen ba'zan Frantzi'ko galikeria, Alemani'ko protestalarien laguntzarekin, gogorragoa egin zitekealaren bildurrez.

Leibnitz'ek eskatzen zuana ere geiegi zkoa zan: Trento'ko Kontzilioa azturik lagatzea; sekulan egiña izan ez balitz bezala baztertirik uztea' Elizak egin ez zezakean gauza. Erarik ospatsuenean otsegiñik bait zeukan Elizak Kontzilio ura Gogo Deunaren ekintza izan zala.

Esan dezagun ala ere, Leibnitz'en izen onik zikindu ez dezagun filosofilari eta matematikalari argitsu arek ez zuala orrelakorik ukatzen; ontzat artzen zuala Trento'ko Kontzilioak erakutsitako guztia; protestalariei Elizarako bidea goxatzeko bakarrik eskatzen zuala Kontzilio berri baten egitea.

Mamirik gabeko ustea, Leibnitz'en uste ura' Ez bait zuan ikusten protestalariak Kontzilio berriari Trento'koari ipiñi zizkioten eragozpen

eta aitzaki berak ip ñiko zizkiotela. Ez zan oartzten Leibnitz protestalari-
riek ez zutela Kontzilliorik gura. Naimen on baten sentimentuek itxu-
tzen zuten lenen maillako filosofolari eta matematikalari aren adimen
ernea.

Benetan maite zuan ark Eliza, eta atsedeen gabe egin zuan lan ba-
tasunaren aide' Sarkaldeko Elizaren mugetatik aruntz ere saiatu zan
Errusi'ko Eliza batasunera ekarri naiean. Kepa l'a zan Errusi'n "Tzar"
edo Inperatore. Luzaroan egon zitzaigun Leibnitz arekin arremanetan,
eta. eginkizun artan beti zuzenki jokatzeko, Sorbonako teologilari ka-
tolikoei eskatu zien laguntza. Benetan zebillen gizona. Ugo Van Groot
olandarra kalbindarren artean bezala, Godofredo Gilermo Leibnitz sa-
xonitarra, izan zan iutertarren artean, —Molano abatarekin batera—,
Elizaren batasuna geienik maite izan zuan kristaua. Egiatzko kristau
zintzoa.

—Batasunaren aide ari izan zan Maguntzi'n Jon Felipe, uri artako
Gotzaia, ere. Ez zuan ezer (ortu. Ez zuan ezer lortu Leibnitz'ek Errusi'n.
Ezta Molano'k, Spinola'k, eta beste Hannover'ko Bazkideek, Alema-
ni'n ere. Altagutziz, neke aintzatsu aiek danak alperrikakoak izan zi-
rala sinisterik ez zaigu zillegi' Ez zuten deus ikusgarrikerik ardietsi; ez
bait zan gaiñera ura, deus aundirik eta ikusgarrikerik lortu aal izateko
garaia. Baiña. naiz ikusgarrikeririk gabe, jende asko erakarri zuan ire-
nismoak Elizaren altzora.

VII ALEXANDER

(1655.1667)

Sendizalexamarra izan genduan Aitasantu au ere, baiña **VIII** Urban eta X Iñozentzio bera ere baiño askoz neurri txikiagoan.

X Iñozentzio'k ez zuan illoba kardenalik utzita, besteetan baiño askatasun geiagorekin jokatu aal izan zuten Kardenalek oraingo konklabean, Aitasantu izanak kardenal "nepote" edo illoba bat uzten ba'zuan, kardenal "nepote" ori izaten bait zan konklabearen zuzendaria. Alatagutziz, oraingo ontan ere ez zuten kardenalek askatasun osorik izan. An zeuden, bâ, errege eta laterri-buru katolikoen kardenal ordezkariak!

Frantzitik Mazarino'k Sachetti jaso nai izan zuan konklabe ontan ere Aulki Donera. Baiña lengo konklabean bezala aurka irten zitzaion oraingoan ere Españietako iV Felipe' "Semel exclusus semper exclusus", jakiñarazi zion Errege onen ordezkariak Mazarino'ren ordezkariari: "Bein baztertua izan dana, betirako gelditzen da baztertua".

Fabio Chigi nai zuan Españietako Erregeak Aitasantu. Ez zan orde kardenai au Mazarino'ren gustokoa, aurpegi eman bait zion Westfali'ko pakea eratzerakoan, Aitasantuaren ordezkari lez.

Baiña gauzak luzatzen ari zirala-ta, Sachetti berak eskatu zion Mazarino'ri amore emateko. Orrela igo zan Fabio Chigi VII Alexander izatera.

Gizon zugurra zan; otoitzaren maitalea; ertilari ontzat goraiptua'

Zuzenki jokatzeko asmo osoan jantzi zuan Aitasantuen buruntz irukoitza.

Txalogarria, bere lenen-ekintza: sendiko guztiak bilduta, bergandik ez deus ere itxaroteko danei adierazten: ez kardenaltzarik, ez beste mesederik.

Asmo zuzena benetan, Aitasantu berriaren asmo zintzo ori, baiña orduango jendeek oraindik ezin ulertu zezaketena.

Ala, Laterri kristauetako enbaxadariak aldatuarazi zioten asmoa; Aitasantuaren illoba batekin konfiantza geiagorekin erabiliko omen zituzten, bâ, diplomazizko auziak! Bat egin zuten enbaxadariekin Erro

ma'ko .elizgizonek ere, Aitasantuaren sendikoak onore eta kargurik gabe gelditzea gauza motza izango zala esanz'

Aiek eta auek Aitasantua losintxatu edo Aitasantuaren illoba 'o xintxatuaz Aitasantuaren naimen ona berenganatzea besterik ez zutela billatzen? Ez, bâ, naitanaiez' Oiturak ere indarra bai bait du, eta ordurarte Aitasantuak bere sendikoak laguntzaille egitea oiturazko gauza bait zan! Ta, ikus zenbaiteraiño zegoan oitura ori Elizaren baitan oiñarritua: Alexander Vil'ak ez zuan errez asmorik aldatu. Luzaro egon zan oldozketan' Askori eskatu zien iritzia; auen artean Pallavicini iñakitar teologilari ospetsuari; eta, azkenean, baita artarako bildu zuan "kontsistorio" edo kardenaiatzar bati ere'

Baiezkoa eman zioten danek. Aolku orri jarraituz, bere anaia, Mario, Eliz-Laterrietako Jaurlaritzan sartu zuan, eta kardenaltza eman zion Flabio illobari. Apaizgaia zan au, iñakitarren ikastetxe batean, eta esan dezagun bere omenez, gizon apal eta zintzoa izan zala.

Mazarino zan orduan, politikaren barrutian Europa'ko gizonik indartsuena: Mazarino Kardenala, Frantzi'ko XIV Koldobika`ren lenen-min istroa.

Westfal 'ko Pakea egiterakoan bezala, ez ziran gero ere Mazarino eta Chigi (VII Alexander) era gozoegian konpondu. Zaillak izan zituan Alexander VII'ak, Mazarino iionorean, XIV Koldobika berarekin ere tratuak. Eta ez ziran xamurragoak izan Españietako iV Felipe'rekin izan zituanak.

Westfali'ko Pakearen bidez Ogeitamar Urteko Guda amaitu ondorean ere borrokan jarraitu zuten bata bestearen aurka Españi'k eta Frantzi'k, eta "Auñamendiko Pakearen" bidez bukatu zuten beren arteko asarrea. Pake ori egiterakoan, ez "Errege Katolikoak" ez "Errege Txit Kristauak", ez zuten ezertarako Aitasanturik aintzat artu. Miñegin zion, eta ez arrazoirik gabe, VII Alexander Aitasantuari bazterreanutzia izate orrek. Ez arrazoirik gabe, ordurarte Aitasantuek izandako goi-almen eta eskubideak oro galduak ziralaren siñale bait zan.

Itzal aundia izan zuan erdiaroa ezkeru Aitasantutzak Kristaudiko politika-arazoetan' Argikuntza ezkeru, sekularizaturik gelditu zitzaigun kristau-errien politikagintza. Garrantzi aundiko aldakuntza!

Izan zan beste aldakuntza bat ere aro artan bertan: "Kristaudia-aren" sentimentua ilda, sentimentu aren tokia betetzeko, gau-egun oraindik bizirik daukagun "abertzalekeriari" bizia eman zion aldakuntza'

Kristaudia, kristau guztiek osaturiko "Aberri" aundi zabal baten

antzekoa izan zitzaigun. Ez zan Laterri; baiña bat izpirituzko lokarriz bateratuko Lurralde BAT' Aitasantua zan Kristaudian buru. Erregeek, Aitasantuaren gidaritzapean zuzentzen zituzten beren arazoak. Eske- ma au ez zan sekulan osoosoan bete; ezta askoz gutxiagorik ere! Bai- ña asko edo gutxi, erregeek berak ere bazuten Aitasantuen goinagu- sitasun orren aia-olako sentimendu bat.

Erriaren baitan berriz askoz sakonagoa eta argiagoa eta biziagoa zan Aitasantuenganako sentimentu ori. Ango edo emengotzat barri() askoz geieago jotzen zuan edozeiñek bere burua kristaudikotzat. Orregaitik errez aldatzen zuten bizilekuz eta kezkarik gabe igarotzen ziran Errege baten zerbitzutik beste baten serbitzura. Entzun, adigarri lez, Ogeitamar Urteko Gudako gertakizun bat:

Gudu aren azken aroan, Konde'ko Printzipea izan zan, garaitzaz- -garaitza, Westfal 'ko Pakeraño Frantzi garaille eraman zuana' Kon- de'ko Printzipeari zor zion beraz Frantzi'ak, Kristaudian Laterri- rik indartsuena izatera iritxi izana. Ba ña, Mazarino Kardenalak Jaurlari- tza bere eskuetan artu zuanean, ez zan, Konde'koa, Kardenal onekin ondo konpondu. Asarretu ziran biak, eta Konde'ko Printzipea Españi'ko IV Felipe'ren serbitzura igaro zan.

Franzi'k eta Españi'k gudan jarraitzen zuten oraindik. Ez zan Kon- de orregaitik kezkatu' Gudalburu trebea bail zan, txertatu zien Españi'ko gudarozte makaldueti kementasun berria, ta baita garaille atereazi ere, 1656'ko eta 1657'ko gudu-ekintzetan Turena'ko Bizkon- tearen esanera zeuden frantziar gudariak zapalduaz. Baiña azkenean, Turena'koa irten zan 1658'an garaille, zearo adorez-usturik zeuden Es- pañi'ko gudarozteak menderatu ondorean. "Auñamendiko Pakean" amaitu zan esan dugun bezela Españi'ren eta Frantzi'ren borroka. Bai- ta're, esan dugu, XIV Koldobika garailleak eta IV Felipe garaituak, ez zutela, pake ura egiterakoan, Aitasanturik ba'zanik ere aipatu. Orrela asi zan politikagintzaren sekularizazioa. Asia zitzaigun Kristaudi Do- nea "Europa (aikoa)" biurtzen.

Konde'ko Printzipeak egin zuana, maiz egin izan zuten ordurarte beste gudalburuek ere. Ori bera egin zuan adibidez Kepa "Napar" erronkariarrak: Españi'ko Erregearen menpetasunetik Frantzi'koaren menpetasunera igaro.

Era berdiñean jokatu oi zuten beste gizakumeak ere: ertilariek, elizgizonek, jakintsuek, politikalariek. Maiz aldatzen zuten bizi-lekuz. Emen jaio, an ikasi, or erakutsi, aruntzago kargu bat artu, onuntzago iltzera etorri'.. Emendik aruntz ibiltze ori, iareki eta barne-kezkarik ga-

be egin ai zuten gauza zan. Toki batean bizi ziran artean toki artakotzat jotzen zituzten beren buruak. Eskozi'koa edo Aragoi'koa edo Be-nezi'koa izatea baiño garrantsitsuagoa iduritzen zitzaien Kristaudi koak izatea. Kristaudiaren-barrengo nunna kotasun onuragarria!

Bizirik zegoan oraindik sen ori Argikuntza-aroan, eta sen orren araura aruntz-onuntz aske eta "pasaportetik" gabe ibilli aal izate orrek eman zien Jakintzei Argikuntza-aroan izan zuten aurrerapen mi-rregarria.

Kepa Deunaren Aulkian, Aitasantu langillea izan zitzaigun bene-tan Alexander VII'a' Sei eta zazpi ordu igaro oi zituan astegunez jen-dea errezibitzen. Igandea berriz, Iangillei entzuteko eta beartsuei la-guntzeko gordetzen zuan.

Jeiki zan jantsenikeriaren aurka ere, eta saiatu zan Sortaldeko mixioetan "zirimonien" arazo negargarria erarik egokienean zuzen-zen..., Ala ere, ez zan bere Aitasantutza, oso dizdiratsua irten.

Il baiño lenago, jasan bear izan zuan gizagaixoak irainketa sami-ñik Frantzi'aren aldetik Frantzi'ko enbaxadariaren eskubideak zirala-ta.

Garai artan, orain bezala, enbaxalarien etxeak epaillengandik igesi zebiltzanentzat babes-toki izan oi ziran. Baiña polikipoliki, en-baxadariak, eskubide oiek geiagotzen ari izan ziran, eta VII Alexander Aitasantutzara iristetako, enbaxada-etxeak ez eze, inguruko bazterrak ere gaizkille ororentzat babestoki biurtu zituzten. Ta Frantzi'ko XIV Koldobika'k Erroma'ren erdian bere enbaxadariaren etxea zegoan auzo osoa biurtu nai izan zuan babes-toki.

Ezetz erantzun zion VII Alexander Aitasantuak. Asarretu zan Bor-boi arroputza, ta asarreak eraginda, aspaldi ezkeru Elizaren Laterri zan Abiñon kendu zion indarrez Aitasantuari' Makurtu zan, azkenean VII Alexander, eta orri eskerrak ez zan Borboia Itali'ra jetxi Eliz-Laterriak eta Erroma bera menderatzera'

Naigabe auek ez zioten jakintzaganako eta elertiaganako zaleta-sunik urritu. Bera ere lateraz olerkari yayoa zalarik, adiskide izan zi-tuan Erroma'ko jakintsu eta ertilariak. Ain zuzen VII Alexander'en Aitasantutza dugu bar okera esan oi zaion erti-kera aberatsaren gai llur-aroa' Orduan egin zituan Bernini lilluragarriak, Erroma'n, Kepa Deunaren Enparantza, eta Jauretze-barruan Kepa Deunaren illobi-gaiñean dagoan aldare nagusiko "baldakino" edo itzalpe ederra.

XVII mendearen bigarren erdian bizia izan zan "oikumene" edo "elizen batasuna" lortzeko igikundea. Alexander VII'ak ez zuan saiaketa ortan parterik artu' Ezta orduango beste Aitasantuek ere.

Zergaitik gelditu ote ziran Aitasantuak igikunde ortatik at? Errez asmatuko duzu zergaitik, gauzak orduango begiekin ikusi nai ba'dituzu. Egin-berria zan oraindik Elizaren zatiketa. Egin-berria zan, zatiketa aren iturri izan ziran pentsabide okerrak zuzentzeko, Trento'ko Kontzilioa. Kontzilio artan erabakirik gelditu zan auzi eta aburu aiei buruz zer zan egia eta zer zan okerra. Sortu zitekean berriro elizjendean artean urduritasuna, Aitasantua eliz bereizi zismatiko eta erejekin, batasuna billatzeko, alkarrizketan asten ba'zan; uste bait zezakean jendeak Aitasantuak berak ez zituala Trento'ko Kontzilioaren erabakiak ziurtzat artzen. Aitasantuak ez zitezkean eztabaida eta alkarrizketa aietan sartu. Aitasantuek eztabaida aien gaindik egon bear zuten'

^^

VII Alexander'en garaia izan zan "il barocco", barok-era, erpiñera igo zan garaia' Birjaiotzako trebetasun edo teknika guztien jabe ya-yoa, edozerri ekiteko bildurrik gabea, ausardi bixigarriz betea, bikaiña, oparoa, ederra, emaitza miresgarriak ekarri zizkion barrokerak gi-zadiari, elertian, eres-ertian, jauregi jauretxe margo eta irudigintzan.

Trento'ko Kontzilioaren narotasunetik sortu zitzaigun, ain zuzen, barokera; eta Kontzilio artatik irtendako Elizaren adigarri edo ikurreta-ko bat dugu bera.

Agian orregaitik, sekulan ez bezalakoa izan zan, edertasunean, garai artako "oratoria" edo mintziztia Eliza katolikoaren altzoan. Frantzi'n batez ere, XIV Koldobika'ren Frantzi' bait zan orduan Europa'ren burua. Oroi Fenelon, Bourdaloue, Masillon, eta batez ere Bossuet, Demostenes eta Zizeron'en kidekoa, Argikuntza-aroan Elizak izan zuan gizonik dizdiratsuen'

Baiña aunditsuen artean itzegin oi zuten aiek bezain bikaiñak izan ziran, baita elertiaren aldetik ere, jende landerrari errimixioetan itzegiten zioten izlariak: Segneri Itali'n, Viera Portugal'en, Kadiz'ko Diego Españi'n, Kardaberaz eta Mendiburu Euskalerrian... Eta, izlari rik ospetsuenak bakarrik aipatzeagaitik, illunpe isillean uzten ditugun beste asko eta asko.

Egia da, gariaren alboan zalgea ere jaiotzen bait da beti, Franzisko Isla'ren eleberriko "Fray Gerundio de Campazas" aren antzeko izlari traketsak ere izan genituala; XVIII mendean batez ere,

—ge egikeri parregarrietara jausteko arrisku itzala bai bait du barokerak—, baiña auek ez diete beste aiei beren edertasunik lausozten, zalgeak gariari bere gozotasunik urritzen ez dion bezala.

"Erri-mixioak" berak, barokeraren giroan elizari sortutako apostolutza-bide igalitsu izan zitzaizkigun. Berekin dute barokeraren oparotasun guztia, eta baita geiegikerira jausteko arriskua ere. Argikuntza-aroko Elizaren bizitasunaren adigarri izan ziran, eta on aundia egin zioten kristaudiari'

Misioketan ibilli ziran erriz erri ordena zarretako praille eta apaizak: karmeldarrak, frantziskotarrak, domingotarak eta josulagunak, eta mixioketarako sortu ziran Apaiz•Lagundi berriak: paldarrak, pasiotarrak, eta redentoristak.

Pozik joaten zan kristau-erria mixiolariari entzutera, argikuntza-aroko txepelkeri guztien azpian erne bait zegoan erria-baitan Jainkoaren itza entzuteko gosea, eta Jainkoaren bidetik, aurreruntz beti, ibiltzekrsgogoa.

Tamalez, teologiariei falta izan zitzaien beti aurreruntz ibiltzeko gogo ori. Antzua izan bait zan Argikuntza-aroko teologia; leengoek erakutsitako gauzetan bertan-bera gelditua; berritasun-usaia zezakean guztirako kezka eta bildurrez bete' Berea du Trento'ko Kontziliotiko Elizak "berria" izan daitekean guztirako bildurra' Trento'ko Kontzilioa, protestalarien aurka egin zan. Eta protestalariak "novatores", "berritzailieak" esaten bat zieten beren buruel, "ereji-usaia" arzen zion "berria" zan guztiari Trento'tiko Eliz arek'

Ona zer esan dezakegun Bossuet ber-beraren teologiaz: "L'originalité de Bossuet comme théologien est précisément de repousser toute originalité, toute innovation, même tout développement neuf; de se fortifier au centre de la doctrine officielle, de n'admettre que les choses consacrées" (Grand Larousse).

Ederki esana' Eta orduango teologilari guztientzat balio dute Bossuet'entzat idatzitako itz oiek: "Teologilari lez Bossuet'en berezkotasuna, auxe dugu ain zuzen: berezkotasunik ez nai izatea, berritasun guztiei eta baita gauza zaarren azalpen berri orori ere muziñ egi-tea; leendik ontzat artuak izan diranetan tinko irautea; oiturak sagaratu duana bakarrik ontzat artzea; eta ontzat artutako gauza oietatik bat bakarrik aantzirik ez uztea".

Gizon argiak asko izan zituan Argikuntza-aroko teologiak; Karlos Billuart adibidez, eta Lugo Kardenala, Arriaga'ko Rui, Abendaño'ko Diego, Esparza'ko Martin, Arape'ko Augustin, Agirre'ko Saenz Karde-

naia... Baiña Bitori'ko Frantzisko bezalako gizon bat ez zigun sortu.

Agortasun orren errua erejiena izan zan batez ere: protestalarien geiegikeriena, jantsenitarren estukeri eta zipozkeriarena, eta pietista edo eraspen-lizun-zaleen iguingarrikeriena, zorabiozko erejizurrunbi-Ho orrek bildur aundia sortu bait zuan Eliza-baitan; eta, bildurrak eraginda, inkisizio-zaleegiak biurtu bait zitzaizkigun Elizako agintari dnak'

Baiña teologilari katolikoek eta Argikuntzak berak, badute teologiaren antzutasun ortan erruaren zati galanta.

Argikuntzak, arrazoikeri legor uts izan zalako. Orregaitik ain zuzen filosofirik ez zuan izan Argikuntzak' "Philosophes" esaten zioten bere buruei Frantzi'ko "argituek", baiña "philosophen" aroa filosofirik gabeko aroa izan zan; Deskartes, Leibnitz, Spinoza..', ez bait ziran, filosofilari lez, "argituak".

Teologilari katolikoek errua berriz, Jainkoagandiko Graziariburuz, ezertarako balio ez zuten eta azalpenik izan ez zezaketen arazotan naasirik ibiltzea izan zan. Birjaiotzaren azken-garaietik zetozen iñakitarren eta domingotarren artean Graziariburuzko izka-mizka zital aiek eta Argikuntza-aro guztian jarraitu zuten, naiz Aitasantuek bein baiño geiagotan iskamil ura eragozi nai izan' Aitasantuen naia baiño gogorragoa izan zan teologilarien setakeria.

Danadala, edestiko arorik ederreanean, Teologirik gabe gelditu zitzaigun Eliza' Oro berritzen ari zan garaiean, Elizak ez zuan 'Jakintza Berriei" zentzu emateko Akino'ko Tomas'en antzeko teologilarik, edo "Soziologi Berriari" Kristau-oiñarriak ipintzeko Bitori'ko Frantzisko'ren kidekorik izan.

"Jakinduri berna", eta gizarte berri, bat sortzen ari ziran une artan "zaarra berri" izan zan teologiaren ikur-itza; ori, eta "zarra ez dan berri oro, ikezkagarri eta arbuia garri"!

Okerragoa dana, oldozkera zimur orren araura, elizgizon asko, —batez ere prailleen artean—, jakintza berrien aurka, izadijakintzen aurka, jarri ziran. Aientzat teologia bakarrik zan egiazko jakintza. Beste jakintza oiek edo umeen jostailu edo sinismenarentzat oztobobide besterik ez ziran. Isla'ren aipatu-berri dugun eleberriak emango dizkizu, ontaz, adibide parregarriak, irakurri nai ba'duzu.

Guzti orren ondorio, izadijakintzen ikasleak, teologiaren aurka jarri zitzaizkigun. Aientzat, teologia aro artako eskolastika legorra besterik ez zan: itz-joku; edozein gairi-buruz nork bere burua arrazoiketant yayoago azaltzeko leiaketa. Eta ez zitzaien arrazoirik falta; ori izan

bait zan, batez ere, Argikuntza-aroko teologiaren ariketa!

Argikuntza-arogan iaretu zan teorogiagandik, "moral" edo "oitu-
riztia": zer dan zuzen eta zer dan oker erakusten digun "iztia Baiña
teologilarien erara, zatiturik eta alkarren artean borroka asarrean ibilki
ziran moralistak ere'

Lendabiziko zatiketa, "estuen" eta "lasaien artean egin zan;
aurreneko aiei "rigoristae" edo "nimis severi" esan oi zitzaien, biga-
rren auei berriz "laxistae". Ots, "gogorrak" edo "zorrotzegiak" aiei;
"lasaiegiaik" auei.

Bi adar oien artean aurkitzen ziran moralista "ortodoxo" edo bide
zuzenekoak. Baiña auek ere iru zatitan puskatu rik zeuden: "probabi-
listak", eta "tuzioristak". Birjaiotzako Elizaren Edestia azaltzerakoan
mintzatu bait giñan gai ontaz, esan dezagun orain labur-labur, iru tal-
de auek zer erakusten zuten:

Tuzioristek: Ekintza bat pekatu izan ez dedin, ekintza ori egiten
asi aurretik **ziur** jakin bear da ekintza ori pekatu ez dala'

Probabilistek: Ekintza bat pekatu ez izateko naikoa da, aurre-
tik, ekintza ura pekatu izan ez ditekeala uste izateko arrazoi sendoak
izatea, naiz pekatu izan daitekeala uste izateko arrazoiak, beste aiek
bezain sendoak eta, bearbada, sendagoak izan, beste aiek egiaz eta
benetan sendoak ba'dira.

Probabil oristek: Ez; ekintza ura pekatu ez dala sinistarazten
diguten arrazoiak pekatu izan ditekeala uste izatera bultzatzen gaituz-
ten arrazoiak baiño sendagoak izan bear dute.

Ez, naitanaiez; ezezkoaren aldekoak baiezkoaren aldekoak be-
zain sendoak izatea naikoa bail da, esaten zuten gero, erdian sartu zi-
ran "ekiprobabilistek"

Jantsenistak eta jantsenizaleen adiskidetasunak eraginda, baita
"argituak" ere, tuzioristak izan ziran. Gero, Elizak tuziorismoa galera-
zi zuanean, "argituak" probabiliorismora igaro ziran' (Esan dezagun
ala ere, "argitu" asko pentsaeraz izan zirala tuzioristak eta probabilio-
ristak, ez bizieraz; Argikuntza Iizunkeri zikiñ ugariren aroa izan bait zi-
tzaigun).

Domingotarrak, beti danik, probabilioristak izan ziran, eta, proba-
bilistak berriz, iñakitarrak. Izan zan, aburu oiek zirala-ta Domingo Deu-
naren eta Iñaki Deunaren semeen artean berritzukeri eta asarre min-
kotzik aski!

Ekiprobabilismoa, Alfontso Ligorio Doneak sortu zuan; eta bide
ortatik jo zuten bere seme "redentoristek".

Argikuntza-aroko moralisten artean aundiena, ezpairik gabe, Ligorio'ko Alfontso Donea bera izan zan. "Homo Apostolicus" eta "Theologia Moralis" dira, gai ontan, bere libururik aipatuena.

Erregekeri lotsagabearen aroan, naitanaiez izan bear zituan ikasle eta irakasle asko legiztiak. "Lástima, —dio Montalbán'ek— que muchos de ellos se inclinaron hacia el absolutismo regio y se resabiaran con el galicanismo".

Absolutismoa. ots, "Erregea-bakarrik-agintaritzaz-orez-jabe-izatea", Argikuntza-aroko teologilari, moralista, eta legiztilari guztiek babestu zuten aburua dugu. Bossuet gogoratu'dugu lentsuago. Ekarriztegun orain begien aurrera, politikari-buruz gizon ospetsu ark idatzitako itz bereizi batzuk, aundia izan bait zan bere itzala Europa guztian.

—"L'autorité, royale est absolue. Le Prince ne doit rendre compte a personne de ce qu'il ordonne": "Mugarik gabea da Erregearen almena. Printzipeak ez du, iñorri, agintzen duanaren kontu-eman bearririk" (Oroi dezagun, "Printzipe", Edozein LaterriBurururi denbora aietan ematen zitzaien izena zala).

—"Les Princes sont des dieux suivant le langage de l'Ecriture et participent en quelque facon à l'indépendance divine". "Idazti Doneetako izketaren araura, Printzipeak jainkoak dira eta badagokie, nolabait, Jainkoaren askatasuna": ots, iñorri konturik eman-beareza.

—"Le Prince est un personnage public; tout l'Etat est en lui; la volonté de tout le peuple est renfermé dans la sienne". "Erri-pertsona dugu Printzipea; Beragan dago Laterri osoa; Bere naimena-baitan dago bildurik Erri osoaren naimena"

—"Au caractere royal est inhérente une sainteté qui ne peut être effacée par aucun crime, même chez les Princes infidèles. Il n'est permis de s'élever, pour quelque cause que se soit, contre les Princes" Naiz Printzipea jentilla izan, Printzipe izateari, txarkeririk aundienak ere ezabatu ez dezakean santutasun bereizi bat erantsia dago. Ez da zillégi, ezergaitik, Printzipearen aurka jeikitzea.

Printzipearen naimenean dago bildurik Erri osoaren naimena": "La volonté de tout le peuple est renfermé dans la sienne". SEz al da orixe bera, ain zuzen, geroago Hegel'ek erakutsiko duana jarraituz, Hitler, Mussolini, eta Franko'ren "Demokrazi Organikoaren" oiñarria? Ta... Marx'en da Lenin'en komunismoak, ¿ez al du ori bera, Proletari danen eta bakoitzaren naimena, alegia, Alderdi Komunisteko Buruzagiaren naimenean datzala, erakusten?

"Printzipeari" zitaion eraspenkeri ustel orrek ondatu zuan Argikuntzako legiztilari geienen lana, ia danak izan bait ziran "erregekeri-zaleak". Arrazoi osoz dio Menéndez Pelayo'k: "Pero... ¿quién se libró entonces de aquel desdichado vertigo cismontano"? ("Cismontano", "mendiak-onuntzko", dugu; eta "Ultramontano", "mendiak aruntzko". "Mendi" oiek Alpe-Mendiak ziran, eta "ultramontanos", erregekeriaren iskamil artan, "Erroma'ren alderdikoei" aitasantuen alderdikoei esaten zitzaien, eta "cismontanos", "Erregeen aldekoiei").

Erregekeriaren babesle ziran, anei kontzientzi garbiko kristau eskolatuak ere. Mayans balentziarra adibidez. Entzun eiozu: "El Principe es protector de la Sagrada Escritura. El Principe es protector de las Tradiciones Apostólicas. El Principe es protector de los Concilios Euménicos. El Principe es protector de la disciplina eclesiástica. El Principe es protector de los Sagrados Cánones, esto es, de los Cánones fundados en razón porque hay muchos que no lo tienen".

Ortan danean Erregeak eskua sartu al ba'dezake, ezer gelditzen da bere eskupetik kanpo? Soilki, sinismeneko dogmagintza, eta apaizgoari bakarrik dagozkion sakramentuen egitea'

Garai aietako legiztilaririk ospetsuena Lobaina'ko Unibersitatean erakusten egondako Zenger Bernard van Espen izango dugu noski. Erregekerizale porrokatua, Europa'ko erregezale guztien gidari izatera iritxi zitzaigun, bere idaztien bidez' Liburu debekatuen zerrendan sartuak izan ziran idazti oiek eta apaizgoz erantzia, azkenean jantse-nisten artera bildu zan idazti aien egillea' Jantsenisten artean il ere zan 1728'gn. urtean'

Kontziliokeriarekin naasia egon zan, asko edo gutxi, erregekeria bazter guztietan. Entzun Españi'ko, kristau zintzoa, eta "argiturik" ospetsuenetakoa izan zan eta aipatu-berri dugun Mayans balentziarrari-buruz aren edestilariak diona: "Mayans concebía su regalismo como un primer paso para librar a los obispos de la opresión papal. Quería y esperaba librarlos también de la prepotencia del monarca para devolverles "los derechos que por institución divina poseen" (Mestre Sanchis). Eta, ori, Kontzilioen bidez bakarrik lortu zitekeala uste omen zuan.

Zuzena zan ordea Mayans'en kontziliotasuna, arentzat egiazko Kontzilioa Aitasantuarekin bat egiña zegoan Kontzilioa bakarrik bait zan.

Aurrerago joan zitzaigun euskaldun bat, Orbe'tar Andres, itz auek idatzi zizkigunean:

"Tango para mi por más probable la superioridad del concilio, por más de otras razones porque aquella se definió en el Concilio de Constanza en algunos casos, bien que los romanos digan que no lo aprobó el papa y que no la ha recibido la Iglesia Romana' En la presente disciplina, y especialmente en España y en Italia, ve Vm' que todo depende de Roma y que en realidad practica la Corte Romana la superioridad y que de ésta depende lo que las otras Iglesias ejecutan; nacido (todo ello) de la falta de concilios nacionales y provinciales y porque a los reyes les conviene así por sus intereses".

Gaur, I Batikan Kontzilioaren ondorean, oso-osoan ereji izango litzake izketa ori; baiña ez zaio bi puntutan Orbe'ri arrazoirik peitzen:

Erregeek Kontzilioen arerlo ziran, Erroma'ri baiña bildur geiagogo bait zieten Kontzilioei; Gotzai alkartuei, Aitasantu bakarrari baiña ikara aundiagoa!

Naiz "opresión" itza oso itz egokia izan ez, egia da geiegikoa zala Erroma'ko kuriatarren agindu-naia. Orretxegaitik ziran ain zuzen erregekerizale, ainbat eta ainbat Kristau zintzo! Gaur oraindik, ez du Elizak, Aitasantuari Jainkoagandik zuzenean datorkion Almenak, eta Gotzaiei ere Jainkoagandik zuzenean datorkien Almenak, Elizaren zaintzarako bata bestearekin naastean sortzen duten korapillorik era egokian askatu.

Argikuntzak zaletasun aundia izan zion edestizti edo istoriologiari, ots, egiazko edestia ameskerizko kondairetatik bereizteari; gaiñerako giza-ariketa guztietan bezala, edestigintzan ere Arrazoaia bear bait zuan gizakumeak gidari' On aundia egin zigun Argikuntzak eliztarroi Eliz-Edestiaren eta Idatzi Donearen arloetan zaletasun orrekin'

Edestiarenean, aurrera jarraitzen zuten beren lan bikaiñean "bollandiste" iñakitarrek, Santuen bizitz-idazti edo biografiak arazten. Rosweide Aitak asi zuan lan ori 1617'an eta Bolland Aitak egintzaren zuzendaritza bere eskuetan artu, 1630'gan urtean' Iñakitar onen abizenetik datorkie beren izena edesti-ikerle eta idazle ospetsu auei'

Ez dute ospe motzagoa merezi "mauriste" beneditarrek. Elizaren Edestia, Elizaren Asaba Doneen idaztien azterketa, eta liturgiudaztien zuzenketa izan ziran landu zituzten jakintza-barrutiak. Ederki saiatu ziran edestiztian ere. Mabillon Aitaren "De Re Diplomatica", eta Montfaucon Aitaren "Paleographia Graeca" izan ziran, gai ortan, eman zizkiguten lanik ederrenak'

Edesti azterle eta idazle asko eta asko erbaarazi zizkigun, zorionez, Argikuntzak sorturiko oro-jakin-naiak: Españi'ko Kontzilio guz-

tien edestia idatzi zuan Agirre'ko Saenz Kardenala adibidez; eta "España Sagrada"ren idazle Florez Aita; Henao'tar Gabriel eta Jose Moret, gure artean' Antonio Muratori, Escipion Maffei eta Frantzisko Antonio Zaccaria Itali'n; eta beste beneditar bat Alemani'n, Martin Gerbert, San Blasien'go Abata ta Printzipea, lekaidetxe batzuk, elizbarrutiak bezala, Laterri iare bait ziran inperiolurretan.

Ta, naiz ainbeste idazle jakintsuren izenak naitanaiez isillean utzi izan bear, ezin izango dugu aantzi Dionisio Petau edo Petavio iñakitarra, Elizaren Guraso Doneen teologia aztertzen langille yayoa.

Maitasun aundia izan zion Argikuntzak Idazti Doneari, eta maitasun orrek eraginda aurrerapen aundiak egin zituzten Idazti Donearekin zerikusirik baduten jakintza guztiek, batez ere, exegesi edo Idazti aien zentzu-azalketak. Aurrerapen oiek arrigarriak izan ziran eta izan dira gaur-gaur arte protestalarien artean eta katolikoen artean baiño aundiagoak, erne eta geiegizko kezka betea egon bait da beti, gure artean, Inkisizioa!

Aitor dezagun, ezpairik gabe, egia dala, Idazti Donea aztertzerakoan utsaldi mardulak egin dituztela eta okerkeri aundietara jausi dirala protestalariak, baiña egia da baita're, aien ariketa trebeak lortu dituan aurrerapen eder zuzenak, okerkeri aiek baiño ugariakoak eta aundiagoak izan dirala.

Oro-egokijakin, eta, ortarako, arrazoiketa zuzenez oro egokita-zeatz-aztertu nai izan zuan Argikuntzaren giro artatik at gelditu ziran teologia eta oituriztia. Orregaitik, Eliz-Edestiaren ezaguera, Kontzilioen zentzu zuzenaren ulertzea, eta Idazti Deunaren azalpen edo exegesia, teologia baiño milla aldiz aurrerago, eta oituriztia baiño eun milla aldiz aurrerago, ibilli dira gure artean.

IX KLEMENTE **(1667-1669)**

Bizirik zegoan oraindik VII Alexander. Baiña asiak ziran Kristaudiko Erregeek nor aitasantu aukeratu pentsatzen' Konklabea iriki zanean, esan daiteke ango Kardenalak, asko beintzat, Elizaren serbitzura baiño geiago zeudela Erregeen esanera. Ta bazekian ordurako baikoitzak bere Nagusi Jaunak Aitasantutzarako nor gura zuan.

Baziran Aitasantugai egokiak giltzapeko batzar artan'

Adminiztrazioko arazo ta auzietarako eta politikazko iskamilletan bide zuzenak aurkitzeko Farnese Kardenala zan yayoena. Baiña orregegaitik ain zuzen, zioten bildur Errege guztiek, eta oretxegaitik izan zituan aurka Konklabeko Kardenal errege zaleak'

Edestijakintzan eta legee dagozkien gaietan Brancacio Kardenal napolitarra izanen zan danen artean jantziena' Baiña abertzalea zalarik, izan zituan asarre aundiak Napoles'ko Erregeordezko españarrarekin, —Españi'rena bait zan orduan Napoles—, eta aurka izan zitzaion Españi'ko II Karlos.

Albizzi, iñoren mondera bururik nekez makurtzen zuan gizona, iareegia zan, askatasun zaleegia, eta orregaitik ez zituan adiskide Kristaudiko Errege arropuztuak. Gizon bikaiña zan Elce sienatarra ere, baiña etsai irten zitzaizkion Medizitarrak.

Emezortzi eguneko eztabaiden ondorean, Julio Rospigliosi izan zan autatua; Aitasantuen zerrendan, IX Klemente.

Bere lenen eginkizuna Portugal'eko Elizaren egoera gaitza zuzentzea izan zuan, Españi eta Portugal'en arteko pakeak gertutu bait zion artarako giroa.

Portugal'eko Errege ziran Españi'ko Erregeak II Felipe ezkeror' lkuus zergaitik:

XVI mendean onoko auek izan ziran Portugal'eko Erregeak: Manuel I'a, Jon III'a, Sebastian I'a, edestiak "Don Sebastian" esan oi diona, eta au semerik gabe il zanean, Don Enriquez Kardenala. Kardenal lez semerik gabe il zan au ere, ta logez Portugaleko erregeen aiderik urbillenak jantzi bear zuan orduan Portugal'eko buruntza' Aide ori,

Manuel I'aren biloba zalako, Espāñi'ko II Felipe izan zan' Baiña Portugal'en ez zuten danek Espāñi'ko Erregearen eskubiderik onezagutu nai izan, eta izkilluz aitxa ziran aren aurka, baiña danak menderatu zituan II Felipe'k izkilluen bidez, eta 1581'ean, Tomar'eko Korteetan, Portugal'eko Errege egiña izan zan.

Ez zan beraz Portugal Espāñi'rekin alkartu. Soilki, bere askatasunik galdu gabe, Espāñi'ko Erregea izendatu zuan Errege; leenago Larterri Euskotarrek egin zuten era ber-berean.

Baiña Espāñi'k ez du sekulan ori ulertu aal izan; Espāñi'ko Erregea Erregetzat daukaten lurralde guztiak Espāñi'ren lurraldeak dirala uste izan du, eta bertako jaun da jabe ta nagusi balitz bezala erabili nai izan ditu lurralde aiek; eta jakiña, ez du lurralde aien gorrotoa eta eziñikusia besterik irabazi!

Ori gertatu zitzaion Portugal'ekin ere. Irurogei urteen luzaroan, Espāñi'k, gero eta geiago, jaunie espāñiarrak ipiñi zituan Portugal'en; bigarren maillako jende lez euki zituan portugaldarrak, bera sartzen zan guda guztietara narraztatu zuan Portugal, eta gudaketa burugabe aien erruz, banan-banan koloni asko galduarazi zizkion. Gaiñera, Portugal espāñiarrazten ziardun gero ta setakeri aundiagoarekin.

Ori izan ez balitz, agian (beri'ko Jaurreri guztiak alkaturik biziko ziran gaur, pakean. Baiña Espāñi ez daiteke gorputz-eta-anima bere oiñetara makurtzen ez danarekin pakean bizi.

Olivares'ko Konte-Dukea'k IV Felipe'ren denboran agintaritza artu zuanez gero, lotsagabegoa egin zan, askoz, Espāñi'ren politika ori, eta asarretu ziran portugaldarrak, eta baita Espāñi'ren aurka eta askatasun osoaren aide izkilluz jeiki ere, 1640'garren urtean. Braganza'tar Jon, IV Jon, egin zuten Errege. Koloni guztiek artu zuten ontzat Errege berria. Ala're, Zeuta'rekin gelditu zan Espāñi, naiz Zeuta Portugal'ena izan: Europa'tik irtenda, aro berrian, Europa'ko Jaurreri batek izkilluz irabazitako lenen lurra!

Ogeita zortzi urte iraun zuan Espāñi ta Portugal'en arteko borroka gogor arek, 1668'an izenpetutako pakearen bidez Portugal'ek bere nortasuna ziurtu zuan arte' Ogei ta zortzi urte oietan iru Errege izan ziran Portugal'en: IV Jon (1640-1656), VI Alfontso (1656-1667) eta II Pedro'ren erregetzako lenen urtea. Iru izan ziran Aitasantuak: VIII Urban (1623-1644), X Iñozentzio (1644-1655), eta VII Alexander (1655-1667). Gudak iraun zuan bitartean zaillak eta arriskutsuak izan ziran Errege eta Aitasantu oien arteko arremanak'

Espāñi'ko V Felipe'rekin eta II Karlos'ekin ez asarretzearren

Aitasantuek ez zituzten Portugal'eko Errege Bragantza'tar aiek onezagutu. Alare ez ziran aiek asarretu; benetako kristauak ziralako, eta baitare Aitasantuen, —Españiri-buruzko—, egoera latza ulertzen zutelako.

Ziri okerragoa zan Errege eta Aitasantu aien artean IV Jon'ek egindako eskaria. Ordurarte, Españi'n bezala Portugal'en ere izan zuten iru Felipe'k (II'ak, III'ak, eta IV'ak) gotzaiak izendatzeko eskubidea... bâ eskubide orixe bera eskatu zuan IV Jonek ere Errege izendatua izan zanean!

Aitasantuek ezin zezaketen eskubide ori eman, Bragantzatarrak (Jan IV'a eta bere ondorengoak) Portugal'eko Errege zirala adieraztera eman gabe. Orregaitik, Aitasantuek "motu proprio", beren arioz, Portugal'erako gotzaiak izendatzen asi ziran. Baiña Errege portugaldarrek ez zituzten gotzai oiek artu nai izan, eta gotzairik gabe gelditu zan Portugal' 1649'an, ez zan Portugal'en Gotzai bat besterik, eta utsik zeuden kolonietan 26 gotzai-aulki'

Orduan, IV Jon'ek galdera bat egin zion Koinbra'ko Unibersitateari: Ea berak, bere buruz, gotzai aiek izendatu zezazkean. Baiezkoa eman zioten Ikastetxe ospatsu artako irakasle batzuek, ez danak, baiña bai batzuek. Zorionez Irakasle aiek baiño zurragoak izan ziran Jon eta bere ondorengoak, eta ez zuten gotzai-izendaketarik egin. Zorionean! Zizmarako bidea izango bait zan Erregea gotzaiizendaketak egiten astea!

Españi'rekin pakeak egi ziranez gero, iare zituan IX Klemente'k eskuak, eta bereala konpondu zuan auzia. Portugal'eko Erregeei gotzaiak izendatzeko eskubide-emanaz, jakiña, oiek bait ziran garai artako oiturak.

Irurogeitamar Urteko Gudua ezkerko Frantzi'k eta Españi'k alkarrekin zerabilzkiten asarreak eta borrokak baretzen arretaz saiatu zan, eta poz aundia artu zuan bi Laterri katoliko aundi aiek pakea ziñatu zutenean. Ariketa orrek, Frantzi'ko Erregearen adiskideatasuna irabazi zion, baiña ez luzerako, XIV Koldobika'k "Errege Eguzkiak", bere naimenera makurtzen ziranekin bakarrik gura bait zituan adiskidetasunak. IX Lñozentzio berriz naiko gizon zan, arrazoirik gabe bururik iñoren aurrean ez makurtzeko'

Diplomazirako ere bazizun eskua, eta moldatu zan, Frantzi'n sutagar zegoan jantsenikeriaren iskamil moldakaitzean baretasunapur bat ipintzeko. "Pax Clementina" esan zitzaion pake-une arri. Pake koxkor laburra eta aski gezurrezkoa, bere tokian ikusiko dugun lez, asmo okerre artu bait zuten jantsenitarrek Aitasantuaren ekin-

tza,

Ez zuan Aitasantutza gozoa izan IX Klemente zintzoak. Frantzi'ko jantsenikeria alde batetik eta turkitarren arriskua bestetik, naikoak izan ziran Aitasantuaren bizitza samintzeko'

III Soliman zan Turki'an Sultana. Agintari yayoa eta gudal-buru trebea, Kreta ugartearen kendu zion benezitarrei. Kandia ere esan oi zaion Kreta, Grezi'ren egoaldean dago; Europa'ko Kulturaren sorkunde-
dean, bera izan zan aitzindari, eta orduan, Soliman III'aren garaian, bera zan Sortaldean Kristaudiaren muga-mugako lurraldea'

Soliman ez zan aurreneko erasoan ugarte osoa artzeko gai izan, naiz artarako gudaritalde mardul aundiak erabili. Bikain jokatu zuten benezitarrek borrokan-eta, uri bat gelditzen zitzaien oraindik ugarte artan: Megalokastro, arresi gogorrez ederki bildutako uria, itxas-
-ertzean. Izkilluz artua izateko mundu guztian zaillena zala zion denbora aietako jendeak. Olako zerbait adierazi nai du, eleneraz, uri aren izenak ere: "Megalo Kastro": "Gaztelu Aundia". Baiña aundiak ziran, estuki gerrikatzen zuten gudarieta-ontzitalde turkitarrak ere,

Egiñalak egin zituan IX Klmente'k, Kreta'n azkeneko un kristau ura kristau gordetzeko. Gaiñera, gaiñera..! Kreta osoa turkitarren eskuetara jausten ba'zan, arriskuan gelditzen bait ziran Itali'ren Adriatik-ertzeko lurralde guzia ta Sizili'ko ugartearen.

Eskatu zuan, —Klemente IX'ak—, Laterri kristau guztien laguntza; baita Errusi'ko Inperatorearena ere! Are geiago! Persi'ko Erregea ez zan kristaua. Eskatu zion alare Errege arri laguntza, Sultanarekin asarre zebilela jakin zuanez gero. itali'ko Laterrietan txikienatakoa zan Luka, baiña Errepublikaren atzetan ere egin zuan oles iX Klemente'k'

Gurutze-guda baten antzeko zerbait eratu nai izan zuan Aitasantuak, baiña utsak irten zitzaizkion asmoak. Frantzi'ko XiV Koldobi ka'k, aitzaki ugari ipiñiaz erantzun zion. España'ko IV Felipe'k eta I Leopold Inperatoreak, —eta baita Luka'k ere—, eskeiñi zioten laguntza. Eskeintz agorra eta antzua; ez zuan bâ iñork gudari bakar bat ere benezitarrei laguntzera bidali' Benezi'ren onturrerako gudan sartzeko gogorik ez zeukan iñork Europa'n. Ta merezi ere, ez zuan laguntza geiegirik merezi Benezi'ko Errepublikaren diru-zaleak, bere politika ez bai zan, batez ere Elizarekin, bein baiño geiagotan garbigia izan'

Alatagutziz, kristau uri bat turkitarren menpetasunera erortzetik gordetzearren, aal izan zuan guztia lagundu zion IX Klemente'k Benezi'ri. Milloi bat dukat urre eman zizkion borrokarako; ta bere guda-

-ontzidia ere bidali zion turkitarren aurka borrokara. (Egia esateko ez zan oraingo ontan aintzagarriegia izan Eliz-Laterrietako ontzidiaren jokaera).

Bi urteko borroketa odoltasunaren ondorean, turkitarren eskue-tara jausi zan azkenik Megalokastro. 30.000 gudari kristau il ziran era-so artan; baiña garesti saldu zituzten auek beren biziak, Solimanda-rrren artean 100.000 izan bait ziran erailiak.

Naigabe oietan, eta bere biziera guztian, gizon zintzoa, gizon ona, izan zitzaigun Klemente IX'a: otoitzaren zale, eta ez elertiaren etsai. Aski olerkari eta antzertilari yayoa bait za n bera ere. Gaztelaraz-ko elertiari maitasun aundia izan zion, batez ere Madrid'en nuntzio egon zanez gero, eta Calderon de la Barca erabili oi zuan bere antzer-ki lanetan eredutzat.

Beste ororen gaindik, apaiza, bete betean apaiza, izan zan beti gure Aitasantu au. Kepa Deunaren Aulkian eseri ondorean ere, egune-ro jeisten zan aitortegira jende arrunten aitorketak entzutera' Maiz joan oi zan gaixotegietara, gaixo guztien laguntzaille, eta mundu guz-tia artu oi zuan maitekiro, benetan izan bait zan mundu guztiaren Aita'

Erriak geienik maite izan dituan Aitasantuetan, IX Klemente du-gu, zalantzarik gabe, maitatuenetako bat' Eta ez da arritzekoa; gaixoe-kin, beartsuekin, txiker guztiekin, xamurra eta goxoa izan bait zitzaigun'

Nepotismoaren etsai amorratua zalarik, ez zuan sendikoei lagun-zen txanponik gastatu, baiña bai 600'000 ezkutu limosnetan, bere aitasantutzako lenen bi illabeteetan bakarrik' Gogorra izan zan bere buruarekin; "Aliis non sibi clemens", duzu bere armarrian ip ñi zuan goiburu-itza: "Besteentzat biguñia, ez beretzat".

Ta ala bizi izan zan apalki, geiegikeririk gabe'

Aitasantu guztiak izan dira beartsuekin esku-zabalak' Danak! Ori, gure atsegiñ aundirako, edestilari guztiek aitortu bear izan duten gauza da' Danak, txiro ta beartsuekin eskuzabalak! Baita, beste modu askotara dirua txoroki ta arrazoirik gabe ondatu zuten Birjaiotzako Aitasantu aiek ere! Aitasantu guztien doaia izan da landerrentzako biotz-zabaltasuna. Limosna egitea, limosna gogo osoz eta oparo egi-tea, izan zuten orduango Aitasantuek beren soziologiekintza, eta ekintza ori naikoa izan ez zitekeanik ez zitzaien burutik pasa ere. So-ziologiaren arloan, ez ziran limosna-gintzatik aurrera igaro. Ontan ere bere denborako umea izaki gure Eliza!

Aztertu dezagun orduango Elizaren gizarteko-jokaera.

X KLEMENTE (1670.1676)

Lau illabeteko Giltzape-Batzar urduri baten ondorean, Emilio Aitieri erromatarra izan zan Aitasantu izendatua. Bere aurrekoaren ornezez, Klemente artu zuan izen, bere aurreko ark egin bait zuan iltzer zegoala, kardenai. Eta esan omen zion baita're, bera il ondorean Aitasantu izango zala.

Larogei urte igaroak zituan Aulki Donerako autatu zutenean. Agian orregaitik, agure zarra zalako, eman zioten kardenal guztiek beren autarkia: beste bat aukeratzeko ezin konpondu ziralako.

Gizon ona zan X Klemente: apala, errukitsua, txiroen maitale aundia, Apaiz bikaiña. Agurea zala-ta, Kardenal egin zuan Paluzzo Paluzzi'ren eskuetan utzi zuan Eliza eta Erroma'ko Jaurerria jaurtzeko zama. "Alare, naiz agure, gizon sendoa agertu zan bera ere, era arrigarran sendoa, Frantzi'ren arrokeriari erantzutean": "In spite of his advanced age, Clement showed himself surprisingly firm in the face of French arrogance". (E.A.Ryan)'

Frantzi'ko XIV Koldobika'k sortu zizkion arazorik latzenak. Elizako karguetako jendeak iltzean, kargu oien errentak bere sakelara eramai zituan Errege ark, beste gizon batzuk kargu aietarako izendatu arte' Galikeriak aize emanda, sartu ziran Errege aren Kontsejukoak erlijiosoek non eta nola jendea aitortu bear zuten erabakitzeke lege-ematera! Ez zuten Aitasantu zarra kukildu'

Beste arazo batean ere asarretu zuan XIV Koldobika'k X Klemente zaarra: Turkitarrekingo arazoan.

V Maomet Sultanak Poloni'ri eraso zion 100.000 gudariz osatutako gudarozte batekin' Kinka larria, Poloni bikaiñarentzat' Baiña bein berriro garaille irten ziran polonitarrak, "Ipar-Leoia", Jon Sobieski, buruzagi zutela, 1673'gn urteko Azaroaren 11'ean.

Poz aundia eman zion Aitasantu zaarrari gurenda aundi ark. Eta aundiagoa izan zan bere poza, andik laister Jon Sobieski Errege egiña izan zala jakin zuanean.

Errez jo zezakean orduan aurrera Jon Sobieski Errege berriak turkitarren aurka, eta diru pïllo ederra bidali zion ortarako Klemente X'ak, Oso larri ibilli bearra zan Turki'ko Sultana, Jon Sobieski'k eraso balio; eta bazuan onek ori egiteko asmoa' Baiña XIV Koldobika'k V Maomet Sultanarekin egindako pake eta alkarteek eragozi zioten ekintza ura.

Saiatu zan X Klemente Erroma edertzen ere. Berea da Altieri ize-neko jauregi dotorea, berak aginduta egiña, ez, alare, bera an bizitzeko.

Eraspen aundiz azken-sakramentuak artuta il zan santuki gizon maitagarri ura.

ARGIKUNTZA-AROKO ELIZAREN SOZIOLOGIA

Zugaitz-mota bakoitzak bere zituak izaten ditu, eta giro bakoitzak bere emariak. Ez da zillegi neguari udako emaitzik eskatzea. Ez da iñor intxaurrondora udare billa joaten. Edestiari bakoitzak ere bere gogoeta, sentimentu, eta jokaera bereiziak izan oi ditu. Gaur-egunekoak ez dira atzokoak bezalakoak, eta biarkoak ere ez dira gaurkoak bezalakoak izango. Biarko gizakumeek ez dute guri gaurkoak ez diran gogapen eta sentimentuak eskatzeko eskubiderik izango; ez dugu guk ere atzoko gizakumeei gaurkoak bai baiño atzokoak ez ziranak eskatzeko aalmenik.

Orregaitik, gizarteko arazoeiburuz, —adibidez jopu, langille, emakumezko, eta mota guztietako jende landerren eskubideei-buruz—, XVII eta XVIII mendeko jokabideak ez ziran XX mendekoak bezalakoak izan. Gaur-egun biziki sentitzen ditugu gizartean eta Eliza-baitan soziologiariburuzko arazoak. Argikuntza-aroko jende aiek arazo oiek ez zituzten orrela sentitu. Are geiago, ez zituzten ikusi ere egin! Ez zaitetz arritu, guk ere gaur ez bait ditugu, biar jendea biziki kezkatuko duten arazoak ikusten. Bakoitzari berea, da zuzenbidea' Berdin edestiaren barrutian: Aro bakoitzari, berea; berea bakarrik! Ez al da orixe gertatzen gizakume bakoitzaren edestitxoan ere? Gauza batzuek kezkatzen dute ogei urteko mutilla, eta beste batzuek larogei urteko agurea. Arrazoiketa zuzenean, ez zaio iñorreri zillegi neskatiil gazte bati amona xarrarenak diran pentsabiderik eta jokabiderik eskatzea; ezta alderantziz, amona xarrari neskatiil gaztearenak diranak. Aro bakoitzari, berea!

"FEMINISMOA".— So-dagiegun emakumezkoen eskubideei. Arro dabilzkigu gaur talde feministetako oillandak oillarren galdorra jantzi naiean oiuka. Leen ez zan orrela. Argikuntza-arorako asiak ziran emakumeak burua jasotzen, baiña oso neurri laburrean. Ordurarte, eta baita orduan bertan ere, ez zitzaien emakumezkoei gizonezkoei aiñako eskubiderik ematen' Emakumezkoa, izaki aul eta aluxamarra bezala oi zan ikusia; ez zala bere buraren jebe izateko gai, uste izaten zan, eta orregaitik, beti gizaseme baten zaintzapean eta gizaseme orren

esanera beti, egoteko jaioa zala pentsatzen zan. Ez zitzairen, oridalata, neskatillei, mutillei bezalako erakuskizun beterik ematen. Birjaiotzako emakume olerkari eta idazle bikaiñ aiek, aristokrazikumeak ziran, eta ez ugari. Aundikien artean ere ez bait zitzairen alabei adimena semei bezain dotore jazten. Ez zuan inork pentsatu ere egiten Unibersitate eta Ikastetxe Nagusietara emakumezkorik jean zitekeanik.

Birjaiotzakoan, umanista kristau jator bat, Vives balentziarra, izan genduan emakumezkoen eziketaz leHenik arduratu zana; berak idatzi bait zuan 1523'an, eginkizun ortarako aurreneko liburua: "De Institutione Feminae Christianae": "Emakume Kristauaren Ezibidea". Irakaskera edo pedagogi berri baten sorketa izan zan Vives maitagariaren idazti ura: gertakizun portitza eta garrantzi aundikoa irakaskintza eta ezikuntzaren edestian. Ala ikusi ere ikusi zuan orduango jendeak, berrogei argitarapen aiña izan zituan bâ liburu ark urte gutxiren barruan'

Vives argitsuaren gogoetek ordea ez zuten teologilarien edo kanoilarien, eta askoz gutxiago, Aitasantuen inguruko kuria-gizonen egoera geldi igikaitzarik astindu. Ikusi dugu bâ, Birjaiotza-aroa aztertzerakoan, zein den gaizki artuak izan ziran kuriatarren artean, orduan sortu zitzaizkigun monja izateko era berriak, eta, klausurik gabeko monja berri aiei, nola klausura-barruan lekaimeak bezala bizitzea agindu nai izan zitzairen' Inoiz kalera irten gabe!

Erroma'k ere ez zuan uste emakumezkoak, naiz abittuz jantzi, beren buruak zaintzeko gai izan zitezkeanik. Monja berri aiei gaisotegietan beartsuak zaintzen, ikastetxeetan neskatoak ezitzen, eta beste karitate-ekintzetan jende landerrei laguntzen ibilli aal zitezen, klausurarik gabe bizitzeko eskubide-ematea arrisku geiegiko gauza iduritzen zitzairen Kuriako Jaun burutsuei. Monjak emakumeak dira, eta emakumeak, gizaki aulak! Klausurik gabeko monjak? "Vade retro Satanas"! "Esti, Satanas"!

Oroi dezagun zenbataiñeko naigabeak jasan bear izan zituan Mary Ward, Inghlanderritik etorritako neskatx aintzagarriak, monja-talde berri bat sortu zualako.

Inghlanderriko ugartean, naiz kultura geiago ez, Europa'ko lurrai de zabalean barri() askatasun geiago zuten emakumeek, gizartean lare ibiltzeko. Askatasun ortara oitua genduan Mary Ward bera ere inghlanderriarra zalarik. Askatasun garbi orrekin sartu zitzaigun apostolutzako ekintzetan, eta askatasun garbi ori laga nai izan zien, berak asmatu zizkigun monja berriei.

Ez zuan Erroma'k monjatxo iare alaitu bikain aren eta aren aizen jokabiderik ulertu. Errukirik gabe eraso zion Aitasantuaren kuriak eta baita VIII Urban Aitasantuak berak ere. Espetxera jaurtia izan zan Mary Ward zorigabea, eta an egon bear izan zuan baiturik luzaroan. Gauza gogorak zabaldu ere zabaldu bait ziran jendearen-artean aren izen onaren aurka!

Mary Ward, "emakume berdingabea" eta "Inglanderriko Elizak bere egunik odoltsuenetan Eliz Osoari emandako doairik bikaiñena" izan zala, idatzi zuan laureun urte geroago XII Pio Aitasantuak. ¿Zergaitik ote, Elizak dagizkin goratarre guztiak, geienak beintzat, beranduegi egiñak izan-bear ori?

XVII mendekoa dugu Paul'eko Donebixente. Gaskoindarra. "Karitatearen Alaben" sortzaillea.

Batean "uso eta suge" izan bear dugula dio Ebangelioak' "Uxo", uxo garbi malizirik gabea izan zitzaigun Mari Ward. "Uso eta suge", Bixente Deuna: Gaskoindarra zalako, agian!, aski "axeri" omen dira b̄a Gaskuñako jende erdieuskotarrak. Aurkitu zuan beintzat, kanon-legearen esiaren artetik eta kuriatarren kezka guztien azpitik, bere monja berriekin eragozpenik gabe igaro aal izateko zirrikua. Nola? Monja berri aiek monja ez zirala esanaz'

Eta egia zion' Paul'eko Bixente'ren asmoetan, "Karitate-Alaben" Lagundi berri ura ez zan "Lagundi Erlijioso" bat izango. "Lagunarte Sekular" bat baizik: Karitate-ekintzetarako alkarrekin batutako neskatil sekularren lagunarte sekularra.

GIZARTEKO EZBERDINTASUNAK.— Mailla askotan zatiturik zegoan Argikuntza-aroko gizadia: ta zearo ezberdiñak ziran mailla aiek. Onura eta almen aundikoak batzuk, eta ez almen eta ez onurik gabekoak beste batzuk. Gaur-egun gizakume guztien berdintasuna dugu ames' Baiña ori gaurko ametsa da, ez orduangoa. Orduan ez zuan iñork ortan ametsik egiten; edesti aro bakoitzak bere amets bereziak izaten bait ditu'

Garai artako jende guztiak bezala, ez zuan Elizak ere gizarteko maillaketa ortan okerkeririk ikusi. Geiago oraindik: gizadiak orrela maillatua izan bear zuala uste izan zuan. Orixe bait zan giro arri zegokion ustea.

Ez dezagun ordea oker ulertu Elizaren orduango uste ori. Elizak ez bait du sekular, bere balioan pertsona guztiak berdiñak diranik ukatu. Ez orixe! Alderantziz, Eliza izan da gizadiari gizakume danak beren zertasunean eta nortasunean osoro berdiñak dirala erakutsi

diona' Eta ori, Elizaren asiera-asieratik! Baiña gizarte-bizieraren axaleko ezberdintasunek ez zioten antziña artan kezkarik eman.'. Ez zituan ikusi ere; eta, ez zezazkean ikusi!, orduangoak bait ziran orduan Elizak zituan begiak; orduangoak! Ez, gaurkoak!

Atsegin izango zitzaiguke guri, gizadiaren aurrerapen guztietan Eliza aitzindari ikustea. Baiña gauzak ez dira orrela gertatu. Askotan, Elizak erakutsi dituan Gogapen Nagusien ondorioak, Elizatik-at, kristauetak ez baiña kristau ez diran beste batzuek atera izan dituzte. Orrela nai izan du Jainkoak, agian kristauok munduaren aurrean geiegi arrotu ez gaitezen. Esan ere esan daiteke gauza batzuk kanpotik erakusten dizkiola Jainkoak Elizari. XXIII Jon Aitasantuaren eta II Batikan Kontzilioaren izkeran, kanpotiko erakusketa jainkotiar oiek "denboretako siñaleak" dira, eta Jainkoaren erakusketa diralarik "denboretako siñale"-oiek apalki aztertzeraz eta zintzoki ulertzen saiatzeraz bearturik aurkitzen zaigu Eliza, beraien bidez itzegiten bait dio Jainkoak.

Baiña kosta egiten zaio Elizari "siñale" oiek ikustea eta era zuzenean aditzea' Orrela, Argikuntzakoan ere geiegi lotu zan Eliza garai artako gizartearen ezberdintasuneko oiturei. Ala, Españi'ko Jaurerrietan izan ezik, aristokrazikumeen artetik bakarrik ateratzen zituan gotzaiak Kristaudi guzian. Jatorri garbiko sendikumeak izan bear zuten gotzaiak!

Inperiolurretan bi erakoak ziran lekaidetxeak: Aristokraziko lekaideentzat batzuk; erri landerrekoentzat beste batzuk' Aristokrazikoan lekaidetxeetan burgesikumerik ere ez zitekean sartu, eta auetakoren batek an sartzea lortzen ba'zuan, bigarren mailleko lekaide bezaia sartzan zan, eta bigarren mailleko lekaidea izango zan beti, "kapitulu" edo "batzarrean" eseritzeko eta lekaidetxearen zuzendaritzan eta administraketan parte artzeko eskubiderik gabe. Lekaidetxe auetakoa zenduan, Alemani'n, Fulda'ko Lekaidetxe ospetsua bera' Ez zan Donebenito bizi!

Badu oitura onek, bai noski, EgoAfrika'ko "apartheid" edo be-reizkundearan itxura, gaur-eguneko oi batere atsegin ez zaigun itxura' Baiña garai artako Iokatzak ziran oiek. Ezin izango duzu iñoiz, —ez atzo, ez gaur, ez biar—, bere garaieko Jokatzan orbanik ez duan Elizarik aurkitu. Izan ez daitekearen gauza baten billa ibilliko ziñake gaiñera; zuk aurki nai zendukean Eliz ori ez bait litzake mundu ontako Eliza izango, batera "gari eta zalge" dan ebangelioko alorra.

Gizarteko ezberdintasunari dagokionez, esan dezagun ezberdintasun ori orduango gizadiaren ezaugarrietako bat izan zala' Aztertu

ditzagun, adibidetzat, garai artako bi Erregerik aberatsenen jaurreriak:

—II Felipe'ren Gaztela, Aragoi, eta Portugal'en, soilki bi giza-mailla ziran onuragarriak eta eskubideen jabe: Aristokrazikumeen giza-mailla eta Eliz-jendearena.

Aristokrazia, Printzipeetatik asita aitoren-sumeenganaino iristen zan. Mailla ortakoei, "odol garbiko jendea" esaten zitzaien; "odol urdiñekoa" Beren eginkizun bakarrak auetzek zenituan: Politika (Erregeak artara deitzen ba'zitan), eta gudagintza; gudagintza batez ere, eta gudarik ez zan aldietan, eiza.

Beste lanik ez zizuten egingo; ezta goseak iltzeko arriskuan aurkitzen ba'ziran ere, ohea etsitzen bait zuten onorez zaldunki iltzea, omenik gabe jopuen eran lanean bizitzea baiño' Izan ere, legeak, izen onaren laidogarriztat jotzen zituan eiza, guda eta politika ez ziran lan-mota guztiak: orfebre edo urre-ta-zillargilleetatik asi, eta artzaietaraino' Salerosketa, judutarren usaiaz kutsututako ariketa zan; nekazaritza, jopuen eta moriskuen eginkizuna; bankularitza berriz':; oi, Españi'k ez zuan XVIII mendearen bigarren erdirarte banku bat izan, eta orduan ere baionatar bat, Cabarrus, izan zan San Karlos'en Bankua sortu zuana' Elizak berak ere, "opera servilia" "jopu-lanak", esan izan die gaur-gaur arte esku-lan guztiei.

Nekazaritza, moriskuen, jopuen, eta jende arruntaren eskuetan zegoan: "odol zikiñeko" jendeen eskuetan. Nekazaririk bikaiñenak, mauritar jatorriko moriskuak ziran' Balentzi, Katalauni, Aragoi, eta Andaluzi'n bereiziki (Badakizu noski, "morisku", "Reconquista"koan bataioa artuta Españi'n jarraitu zuten rnauritarrei esaten zitzaiea).

Españi'ko errijendearen aldean aberatsak ziran moriskuak eta langilleak, edo beintzat, Españi'ko jende alperraren alboan oso langilleztat eukiak, —musulmanak, berenez, ez bait dira iñon lanaren maitalegiak izan—. Ikus zer dion moriskuei buruz, zuk, irakurle errezen aurki dezakezun liburuak:

"Dedicábanse los moriscos a la agricultura, comercio, oficios mecánicos y artes varias, y como eran muy económicos y sobrios, adquirieron en general grandes riquezas, a pesar de los impuestos que se les exigian". (Espasa Iztegia).

Aberastasun orrek sortututako bekaizkeria, ez ote zan kristauek zieten gorrotoaren iturburuetako bat? Baleike; baiña, alatagutziz, betidanik izan ziran moriskuak Españi'n gogorki erabilliak; eta gogorkeri orrek suminduta, bein baiño geiagotan jeiki ziran izkilluz Erregeen

aurka; indarrez bataiatuak izan ziralako ez bait ziran sekulan biotzez kristau biurtu' Errege Katolikoan denboran egin zuten lenengo matxinada. Talabera'ko Fray Hernando'ri eskerrak egin zan orduan pakea; eta praille onen eskariei erantzunaz, eman zieten Erregeek morisku aiei barkapena, baiña "a condición de que se tornasen cristianos o dejasen la tierra".

Atertu gabe jarraitu zuten gogorkeriak aide batetik eta matxinadak bestetik. Iraultza auetan gogorrena, II Felipe'ren denborako "Alpujarretako gudua" izan zan, Austri'ko Jon, Felipe II'aren sasi-anaiak borroka odoltsuen ondorean irabazi zuan gudua.

III Felipe Errege zala 1609'an, izan ziran moriskuak betirako erbesteratutak, Balentzi'kuak aurrena, lurralde artan bizi bait ziran ugarienik' Berekin eraman zezaketena bakarrik utzi zitzaizen eramaten; beste aberastasun guztiak emen utzibearrean aurkitu ziran' Iru egun bakarrik ematen zitzaizkien Españi'tik irtetzeko Erregeak ortarako ipintzen zizkien ontzietan. Iru egun oiek igarota Españi'n aurkitzen zana, eriotzaz izanen zan zigortua. Erabat izanen ziran eriotzez zigortuak izkutatutako moriskurik salatzen ez zuten kristauak. Lau urtetik beerako umeak gelditu zitezkean emen, berak eta beren gurasoak ala nai ba'zuten.

Baita, ama kristauen umeak ere, naiz aita moriskua izan'

Iru egunez, itxasertzeko kaietara zijoazen morisku zorigabez beterik aurkitu ziran Balentzi'ko bideak, eta egin zuten lapurrek, doakabe aien lepotik, uzta ederrik ugari.

Kaietako ontzizabeek ere ipiñi zituzten, beren ontziak, sari mardularen truke, dirurik geiena zeramakiten moriskuen serbitzura, baiña Agintariak galerazi bear izan zuten ori, ontzizabe aietako batzuek, moriskuei diru guztia kentzeko, gizezkoak il eta itxasora jaurti bait zituzten; emakumezkoak berriz, indarpean lizunkeriz erabilli!

Lau illabete geroago, Españi'ko beste Jaurerrietatik, morisku guztiak izan ziran jaurtiak.

Aurrena, urre, zillar, bitxi, eta diru-eramatea zearo galerazi zitzaizen; gero ordea, utzi zitzaizen erdia berekin ateratzen'

Len Balentzi'koei bezala, debekatu zitzaizen aueri ere, gari, oligo, abere, etxe, alor, ola, eta beste edozer gauzaren salketa.

Okerragoa dana, zazpi urtetik beerako seme alabak emen uzteko agindu zitzaizen. Urne aiek kristau egiteko asmoz, bai noski. Gurasoen eskubideak zapalduaz? Bai, gaurko buruarekin pentsatu ezkerro. Baiña orduango buruek, kristau izatera iritxi aal izateko eskubidea beste

eskubide eta lege guztien gaindik zegoala pentsatzen zuten'

Era mingarrian gelditu zan España. Begira zer dion len aipatutako idaztiak berak: "La expulsion de los moriscos fue sin duda un mal, considerada desde el punto de vista económico, porque con tal medida fue privada España de una importante parte de la poblacibn agrícola, mercantil, e industrial. Los campos que habian sido cultivados por los moriscos se convirtieron en eriales; y se resintieron de la fait.e. de brazos y de inteligencia el cultivo del azûcar, del algodÔn y de los cereales, el sistema de irrigación por medio de canales y acequias, la fabricacibn de sedas, curtidos y papel, y muchos oficios mecenicos, que eran despreciados por los españoles" (L'C.)

Arazo mingarri orri buruz, zer esan zuan?

Elizak ez zuan ezer esan. Ez zezakean esan ere; oso urruti bait zegoan oraindik orduango Elizaren burutik, gero Elizak berak, Il Batikan-Kontzilioan, lege egingo zuan "Erlijiorako Askatasuna"!

Are geiago, ondo iruditu zitzaion orduango Elizari moriskuen erbesteratzea. Orduango Elizak orduango eraz ikusten bait zituan gauzak. Okerkeri aundia egingo dugu, orduango jendei gauzak gaurko begiekin ikusteko eskatzen ba'diegu. Gaur-egun ere izango dira gauzak, guk, gure gaurko begiekin, gaizki daudela ikusi ere egiten ez ditugun gauzak! Alderantziz; izuzen daudela pentsatzen ditugun gauzak! Okerkeri aundia egingo dute biar biarko jendeek, guri, gaur, gaurkoak ez baiña biarkoak diran begiekin, —ots, gure denborakoak ez diralako gureak izan ez daitezkean begiekin— gauzak ikusteko, biar eskatzen ba'digute. Edestiizti ziurrean iñolaz ere egin ez daitekean okerkeria!

Alatagutziz, 1604'ean, Aitasantuari aolkua eskatu zitzaionean, V Paul'ek ez zuan, Erregeari eta Gotzaiei eman zien erantzunean, "moriskuak España'tik jaurtitzerik" aipatu ere egiten' Alderantziz, 1606'ean, moriskuak kristautzeko, egiaz kristautzeko, era egokiak, baiña goxoak, eta legunak, erabiltzeko, agintzen zuan.

Españietako Gotzaiek, geienak beintzat, moriskuak erbestera-tzearen zaleak izan zirala esan genezake. Orixe eskatu zion azkenean Erregeari, moriskuen artean, maitasun osoz, ainbeste lan egindako Ribera'ko Jon Doatsuak ere.

Moriskuetaz gaiñera, baziran Españietan, —Gaztela'n, Aragoi'en eta Portugal'en— beste nekazari batzuk ere: "los siervos" Aal zuten lanik gutxiena egiten zuten jendeak. Jende auek, alperrak eta balio gutxikoak ziran. Zergaitik? Alde batetik, lurra bereak ez zituztelako, eta bestetik, lurra era egokian erabiltzen ez zekitelako' Eta..., baita

oso kemen urriko gizakumeak ziralako ere; kemen pixka bat zuan guztia, betirako mixeri utsa zan nekazaritzatik iges egitearren, edo guda-roztera edo Ameriketara joaten bait zan. Ori, gaztetik konbentu batera iraduz sartzen ziran aiek kontatzeke! Konbentuan, Ameriketan, edo gudaroztean, zegoan soilki "norbait" izatera iritxi aal izateko modua, eta baita, Ameriketan, suerte pixka bat izan ezkeru, errez aberastutze-ko bidea ere.

Larre bihurturik zeuden Españietako alorrak ugari. Lur aiek danak aristokrazi-senditalde txiki batenak ziran. Erriko jendetxo landerra apika zan lur-pusketatxo batzuen jabe.

Mugarik gabeko lurralde zabal aien jabeek ordea ezin zezaketen langillerik aurkitu. Ez zuten langille-aurkitu-bear gorririk izaten ere, maizter mirabe nagi aiek lantzen zizkieten sorobazterretako zituekin, eta gudagintzan irabazitako txanpontxoekin naikoa izaten bait zuten bizitzeko. Laterriak eta Erregeak aski zuten Ameriketatik zetorzkien zillarrez betetako itsas-ontziekin.

Bai, irakurle: ez morisku eta ez aristokrazikoen maizter serbitzari ez ziran nekazari iareak ere bazenituen Españi`n, baiña oso lur-puska motzen jabeak, eta, ez praille sartzeko, ez armak artzeko, ez Ameriketara joateko, kemenik izan ez zuten jendeak' Gaitasun gutxikoak beraz; eta ortaz gaiñera nekazaritza-gauzetan jakituri txit urrikoak; eta zearo txiroak'

Nekazari auen aide mintzatu zan, egoki gaiñera, Mariana edestilari jatorra, III Felipe'rentzat idatzi zuan "Espejo de Principes" izeneko liburuan' Onatx, Mariana Aitak Erregeari eskatzen zizkion gauzarik nabarmenenak:

 Españi'n jendeen arteko ezberdintasunak geiegizkoak ziralata, ezberdintasun aiek txikiagotzen saiatzeko;

 Zergak, soilki lujozko gauzei ipintzeko; ez bizitzeko bearbearrezkoak ziran gauzei;

 Legez eta diruz nekazari beartsuei laguntzeko.

Ez zion noski, Felipe gazteari, erregetza baten asierarako, egitarau txarra eskeintzen!

Elizgizonei berriz, soziologiaren barrutian erantzukizun larria eta zer-egin aundia zutela, adierazten zien argiro.

Frantzi'n ez zeuden gauzak Espaiñi'n baiño askoz obeki, naiz urte aiek izan Frantzi'ko edestiaren urterik dizdiratsuenak'

XIV Koldobika Borboitarra zan Errege; arroa, kaxkariña, lizuna, oso balio gutxiko gizona. Bere iztarren edertasunez lilluratua bizi izan zala emakumezkoen kixa, dio norbaitek. Errege ustel aren gorputz ilari begira berriz, "gorriak ikusi bearko dizkik infernurik baldin ba'da, baiña infernurik ez ba'da, !a zer bizitza izan dan berea"! oiu egin omen zuan zaldun aundiki batek.

"A zer nolako bizitza" ura, iñoiz garrantziko gauzarik egin gabe, maitaleen besoetan ibiltzea izan zan, Jaurreriko aberastasunak era zoroan janaz. Ain zuzen, bi kardenalek, Richelieu'k eta Mazarino'k, Frantzi'rentzat irabazitako aberastasunak janaz! Beste iñongo erregeak baiño geiago oparotasunez inguratua agertu ai zalako beti, "le Roi Soleil", "Errege Eguzkia" esaten zioten ingurukoek eta esaten dio gaur ere edestiak'

Erregea bezala bizi ziran alboko duke, konte, eta aundikiak Frantzi'n. Ta ori izan zan "Errege Eguzkia" il zanean, aren billoba Koldobika XV'aren eta bere ingurukoen bizimodua ere: Apainkeri kiratsa, umekeri ezereza, aragikeri lizuna.

"Illobi zurituetaz" mintzatzen zaigu Ebangelioa. Bâ iñoiz munduan "illobi zuriturik" izan ba'da, Borboitar aien erregetza izan zan, baike, izan daitekean illobirik zurituena'

Argikuntzako kulturaz eta kristautasunaren dizdiraz zegoan egiña illobi ura estaitzen zuan izara zuria'

Maiz entzungo zenduan, orduango Frantzi'aren kulturaren gartzarrea. Ez zaitzala iñork atzipetu. Oso ariña eta aski axai utsekoa izan zan Frantzi "argituaren" kultura. Izadi-jakintzetan eta teknika-ara zoetan, Espaiñ baiño bi mendez aurrerago, bai noski, baiña Europa'ko beste Laterrien aldean aski atzeraturik aurkitzen zan Frantzi. Aintzi-nean zeuzkan, askoz gaiñera, Olanda, Suezi, Eskozi, eta Inghlanderria. Frantzi'ko kultura, literaturazkoa zan, eta ez gaiñera oso sakona. Aski izango duzu, kultura aren eredutzat Voltaire ipiña izaten dala jakitea.

Bere erria eta bere erritarrak geiegitxo goratzearen zale izan dira beti Frantzi'ko jendeak. Zaletasun orri zor dio batez ere Voltaire'k lengo mendeetan izan duan ospea. Frantzi'n jaiobearrean Inghlanderrian edo Olanda'n edo Alemani'n jaioko balitz, ez zuan Voltaire'k izan duan eraspenaren erdirik ere izango, barne-aberastasun errikoak bait dira bere idazti guztiak. Baiña Voltaire'z, beste une batean mintzatuko gera.

Ta..., garai artako aundiki frantziar aien kristautasunaz z zer pentsa?

Aien kultura bezala beraien kristautasuna ere axal-axalekoa izan zala, entzunik egongo zera, baiña ez dut uste, ori ain egia danik'

Egia da bai, Errege eta aundiki aiek ibildeun, meza abestu eder, eta orrelako zirimoni dizdiratsuen maitaleak zirala, baiña egia da baitare, kristautasuna aien biotzetan sakon erroturik zegoala. Beren bitzta ez zan biotzez sinisten zutenaren kidekoa izango, baiña, alata-gutziz, sendoa zan biotz aien barruan sinismena. Ar dezagun eredu-tzat Pompadour'ko Markesa, Koldobika XV'aren maitale lizuna. "Be-realaxe Erregearekin ogera joango zera-ta, zer inporta dezaikezu zuri, orain, apaltzeko aragia jan edo ez"?, galdetu omen zion garizumako ostiral-gau batez aren adiskideren batek. "Ez dut uste Jainkoaren legeko agindu bat ez kunplitzeak beste aginduak ere ez kunplitzeko eskubide-ematen didanik", erantzun omen zion arek'

Jende aien kristautasunaren egitasunaz mintzatzen zaigu, laister aztertuko dugun jantsenikeriaren arazoak ere.

Frantzi'ko erria berriz, aundiki kristau eta "argitu" aien menpean goseak bizi zan. Berez ain aberatsa dan Frantzi'an, erri xea, gose gorrian bizi zan' Bai; arin-arin, eta iraduz, urbiltzen ari zan Iraultza Nagusiaren eguna.

Frantzi'ko eliz-gizonen jokabidea nolakoa izan zan jakin naiean egongo zera. Bâ... Frantzi'ko eliz-gizonek, edo ez zuten egoera aren larritasun eta garrantzi izugarririk bear bezain argi ikusi, edo ez ziran arazo artaz bear zan aiñako argitasunarekin mintzatzera ausartu'

Ez zan, ez noski, ez zan erreza Erregearen elizkizun apaintsu aietan pulpittutik Erregearen eta bere inguruko jendeen jokabidea salatzen astea. Baiña..., zillegi bezait ostera galdera bera: ¿konturatzen ote ziran izlari bikain aiek salaketa ori egin bearra zutela? ,Gai ortaz suma ote zuten iñoiz beren barnean kontzientziaren arra?

Bazan bâ orduan izlari bikaiñik Frantzi'an! Bossuet Gotzaia, Bourdaloue, Massillon oratoritarra eta, idazle lez bereiziki, Fenelon gotzaia... Baiña elertilari bikain oiek danak ta oien antzeko beste batzuek, ez zuten arazo aietaz Erregeen aurrean argi eta garbi itzegiteko bearrezkoa zan ausardi santurik idoro, edo, ez ziran arazo aietaz itzegitearen bearbizunaz konturatu. ote da "edoketa" bikoitz ortan egiazko punttua? Nere ustez, bigarrena: Ez zirala konturatu.

Danadala, Frantzi'k ez zuan. kinka larri artan profetarik izan' Ez zan bâ orduantxe zertaz mintzatuaren faltarik! Erregeen arrotasun

txoroa, erriaren gosea, Aristokrazikoen biziera aberats enasa, nekazari eta langilleen mixeri gorria, "argitu" ospetsu batzuen sinisgabekeri lotsagabea, jantsenitarren biurrikeri zitala'.., eta, okerkeri guzti oien zear, ernetzen, azitzen eta mardultzen ikusi zitekean Iraultza Nagusi odoltsuaren urbiltasuna. Ez; ez zan profezirako gairik falta; gizona falta zan, Jainkoaren izenean bildurrik gabe mintzatzeko goiargiz igurtzitako gizona!

Izlarietaz dioguna esan dezakegu idazleetaz ere. Fenelon gozaiak bakarrik izan zuan begi erne eta kemenik aski "Aventures de Télémaque", "Plan de Gouvernement", eta "Essai Philosophique sur le Gouvernement Civil", izeneko liburuetan atal bikain auek kezkarik gabe argitara emateko:

Zuzentasunaren aurkako guda oro, naiz garaitzaz amaitu, pekatu aundia zala beti;

Ospea, aintza, eta aberastasuna, ez zirala errege baten asmoen eta ariketen elburu. Errege ororP- asmo eta ekintza guztien elburua, jaurerriko jendeen arteko zintzotasuna, eta bereiziki, bearsuen zoria zirala, eta, ortarako, alde guztietatik garbia eta zintzoa izan bear zuala erregearen jokaerak.

Alderantziz ordea, beste asmo bikoitz auxe izan zan Koldobika XIV'aren politika-bidean elburua:

—Jaurerriaren mugetatik arunzko politikari zegokionez, gudu-egitearen bidez inguruko Laterriei al zituan puskarik aundienak kenduaz, bere Jaurerria aunditzea.

Jaurerri-barrengo arazoei zegokienez, bere erregetza dizdiratsuaren adigarritzat artu zuan Paris'ko uria edertzea; edertasunean, aunditasunean eta oparotasunean Paris Erroma'ren gaindik ipintzea. Paris'ek izan bear zuan munduko uririk bikaiñena'

Ta ori dana lortzearren, errukirik gabe eta neurrik gabe zamatu zuan zergaz Frantzi'ko erri langillea.

Ori gogoan arturik, errez igarri dezakezu Fenelon'en aolkuek eginen zioten grazia.

Batez ere Fenelon'ek "Telemako" argitaratu zuanean zizpoztu zan, arras, "Errege Eguzkia"; bere billobarentzat, XV Koldobika izango zanarentzat, idatzia izan bait zan. Liburu ura argitara ateratzea, bere politika salatzea zala uste izan zuan, eta zearo asarretu zan Fenelon'ekin. Liburu berriz, galerazia izan zan, eta sutara botreak, aurkitu ziran ale guztiak.

Gizon garbia izan genduan Fenelon ain usteldurik zegoan Frantzi "argitu" artan. Neke aundiak jasan bear izan zituan gizagajoak bere zintzotasunaren eta ausardi santuaren ondorioz, laister ikusiko dugun lez.

Egia da, aski usteldurik zegoala orduango Frantzi'a' Baiña, alata-gutziz, Frantzi usteldu artan sortu zan, Anaidi berri ospetsu bat: "Ikastola Kristau lareen Anaidia". La Salle'ko Jon Batista Reims'eko kano-nigoa izan zuan sortzaillea. Elburua berriz, gaztedi landerraren kristau-eziketa izan zuan Anaidi berriak elburu.

Garrantzi aundia du irakaskintzaren edestian La Salle'tarraren Anaidiak, Anaidi au izan bait zan aurrenekoa, latiña utzita, bigarren maillako irakaskintza erriko izkuntzan egiten asi zan erakundea. Bera izan zan, baita're, irakasleak egoki prestatzeko, "irakaslegaiantzako ikastolak" lendabizi antolatu zituana' Damaiegun, lasalletarrei, merezi duten omena!

Urrats egokia, baiki, lasalletarrena gizartearen barrutian, baiña ez naikoa gure atsedenerako; ezta askoz gutxiagorik ere!; pausu ark, naiz garrantzitsua izan, ez bait ditu gizarte-arazoan arloan ain zuzen, **Argikuntzako Eliz apain eta aberats aren utsunak estaltzen.**

Eliz-gizon dotore aiek, ez Frantzi apaiñean ez Erroma aberatsean, ez gaiñerako kristaudiaren lurralde zabaletan, ez zuten zoziologizko zentzurik izan. Ta ez ezazu uste ori Eliza Katolikoaren utsuna izan zani, orixe bera gertatu bait zan Alemani'n lutertarren artean, edo In-glanderriko anglitarren artean. Eta baita kalbindarren Olanda'n eta Suizi'n ere!

"Errege Eguzkiaren" denbora dizdiratsuan, soziologiko arazoak ez zituan iñork ikusten.

In-glanderrian, beste toki guztietan bezala, oso gaizki bizi ziran nekazariak eta eskulangilleak. Aiek, "nekazariak, ia danak, edo jopu serbitzari edo morroiak ziran gaiñera' Erriko-jende gaixo landerrak, pillaka eta pillaka, lanik gabe aurkitzen ziran; txirotasun gorrian" Baiña Baxter anglitar ezagunaren iritziz, "alperkeria" omen zan lanik-eza arén sustraia, eta txirotasunarena berriz, Jainkoak ala nai izatea!: Jainkoaren naimena!. Jainkoak berak nai omen zuan txiro ziranak txiro izatea, ondo omen zekian bâ berak, (Jainkoak), jende aiek aberasten ba'ziran, ez zutela aberastasunak berekin dituan ondamen-arriskuak garaitzeko kemenik izango.

Soziologi errexagorik eta-xinplegorik mpentsa al daiteke?

Baiña gizarteko arazoei-buruzko itxutasun ori ez zan anglitarrena

edo luterarrena bakarrik izan' Kalbindarrak ez ezik, itxuak izan bait giñan katolikoak.

Mende bat leenago ere, Birjaiotzakoan, beste ekintza guztietarako ain erneak izan ziran lenen oiñordeko iñakitar aiek ez zuten soziologiarentzat zentzumen ernerik izan. Ezta Frantzisko Suarez, Bitor 'ko Frantzisko domingotarraren ikasleak ere! Politikaren bideetan bai; aurrera jarraitu zuan iñakitar bikain onek gazteitarraren bideetatik, demokraziari-buruzko erakuskintza kristaua sendotuz' Baiña soziologi utsari dagozkion gaietan ez zitzaion gazteitarrak asi zuan lana aurrera eramaterik burura etorri. Ez zan ori egin ziteakenik eta ori egi-tera beartua zegoanik oartu ere.

Bitori'ko Frantzisko'ren erakuspenen atzetik, oiñarri lez, Euskalerriko Lege Zarra zegoala esan oi da: Araba'ko Lege Zarra, ain zuzen; Arriaga'ko landa eraspengarrian, Araba jaurtu edo gobernatzeko bil-tzen ziran "Araba'ko Jaun eta Andre" iare aien Lege Zarra.

(Bai; Badakit Bitori'koaren demokraziak bere sustraiak Sorbona'ko irakasle nominalistetan izan zituala, maiz esan oi dala. Baiña Bitori'koaren demokrazia eta nominalista aiena ez dira berdiñak, ta aiek izan ez zuten susmo bereizi bat izan zuan Bitori'koak gai auetarako; eta susmo ori, Araba'ko Lege Zarraren izpiritutik zetorkion noski).

Bitori'ko Frantzisko bezala euskalduna zan Loiola'ko !Maki. Araba bezain iarea zan Gipuzkoa artako semea. Laterkide guztiak, —bai nekazariak, bai eskulangille eta beste erriko-jende landerrak—, beren buruen, eta beren Laterriko politikaren, jabe ziran lurralde batean jaioa.

Bazituan gaiñera Iñaki Loiola'tarrak eusko-endaren doai guztiak' Baiña, gazte-gaztetik, bere Gipuzkoa'tik at, Gaztelerriko aundikien esanera, atzerrian bizi izan zan-da, bere soziologia ez zan beiñere euskalerriko soziologia izan, Españi'ko Inperioarena baizik.

Umetatik erbestean egona zalako, ez ote zuan bere Guipuzkoa'ko Lege Zarra era egokian ezagutzen? Ez ote zuan Lege ori maite? Ez dezagun aantzi, Gipuzkoa'n jaio zala Iñaki, baiña ;Aide Nagusien artean!, eta Aide Nagusiak, Euskalerriko Laterri guztietan, Euskalerriko Lege Zarraren etsai amorratuak zirala!

Aide Nagusiak ziran loiolatarrak, "oñaztarrak" erdiaroko euskal-anaiarteko-gudian. Arroak, borrokalariak; atzeritik etorritako aristokrazi-aizeek zorabiatuak; beste euskotar danak baiña jatorri garbiago-koak eta erriko-jende xearen jaun-da-jabe izateko jaioak zirala uste zu-

tenak; orrela pentsatzen bait zuten orduango Aide Nagusi aiek danak.

Euskalerrian ordea erriko jendea izaki Agintari-ta, ondo ezagunak dira Aide Nagusien eta Euskalerriko Batzar Nagusien artean izandako iskamillak. Gogor erantzun zion Aide Nagusien oligarkiari Euskalerriko demokrazi sendoak, erriak bere agintaritzta ta iaretasunik galdu nai ez zualako. Batzar Nagusien ekintzei eskerrak, lurrera jaurtiak izan ziran Aide Nagusien gazteluak, eta gaztelu aiekin batera jausi zan eze-rezturik Aide Nagusi aien "nagusitza" guztia. Galdu zuten baita're Euskalerriarekin zuten "aidetasuna", Batzar Nagusiek politikan parte-artzea debekatu zietenean: Euskalerriko politikarako, Aide Nagusiak, lez autale ez auta-gai!

Jo zuan lur, besteak bezala, loiolatarren gazteluak ere, ez bait ziran gaztelu artako jendeak borroka aietan beste Aide Nagusiak baiño gozoagoak izan'

Euskalerriko demokraziak, Españi'ko feudaritzta Euskalerrira ekartzen utziko ez ziela sumatzen zutelako, Eusko-Laterrietako era-kundeen etsai eta Gaztela'ko Erregeen adiskide ta lagunak izan zitzaizkigun Aide Nagusiak; sumatzen bail zuten, baita're, ain gura zuten feudal-nagusitza Errege aien despotikeriak errez eta pozik emango ziela; beren indarra eta agintaritzta ere sendotzen bait zuten Erregeek emen, Aide Nagusien nagusitza sendotuaz Euskalerriko demokrazia ezerezten ba'zuten.

Ez dut esan nai Iñaki Deunak Euskalerritari gorroto zionik, eta bere gogoak gorroto orrek erabilli zuanik' Ez orixe! Iñaki'ren kontzientzi-peaz ari naiz mintzatzen'

"Iñaki Donea", len, "Eneko zalduna" izan zitzaigun; zaldun arro audikerizale borrokalaria. Ta naitanaieze, Iñaki Deunaren kontzientzi argiaren azpi illunean, Iñaki'ren subkontzian, bizirik ziarduten Eneko aundikerizalearen aztarnak, ots, gaztaroko bizierak eta orduango amets, lei, eta gertakizunek gizakume guztien kontzientzipean uzten dituzten aztarna oarkaltzak.

Orai, bere gazte-denboran, beste Aide Nagusien antzera, xaguak katua bezain maite izan zituala noski Eneko zeritzan zaldun txoro er-gel arek, sortzea eman zion erriaren demokrazisena, oitura, eta le-geak.

Ta, Aide Nagusiek eusko-erakundeekin izan zituzten borroka ta gorrotoak alde batera utzita ere, ekar ditzegun gogora zein eta nola-koak izan ziran Eneko Loiola'tarraren ereduak eta jainko txikiak: V Karlos Inperatore dizdiratsua, Gaztela'ko Erregiñ pinpiriñak, Erregiñ eta Inperatore aien inguruko aristokrazikume borrokalariak, eta zal-

dunkerizko liburuetan agertzen ziran Gaula'ko Amadis'en antzeko zaldun aundikeri-maitale zoroak...!

Ez; iñolaz ere ez; Iñaki'ren adimena ez zegoan soziologi eta politikaren barrutietan gizakume guztiak berdiñak zirala errez ikusteko prestatua. Aren eziketa ez zan euskotarra izan, españiarra baizik; ez, noski, demokraziaganako zaletasuna sortzeko egokiena!

Orregaitik, gero ere, Iñaki apaizaren pentsamentuan gizarteari -buruzko gogapenak bere sorterriko legediaren izpiritutik milla leguaz aparte ibilli ziran. Euskalerriko demokraziaz ez zan oroitu ere egin gure Iñaki' V Karlos'en Inperioaren eredura ikusi zuan mundua. Mundu ortan, Jainkoak ala naita, Errege izateko jaiok ziran batzuk: Jainkoaren ordezkari izateko! Beste batzuk berriz, Zalduntza onesgarrirako ziran jaiok: Erregeen esanera, erri xearen babesle izateko. Erria berriz, erri xea, nagusien esanera apalki eta zorionsu lan egiteko!

Teokraziaren lurriñez kutsuturik egon zan Iñaki'ren pentsamentua: Errege bat Jainkoaren ordezkari (Karlos V'aren antzeko Errege bat). Erregearen esanera, Printzipeak eta zaldunak (ots, "Aide Nagusiak"!). Agintari eta zaindari oien menpe eta babespe goxoan". Jainkoaren Erria (Kristaudia).

Oldozkera orixe bera agertzen zaigu Gogo-Jardunetako "del Rey Temporal" edo "Munduko Erregearena" deritzan otoitz-galean. Eta baita Josuren Lagundiko oiñarrilegeetan ere'

Aide Nagusiek Euskalerrria tajutu nai zuten bezala eratu zuan berak Lagundia: iru mailletan. Erria beean; agintzeko eskubiderik ez duan erria. Aide Nagusiak gero, erri orren agintari. Erregea guztien gaindik: bizitza guztirako agintaritza berea zuan Erregea. Orrelaxe dago eraikia Josuren Lagundia ere' Erlijosor arruntak beean; gorago, Laugarren Probazioko Aitak; eta danen gaiñetik, bizitza guztirako, Aita Jenerala.

Bazuala Aide Nagusien oldozkeraren kutsua Iñaki'ren oldozkerak! Eta legezkoa zanez, orrelakoa izan zan Iñaki'ren semeen oldozkera ere.

Ez gaitezen bâ arritu, Birjaiotzakooan eta Argikuntzakooan, Gipuzkoa'ko Aide Nagusi baten seme ziralarik, Iñaki Deunaren semeek soziologiaren alorreko arazoetaz oartzeko, zentzumenik ez izateaz. Ber-aiapatu bearko dugu iñakitarren, —eta beste elizjendeen—, oarmen-falta ori bein baiño geiagotan, Afrika'tik indarrez ateratako gizakume beitzen jopuketaz mintzatzen geranean-eta.

Zillegi bezaigu erantzunik ez duan galdera bat: Izan ziran bezalakoak izango ote ziran lenen-iñakitar aien pentsaera eta jokaera, Iñaki Loiola'koa, Aide Nagusien seme izan bearrean, Gipuzkoa'ko Batzar Nagusietako batzarkide errikoi trebe aietako baten semea izan balitz?

M M K

Zalantzarik gabe, joputza edo "esklabutza berria", izan zan Argikuntza-aroko pekaturik larriena soziologiaren arloan. Baiña ez zuten eliz-jendeek, ez zuten iñakitarrek, —orain aietaz ari geran ezkeror—, esklabutza edo joputzarik ikusi; jopuak ikusi zituzten; jopuak soilki: zoritxarreko gizakume beartsu kupidagarriak. Eta ikus-kera orren ondorio, jopuetaz bakarrik arduratu ziran; ez joputzaz; jopuen biziera goxatzeko egin zuten lan; ez joputza zillegi egiten zituzten legeak ezereztuarezteko. Gizarteko karitatea izan zuten eragille; ez, gizarteko zuzentasuna.

Ala, gaixotegietako osasungabeei Josulagundiak emandako erantzunaren adigarri eta eredu Gontzaga'ko Koldobika Donea izan zan lez, Kepa Claver Donea izan zan jopu nortasungabeei eman zionaren eredu eta adigarria.

Gontzaga'koak gaixoak aiña, maite izan zituan Klaber'koak jopuak; eta atsedetik gabe ta bildurrik gabe egin zuan aien alde lan; baiña sekulan karitate utsaren mugetatik irten gabe'

Argia bezain argi dakusgu gaur joputza zuzentasun ororen aurkako erakundea dala. Ez zuten iñak tarrek orduan orrelakorik ikusi.

Ikusi aal izango ote zuten, agian, beren sortzaillea, esan dugun bezala Aide Nagusieri seme izan-bearrean, Batzar Nagusietako gipuzkoar errikoi baten semea izan balitz? Ez dakigu' Baiña, bai, badakigu ziurki, Batzarkide aietako baten semea izan balitz, askoz obeki prestatua egongo zala Iñaki'ren burua, erlijioarenean bezala soziologiaren arloan ere gizakume guztiak berdiñak zirala, ikusi aal izateko'

Elizak berak ere ez zuan joputzaren arazorik ikusi, ta miñ aundia ematen digu gaur gure Eliz maitearen itxutasun arek. Aro bâkoitzako Eliza bere aroko umea dala eta bere aroko itxutasun oro naitanaiez izan-bear duala esanaz, goxatu nai izaten dugu gure miñ ori. Ta ori esatean eta ori egitean, ez dugu okerrik egiten, ez dugu gezurrik esaten: Erakunde guztiek, eta baita Elizak ere, naitanaiez izan bear bait dituzte beren denboretako utsune guztiak. Baña Eliza munduaren irakasle dalarik, ez ote dugu elizkide guziok, ez ote dute Elizaren buruzagiek bereiziki, munduaren argi gidaria izateko, munduko arazoak aztertzen geixago saiatu bear?

XVI eta XVII mendeetan itxurik egon zan Eliza joputzaren okerkeria ikusteko. Urteak geroago ere..., mundua joputzaren aurka jeikitzen asi zanean:..., ai gure poza!, Eliza izan balitz jeikitze artan munduaren aitzindari! Ez ordea! Elizaren kanpotik irten ziran, jopu gaixoen askatasunaren alde, lendabiziko oivak. Ixilik ziardun Elizak, naiz joputzaren izurrian eskuak geien zikindurik zeuzkatenak katolikaok izan'

Gogo Deunak darama Eliza. Baiña Gogo Deunak ez du Eliza-baitan gizakumeok egin bear dugun lanik egiten' Berak gordetzen ditu baiki, gizaldiak-zear utsik egin gabe, Elizaren altzoan, Berak Elizari eman zizkion sinist-egiak' Baiña egi oien ondoriok Elizak atera bear ditu! Elizak, kezka, lana, izardia, negarra, ta oiñazea berekin dituan azterketa neketsu etenik ez dezakeanaren bidez'

Azterketa aterrik gabe ori da Elizak Gogo Deunari eman bear dion erantzuna. Ta, erantzun-emate ortan uts egin dezaioke Elizak Gogo Deunari, elizkide guztion nagitasunaren erruz; Elizako Buruzagien erruz batez ere. Buruzagi oiek bait dira "Ecclesia Docens" edo "Eliz Irakaslea" osotzen dutenak.

¿Erredun izan ote genduan mende aietako "*Eliz Irakaslea*"?

Danadala, izan zuan, gure ustez, Eliz Irakaslearen itxutasun artan, zer ikusirik naiko Protestalaritzaren sorketak gero azalduko dugun lez.

Lotsagarri zaigu baita're, beltzen joputza ura asmatu zutenak katolikoak izan zirala, apalki aitortu bear izatea, baiña orixe izan zan egia.

XV mendean iritxi ziran Portugal'eko itxas-gizonak Ginea'ko kolpora' Eta Sebilla'n eta Lisboa'n saldu zituzten an katigu arrapatutako neska-mutillak' Baiña portugaldarren salketa oietaz landa, españiarrek asi zuten era mardulean joputzaren negozio oparoa. Aragoi'ko li eta Gaztela'ko V Fernando Katolikoak iriki zituan negozio aren ateak, berak eman bait zuan ortarako baimena 1511'garren urteko "erabaki" baten bidez.

Ez zan ordea, baimena ematea, naikoa' Ain negozio naro batek merezi zuan, emankorragoa izan zedin, ondo pentsatutako lege-erakunde bat. Fernandoren billobak, Karlos V'ak, eman zion legezko erakunde ori "los asientos" esan zitzaien formularen bidez.

"Asentua", "baimena" zan; jopu beltzak eresi aal izateko baimena; eta edozeiñek lortu zezakean baimen ori, ortarako ipiñitako zerga, aurretik erregeari ordaintzen ba'zion.

Urte batzuetan kendurik egon zan "asentuen" erakunde ori. Bai

ña II Felipe'k ezarri zuan berriro, arras onuragarria bait zan España'ko ekonomiarentzat. (Alatagutziz batere kezkarik gabe pentsa dezakegu, lege oiek ematerakoan ez zerabilkitela ekonomiasmorik buruan; aien asmoa jopu beltzen zoria obeagotzea bakarrik izan zala).

Ez da erreza, Afrika'tik Ameriketara eramandako gizakumeak zenbat izan ziran egiztatzea' Laterri Alkartuetan baziran lau milloi, an anaiarteko gudua asi zanean' Baiña askoz geiago ziran Ego-Amerika'koak. Guztira, Amerika osoan, zenbat izan ote ziran? Erantzun zailleko galdera' Ala're badugu zenbaki bat, aski ziurra: Gi-nea'ko koikotik bakarrik ateratakoak, amabi milloi izan ziran! Ta, ez dakigu zenbat izan ziran Afrika'ren beste itxas-ertzetatik atereak! Ez noski gutxi, Zanzibar'en inguruko lurraldeak ere, giza-eiza-tokirik opa-roenetakoak izan zirala oroitzen ba'dugu. An Zanzibar'en inguruetan, maometarrak ziran giza-eiztariak; baiña kristauak, eiza ura erosi, Ame-riketa'ra eraman eta an saltzen zutenak.

Bi mendeen luzaroan Afrika'tik Ameriketara eramandako beltzak, Europa'tik aruntz joandako zuriak baiño geiago izan ziran. Askoz geia-go. Europatarren emigrazioa geroagoakoa bait dugu; XIX mendekoa bereiziki.

Gizon eta emakume beltz aien neke-samiñ-oiñazea inork era egokian azaldu?.

Europa'ko Laterri sarkaldetar guztiak dira, asko edo gutxi, iguin-garrikeri artan obenkide: D:namarka eta Alemani, Olanda geiago, ta batez ere Inghlanderrria, Frantzi, Portugal eta España. Katolikoek eta protestalariak, danok, dauzkagu gure eskuak odol beltzez zikinduak! Mingarria, maitasuna erakutsi eta maitasuna bizi bear dugun kris-tauontzat. Baiña milla aldiz mingarriagoa, iru mendeen luzaroan Aita-santuek, —ezta batek ere!—, joputzaren aurka ezertxo ez zutela esan, ezertxo ez zutela egin, aitortu-bearra!

XIII Leon izan zan beltzen joputza gaitzesten aurrenekoa. Noiz or-dea? la ogeigarren mendean! 1888'an! Ordurako mundu guztia aspai ditik joputzaren aurka oiuka ari zanean!!!

Bai berandu iritxi zala gure Eliza joputzaren arazora!

Berreun urte leenago, XVII mendean, irten ziran aurreneko oivak joputzaren aurka Inghlanderriko protestalari garbizaleen agoetatik' Be-reiziki Gorka Fox eta bere kuakertarren aintza da, beltzen askatasuna-ren aide lanik geiana egin zutenak izatea. Zillegi bezaigu anai kristau onuragarri auetaz zerbait esatea.

Ingländerriarra izan genduan Gorka Fox; 1624'ean jaioa' Anglitarrena baiño kristaukera bakunago eta errikoiago bat idoro nai izan zuan, eta asmo orrekin irasi zuan kuakertarren anaidia. Idazti Donea eta lenen mendeko Eliza artu zituan ortarako oiñarriztat. Ortik datorkie kuakertarrei Idazti Donea isilik oitotzean anima barruan erabiltzeko oitura eta giza-maitasunari dioten eraspenna' Filantropi utsa'? Ez; benetako karitatea. Karitate orrek eraginda, guda ta indarkeri ooren etsai eta pakezkojokabideen maitale izan dituzu beti kuakertarrak.

Ingländerri guduazalean orde, ez zan kuakertarren pentsaerarentzat giro egokirik-eta, Ameriketara iges-egin bearrean aurkitu ziran. Ezaguna izango duzu noski, arâ iritxi zan lenen kuakertarraren izena: Gillermo Penn, Pentsilbani'ko Laterriaren eta Laterri orren uri nagusi dan Filadelfia'ren sortzaillea'

Orduandik, eten gabe ari izan dira kuakertarrak bearkizun-mota oro arintzeko lanean' Ori dalata irabazi dute 1947'an "Pakearen Nobel Saria". Joputza ezerezteko ekintzan ere, berak bakarrik izan ziran mende osooso batez, nekatzeke saiatu ziranak. Ez zan mende artan beltzen aide beste iñoren oiurik entzun. Eun urtez geroago asi ziran Laterri batzuk kuakertarrek arrazoi ez ote zuten pentsatzen, eta, joputza, zuzentasunaren aurkako gauza izan ote zitekean kontuan artzean.

Zure eta nere lotsarako, irakurle, Laterri oiek ez ziran Laterri katolikoa izan. Ta ez zan, orduan ere, XVIII mendearen azkenean!, Aitasantuen abotsik entzun'

Ingländerria izan genduan aurrena kezkatzen asi zana, eta ez da arritzekoa, an asi bait ziran protestalari garbizaleak joputzaren aurka jarduten. Jarduketa orren ondorioz, 1792'an aurreneko aldiz ekin zion Ingländerriko Parlamentuak arazo "beltzaren" azterketari. Baiña ez zan Ingländerria joputza debekutzen aurrenekoa izan, Frantzi baizik, bi urte geroago, 1794'ean, Frantzi'ko Iraultzak debekatu bait zuan gizakumeen salerosketa. Frantzi'ko Iraultzari zor diogu beraz ekintza bikain ori. Eta naiz Napoleon'ek osteria oitura nardagarri ura bir-ezarri, Napoleon'ekin batera jausi zan berriro'

Frantzi'ren atzetik, Ingländerriak egin zuan, 1807'an, debeku ori' Eta azken-azkena Españi'k, Kuba galdu baiño pixka bat lentxeago, an lan zegitzen beltzei 1878'an askatasuna emanaz.

Afrika'ren Sortaldean eta maometarren artean bakarrik jarraitzen du oraindik joputzak' Maometarren artean, bikainki egin zuan lan oitura zikin orren aurka baionatar batek, Lavigerie Kardenal zintzoak!.

Esanik utzi dugu, girokoa ez dan fruturik ez zaiola zugaitzondo bateri eskatu bear, eta, eskierki, soziologia ez genduan Birjaiotzak

eta Argikuntzako frutua izan' Bai; badakigu danok, Argikuntzaren azitik sortua dugula soziologia, b) ña sorkuntza cri geroagokoa izan zan. XVII eta ia XVIII mendeko "argituek" ez ziran joputzaren arazoaz jabetu' Ez; ez zan soziologia "argitu" aien aroko zitua izan, XVIII mendeko bigarren erdira arte beintzat. Aziak bai; aiek erein zituzten aziak, baiña zitua geroagokoa da.

Orregaitik ez zaigu ziflegi XVII eta XVIII mendeko aritu aiek beltzak erosten zituztenean, ori gaiztakeriz egiten zutela pentsatzea. Ez-tare XIX mendearen erdian, Lincoln Lendakari zala, jopuen askatasunaren aurka gudara jeiki ziran Birjini, Karolina, eta Egoaldeko beste Laterri aiek gaiztakeriak bultzata jeiki ziranik. Are gutxiago iru mendeko Aitasantuek, joputza gaitzetsi ez zutelako pekatu egin zutela uste izaterik ere.

Kuakertarrak izan ezik, ia-ia XIX menderaiño ezzan iñor kristauen artean, ez katolikorik ez protestalaririk, beltzen joputzaz kezkatu. Eta, nere ustez, Kristaudiaren itxutasun ortan badu protestalaritzaren sor-ketak zer ikusirik naiko'

Oroi! Martin Luter'en gogoeta guztien iturburua, bere buruaren salbamena izan zan. Naiz pekatutik irten ez, bere burua salbatuko ote zualaren kezka mingarria. Salbamena da, baike, lutertasuneko teologiaren iturburua eta elburua. Ots, ordea; ez munduaren salbamena, pertsona bakoitzarena baizik. Salbamen ori gaiñera, beste munduan lortuko dugun salbamena da; ez, mundu ontan mundua zuzenduz lortu dezakegun mundu onen berararen salbamena. Gaiñera gaiñera... mundu onek eta mundu ontako gauzek ez dezakete azken-egunean Kristo etorri arte salbakuntzarik izan. Lutertasunaren teologia, eskatologizko teologia duzu' Munduaren amaiean dago teologi orren kezka; orduraarteko mundu onen ibillerak eta egoerak ez dio kezkarik ematen. Elizaren eginkizuna ez da beraz mundua salbatzea; soilki, munduan Jainkoaren Itza aldarrikatzea da; munduaren salbamena Kristok berak egingo du, munduaren azkenean'

Kalbindarrentzat berriz, salbamena ego gaitzespena Jainkoa beraren auziak dira, Jainkoak berak predestinatzen bait gaitu guztiok, zerurako batzuk, eta besteak, infernurako' Aberastasuna ere Jainkoak bere aukeratuel maitasun-adigarritzat ematen dien gauza dalarik, aberastasuna eta txirotasuna ere Jainkoaren auzi dira, Jainkoaren naimenean bait dute beren azken arrazoia.

Bide egokia ematen du beraz teologi orrek, gizakume guztiak berdiñak ez dirala pentsatzeko, eta giza-enda batzuk, —enda beltzak adibidez—, beste giza-enda batzuei, —enda zuriei—, serbitzeko egin

zituala Jainkoak, uste izateko.

Ori izan da beintzat, kalbindar-teologiatik sortutako "Eliz Fundamentalistek" Laterri Alkartuan Egoaldean joputzaren alde maiz erabili duten arrazoa.

Teologi ori eta teologi orren ondorio oiek egiazkoak balira, beltzak eta zuriak eskubide berdiñeko gizakumeak gerala aitortzea, izan daiteken okerkeririk aundiena izango litzake, Jainkoak berak eratu duan ezberdintasunaren aurka oiu egitea izango litzakelako. Ez da beraz arritzekoa Egoafrika'ko biztanle zuri aberatsak, kalbindarrak diralarik, zurien eta beltzen artean "apartheid" edo berezketarik gogorre-na ezartzearen aldekoak izatea.

Orra or zergaitik, joputzaren aurka lendabizi jeiki ziranak, protesta-itaritzako teologi ofizial orren etsairik aundienak izan ziran: teologia ortaz nazkatuta Eliz protestalari ofizialetatik irtendako "sektak".

Baiña ordurako, gaitz aundia egin zion teologi katolikoari protesta-iarrien eskatologizko teologiak. Eta baita Kalbiñ'en "predestinazioz-koak" ere, gizakumearen zoria eta gizakumearen arketaren azken zioa Jainkoagan bakarrik ipintzen bait ditu' Bi teologi oiek beste munduan, eskatologian, daukate beren kezka. Ta teologi orri borrola egi-tearren, mundu ontako gauzak aztuta, eskatologira eta eskatologia-ren inguruko gauzetara, izpirituzko gauzetara, jo zuan Eliza Katolikoaren teologiak ere.

Bitori'ko Frantzisko'k, mundu ontako gauzen eta gertakizunen zentzua ulertuta, mundua Kristoren legearen araura zuzenduaz mundu au eta mundu ontako gizadia mundu ontan ere "salbatzera" ekarri zuan Teologi katôlikoa. Baiña, Teologiaren kezkek eskatologiaren maillan ipintzean, mundu ontatik aterata beste munduko gauza soille-tara eraman zigan protestalaritzak gure teologia'

Uste al duzu bestela, kulturaz Birjaiotzako "umanisten" seme ziran XVI mendeko teologilari bikaiñ aiek, joputzaren arazoaz oartzeko gelditu zitezkeanik? Zillegi al da, politika, ekonomia eta soziologiaren auzietarako erantzunik ez zutela izenen sinestea? Nork pentsa lezake, protestalaritzaren teologiari erantzun bearrak mundu ontatik atera ez balitu, Bitori'koak irikitako bideetatik jarraitzeko zentzumenik edo kemenik izango ez zutenik?

Il ziran sali bikain eder artako teologilari aundi aiek' Etorri zan Argikuntza' Baiña ordurako, tamalez, erroturik zegoan Eliza-baitan ere-ji enganako bildurra, geiegizko bildurra, eta geiegizko bildur orrek teologia-ren ioritasuna ia zearo legortu zigan'

Aitor dezagun apalki eta samiñez: Itxu izan zitzaigun Eliza, joputza-
ren auzian, 1888'an XIII Leon'ek oiur egin zuan arte. Bahia ordurako,
Laterri guztiek, —baita Españi'k ere—, debekatua zuten joputza. Da-
nen atzetik ibill zan Eliza'

Ai, gure Eliz maitearen txu izan aal izate ori! Ala ere, gaur Eliza
osatzen dugunoi akullu balitzaigu'..!

XI IÑOZENTZIO (1676-1689)

Bazan Erroma'n, X Klemente il zanean, aitasantu izateko gizon egoki bikain bat: Benedikto Odescalchi; milandarra, gizon erne eta santua, benetan santua. Esan ere, "San Karlos Borromeo berria" esaten bait zion, gizon aren ontasunaz ederki oarturik zegoan Erroma'ko erriak. Bankalarien jatorrikoa zan, Jenoba'ko "Odescalchi Banka-Lagundiaren" jabeen semea.

iñakitarren artean egin zituan ikasketak, eta bere gurasoen Lagundiaren barnean berriz bankalaritzakoak.

Erroma'ra ere bank-etxe bat irikitsera eta bank-etxe orren zuzendari izatera, etorri zitzaigun.

Kardenai espainiar batek sartu zion bankalari gazteari apaiz izateko guraria. Alfontso Cueva zeritzan Elizari aitasantu-gai ura prestatu zion kardenalak.

Bazuten Kardenal espainiarrak eta bankalari gazteak alkarrekin zer ikusirik, onen sorterrria, Milan'go Dukaterria, Espaini'rena zalarik, biak IV Felipe'ren mendeko bait ziran politikaz'

Laister oartu zan Kardenala ekonomilari zintzo aren animako garbitasunaz. Ekonomilariak berriz, Kardenalak eskeintzen zizkion elburruetaz zaleturik, apaiz egitea erabaki zuan. Ta legitzia sakonago ikasten asi zan, bere burua Elizaren serbitzurako obeto gertutu naiean. Protestalaritza-aurreko denbora aietan bezala, elizjendeek teologiari baiño zaletasun geiago bait zioten Argikuntzakoan ere legiztiari.

Gero, Aitasantutzara igo zitzaigunean, XI Iñozentzio'ri teologilari baiño geiago legiztilari izate orrek ez zion batere onik egin.

Gizon ona, gizon errukitsua, eta eskuzabala, beti santua, izan zalarik, errez bereganatu zituan, apaiz bezala aurrena, eta gotzai eta kardenal bezala gero, Erroma'ko jendeen eraspena eta maitasuna.

Zorionean, gizon au aukeratu ziguten ago batez Aitasantu giltzapeko batzarkideek, Frantzi'ko XIV Koldobika'ren asarreari jaramonik egin gabe. Txit zorrotza zara bazekian-da, ez zuan Borboi ustel arek, Odescalchi Kardenala Aulki Donean ikusi nai, eta saiatu zan aren autaketa eragozten. Oker irten zitziatzkion asmoak.

Aitasantutzan, len bezain eskuzabala izan zitzaigun beartsuekin' "Beartsuen Aita" eman zion izen erriak berak.

Diruari dagozkion auzietan, Elizaren Laterrietako agintariekin eta bere sendikoekin izan zan gogorra.

Agintarien irabaziei, bear zan neurria ipiñi zien egoki, eta arindu zituan erriak ordaindu bear izaten zituan zergak. Lege eta ekintza oien bidez garbitu eta sendotu zuan aski aul aurkitu zuan Laterri aietako ekonomia, eta baita jendearen biziera obeagotu ere. Lan ederra berea, ikastola berriak irikitzen ere. Errege lez, yayoa, trebea, egokia izan zan benetan Elizaren Laterrietarako. Ez zion ortarako gutxi lagundu len bankalari eta ekonomilari izanak.

Gogorra izan zitzaigun bere aideekin ere, sendikeri edo nepotismoaren arloan. Ez zuten noski, Odescalchitarrek, bankalari aberatsak izanik, diru geiagoren bearrik; baiña ez dezagun àztu diruak diruari deitzen diola beti, eta ez dezagun aztu, ezta're, Aitasantuak, orduan, Itali'ren erdi aldeko Errege zirala, eta Erroma'ko kargu eta tituloak txit onuragarriak eta guragarriak agertzen zitzaizkiola edozeiñi.

XI Iñozentzio ordea sendikeriaren etsai beroa izakita, ez zien bere aideei ez kardenaltzarik ez Eliz-Laterrietan kargurik eman.

Zorrotza izan zan, zorrotzegia ere bai batzuetan; kontzientzi estukoa. Badira, jantsenikerizko zorrozkeriaz kutsutuxea egon zala, uste izan duten edestilariak ere' Ta, naiz au egia izan ez, egia da arazo batzuetan, zorrozkeri orren erruz, neurri zугurretatik at irten-edo zala. Adibidez, emakumezkoei Aitasantuen Jauregira sarrera debekatu zienean. Erregiñak eta erregiñen kideko emaztekiak bakarrik sartu zitezkean an.

Baiña naiz zorrotza izan, Aitasanturik zabalenetakoa agertu zitzaigun ekumenismoaren barrutian. Kezkarik gabe lagundu zion Spinola gotzaiari, gotzai onek Leibnitz eta Molano luterarrekin Hannover'ko Batzarrean batasunaren alde zerabilzkian arremanetan.

Iru izan ziran XI Iñozentzio'ren egink zunik bikaiñenak: "Pietismo" edo "eraspenkeri" ustelari amaia ematea; Galikeriari egalak moztutzea; Turkitarren gudarozte garailleari Europa'ko atea isten. Aztertu ditzagun, banaka iru ekintza gogoangarri oiek.

GALIKERIA

"LE GALLICAN ISM E"; "GALIKERIA"; "FRANTZIZALEKERIA".- Ez zuten, ez, aro artako Errege frantzitarrek Hobbes'en oldozkeraren bearrik "ausolutiste" edo "bakarrik-agindu-zale" izateko; bakarrik eta beren gisara, iñoren aolku barik, iñortxori eta ezertxori abururik, eta are gutxiago, legegintzako eskubiderik eskatu bearrean aurki zitezkeanik ere pentsatu gabe, agintzearen maitale amorratuak izan bait dira beti, baztar guztietan, Errege Borboitarrek.

Norbait izatekotaz, Inghlanderriko Jakob I'a Stuart, zorigabeko Mari Erregiñaren semea, izan zitekean gai antan Borboitarren irakasle, sutsuki defenditu bait zuan Errege arek, oraindik Eskozi bakarreko Jakob VIa zala, agintzeko eskubide guztia Jainkoa berberagandik etortzen zitzauela, zuzen-zuzen eta bitartekorik gabe, Errege guztiei. Bi li buru idatzi zituan "Teokrazi" mota ori erakusteko: "The true law of free Monarchies"; "Bakalduntza iareen egiazko legea" (1598), eta "Basilikon Doron"; "Bakalduntza-Doia" (1599)' Agintaritza, Alduntza, Jainkoak bakarrik, gizon bakar batzuei, auek "bakarrik" erabili deza-ten, iñortxoren bitartekotasunik gabe egiten dien Doai bereizi bat da- la, adierazi nai du idazki oletan.

Borboitarren "Aginduzalekeri" ura ez zan iñoiz hobbestarra izan, kristaua baizik, ("ausolutismo" kristaurik izan ba'daiteke, politikera kristauak erregeei agintaritza Jainkoagandik, erriaren bitartez, etor- zen zaiela bait d o)'

Izadiak ematen ziela Agintaritza ori uste zuan Hobbes'ek. Errege ausolutiste kristauek, ez; auek, aitortzen zuten Agintaritza Jainkoagandik zetorkiela, baiña, ots: **erriaren bitartekotasunik gabe**. Jaungoikoa ta Erregearen arteko auzia omen zan Autoritatea; "Nik Zuri", es- kutik eskura, Jainkoak Erregeari ematen zion "doron", "doaia"- Jain- koaren izenean agintzen omen zuan Erregeak. Erregea-baitan omen zegoan "Autoritate oro", "Autoritate guztia", "Autoritate osoa", eta "Autoritate" ori Jainkotierra omen zan: "Auctoritas Absoluta"; "Auc- toritas Sacra".

"Aginpide oro" izate ortatik, laister igaro daiteke "oro agindu daitekela" pentsatzera, eta ortik, legeen zuzentasunaren iturburu bakarra Agintariaren Naimen utsa dala pentsatzera: Hobbes'en Despotismora; au da: Agintariak agintzen duana beti ona dala, eta debekatzten duana beti gaiztoa dala; eta ura "on" eta au "gaizto", Agintariak bata agindu eta bestea debekatu egin ditualako bakarrik dirala uste izatera.

Errege Kristauen despotikeria ez da beiñere Hobbes'ena bezain zakar eta neurrigabea izan; teoriaren maillan besterik ez ba'zan ere, kristau ziralarik, sinesten bait zuten Errege aiek Jainkoaren izenean agintzen zutela eta Jainkoari beintzat beren aginpidearen kontua eman bearke ziotela' Naiz politika-erakuskintzan aurrerago ez igarota ere, neurri ori ipintze utsarekin, onura aundia egin zien erriei Elizak, gai antan, "Despotikeri Argituaren" aroan'

Beti izan dira Nagusikeri mata auen maitale Errege kristau guztiak, eta batez ere "Argikuntza"-koak, eta iñor baiño geiago Borboitarak.

Borbon'go Dukaterritik sortutako errege-sendi onek gizon bat bakarra izan du egiazko Errege tajuzkoa; aurrenekoa: Naparroa'ko Enrike III'a, (Frantzi'ko IV^oa), beste guztiak, edo gaitasun urrikoak, edo batiere gaitasunik gabekoak izan bait dira.

Bâ, Enrike Naparrak eman zion asiera borboitarren 'bakar-agintzekeri' alguztidunari, berak deuseztu bait zituan Frantzi'aren barrengo Laterri feudalarikoiak, Laterri oietako Jauntxo indartsu aberatsei agintaritzia oro kenduaz' Berak egin zuan Frantzi osoa Laterri bat. Europa'n, aurreneko Laterri Berria.

Baiñan ori egiteko, bazuan Naparrak arrazoi galantik. Berak "erlijio-guduetatik" atera berria zuan Frantzi'rentzat betiko pakea nai zuan, eta ondo zekian Jauntxo aiek bere eskubideen jabe zirauten bitartean ez zala pakerik izango, Jaunen arteko asarreak izan bait ziran gudu aien sustrairik edentsuenetako bat. Ala ere beti izan zien Errege Napar arek Frantzi'ko Laterrimaillen Ordezkarien Batzar Nagusiei begirunea'

Aurrera jarraitu zuan "Bakarkeriaren" bidetik XII Koldobika, Enrike Naparraren semeak. Ez zuan ortarako aldean gidari txarra: Richelieu. Altxa nai izan zuten burua Jauntxoek, baiña gogorki zapaldu zituan kardenalak. Kendu zituan gudarien artean eta mariñelen artean ain almen aundia zuten Kondestable ta Almirante Nagusien karguak; bota zituan lurrera Jauntxoek gazteluak, eta Jauntxorik gogorrenari, Montmorency'ko Dukeari, lepoa moztu zion.

Koldobika XIV'ak, (1643-1715), jaso zituan gallur-gallurrera "absolutismo" eta "despotismo" "kristauak". Orain, Batzar Nagusien aldekoak altxa ziran Borboitarren bakar-agintzekeraren aurka' "La Fronde", "Abaillaren" matxinada, deitu zitzaion batzar-nagusizaleen matxinada oni, auen ikurra abail bat izan zalako. Errege-Agintari-Bakarraren zaleek eman zien, leenik, izen ori, isekaz "urne abailari biurriak" besterik ez zirala adierazi naiean, eta auek, —Olanda'ko "Gess" aien antzera—, bere-egin zuten izena' Baiña ez zuten Frantzi'ko "Frondistek" Olanda'ko "Gess"en adur onik izan.

Mazarino Kardenala zan Frantzi'ko Jaurle Nagusia, ta errez menderatu zituan "abailari" guztiak, (1654).

Abailarien matxinadarekin batera il ziran Frantzi'an demokraziazaren aztarna guztiak. Eta laister il bait zan, jatorriz siziliarra zan Mazarino Kardenala ere, (1659'n), Frantzi Guztiaren Jaun eta Nagusi bakarra gelditu zan Koldobika XIV'an, ogeitairu urteko mutilla. Bere aitona "Naparrak" erein zuan eta Richelieu ta Mazarino Kardenalek landu zuten uzta zorozero janez, igaro zuan bizia. Gorputzez kaxkarra, --dol doi metro t'erdi—, eta animaz kaxkarragoa, arrokeriz bakarrik izan zan aundia. Lau beatzeko takoiak oiñetakotan ipiñiaz, eta buru gainean illerantsi garai galanta jantziaz estaltzen zuan soiñaren txikitasuna. Animarena estaltzeko, egoki baiño egokiago etorri zitzaizkion bere aurrekoak gertu zioten Frantzi'ko gudarozteen indarra, Laterriaren aberastasuna, eta Erregeen "absolutismoa"

Irurogei ta amabi urte egon zan erregetzan. Il zanean, mixeri gorrian laga zuan Frantzi'ko erria. Agian, bere garaitzarik aundiena Madrid'ko Errege-Aulkian billoba bat sartzea izan zan: Felipe V'a' Aitonaren absolutismoa, "bakarrik-agintzeko-leia", jarraituaz, Borboitar gazte au izan zan, egiaz, Españiak zapalduta, España leenik osatu zuana, berak desegin bait zuan, Felipe II'ak asia zuan lana aurrera eramanaz, Aragoi'ko Jaurerri zaar aintzagarria.

Ondo ezaguna da Borboitarren absolutismoaren ikur egokiaz aibat aldiz aipatu ta ber-aipatu oi dan Koldobika XIV'aren esakizuna: "L'Etat c'est moi"; "Ni naiz Laterria" Ederki jaso zuan absolutismoaren dotriñaren mamia, Errege aize-puztu onek, bere semearentzat idatzi zituan "Mémoires" edo "Oroikizunetan" itz auek jalki zituan: "Erregeak, Jainkoak berak erriei ematen dizkion doaiak dira' Jainkoaren Ordezkarriak dira, Jainkoak, orixe izan zitezen, asmatuak bait dira- Ori egitean, Jainkoak Bere epaiketarako bakarrik gorde zituan, erregeak epaitu aal izateko eskubide guztiak. Errien eginbearra Ordezkarri oiek begirune osoz agurtu, eta beren esanera egotea da".

Orixe zan Ausolutismo "kristau" mota guzien ondoa; "A Deo Rex; a Rege Lex"; "Jainkoagandik Erregea, ta Erregeagandik Legea"

Ez zeukan besterik buruan beste Borboi batek, Españi'ko Karlos III'ak, iñakitarrak erbesteratzeko argitaratu zuan legean itz auek zizkionean: "Nere errege-bularraren barruan gorderik uzten ditut arrazoiak, erriari ez dagokiota erregeen aginduen arrazoiak ezagutzerik edo arrazoi oiek aztertu nai izaterik; soilki, erregeen aginduak betetzea dagokio".

Borboitarrik ezerezenetako batek ere, XVI Koldobika'k onela erantzun zion, naiko asarre, bere lengusu bati: "Nola ez?. iNik agindua da ta!" Lengusu aren errua lege bat zuzentasunaren araura egiña izan ote zitekean edo ez zalantzan jartzea izan zan.

Erregeen "oro-bakarrik-agintzearen" zitua izan genduan aspaldi txo sortua zan "Regalismo" edo "Erregekeriaren" neurrigabeko puztuketa'

Latiñez "Regalismus" deitu oi dan "erregekeria", ots: "bere late-rriko Elizan agintzeko eskubidea Erregeak baduala sinistea", ez zan "argikuntzako" landarea, ezta're Frantzi'n bakarrik sortua.

Denbora guztietan eta errialde danetan aurkitu leike "erregekeriaren" mota bat edo beste, naiz lotsa gabeena Argikuntza-arokoa izan, garai artako absolutismoak indar bereizia eman bait zion.

Kristaudi guztiko gaitza izan da bâ "erregekeria"; baiña beste iñongoa baiño nabarmenagoa eta lotsagarriagoa Frantzi'koa: "Galikanismoa" edo "Frantzizalekeria" FrantziTik, Alemani'ra igaro zan, eta emen "Febronianismoa" deitu zitzaion, eta "Josefismoa" Austri'an, Aiemani'tik lurralde artara igaro zanean.

Erregekeriaren sustraia Kostantino I "Aundia"-ren zesaropapismoan billatu bear da. Karloman'en denboretan berbiztua, erdiaroko Aitasantuen teokraziak sendotasun berria eman zion uste gabeen, Aitasantuen geiegikerietatik beren eskubidea gordetzearren Erregeek ere geiegikerira jo bait zuten. Ortxe dago Bonifazio Villa eta Felipe IV'a frantzitarraren arteko ar-eman latzen arrazoi izkutua, Errege "Eder" aren arrokeriaz aparte. Felipe IV'a ezkerro Paris'ko Unibersitatea "frantzikerizale" izanen da beti, eta batez ere Koldobika XIV'aren denboran' Unibersitate artakoa zan Felipe IV "Ederra"ren denboran Frantzisko Jon Quidart dom ingotarra, eta Erregearen alde atera zan, onek Bonifazio VII'arekin izan zituan borroketan'

Ez zan gezurrezkoa bere arrazoiketan zerabilkian gogapen nagusia: `Aitasantuak animeko gauzetan du eskubidea; ta eskubide osoa

gaiñera' Mundu ontako gauzetan ez du eskubiderik, sinismena edo pekatua bitartean sartzen ez diran artean beintzat".

Sorbona'ko irakasleak ziran Padua'ko Mars iio eta Jandum'go Jon, Aitasantuel eskubide garai guztia osoro kenduta, eskubide garai ori, animeko gauzetarako ere, Erregeari ematen ziotenak'

Ez zion garai artan eta gai ontan Elizari onik geiegi egin Abiñon'go Aitasantuen zentralismoak; ezta ere atzetik etorri zan Sar-kaldeko Zismak.

Ostera sorbonatarrak izan ziran, Kontziliarismoa geienik defenditu zutenak ere: Jon Gerson eta Ailly'ko Kepa. Orregaitik, **Frantzi'ko "regalismoa" kontziliokeri utsa izango da**, batez ere Gotzai frantzitarren aldetik.

"Frantzizalekeri" orren unerik latzena Karlos VII'ak bildutako "Bourges'ko Eliz-Batzarra" izan zan, an Jaurerriko Lege egin bait zan Kontzilioa Aitasantuaren gaiñetik zegoala, eta Aitasantuak Frantzi'n aritzeko Erregearen onespena bearrekoa zuala zion aburua.

Leon X'ak eta Frantzisko I'ak izenpetu zuten "Boloni'ko konkordatoan" deuseztu zan Bourges'ko Legea, baiña ori lortzeko Leon X'ak Frantzi'ko gotzaiak izendatu aal izateko eskubidea eman bear izan zien, betirako, Frantzi'ko Erregeei.

Eta, Leon X'aren almen-uzte ori oroitzean, oar bat egin bearrean aurkitzen gera. Errege bat Elizako gauzetan geiegi sartzeari ez zaio, besterik gabe, "regalismoa" deitzen, deretxorik, eskubiderik gabe sartzeari baizik' Aitasantuak ortarako baimena eman diolako sartzen, ba'da, baliteke baimen ori gaizki emana izatea, baiña ala ere' erregearen partetik egiazko eskubidea izango litzake; izango luke erregeak Elizako gauzetan sartzeko egiazko deretxoa. Aitasantuaren errua litzake ori, ez erregearena; ez lezaioke beraz "sartze" orri "erregekeri" deitu'

"Erregekeri" itzak, beraz, erregea Erroma'gandiko baimenik gabe, bere indar utsez, Elizako auzietan sartzen dala adierazten du.

Frantzi'ko Borboien aroan bi "galikeri" klase bereizten dituzte edestilariek:

—"Gallicanisme Ecclésiastique": "Eliz-Galikeria", "Goztaien Galikeri" ere deitua. Frantzi'ko elizjendeen oitura zarrak zituan galikerimota onek o ñarri: "Frantzi'ko Elizaren Oitura Zaar Agurgarriak", elizjende aren izkeran. Oitura aiek zintzoak ziran edo ez aztertzen ez zan elizjende ura geiegi arduratzen. Kontziliokeriaren usai nabarmena zuan Eliz-Galikeriak. Bere elburua: Frantzi'ko Eliza Aitasan-

tuengandik al zan geiena libratzea, iaretzea. Ez ziran, ez orixe, Frantzi'ko elizjende guztiak galikerizale, baiña bai geienak, batez ere Gotzaien artean.

—"Gallicanisme Politique"; "Frantzizalekeri politikoa". "Parlamentuaren Frantzikeria" esan oi zaio' Zer zan adierazteko, Paris'ko Parlamentua bera zer zan oroitu bearko dugu' Ez zan, iñola ere, gaurko Parlamentuak diran bezela, "Batzar Lege-Egille" bat. Batzar oien gauzarik antzekoena Frantzi zarrean "Estaduen" Billera, ots, Lateralriak zituan iru "Estadu" (gaur "Estamentu" esango litzake) edo "laterkide-motaen" billera. Laterkideen mota edo mailla oiek auetxek ziran: "Eliza", "Aristokrazia" eta "Erria" ("Erri" au ez zan erriko jendea; Frantzi'ko burgesia baizik). Beste gauza bat izan ziran Paris'ko eta Frantzi'ko uri aundietako Parlamentuak: Probintzietako Epailari Nagusien Batzarrak izan ziran. Ez zan beti bat bera, Parlamentu aien kopurua, baiña geienetan amalau edo amabost izaten ziran. Errez konturatuko zera, "Parlamentarien Galikeria", Elizako arazoetan muturra sartzeko epaille sekularrek izan zuten griñari esaten zitzaiola.

Bi auetaz gaiñera, beste irugarren bat ere aipatu oi dute edestilari askok: "Erregeen Galikeria"; "Le Gallicanisme Royal": Gotzaien Frantzizalekeriaz eta Parlamentarien Jauntxoketaz baliaturik, Frantzi'ko Erregeek Eliza bere kasa gobernatzeko, beti, eta batez ere Argikuntza-arogan, izan zuten griña makurra'

Irugarren au zan egiaz Galikeririk okerrrena, Erregeen griña ori iñoiz izan ez balitz, ez Frantzi'n ez beste errialdeetan, Aitasantuaren aurkako errikoikeri motz aiek ez bait zuten sortzerik ere izango. Ez beintzat luzaroan irauterik'

Galikeriaren alde idatzi zuten "kanonlariek" ez dute oroitzerik merezi, utzi ere ez zuten bā, beren irakaskizunek, ondorenik utzi'

Galikeria, kontziliokerian oiñarriturik zegoan galikeri zipotz ura, Frantzi'ko Iraultza Nagusiarekin igo zan erpiñera, baiña Napoleon jausi zanean, Iraultzarekin batera amaitu zitzaigun bera ere.

Argitu dezagun, ondo, esan nai duguna. Gerontzean ere ekin dute Agintari Kristauek beren serbitzura Eliza antolatzeko Aitasantuegandik eskubidea lortu naiean, eta lortu ere izan dituzte, maizegi zori txarrez, orrelako eskubideak. Baiña Aitasantuen onespena lortu ondorean Elizaren zuzenketan ari izan diralako, Agintarien nagusikeritza orri ez dakioke regalismoā deitu' Aitasantuen aulkeri, edo kuttunkerik okerra, deitu bear zaio.

Aitasantuen baimenik gabe ere sartuko dira bein baiño geiago

tan erregeak Elizako gauzetan. Baiña "Galikanismoa" esan oi zaion erdiereji ura Frantzi'ko Iraultza Nagusian garbitu zan.

Ez ditugu galikerizaleek idatzitako liburutzar luze aiek ere aipatu-ko; lendik ezaguna dugun kontziliarismoaz gaiñera ezer berririk erakutsi ez zutelako, eta, batez ere, galikeriaren laburpenik eta azalpenik bikaiñena Frantzi'ko Gotzai galikerizaleek ber-berak, 1682'ko "Lau Atal" ospetsu aietan eman zizkigutelako. Ortarakoxe ain zuzen bildu zan, XIV Koldobika'ren onespen guztiekin, Frantziko Elizgizonen Bartzarra: "L'Assablée du Clergé". Emen ikusi dezazkezu lau atal zaratatsu aiek'

Aitasantuaren almena, soilki animeko gauzetarako da; ez du mundu ontako auziekin zer ikusirik. "Postestas Spiritualis, non Temporalis".

Animeko gauzetan ere Aitasantuaren almena Kontzilioaren Almen Nagusiaren azpitik datza; Basilea'ko "Sacrosancta" izeneko Aginduak erabaki zuan bezala, Kontzilioa Aitasantuaren gañetik dago-lako.

—Aitasantuak, Eliz Osoaren Lege Zarren esanera egon bear du, eta ez dezake lege oien aurka, edo errialde bakoitzeko Elizen oituren aurka, ezer agindu'

Aitasantua utseziña da fedeari dagozkion gauzetan, baiña bere erakusketa Eliz osoak ontzat artzen ba'du bakarrik.

Lau Atal auek Bossuet'enak dira. 7 Goigotzai, 26 Gotzai eta 38 teologilari bildu ziran, Eliz Frantzitarraren izenean, 1682'ko ain billera ospatsu ontan, baiñan sarrerako itzaldia egin, jarduketa zuzendu, eta Lau Atalak idatzi eta bazkideen aurrean defendittu zituana, Bossuet izan zan, Frantzi'k une aietan zuan gizonik ospetsuna. Yayoa zan Bossuet eta legun eta emeki ibilli zan bere lanean:

Oso legun eta goxoki idatziak daude "Lau Atalak" ere; baiña beren zentzua, guk eman duguna da.

Bossuet Gotzaiaren pentsaera ulertzeko orol dezagun Kontzilioarismoaren auzia ez zutela oraindik garbi ikusten elizgizon askok, eta Aitasantuaren Utsezintasuna ez zala oraindik Sinismenaren Dogma aldarrikatua izan.

"Lau Atalen" auzi onetan, Erroma'ko Zentralismoaren bildurrak eta Aitasantuen Teokraziak Frantzi'n sortzen zuan kezkek erabilli zutela Bossuet Gotzaiaren gogoia, diote frantzitar edestiidazleek' Baiña, gure ustez, Inghlanderriko edestilari batek egin dio Gotzai oni defentsarik sendoena: Erroma'ra ez baiña, Inghlanderrira begiratzen

omen zuan Bossuet'ek, eta bere bildurra Frantzi'ko Elizari Inghlanderri-koari gerta zitzaiona gertatu zezaiokealaren arriskua omen zan, eta Zisma bat eragoztearren antolatu omen zituan bere Lau Atal nolabaiteko aiek.

Bossuet —beste Frantzi'ko Gotzaiak bezala—, Erregearen lagunegia zala aztu gabe, aitor dezagun ez dala azkeneko ori arrazoi ustela, itzal aundia egin bait zion inghlanderriko Eliza Anglitarrak XIV Koldobika'ren denboran Frantzi'ko Eliza Galitarrari. Une batzuetan, zismara iritxiko zala ere pensatu oi zan'

Baiña Frantzi'ko erria ez zan Inghlanderri'ko erria. Inghlanderri'koa, —"Eun Urteko Gudatean" aitasantuak maizegi Frantzi'ren aide ibilli ziran ezkerok—, Erroma'tik arras urrundua zegoan; Frantzi'koa, berriz, betidanik zan aitasantuzale, izan ere ez bait zitzaion alperrik "Elizaren Aurreneko Alaba" Frantzi'ri deitzen. Ez eta XIV Koldobika ere, ez zan Enrike VIII'a.

Ala ta guztiz XIV Koldobika'k eta bere ingurukoen jokaerak badu askotan Enrike VIII'naren jokaerea itxura. Ikus:

—Maltzurkeri, gezur ta indarkeri guztiak erabilli zituan Paris'ko Parlamentuak, Unibersitatea Aitasantuaren utsezintasunaren aurka ipiñiarazteko' Lotsagarri da, baiña parlamentuaren aide ipiñi zan Paris'ko Goigotzai izendatu berria ere: Perefixe'ko Hardouin.

Alperrikakoa izan zan Unibersitateko Irakasle geienak Aitasantuaren aldekoak izatea; 89 irten ziran aitasantuaren alde, 55 aurka, auen artean Bossuet, eta 34 gelditu ziran zer erabaki jakin gabe, Teologi'ko Fakultatean' Ala ere, Parlamentuaren zemai ta zipozkerien azpian errenditu bear izan zuan azkenean Sorbona'ko Unibersitateak. Paris'ko Goigotzaiak eraman zion Erregeari Ikastola Nagusi ospetsuaren buru-makurketaren albistea. Berealaxe galazi zuan Erregeak Aitasantuen aldeko dotriñen erakusketa.

—Erlijosoen Ordenetako Teologilariei ere debekatu zitzairen beren konbentuetatik kanpora erakustea, aitasantuzaleak bait ziran erlijioso geienak. Aipa ditzagun erlijiosoen arteko bi idazlerik ospetsuenak: Moya'ko Mateo, iñakitarra, eta Heredia'ko Buenabentura karmeldarra. Amadeo Guimenius izengoitiarekin idatzi zuan arek, Jaime Vernaut'enarekin onek. Biak izan zuten erregekeriaren aurka jeikitzeke kementa.

Alperrikoak izan ziran Alejandro VII'aren gaitzespenak, bere bulda irakurtzea gafazia izan bait zan Frantzi'n. Parlamentuaren eta Erregearen ausardikeriek ez zuten neurririk.

—Arrisku aundikoa izan zan frantzeraz "Regales" eta gazteleraz "Regalias" deitu oi zaion "Erregearen eskubideen" auzia. Erregeak beretzako nai zituan utsik gelditzen ziran gotzaigoen errentak, "regales temporelles"; "diru-erregaliak", eta eliz-karguetako gizonak auke-ratu aal izatea, ("espiritu-erregaliak": "regales spirituelles")'

Garai ontarako Frantzi'ko Eliz-barruti geienak Erregearen men-pean zeuden gotzailizendaketaren arloan. Baziran, ala ere, Iparraldean irabaziberrietako lurretan-da, oraindik iare jarraitzen zutenak. Koldobika XIV'ak errege-deretxo oiek, artean bere eskubidetik kanpora zeuden eliz-barruti guztietara zabaldu zituan' Gure lotsa aitortu bearrean aurkitzen gera berriz; Gotzai guztiak makurtu ziran Erregearen borondatera, bi ez ezik: Nikolas Pavillon, Arlet'ekoa, eta Frantzisko Caulet, Pamiers'koa. Laister zuten gaiñean Errege Borboittarraren zigorra eta baita beren (Narbona'ko eta Tolosa'ko) Goigotzai ezerezena ere.

Klemente X'aren eta Iñozentzio XI'aren oarpenek ez zuten ezer lortu. "Erregali" aiek ez zirala Aitasantuen emaitzak: erregetzari bere izatetik zetozkion eskubideak zirala erantzuten zieten XIV Koldobika'k eta onen legiztilariek. Ta Iñozentzio XI'ak Erregeari gogor egin zionean, Aitasatuaren aurka Kontzilio Ekumeniko baten biltzea eskatu zuten frantzikerizaleek' Erregeak, D'Estrées Kardenala bidali zuan Erroma'ra bere ordezkari bezala, baiña Gotzai onen erregekeriak Aitasantuaren samiña aunditu besterik ez zuan egin'

Bazan noski Frantzi'n Inghlanderrikoaren antzeko zisma baten arriskua.

—Bere Erroma'ko. Enbaxada-etxeko "eskubideak" defenditzeagaitik asarre bizia sortu zuan XIV Koldobika'k Iñozentzio XI'arekin. Eskubide aiek, gaur ere Atzerr etako enbaxalarien etxeek, politikazko arazoengaitik beren burua larri ikusten dutenei babes emateko izan oi duten almena besterik ez ziran asieran. Baiña gero, babes eman aal izate ori gaizkille guztiei edatu zitzairen, eta ez Enbaxadategian bakarrik, enbaxada zegoan auzoalde guztian baizik. Ondamen aundiak zerkartzkion Elizaren Laterrietako gizarte-pakeari oitura iguingarri onek, eta kendu zizkien Iñozentzio XI'ak Erregeen ordezkarietara orrelako eskubide geiegizko oiek'

Bi ez gaiñeko Laterri guztiak onartu zuten Aitasantuaren erabakia. Bi aiek España ta Frantzi izan ziran, danen artean katolikoenak (beren ustez beintzat). Menderatu zan España'ko Karlos II'a; ez ordea Koldobika XV'a, eta beste Erregeek egin zutena egiteko eskatu zienei, "Ez nau Jainkoak ipiñi besteen atzetik ibiltzeko, beste aurretik

bidea erakusteko baizik", erantzun zien.

Arin etorri ziran orduan gertakizunak bata bestearen ondotik:

1687'garren urtea zan' Ilbeltzaren 30'ean il zan Frantzi'ko enbaxalaria, ta egun ortan bertan jakiñarazi zion Iñozentzio XI'ak Koldobika XIV'ari ez ziola beste ordezkariarik Erroma'n artuko, aurretik enbaxaden eskubidekeri aiei uko egiten ez ba'zien.

Maiatzaren 12'an, bulda baten bidez, Iñozentzio XI'nak enbaxadetakako eskubideak deuseztuak gelditzen zirala aldarrikatu zion mundu guztiari. Bulda onen agindua betetzen ez zuana eskomikapera jausiko zan.

Azaroan iritxi zan frantzitar enbaxalari berria, Lavardin'go Marke-sa, 200 gudarirekin. XIV Koldobika'k enbaxadategiaren auzo guztia bere eskupean artzeko agindu zion, eta ala egin zuan, indarraren bitartez, enbaxalari berriak. Bereala eskomunikatu zuan Iñozentzio XI'ak' Ez zan makurtu Markes frantzitarra; lotsaren apurrik gabe, mundu guztiaren aurrean "Frantzi'ko Koldobika Donearen Jauretxean", arrokeriz beterik, Jauna artzera igo zan aldarera urrengo egunean'

Batere zaratik gabe, baretasun osoan, Iñozentzio XI'ak Jauretxe ura "sub Interdicto", "elizkizunak egiteko debekuean", ipiñi zuan.

Artu zuan arnorru gorriak Borboitar arroputza' Ez zan Aitasantua ikaratu: Azaroaren 16'ean XIV Koldobika bera, "Le Roi Chrétianissime", "Errege Txit Kristaua" eskomunikatu zuan. Erregeak, zoraturik, Aitasantu zaar ura nola makurtu ez zekila, Kontzilio Ekumeniko bat eskatu zuan.

Pakerik galdu gabe il zan Iñozentzio XI'a eta berak asitako bidetik jarraitu zuan Alexander VIII'ak ere. Gerturik zegoan au, Erregeak bitartean izendatutako Gotzai guztiak onartzeko, baiña auek "Lau Atal" aiek Elizaren dotriña ez zirala aitortzen ba'zuten bakarrik. Bazekian Aitasantuak auzi guztia irabazia zuala ori lortzen ba'zuan!

1688'an 35 ziran Frantzi'n Gotzairik gabe zeuden eliz-barrutiak. Frantzi'ko erria nazkatzen asia zan; Frantzi'ko Elizaren aurka asarratzen ari ziran, gero ta geaigo, mundu guztiko kristau eta eliz-gozonak; aitasantuaren aIde zegoan agiri-agirian kristaudia. Erneaturik zebillen, bere izena nola jasorik-gorde ez zekiala, Borboitar anpatua. ¿Bo rondate txarrez? Ez da erreza erantzuna'

1688 ortan bertan itzuli zizkion Alexander VIII'ari Elizak Frantzi'-ren Egoan zituan bi Latériak: Abi Mon eta Benesitar Konterria' Gaiñera, otoizketan ari zala, esaten zion, "Frantzi'ren onerako Aitasantua- ren biotz gogortua biguintzeko" Jaungoikoari eskatuaz. Ez da otoizke-

ta au parregarria, gauza bat adierazten bait digu argi ta garbi: Koldobika XIV'a bezalako gizon batek ez lukela sekulan Enrike VIII'ak bezala bere Jaurreriko Eliza zismaraiño eramango.

Ala ere zalantza guztiak lurrindu nai zituan Alexander VIII'ak bein betirako, eta 1690'eko Bulda batean galazi ta gaitzetsi zituan "1682'ko Batzarraren Lau Atalak". Ordurako Koldobika XIV'ak utziak zituan bere Erroma'ko enbaxadaren aide gorde nai zituan eskubidekeri zarata-tsu aiek ere. Ez zuan noski Enrike VIII'ak orrela jokatu. Eman dezaiozun aipu ori Enrike Naparraren billobari.

Apalki, pakea nai zuan orain Erregeak, eta pake orren zituak, —Iñozentzio XI'aren eta Alexander VIII'aren nekeen emari ziran zitu aiek—, Iñozentzio XII'ak jaso zituan. Bi eskutitz alaigarrietan iritxi zitzaion uzta orren albistea. Aurrenekoa, (1692), Gotzaiena: "Aitasantua ainbeste samindu zuan 1682'ko Batzarrean gertatuak gu ere arras samindurik gauzkala aitortu nai genizuke. Danok oiuegin nai dugu, ago batez, billera artan Aitasantuaren eta Elizaren eskubideen aurka artu ziran erabaki guztiak balio gabetzat euki bearrak dirala".

Bigarrena, (1693), Erregearena zan: "1682'ko Elizgizonen Batzarrariburuz, gertakizunek artara beartuta urte ortako lege batez erabaki nuan guztia ezerezteko, bearrezkoak diran agindu guztiak eman ditudala, poz aundiz dasaiot Zure Santutasunari".

Merezi du aipu ona "Errege Eguzkiaren" azken-apaltasun orrek, naiz beranduxamarrekoa izan, dio edestilariren batek. Bai ote? Epaitu ezazu zerorrek, irakurle: 1682'ko Lege ura desegiteko, gutun batek bali o ez zuala jakin zuanean bakarrik idatzi zion Aitasantuari; legiztilariek, "Agindu bat ezerezteko, are gutxiago Parlamentuko liburuetan ofizialki idatzirik zegoan Agindu bat ezerezteko, eskutitz bat naikoa ez zala" jakiñarazi ziotenean.

Berbiztu zan ala ere pakea, eta merezi dute elizkide guztion esker ona, Europa'ko Erregerik arroena ta indartsuenari aurpegi emateko kemenik naiko izan zuten bi Aitasantuek: Alexander VIII'ak, eta batez ere bene aurreko, Iñozentzio XI'ak.

Esan bearrik ez da galikeriaren aztarnak ez zirala une batean desegin. Arrak bezela gorderik, Iraultza Nagusiarate iraun zuten Frantzi'ko Elizan, eta neurri gabe zabaldu ziran Kristaudiko beste Laterrietara; Borboitarrek irabazi zituzten Laterrietara aurrena; gero, besteetara ere bai. Bazter guztietan izan ziran Gotzaiak erregekeriaren aldeko, danak Erregeari zor bait zioten beren gotzaiagoa, eta Erregeek, aien otseintasunaz ziur zeudelako aukeratu bait zituzten Elizako eginkuzun guren artarako.

Emezortzigarren mendean Borboitarrenak izan ziran España, Parma'ko Dukaterria eta Sizili ta Napoles'ko Jaurerriak. Iru Laterri aueta-ko Borboiak, arroak, balio koxkorrekoak, absolutista gogorrak, beren mendeko erridien eskubideen zapaltzailleak, eta Eliza menderatzearen zaleak izan ziran. Eman zioten Elizari lanik naiko' Baiña ez ziran bakarrik ibilli. Elizari neke-emate ortan izan zituzten kidekoak: Benezi'ko Errepublikak, Saboya'ko Dukaterria, Portugal'eko Jaurerria, ta baita Austri'ko Inperatoreak ere; II Jose batez ere, Elizako gauzetan eskua sartzeko izan zuan zaletasunagaitik "Errege Sakristaua" esan zitzaiona.

Erregeek orrela jokatzek ez gaitu arritu bear. Gotzaiak Aitasantuen alde ez baiña Erregeen aide jartzea zaigu mingarri, baiña orren kulpak Aitasantuek zuten, Erregei, Gotzaiak izendatzeko, eman zieten eskubidearen ondorioa besterik ez bait zan ori Eskubide oiek ematea Eliza gaitz aundietati gordetzearren egin zutela?. Bai noski, askotan. Baiña... ¿Gozzaien erregekeri ori baiño gaitz aundiagorik bai ote leike Elizarentzat aurkitu?.

* * *

Febronikeria bere garaian aztertuko dugu-ta, beste Aitasantu batera igaro baiño len, esan dezagun, Iñozentzio XI'ren amenez, Mixioetako "Rito"en auzian ere oso zuzenki ikusi zituala gauzak. Zorixarrez auzia konpontzeko denborik gabe il zan.

Zillegi bezaigu, oraindik, Alexander Vill az mintzatzen asi baiño lenago, "erregekeriaren" filosofiaz itz batzuk esatea'

Erregekeri ori da noski Elizari sortu lezaiokean gaitzarik aundienetako bat. Ala ere, bazuten erregeak Elizako gauzetan eskua sartzeko arrazoiaren puska eder bat ekonomiaren aldetik: Jaurerriko dirua atzerrira ixurtzeke jaurerri barruan gorde nai izatea.

Dirutza aundiak irtetzen ziran errialde guztietatik Aulki Doneko kutxetara, Abiñon'go Aitasantuek Elizako diruen administrazio garaia beren eskuetan zentralizatu zuten ezker; bear-bearrezkoa bait zan, gerontzean, edozein baimen lortzeko edo edozein kargu artzeko Aitasantuaren kutxa aietara dirua bidaltzea. Batu eizkiezu diru oiei Eliza'ko "Benefizio" edo "Kargu Ordainduen" zergak eta ulertu aal izango duzu zenbat aiñekoa zan aberastasun-jario etenik gabeko ura.

Eta diru ura dana Elizak ondo erabiili balu, gaitz-erdi. Baiña Birjaitzako Aitasantuen zorakeria oroitzea naikoa dugu, aberastasunaren puska bat, —ez ziurki aundiena—, baiñan bai ala ere puska ederra, zertan urtzen zan jakiteko.

Ala ta guztiz, ,Aitasantuek baiño okerrago gaztatzen zutela Erregeek, auek Elizari kentzen zioten diru ori?. Bai noski. Aitasantuen di rua, geiena kultura-lanetako eta ekintza onetarako zuzenki erabillia izaten bait zan; erregeena berriz, sarrienik, guda ta burrukaren bitartez, erregetzaren, —ots, errege beraren—, "aunditasuna" lortzeko ondatua. Ala ere legiztilari erregezaleen kontzientzia lasa gelditzen zan, Laterriko aberastasuna Laterriko mugetatik kanpora ez ateratze utsarekin.

"Zorionekoak txiroak, berea bait dute Zeruetako Jaurerria" esan zuan Elizaren sortzailleak. Baiña Argikuntza-aroan oso aberatsa zan oraindik mundu ontan "Zeruetako Erreiñua", ost, Eliza'

Gotzai asko, Gotzai eta Printzipe ziran batera, eta baita Abata batzuk ere. Inperioren altzoan berriz, Gotzai-Printzipe oiek Laterriburu genituan, beren elizbarrutiak Laterri iareak bait ziran'

Ta Inperiolurretatik landa ere, naiz Printzipe izan ez, aberatsak ziran, —oso aberatsak askotan—, Poloni'tik Portugal'eraiño, elizgizon garaiak'

Ar dezagun eredutzat Españi. Bâ, XVIII mendeko Españi'n, nekazaritzako lurretan laurden bat Elizarena zan' Au da: Egiatzko Españi'ren lau zatitik bat, Elizarena zan, eta beste iru zatietan ere berretzat jasotzen zituan Elizak "amarrenak eta lenen-zituak": "diezmos y primicias".

Nekazaritzako lurretatik landa ere, urietan, errietan eta errixkaetan, Españi'ko Elizarenak ziran etxe eta jauregi asko.

Saia gaitezen aberastasun ori dirutan agertzen, naiz orduango Españi'k estadistika geiegirik eskeintzen ez. Ta, diruari bere egiazko balioa eman aal izateko, esan dezagun aurretik, erdi-mailla oneko gizon batek egoki bizitzeko, urtean 2'160 erreal naikoak zituala. Ara bâ:

Gaztela'ko Jaurerrian bakarrik, Elizarenak ziran lurren errentak 359'251 errealera iristen ziran urtero. Baiña aundiagoa zan oraindik amarrenen eta lenen-zituen balioa.

XVIII mendearen azkenean, 1.800'garren urtean, Españi osoko amarrenen balioa, 418.000.400 erreal izan ziran, eta lenen-zituena, 230.000.000. Guztira, 648'000'400' erreal.

Meza, illeta, eta beste elizkizunetatik jasotakoak, 135'000.000 erreal ziran.

Fraille eskaleek ere jasotzen omen zituzten urtean 53.122.650 erreal.

Ez da beraz arritzekoa uri eta erri txikietako elizak ere urre ta zillarezko irudi ta ontzien jabe izatea.

Jauretxeetako urre ta ziillarrak eta beste aberastasunak kontuan artu gabe, Vicens Vives ekonomilariak uste du Españi'ko Eliz osoak, guztira, irabazten zituala 1.101'753'430 erreal urteko, Kristauek egiten zizkioten emaitzetatik asita, lurren errentetaraiño, irabazi guztiak batuta. Eta Españi'ko Elizaren antzekoak ziran beste lurraldeetako Elizak.

Zoroak izanen ziran Erregeak, aberastasun ortan muturrik sartu nai izan ez ba'zuten. Lëndik ere, lorturik zeukaten Aitasantuengandik, amarrenen erdia beren kutxetara eramán aal izatea. Ortaz aparte, larri aurkitzen ziran bakoitzean, Españi'n, Alemani'n, bazter guztietan, Elizaren altxorrera sartzén zituzten atzaparrak, eta konta ezin alakoak izaten ziran garai estu aietan Gotzaiak, Abatek eta Apaizek, Erregeei egiten zizkieten "naimen oneko" doaiak' Orrela, erriko jendea goserik zegoan artean, kristaudi guztian Elizaren aberastasunak Erregeen aundikerirako, eta guda egiteko, erabilliak izaten ziran; eta, azkenean, Frantzi'ko Iraultza Nagusiaren ondorean, Europa'n Laterri liberal berriak sortu ziran, Laterri aiek eramán zituzten aberastasun aiek danak, indarrez. Erriari laguntzeko izan bear zuten Elizaren aberastasunak deabruarentzat izan ziran guztiak.

Gaiñera, orrelako aberastasuna ez ezê erriko jendeen uste on osoa ere, berekin zeukaten Gotzai aiek, ¿ez al zuten, naitanaiez, Erregeen begien aurrean Jaun aberats, altsu ta bildurgarriegiak agertu bear?. Legezkoa zirudian beraz Erregeek, gotzaigo aietarako, beren lagunak izendatzeko eskubidea lortu ta gorde nai izatea.

Zoritxarreko aberastasuna, Elizari bere askatasuna kosta zitzaion aberastasuna.

Agian, "Nantes'ko Erabakia" deusezteá izan zan Elizak erregekeriaren zurrunbilloan, berak eskatu gabe, jaso zuan irabazietako bat. Baiña ez zitzaion Aitasantuari atsegiñegia izan irabazi ori Iñozentzio XI'a gogorkeriaren zale ez zalako eta deusezte ura egitean Koldobika XIV'aren asmoak garbiak izan ez ziralako.

—Ez zan Aitasantua erejeen aurka gogorkeria ta indarra erabiltzearen zale' Gogorkeria ta indarkeria erabilli zituan berriz Koldobika'k Frantzi'n kalbindarren Eliza desegiteko.

—Ez ziran guztiro garbiak Erregearen asmoak "Nantes'ko Erabakia" desegitea pentsatu zuanean' Ara zein ziran Koldobika XIV'aren asmo oiek: Lendabizi, Kristaudiaren aurrean bere burua garbitzea, ja-

kin bait zuan ordurako Jaurerriaren Lege egin zituan Lau Atal galikandar aiek ez zitzaizkiola Kristaudiari atsegin izan. Eta gero, nolabait Aitasantuaren esker ona irabaztea; Aitasantuak, Erregeari bere esker ona agertzearren, galikeriaren Lau Atal aiek ontzat artu zetzan.

Esan dugu, bere tokian, "Nantes'ko Erabakia" noiz eta nola izan zan eratua; esan dugu, baita ere, gero Richelieu'k "Nimes'ko Erabakiaren" bidez kendu zizkiela ugonotei Enrike Naparrak "Nantes'koan" eman zizkien eskubide geienak; batez ere beren zaintzapean zeuzkaten babes-uri eta gazteluak; eta otoizketak agirian egiteko baimena. Ori egitean era bat garbitu zuan Richelieu'k Frantzi'ko karriketarik Eliz kalbindarra.

Aurrera jarraitu nai izan zuan Mazarino'k ere bide ortatik Frantzi guztia katoliko egin naiean, ugonota aiek beti laterriaren etsai izan zitezkelaren bildurrez. Asmo onen aide ipiñi zan Maintenon Andrea ere, Koldobika XIV'ren maitale izan ondorean, 1683'a ezkeroren emazte izkutua zana.

Colvert ministro ekonomilariak ekarri zion Erregeari burura ugonotei ondasunak kentzea' Ta ori naikoa izan ez balitz, beste ministro batek, Louvois'ek, beste asmakizun borobil bat eskeiñi zion 1681'ean: "Les Dragonades": "Dragoikadak"

"Dragoiak", oiñez bezain egoki zaldiz ere borrokan aritzeko bereiziki eziak izandako gudariak ziran. Eta Louvois'en asmakizuna gudari arro zipotz aiek ugonoteen etxeetan bizitzen ipintzea izan zan, famili ugonoteak gudari aiei ostatu ematera beartuaz, famili gizagaixo auek dragoien indarkeri ta Iotsagabekeriaz aspertu ta nazkatuta atzerrira aldegin zezaten.

Alperrik izan zan probintzi batzuetan ugonoteak izkilluetara eldu izatea. Amaitu zan azkenean auen pazientzia; ederki egiten bait zuten zaldizko gudariak Erregeak ipiñi zien eginkizuna. Ondasunak galduta, eta beren etxeetan askatasunik gabe egon-bearraz nazkatuta, 70.000 kalbindar irten ziran Frantzi'tik.

Orduan, (1685'ean), Frantzi'n geiago ugonotarik ez zala esanaz, "Nantes'ko Erabakia" ezereztu zuan XIV Koldobika'k, eta kalbintasuna osoro galerazi'

Laister etorri zitzaion Xi Iñozentzio'ren gaitzespena, ez bait zan Aitasantu bikain ura indarkerien adiskide.

VIII ALESANDER

(1689 - 1691)

Benezitarra zan, bere izenez Kepa Ottoboni, eta ia larogei urteko agure zala aukeratu zuten norbait aukeratzearren, kardenalek, errege kristauen nasketaz beterik igaro zan konklabe batean. Kepa Ottoboni'ren aurka ez bail zuan bein¹ zat iñongo erregeak keskarik. Ez zan Iñozentzio XI'aren antzekoa.

Berealaxe deitu zituan bere ondora aide guztiak' Anai bat Elizako Laterrien gudarozteen buruzagi izendatu zuan, kardenal bere illoba gazte, Kepa Ottoboni, alai ta oparo bidez gustatzen zitzaion mutikoa; urrengo urtean kardenaltzara jaso zuan beste illoba bat ere, eta berari eman zion Elizaren Jaurkitzako kargurik garaiena: Estaduko Sekretaritzaz.

Zorionez Alesander VII'ak izan zan azkeneko Aitasantu sendizalea. Ontaz landa ezer gutxi esan daiteke bere aide:

Koldobika XIV'arekin pakeak egin zituala, baiña ez du antan meritu aundirik Iñozentzio XI'aren jokaera bikaiñak menderaturik bail zeukan, —batez ere erregeak mundu guztia Aitasantuaren alde zegoala ikusi zuan ezker—, Borboi Frantzitarren arrotasuna.

Benezi'ri turkitarren aurka diru, gudari, ta itxasontziak emanaz lagundu ziola; —bera ere benezitarra bail zan—.

—Eta Jansenitasunaren aurka lan egin zuala.

Alesander VIII'ak aitasantutza artu zuan urtean bertan, 1689'an argitaratu zituan bere bi libururik garrantzitsuenak Argikuntza'ko pensalarien artean aintzindari izanen zan Jan Locke inglandarrak: "Essay Concerning Understanding", ("Giza-Oldozketari buruz Saiaketa"); "Two Treatises on Government", ("Jaurkintzaz Jarduketa Bi"). Eta, bereala, irugarrena: "Treatise on Civil Government"; ("Laterri-Jaurkintzaz Jarduketa")' Locke Argikuntzaren Filosofia, Politika, eta Ekonomiaren guraso izan zalako, —bere ondorengoek, batez ere frantzitarrek, aren gogaetak bir-esan, argitu, ta apaindu besterik ez bait dute eginen—, naitanaiezkoa dugu gizon ontaz zertxo bat esan bearra'

Baiña ikus dezagun, aurrena, orduan "Jakinduri Berria" deitu oi zitzaion Jakite ura, Jon Locke'ren aurretik nola zegoan.

"Pentsaera Berri" ori, protestalaritzari erantzun bearrak, katoliken artean piztu zuan'

"Idazti Donea bakarrik" oiuz zegiten Iutertarrek eta kalbindarrek. "Ez da naiko", erantzuten zuten katolikoek; Idazti Done utsarekin ez dezaguke Idazti Donerik ba'dan ere jakin' Nork erakusten digu Idazki oiek Doneak diranik?. Askoz gutxiago dezaguke Idazti Donearen zentzua igarri". "Bai; Gogo Deuna'k gure barruan itzegiten digulako", zan ostelarien erantzua. "Eta ¿nondik dezakegu gure barruan ari dana Jaungoikoaren Atsa edo gure buruaren zorabioa dan asmatu"?, zerantzuieten ortara katolikoek'

Zalantza oiek, edo arrazoiak garrantzia kenduaz sinismenkerira, edo sinismenari egalak moztuaz arrazoikerira, eraman zezaketen.

Aurreneko bidetik jo zuan Mikel Montaigne, (1533-1592), Bordele'ko alkateak, "Essais", "Saiaketak", izeneko idazkian. Okam'en oldozketa berrituaz, arrazoiak ez dezakela metafisika-arloko gairik ezagutu, zion' Gai oietarako, Sinismena, Elizako Asaba Doneen ezipaiñetatik iritxi zaigun Sinismena, amen dugu zuzendari bakarra. Arrazoiak bizitza ontako oiturak zuzentzeko bakarrik balio omen digu; estoikoek erakusten zuten bezala, mundu onetan, arrazoiaren argiz ona dakusguna egitea eta okerra ikusten duguna uztea bait da gure egin bearra. Katolikoa zan Bordele'ko Alkatea, baiña bere idazkiko siniskeria ta estoikeratik sortu zitzaion eszeptikotasuna, ots, egia zer dan jakiterik ez dagoalaren sentimena, izanen dira "Yakite Berriaren" arnasaren erdia.

Arnas orren beste erdia Renato Descartes (1556-1650), iñakitarren ikasleak emanen zion. Onek, Berulle kardenalak eraginda idatzi zuan "Discours de la Méthode" "Erariburuz Arrazoiketa" izeneko liburuan, arrazoikerira jo zuan. Sinismenkeri utsak giza-oiñarri oro kentzen zion Sinismenari. Bearrezkoa zan Sinismenaren arrazoiezko oiñarria sendotzea, matematiketan oi dan bezala Sinismenaren Egi guztiak arrazoiketa sendoz egoki argituaz. Matematikaren aurrean ez du zalantzak lekurik. Orrela argitu bear dira Sinismenaren Egiak ere, sinisleak zalantzarik eta kezkarik senti ezin aal izatea lortu arte.

Ortarako galdera bati erantzun bear zaio leenik: "iBai al dezake arrazoiak egirik atxiki?". Bai, dio Deskartes'ek: "Cogito, ergo sum"; ¿"Pentsatzen ari naiz?" Orduan zerbait banaiz". Beraz, ziurki ezagutzen du arrazoiak bere izatearen egia: zerbait badala. Eta egi ortatik

asita argitu nai ditu Deskartes'k, matematikeen sistemak erabilliaz, Filosofi eta Teologi guztia.

Bikaiña zan asmoa, baiña arrazoiaren argiz gauza guztiak ainbeste argitu nai orrek bi zoko usteletara eraman zezakean adimena:

—Arrazoikerira; arrazoiak argitu ez dezakean guztia deus ez dala sinistra, eta bide ortatik jo zuten deistek eta gero ateiste guztiek'

—Panteismora: oro Jainkoa dala sinistra. Malebranche berullertarrak eman zuan bide ontan aurreneko urratsa; arrazoiaren argia eta Jainkoarena alkarrekin batu nairik, uste gabeen ia-ia Jainkoa bera ipintzen bait zuan gizona-baitan pentsatzen eta egiten.

* * *

Malebranche apaiz bikaiña zan; eta egiatzko kristaua Deskartes, Aitasantuaren Nuntzioarekin batera Sueziko Kristiñe katolikotasunera erakarri ondorean Estokolmo'n il zana' Baiña, Portugal'etik Olanda'ra aldatutako Baruk Spinoza judutarrak, panteismo osora eraman zuan Jakite Berria.

"Rabi" edo "judutasunaren maixu" izateko ikastola batean ibilli zan Spinoza andik irakasle judutarrek, razionalista edo arrazoiuts-zale agertzen zalako, bidali zuten arte.

Spinoza'ren ustean Jainkoa ez da gizakumearen pentsatzea eta egitea bakarrik; izatea ere bada; gizona baitan eta izaki oro baitan. Beraz, Izadi guztia Jainkoa da; eta Jainko osoa, Izadia. Hegel'ek berbiztuko du, gero, Spinoza'ren pentsaera.

Izatez, gizon ona zan Spinoza. Betirako gelditu zitzaion, Rabi-ikasle izan zan garaietatik, Idazti Donearen zaletasuna, eta exejesis berriaren sortzailletzat eukia izan da. Pentsalari bezala, Deskartes'en ikasle, maixuaren geometriaraua erabilli zuan, apainki gaiñera, idazkietan. Bere etsairik garaiena, kristautasunaren aide, Godofredo Leibnitz (1646-1716) izan zuan'

Errez nabari daiteke Spinoza'ren panteismoaren aztarna bezelako zerbait, Argikuntzak Izadiari izan zion erlijiousaieko eraspenean'

* * *

Une ontan agertzen zaigu Jon Locke; zalantzik gabe jakintsu bezala Deskartes, Spinoza eta Leibnitz baiño azkoz motzagoa, baiña ala ere Argikuntzako, "filosofizaleen" artean filosofilari soilla; au da:

filosofiegille bakarra, naiz bere filosofia, "Sensismoa", "Zentzutasuna", oso filosofi erpiñekoa ez izan.

Alatagutziz, influentzi aundia, eragipen aundia, izan zuan Locke'k Frantzi'ko, Portugal'eko eta Espāni'ko "argituen" artean. Espāni'ko "argiturik" azkarrena eta jakintsuena Gaspar-Meltxor De Jovellanos, izango da noski; bā, "todo cuanto yo sé, se lo debo a él", idatzi zuan Jovellanos'ek bere "Egunkari" an.

Azaldu dezagun beraz, laburki, Locke'ren oldozketen mamia:

Gogapenak "sensations", "sentipenak", besterik ez dirala zion eta gogakizunik garaienak sentipen oien josketak. Filosofi koskorra adimena ain gauza ezereza biurtzen duan filosofia, metafisi guztirako ateak itxirik uzten bait ditu' Ortik, dator "argituek" metafisiari, ots, egiazko filosofiari, beti izan zioten gorrototxoa.

Askoz egokiago aritu zan Locke soziologiaren barrutian. Asieran erregeen ausolutismoaren aide ari izan zan, askatasun oro, baita erlijio-askatasuna ere kaltegarria zala esanaz, baiña 1667'an "Epistola de Tolerantia", "Eroapenaz Eskutitza", argitaratu zuan ezkerero, demokrazi zale agertzen zaigu' Ain zuzen Locke dugu "Demokrazi Liberalaren" gurasoa, gero Jon Jakob Rousseau'k, aren oldozketa, arindu, apaindu, erreztu, eta azkeneko mugetara eraman besterik ez bait du egingo. Aztertu dezagun bada, anglikandar onen pentsaera.

Laterria ez da Izadiaren egintza, Izadiak ez bait ditu gizakumeak "alkartuak" egiten, "iareak" baizik; ez ditu ere "bata-bestearen-mendeko" egiten; danak berdiñak egiten ditu. Laterria, beraz, ez da Izadiagandik datorren gauza.

Gizakumeek sortu zuten Laterria' Zertarako? Laterkide bakoitzaren askatasuna zaintzeko; alkartu gabe, bakarka zeuden artean, arrixkuan ikusten bait zuan gizakume bakoitzak bere askatasuna, bera baiño indartsuago zitekean beste baten ondoan. Danak alkarturk, danen artean bakoitzaren askatasuna gorde zezaketen. Auxe da, beraz, Laterriaren elburu garaia: laterkide guztientzako "Askatasun Berdiña" lortzea. Askatasun ori da gizadiaren aberastasunik aundiena' Aberastan ori zaintzeko, au da: bere **Onturrerako**, bere "Probetxurako" bakarrik sortu zuan gizonak Laterria.

—Agintariei, laterkideek ematen diete Agintaritza. Erria da, beraz, Autoritatearen egillea, almen guztien iturburu bakarra.

Errez aterako ditu Frantzi'ko "argituen" artean pentsalaririk azkarrena izan zan Jon Jakob Rousseau'k (1712-1778), gogapen auetatik Jan Locke'k berak, —oartzeke? ausartu ez zalako?—, argitara-gabe

izkutuan eta ixillean laga zituan azken ondorio bi auek.

—Erria, Autoritate egille ez eze, Autoritatea bera da. Agintaria erriaren "Ordezkar"i" besterik ez da; erriaren morroi utsa, erriak nai duana egiteko autatua. Erriak ez dio agintariari Almenik ematen; ez dezaioke eman ere, Almen ori erriak beragandik aldera-ezina dualako. Erriak berak egiten ditu legeak, auteskundeen bitartez, errikide "bakoitzen" naimen "bakoitzak" batuaz' Rousseau'ren demokrazia, "bitartekorik gabeko demokrazia da": "Democratia Directa".

—Erria da, regeei "onak" eta "zuzenak" edo "gaiztoak" eta "okerrak" izatea ematen diena' Maiz itzegin zuan Locke'k Izadiaren Legeaz; Olanda'n bizia izan zalako, Grozio'ren erakutsiak ondo ezagutzen bait zituan' Locke'rentzat Izadi-Lege orren aginduak, gizarte-mailiarako, iru gauz auek zaintzera besterik ez gaituzte beartzen: Gizakume bakoitzaren Bizia, gizakume guztien Askatasuna, eta gizakumen ororen Jabegoa: bakoitza bere ondasunen jabe izateko eskubidea.

Legearen garrantziaz ari izan izan, geroxeago, Montesquieu ere, (1689-1755), eta argi laga zuan, adimenik kaxkarrenarentzat ere, beti argi egon dan auxe: Legerik gabe ez dagoala askatasunik. Baiña askatasuna danentzat berdiña izateko, Legeak danen gagnetik, agintari ta mendekoen gaiñetik, egon bear duala zion. Legea da beraz Laterriaren egiazko Agintaria.

Baiña legeak onak edo gaiztoak izan daitezke. Bearrezkoa dugu beraz Arau Guren Nagusi bat Gizarteko Legeak "onak", "zuzenak" edo "gaiztoak", "okerrak" diran erabakitzeke.

Arau ori, guretzat, Izadi-Legea da, diote teologilari katolikoek. Izadiak gizakumea gizarterako sortzen du, arraia uretarako egiten duan bezala; onek uretik kanpo arrai bezala bizitzerik ez duan modura, arek ere ez bait du gizartetik landa egiazko gizakume bezala bizitzerik' Izadiak egiten du beraz Laterria. Orregaitik Izadian dago, Izadiaren egille Jainkoak ala gauzak eratu ditualako, gizarteko Legedi guztien oiñarri eta Arau Nagusi azkenekoa. Beraz, ezkontza —Sendia!— Izadiagandiko erakundea dan bezala, Izadiagandiko erakundea da Laterria ere. Baiña ezkontza au edo beste ori egitea gizon-emakumeen esku iareetan dagoan bezala, gizakumeen esku iareetan dago Laterri au edo bestea moldatzea ere' Ez, —dia Rousseau'k Locke'ren oldoz-bidetik aurrera jarraituaz—; Ez; Izadi Legea ez daiteke Laterriari-

-buruzko auzietan Arau Nagusia izan' Zergaitik? Izadiak gizona gizarterako egin ez ba'du, Izadia-baitan gizarte-bizitzarako araurik edo legerik egon ez daitekelako. Laterria, laterkideen naimenak sortu ba'du, laterkideen naimenean bakarrik izan daiteke Laterriaren politikarako eta, Gizarte-bizitzarako Arau Nagusi bakarra. Arau ori laterkideen Naimena da. Laterkide geienak ontzat erabakitzen dutena, ona da, besterik gabe; eta okertzat jotzen dutena, okerra.

Onela, Hobbes bezala, Locke ere, Rousseau'ren bitartez, despotismora, nagusikerira, jausten da' Hobbes Erregearen nagusikerira, Locke eta Rousseau, erri bateko talde .aundienaren neurri-oroz-gaindiko nagusikeria. Auteskondeetan galdu dutenek ez dute osteke-tarako, protestarako, eskubiderik ere' Geiengoak, mayoriak, nai duana, —eta ain zuzen geiengoak nai izan dualako bakarrik—, beti "on" eta "zintzoa" baldin ba'da eta "gaizto" eta "okerra" arek nai ez duana, geiengo orren aurka oi u egitea okerkeriaren alde eta zintzotasunaren aurka jokatzea izango bait litzake.

Jinebratarra zalarik, ezaguna zuan noski Rousseau'k alboko, Sui-zi'ko kantoiaren demokrazia, naiz artean Jinebra suizitarra izan ez, baiña bazuan, baita ere, Eusko demokraziaren berririk Imanol Iñaki Altuna azkoitiarraren bitartez. Euskalerriko Argikuntzaren aitzindari izan zan Altuna' Kristau sendoa, "egunero errosar oa esaten zuan gizona", Rousseau beraren itzetan. Adimen zorrotzenetako jakintsu "argitu" eta katolikoa, gogoz saiatu zan Rousseau katolikotasunera erakar-tzen. Rousseau'k berak esaten digu ori ere. Biak lagun kutunak izan ziran, eta biotz osoz maite izan zuan jinebratarrak euskalduna. Ta no-la maite ere...! Ots: Azkoiti'ra bizitzera etortzeko erabakia aurturik zeukan Rousseau'k, baiña Altuna'ren eriotz ustegabeak eragozi zion asmo ori bete aal izatea.

Bateren batek uste ba'lezake geiegizko eusko-arrokeria dala, len Aita Bitoria'ren pentsaeraren muiñean Araba'ko Lege Zarra ipiñi genduan bezala, orain Rousseau'ren oldozketarenean Gipuzkoa'koa ipintzea, oroi beza, —bere erritasuna aundiagoa izan dedin—, Augusto Thyerry berak, naiz lenen mailleko edestilaria izan, ez duala kezkarik Inghlanderriko demokraziaren sorkunde berbera eusko-demokraziaren itzalpean ipintzeko' Ala dagi "Histoire de la Conquête de l'Anglaterre par les Normandes", "(Normanditarrek Inghlanderia nola irabazi zutenaren Edestia") izeneko liburuaren "Etat politique des Basques", ("EuskoPolitikera") deritzaion atalean'

Inghlanderri'ko demokrazia Enrike III'aren erregetzan jaio zan: 1265'aren Iibeltzeko 2^P'ean bildu zan Parlamentuan. Batzar ori Simon

Montfort, Leicester'ko Konteak, eratu zuan. Ordurarte Simon Montfort'ekoa luzaroan Guyena'n egon zan, Euskalerriaren alboan, garai artan Inghalderria'renak ziran lurralde zabal aien jaurleri. Emen eza-gutu bide zituan Laburdi, Naparroa eta Zubero'ko Lege Zarrak eta orrela demokrazia zer dan ikasi. Ain zuzen denbora artan Zuberoa eta Laburdi Naparra'tik bereizirik zeuden, eta Inghalderri'ko Erregea zuten Laterri-Buru. Orregaitik, Montforte'tar Simon, Guyena'n egon zan bitartean, bi eusko Laterri oietan Errege-ordezko ere izan zan.

Itzuli gaitezen Jon Locke'ren erakusketara.

Politikaz landa garrantzi aundia izan zuan Locke'k Ekonomiaren arazoan, Liberaismoaren lenengo maixu bezela. Ekonomian ere "Askatasuna" dugu, Locke'ren gogaeten ardatza; Askatasuna, **lanerako**; Askatasuna, salesketarako; Askatasuna, aberastasunerako. Laterriak, askatasun cri laterkide guztientzat **berdin zaindu** besterik ez du egin bear; eta lapurreta eragozi.

Askatasun garbi ortan zillegi zaio gizakume bakoitzari lanaren bitartez al duan aberatsena izatera iristea. "Leiaketa lare" cri onuragarria zaio gizadiari, azkarrenak, yayoena eta trebeenak ekonomiaren buruzagitzara jasoaz, gizadi guztiaren ondasuna bizkortzen eta ugartitzen dualako. "Leiaketa" ori ez da iñoiz geldituko, gizakumea bere "onturrea" naita-naiez billatzera bere izakera berberaren indarrez bearturik bait dago. "Onturrea", "Probetxua", da, beraz, Politikan bezala Ekonomian ere igitzaille bakarra.

"Leiaketa lare" orrek sortu lezazkean okerrak, ekonomiak berak, bere legeen bitartez, zuzenduko ditu. Izadiak beti konpontzen ditu, azkenean, bere uts guztiak, bere barrundiko legeen bitartez. Izadi-Jakintzen legeak utseziñak dira, eta Ekonomia, —Fisia edo Kimia bezela—, IzadiJakintza bat da. Alperrikakoa litzake beraz, Laterriarentzat, ekonomiaren legeetan muturra sartzea. Fisiaren legeetan sartu nai izatea bezain alperrikakoa.

Iru liburu idatzi zituan Locke'k ekonomigaietan: "Some Considerations of the Value of Money", ("Diruaren Balioari buruz Gogarte batzuk"), 1692; "Short Observations" ("Oarketa Laburrak"), 1695; "Further Considerations Concerning Raising the Value of Money", ("Diruaren Balioa Jasotzeari buruz Beste Gogarte Batzuk"), 1695.

Politikarako ta ekonomirako eskatzen duan Askatasun borobilla eskatzen du etikarako, ots, gizakumeen oituretarako; bakoitzak bere bitzta zuzentzeko naikoa bait du, Locke'k dionez, gizatasunean bertan mamiturik daukan IzadiLegea' Lege orren muiña, gizakume orok

sentitzen duan atsegiña billatzeko guraria da. Atsegiña senti aal izate orrek erakusten digu "Ona" ta "Txarra" alkarrengandik bereizten. Animean edo gorputzean atsegiña sortzen digun guztia "Ona" da, eta samina sortzen diguna, "Txarra". Ta ez dago ori Jainkoaren legearen aurka, ekintza zuzen guztiak mundu onetan saritzat atsegiña, eta ekintza okerrak zigortzat oiñazea berekin eramatea Jainkoak berak nai izan duan gauza bait da. Ostera ere, Politikan eta Ekonomian bezela Locke'ren Moral edo Oiturizt an "Onturrea", "Probetxua" agertzen zaigu guztiaren motor edo eragille nagusi bakarra. "Interest": "Interesa": "Onturrea".

Ez du gizakumeak kanpotiko legeen bearrik zuzenki bizitzeko; naikoa du bere Arrazoiak iñoren laguntzarik gabe irakurri dezakean IzadiLegea' "Argitu" dezagun bada Arrazoi ori eta laga dezaioGUN askatasun betea.

"Argikuntza" osora igaro zan oparo Locke'ren "Edonismo" edo "Atsegiñ-zaletasun" au. Eta ortik sortu zitzaion "Argikuntzari" ain be-rea izan zuan "utilitarismoa", edozertan onuratasuna billatu nai izate-

Askatasuna idoroko dugu ostera ere gogapen nagusi, Locke'ren Erljio-Liburuetan, Erljio guztiak onak omen dira. Bedi bā iare kontzientzi bakoitza arrazoiak erakusten dion rnodura Jainkoa gurtzeko. Locke kristaua zan. Kristautasuna babesteko idatzi zuan "The Reasonableness of Christianity", ("Kristautasun eta Arrazoiaren arteko Kidetetasuna"), baiño liburu orretan, mirariak alde batera jaurtiz, kristautasuna egiazkoa dala sinisteko "onen Egokitasuna beste arrazoirik ez degula" esaten dualako, kristautasuna IzadiErljio uts biurtzen du; Izadiz-gaindiko Jainkotasun guztia kentzen dio.

Orregaitik ain gozoki artu zituzten "deistek" Locke'ren erakusketak erlijioarloan; baita giza-eziketaren arloan ere. Gai oni buruz, "Some Thouhts concerning Education" idatzi zuan 1692'an; "Eziketaz Gogoeta Batzuk", gizakumea, askatasunerako jaioa dalako, askatasunerako ezia izan bear duala erakutsiaz. Rousseau'k jasoko ditu gero gogoeta auek bere "Emilio" izeneko idazkian.

Ala ta guztiz, beti izan zan Locke bere barruan, Jainko-miñak jotako gizona. Paul Donearen Epistolen "Argipen" batzuk idazten ari zala arrapatu zuan eriotzak.

Auxe zan Jon Locke. Bere gogakizun guztien sustrai sakona Izad agan zuan fedea da. izadia, Jainkoaren egintza aundia, osoki ona zala, eta Izadia ona izanik, Gizakumea, —Izadiaren egintza nagusiena—, ere nai ta naiez ona izan bear zuala zinistu izan zuan ez-

pairik eta zalantzarik gabe' Gizakumeak ere berenez onak ziralarik, gizar-tearen eguratsa ez zitekean Askatasuna besterik izan. Aintza beraz Askatasunari'

* * *

Argikuntza-aroa arte Aitasantuak izan ziran beti munduaren ibi ketaren zuzendari. Eta ez Leon I'a, Gregorio VII'a; Iñozentzio III'a, edo Pio V'a bakarrik; Baita Alesander VI'a, Leon X'a edo Klemente VII'a ere' Naiz, —Martin Luter'ek egin zuan bezala—, beren aurka gogorki itzegiteko ba zan ere, Aitasantuei begira bizi oi ziran munduaren gidari guztiak. Aitasantua zan munduaren gaillurra. Gerontzean, ez. Emertzotzigarren mendearen sarreran, batean bizi izan ziran Jon Locke eta Alesander VIII'a. Munduaren ibilketan, aintzindari Alesander VIII'a izan zala esatera ausartuko litzakenik ez genuke noski iñor aurkituko'

Orixe da Argikuntza-aroko munduaren aldaketa sakona' Europa'ren jenderik geiena, —ia jende dana—, kristaua da; baiña Europa'ren ibilketaren eragillea ez da onezkero Kristautasuna; "oldozkera berria" da'

Jon Locke'k berak izugarritzko ospea izan zuan mende aren luzaroan. "Maixua" deitzen zioten ago batez Voltaire eta beste "Entziklopediaren" egille deistek eta jainko-gabeek' Bere izena erabilli zuten ezpaitan Ipar Ameriketako buruzagiek Laterri Alkartuen Oinarrilegea antolatu zutenean.

Amazazpigarren mendea ezkerro ez dira iñoz Aitasantuak munduaren aintzinean ipiñiko Jon XXII'aren agerkunderarte. Aro luze orretan ez da Eliza mundua daramakina; Munduak daramaki Eliza bere atzetik. Jakintzen zabalketa, Ekonomiaren igikundea, Langilleen esnatzea, Demokrazi beraren ezarketa Elizatik landa eginen dira' Ori..., Eliza "egoera zaarrekin" bat egiña maizegi agertu oi dalako, Elizaren aurka egiten ez diranean! Inguru guztietan etsaiak besterik ez dakus Elizak maizegi. Etsai oietatik bere burua gordetzea izanen da Elizaren lenengo lana, eta bildurrez eta oso urrutitik jarraituko dio munduaren ibilketari, noizean bein, urte askoz atzetik, itz bat edo beste esanaz'

Jon XXII'ak bildutako Kontzilioaren zirrara gazteak, bizkortu beza berriro Eliza Katoliko zaarraren ausardi donea.

bien artean sortu zuten. Eta jaio ondorean, San Ziran'ek azi, ezi, eta munduan, indartsu, ezarri zuan.

Bera dugu beraz okerkeri aren errudunik aundiena. Badirudi, iñor izatekotan bera izan bear duala Agirre'k lenen mailla ipintzen zituan aietako bat.

Ez nizuke nik orrelakorik esango. Egia da arroa zala, setatsua, egosgorra. Baiña ez daiteko, iñolaz ere, borondate txarrez ibilli zanik egiztatu'

Gaiñera, arrokeri ura guzia, barruagoko beste "zerbait" batek sortzen zion. "Zerbait" ori bere "eginkizunean" zuan sinismena zan: Jainkoagandik artua uste izan zuan eginkizuna! Jainkoak Eliza garbitzeko, bera autatu zuala, sinisten zuan; bete-betean; zalantsarik gabe! Jainkoaren profeta zan bera!: "Neri eman zait besteak ikusten ez dutena ikustea".

Bere eginkizun jainkotiar ortan izan zuan fede itxua da noski, euskaldun ulerkaitz aren sikologiaren barrunberaiño sartzeko giltz egoki bakarra. Ta..', seguruaski, sikologi aren barneko zokorik bazterrean muiñetako gaixotasun baten zorrunbilloa besterik ez genduke aurkituko!

Muiñetako gaixotasun ori izan ez balitz, apika, Elizako Santu izango genduan gaur, Loiola'koaren alboan, Baiona'ko apaiza.

"Bada arritzeko gauza, dio Mikel Unamuno'k, Port-Royal'eko jantzenitasuna eta Josuren Lagundia, bata bestearenganako ain etsai izan ziran bi arerio aiek, biak, bi euskaldunen sorketak izatea! Ala ibilli ere ibilli ziran bata bestearen aurka borroka amorratuan! Senidearteko guda izan zan ura; ez errikideartekoa bakarrik. Baita biskien arteko gudu ere!"

"Esau eta Jakob'en arteko borroka"!!!

Loiola'koa eta Baiona'koa! Bi euskaldun. Bi aietatik, —Esau'ren eta Jakob'en denboretan bezala—, bat izan zan autatua. Biak ziran aundiak. Animeko gauzetan, ordea, biak zearo ezberdiñak' Bata, guttia apaltasun izatera iritxi zan bezala, berekoitasun beltza biurtu zuan besteak bere bizia. Ots!, animariburuzko gauzetan bakarrik!, bestela, oso esku-zabala izan bait zan au ere! Ta berekoitasun artan ere, ez du noski erru aundiegirik, uste ai dan baiño geiago lausotzen bait zion adimena, aipatu dugun kontzientzipeko-lurriñ arek.

omen zien bâ kontzientziak orrelako pausorik ematen uzten. Benetan uste zuten aiek, "quaestio facti"ko arazoetan Aitasantuak eskubiderik ez zuala.

(Gotzai aien jokaerak geiegi arritu ez gaitzan, ez dezagun aztu, Aita santuaren utsezintasuna, naiz kristau arak 'dogma' edo sinis-tegitzat euki, ez zegoala oraindik ofizialki sinest-egi lez argira azaldua. XIX mendearen azkenaldera, ots, aztertzen ari geran gertakizun aiek baiño berreun urte geroago izan zan zinst-egi ori, Batikan Kontzilioan, aldarrikatua).

XIV Koldobika "Errege Eguzkia"ren agintaritzakoan, Blas Pascal izan zuten jantsenitarrek profeta nagusi. Mende artan Frantzi'n, eta Europa osoan idazlerik onenetakoa izan zan' Erljioaren aldetik zer iritzi merezi digun? Ez da erreza, jantsenitarren artean, sinismenari dagozkionetan, nor zer izan zan argi jakitea.

Jantsenitarreiburuz geiena idatzi zutenak, iñakitarrak ditugu; Baiña ez dira, ontan, fidagarri; etsai guztiei ariñegi "jantsenitar" esaten bai zieten. Asarreegi eta arroxkoegi ibflli ziran gaiñera arazo ontan'

Askozaz obeki eta zuzenago agertu zan orduango eliz-edestilari ospetsu bat: Agirre'tar Joseba Kardenala. Entzun eiozu:

"Badira iru jantsenitar-mailla. Aurreneko maillako jantsenitarrak, Elizak gaitzetsitako gogoetak sinisten dituzten aiek dira. Oso gutxi dira auek. Gaiñera, gutxi oietatik ere, ez zaio oraindik iñorreri, epaikera ziurrean, orrelako gauzarik sinisten duanik egiztatu".

"Bigarren maillakoak, gizarteko oituren garbiketa, ta kristauen artean eta beren biotzen barnean eraspen giarragoko biziera nai dute-nak dira; eta, naiz gure denbora auek ain usteldurik egon, asko dira mailla ontakoak.

"Irugarren mailla, berriz, Josu-Lagundiaren etsaiek osatzen dute, au dalako edo ori dalako, josulagunen etsai diranak. Ta auek, zenbatu eziñak dituzu ugaritasunez".

Iru mailla oietan... ¿nun ezarri San Ziran?

Bera izan zan, bai noskil, jantsenikeriaren sortzaille-ereille-zantzaille-babesle ta euslerik nagusiena. Bera dugu, apaiz euskaldun ura, ereji biurri, naasi, egosgor aren bi.iturburuetatik garrantzirik aundienekoa' Bera gabe, ez zan munduan jantsenikeririk sortuko, eta askoz gutxiago, zabaldu zan bezala zabalduko. Bi guraso izan zituan ereji arek: Janssens eta San Ziran; Janssens, nere ustez, ama izan zan; aita, San Ziran; jaio, Janssens olandatarrarengandik jaio zan, baiña

bait zuan.

Biziki arrera ona izan zuan Frantzi'n, baita gotzai askoren artean ere, Arnould "Aundiaren" liburu ark. Erregearen inguruko aundikien artean bereiziki' Zergaitik?

Lendabizi, liburu arek, ordurarte teologilariek latera ulerteziñean erabilli oi zituzten gauzak, frantzera errezean ematen zitualako;

Bigarren, iñakitarren aurka zetorrelako. Iñakitarrak, zuzendari italiar eta españiarren mendean zeudelako, ez ziran Frantzi'ko jende aundiki abertzalekerizaleen artean ondo ikusiak;

Eta irugarren, Erregearen inguruetan ibilli oi zan jende lizun usteldu arri, animeiburuzko gaietaz arinki mintzatzea atsegin izan zi tzaiolako' "Élégant" etzat jotzen bait zuten ori! Solas dotoretzat! Eta baita, nola ez, pekatariak zintzotasunari maitasunarik beiñere zearo galtzen ez diolako ere! Zerri goseak ezkurra ames!; Eta, jende zikiñak, garbitasuna!

ViI Alexander zan Aitasantu 1.655'a ezkerok' Eta Aitasantu onek gaitzetsi zuan 1656'ean, Nikole'ren asmakizun ura: Aipatu ditugun "Quaestio Juris" eta "Quaestio Facti" aien asmakizuna. Gaitzetsitako bost atal aiek ereji zirala baiña "Augustinus"en ez zeudela esaten zuten jantsenitarrei, "bost atal aiek ereji dira, eta, gaiñera, "Augustinus"en daude", erantzun zien Alexander VII'ak.

Urte artan bertan, ederki aurre-gertutu zion giroa, Paris'en bildutako "Eligizonen Batzarrak", "bost atal aiek Augustinus"en egotea edo ez egotea, sinismenari lotutako arazoa zala, "factum dogmaticum", eta Aitasantuak orrelako arazoetaz itzegiteko eskubidea baduala" esanaz; Eta "bein Aitasantua mintzatu ezkerok, begirunik aundieneko ixiltasuna, naikoa ez zala; Aitasantuaren esana buruz eta biotzez egitzat aurtua izan bear zuala erabaki zuan, baita're, Batzar arek.

Frantzi'ko Errege berriak, XIV Koldobika'k ere, Aitasantuaren erabakia ontzat artzeko agindu zuan. Ez zioten danak obedittu. Ez zutela Erregearen agindu ura ontzat artzen, jakiñarazi zuten lau gotzaiek. Ez

zan txikitan azia eta ezia. (Au, noski, ez zitzaien jarraille beroegia aterra)'

Gure denbora ontatik aruntz begira, badirudi Port-Royale'ko penitentziggille goibel aiek, penitentzi egiten baiño penitentzi egitera jostatzen geiago ibilli zirala. Ez zan gaiñera bakarti aien bizitza iñoiz ere latzegia izan. Latzagoa zan orduan bertan eta latzagoa da gaur Elizaren Lekaide eta Praille askoren Anaidietako bizitza.

Alatagutziz, jantsenitarrentzat, nor bakoitza beti bere anima garbitzen ari bear izatea, egiazko kezka mingarria izan zan, edozer gauzetan ikusten bait zuten pekatua'

Noizean bein penitentzi-gose orrek, egiazko txepelkeri mingarrietara jausiarazi zituan. Entzun:

Ilitzen zegoan Arnouldarren ama. An zegoan, urbil, bere semeetako bat: Andoni "Aundia". Semea ikusi nal zuan amak ill-aurretik. Eta baita semeak ere, ama. A!, baiña" "Ez, —epaitu zuan lagunarteko apaiz batek—: Ori, aragizko maitasunari amore geiegi ematea izango l tzake"

Semerik ikusi gabe il zan ama!

Iñoiz ere aski garbi ez izateko larritasunak eraman zituan jande aiek Aitorketatik eta Jaunartzetik iges egitera.

Aitorketari-buruz, esan dugu "kontrizionistak" izan zirala jantse-nitarrak' Jaurntzeari dagokionez berriz, ez ziran aburu bateko garai artako anima-zuzendariak'

Apaizek, adibidez, astero jaunartzea erakusten zuten, Españietan batez ere. Iñakitarrek, toki batzuetan illero, Frantzi'n astero, eta Españietan al zan maizenik, jaunartzeko aolkua eman oi zuten' Baiña Mikel Molinos'tarra sasi-argitu ospetsua ere asteroko jaunartzea erakusten asi zanean, une berean asi ziran iñakitar batzuk, maiz jaunartzeaz buruz aurreraegi joan ez ote ziran pentsatzen.

Sanzirandarren artean izugarrizko bildurra izan zitzalon jaunartzeari. Anxelize abatemea, bost illabete ere egon oi zan jaunartzeke' Geiago oraindik: bi urtetan ez zan ausartu pazkoazkoa egitera ere! Berdiñ ibilli ziran Port-Royal'eko beste lekaimeak; eta baionatarraren gaiñerako ikasleak.

San Zirane'k, egunero meza ematen zuan. Ikasleek beren burua baiño garbiagoa ikusten zuan nonbait maixuak berea!

Ta, maixua il zanean, aundiagoa izan zan oraindik ikasleen bildurra. Maixu berriak, Arnould Aundiak, len aipatu dugun liburuan, Eukaristia artzeko animak pekatu ariñetik ere garbi egon bearzuala esaten

Pozik artu zuten ontzat jantsenitarrek Nikole'ren asmakizuna: Arnauld Aundiak adibidez, eta Pascal'ek, Port-Royal'eko lekaimEEK, eta baita gotzai askok ere' San Ziran illa zan ordurako. Urtebete lenago il bait zan.

Bera oartzeke eta bat-batean il zan; bere iritzietan tinko; eriotzako une berbera arte lan-egiteaz gelditu gabe. "Oportet imperatorem stantem mori" esan oi zuan azkeneko egunetan ere: "Zutik il bear du agintariak".

San Ziran bera ez zan sekulan gaitzetsia izan; yayoegia bait zan, idartziz, gaitzesgarri zitekean gauzarik era argian esateko. Teologigille baiño geiago izan zan oituriztilari, moralista, animen-gidari, ta ez zion iñortxok eginkizun ontan oztoporik edo eragozpenik ipiñi'

Bera il zan bezain laister bai; bere ondorengoari, —Arnauld Aundiari—, ez zizkion ondo artu Erroma'k "De la Fréqunte Communion" edo "Sarriko Jaunartzeaz" izeneko liburuan edatu zituan esaldi batzuk, iñolaz ere San Ziran maixuarengandik ikasiak zituan esaldiak.

* * *

San Ziran'gan aurkitu daitekean gauzarik arrigarriena, San Ziran bera da. Batez ere, jendea bereganatzeko izan zuan trebetasun arrigarria.

Erakutsi zuan aszetikak edo "kristau-bizierak", ez du ezertxo berririk; Bigarren mendeko "montanista" aien aszetikaren antz aundikoa da: gogortasun utsa; Jainkoaganako geiegizko bildur-ikaratik sortutako gogorkeria. Penitentziari, gorputz-zigorketari, geiegizko garrantzia ematera eramán zuan gogorkeri arek, aszetika ura ontzat artu zuan guzia; eta sakramentuetatik alde egitera!

—Badirudi, penitentziekintzen ondorioak baiño gelago penitentzia bera, ilduma, zigorra, zuala aszetika erek maite. Ala ere, maitasun orrek ez zuan beiñere, gorputzaren zigorketan iñor geiegikerira eramán.

Bizitza latzaren billa, Port-Royal'eko landetan bizitzera jaon ziran sanzirandarretatik batzuk. Ta, ez holanaiko jendeak! Blas Pascal bera txabol aietako batean bizia bail da' Racine antzertiidazlea ere an izan

bete-betea giza-kalterakoa! Poz eta neke, min da alaitasun, lan eta ekintza guztiak, alperrikakoak; ez!, galgarriak; bai berentzat bai bes-teentzat, galgarriak.

Ez zan txantxetako gauza, jantsenitarrei Iñozentzio X'ak eskatzen ziena' Apaltasun aundia bear zan une eta arazo artan, Kristaudi osoaren aurrean burua makurtzeko. Izan zuan apaltasun ori jantsenitarren teologilaririk yayoena, Thomasin oratoritarrek' Izan zuten beste jantsenitar askok ere. Baiña geienak, Nikole'k burututako irten-bide us-tel batetik jo zuten. Uste onean, bai noski, baiña bide usteletik.

"Naitanaiez Aitasantuari obeditu bear diogu"? galdetzen zuten jantsenitarrei, "bai eta ez" erantzuten zien Nikole'k, Obeditu bear diogu..', Aitasantuak agintzeko almena duan gauza guztietan; Ez, ordea, ortarako almenik ez duanetan'

Bi aide ikusten zituan Nikole'k aitasantuen agindu bakoitzean: bi "Kuestio": "Quaestio Juris" eta "Quaestio Facti"

1^a: "Quaestio Juris": "Eskubideariburuzko Auzia": Aitasantuak, gauza oni-buruz, zerbait esateko edo agintzeko eskubiderik bai al du?

—2^e: "Quaestio Facti": "Gauza berari-buruzko Auzia": Gauza be-
ra, egiaz, "izatea-ba-dun" gauza da?, ala Aitasantuak "ba-zala-uste-
-izan-duana" besterik ez da?

Iñozentzio X'nak emandako buldari onela jazten zion Nikole'k be-
re asmakizuna:

"Quaestio Juris": Bai aldu Aitasantuak buldan aipatzen dituan
bost atal aiek gaitzesteko eskubiderik? Bai erantzuten zuan; badu eta
guk ez diogu eskubide ori ukatuko'

"Quaestio Facti": Aitasantuak gaitzetsitako bost atal aiek
"Augustinus" liburuan al daude?. "Ez"; izan zan Nikole'ren erantzua.
na.

Beraz, zion Nikole'k, Aitasantuak gaitzetsi dituan bost atal oiek
okerrak dirala aitortzera bearturik gaude, Aitasantuak bai bait du zer
okerra dan eta zer zuzena dan epaitzeko eskubidea. (Esku-Arazoa).

Baiña, bost atal oker oiek "Augustinus" liburuan dauden edo ez
epaitzeko ez da iñor Aitasantua. Naiz berak baietz esan guk ezetz
esan dezakegu, Aitasantua ez bait da "Gauza-Arazoetan" utseziña!.

Ala ere, Aitasantua Aitasantu dalako, merezi du eraspenna, erres-
petua; ez gera bere aurka mintzatuko; izango du gure "silentium obse-
quiosum", eraspenezko ixilketa. Baiña geiagorik, ez! (1655'garren ur-
tea zan).

A!, amaika gotzai jantsenitar aien artean bat, Angers'koa zan: Enrike Arnauld; Anxelike'ren anaia.

Aitasantuak, teologilaritalde baten eskuetan utzi zuan auzia.

Bost urte egon ziran talde artakoak lanean. Ondo aztertu zuten arazo guzla; patxadaz. Bost urte aien buruan, teologilarien lana berak bir-aztertu ondorean, jantsenikeriaren mamia ziran bost atal ga tzetsi zituan X Iñozentzio'k. Ona, bost atal aiek;

Gizakumerik santuenak ere bete ez dezazkean aginduak badi-rala;

Gizakumeak ez duala Graziari uko egiteko almenik;

—Gizakumearen naimenak, iare, eta ekintzetan meritugarri, izateko, ez duala barrendiko iaretasunaren bearrik; kanpotikoa naikoa duala;

Gizakumeak Graziari bai edo ez erantzuteko almena baduala uste izatea, erejia dala; erdipelajiotasuna dala: "semipelagianismus".

Kristo danentzako il zala sinistea ere, erdipelajitasuna dala.

San Ziran euskalduna eta Donebixente gaskoiña ziran orain borrokaren buruzagiak, bata bestearen aurka'

Lortu zuan Paul'ekoak jantsenitar bat baiño geiagoren itzulpena; adibidez oratoritarren teiogilaririk onena zan Thomasin aipatuarena.

Erregearen jauregiko andre eta andereño aundikiak ordea, San Ziran'en alde jarraitu zuten; eta baita beste aristokrazitar askok ere. Sutsuenak, jakiña, Arnauld'arrak, eta aien adiskide izen-aundiko bat: Pier Nicole, teologilari ez-apaiza, eta Port-Royal'en ertiirakaslea.

Alare, larri, txit larri zeuden baionatarra ta bere artaldeko jende danak.

Izan ere..., Elizaren semerik zintzoenak eta leialenak berak zirala oiuka ari izan ziran urtetan da urtetan! Orain ordea ezetz esaten zien Elizak. Orain, Elizaren seme izateko, Aitasantuaren esanera makurtu bear zuten burua; eta ordurarte erakutsi zuten guztia, ainbeste jende onen biotzetan sartu zituzten gogapen eta sentimentu aiek guztiak, okerrak zirala aitortzera beartuak aurkitzen ziran; edo, bestela, ori egi tan ez ba'zuten, Elizetik irtetzera; ain malte izan zuten Eliza'tik kanpo gelditzera!

Iñork ez dezake igarri, gizon eta emakume doakabe aiek zenbat sufrittu zuten! Egia zala uste izan zutena, dana okerra!. Dotriñik arazena eta garbiena lez erakutsi zutena, ustela guzia! Bizitza osoa,

eta uts egin zuala beñ baiño geiagotan Augustin Doneak ber-berak ere. Izketan, edo idazketan zerabiizkian itzen bitartez adierazi nai zuana, egia zala ziurki; baiña okerrak zirala artarako erabili zituan itz aiek. Teologi "positiboaren" sortzaillea, Aita Peteau, izan zan ori esan zuana.

Richelieu ordurako illa izan ez balitz, ez zuan Frantzi'n ezer egite-rik izango jantsenikeriak; eskatua bait zion ordurako Aitasantuari Kardenai arek, ereji biurri, istillu-sortzaille aren gaitzespen orokorra. Pre-sa zuan Richelieu'k ere.

Baiña Kardenai Agintariaren eriotzak, oso-osoa iriki zizkion San Ziran'eri espexeko atepak; eta Frantzi guztikoak!

Bazuan Anxelize'k anai bat: Andoni, "Le Grand Arnauld" esaten zitzaiona, gaztea, ernea, asko-jakiña, Sorbonan lenen mailleko teologilarizat zeukatena, langille porrokatua, iñorreri bildurrik gabekoa. Agian, buru baiño biotz, eta biotz baiño setakeri, geiagoko gizona.

Arnauld Aundi onen eskuetan utzi zuan San Ziran'ek, Aitasantua-ren aurka, Inkisizioaren aurka, eta iñakitarren aurka, "Augustinus" babesteko mezua.

Aitasantuaren gaitzespenaren azpira ez erortzeko, aurrena billa-tu zuten aitzakia, gaitzespen-bulda Aitasantuarena ez zala esatea izan zan. Ori esateko arrazoia? Ona Arnauld Aundiak eman zuana: Erroma'n argitaratutako buldak eta Koloni'n argitaratutakoak (bi uri oietan argitaratu bait zan bulda), izenpetze-egun bera ez zekarkitela! Arrazoi ustela; bai bait zekian mundu guztiak Aitasantuen buldate-giak, Erroma'n, egutegi bereizi bat erabiltzen zuala.

Orregaitik iñolaz ere, beste arrazoi "sendoago" bat asmatu zuan Barkox'etar Martin San Ziran'en illobak: "Bi Buruen" asmakizuna: Bat bakarra diran bi Guru ditu Elizak: Paul eta Kepa; Kepa'k ez dezake Paul'ek dionik gaitzetsi. Bulda ori ez daiteke beraz Aitasantuarena izan.

(Barkox'ek emandako azalpenean, "Kepa", Aitasantua zala zion; "Paul", kristau-erria. Eta, itxuraz, gure Barkox'entzat "kristau-erria", soilki, jantsenitarren kopurua zan).

Illabete batzuek geroago, Iñozentzio X'a genduan Aitasantu. Jantsenitasunariburuz argi itzegiteko, eskatu zioten, Paul'eko Done-bixenteren aolkua jarraituz, Frantzi'ko 85 Gotzaiek. Baiña jantsenita-rrek beste amaika gotzai bidali bait zizkioten gauza astiro pentsatze-ko epe bat eskatuaz...; oraingoz deus erabaki gabe gelditu zan Aitan-santu berria.

kasie guztiak; eta baita Malinas'ko Goigotzaia ere' Tximista bezala jausi zan VIII Urban'ek jantsenikeriaren aurka jaurtitako gaitzespena. Baiña gaitzik egiteko gaitasunik gabeko tximista izan zitzaien ura Lobaina'ko jantsenizaleei. Españi'ko Erregeak ez bait zion Aitasantua- ren gaitzespen-buldari, lege izateko bearrezkoa zuan "placet" edo "ontzat-artua-izateko-baimenik" eman.

Españi'ko Erregeak bazuan bâ, Aitasantuak emana, Aitasantuen aginduei Jaurerrian sarrera debekatzeko eskubidea. Aitasantuen lege batek, Españietako Erregearen lurretan Lege izateko, Erregearen "oniritizia" bear zuan. "Oniritzi" orri, "Placet" esaten zitzaion late- raz.

Len baiño okerrago gelditu zan Belxika'n jantsenikeriaren ara- zoa. Badirudi Aitasantua ere zer egin ez zekiala zebillela, aurreneko une aietan' Alde batetik, iñakitarren eta domingotarren arteko "laguntzei-buruzko" eztabaida neketsu alperrikakoaz igiturik zegoala- ko, eta jantsenitarren auzia, beste aren antzekoa izan zitekeala-edo uste izan zualako. Eta bestetik, "Augustinus' artan, —Jantsenio'k be- ti Augustin Donearen izkera ber-bera erabili bait zuan—, zerk zentzu zuzena eta zerk okerra izan zezakean jakitea txit gauza zailla zalarik, azterketa sakonago bat egin nai zualako.

Presa zuten ordea iñakitarrek; presa zuan Inkisizioak berak; ta lortu zuten Aitasantu nekatu arengandik gaitzespen gogorrago bat. Alperrik oraingoan ere. Berriro, Españi'ko Erregeak, IV Felipe'k, zorio- neko "Placet" ura ukatu bait zion Urban VIII'aren buldari, aBere men- peko guztien artean izan al zuan bâ iñoiz Erregeak, Frantzi iraintzeko, Kornelio Janssens baiño Gotzai ausartagorik?

Kaltegarriak ziran presa aiek guztiak. Ta badirudi Urban VIII'ak ori usmatzen zuala'

Une artan presa baiño geiago bear genduan baretasuna' Ta kari tatea!, guztien arteko senide-maitasuna. Ordurarteko eztabaidek iriki- tako zauriak gozatzeko, au zan eztiki ikusiarazi bear zana:

—Egitan, "Augustinus" liburuan gaitzesten ziran esakizun aiek danak, itzez-itz artuta, Ausgustin Donearenak zirala. Baiña...

—Esaldi aiei Jantsenio'k bere liburua idazterakoan eman zien zentzua ez zala Augustin Doneak bere idaztietan eman ziena.

XVII mendeko iñakitarrak ez ziran ordea XVI'go aiek bezain bare, paketsu eta apalak, eta ez zuten bide ortatik jo' Izan zan ala ere aieta- ko bat, ori eta ori baiño geiago ere zuzenki esan zuana: Gogoetak itzez edo idatziz azaltzerakoan edozeiñek uts egiz zezakeala, alegia,

zuten aiek beti gure baionatarra. Ez omen zitzaizkion, oni, iñakitarren eliz barroko galantak gustatzen, ezta aiek idazle klasikoei zieten zaletasuna, edo animen zuzenketarako erabiltzen zuten "probabilismoa". Bera, eliz apal txiroen, eta Asaba Doneak irakurtzearen, eta "tuziorismoa" erabiltzearen zale omen zan'

"Probabilismoa" eta "Tuziorismoa", oituriztiko bi aburu dituzu. "Zerbait egiterakoan, egitera goazten ori ona edo gaiztoa dan ez daki-gunean eta zalantza ortatik ezin irten geranean, arrazoi sendoz pekatu ez dala uste duguna egitea ez da pekatu, naiz kontrako arrazoiak ere sendoak eta agian sendoxeagoak izan" diosku "probabilismoak".

Tuziorismoak edo "Eskiertasunkeriak", "zerbait egitera goazte-nean ekintza ori pekatu izan ez dedin, aurretik eskier, seguru, jakin bear dugula egitera goaztena pekatu ez dala", erakusten zuan.

Tuzioristak, "eskiertasunzaleak", izan genituan beti jantsenitar-
rrak.

• w *

Richelieu U bezain laister irten zan San Ziran espetxetik; zaartua, auldua, baiña oraindik lanerako kemenez betea, eta bere jarraillan maitasunaz eta eraspenaz inguratua. "Au dugu gure aldi ontako san-
turik aundiena eta irakasierik jakintsuena" esan zion Erregiñari Ro-
mualdo Arnould ekonomilariak.

Borrokarako gogo biziarekin irten zan' ldatzi-berria zuan espe-
txean "Tempus Tacendi et Tempus Loquendi" ("Isil-aro, Mintza-aro")
deritzan gutun txit zabaldua, borrokara dei egiñaz, eta izanen zuan,
bai noski borroka egitearen bearra!, Erroma'n, ain zuzen, "Augusti-
nus" idazkiaren gaitzespena gertutzen ari bait ziran.

Iñakitarrek asi zuten Lobaina'tik, gudua. Orduantxe betetzen zu-
ten, auek, beren Lagundiaren eunurrena. Ta bazuten eun urte zoraga-
rri aiei so-egitean pozik eta atsegintsu egoteko, arrazoirik naiko. Bai
ote zebillen poztasun aren tartean arrokerittantaren bat naasita?
Jantsenikeriaren auzi ontan ez bait zan garbigia izan aiek egin zuten
jokua. Ez aiena, ez jantsenitarrena.

Lobaina'n, aldeko asko zituan Jantseniota-San Ziran'en abu-
ruak. Jantsenikerizaleak ziran ango Unibersitatean bi ez gaiñeko ira-

Zergaitik artu zuan aszetika edo "krsitautasuna-bizitzeko-era" latz arek ainbesteko indarra Frantzi'n? Bâ, aszetika aren zabaltzaille euskaldunak jende-irabazteko zuan yayotasunaz aparte, Frantzi'n oso giro egokia aurkitu zualako'

Iru sentimentu zeuden bizirik Frantzi'ko erria-baitan: kalbintasuna, galikeria, eta abertzalekeria. Ia-ia atzokoa zuten oraindik Frantzi'n kalbintasuna; ta erdiarotikoa galikeria. Abertzalekeria berriz, betikoa du Frantzi'ak!

—Kalbintasunean oiñarriturik zegoan jantsenitasuna, errez itsatsi zan ugonoteek Frantzi'n urte batzuk leenago edatu zuten giro la-tzean. Asko ziran an, Eliza Katolikoaren liturgia aberatsegia, oparoe-gia eta zaratatsuegia uste zutenak. Askoz geiago kristautasuna sinis-keri orotik garbitu nai zutenak, txit zabaldua bait zegoan orduan Euro-pa osoan gaitz ori: siniskeria. Siniskerien aurkako borroka, "argitu" kristau guztien leia izan zan, ain zuzen.

—Españi'ren eta Inperatorearen mendean zegoala Eliza, ots, ausburgetarren mendean, iduritzen zitzaien frantziarrei. Eta, jantseni-tarrek asieratik, Erroma'ganako bildurrez eta kezkaz beterik biili bait ziran beti, errez alkar artu zuten Frantzi'ko abertzalekeriak eta jantse-nitasunak. Erroma'ren aurkako lekaizkeriak alkartu zituan.

—Galikeria, "Frantzi'ko Eliza Aitasantuaren agintza-petik al zan guztia askatu nai izatea", iñoiz baiño gogorragoa izan zan Argikuntza-koan. Eta jantsenitarrak ere beti Aitasantuagandik urruti eta asarre ibilli ziralako, alkartu baiño geiago, bat egin zuten galikeriak eta jan-(senikeriak'

Ederki erabilli zituan San Ziran'ek orduango Frantzi'ak ematen zizkion adiotasun guztiak' Esan dugu Bérulle'ren eta Paul'eko Donebi-xente'ren adiskide miña egin zala. Bi gizon ospetsu aiek, apaizgoaren duintasuna goratu naiean zebiltzan' Lagun izan zuten ekintza ortan Baiona'koa. Ona bere esaldi batzuk: "Apaizak gotzai txiki batzuk dira; Ez dira iñolaz ere, gotzaien morroi. Orregaitik, seme eta anai bezala ikusi eta artu bear ditu gotzaiak; ez morroiak bezala" "Apaiza, apaiz-tasunak berez duan aunditasun utsez, erlijiosoanai eta lagundi guz-tien gaindik dago; Jauparitza edo sazerdozioa Jainkoagandik dator; beste Anai eta lagundi aiek gizakumeen sorketak dira"

Ta, Aitasantua Aitasantu zala, gotzaiak ere Eliza-baitan eskubide osoa zutela esaten zualako, aisa bereganatu zituan, geiago edo gu-txiago galikeriz kutsatutako frantziar eliz-gizon garaianak.

Iñakitarrak ez zituan sekulan bere alderuntz ekarri, ta etsai izan

naimenak aske izateko "barrungo-iaretasunaren bearrik ez dualako; kanpotiko indarkeriz beartua ez izatea naikoa dualako. Graziak, berriz, barrundik beartzen du naimena gauza onak egitera! (Ba o'k erakusten zuan gauza bera).

Qiñarrizko esakizun oietatik ateratako ondorioek osatzen dute jantsenikeria. Ikus ondorio oiek:

"Delectatio" edo "atsegiñak" darama beti gizakumea. Bi atsegiñ-mota dira: Zerutikoa eta mundukoa: "Delectatio Coelestis", "Delectatio terrena". Bi indar oien artean gaude, eta, NAITANAIEZ, bietatik aundiena jarraitu bearrean beti. Zerutiko Atsegiñari "Grazia" esaten zaio; ta Grazi Eginkorra, "Grazia Efficax", "Zerutiko-Atsegiñ-Garaillea", besterik ez da.

Beraz, gizakumea pekatuan erortzen danean, Grazi Garailler k Jainkoagandik artu ez dualako erortzen da. Pekatutik irtetzen ez ba'da eta infernura galtzen ba'da, Jainkoagandik grazi ori artu ez dualako da'

Jainkoak ez die danei Grazi Salbatzaillerik ematen.

Kristok ez zuan beraz, bere bizia gizakume guztientzat eman. Ta gizakumerik santuenak ere pekatua erortzen bait dira, ta ori Jainkoak Grazi Garaillerik ematen ez dielako bakarrik gerta bait daiteke, badira beraz, Jainkoak aia naita, gizakumerik santuenak ere bete ez dezazkenan aginduak.

*

Ez da erreza, liburu ortan, olandarrarena zer dan eta zer dan baio-natarrarena jakitea. Liburu ernetzeak eta idazteak eraman zuan denbora luzean arras alkaturik egon ziran bâ, eskutitz ugarien bitartez, bi adiskide aiek. Gutun aietatik, olandarrak idatzitako batzuk bakarrik iritxi zaizkigu; Baionatarrarenik bat ere ez. Idazten zien guztiei gutuna austeko agintzen bait zien onek.

Ez **du** gaiñera, zer norena dan jakiteko arazo orrek, garrantzi aundirik. "Augustinus" liburuko teologia, eta jantsenikeri osoarena, Baio'rena dalako' Ez Jantsenio'rena ez San Ziran'go Abatarena: Baio'rena. Aszetika berriz, —jantsenikeriaren zatirik garrantzitsuena—, oso-osoan, San Ziran'ena!

Arrezkero, Paris'ko Port-Royal izan zan jantsenikeriaren labe be-roa, eta jantsenitarren paradisu gozoa. Bertako lekaimiak ziran berriz paradisu artako aingeruak; eta, Anxelize goiangerurik dizdiratsuen.

Espetxean zegoan San Ziran, Jantsenio'ren "Augustinus" liburu Lobaina'n agertu zanean (1.640). Ta ona, liburu orri buruz eman zuan iritzia: "Paul eta Augustin Donea ezkerero, ez da iñortxo Graziari-buruz ain ederki mintzatu. Eliza bizi dan artean biziko da liburu au ere, eta bera izanen da kristauen gogo-bazka. Ezta Aitasantuak eta Erregeak artara batean jarrita ere, ez luteke liburu au desegingo; ain aundia bait da bere sendotasuna!

Ala ere"" "goxotasun ttantta bat" liburu ari falta zitzaiola, zion. Ez zebillen oker azkeneko puntu antan; elertialdetik so-egitzezkerero, olandarraren liburuak, —eta baionatarrenak—, ez bait dute batere balio. Izugarri legorrak dira gaiñera guztiak'

Ta teologiaren aldetik ere ez zekarren ezer berririk Jantsenio'ren idazti lodi arek, bertako dotriñak Baio'ren aburuetan bait du oiñarri nabarmena' Orregaitik, ain zuzen, ikalbintasunaren usaia darama!; usai mardula! Ona, jantsenitasunaren atalik adigarrienak:

—Gizakumeak egiten duan guztia pekatu dala, zion Luter'ek' Ez, erantzun zion Kalbin'ek: badu gizakumeak gauza onak egiteko almena. Kalbin'ek bezala pentsatzen zuan Baio'k: Gizakumeak badu gauza onak egin nai izateko almena; gauza onak nai izatea ez da pekatu' Beraz, ez da pekatu gizakumeak egiten duan oro. Ez da pekatu, ez, baiña gizakumea-baitan Jainkoagandiko Karitatea ari dalako eta gauza on guztien egiazko egillea, gizakumea ez baiña Karitate ori dalako. Baio'ren zentzuan esaten zuan Jantsenio'k ere gizakumeok gauza onak egiteko gai bagerala.

—Jainkoa dala, betidanik gizakumea salbatzen edo infernura galtzen gaituana, zion Kalbin'ek' Eta askatasuna ukatzen zuan. Bai, zion Jantsenio'k; Jainkoa da salbatzen edo galtzen gaituna; baiña ala ere, askatasuna badugu!. Ta ona, nola askatzen zuan korapilloa:

a) Jainkoak salbatzen edo galtzen gaitu—. Jainkoa dalako gure baitan ari dana. Grazi utseziñaren bitartez ari da; ez bait du gure nai menak grazi orri aurka egiteko almenik. Pekaturik ez egiteko, bearrezkoa dugu Grazi ori; jatorrizko obenarekin, "il bait zan pekaturik ez egin aal izateko askatasuna": "Periit libertas abstinendi a peccato". Jainkoa da beraz, Jainkoa bakarrik, Graziaren bidez, salbatzen edo galtzen gaituana' (Orixe bera esan zuten Kalbin'ek eta Baio'k).

b) Alatagutziz badu gizakumeak askatasuna—. Gizakumearen

eskuetara jausi ez balitz!

Izugarri asarretu zitzaion aita, Port-Royal'eko aldakuntzaren berri izan zuanean' Bizkor eman zion Anxelize'k aurpegi' Eta, bereganatu zuan laister bere sendi guzia. Eta... nola bereganatu gaiñera!

Sendiko emakumeak, baita ama ere, danak, bere zaintzapera etorri ziran, batzuk neskatil, besteak alargun; eta danak Port-Royal'en lekaime sartu! Gizonezkoak berriz, Port Royal'eko lekaimetxearen inguruko baratzan bildu ziran, an, bakoitza bere txabolan antziñako bakar-ti aiek bezala, penitentzi egiñaz bizitzeko.

Anxelize zan guztien gogozuzendari'

Lenen mailleko zuzendariak izan zituan berak ere: Zanet gotzai bikaiña; Aita Goigotzon Pembroke (munduan Lord Pembroke) buruñurdun mistiku zintzoa; Berulle Kardenala; Aita Condren oratoritar jakintsua; eta'.. Sales'ko Donefrantzisko bera!

Oso ederki ;:onpondu ziran Anxelize eta Donefrantzisko Salestarra. Onekin egin zuan ark bizitza guziko aitorketa. Saleskoak berriz, "Une âme extraordinaire" zala esaten zuan, Port-Royal'eko abate-mea' Salestarra bere Jinebra'ko elizbarrutira itzuli zanean ere, eskutitzen bidez ari eskatzen zion Anxelize'k gogo-gidaritza. Zoritxarrez, 1622'an Sales'ko Frantzisko Donea il zanean, Saint-Cyran'go Abata zorabiatuak artu zuan aren lekua. Ogeita amaika urte zituan Anxelize'k. Txit ospetsua zan ordurako Paris osoan aren izena.

Baita Erregearen jauregian ere. Xili Koldobika zan Erregea, ta Maubuisson'go lakaimetxea zuzendu naiean zebillen. Anxelize'ri eman zion eginkizun ori.

1618'garren urtea zan, eta bere bizitzako ogeitazazpigarreanean zegoan Anxelize. Ain zuzen, beste Anxelize ura, Estreestarra, zan oraindik Maubuisson'go abate-mea, ta gure Anxelize'ren aolkuz izan zan, ikusi dugun lez, Erregeak andik aterata neska galduen konbentu artan itxia.

Lau urte egon zan Maubuisson'en gure Anxelize, eta zearo aldaturik uzi zuan lekaimetxe ura, lau urte aien buruan, iñoiz baiño aitzatsuago Port-Royal'era itzuli zanean. Eta lau urte geroago, Paris'era ai datu zan bere lekaime guztiekin. Port-Royal esan oi zaio lekaimetxe berri oni ere: Paris'ko Port-Royal, Des Champs'eko beste arengandik bereizteko. Irurogei ta amar ziran orduan Anxelize'ren lekaimeak.

Ogeita amabi urteko emakumea zan Anxelize, Berulle'ren eta Zamet gotzaiaren bitartez San Ziran ezagutu zuanean, eta berrogei ta bi zituan apaiz euskaldun ura Port-Royal'eko gogo-zuzendari zuanean.

rala esanaz lortu zuan bere alabatxoentzako Arnauld aitak Erroma'tik abateme-tituloa.

Ez zegoan pozik Anxelize abatemetzan; eleberriak irakurriaz, eta lekaimetxe artatik noia-iges egin pentsatzen baiña iges egitera beiñere ausartu gabe, igaro zuan lenen gaztaroa' Gaixotzeraiño iritxi zan, ituntasunak jota.

Paris'era, gurasoen etxera, itzulibear izan zuan osasunaren billa. An bai, pozik bizi izan zan ostera Paris'en, eta sendatu zitzaion osasuna. Eta Port-Royal'era joateko eguna etorri. Estu zeukan samintasunez biotza; ausartu zan aitari itzegitera, eta agertu zizkion bere sentimenduak. Asarretu zan aita. Ikaratu zan alaba. Ta ixil-ixlik itzuli zan, itun, len baiño bokazio gutxiagorekin, beretzat illobiaren antzekoa zan lekaimetxe artara.

Maite zuten lekaimetxak; bera baiño zartxagoak ziran, baiña gazteak, oso gazteak danak; zarrenak ez bait zituan ogeitamar urte.

Maiz urbiltzen zitzaizkion gurasoak, senideak, aide guztiak. Bera bertako abateme zan ezkerro, sendi osoaren land'etxe biurturik zeukaten bâ arnauldarrek Port Poyal'eko lekaimetxea'

1608. Port-Royal'en-aldakuntza urtea. Garizuma. Amazazpi urte ditu Anxelize'k. Neskatil polita da; atsegiña; biotz onekoa. Praille bat ari zaie lekaimetxerik elizean mintzatzen. Buruñurduna zan, kaputxinoa' Aita Basilio' Ez oso prialle-konfiantzakoa; "girovagus" esaten zitzaien, konbentutik kanpora jira-biraka bizi ziran aietako bat baizik; urte batzuk geroago, apaiztasunari uko eginda "artzai" protestante biurtu zana. Praille "xelebre" ura izan zan Port-Royal'eko abateme panpoxaren biotza astindu zuana. Jainkoa gizon egitean nola apaldu, makurtu eta ezereztu zan, ari izan zitzaien esaten Aita Basilio garizumako itzaldi artan. "Jainkoa orrela ezereztu ba'da gugaitik, gu ez giñazke, bizi geran bezala bizi" esanaz irten zan elizatik Anxelize.

Ta..., laister amaitu ziran Port-Royal'eko lekaimetxe gazte politen arinkeri guztiak.

Badu meriturik naiko, neskatik aien kementasunak; ordurarte eramane zuten bizimodu errezerari agur egiñaz, gogo osoz, eta asmorik zintzoenak eraginda, asi bait ziran, lengo ezerezerik guztiak utzita, santutasunerako bidean ziztertarren araudi latza, utsik egiteke, oso-osoan betetzen. Ez gaiñera indarrez artara bearturik, ez; Anxelize'ren izketa goxoek eta ekintza apalek guztien biotzetan santutasunerako leia sortu zutelako baizik.

A!, nolako done galanta izanenen genduan Anxelize, San Ziran'en

ko, pekaturik txikienetik ere garbi izan bear zuala, uste izan zuten. Ezin daitekean gauza; gizakumez osaturik bait dago Eliza!)

Danadala, gure Anxelize (Arnauld'arra) Maubuisson'era eraman zutenean, beste Anxelize ura (Estreestarra) zegoan an abateme, eta emakume txolin aren zuzendaritzapean egin zuan nobiziadua: lekai-me-eziketa. An artu zuan Sendotzako Sakramentua ere, "sakramentu ortaz izena besterik jakin gabe" berak geroago esango duanez. Baita izen aldaketa ere, Sendotzakoan egin zuan, bataioko izena Jacqueline utzita Angélique artuaz' Zergaitik Anxelize? Bere abatemearen ornezez? Abatemearen aizpa, Gabriele, losIntxatu nai ote zuan, aren bitartez Erregearen adiskidetasuna lortzeko? Ez dezagun aantzi, batere bokaziorik gabeko umea zala oraindik gure Anxelize, eta munduko aundikeriak txit atsegiñak zitzaizkiola!

Neskato garbia zan ordea, eta animaz eta gorputzaz garden irten zan Maubuisson'dik Port-Royal'era joateko.

Paris'tik sei leguaz urruti, toki atsegiñean zegoan Port-Royal'eko Lekaimetxea. Ziztertarrak ziran bertako amabi lekai-meak; danak gazteak; ez noski neska gaiztoak, baiña, ezta lekai-me santuak izateko gogo geiegikoak ere. Ez ziran pekatuan zikindurik bizi. AIta're, aien bizitza ez zan ziztertarrei dagokien bizitza. Klausurarik ez zuten gordezten' Atsegin zitzaien "pastoralak" edo abestiantzerti jaiak lekai-me-txean egitea' Liburu bat besterik ez zuten lekaimetxeko liburutegian: Brebiarioa edo koru-otoitzeko liburua. Gutxitan erabillitako liburua baike, Lekaimetxe artan, ez bait zan koru-otoitzik egiten! Berrogei urteen epe luzean, zazpi!, zazpi sermoi bakarrik egin ziran bertako lekaimentzat. Ez da arritzekoa, lekaimetxe artako kapillauak ez latiñik ez kristau-dotriñik ez zekiala kontuan artzen ba'dugu.

(Bazutela arrazoirik naiko San Ziran'ek eta Jantsenio'k azkenean neurri guztiak ausita Elizatik jrien ba'ziran ere! Irten ere, oartzeke irten bait ziran!)

An bizi zan, Port-Royal'eko lekaimetxe artan gure Anxelize, egun berean, Ziztertarren Zuzendari Nagusiaren eskutik, aurreneko aldiz Gure Jauna, eta lakaimetxeko Abatemetza, batean artu zituanean. Amaika urteko neskatoa zan oraindik!

Lotsagarri? Bazuan Anxelize'k beste aizpatxo gazteago bat: Ines' Neskato zala egin zuan au ere bere aitak Sain-Cyr'ko abateme. Lotsagarria, bai noski gure oraingo begiekin soegiten ba'dugu' Ta, —Argikuntza, Trento-ostean, ez bait zan Trento-aurreko Birjaiotza—, lotsagarria baita XVII menderako ere. Orregaitik, ziran baiño zarragoak zi-

Gabriele'k. Lortuko zuan seguraski bere nai ori betetzea, aur bat erditu-bigaramonean eriotzak biziaren aria ebaki ez balio. 27 urtekin il zan, gaixoa, bere erregintza-gosea asetzeko une-unean zegoan emakume gazte zorigaiztoko ura.

Bi errege eta aundikisail batzuen besoetan ez zan txukunegia izan Gabriele'ren bizitza. Enasagoa izan zan oraindik, konbentuan, aren aizpa Anxelize abatemearena. Neskato zala artu zuan abateme-tza, eta iñork ez daki zenbat gizaseme aundikirekin ibilli zan zikindua. "Familiaren lotsa zala" esan oi zion Gabriele bere aizpak' Eta ez arrazoirik gabe, Gabriele'k lau sasikume izan ba'zitian, amabi izan zituala Anxelize'k, esan oi bait da' IV Enrike'ren semeak, Koldobika XIII'ak moztu zituan abateme txolin aren ibillerak, Errege onen aginduz Maubuisson'dik aterea eta 'Filles Pénitentes" esaten zitzaion neska okertuak zuzentzeko sortutako konbentu batera espetxeratua izan bait zan' Baiña ez era errezean! Indarkerira jo zuan bâ, abatemetza ez gai tzeko, eta Maubuisson'go ate guztiak itxi! Orma-gora igo bearra izan zuten Erregearen gudariek abateme biurri ura baiturik artzeko.

"Filles Pénitentes" edo "Neska Damutu" aien konbentuan il zan.

(Irakurle: Orrekako gauzak ikustean, arritzekoa al da jantsenitarrek gogorkerira jo izatea? Altaguztiz, elizgarbitzaille estu eta larri aiek, gaizki ikusi eta gaizki pentsatzen zuten).

—Gaizki ikusten zuten. "Len, ur garbi gardena zan Eliza; gaur, lokatza eta zatza", esan zuan San Ziran'ek' Jantsenitarrek pekatu ariñik ez zuten "arintzat" artzen-da, ez dakigu nolako zentzua ematen zien ark bere esakizun oiei. Baiña, itzen egiazko zentzuan, ez zan egia "lokatza eta zatzaren" petralkeri txepel ori. Ez Frantzi'n ez beste iñun, abatemeak eta lekaimeak ez ziran Maubuisson'go abatemea bezelakoak. Aski gertari edo kasu bakarra da emakume arena. Maubuisson'go lekaimeak berak ere ez ziran beren abatemea bezelakoak.

Egia da, Trento'ko Kontzilioak indartutako Elizaren-Eraberritzea, atzeratu-xamarra zebillela oraindik Frantzi'an XVII mendearen lenen urte aietan. baiña orduango lekaime asko "lasaiturik" bizi zirala esaten danean, beren arauen gogortasuna goxotuta, aski munduko emakumeak bezala bizi zirala esan nai da; ez, iñolaz ere!. lizunkerian bizi ziranik.

Esan dugu len ori bera; esango dugu berriz ere, iñork gauzak oker ulertu ez ditzan.

—Gaizki pentsatzen zuten jantsenitarrek' Pekatu aundiak eta txikiak danak pekatu astunak zirala uste izatean; Elizak ere, santu izate-

berak urne zirala izendatzen zituala abateme, abata, gotzai eta kardenalak, askotan. Esan dezagun berriro, urne aiek, naiz beren tituluen errentak jaso bai, ez zutelako titulo aiei zegokien agintaritarik urne ziran bitartean artzen. Ordezkarri batzuek agintzen zutela aien ordeztu. Eta sagaratu ere, gotzai eta kardenal aiek ez zutela gizon mardulak izan arte apaiz-sagaraketarik artzen. Gogora dezagun Zesar Borxa, ainbeste elizbarrutiko Gotzai, Goigotzai, eta gaiñera Kardenal izan zana. Bâ..., sekulan apaiz sagaratua izatera iritxi gabe utzi zituan Aita-santuaren baimerekin kargu aiek danak, Naparroa'koa Erregearen arrebarekin ezkontzeko'

Bizirik zirauten oraindik Birjaiotzako oitura oiek Argikuntzako Frantzi'an. Ala, pozik bete zuan Arnould aitak alabatxoaren naia, eta lortu zion Port-Royal des Champs'eko abatemearen abateme-laguntzaillea izendatu izatea; aren ondorean abateme izateko eskubidearekin gaiñera.

Urrengo urtean, zortzi urte zituanean, sartu zuten Anxelize konbentura: Paris'en; beneditarren fekaimetxera'

Urrengoan, bederatzia urteko neskatoa, Maubuisson'go zistertarretara izan zan aldatua. Beste Anxelize bat, Anxelize d'Estrées zegoan Lekaimetxe izentsu artan abateme' Anxelize au, Gabriele d'Estrées IV Enrike Frantzi'ko Erregearen maitale zanaren aizpa zan'

Garai artako oiturak nola zeuden jakiteko, merezi duala derizkiot bi aizpa auen bizitzaz xeetasun batzuk gogoratzea'

Buru arin eta bizimodu enaseko emakume baten alaba izan ziran; arras neskati polit-ederrak, biak.

Gabriele'k ez zituan amasei urte besterik, Frantzi'ko Erregeari, III Enrike Valoistarrari, maitaletzat amak berak emana izan zanean. Sei milla dukat jaso zituan ama arek, alabaren truke, salketa zikin artan' Laister aspertu zala, dirudi, Gabriele'z Erregea; Duke baten besoetara igaro zan beintzat neska. Eta beste aundiki batzuekin ere naasirik ibilli ondorean, IV Enrike Borbon Frantzi'ko Errege berriaren altzoan aurkitu zuan azkenean non-koka gozoa.

Emeretzi urte besterik ez zituan Gabriele'k Errege onekin bizitzen asi zanean, eta zearo Erregearen maitasun osoaren jabe izan zan arrezkero, naiz Erregeari leialtasun geiegorik gorde ez; lengo maitaleekin maiz alkartzen bait zan! Bazekian ori Erregeak, baiña bere malte-txuaren leialtasun-falta orrek ez zion arenganako sentitzen zuan maitasunik itzaltzen. Lau seme-alaba eman zizkion emakumezko eder arek. Erregearekin ezkontuta Frantzi'ko Erregiñ izatera iritxi nai zuan

nola ez?, bere eriotz-aurreko jarduera santuan ere. Orregaitik, idatzirik utzi zuan' —"Augustinus" bere liburu maitea argitaratzekoan—, EH-zak liburu artan eta baita beste idazkietan ere, eragozpenik aurkitzen ba'zuan, aurretik makurtzen zuala burua Elizaren iritzira, eta ontzat artzen zitala Elizak bere liburu eta gaiñerako idatzi guzietan egin ze•zazkean aldaketak.

Idatzirik, baiña argitaratu gabe uzten bait zuan "Augustinus", adiskideen eskuetan, auek argitara eman zazaten.

1638'an il zan Jantsenio. Loreillaren 6'ean. Zortzi egun geroago berriz, 14'ean izan zan Vicennes'ko jauregian baitua San Ziran' Alpe-rrik eskatu zioten sanzirandar aundiek Richelieu Kardenalari beren buruzagi maitearen askatasuna. Ederki ikusten zituan Kardenalaren begi zorrotzak apaiz jende-zoratzaille —eta agian erdizoratu— aren gogoeta naasi aiek zer ondorio ekarri zezaketen. Koldobika Borbon Konde'ko Printzipea berbera ere joana zitzaion San Ziran'en askatasun eske! Sei gudarozte baiño arerio bildurgarriagoa zala apaiz euskaldun ura, erantzun zion Kardenal begi-zorrotzak.

Port-Royal'eko lekaimetxean bertako biztanle guztien zuzendari eta profeta zan ordurako San Ziran' Anxelize Arnauld abatemeak iriki zizkion atearak'

Borondate oneko emakumea zan au, landua, garbia, barru-bizitzaren maitalea. Baiña, agian kalbindarren jatorrikoa zalako, —kalbindarra izan bait zan Arnaud sendiaren adar bat—, aski latza, eta gogor-kerira ixurixamarra' Ta bere iritzietara geiegi josial!

Zazpi urte zituan, aita lekaimetzara destinatu zuanean. Neska-toari ordea, ez amen zitzaion lekaimetza iñolaz ere atsegin, berak gero idatzi zuanez; naiz zazpi urteko umetxoa izan ezkontza guztatzen amen zitzaion! Ez amen zeukan ordea aitaren naimenaren aurka jekitzerik eta orregaitik bakarrik, ezkondua izaterik ez zuala ikusten zualako, makurtu amen zuan burua aitaren esanera. "Bedi, —esan omen zien etxekoei—; Ni lekaime izatea nai duzute.", ta ni lekaime izango naiz. Baiña abbateme izatekotan' Bestela ez"! Eta, oraindik ain urne zalarik abatemetzarako gai izan ote zitekean zalantzan ipintzen zuan aizpa zarragoari au erantzun omen zion: "Abateme izan nai dut; ta erakutsiko diet lekaimeei nola zuzen ibilli".

Garai aietako oiturak ezagutzen dituanari ez zaio arrigarri egingo zazpi urteko neskato aren eskaria. Guk ere Birjaiotzako Eliz-Edestia idazterakoan esanik utzi genduan, ume zirala ezkontzen zituztela gurasoek beren seme-alabak, edo konbentuetara sartzen. Eta Elizak ber-

izan zan Frantzi'an, San Ziran iII-ondorean.

Borroka bizia zebilkiten artean Baio'ren jarraitzaileek eta inakitarrek'

Inakitarren aurka, beroenetako zan, oraindik bere erejia argira eman ez zuan Jantsenio. Bi aldiz etorri ere etorri zan Madrid'era, --Españi'koa bait zan Belxika--, IV Felipe'ri eta Gaztela'ko Unibersitateei inakitarren aurka itzegitera. Ez zuan ezer (ortu. Ala ere, esan daiteke, naiz ezer ez lortu, pakean Lobaina'ra itzuli aal izatea bera, izan zuala aski lorketa mardula, ordurako atzetik kuxkuxean asia bait zuan Españi`ko inkisizio bildurgarria'

Ez Jantsenio'k ez San Ziran'ek ez zeuzkaten beren buruak erejeztak. Ezta ere erejeen laguntzat. Egiatzko sinismenean zebiltzala uste zuten' Jantsenio'ren ustez Frantzi'ko Erregeak izan ziran erdi-ereje eta erejeen lagun eta babesle. Ori egiztatu naiean idatzi zuan "Mars Gallicus" "Frantzi'ko Marte", liburua.

Marte, antziñako erromatarren guda-jainkoa zan, Liburu ortan, "Marte", Frantzi'ko Erregea da. Frantzi'ko Erregeei izen ori erasteen, Errege aiek borroka beste zaletasunik ez zuten gizonak izan zirala adierazi nai zuan Jantsenio'k; borroka gaiztorako gaiñera, Elizaren aurkako ekintzetarako bereiziki, zituztela zaletasun guztiak. Errege aiek danak izan omen ziran Kristautasunarentzat ustelak; danak gaizkilleak' Eta danetan okerrena, orduan Koldobika Deunaren Aulkian jarrita zegoana: Koldobika XIII'a. A!..., eta aren izenean Frantzi'ko Jaurle Nagusi zan Richelieu Kardenala.

Ez zuan besterik bear Jantsenio'k bere Erregearen naimena irabazteko! Esan dugun bezala berea zuan Belxika artan. eman zion Erregeak, IV Felipe'k, serbitzari Leial arri ain ederki irabazitako saria: Ipres'ko Gotzaigoa. Ontzat artu zuan VIII Urban'ek izendatze ori 1636'ean, eta or duzu, urte ori ezkeror, Jantsenio Ipres'ko Gotzai egiñik! Ez zirala ain iñozoak eta ain tontoak gure bi olandar-euskaldun aiek!... dirudianez beintzat.

Ordurako, "Augustinus" liburua idazten ari zitzaigun Jantsenio. Eta eginkizun ortan jarraitu zuan gotzai egiña izanez gero ere, eriotza iritxi zitzaion arte. Azkeneko gaitzaldian, gogoia Jainkoari osoro emanik, otoitzaldi luzeetan eta eraspenezko ekintzetan igaro zuan denbora' Bazekian, eta ondo zekian gaiñera, bere pentsakeraren aurka zuala Aitasantua, bein baiño geiagotan esan bail zuan, orregaitik, ain zuzen, ez zala bere pentsakizunak argira ateratzera ausartzen. Alataguztiz, egia da, zalantzarik gabe, asmo zintzoz ibilli zala beti, eta baita,

Urratu zituan gaskoiñak, orrelako gauzak entzutean, euskaldunarekingo adiskidetasunak; baiña, aldi luzexamarrean lilluraturik euki zuan esukaldunak gaskoiña!

Era berean lilluratu zuan Berulle'tar Kepa Kardenala, eta onek Frantzi'n eratu-berria zuan "Oratoire" edo "Otoiz-Lagundia" Bearbada, Karlos Condren izanen zan "Lagundi" artako apaizik jakintsuena eta santuena. San Ziran'en adiskide kuttuna!

Asko maite ba'zuten Berulie'k eta bere Lagundiko apaizek Baiona'ko apaiz langille ura, ez zituan onek, arek gutxiago maite'

Bazuan Berulle'k Paris'ko Eliz-Epailleek debekatu zioten liburu bat. Liburu ona, baiña orduango Eliz-Epaille bildurtiek arriskugarri lez gaitzetsia' Ta bildurturik aurkitzen zan Berulle' Bildurturik, argitaratzeko gerturik zeukan bere aszetika-liburu nagusia ere ez ote zioten epaille kezkatu aiek gaitzetsiko'

Laister konpondu zion San Ziran'ek auzia. Lobaina'ko Unibersitatera bidali zuan "Grandeurs de Jesus" edo "Josu'ren Aunditasuna" zeritzan liburu aren ale bat, iritzia eskatuaz. Unibersitate artan zegoan Jantsenio, irakasle ospetsu. San Ziran'ek eskatu zion bezala onespenik aintzatsuenarekin itzuli zion Paris'era Berulle Kardenalaren idazlana. Agian, liburua irakurri gabe emandako onespena, Jantsenio'rentzat naikoa bait zan adiskide euskaldunak zerbait ontzat artzea, berak ere besterik gabe gauza ura ontzat eukitzeko.

Liburu ederra, Berulle'k idatzitako "Josu'ren Aunditasuna", Frantzi'ko mistika-idazkirik ospetsuena. Jantsenikeriaren sortzailleek aurrera aterea!

Egin zuan geiago ere San Ziran'ek "oratoritar" adiskideen alde. Jantsenio'ren bitartez beti, eraman zituan Lagundi artako apaizak Lobaina'ra, eta eratu zien an etxe bat ere. Ori egitean, uri artan iñakitarrrek zuten indarra lermatu nai zuan baionatarrak, bear bada, oratoritarren bitartez; bi Lagundietako apaizen artean, Elizaren edestian maiz gerta oi danez, bai bait zan garraztasunaren puntta bat'

Ez-apaizen artean Arnauld'arrak izan zituan baionatarrak adiskiderik leialenak: Arnauld d'Andilly sendi aundikiko jendeak.

Poitiers'en Ordezkarri Orokor zala ezagutu zuan San Ziran'ek aurreneko Arnauldarra: Roberto, Jaurerriko eginkizun garrantzitsuenetan lanean aritzen zan zalduna.

Sendi artakoetan geiena lagundu ziotenak, Anxelike eta Andoni izan ziran; Roberto'ren senideak biak. "Alaba" bezala izan zuan Anxelike, Port-Royal'ko abatemea; Andoni berriz, Jasenitarren buruzagi

—"Somme des Fautes et Faussetés Contenues dans la Somme Théologique de Francois Garasse". Garasse ori iñakitarra zan' Ta arrazoi izan zuan punttu askotan bere aurka ekitean San Ziran'ek, punttu aiek era ariñegian erabilli bait zituan iñakitarrak.

—Badu Augustin Doneak "De Virginitate" izeneko liburu bat. Liburu orren itzulpena argitaratu zuan berulletar batek, eta une berean "kontrizionismoa" edo aitorketaren baliorako maitasun utsezko biotz-damua naitanaiezkoa dalaren aburua babesten zuan liburu aren bidez. Argitaltzaillearen adiskide aundia zan San Ziran, eta "kontrizionista" sutua. Aburu orri indar emanaz idatzi zuan berak ere liburuxka bat'

Richelieu ordea "kontrizionista" edo "biotzdamukerizaleen" are-rio zan!

Geroxeago, Berulle il zanean, onen aide idatzi zuan eta itzezin ozenki San Ziran'ek. Ez zuan yayoegi jokatu, Richelieu ez bait zan Berulle'ren adiskidea izan!

Beste liburu bat idazteko asmotan zegoan, baionatarra, Richelieu'k espetxera sartu zuanean: "Eukaristiaren Edestia". Ez zuan sekulan amaitu; baiña ogei ta amabost eskuz-idatzitako oarpen-liburu kendu zizkioten espetxeratzekoan: "Eukaristiaren Edestia" idazteko gertutzen ari zan oarpen-bilduma!

Richelieu bezain adiskide izan zuan, aldi batean, Paul'eko Donebixente.

Paul, Gaskuñako errixka bat dugu. Gaurko Euzkadi'tik-at, iparraldean dago Gaskuña, Baiona'tik gora Bordele'raiño Landeta deritzan zelaiean' Errioxatarren antzera, euskotarrak dira gaskoindarrak odolez, naiz orain erdelerritar izan. Auzokoak ziran beraz Baiona'ko euskalduna eta Paul'eko gaskoiña. Ta auzokoak izaten bait du auzokoa ezagutzeko sena bereizia, ezagutu zuan gaskoindar arek ere euskai dun ura zer jende-motako pertsona zan. Entzun zizkion esaldiek esnaarazi amen zuten; onako auek bezalako esaldiak adibidez:

"Azkeneko seireun urteotan ez da Elizarik izan. Argi bereizia eman dit Jainkoak cri ikusteko".

"Len, ur garbiko ibai aratza zan Eliza; Gaur, lokatza eta zikinzeria"!

"Trento'ko Kontzilioa ez zan eskolastikoen batzarra besterik izan; azpikeriz, joku gaiztoz, eta alderdikerez betetako batzarra".

—"Ondo pentsatzen zuan Kalbin'ek, naiz egoki mintzatu ez": "Calvinus bene sensit, male Iocutus est"

rak"

Aurretik ordea, aski lilluraturik euki zuan baionatarrak Kardenal ura bera! Politikaren arloan errege-zalea agertzen bait zan gaiñera be-ti.

Itxura ortakoa du bere lenen liburua ere; "Question Royale" edo "Errege-Auzia" deritzana' Ona idazki onen muiña:

Naparroa'ko III eta Frantzi'ko IV Enrike'k galdera au egin omen zien bein bere inguruko zaldunei: "Pentsa zazute gudatean gudua gal-duta itsasoz igesi goaztela, ta ekaitzak ugarte antzu batera jaurti gai-tula. Zer egingo zenukete zuek"? "Nere burua ilko nuke nik, zuk, nere Errege orrek, zer jana izan zenezan", erantzun omen zion zaldun aieta-ko batek. Ta Erregeak orduan bir-galdetu: "Ori egitea ote da"?

San Ziran'eri ekarri zion Erregearen galdea Cramaid'eko Kon-deak. Baietz, zillegi zala, epaitu zuan San Ziran'ek; ta ori mundu guz-tiaren aurrean aldarrikatzeko idatzi zuan liburu ura. Ez ote zuan Erre-gea ere zerbait losintxatu nai?

Aski "xelebrea" da gure baionatarraren bigarren liburua. Eta ez nolanaiko izenekoa! Ikus: 'Apologie pour HenriLouis Châteignier de la Roche-Pozay, évêque de Poitiers, contre ceux qui dissent qu'il n'est pas permis aux ecclésiastiques d'avoir recours aux armes en cas de nécessité'" Euskeraz: "Roche-Pozay'ko Châteignier'tar Enrike-Luis Poitiers'ko Gotzaiaren Babesketa; Elizgizonei, bearrezkoa danean ere, izkillurik erabiltzea zillegi ez zaiela diotenen aurka". Ta, ona libu-ru orren zioa:

Izen-Abizen dotereko Gotzai ori, ugonoteen aurka irten zan borro-kara, burniz jantzita ta ezpata eskuetan zuala, bere gudarien aurrean. Baita borrokaldian garaille irten ere. ErdiArotiko elizgizonen-oitura-basatiarrak! Alatagutziz, Gotzaiaren alde irten zan gure baionatarra' Oraingoan ere Gotzaia losintxatzen ote zebillen? Ez, apika; berak ere bai bait zuan erdiarotasunaren kutsua. Ez dazagun aztu, gaiñera, Poi-tiers'ko Gotzai aren Ordezkarri Orokorra zala!

Ala ere, aunditasun-guraririk ez dirudi sekulan izan zuanik. Riche-lieu Kardenalak Gotzai Laguntzaille egin nai izan zuan; Langres'koa, eta, naiago ba'zuan, Baiona'koa. Ezetz erantzun zion gure apaizak: Ez zitzaiola gotzaigoa gauza atsegiña!

Baditu San Ziran'ek beste idazti batzuk, "Petrus Aurelius" izena-rekin argitaratutakoez gaiñera' Bi, batean alde eta bestean aurka, or-duantxe argitaratutako idazti batzuei buruz bere iritzia emateko sor-tuak:

Kalbindarren "predestinazioari"-buruzko zurrunbilloan murgiltzen ari zan, bera oartzeke, Jantsenio. Paris'en berriz, Eliza garbitzeko asmoetan gero ta tinkoago ziraun San Ziran'ek' Paris'era joan bait zan, asmo olekin, Lobaina'ko adiskideari ikustalditxo txiki bat egin ondorean.

Jantsenitasunaren edestian garrantzi aundikoa da, baionatarrak Lobaina'n igarotako astetxoa, dirudianez orduan eratu bait zuten bi adiskideek "Augustinus" deritzan liburuaren idazketa' Liburu ori izan zan Jantsenitasunaren "liburu santua".

Lanerako gogo biziarekin itzuli zitzaigun San Ziran Paris'era. Be-realaxe egin zan uri artako jenderik argienaren adiskide: Konde'ko Printzipea, Richelieu Kardenala bera, Paul'eko Donebixente, Berulle Kardenala, Arnauld sendi ospetsuko jendea, eta beste ainbat eta ainbat aundiki, lagun-artekoak izan zituan. Baiña batez ere, Berulle, Frantzi'ko oratoriotarren sortzaille ospetsua, izan zuan era berezian adiskide 1620'a ezker. Bost edo sei orduko alkarrizketa gozoetan egon oi ziran biak bildurik illabete askoren epean. Iñakitarreiburuzko arremanetan ere bazuten bi gizon aiek kidetasuna: Ez bait zan Berulle iñakitarren adiskide!, eta baionatarra ere, naiz oraindik aiekin era paketsuan ibill , iñakitarren etsai biurtzen ari bait zan!

Adiskide guztietatik, Richelieu izan zuan aurrena aldegin ziona; eta Paul'eko Bixente Donea, urrengoa.

Azkar oartu zan Richelieu, ugonoteen borroka bezain arriskugarria izan zitekeala Jaurerriarentzat apaiz euskaldun buru-bero setatsu aren ariketa, eta..., zalantzan ibilli gabe, espetxera jaurti zuan azke-nean. Espetxe gozoa, bai noski, adiskideekin mintzatzeko askatasun osoarekin, baiña espetxea ala ere, Vincennes'ko jauregi ederrean.

Oartu zan, bear bada, beste zerbaitez ere **Kardenal** ospetsu ura; usmatu bait zuan, dirudianez, baionatarraren buruan gaixotasun-aize okerren bat adimen argi ura lausotzen ari zala; eta zorabioaren illunez estaltzen! Entzun **Kardenalaren** itzak:

"Il est basque et il a les entrailles chaudes et ardentes par tempérament: cette ardeur excessive lui envoie à la tête des vapeurs dont se forment ses imaginations mélancoliques qu'il prend pour des réflexions spéculatives ou des inspirations du Saint-Esprit".

Ona orain euskeraz Kardenalaren eskutitz batetik artuak diran itz egoki oiek: "Euskalduna da ta beroak ditu erraiñak, eta sutsuak; Ta, arrazoiketa garbi edo Gogo Deunaren irakaspen lez artzen ditu, geiegizko galda artatiko lurriñak buruan sortzen dizkion asmaketa itunbe-

realaxe irabazi bait zituan guzti aien biotzak, jendeak bereganatzeko ain berea zuan azkartasun aren bidez.

San Ziran'en aolkua jarraituaz, Jantsenio'ri eman zion Baiona'ko uriak Ikastetxe berriaren zuzendaritza. Baiña laister utzi zuan onek eginkizun ura, —bi urteren buruan, ain zuzen—, ostera osoki teologi-liburuen ikerketara itzultzeko. Eliz osoari teologi berri bat erakutsi bear zion gizona, ,nola egongo zan bâ ikastetxe bateko lau ormetara mugatua?

Bazuan San Ziran'ek itxas-ertzean basetxe txukun bat. An biltzen ziran egunero bi lagunak, eta an aritzen ziran, askotan amabi eta amabost orduz lanean Asaba Doneen eta batez ere Augustin Deunaren idaztiak irauli ta irauliaz. Amar aldiz! irakurria zuala Donaugustin osoa, eta ogeitamar aldiz bai, graziaz arek idatzitako guztia, arrandi eginen du gero Jantsenio'k.

Gizon oien geroko jokaera ulertzeko, oar bat egin nai nuke galdera-moduan nik orain: Orrenbesteko lanak ez ote zuan bi gizonen bururik naasi eta gaixotu? Len ere, ikusi dugunez, geiegizko ikastelananaren erruz, osasuna galdu bait zuan Jantsenio'k Lobaina'n!

1.617'an bereizi ziran bata bestearengandik gorputzez bi lagunak, naiz animaz len bezain alkaturik jarraitu. Lobaina'ra joan zan Jantsenio; Poitiers'era San Ziran, elizbarruti artako Bikario edo Ordezkarri Orokorra egiña izan zalako.

Ez zuten oraindik jantsenitasunaren bi guraso aiek iñakitarren aurka gorroto berezirik, Baiona'ko Ikastetxearekin gertatuko ura ere, geiago izan bait zan Jantsenio'ri laguntzeko iñakitarrei gaitz egiteko baiño. Biak ziran gaiñera iñakitarren ikasle izanak, eta biak eskatu zuten, —Jantsenio'k ziurki, San Ziran'ek seguruuaski—, Lagundian artuak izatea. Ta orain ere, Baiona'tik irtetzean, Lobaina'ko iñakitarren ikastetxera bidali zituan Jantsenio'rekin bi illoba San Ziran'ek. Argibel eta Barkox ziran illoba aiek; biak euskaldunak, jakiña.

Poitiers'en zegoala egin zuten Hauranne'ko gure Jon, Saint-Cyran'go Abata, (1.620).

Bitartean, Lobaina'n, Baio'ren lutertasun-usaieko-dotriñatik kalbintasunaruntz zihoan Jantsenio' "Oso atsegiñak izan zaizkit, —esaten zion San Ziran'eri, ain maiz idazten zizkion eskutitz ugari aietako batean—, kalbindarren sinodoan artutako erabakiak". 1.618'ko sinodo bat zan Jantsenio'k aipatzen zuan ura' Eta an artutako erabaki aiek beti gorde zituan, —il arteraiño—, txukun-txukun idaztiak, berekin.

ko aikarrizketalaria; esku-zabala; bildurraren apurrik ere gabea.

Bai amen zuan gaiñera San Ziran'ek (eta ontan edestilari guztiak dira ago bateko), bai omen zuan naimenak eta biotzak irabazteko, alako doai bereizi arrigarrizko bat. Ontan eta beste gauza batzuetan ere, Loiola'ko euskaldun aren kidekoa izan genduan Baiona'ko euskaldun au. Bai bait zuan onek, —baionatarrak—, santutasun-goserik naiko ere. Arrokeri izkutua sobra zitzaion apika!

Paris'en, Sorbona'n ikasketak sakontzen ari ziran bitartean, Jantsenio ta San Ziran, biak, murgildu ziran adoretu Molina`ren eta Bañez'en arteko graziari-buruzko iskamilletan. Zearo atsegin zitzaizkien iskamil aiek bai San Ziran'eri eta bai Jantsenio'ri ere, bi gizon auen jarduketak ez bai zuan, beren bitza osoan, Zerutiko Grazia beste gairik izan.

Ots, ordea! Bere animaren salbamena bezain gartsuki billatzen zuan baionatarrak, len loiolatarrak bezala, inguruan loiturik zekusan Elizaren garbikuntza. Eta, bazuan noski XVII mendean Frantzi'ko Elizak garbiketa sakon baten bearrik! Garbitze-lan ortara jo zuan euskaldunak; eta lan ortara eraman zuan olandar adiskidea'

Bi garbitzaille aien ustez, Lenen-Elizaren bizierara eta Augustin Donearen erakuskizunetara itzultzeak bakarrik egin zezakean Elizaren, eta Kristau bakoitzaren, garbiketa santugarri ori.

Eta biak ziran, beraien ustez, Jainkoak ala naita Eliza-baitan garbitze eta santutze orokor ori egin bear zutenak' Edo beintzat, ori egi ten besteei lagundu bear zietenak; baiña beti ere, beraiek gidari zirala'

Ta, einkizun ori, San Ziran'ek zatitu zuan bien artean: Jantsenio'k, Teologia eraberrituko zuan Donaugustin'en erara; Berak, San Ziran'ek, aszetika, mistika, oituriztia, au da, Kristau-biziera osoa aldatu eta gardenduko zuan.

Prestaketa oietan ari zirala, Baiona`ko Kanonigo egiña izan zan au, eta bere errira etorri bearrean aurkitu zan. Laister deitu zion Baiona'ra bere lagunari. Sei urtez, sei urte luzez, bizitu zan Jantsenio Euskalerrian. Eta sei urte oietan artu zuan itxura, Jantsenio'ren eta San Ziran'en buruetan, jantsenitasunak. Emen, Euskalerrian piztua dugu jantsenitasuna! Orregaitik, agian, bota zituan ain erro sendoak emen, euskaldunen artean!

Baiona'n, egin-berria zan ikastetxe bat bi adiskideak urira iritxi ziranean. Iñakitarren eskuetan ipintzeko asmoa zuan Udalak ikastetxe ori. Errez aldatu zituan San Ziran'ek Udaleko agintarien asmoak, be-

Toledo'ko Frantzisko inñakitarrari eman zion Laterri Beekoetara bulda ori eramateko eta an Baio'rekin itzegiteko eginkizuna, inñakitar au omen zan bâ Aitasantuak esan zuanen—, "garai artako gizonik jakintsuena".

Ederki bete zuan, gero Kardenal izanen zan Toledo'tarrak, eman zitzaion mezua. Berari astiro entzun ondorean, lau-lau aitortu bait zuan, ordurarte ain setatsu ibilli zitzaigun Baio'k, arrazoia Aitasantua-rena zala, eta bera, —Baio—, oker zegoala, eta uts egin zuala erakutsi zituan gauzak erakustean. Eta oraingoan bai, osoosoan jarri zan Aitasantua-aren esanera. Aintzatu ditzagun Baio'ren apaltasuna eta Toledo'ren baretasuna.

Ez zebiltzan gaizki Kepa Kanisio eta lenen oiñordeko inñakitarak, erejeekin jarduteko gogorkeriak ezer gutxi balio zuala pentsatzen zutenean. Orain ere, Alba'koaren ezpata baiño onuratsuagoa gertatu zan Toledo'ren gozotasuna. Ai, Loiola'koaren semeak beti, baita Argikuntzakoan ere, ala ibilli balira!

Ez zan noski Baie ere uste izan Ci dan bezain makurra; eta borondate onez ibilli zala dirudi, bere erakusketa guztietan. "Ez dut iñoiz, —esan zuan Toledo'k ere Baio'rekin izandako jarduketak amaitzean—, pertsona batean orrenbesterañoko jakiterik eta apaltasunik ikusi"

Pakean il zan Miker Baio Elizaren altzoan. Bizirik jardun zuan ordea "baiotasunak" Lobaina'n. XVII mendearen asieran inñakitarak izan zituan etsairik bizkorrenak. "Lessius" bereiziki: Leys'ko Leonardo.

Baiotarren artean, ezagutuena, Jakob Janson izan zan. Eta Janson onekin egin zituan Janssens edo Jantsenio'k bere ikasketak Lobaina'ko Unibersitatean.

Janson orren gidaritzapean, buru-belarri sartu zan Jantsenio gaztea Augustin Deunaren idaztien azterketara; atsedetik gabe; gau t'egun; ekintza ortan osasuna galdu zuan arte. Ta galdu ere, nola galdu!

Osasun galdu ori ber-irabazteko, Paris'era jean bear izan zuan giro goxoagoaren billa, sendagillearen aginduz' An, Paris'en, zegoan ordurako San Ziran'go Abata, eta laister bereganatu zuan giza-eiztari yayo onek olandar etorri berri burutsuaren biotza'

Janssens eta San Ziran! Adimen aundiko gizonak biak! Latza ordea olandarra; legorra; ikaratia gaiñera, ta diruzalea!

Zearo bestelakoa zan berriz baionatarra: mintzo errez legun gozo-

tika beartasunak kentzen omen dio bâ askatasuna; ez barrunditikoak, naiz barrundiko beartasun au "indar-eziñ-eutsi" bat izan'

Naitanaiez, barrundik eragiten dion indar orrek egiñarazten dion bezala "egin-bearrean" aurkitzen dala gizakumea, diosku Baio'k. Askatasun osoa duan izakia omen da ala ere gizakume au, indar orrek "naimenaren barrundik eragiten diolako".

Zentzurik gabeko izketa-jokua Baio'rena' Bearturik dagian naime-nak, —naiz kanpotik naiz barrundik bearturik egin—, askatasunik ga-be bait dagi!

"Edozein gauza on egiteko Karitatea bearrezkoa ba'da, nola irten daiteke pekataria pekatutik"? galdetu zitzaion Baio'ri.

"Errez, —erantzun ark—: Karitatea, gizakumearen baitan, peka-tuarekin batera bizi bait daiteke".

Gureztat ordea, ori, ezin daitekean gauza da' Karitatea, gure teo-logiarentzat, "grazi iraunkorra" da: "gratia habitualis", eta grazi ori pekatu egitean beti galtzen da' "Baieza" eta "eza" alkarrekin kon-pontzen ez diran bezala, karitatea eta pekatua ezin daitezke alkarre-kin bizi. Baio'k, ordea, naitanaiez esan bear zuan baietz. Arentzat pe-katu ariñik ez bait da. Pekatu guztiak omen dira astunak' Eta guk "ari-ña" esaten diogun pekatu ariñenak ere, merezi omen du infernua!

Agustin Deunaren erakuskizunetatik atera zituala, diosku Baio'k, oldozketa oiek! Badute beintzat lutertasun-usairik aski' Ez dezagun aztu Martin Luter augustindarra izan zala'

Españi'renak ziran orduan Lurralde Beekoak. Ta II Felipe zan Erregea. Onek eskatuta gaitzetsi zituan V Pio'k Baio'ren asmakizu-nak. Ez zan Baio baretu. Baiña, españiar-gudarozteen buruzagiak, Ai ba'ko Duke latzak, auzia bere eskuetan artu zuanean, —Lurralde aie-tako Jaurle ere bai bait zan bera—, laister asi ziran an Gotzaiek "baio-tasunari" aurka egiten.

Aitortu dezagun, V Pio'ren omenez, Baio'ren izenik ez zikintzea-rren ez zuala Aitasantu onek 1567'a ezkerro idatzirik zeukan "Ex Omni-bus Afflictionibus" edo "Samintasun Guztien Artean" izeneko bulda argitara eman nai izan. Ez bait zan Pio V'a, esan oi dan bezain gogo rra.

Azkenean, Baio'k berak ere makurtu zuan burua Aitasantuaren esanera. Baiña ez osoro, dirudianez; bizirik jarraitu bait zuten, bera zala-ta, lurralde artan iskamillak eta eztabidak'

Orduan XIII Gregorio'k, V Pio'k egin ez zuana egitea erabaki zuan, bulda barri baten bidez, 1580'ean.

Protestalarien eta Jantsenio'ren arteko zubia izan zan Baio, eta bere esakizunetan dago, aski marduldurik gaiñera, jantsenikeriaren oldozkera guztia.

Baio'ren oldozkeran, Grazia da puntturik garrantzitsuena. Grazia, ordea, ez da Baio'rentzat "izadiz-gaindiko" gauza; gorputza eta gogoa bezela giza-izatearen zati bat baizik; Zatirik bikaiñea baiki, baiña gizon-izate beraren zatia.

Ori orrela dalarik, gizakumeak jatorrizko obenaren bidez Grazia galdu zuanean, bere zertasunaren zatirik garrantzitsuena galdu zuan; mozturik gelditu zan gizakumearen zertasun irukoitza. Gorputzak, gogoak eta Graziak osatzen zuten zertasun irukoitz ori, Grazia galtzean, mozturik gelditu zitzaigun, eta auldurik, eta baita zearo usteldurik ere; jateko, gorputza, ta pentsatzeko, gogoa, bearrezkoak diran bezala bear-bearrezkoa eta naitanaiezkua bait da Grazia ekintza onak egiteko'

Orregaitik, gizakumeek ez dezakete ezer onik egin edo pentsatu; Grazirik gabe giza-gogoak ez bait du onerako gaitasunik.

Gizakumeek izaera ontan ezer onik egiten ba'dute, on ori ez da gizakumeak egiña, gizakumea-baitan ari dan Kristogandiko Karitateak baizik. Karitate ori, zerutiarra da; izadiz-gaindikoa. Guk "gratia efficac" edo "grazi eginkorra" esaten diogunari esaten zion Baio'k "karitate". Baiñan ez zentzu berdiñean: guretzat Jainkoagandiko "grazi eginkorrak" eta gizakumeraren naimenak egiten bait dute ekintza ona; Baio'rentzat, ordea, alderantziz, "Kristogandiko karitatea" da ekintza onaren egillea' Berea bakarrik da ekintza, eta beraren bidez gizakumeagan ari dan Kristorena.

Errez ikusi dezakezu Baio'ren aburuak zalantzan ipintzen duala gizakumeon askatasuna' Gizonak dagian guztia gaiztoa ba'da; gizonak, eta emakumeak, ona dan gauzarik egiteko almenik ez ba'dute, gizakumeok askatasunik ez dugu.

"Bai, —erantzuten zuan Baio'k—; Gizakumeok askatasuna badugu; gizakumeon naimenaren BARNEAN bait dago kokaturik Kristogandiko Karitatea, eta gizakumeon naimenaren BARRUNDiK igitzen bait gaitu Karitate orrek gauza onak egiterakoan".

Erantzun orrek ez du arazorik askatzen. Ez bait du, ziurki, gure naimenak askatasunik, gauzak egiten dituanean Karitateak BEARTUTA egiten ba'ditu.

Baietz, erantzungo dizu, alatagutziz, Baio'k' Bere ustez naikoa bait du naimenak, iarea izateko, kanpotiko indarrez iare izatea; kanpo-

JANTSENIKERIA

XI Klemente'ren eginkizunik aundiena "jantsenismoari" azkene-ko kolpea ematea izan zan.

Olandarra eta euskalduna izan zituan ereji zatatatsu onek guraso: Kornelio Janssens, Ipres'ko Gotzaia ("Jansenius"), eta Jon Vergier de Hauranne ("l'Abbé de Saint Cyran"), Baiona'ko "Kalonjea"

Aurrenekoaren izena artu zuan erejiak, baiña, bigarrena izan zan gizartean indar eta zabalkunde eman ziona. Gogoeten maillan ere, naiz lenen pentsamentuak Jansenio'renak izan, bien artean osotu, landu, eta tajutua dugu, gure denbora auetaraiño ere ondorioak luzatu aal izan dituan ereji ura.

Abizenen itxuraz ez dirudi euskalduna Hauranne'ko Vergier'tar Jon'ek. Ala ere, —ain antz-aldaturik eta euskal-itxura galdurik agertzen dira maiz Iparraldeko gure anaien abizenak!—, euskotarra zan gure Jon au, eta benetan euskalduna; euskeraz mintzatzen zana; Baiona'n jaioa; uri ortako Kanonigua, eta, naiz titulo utsez, Saint-Cyran'go Abata. Azkeneko izen onekin da, ain zuzen, edestian ezaguna, eta orrela deituko diogu guk ere: "San Ziran'go Abata"

Saint-Cyran ori, Frantzi'ko Indre deritzan departamentauan dago. Frantziaren erdialdean. Beditarrak ziran lekaidetxe artakoak, eta esan dugun bezela, "Abbas Commendatitius", izan zuten Jon baionatarra; ots, tituloaz gaiñera errenta jasotzeko eskubide zuana.

1604'ean artu zuan Lobaina'n Teologizko Doktoradutza, iñakitarrekin ikasketak egin ondorean. Agian, orduantxe ezagutu zuan Jantsenio; Ikastola Nagusi artako irakasle bait zan au.

Gutxitan aurki daiteken adimen zorrotz argiaren jabe agertu zuan an baionatarra bere burua. Badira Josuren-Lagundian sarrera eskatu zuala esaten dutenak ere. Ez omen zioten iñakitarrek Lagundiko atetik iriki nai izan!

Esan dugu, Jantsenio'ren buruan sortu zala lendabizi jantsenikeria. Baiñan ez zan ezerezetik sortu. Il berria zan oraindik, lateraz Baius esan oi zaion Mikel Bay, Lobaina bertako irakaslea; eta arras zabaldurik zeuden unibersitate artako ikasleen artean bere dotriñak.

la eseri oi zan Kristau jendearen aitorketak entzuteko. Egia da: ez zion bere aide bati txanponik iñoiz eman, ez zion ere bere illobatxo Albani'ri garrantzi'ko kargurik eman; baiña, ala ta guztiz, aitasantutza artu bezain laister egin zuan Kardenal, aipatutako illoba ori. Ez izaki, noski, sendikeria, une batean iltzeko sortua zan arra.

roni; txit aberats, baiña aantzirik; eta bere aberastasun guztiak V Feli pe'rengana joan ziran.

Orrela lurrindu zan, mamitzeke gelditu oi dan gaueko ametsa bezala, Kardenal italiar arek Felipe Borboi frantziarrarentzat eraiki nai izan zuan "España Berria".

—D). Era berean, Frantzi'ko naasketak ere ekarri zion buruausterik naiko gure Aitasantu oneri. Bereala ikusi aal izango dugun lez, ederki jokatu zuan jantsenikeriaren aurka. Ez zan ordea Saint Cyran baionatarrak zabaldu zuan ereji latz ura, Frantzi'ren aldetik jasan bear izan zuan oiñaze bakarra. Ondamen beltzean murgildua laga zuan Koldobika XIV'ak Frantzi. Umetxoia zan oraindik bere bir-billoba Koi dobika XV'a eta Errege-ordetza batek artu zuan agintaritzan, 1715'etik 1723'ra. Orleans'ko dukea eta Dubois'ko Kardenala izan ziran agintariak. Gose gorrian bizi zan erri langillea; aberastasun naroan aundiki-jendea. Eta, goian-bean, jantsendarren gogorkeri legorrari emandako erantzuna bait lizan, lizunkeri nabarmena zebillen gero ta geiago ta nabarmenago zabaltzen. Eta lizunkeriarekin batera ikusi zezakean edonork, sinisgabekeriaren jeikitzea ere' Ain zuzen, argitaratu berria zan Bayle'ren "Iztegia", naiz izkutuan oraindik, ateismoa, edo Jainkorik ez dalakoa, leenik argira atera zuan idazkia' Frantzi'ko Iraultza Nagusia erretzen ari zan'

—E). Mixioetako zirimoni edi "rituen" auzian ez zuan ain adimen zabalaz eta begi zorrotzez jokatu Klemente XI'ak. Baiña gai ontaz bere denboran mintzatuko gera.

* * *

Samintasunez beterik il zan, "Jaungoikoaren aurrerako balio duana bakarrik da egiazko aunditasuna" esanaz. Aundikiei aurpegi emateko ez zuan, onenean, bear aiña kementasun izan, jazo ere erregekeriaren garairik nazkagarrienean jazo bait zitzaion bizitzea. Baiña gizon ana zala, zalantzan ipiñi ez daitekean gauza da. Gaiñera, berak erabilli zuan politika-era paketsua, dez ote zan orduan Elizaren onerako beste politika-era gogorrago bat baiño zurragoa? Baleike; eta ori uste izan zuan Xi Klerriente'k'

Otoitzaldi luzeetako apaiza, apala, zintzoa, animen maitalea, bizitza latzekoa, garbai eta zurdutzen laguna; beste edozein apaiz beza-

ambicioso" zala, baiña ez diote ain begi okerrez begiraten; Españi aunditu naiean ibill bait zan: "los planes ambiciosos, aunque desde el punto de vista español tan justificados, llevaron nuestras armas a apoderarse primera de Sicilia y de Napoles después" (F.J' Montai-ban)' Bi Laterri oietaz gaiñera, Milan'go, Piacenza'ko eta Parma'ko Dukaterriak ere irabazi nai zituan Españi'rentzat Alberoni Kardenal aunditasun-zaleak. Baiña ori lortzeko, Inperatorea menperatu bear zuan aurrena, eta asi zuan inperioaren aurka gudua. Ta, gudu aren erruz Klemente XI'arekin asarretu zan Inperatorea.

Bi gauza salatzen zituan VI Karlos Inperatoreak XI Klemente Aita-santuaren jokaerariburuz:

Lenengoa: Alberoni, Kardenal egin zuala;

Bigarrena: Españi'ko Elizak jasotzen zituan "amarrenen" dirua V Felipe'ri eman ziola, eta onek diru ura Inperatorearen aurka guda egi-teko zerabilkiala.

Egiak ziran bi gauzak. Alare, XI Klemente'k ez zuan beiñere Albe-roni'rekin adiskidetasun geiegirik izan. Ala, V Felipe'k bere ministro arri Sebilla'ko Goigotzaigoa eman nai izan zionean, ez zion XI Klemen-te'k autaketa ura ontzat artu nai izan. Eta gero, ministro ura, Españi'tik atzeritua izan zanean, epai-ikerketapean ipiñi zuan Kle-mente'k, artarako epaille bat izendatuaz.

Ona zergaitik izan zan Alberoni erbestera jaurtia:

Une artan, Frantzi'n, XV Koldobika muttikoaren izenean Orleans'eko Dukea zan Erregeordezko, eta onen irakasle eta adiskide kutuna, Dubois Gotzaia, atzerriarazoetako ministroa zan, Jaurlaritza-ren egiazko burua. Kezkatu zuten, laister Kardenal izanen zan Gotzai au, Alberoni'ren ariketek, eta bada-ez-bada, Inghlanderriarekin, Inpe-ri oarekin eta Olanda'rekin, Frantzi bera ere tarteko zala, "la Quadru-ple Alliance" edo "Alkartasun Laukoitza" eratu zuan aren aurka.

Larritu zan V Felipe, batez ere Inghlanderri'ko guda-itxas-ontzidiak Españi'koa osera garaitu zuala ikusi ondorean; egin zituan arin-bai-arin "Alkarte Laukoitzarekin" pakeak; eta Españi'tik at ipiñi zuan za-laparta ura dana sortu zuan Alberoni Kardenala'

Benezi'ko Errepublikara jo zuan onek babes billa, eta ez zan aldi luzean epaillepean egon, XI Klemente il bezain laister, urrango Aita-santuak, XIII Iñozentzio'k, giroa aldatu zalako, eta, batez ere, epailen azterketek egiazko errurik argira atera ez zutelako, eman bait zion, os-tera, askatasun beta.

Aitasantu berri onen autaketan esku artu ondorean il zan, Alber-

Dukeak bere enbaxalaria kendu zuan Erroma'tik Aitasantuak jokaera okerrak aurpegira botatzen zizkiolako'

Saiatu zan ostera XI Klemente pakerako bideak aurkitu naiean. Alperrik' Bere bidetik jarraitzen zuan Bitor-Amadeo'k Elizaren auzietan eskua sartuaz.

—XI Klemente'k orduan, balio-gabeak zirala Saboia'ko Dukearen erabaki guztiak, aldarrikatu zuan (1707).

Bitor-Amadeo'k, 1710'ean, ez Aitasantu ez Gotzaien onetsirik gabe, "benefiziatuak" iltzean jaberik gabe gelditzen ziran "benefizio" edo eliz-karguen errentak administratzeko Batzorde bereizi bat osatu zuan' Baita Erroma'tiko dokumentuentzako "placet" edo "irakurriak eta beteak izateko bear zuten LaterriBuruaren baietsia", dokumentu berrietara luzatu ere. Aitasantuaren baimenik gabe guzia, jakiña'

XI Klemente'k ez zion eskomikaren zigorrez erantzun. Alderantziz, leunki, Dukeak osatutako Batzorde ura ontzat artu zuan. Soilki izena aldatuaz, "Delegatio Apostolica" deitu zion.

1713'an, Utrecht'eko Pakeak Sizili'ko Ugartea eta Errege tituloa eman zizkionean, berealaxe berbiztu zuan Bitor-Amadeo'k "Monarchia Sicula" izenez ezagutzen zan erregekeri nardagarritzko esku-bide-pillo ustela. Anei aldiz gaitzetsirik zeukaten geiegikeri ura Aitasantuek len ere aspaldidanik. Sizili'ko Jaurerria, gaiñera, Aitasantuen feudo-lur zan, len esan dugun bezala, baiño Aitasantuaren iritzia ezertarako aintzat artzeke, eman zion Jaurerri ura Saboia'ko Dukeari Utrecht'eko Pakeak'

—XI Klemente'k '-Monarchia Sicula" edo "Siziliar Jaurlaritza"ko eskubide ustel aiek gaitzetsi zituan berriro (1715).

Bitor-Amadeo'ren erantzuna: 3.000 (iru milla) elizgizon erbestera botatzea' XI Klemente'k artu bear izan zituan Eliz-Laterrietan elizgizon aiek danak, eta". mantendu!

Orrela jarraitu zuten gauzak, 1718'an espainiarrek ostera, ez denbora luzerako, Sizili bir-artu zuten arte' Ta auek berriro andik irten bear izan zutenean, Austri'ren mendera igaro zan laister Sizili. Sizili'ren truke, Zerdeña emän zion Inperatoreak Saboya'ko Dukeari.

B). Alberoni Kardenalaren lardasketak, Austri'ren aurka gudara eramán zuten España; eta naigaberik aski sortu zioten XI Klemente'r.

Aiztintxe esan dugu Sizili España'ren menpera itzuli zala. Ez noski denbora luzerako. Alberoni Kardenalak, V Felipe'ren lenen-ministroak, eramán zituan Sizili'ra, eta Napoles'era, España'ko guda

Aitortzen dute edestilari espainiarrek Alberoni "intrigante y

teko. Baiña bera izan zan borrokatua eta garaitua, eta atzera berriz Erroma'ra iges egitera beartua. Bigarren saiaketa ontan ere ez zitzaion XI Klemente'ren laguntzarik peitu, eta Erregetzat aurreruntzean ere euki zuten beti Aitasantuek' Jakob onen semeari deitzen diote inglanderriarrek "The Young Pretender", "Erregegai Gaztea", baiña bere aitak bezala onek ere "nai" utsarekin gelditu bear izan zuan, tinko bait zeuden Ingalderriko erregetzan Hannoverarrak' Legez gaiñera ez zuten bi Estuard'etar aukerare izateko eskubiderik naiz orduan gauzak beste era batera ikusi. Erriak egiten ditu erregeak, legez; eta erriak, protestalari zalarik, ez zituan erregetzat bi Estuard'etar katoliko aukerare gura, Hannobertarrak baizik, eta auen aurretik Ane nai izan zuan' Orregaitik, kezketan ibilli zala egia balitz ere, egiazko Erregiña zan Ane

Ain zuzen Anne onen denboran egin zan Ezkozi eta Ingalderriaren bateratzea: "Bretaña Andiko Jaurlaritza" izen-ipiñi zitzaion Laterri berriari (1707)

iv

Izan zituan arantza mingarri batzuk ere XI Klemente'ren Aitasantutzak: adibidez, II Bitor-Amadeo'ren erregekeria, Alberoni KardenaI espainiarrak sortutako iskamillak, Frantzi'ko naasketak, eta Sortaldeko mixioetako Oituren arazoa'

A) — II Bitor-Amadeo Saboia'ko Dukeraren erregekeria' Saboia, orduan, Laterri iarea zan. Une artan, gaiñera, Sizili'ko Jaun ere bazan II Bitor-Amadeo. Saboia'ri erantsi bait zitzaion ugarte ura guda-ostean, Epar'11'h kenduta. Denbora artako umea izateko naitanaiezkoa zuan Saboia'ko Duke onek erregekerizale edo regalista izatea, auxe bait zan orduango agintarien gaitza' Baiña Bitor-Amadeo'k, ausi zituan neurri guztiak erregekeriaren arlo ontan. Izugarria izan zan Elizako gauzetan muturra sartzeko izan zuan leia: Gotzaiak izendatzea, apaizkuntzara nor sartu zitekean eta nor ez zitekean sartu erabakitzea, Aitasantuen aginduak noiz eta nola argitaratu zitezkean epaitzea, eliz-diruen administraketa... oro nai izan zuan Bitor-Amadeo'k beretzat'

Alperrikakoa gertatu zan XI Klemente'k gai askotan amore emateko agertu zion naimen ona. Gogorra izan bait zan Saboia'ko Duke, eta, Sizili'ko Jaurlaritza eman zitzaion ezkerero, Saboia'ko eta Sizili'ko Errege II Bitor-Amadeo'ren jokaera. Ikus:

berri jakin zuanean. Pake aien bidez, Sizili Saboya'ko Dukeari ematen zitzaion, Aitasantuaren baimenarik gabe. Sizili berriz, Aitasantuen feudo-lur izaki! Saboya'ko Duke zan II Bitor Amadeo'ri eta Prusi'ko Federik l'ari errege-tituloa eman zitzaien. I Federik onen mendera igarozten ziran lurralde katoliko batzuk eta Inghlanderriaren mendera Jibraltar eta Menorka'ko Ugarteia, lurralde oietan bizi ziran katolikoentzat erlijiorako egiazko askatasunaren eskientasunik gabe. Eta ortaz gaiñera, rnuturtuta jarraitzen zitzaizkion oraindik Madrid'en V Felipe Borboia eta Biena'n VI Karlos Absburgetarra. Igaro berria zan guduan ez batekin eta ez bestearekin alkartu nai ez izatearen ondorio! "Pris entre l'enclume et le marteau, il s'attira l'inimitie des deux" (Dic. d'Hist. et Geog. Ecles.): "ingude-mailluen tartean ertsia, bien aldetik izan zan minberatua". "Entre l'enclume et le marteau". Ez da gaizki esana.

t * *

Ez da Españi'ko Erregegaien arteko gudua XI Klemente'k politikaren aldetik izan zuan arantza bakarra'

1702'a ezkerro Ana zan Inghlanderriko Erregiña: Ane Estuardo protestalaria, II Jakob'en alaba. Baiña izan zuan Errege ark seme bat ere, Jakob Estuardo, zearo katolikoa, eta bere arreba Ane botata Inghlanderriko buruntza jantzi naiean zebillena. Bere alde zegoan Frantzi'ko XIV Koldobika.

1708'an egin zuan Jakob Estuardo onek erregetza arrapatzeko lenen saiaketa. Gogo osoz lagundu zion XI Klemente'k, baiña alperrik, Inghlanderriko gudu-itxas-ontzidiak ez bait zion —Jacob'i— Bretaña Aundian oiñik ipintzen utzi'

Ez zuan, inghlanderriarrek "The Old Pretender" edo "Erregegai Zarra" esan oi dioten eta orduan bere jarraileek "Inghlanderriko III eta Eskozi'ko VIII Jakob Erregea" esaten zioten Jakob'ek ain errez etsi. Erroma'n bizi zan eta Errege lez artu oi zuan beti XI Klemente'k' Ez zuan Ane'k semerik izan eta bere asmoa Erregetza Jakob anai errege-naiari uztea izan zan, bai bait dirudi, len ere, erregetza ura berea ez baiño arena zalaren kezka bein baiño geigotan izan zuala. 1714'ean il zan Ane, baiña, aurretik, Inghlanderriko Parlamentuak, eragozia zion Jakob'eri Errege-Aulkirako bidea; katolikoa, oso katolikoa bait zan au.

Urrengo urtean, ordea, berriro Eskozi'ra joan zitzagun gudarozte batekin, "Erregenai Zarra", Parlamentuak Errege-Aulkian eseri zuan Hannover'ko I Gorka borrokatuta InghlanderriEskoziak beretzat irabaz-

ratoreak II Karlos'en azken-nai-idaztia, eta asi zan gudua. ttali'ren Ipar guzia bere-egiteko asmoarekin, bidali zuan arā XIV Koldobika'k bere gudaroztea, eta sartu zan Olanda'n ere' Sartu zan Karlos absburgetarra Bartzelona'n eta baita Austri'ko gudaroztea ere Itali'n Eukeni Sabyo'ko Printzipe yayoa buruzagi zuala. Asarre zetozen austriarrak, Aitasantuak V Felipe Borboitarra Españi'ko Erregetzat on-ezaguturik zeukalako. Baiña...

1705'ean "Españi'ko Errege-titulua" Karlos absburgetarrari eman zion, eta 1709'an Españi'ko Erregetzat on-ezagutu zuan bera. Ez da ori ere gauza arrigarria: 1705'an Madrid'en zegoan Karlos, Felipe andik uxatu ondorean. 1709'an frantziarrak zearo garaituak izan ziran Itali'n, eta Itali guztia, baita Eliz-Laterriak ere, austriarren menpean gelditu ziran. I Leopold Inperatorearen erdi-katigu zan beraz Aitasantua. Bazirudian Borboitarrek galdurik zeukatela gudua, batez ere Lurralde Beekoetan Inghlanderriko Marlborough guda buruaren gudariek XIV Koldobika'ren gudaroztea zapaldu zutenaz gero. Uste berekoa zan Koldobika XIV'a ber-bera, pakea lortzearren Españi'ko Jaurlaritza bere koloni guztiekin Karlos absburgetarrarentzat eskeiñi bait zion I Leopold Inperatoreari. Españi'k Itali'n zituan Laterriak bakarrik: Sizili, Napoles eta Zerdeña, eskatzen zituan Felipe Borboitar bere billobarentzat. Argi zegoan danentzat Frantzi'k guda galdua zuala.

Ez da beraz arritzekoa orduan XI Klemente'k Españi'ko Erregetzat Karlos absburgetarra on-ezagutu izatea. Gertakizunek artara beartzen zutelako egin zuan ori, bere biotzeko sentimentuen aurka, eta '.' baita Eliz-Laterrien askatasuna al zuan eran salbatu bear zualako ere.

Baiña berez, alderdirik ez artzearren zale izan zan beti guda asi zanetik amaitu zan arte; oraindik jarraitu bait zuan lau urte borroketa zipotz arek.

XI Klemente'k ez zezakean jakin orduan, urte bete geroago, 1710'ean, Vendôme buruzagi frantziarrak Villaviciosa'n Karlos Absburgetarraren indarra menderatuko zuanik; ez zezakean aurre-ikus, garaitza arri eskerrak, XIV Koldobika Felipe bere billobarentzat Españi'ko buruntza gordetzeko gai izango zanik' Orixe izan zan Frantzi'k guda artan irabazitako gauza bakarra, Europa'tik landa Ameriketan Kanada'ren puska eder bat eta Sorkaldeko Indietan fur berriak irabazteko aalmen guztiak galdu bait zituan; eta Frantzi'n bertan ere gosea, asarrea, eta, erri xearen baitan, mixeri gorria besterik ez bait zuan lortu'

Aitasantua ez zan pozik gelditu Utrecht eta Rastadt'eko pakeen

zutenak.

Arrazoi osoarekin idatzi aal izan du XI Klemente'ri buruz italiar edestilari ospetsu batek: "Rimane spettatore nella guerra di successione di Spagna col programma di mantenere fra il contendenti la più stretta neutralità, cercando anche di salvaguardare la neutralità italiana con una lega di pincipi, che pero non ebbe concreta effettuazione" (Pio Paschini): "Ez zan begiraille besterik izan borrokalarien artean; alderdirik artzeke egon zan, ori izan bait zuan bere egitaraua; eta, azkenean mamitu ez zan Itali'ko Printzipeen alkarte baten bidez, Itali'ko pakea gorde-naiean ere saiatu zan"

Ez da beraz oso-osoa egia beste edestilari ospetsu batek diona: "Clemente XI espoused the losing cause in the war of the Spanish Succession and was ignored in the peace of Utrecht (1713)". "Galtzailleekin alkartu zan Españ 'ko Erregetzarako Jarraipen-Guduan eta, Utrecht'eko pakean ez zan aintzat artua izan".

Egia, pakeegillek ez zutela bazanik ere gogoan artu. Egia Pake artan protestalaritza garaille eta katolikotasuna galtzaille irten zirala. Egia, bere joeraz, XI Klemente galtzailleen alde, ots, borboitarren alde geiago alderatzen zala absburgetarren alde baiño, ala're, egia da, egi aundia, bere biotzeko jainerak baiño geiago gertakizunen ibilketak, artara bultzatu zutela; eta, beste gauza guztien gaindik, bera, pakearen maitale, eta alderdirik ez artzearen zale izan zala gudateko denbora guztian.

Pakea zaintzeko, guda asi aurretik, bi alderdiei eskeiñi zien bere bitartekotasuna. Deitu zituan Itali'ko Laterriak ere, danak alkartuta danen artean Itali pakean gordetzeko.

Guda asi zanean, Españi'k Itali'n zituan lurraldeak (Sizili, Napoles eta Zerdeña), berak bere eskuetan artzea ere aurkeztu zien borrokalariei, guda-azkenean, Laterri aiek, Españi'ko Jaurilaritza artzen zuanari bir-emateko baldintza-pean.

Egia da 1700'gn urtean V Felipe Borboia Españi'ko Erregetzat on-ezagutu zuala. Baiña ez zan arritzeko gauza, ori bera egin bait zuten orduan Laterri geienek. Izan ere Españi'ko azken absburgetarrak, II Karlos zanak, V Felipe izendatu zuan bere ondorengo Españi'ko Errege-Aulkirako. Eta pakean eseri zan V Felipe bertan' Pakean artu zituan Españi'renak ziran Itali'ko Laterriak ere, eta Napoles'ko Urina iritxi zanean, Ordezkar bereizi bat bidali zion Erroma'tik Aitasantuak bere onespenik beroenarekin'

Pakean nai zuan oro egin Aitasantuak. Baiña gaitzetsi zuan Inpe-

mendeen luzaroan borboitarrek askatasun orren aurka. Arrezkero, Borboiek ekarritako zentralismo frantziarra ez da inoiz ere geldituko beren eskupeko errialde guztien nortasuna zearo deuseztu arte' Bi mende t'erdi geroago, Franko diktatorearen "españitasun" ankerra izan zaigu ariketa iguingarri orren gaillurra. Erljio-arloan, garrantzi gutxi izan zuan gudu arek, Klemente XI'a gaixoari ekarri zizkion buruauste ta kezka garratzetaz aparte. Ona emen kezka oietako batzuk:

1701'ean sartu zan Felipe V'a Madrid'en. Urrango urtean joan zan Napoles'era lurralde aietako erregetza eskuetan artzera. Napoles'era bidali zion Klemente XI'ak kardenal ordezkari bat bere gurari onaren adierazle' Laister asarretu zitzaion Aitasantuari Leopoldo I Inperatorea, eta bereala kendu zion Erroma'n zeukan enbaxadaria.

Andik laister Karlos Absburgetarra izan zan Katalaunia'n sartu zana. Eta berarekin Klemente XI'ak artueman batzuk izan zitualako, Koldobika XIV'a eta Felipe V'a asarretu zitzaizkion orain. Felipe V'ak ere kendu zuan bere enbaxalaria Erroma'tik.

Klemente XI'ak Karlos'er ta Felipe'ri, bie, "Errege" deitzea erabaki zuan, bientzako borondate bera zuala adierazi naiean. Biak gelditu zitzaizkion muturtuta. Biak nai zuten Aitasantuaren laguntza. Ez bata ez bestea, ez zeuden inolaz ere Aitasantuaren neutralismoari amore emateko asmotan'

—1705'ean Leopoldo I'a iii ondorean, Jose I'ak artu zuan inperatoretza, eta Klemente XI'a Borboitarren aide zebillela uste izan zualako, Elizaren Laterrietan sartu zan indarrez' Aitasantu gaixoa atsekabe artan Karlos Austritarra, Jose I'aren anal gaztea, Españietako Errege ezagutzera bearturik aurkitu zan. Errez igarri dezazkezu Felipe V'aren asarre ta zaratak, batez ere, borboitarra zalako, bere aitonaren antzera absolutista amorratua zala gogoratzen ba'duzu. Gaiñera, Borboitar-arrotasuna geiago puztu aal zedin, 1710'garren urtean, Karlos'en indarra Villaviciosa'n osoro porrokatu ondorean, Felipe V'ak Españietako jabe ikusten zuan, ziurki, bere burua'

Klemente XI'a okituaren atsedenerako 1711'ean il zan Jose I'a, eta Karlos bere anaiak artu zuan agintaritza. Karlos onek, Karlos VI Inperatorea izatera iritxi zan ezker, laga zituan Españietako Errege izateko asmo danak, eta laister amaitu zan gudaketa Utrecht (1713) eta Rastadt'eko pakeen bidez (1714).

Gaiñera Inghlanderria eta beste Laterri guztiak ziran, orduan, ostera VI Karlos'en eskuetan Inperio-lurrak eta Españiak alkartzetik nai ez

Buruauste aundiagoak ekarri zizkion Españietako erregetza utsik gelditu zanean sortu zan gudaketa luzeak, (1700-1714). Bi ziran, Karlos II difuntuaren oiñordezko bezala, Gaztela, Aragoi, eta Naparroa'ko buruntzak gura zituzten erregegaiak: Karlos Absburgetarra, I Leopold Inperatorearen bigarren semea; eta Felipe Borboitarra, Frantzi'ko XIV Koldobika "Errege Eguzkiaren" billoba' Al zuan guztiguztia egin zuan XI Klemente'k iskamill ura odol-ixurketarik gabe konpontzeko. Baiña jaki gozoa zan orduan Europa'ko Erregeentzat Españi, Ameriketako lurralde zabaletaz gaiñera bereak bait zituan Europa'n bertan Napoles, Sizili, Zerdeña, eta Belxika. Europa'ko zakur guztiak zeuden puska gozo auei agiña sartu nairik zoratuta.

Baiña batez ere beste zerbaitek eraman zituan Inghlanderria eta Europa'ko beste Laterri geienak gudara: Españi ta Frantzi, beren aberastasun eta indar guztiakin, Koldobika XIV'aren oiñordeko bakar baten eskuetara etorri aal izateak' Borboitar ori izanen bait zan orduan ludi osoaren jabe.

Karlos Absburgetarraren alde sartu ziran Austri eta Inperio osoaz gaiñera, Prusi (Jaurerri egin berria), Inghlanderr a, Portugal, Olanda, Saboya'ko Dukateria, eta Españi'n, Aragoi'ko Buruntzako Laterriak (Aragoi bera, Katalauni, Balentzi, eta Balear-Ugarteak). Felipe Borboitarren alde berriz Frantzi eta Gaztela'ko Buruntzako Laterriak (Gaztelerria eta lau Euskal Laterriak)

Lurralde Beekoetan, Españi'n eta Itali'n izan zan gogorrena bo rroka'

Aitasantuaren ekintza pakezale guztien gaiñetik, izkilluetara jo zuan ia Europa guztiak' Politika-arloan, gudu ortan galdu zuan Frantzi'k Europa'ko buruzagitza. Eujenio Saboia'ko Printzipea Austri'ko gudariekin, eta Inghlanderrikoekin Marlborough'ko Dukea, izan ziran Frantzi'ko gudaroztea menderatu zutenak.

Asko galdu zuan Españi'k ere: Europa'n zituan lurralde guztiak. Utrecht'eko Pakearen bidez guda amaitu zanean, Zerdeña, Napoles eta Belxika Inperatoreari, eta Sizili Saboia'ko Dukeari eman bear izan bait zizkion'

Jakiña da Felipe irten zala Españi'n garaille. Orduan ezereztu zituan Borboi bakarragintzaille onek Araigo'i'ko Jaurerri ospetsu onuragarriaren azkeneko askatasun-ondarrak.

Orrela jaio zan gaurko Españi.

Auñamendiaren eguteraan, —Portugal'ez landa—, lau Eusko-Laterriak bakarrik jarraitu zuten oraindik iare, baiña gogor ariko dira bi

XI KLEMENTE (1700-1721)

Mundu guztiak uste zuan, Aitasantu berriaren autaketa zailla ta luzea izanen zala, Inperatorea, Koldobika XIV'a eta Españietako Karlos II'a, atsegin ez zitzaizen guztiei al zituzten eragozpen guztiak ipintzeko gerturik zeudelako. Uste gabeen, ordea, iritxi zan Karlos II'aren eriotzaren berna. Ondo zekiten kardenalek eriotza arek Europa guztia gudara jaurtiko zuala. Orregaitik len-bait-len, politikeri guztitik garbi zegoan gizon bat aurkitu naiean, Jon Frantzisko Albani Kardenalari eman zioten aitasantutza. Asmatu zuten autaketan.

Erroma'ko aundiki baten semea, inakitarren artean ezia, gizadizale ta elertilari ezaguna, biziera zuzeneko apaiza; Auxe zan Klemente Xi izenarekin Kepa Donearen Aulkira igo zan gizona. Ez, aurretik, Aulki guren gogor artan ez eseritzeko al zituan guztiak egin gabe. Gaixotu ere egin zan autaketaz jabetu zan bezain laister, eta iru egun igaro zituan bere gelan gaixorik, kardenalei ezetz eta ezetz erantzunaz, eta, lau teologilari yayoenek Jainkoaren Naia zirikatzen ari zala adierazi ziotenean bakarrik, eman zuan baiezkoa.

Ez zebillen oker Klemente XI'a aitasantutzari ainbesteko bildurra zionean. Luzea izan zan bere agintaritzaz; ogeitabat urtekoa; baiña samintasun eta kezka bete.

Prusi'k eman zizkion aurreneko nekeak' 1700'garren urte ortan bertan, I Federik Brandenburg'eko Printzipe Autalariak Prusi'ko Errege izendatu zuan bere burua. Ez zituan Aitasantuak ontzat artu ez Jaurerri berriaren sorkuntza ez Printzipeak bere buruari emandako titulo berria. Baike, Federik I'a lutertarra zan, eta Laterri lutertar indartsua egin nai zuan orduan sortu zuan Jaurerri berria. Baiña ez zion Klemente XI'ak orregaitik bakarrik-muzin egiten, Prusi'ko lurraldeak Teutonitar Zaldun Lekaideen Anaidiarenak ziralako baizik, amaseigarren mendean Anaidiaren Maixu Nagusiak, lutertar egin zanean, Anaidiari kenduak. Arrazoi zaarregia, eta oso indar urrikoa, emezortzigarren mendean politikaliarien maiera ateratzeko. Ez zuan ontan begi zorrotzegia izan Aitasantuak, deus irabazteke Errege berriaren adiskidetasuna galdu bait zuan.

rri eta etsaiak ikusi, egin degu guk. Jainkoa'rena izan da garaitza". Aitasantuak, gertakizun zoriontsu aren oroigarri zedin betirako, Maria'ren Izen Donearen Jaia sortu zuan.

Gaur arteraño deuseztua gelditu zan erabat turkitarren indarra. Laister, Buda arrapatu ondorean, askatu zuten Ungari guztia inperio-
tarrek. Ostera, Agintari Kristauen arteko bekaizkeri ta zabarkeriak ba-
karrik salbatu zuten, berriz ere, Sultanen Jaurerri makaldua.

Yon III'a, (1674-1697), izanen bait zan turkitarrak txikittu-ta Kristaudia-
ren garaipenik aundienetako bat emanen ziona'

Buonvisi'k berak bilduko dio Sobiesky'ri, —Inperatoreari ta Ale-
mani'ko Printzipei artuta—, aurreneko dirua; ain bearrezkoa zuan di-
rua.

Orduan, Poloni'ko batasuna lortu ondorean, Barsobi'tik Biena'ra
aldatu zuan Iñozentzio XI'ak bere Nuntzio yayoa. Emen lortu zuan bes-
te diplomazizko mirari bat Buonvisi Nuntzioak, etsai ziran Leopoldo
I'a eta Yon III'a Sobiesky alkarren lagun egiñaz' 1683'garren urtea
zan. Aurrera zijoan gudua. Leopoldo I'ak, Ungari guztia ta Austria'ren
zelaiak yenizarren eskuetan lagata, Biena'ko arresien barruan gorde
zituan bere gudarozteak. Inperatorea, eta bere korte guztia, Passau
urira aldatu ziran igesi.

Gudariak biltzeko diru faltan arkitzen ziran bai Inperatorea bai
Poloni'ko erregea. Iñozentzio XI'ak bete zuan bere kontura utsune ori.
Al zuan bazter guztietatik azkeneko sosak ere bilduaz, berebiziko di-
rutza bidali zien bi Buruzagi aiei: Bost milloi Floriñetik gorako dirutza;
Poloni'ko ta Inperio'ko gudarozteen gastuak poliki estaltzeko lagun-
tza naikoa.

Baña ez zegoan oraindik dana egiña, eta lanik geiena polonita-
rrek egin bearko zutelako, beretzako nai zuan Yon Sobiesky'k guda-
tearen burutzagitza; lotsagarri jotzen zuten inperiotarrek zuzendari
nagusia Inperatorea edo onen aundiki bat ez izatea. Aitasantuak gu-
daroztera ordezkari bezela bidali zuan Abiano'ko Markos Kaputxinoak
askatu zuan korapillo ori; bere diplomaziari eskerrak Yon III'a So-
biesky izan zan bi gudarozteen Agintari Buru autatua, Austri'ko eta
Poloni'ko gudarozteen Buru Nagusia.

Bazeramazkian iru illabete Biena'k turkitarrez inguraturik, eta
(Koldobika XIV'a eta beretarrak kendu ezkerro), Biena'ri begira zegoan
larriturik Kristaudi guztia.

1683'ko agorrillaren 12'an iritxi zan Yon Sobiesky Uri aren aurre-
ra' Ogeitamar milla gudari zekarzkiala diote batzuek; Irurogeitamar
milla, beste batzuek. Oso gutxi, danera, aurrean zeuzkan Kara-
-Mustafa "Visir" Nagusiaren berreun millen aldean, baña sinismenak
sututako Kristauak ziran Sobiesky'ren gizonak; erijioagatik axola
gutxi zuten yenizarrak, Mustafa'renak; eta burruka izugarriaren ondo-
rean, lurrean ogei milla gorputz lagata iges egin zuten auek'

Frantzi'az landa jai aundia izan zan Kristaudian. "Venimus, vidi-
mus, Deus vicit", idatzi zion Poloni'ko erregeak Iñozentzio XI'ari: "Eto-

ko balitz ere, ez bait da ori mundua Kristautzeko Jainkoak on-artzen duan bidea!

Baiña, len esan dugun lez, ez gaitezen ortaz zoroak bezala arritu; Elizaren etsai ziran neurri berean bait ziran turkitarrak aberriaren etsai ere. Orrela, ur bedeinkatuaz igurtzitako izkilluen bitartez konpond u nai izan zan turkitarrek Elizari sortu zioten auzi biurria. Andre Mari Birjiñaren babespean ipiñi oi ziran izkillu onetsi aiek, erabiltzeko garaiean. Orduango da, ere, Andre Mari'ren idurien oinpean illargierdi bat ipintzeko oitura, jakiña dan bezala, maometarziralarik, illargierdia bait zuten turkitarrek ikurra.

Gauzak ala gerta bear zuten nai ta naiez, garai bakoitzak bere auzikonponkerak ditualako. Ez zan iñoren errua izan; ez Aitasantuek, ez Gotzaiek ez Mixiolariek, ez dute kulparik..., baña Andre Mari Birjiña ez zan eskierki asarre geldituko Eliz-Gizon aiek ezpatak igurtziten erabiltzen zuten ur bedeinkatua, bata ioaz turkitarren buruak igurtzitzeko nola erabilli ote zitekean pentsatzen une batzuek galdu ba zituzten'..

Turki'aren aurkako gudate ortan, Frantzi egon zan beti Kristaudiaren gudarozteetatik landa. Baña ez izkilluak erabiltzearen etsai zalako, ez; inperatorearen aala moztu nai zualako baizik' Orregaitik, bein baño geiagotan izan zan Frantzi bera turkitarrak Kristauen aurka axatu zituana; politikeri au, Koldobika XIV'a bekaizkorraren denboran izan zan lotsagarrien' Ala, turkitarren alde egon zan Frantzi Kristaudiaren arriskurik aundienean.

Maomet IV'a (1648-1687) izan zan Kristaudiari une latz ori ekarri ziona.

Bere barrenean zatiturik zegoan Poioni, eta Inperatorearen aurka jeikirik Ungari. Leopoldo I'a zan Inperatorea, eta bera zapaldua ikusi beste irrikarik ez zuan Koldobika XIV'ak. Kontzientziko kezkarik gabe eman zien aize, ori lortzearren, turkitarrei'

Frantzi'ren adiskidetasunaz ziur zegoala ekin zion, Sultanak bere indar guztiekin Poioni naasi ari.

Iñozentzio Xi'ak salbatu zuan Europa. Ortarako aurreneko egin bearra Poloni paketzea, batzea, izkilluz eta diruz ornitzea, izan zuan. Aitasantuaren esanera, Buonvisi Nuntzioak egin zuan lan ori'

Poloni'ko buruzagien artean turkitarrei aurpegi ematen bikaiñena Yon Sobiesky izan zan ordurarte. Orixe nai zuan erregerako Nuntzioak, eta lortu aal izan zuan bere naia. Ez zan lan errexa izan, baña aide izan zuan Koldobika XIV'a, Leopoldo I'a Sobiesky'ren aurka zegoalako. Bekaizkeriak galdu zuan Frantzi'ko Borboia, Yon Sobiesky,

Ori izan zan protestalarien politika: Inperatoreari ez laguntzearen bidez, turkitarrei laguntzea.

Katolikoena berriz, turkitarrak menderatu eta desegitea izan zan. Ez erregeei, ez gotzaiei, ez jakintsuei, ez aitasantuei, ez zitzaion iñori turkitarrak elizaren altzora ekartzeko lanean asterik burura etorri. Ez zan iñor ere, turkitarrei Jesus'en Berri Ona zabaltzeaz arduratu. Bazan bâ uraxe mixio-garaia! Ameriketan, Ozeani'ko ugarteetan, Asi'ko lur zabaletan, Afrika'n, mundu guztian, zeuden mixiolariak zabaldurik eta ari ziran lanean. Turki'ako mixiorik ez zan izan. Ezta mixio sortzeko asmorik ere'

Egia da turkitarrek ez zutela orrelako ekintza baterako baimenik emango, eta mixiolari danei lepoa moztuaz, zearo eragoziko zutela ebangelioaren zabalkundea.

Baiña mixiolariak ez zioten eriotzari bildurrik. Jainkoaren doai aunditzat zeukaten martiri izatea, Elizak, berriz, badio martirien odolari eraspen, uste, eta fede berezia' Ala're ez zan Sultanaren Lurretara mixioaririk abiatu.

Bazuan Elizak Turki'an ebangelioa zabaltzen astea alperrikako gauza izango zala pentsatzeko arrazoia' Maometarrak ez bait zieten mixiolariari entzun ere egin nai izaten, eta jokaera ortan bereiziki gogorrak bait ziran turkitarrak'

Alatagutziz, turkitarren arteko mixioketarik ezaren arrazoia politikaren arloan billatu bear da. Ikusi ditzagun gauzak turkitarren auzoko Laterri batetik, orrela obeto ulertuko ditugu-ta. Ikusi ditzegun Ungari'tik, edo Poliniti'k adibidez' Ungaritar batentzat turkitarrak ez ziran erlijioaren etsaiak bakarrik; aberriaren etsaiak ere baziran. Ungari zapaltzera zetozten: Ungari'ko askatasuna ezereztera, ezpata erabilliaz. Ta ezpata erabirliaz erantzun zieten ungaritarrek ere. Aberria salbatzeko, eta aberria salbatzean kristau izateko eskubidea ere salbatzeko, gudari ekin zioten.

Era berean ikusten zituan kristaudi osoak, eta ikusten zituzten aitasantuek, turkitarrekingo arremanak, auek 1077'an Jerusalem indarrez artuta an kristautasuna debekatu eta kristauak zigortzen eta erailtzen asi ziranez gero. Orregaitik, aurren-aurreneko gauza, Kristaudiaren askatasuna salbatzea zala uste izan zuten errege eta aitasantuek.

Oridalata, Gurutze-Guduak berbiztea izan zan aitasantuen pentsamentua; pentsamentu bakarra, zori txarrez' (zkilluen bitartez, soilki gorrotoa bakarrik sortzen bait da. Eta mundu osoa Kristautzea sortu-

Errroma izaki beti! Bere aunditasunean eta bere txikerkerian.

Ortodoxiatik landa, baziran Sultanen Jaurerrian, V mendearen asieraz gero Kostantinopla'ko Patriarkengandik bereizirik bizi ziran beste Eliz eraspengarri batzuk: Eliz Nestoritarra Pertsia'an, eta Eliz Monofisitak, Armeni'n, Mesopotami'n, Siri'a ta Palestina'n; Indi'an ere bazan Eliz Monofisita, baiña Indi'a ez zan Sultanaren menpeko lurra.

Turkitarren inperioko Kristaudi ez-ortodoxiaraietzigorrik aundiena arabitarren atzaparretara jausi ostean eraman zuten-eta, galera aundirik gabe jarraitu zuten beren biziera izkutua turkitarren azpian.

Bai ortodoxitarrei, bai monofisitarrei, —sinismena ukatu gabe ain-ain gurutze-bide latza, orrenbeste mende luzeetan, ibiltzeko kementa izan duten anal maitagarriei—, eskeiñi dezaiegun biotz osoz gure naimenik onena.

Europa'ko Kristauek ez zuten, ez katolikoek ez protestalariek, turkitarrak Kristautzen asterik pentsatu ere. Ez zan turkitarrentzat rixio-laririk izan. Lutertarrek, Jainkoaren asarrearen siñaletzat artzen zuten Kristaudiaren ondamena.

Orixe zion Luter'ek berak: Turkitarren erasoia Jainkoaren zigorkada zala. Baleike, esakizun orrek, Luter'en sikologiak ain bere duan fatalismoaz landa, mozkinerittantta bat ere, apaltasun-itxurapean estalita, bere baitan gordetzea; ori esanaz beretarren kontzientzietatik kezka oro uxatzen bait zuan. "Beretar" aietako bateri, Kristaudia sai batzeko, Inperatoreai gudan lagundu bearke ziolaren kezka sortzen ba'z tzaion, bazekian Luter'en iritzia: Ez zuan ortaz arduratu bearrik, turkitarrak ez bait ziran Jainkoaren tresna besterik' Jokaera orren sustraia? Berekoitasuna. Luter'ek ez zion Sultanari bildurrik. Alemani'tik urrun zegoan Sultana, eta ez zuan erengandik gaitzik itxaroro. Baiña Alemani'n bertan zeukan Inperatorea, eta onek bai, onek gaitz aundia egin zetzaiokean. Inperatorearen indarra sendotzeak ematen zion Luter'i izugarrizko bildurra. Indar ori ez zan beñere sendoegia izango, turkitarrek Sortaldetik gogor erasotzen zuten bitartean. Baiña turkitarrak zearo zapalduak eta ezereztuak izaten ba'ziran, lare geldituko zitzaizkion Inperatoreari bere gudari-talde guztiak Europa'n nai zuana egiteko. Eta Inperatoreak nai zuana, Europa'n protestalaritza ezabatuta, ostera katolikotasuna ezartzea zan. Ondotxo nekian ori Luter'ek. Orregaitik ez zezakean, iñolaz ere, Inperatoreri turkitarren aurka laguntzera joaterik ontzat artu' Inperatorea, etsai zuan; Sultana berriz, Inperatoreari eskuak lortzeko Jainkoak ekarritako laguna.

eta iaretasun aundia. Ta orain ere, Kostantinopla Erroma'gandik be-reizi zanez gero, Erroma'rekin alkaturik jarraitu zuan.

Antioki'ko patriarkadutzak asko zor izan dio, utsik gabe beti kato-li ko iraun duan Libano'ko Marondarren Eliz bikaiñari, marondarren eta Antioki'ko ortodoxiarren arteko adiskidetasuna ta laguntasuna, sendoak eta zintzoak izan bait dira mendeak-zear.

Antioki'ko Patriarkadutzaren lurraldeetaraiño iritxi zitzaizkigun mixiolari iñakitarrak, eta Richelieu'ren languntzaille zan Alla Josepe Paris'koak bidalitako buruñurdunak. Ta, alkarren artean bi mixiolari-talde auek erabillitako bekaizkeria ta gorrototxda geiegizkoak izan zi-rala aitortu ondorean, lanik naiko egin zutela esatera ere beartuak aurkitzen gera. Tamalez, ordea, ez ziran uzta eder aundirik emateraiño iritxi. Iru izan ziran antzutasun orren zio mingarriak:

—Mixiolari frantziarren jokaera makurra' Abertzalekeriz puzturik aurkituko dituzu gizon aiek. Ona abertzalekeri orren adigarriztat esku-titz biren zatitxo auek:

Buruñurdunen Zuzendariak auxe idazten zion XIV Koldobika Bor-boiari: "Gaur-egun gure Agintari dugun Errege beti garaillearen esku zabalari eskerrak, aurrera dijoaz Siri'an mixio-lanak. Beti izango gaitu Errege orrek bere indar aundiaren aitorle ("Par les libéralités de notre invincible Monarque, à present regnant, dont nous publierons la pui-sance").

Iñakitarren Zuzendariarenak dira berriz idazkera auek: "Konbeni zaio Erregeari, bere aintza eta onturrerako, emengo Kristau-errietako agintariak bere esanera gordetzea" ("C'est la gloire et l'intérêt de sa Majesté d'avoir ici les chefs des nations chretiennes pour ses créatu-res").

Gauza zailla izan zaiela gure mixiolariei, Paul Donearen antzera "non-naitar biurtzeko", aberriaz erantzibearra!

Okerra izan zan lurralde aietan Propaganda Fide deritzan Bat-zordearen jokaera ere. Oro nai izan zuan bere mendera makurtu Erro-ma'ko Batzorde onek. Ta, ori lortzeko, katoliko latindarrei apaiz elen-darren eskuetatik Jauna artzea debekatzeraíño iritxi zan, naiz apaiz elender aiek ere katolikoak izan.

Gaitz egin zuan VIII Urban'en politika burugabeak-ere. Siri osoa laisterka nai izan zuan "latineratu", eta ortarako, lez zituan bā bere izkuntza ain maite zuten lurralde aietan gotzai latindarrak ipiñi! Esan bearrik ez da, batasunaren auziari on aundirik ez ziola egin Pro-paganda Fide eta Aitasantuaren jardunkera motz orrek. Erroma...

boan turkitarren aurka gudan sartu' Muzin egin zien Frantzi'k, Ungari'k eta, Poloni'k eta, —ta baita Aitasantuek berak ere—, Europa'ren salbamenerako jasan bear izan zituzten borroka aiei. Alderantziz, Turkia'ko Sultanarekin alkartu zan bein baiño geiagotan.

Gauza jakiña da frantziarrak abertzalekeri-zale itxu-itxuak dirala' Bâ, abertzaleker orrek eraginda, frantziar edestilari bat edo batek, orduango Frantzi'aren jokaera zuritzeko, Frantzi gudu aietan ez sartzea Bizantzio'ko Elizarentzat onuragarria izan zala esan izan du. Giro ohea sortu omen zuan bâ, lurralde aietako Kristaudentzat, Frantzi'ko Erregeen neutralitate edo alderdirik-ez-artze arek. Baiña egia esateko, txit onura kaxkarra izan zan adiskidetasun artatik sortutakoa. Egia da Suitanak atek iriki zizkiela apaiz "franketarrei" ("Frank", Sarkaldeko Kristau guztiei esaten zieten turkitarrek). Baiña, Kristau "latindarren" artean, ots, ortodoxoak ez ziran eta beren liturgia latinez egiten zuten Kristauen artean bakarrik lan egiteko iriki zitzaizkien apaiz aiei atek. Kristau "latindar" aiek, ia danak, atzeritarrak izaten ziran Turki'an.

Joan ziran Sarkaldetik apaiz mixiolariak: buruñurdun edo kaputxinoak batzuk, iñakitarrak besteak; aiek eta auek, ez alkarrekingo adiskidetasun geiegikoak.

Ortodoxiarrak, mixiolari aien ekintzatik at gelditzen ziran Sultanaren aginduz. Alatagutziz, ez ziran auek geldik egoteko gizonak-eta, sartu aal izan ziran mixiolariak ortodoxiarrekin ar-emanetan' Ez, arras adu onarekin; adiskide bero aiña etsai gogor sortarazi bait zuten Ortodoxiako Kristauen artean'

Kostantinopla'koaz landa, bazituan beste iru patriarkadutza Eliz Ortodoxiarrak: Alexandri'koa Ejito'n, Jerusalem'goa Palestina'n, eta, iruetan bizkorrena, Antioki'koa Sir 'n.

Irurak, Florentzi'ko Kontzilioa ezkerro, Erroma'rekin alkarturik egon ziran Kostantinopla turkitarren menpera jausi zan arte. Orduan, Kostantinopla'ko patriarkadutza Erroma'tik era bat bereizi zanean, orixe bera egin zuten Alexandri'koak eta Jerusalem'goak; ez ordea Antioki'koak. Zergaitik? ara:

Aurreneko biak (Alexandri eta Jerusalem) zearo bizantziotar biurturik zeuden: Kostantinopla'tik artzen zituzten legeak eta buruzagiak. Kostantinopla'ren barrutiak ziran. Ez ordea Antioki'koa. Au beti siritarra izan zan eta siritarrak izan ziran bere apaizak eta gotzaiak: bertan jaiotakoak; ez Kostantinopla'tik etorritako izkera elendarreko atzeritarrak. Orregaitik, beti izan zuan Kostantinopla'ren aurrean nortasun

Olanda'ko kalbindarren laguna zan, eta bazituan anglitarrekin artue-manak ere' Orrela, osoro kalbindar agertzen zaigu 1620'ean idatzi zuan liburu batean. Bizanziotarrak zalantzan jarri izan oi dute liburu orren gurasotza, baiñan ori zalantzarik ez duan auzia dugu, Lukaris'tar Ziril'ek bere eskuz egin zuan liburu aren leen-idatzia, Jinebra'n idoro bait da.

Ongi kolokan zebillen garai artantxe Kostantinopla'ko Eliza gai-xoa, andik bederatzi urtera, 1638'an urrengo Patriarka'k Erroma'rekin alkartasuna zegian lege bat bete-betean izenpetu bait zuan bere ize-nez. Ziril Kontaris izan genduan Patriarka au'

Ez gaitezen ordea atzipetu. Ibillera aiek guztiak eta nora-jo ez jakite ura dana, soilki Patriarken eta elizgizon jakintsuen kezka ziran. Erriak, Kristaudi b zantziotar ugariak, ez zuan sekulan orrelako kezka-ri k izan.

Egia da, teologiaren eta Kristua-legiztiaren aldetik soegiñezke-ro, nora-bide oro galduta zurrumbillo beltzean aurkitu zala Eliz Ortodoxiarra, Florentzi'ko Kor tzilioan eginzuan batasuna urratuta, ostera zismara itzuli zanean. Egia da, iñolaz ere, ori guztia' Ta ala ibilli zitzaigun, patriarkadutza, Erroma'rekin alkartu ta bereizi, bir-alkartu ta bir-bereizi, arâ jo eta onera jo, bide sendorik billatzeke' Baiña erriak, ez zien beñere biraketa aiei jaramonik egin. Tinko eta bare jarraitu zuan bere betiko ortodoxian, sinispide zaar aren altzoan aldaketarik egin zitekeanik usmatu ere gabe. Erromatik milla oinkadan urrun zegoan erri aren biotza! Buruzagien artean ere, ez ziran danak iritzi batekoak. Orrela, aipatu dugun Kontaris Patriarkak Erroma'rekin egindako batasun aren aurka laister idatzi zuten, buruzagi aietako bi 'tzaltsuenak: Kiew'eko Metropolita edo Goigotzai Mogila'tar Kepa'k (1640'ean) eta Dosileo ii'a 'Notares", Jerusalem'go Patriarkak.

Kontaris berak ere, —gogorkerizalea izan bait zan—, ez zion bere izakera orren erruz, Erroma'rekin egin zuan alkartasunari geiegi lagundu. Azkenean, gizagaixoa, gogorkeriz erabillia izan zan bera ere; aiztoz kendu bait zioten bizia!

Zalla zitzaien orduan ortodoxiarrei batasunaren aldeko langintza' Ez zan ortarako naikoa Patriarken eta beste buruzagien naimena, an zegoan bâ, guztien gaindik eta azken epaiitza berea bakarrik zuala, turkitarren Sultan altsua, maometarren sinismenarentzat arriskugarri zitekean alkartasun .oro ezerezteko prest'

Birjaiotza-aroa aztertzerakoan esanik utzi genduan Frantzi ez zala iñoiz ere, Aitasantuen deiari erantzunaz beste Laterri Kristauen al-

artean egin zuten, Europar-Gudua amaitu bezain laister.

Bai; ondo merezia dute gure eraspén osoa Sortaldeko Eliz Kristauek' Ez zaie bost mende auetan zigorrik peitu, baiña bikainki gorde dute alatagutziz beren sinispena. Lekuko dira, gaur egun oraindik bizi-rik dirauten, lurralde aietako Eliz Ortodoxiarrak, eta Iran, Siri, ta Ejito'ko Eliz Monofisitak. Baita're, —¿nola ez?—, Kristautasuna ez ezê katolikotasuna ere, beti Erroma'ren esanera, etenke zintzo gorde duan Libano'ko Eliz Maronita.

Baiña, orain Ortodoxiaz ari gera-ta, abes dezagun biotz guztiz Ortodoxiaren buru dan Kostantinopla edo Bizantzio'ko Elizaren, eta Eliz ortako Patriarken aintza.

Beste edozein erakundek bezala izan ditu bere erruak Kristaudi Bizantziotarrak, baiña erru oiek eta guzti, eman dio Kristori majiña bat martiri mendeak-zear' Pozik aitortzen diogu merezimendu guren ori.

Patriarkak ere, bakan batzuk kendu ezkeru, gizon jatorrak izan dira; bikainki zaindu eta gorde dute, beren Elizaren altzoan, Kristautasunaren galda.

Leiaz egin izan da otoizketa ortodoxiarren jauretze eta lekaide-txeetan. Ugariak izan dira beti lekaidetxeak lurralde aietan, betidanik izan bait dute maometarrek lekaideenganako begirune sendoa.

Protestaleriek ez dute sekulan bizantziotarrentzat ardura geiegi-rik ibilli.

Asieran bai, Sortaldeko Elizaren Kristautasuna garbiagoa zala uste izan zuan Martin Luter'ek, baiñan laister aldatu zituan usteak' "Sicut papisti", "aitasantutarrak bezelakoak dituk", zion azkenean.

Ez zieten abegi obegorik egin lutertarrei ortodoxitarrek. Ez zuan aiekin izketarik ere asi nai izan Jeremias ii patriarkak. Ala ere izan zituzten, protestalaritzari buruz, ixkamillak Kostantinopla'n.

Ziril Lukaris Patriarka izan zan ixkamilla oiek sortu zituana. Ez da erreza gizon onen sikologibarruan argi ikustea. Itali'n, Benezi'ko eta Padoba'ko Ikastola Nagusietan egin zituan ikasketak' 1596'ean, Poloni'n rutenitarrak, batasunerako, Erroma'rekin alkarrizketan asi zira-nean, Ziril Lukaris bidali zuten Kostantinopla'tik ortodoxoak, batasun ura galeraztera.

Andik urte batzuetara, 1608'an, Patriarka zalarik, berak idatzi zion Paul V'ari Kostantinopla'ko Eliza osoa Erroma'ren altzora ekarri nai zuala esanaz.

Arin aldatzen zuan buruz Lukaris urduriak. 1620'a ezkeru

rrezko musulmangintza ortatik irtetzen ziran, gudarako, "Yenizar" ospetsuak, turkitarren gudarozteak izan zituan borrokalaririk aipatuenak.

Majiña bat gaitz egin zieten yenizar auek kristaudiko gudarozteiei; majiña bat sultaneri ere moztu zioten lepoa matxinadaren baten erdian, biurriak eta odoltzaleak izan bait ziran. Ala ta guztiz, gurasoen kristautasuna laga ondorean sultanen maometasuna benetan artu ez zutelarik, fede sendoko gizonak ez ziralakoedo ez zuten sekulan yenizariiek gudarako, kristau zaldunen aurka, zaldun auek aiñako kemenik eta ausardirik agertu. Lortu zituzten garaitza guztiak numeroaren indarrez (ortu zituzten'

Ez ziran lapurtutako urne auek danak gudarozterako izaten, geiegi bait ziran ortarako. Asko ta asko maometar erri berriak sortzeko erabilliak izaten ziran; Anatoli'n batez ere.

Apostoladutza oro zeukaten debekatua kristauek'

Lepoz pagatu bear izaten zuten bataioa artzera ausartzen ziran maometar guztiek, eta baita auen batailariek ere. Lepoz, bein kristautasuna ukatu-ta, ostera, lengo federa itzultzeko kemenik naiko zuten ardi galdu damutuek. Kristau askok eta askok galdu zuten orrela, beren sinismenaren ziñopa, mundu ontako bizia.

Baita Patriarkak ere, izan ziran eraillak' Oroi dezagun auetako bat: Maomet il'ak izendatu zuan Gennadio H'aren ondorengo: Isidor il'a. Neskatil kristau bati aundiki maometar batekin ezkontzeko bai-menik eman ez ziolako il zuten. Neskatil aren fedea arriskuan ikusten zuan-da, naiago izan zuan bizia galdu, kontzientziaren aurka jokatu baiño.

Beste Kristau eta Patriarka batzuei, bizia kendu bearrean gorputzeko zatiren bat ebaki zieten.

Ez zan ala're Ortodoxiarik ezereztu' Bai noski, izan zituan Eliz Ortodoxiarrak maometar biurtu zitzaizkion semeak, baiña auetatik geienak..., iaurtzaroan beren sendietatik ebatsitakoak! Albani'n eta Bosni'n fedea ukatu zuten gizon-emakumeak berriz, leendik ere erejeak ziran; "Begonil" esaten zitzaien ereje zaarrak. Ta auek ere, indarrez izan ziran sinispidez aldatzera beartuak.

Gure mende ontaraiño iraun du turkitarren odolkitza orrek. Ain zuzen, azkeneko sarraskia, izugarrizko sarraskia, Armeni'ko kristauen

XII'a, Sixte V'a, Urbano VII'a, Gregorio XIV'a, Iñozentzio IX'a eta Klemente VIII'a Aitasantu zirala. Agintari geiegi noski, Jeremias II'ak artan pentsatu balu ere, batasun asmoak amaiera eramán aal izateko. Ez zan noski Jainkoaren erabaketan batasunaren ordua oraindik irixia.

Ez dezagun uste turkitarren menpeko kristauen bizitza erreza zanik. Maomet II'a izan zuten sultanik bigüñena, ta ala ere orduantxe bertan Kristauak bigarren mailleko laterkideak ziran' Sultan biguin jakintsu onek agindu zuan, gaiñera, "Apostoluen Jauretzea" desegiteko' Jauretze ortan zeuden obiraturik Kostaniino I'a "Aundia", eta Kostantinopla'ko Inperatore izandako beste asko.

Eta Maomet II' a il ondorean, laister gogortu zan kristauen aurka zigorra. Maometar egiten ez zan guztiari lepoa moztutzeko agindu zuan Selim I'ak. Jeremias I Patriarkak bere ardien biziak salbatu aal izan zituan, baiña Sultanari dirutza izugarria ematearen truke.

la eguneroko kontua zuten kristauak dirua erruz eman bear izateko kontu ori' Edozer mesede lortzeko, dirua; olezko elizatxo bat egiteko, dirua; elizatxo ori konpontzeko, dirua. Gaiñera, ta au da Lotsagarrriena, edozein turkitar agintarik, baita azkeneko mailletakoek ere, kristauen jauretze, elizatxo, eta otoitz-toki guztiak ikustatzeko eskubidea bazuten. Ormetako zarrata txiki bat naikoa izaten zan etxe ura itxiazteko. Isterik ez ba'zuten nai kristauak, zarrata konpontzeko baimena eskatu bear zuten, eta baimen ori lortzeko'. , dirua eman ugari.

Irabazi aundiak zituzten Patriarkek. Ala ta guztiz, —edozein gauzatxo lortzeko erruz jaurti bear bait zuten dirua—, beti ibilli oi ziran txanpenez urri eta murri' Dirua sortzeko, gotzaigoak edo beste Elizako karguak ematean, edo elizgizonak sagaratzean, diru-eskatu bearrean aurkitzen ziran. Ori bera egiten zuten orrela sagaratutako gizon auek ere, berak ordaindu bear izaten zutena birjasotzeko'. , eta bizi aal izateko. Sartu-edo zan, orrela, simoni-pixka bat Bizantzio'ko Elizan. Baiña, geiago simoniaren itxura, simoniaren pekatua bera baiño. Ez dute ori kontuan euki sarkaldeko edestilariak ortodoxoei simonizaleen gaitzizena aurpegira ariñegi bota dietenean.

Ederki iraun zuan ortodoxiak bere sinismenean erasoaldi beltz artan; izan bait zuten etengabeko dirua ixuri bear ura baiño zigorketa latzagorik!

Mordoka izan ziran kristau-erailketak' Bear ba'da negargarriagoa, gurasoen etxeetatik millaka lapurtuak izaten ziran mutiko gazteak. Mutiko oiek indarrez maometar egiñak izanen ziran gero. inda-

sotzeko eginkizun zakarra, Kristauen bizkarren gaiñera botatzen zuten.

Bi zufotan jausi ziran Istanbul'ko Kristauak auzi ontara sartzean. Aurreneko zulo ori, orrelako eginkizun nardagarria, ots, Kristau erri menderatuei agintari maometar menderatzalleentzako dirua biltzeko eginkizuna eskuetan artzea izan zan; eta bigarrena, eginkizun orrek ematen zien jauntxotasunaz baliaturik, erri eslabitar aiei liturgian ele-nera artuarazteko indar egitea. Jokabide ortatik jaio zan atsekabeak gero eman zituan fruituak, eta fruitu ori errialde aiek Kostantinopla'ko Elizatik askatuta. LaterriElizak biurtu izatea izan zan' Bereizte orren iturburuetako bat izan bail zan bizanziotar elendunek bazter guztietan jaso zuten eziñikusia.

Laterriaren serbitzari-talde baten antzera eraturako Bizanzio'ko Eliz aren erpiñean Patriarka zegoan. Bazuan Patriarkak "Bazkun Laguntzaille" bat adiskide ziur zituan gotzai, apaiz eta kristau soillez osatua; "Offikia" esaten zitzaion Bazkun arri, eta Patriarkak iritzia eskatzen zionean iritzi ori ematea beste lanik ez zuan.

Patriarka zan Elizaren buru bakarra. Geiago oraindik; Patriarka, Elizaren buru bakarrik ez ezê, Eliza osoa ere bazala esan daiteke, La terriarekingo arazoei zegokienez beintzat berak bakarrik bait zuan Sultanaren aurrean agertzeko ta Sultanari eskariak egiteko eskubi dea'

|| Gelasio ezkerro, Patriarka guztiak izan zitzaizkigun, agirian beintzat, Kostantinopla'ko Eliza Erroma'tik zearo bereizirik gordetzearen aldekoak. Danak bait zuten kargu artan irauteko bear'ezkoa, Sultanaren onespena.

Oridalata, gerontzean Kostantinopla'n Patriarka izan ziranak Elizaren batasunaz beren barnean zer pentsatzen zuten jakiterik ez dago.

Izan zan bat, Jeremias II'a "Tramo", bere denborako Aitasantuekin adiskidetasunak egin zituana. Gizon zintzoa zalarik, lan ,asko egin zuan apaizen eziketa egokiaren alde, eta Elizako karguetan sartuxea zegoan simoniaren aurka' Erroma'ko "Grezitarren Ikastetxera" bere bi illobak bidaltzeko asmotan ere ibilli zan; Aitasantuarekin eskutitzez arremanak izan zituan'.., baiña ortaz aurrera, sekulan Erroma'rekin al-kartzerik pentsatu zuanik ezin usmatu ere dezakegu. Adimen zabaleko gizona zan-da, susmo txarrik gabe eman zien errusitarrei Mosku Patriarkadu iare egiteko baimena. Iru aldiz izan izan Jeremias II'a Bizanzio'ko Elizaren buruzagi: 1572'tik 1595'era; Erroma'n Gregorio

Nolabaiteko gizakumea, Gennadio au. Florentzi'ko Kontzilioan adoretu itzegin zuan Erroma'rekin batasuna egitearen aide; baiñan, gero, Erroma'ren aurka ipiñi zan bere indar guztiarekin, ta aldakuntza orren arrazoia jakiterik ez dago. Elertilari apaiña zalerik asko idatzi zuan, eta izkera ederrean gaiñera' Bera da, eskierki, idazle bizantziotar dotoreetan azkenekoa.

Gizon au egin zuan, Sultanak, Kostantinopla'ko Patriarka.

Jakintzaganako maitasunak eta baita Erroma'ri zioten gorrotoak ere egin zituan gero ta adiskidego Sultana eta Patriarka; eta ain Erroma'ren etsaiak izanik biak, berealaxe ipiñi zituzten zisma-zalerik gogorrenak Kostantinopla'ren mendeko Elizaren kargu guren guztietan.

Orrela aidatu zuan Kostantinopla'k turkitarren agintapean eliz-batasunerako ernetzen asia zitzaion gogoia. Eta gogoia ez ezê aldatu zuan izena ere nagusi berriek Istanbul deitu ziotenean. Ez zuten izen ori berak asmatu, Kostantinopla'ko jende landerrak ere, bere izkera mordolloan izen ori erabiltzen bait zuan aspaldidanik.

Il Gennadio'k eta H Maomet'ek alkarrekin izan zuten adiskidetasuna izan zan Laterriaren eta Elizaren arteko politikarentzat, gerorako ere, ez arian bezala eratu zan eredia. Arrezkero politika orren ardatza Sultanaren eta Patriarkaren adiskidetasuna izanen da' Baiña Sultana nagusi dala! Patriarka, eta Eliza, ez dira Sultanaren esanako jopu ixil apalak besterik izango.

Laterriaren barruan, Laterri beraren Istituzio bat bezela eratu zuan Maomet II'ak Eliz Bizanziotarra. Apaizak ziran kristauen zerga-jasotzaille, epaille, alkate ta buruzagi. Apaizak zergak pagatzetik libre laga zituan' Apaizen gaiñetik, probintzietako jaurleen modura, goztaiak zeuden eta danen gaiñetik Patriarka. Eliz-gizon guzti auen auzietarako, "Divan" zeritzaion Inperioko Epailari Nagusiak bakarrik zuan eskubide.

Eliz-barruan Meza eta beste otoizketak egiteko baimena, kezkarik gabe eman zitzaien Kristauei, orma-tarteko askatasun orren truke, ederki eldu bait zitzaion Sultanar, Inperioko karguetan erabiltzeko, bizanziotarrek aspalditik administrazioko gauzetarako zuten yayotasuna.

Gaiñera, Istanbul bereko jende grezitarretan konfiantza geiago zuten Sultaneke Balkanetako ibarretan bizi ziran erridi eslabitar borrokarietan baiño; ta, orregaitik, istanbultarretatik ateratzen zituzten erridi aietarako administralariak, eta baita probintzietako jaurleriak ere' Orrela gaiñera, —ez bait ziran turkitarrak ain xoxoak—, zergak ja-

Bayazeto II'ak, (1481-1512), Dunubio'raño eraman zituan bere gudiariak, eta Selim I'ak (1512-1520) artu zituan Siri, Ejipto eta Arabi.

Soliman II'ak, (1520-1566), kendu zien Rodas Lekaide-Zaldun Donibanetarrei.

Iparraldean berriz Moldabi, Kroazi, eta baita Ungari'ren zati eder bat ere, bere-egin zituan, eta, Kalifa izena artuaz, slamdarren erlijioaren zuzendari nagusi egin nai izan zuan bere burua.

Errege ta Agintari Kristauen ganoragabekeriak salbatu zuan Soliman II'a Lepanto'n eramandako jipoiaren ondorean' Sultan onek benezitarrei Txipre ugartearen arrapatu zuelako joan ziran kristaudiko ontziak Lepanto'ko uretara, baiña turkitarren ankapean jarraitu zuan ugarte arek, naiz borrokan kristauak garaille irten, ez bait zuten aukerik, ia osoro menperaturik zeukaten Turki'ari erasotzen jarraitu.

Zaberkeri onen erruz, laister jaso aal izan zuan osteran Soliman II'ak burua, eta, naiz itxasoan turkitarren ontzidiak izan zuan nagusitasuna betirako galdua izan, sendotu aal izan zituan legorrezko gudarozteen indarrak, kristaudiarentzako era bildurgarrian. Itxasoz ere benezitarrei Kreta ugartearen kentzeko gai izan zan. Kreta galdu ostean, doidoi gorde aal izan zituan Benezi'ko Errepublikak, antziña Sorkaldean bereak izandako lurraldeetatik, Korfu, beste Joniatar ugarteak, eta Dalmazi'ko itxasertza.

Bere garairik gallurrenean zegoan orduantxe turkitarren jaurerri galanta. Bene-benetako arriskua zan Kristaudi osoarentzat, Europa'ko Sortaldean, indar geldieziñ ura.

Baiña ikus dezagun, aurrena, nolako eratan aurkitzen zan, Maomet II'ak Kostantinopla artu zuanez gero, turkitarren anka-azpian gei ditutako Kristaudia'

Gizon azkarra zan II Maomet-eta, bereala ikusi zituan bere politika-jokurako arras garrantzizkoak ziran gauza bi:

—Kanpoan etsai gogorrez inguraturik zegoan bitartean barruan etsai bearrik ez zuala. Arras konbeni zitzaiola beraz, irabazi zituan lurraldeetako Kristauen borondateak bereganatzea.

—Etsairik aundiena Aitasantua zuan bitartean, Kostantinopla'ko Eliza Aitasantuaren esanera egotea ez zitzaiola iñolaz ere konbeni.

Errez asmatu zuan Maomet II'ak bi bearkizun oietarako egokien zitzaion erremedioa: Kostantinopla'ko patriarkadutzarako Erroma'ren etsai eta Sultanaren lagun zan gizon bat izendatzea. Eskuan zeukan gizon ori: Gennadio II'a "Escolarios", buruz gizon landua eta jakintza-aren lagun zalako Sultan jakintza-zaleak lendik ere adiskide zuana.

TURKITARREN MENPEKO ELIZA

Ikusi dezagun nola gelditu zan Sortaldeko Kristautasuna Bizanzio'ko Inperioa turkitarren uztarpera jausi zanez gero.

1453'ko maiatzaren 29. Badoa garaille Maomet II'a (1451-1481), arresien urratu zabal batetik zaldiz igarota, Kostantinopla'ko karririkak-zear. San Erromano'ren ataria zaintzen il da, g zonki, Kostantino XII' inperatorea. Zalditik jetxi gabe sartu da Sultana "Santa Sofia" Jauretxearen barnera.

Kondaira batek dio, Sultana sartu zanean, aldarean zeuden apai-zak, meza amaitzeke, prozesiomoduan kantari abiatu zirala, eta goitik beera ebaki zala Jauretxeko arma, ibiltari deunei iges-bidea emateko. Egunen batean, ostera, orma ura irikiko omen da berriz, ibiltari deun aiek, itzuli-ta, meza bukatu aal dezaten.

Baiñan Bizanzio'ko kristau ortodoxoen kondaira onek ixilik laga oi du garrantzi aundiko zerbaitxo bat: izatekotan, Meza ura, Meza katolikoa izan zala. Izan ere, bai bait ziran ordurako lau illabete Kostantinopla'ko Eliza berriro Erroma'koarekin alkartu zala'

Alkartzete ori 1452'ko abenduaren 12'an egin zan; gudaketaren esualdiak eraginda, agian, baiña baita agintari bizanziotar askok kristaudiaren alkartasunaren guraria sentitzen zutelako ere' Ez zan, noski, Erroma'rekin batasuna egiteko garaia, oraindik iritxia, baiña bazan batasun orren naia' Siñale egokia litzake olerkari batentzat, azkeneko Inperatorea, San Erromano'ren atea gordenaiean illik jausi izatea. (Badakigu, ori, metafora utsa besterik ez dala, baiña bai, bizanziotar batzuen kontzientzibarnean gertatzen zana adierazteko, idurimen-joku egokia. Ala're aitor dezagun, batasunaren kezka sentitzen zuten aiek, kristau ortodoxiar-multzoaren alboan, gutxi zirala. Erriak eta lekaideak bereiziki, Erroma'ren etsai beroak ziran)'

Maomet II'ak berak arrapatu zituan, Kostantinopla errenditu ondorean, oraindik Trebisonda-inguruan iare zirauten Inperioaren ondarrak. Baita Grezi eta la Balkan-Mendi guztiak ere'

Justinian Inperatoreak eraikitako "Santa Sofia" Jauretxea, mezkita biurtua izan zan'

tez ere. Baiña ez daiteke Eliza garaille irten zanik esan' Fenelon'en erekusketak egiazko zentzu ederra bazuten' Bazuten, ala nai izan ez-kero, zentzu okerra ere, eta zentzu ontan gaitzetsi zituan, gure ustez ariñegi, Iñozentzio XII'ak. Baiña orrela jokatu ezkerro, berdin gaitzetsi zezazkean beste kristau liburu askotako esakizun ugari, Idatzi Donekoetatik asita. Gustora onartzen dugu Aitasantuaren aldeko arrazoi bezela, Frantzi'ko Borboi despotaren bultzakadak ez baiña, egiazko arrisku baten bildurrak eraman zuala Iñozentzio XI'a, Fenelon jakintsuaren esari aiek gaitzestera: Ostera Españietako, Frantzi'ko eta Itali'ko alper-egontzaleen izugarrikeriak kristaudian berbiztuko ote ziralaren bildurrak.

Baiña, baiña..., Argikuntza-aro guztian ez zan mistiko bat bakarrik Eliz guztian sortu. Elizaren zorrozkeri orren erruz? Baleike'

Alare, Malinos'en erakusketak dute, beste gauza guztiak baiño geiago, antzuketa negargarri orren errua. Baiña, baita ere, errukide dira Bossuet bere burugogorkeriagaitik, eta Iñozentzio XI'a, gure ustez "anatemak" erabilli orde, Fenelon'en esari aien egiazko zentzua agertzea naikoa eta egokiagoa izanen zalako. Ta ori eginen zuan eskerki Iñozentzio XII'ak Frantzi'ko Erregearen eta agian onen atzean gorderik zegoan Bossuet'en zama gañean izan ez balu.

Jaungoikoa'k barka bezaie danei Elizakook barkatzen diegun bezela.

rak bidali zion liburua, Fenelon Andre Guyon'en adiskide zala baze-kialako' Mistika ororen bizia legortu zezakean arrazoikeri otzegia idu-ritu zitzaion Fenelon biotzberari Bossuet adimenkoiaren liburua' Urte batean gertutu zion erantzuna: "Explication des Maximes des Saints"; "Doneen Esakizunen Agerpena" Batez ere Jenoba'ko Kata-
lin Donearen itzak erabilliaz, esakizun guztiak izan ditezkeala oker ulertuak adierazi nai zion, mistikalarien idazkiak apika iñoiz astiro irakurri ere ez zituan Bossuet teologilariari, idazki aiek ederki eta sakonki ezagutzen zituan Fenelon mistikoak. Ondo ulertzen ba'zan, "Maitasun Utsezko" dotriñak ez zuala ereji-kutsurik, oiuz zegian bere liburu-
an.

Gozotasun galanta sortu zuan oiuz orrek "Maitasun Utsaren" la-
gunen biotzetan, baiña asarre bizkorra Erregea-baitan; baita gai ontan Erregearen itz eta luma zan Bossuet'en barrenean ere. Laister eran-
tzun zuan onek beste idazki batekin: "Relation sur le Quietisme";
"Alper-Egonkeraren Azalpena" (1698)' Auzia erabakia zegoan.

Fenelon'en aurka, erdierrepublikazaletzat arturik zeukaten Goi
gotzai ospetsu bikain aren aurka zeuden Koldobika XIV'a eta Erregea-
ren korte guztia; baita, oraingoan, ain eskumen aundikoa zan Mainte-
non Andrea ere. Eta agian beste guztiak baiño geiago, Bossuet bera,
batak bestea aundi ezagutzen zuten gizon aien arteko eztabaidan
bekaizkerittantatxo bat uste gabeen sartu izatea baleiken gauza bait
da.

Gaitzetsi zuten Sorbona'ko Irakasle erregezaleek Fenelon'en li-
burua. Fenelon'ek Erroma'ra jo izan nai zuan, baiña ez zion Erregeak
Aitasantuarekin traturik artzen laga.

Bitartean Koldobika XIV'a bera ari zan Aitasantua estutzen Fane-
lon goigotzaiaren gaitzespena len-bait-len lortu naiean. Illa zan Iño-
zentzio XI'a, zori txarrez Iñozentzio Xil'ak debekatu zituan Fenelon'en
liburutik artutako 23 esari, naiz ereji izan ez, ausartegiak, eta kristau
erriarentzat oztopogarri edo "eskandalo-sortzaille" zirala esanaz
(1699).

Arrigarria izan zan Fenelon'en jarduera' Bereala, apalki, makurtu
zuan burua' Berak irakurri zuan pulpittutik Aitasantuaren erabakia,
eta berak agindu zien beretarrei Aitasantuak debekatutako liburu ura
iñolaz ez irakurtzeko; berak eskatu zien, lagunei, bere alde ez deus
idatzi edo itzegiteko. Eta bereala argira eman zuan pastoral bat, kris-
tau guzien aurrean bere damua agertu naiean'

Garaille irten zan Koldobika XIV'a. Garaille irten zan Bossuet ba-

Ion paketsuaz oroitu zan orduan Erregea, ta ugonote aiek baretzera Poitou'ra eta Santonge'ra bidali zuan: Frantzi'ko bazterrik nâsieneta-ra' Ederki bete zituan bere eginkizunak Fenelon'ek Ianketa zail artan. Erregeak, eskertsu, Frantzi'ko erregegai zan bere billobaren irakasletza eman zion 1689'an.

Fenelon ausolutismoaren etsaia zan, ta naiz berak bere sentimentuetaz gogapen argiegirik izan ez, demokrazi aidera zeramakiten sentimentu oiek. Fenelon izanen zan, gai auen azterketan apurtxo bat geiago saiatu balitz, Bitori'ko Frantzisko'ren ikaslerik argienetakoa, baiña tamalez ez zuan, bear bada, Bitori'koaren idazkirik ezagutu ere, beste zulo batzuetatik jotzen bait zuten orduango Frantzi'n aizeek.

Dana dala, erri xea biotzez maite zuan Fenelon'ek, eta ederki ikusi zuan bere kargutik erriari egin zezaiokean onura, borboitarren arrokeriak ukitutako printzipetxo ura Errege izateko egoki ezitzen ba'zuan' Printzipearentzat idatzi zituan beste toki batean aipatu ditugun politikazko iru liburuak, 1699'an argira emandako "Telemako"z asita' Beste bien izenak auek dira: "Plan de Gouvernement", ("Jaurbidea"), eta, "Essai Philosophique sur le Gouvernement", ("Jaurkintzaren Filosofia"). Aipatu dugu liburu auek sortu zuten asarrea.

Tituloz Borgaña'ko Duke zan printzipe gaztearentzat idatzi zituan baita're, beste bi liburu apain, atsegingarri: "Dialogues des Morts"; "Illen arteko Alkarrizketak"; eta, batez ere, ain ospe aundia eman zioten "Fables" edo "Ipuiak".

Ez zan makala izan filosofilari lez ere. Atsegiñak dira irakurtzeko gai orri buruz idatzi zituan lanak. "Oeuvres philosophiques" izenarekin daude argitaratuak' Aipagarriak dira, Cambray'ko Goigotzai izendatua izanez gero idatzitako "Artzai Gurena" ere. Bere "Oeuvres spirituelles" deritzan saillean aurki daiteke. Gogor ekin zien jantsenizaleei "gogo-idazti" oietan; Fenelon izan zan bâ, Frantzi'ko elizgizonen artean, jantsenikeriaren etsairik sendoena.

Galikeriak sortutako iskamilletan berriz, Aitasantuaren alde jokatuz zuan beti bildurrik gabe' Bildurrik gabe!' Ta..' ez zan erreza orduan Erregeari bildurrik ez izatea!

Ez zuan amazazpigarren mendeko Frantzi'ak Fenelon bezelako gizonik izan.

Koldobika XIV'aren adiskidetasun guztiak galduta Cambray'n bi-zi zanean sartu zan "Maitasun Utsaren" eztabaidan' Bossuet'ek Andre Guyon'en aurka 1697'an idatzi zuan "Etats d'Oraison", "Otoitz-Maillak" deritzaion liburuak sartu zuan guduan. Agian Bossuet'ek be-

Andreak; au ere, XIV Koldobika'ren maitale lizun izan ondorean, orain, erregearekin ixillean ezkondu zanez gero, animako bizitzara eta eraspeneko gauzetara bihurturik bait zegoan osoro.

Bai Guyon Andrea, bai Aita Lacombe, borondate oneko pertsonak ziran, eta ortan geldituko zan "Maitasun Utsaren" auzia, eztabaida artan Frantzi'ko bi gizonik ospetsuenak sartu ez ba'ziran: Bossuet eta Fenelon.

Len ere aipatu ditugu bi gizon auek eta gero ere aipatu bearko ditugu oraindik. Biak izan ziran gizon aundiak, benetako kristauak, gozai egokiak, idazle ta izlari bikaiñenetakoak, Frantzi'ko izkuntzaren pitxiak. Izlari lez ohea zan zalantzarik gabe Bossuet; idazle lez Fenelon' Teologian eta politikan bide zuzenetik ibili zan Fenelon; ez ordea Bossuet, Galikeriaren eta Ausolutismoaren alderd koa izan bait zan' Mistikan, ordea, Fenelon izan zan okertua, eta Bossuet egoki jokatu zuana.

Aitortu dezagun, kezka izkaturik gabe, uts egin ba'zuten ere, malizirik gabe utsegin zutela. Agian-agian, Bossuet'eri ezarri dezaiokegu ingera edo erreparotxo bat: Erregearen Korteko izlari nagusi zalarik, Erregeari aurpegi ematera ez zala bear bezela ausartu' Ez dezagun, ala baiña, aztu, Bossuet ausolutismoaren aldekoa zala; erregei, aginmena, Jainkoagandik zuzen etortzen zitzaiela sinisten zuala; eta, gaiñera, Erregearen laguna zala. Erregeak berak, betirako lagun izanen zuala ondo zekialako, Gotzaigoara jaso.

Gizonetik gizonera, pertsona bezela, atsegiñagoa da Fenelon, xaloagoa, apalagoa, biguiñagoa, errikoiagoa.

Bossuet aipatuko dugu beste toki batean astiroagota, gogora ditzegun orain Fenelon'en xeetasunik orogarrienak.

Frantzisko de Salignac de la Mothe Fenelon, apaiz egin zan bezain laister egin zuten kalbintasunetik itzulitako emakumezkoak osatzen zuten "Nouvelles Catholiques" edo "Andre Katoliko Berriak" zeritzan lagunartean zuzendari. Andre ta andereño auentzat idatzi zuan bere aurreneko liburua: "L'education des Filles"; "Neskatoen Eziketa", (1687).

Andik urte betera atera zuan apaizketari buruz, "Ministère des Pasteurs"; "Artzaien Eginketa", eta bost urte geroago bere lenen filosofiadazkia: "Refutation du Système de Malebranche", "Malebranche'ren Pentsabideen Aurka".

Urduritasun larria eta iskamil aundiak sortu ziran ugonoteen artean XIV Koldobika'k "Nantes'ko Erabakia" ezabatu zuanean' Fene-

ria" auzoko Frantzi'ra. Baiña, emen, eraspenkeriak, izakera biguiña goa, garbiagoa, zuzenagoa artu zuan'

Frantzi'n emakume batek, Jonne de la Motte Guyon alargunak, eman zion bere idazkietan izakera berri ori. Emakume ona zan; gaztetatik otoitzean saiatua; ogeitazortzi urte zitularik alargun gelditu zanez gero, agian, burutik zertxo bat naasia. Bein baiño geiagotan adierazi zizkioten Frantzi'ko elizgizonek, bere idaztietako okerrak, eta bein baiño geiagotan eskatu zuan berak, benetan, barkamena. Katoliko il zan 1717'an.

Guyon Andre onen lagun izan zan eraspenkeri goxo legun aren zabalkundean Lacombe apaiz barnabitarra. Jinebra'n ezagutu zuten alkar, an bait zegoan ordurako apaiza, eta, kalbindar izandako emakumezkoak katolikotasunean ezitzeko, uri artara ekarri bait zuan Andrea bertako gotzaiak.

Orduzkoro, batera egin zuten lan andreak eta apaizak, eta naiz bikote artan, itxuraz, Lacombe izan zuzendaria, bere semeak utzita buru-belarri mistikerian sarturik zebillen Guyon Andre gaztea izan zan egiazko gidaria.

Liburu bat argitaratu zigun emakume urduriak: "Moyen court et très facile de faire Oration": "Otoizketarako bide labur erreza" eta liburu orren bidez "La Religion du Pur Amour": "Maitasun Utsezko Erlijioa erakutsi nai izan zigun. Auxe duzu berriz erlijio errez eta xamur orren muiña:

Animak ez omen du ez zeruko guraririk ez infernuko bildurrik izan bear; maitasun utsez serbittu bear omen du Jainkoa; Ezer gura gabe, aratz egon omen beardu bere naimenak, Jainkoak ala nai ba'du, pozik infernura joateko ere prest.

Izkera au ez zan berria. Orixe bera zion Paris'ko Lorentzo kaputxindarrak, urte batzuk lenago: "egiazko maitasunak infernura joateko ere etsita egon bear zuala, Jaungoikoak ala nai ba'zuan". Ez zion iñork eragozpenik ipiñi, Sales'ko Frantzizko Doneak ain adiskide kuttun izan zuan mistikalari buruñurdun oni' Bai bait du, gaiñera, esakera orrek bere alderdi zuzena. Paul Doneák ere, Idazti Donean, bere erriaren alde, "anathema", "gaitzetsia", izateko gerturik zegoela, esan zuan bein.

Baiña amazpigarren mendean ez zeuden gauzak txantxetan ibiltzeko. Laister izan ziran Aita Lacombe eta Guyon Andrea, biak, espetxeratuak. Lacombe doakabea espetxean il zan, erotuta. Guyon Andrea, beste emakume ospetsu batek atera zuan illunpetik: Mantenon

eramateko. Orrela barruan kokatutako deabruak badu animaren naimena pekatura beartzeko almena eta baita zentzu guztiek pekatu ortan atsedean osoa artzera beartzeko aala ere. Baiña lasai egon daiteke anima jainkotiarra, naiz gusto osoarekin egiña izan pekatu ori, ez bait da bere pertsonaren egintza, naimenean eta zentzumenean kokatu zaion deabruarena baizik.

Mikel Molinos, aragoitarra, idazlerik bikaiñenetakoa da; ta izlari bezela ere yaoenetakoa omen zan. Balentzi'ko iñakitarraren ikastetxean egin zituan bere ikasketak. Alatagutziz, ifiakitarrak izan ziran aurrena bere aurka irten zitzaizkionak, batez ere Paul Segneri izlari ta errimixiolari bizkorra'

Garai artako jendeek ez zituzten aragoitarraren okerrak, ain be-reala ikusi' Zer zala-ta? Idazkerarik politenean dotore jantzirik eldu ziralako; bai noski, baiña baita Erroma'n eliz-gizon aundi asko Molinos'en adiski ziralako ere. Eta ez nolanaiko gizonak: Jon Palafox, Palermo'ko Goigotzai aragoitarra; Kepa Mateo Petrucci Kardenala; buruntza lagata Erroman bizi zan Kristiñe, Sueziko Erregiña; D'Estrées Kardenal frantziarra, Aitasantuaren aurrean XIV Koldobika'ren ordezkaria, eta, beste askoren artean, Odescalchi Kardenala, laister XI Iñozentzio izatera igoko zan Benedikto Odescalchi bera!

Baiña Molinos'ko Mikel'en erakusketak jarraitzen zituenen artean agertu ziran lizunkeri lotsagarr ek, iriki zituzten Elizako Agintarien begiak. Aurka irten zitzaion, gaiñera, orduantxe bertan Frantzi'ko "pietista" edo "eraspenezaleekin" asarre bizian zebillen Koldobika XIV'a, eta etsai mardulegia zuan ura! Ez dago esan bearrik D'Estrées Kardenalak ere laister eman ziola sasimistiko aragoitarrari bizkarra' Ain zuzen, Koldobika XIV'aren enbaxadari zalarik, D'Estrées izan zan Aitasantuari, —Molinos'en lagun izandako Odescalchi berari—, Molinos'ko Mikel'en dotriñaren gaitzespena eskatu ziona. 1687'an egin zuan Iñozentzio XI'ak ga tzesketa ori.

Ordurako Molinos gizagaixoak bazeramazkian bi urte Inkisizioaren espetxean itxirik. Aitasantu adiskide aren epaia jakitean, apalki egin zuan bere erruen aitorpena, erru aien danen barkapena ere eskatuaz. Espetxean bertan il zan, 1696'garren urtean'

Ez ziran berekin il, ain izkera atsegiñean jantzirik erakutsi zituan dotriñak. Itali'ko Iparraldean geienik zabaldu ziran, Beccarelli'ren bitartez eta au Benezi'ko Inkisizioaren aurrean errenditu zanean ere, bizirik jarraitu zuten Benezi'ko Errepublikaren lurretatik landa. Saboia'ko dukaterrian. Saboia'tik, berriz, errex igaro zan "eraspenke-

-detasun beroak Españ 'ko protestalariekin' Areago oraindik; "Alumbradas" edo "barren-argitu" aiek Toledo'n, Guadalajara'n, Salamanca'n eta Gaztela'ko beste txoko batzuetan zituzten batzarretatik sortu ziran Beteta, Kazalla eta beste aurren-orduko lutertar españiarrak. (Inkiszioak garbitu zituan danak, oi zuan azkartasunarekin).

Frantzi'n ere izan zan alper-egontzale mordoska bat baiño geiago, batez ere egoaldean, "Kataritarrek" indarra izan zuten lurraldeetan; eta Frantzi'ko Iraultza Nagusiararte bizirik iraun aal izan zuten' Iparreko alderdian Kepa Gerin'ek eman zion sortzea 1623'an alper-egonzaleen anaidi bati: "Les Gerinets" edo "Gerindarren" anaidiari, baiña gerindar auek 1635'garren urtean osoro desegiñak izan ziran.

Asko edo gutxi aldi guztietako eta lurralde danetako belarra du-gu Alper-Egonzalekeria.

Mistikeri nardats auen irakasle gurena Mikel Molinos españiarra izan genduan (1628-1696). Erroman'n egin zuan ospetsu bere izena, animen zuzendari lez, idazle legun onek. Eliz-gizon, lekaiame, teologilari, kristau-jende ikasia..., mota guztietako animak bazka zituan bere aolkuen janariz, eta bazituan bere alde kardenaI bat eta beste aundiki batzuk ere. Teologilari ezagunen baimenez sendotuta argitaratu zuan 1675'ean bere "Gula Espiritual" edo "Animaren Zuzenbidea".

Auxe da liburu orren mamia: Animaren izakerarik garaiena, Jaikotasunez beteta Jainkotasunean murgildurik bizitzea da. Edozein iritxi daiteke izakera garai ortara. Bidea "Kontenplazioa" da: "Jainkozko gauzak animaren begiekin "ikusit bezela" egitea; gogo-otcitzaren mailik garaiena.

Bein jainkotasunez jantzitako gizakumeak, Jainkoarekin egote ornez landa ez du beste ezertxorik bear, bere izatez osoro usturik eta Jainkoz beterik gelditzen bait da. Ez du ezer gura-bearrik, ez du ezer egin-bearrik, Jainkoa bera ari bait zaio anima-baitan. Gorputz-zigorketak, otoitzak, sakramentuak berak, ez dira beretzako; ezta mandamentuak ere; gizakumea, bere naimenez ustu danez gero, ez bait da pekatu egiteko gai. Gizakume orrek gurari edo igikunde okerrak bere-baitan sumatuko balitu ere, ez du pakerik galdu bear; ezta pekatuan jausiko balitz ere, "pekatu" ori ez bait litzake egiazko pekatu; ez litzake bā bere naimenaren barrendik sortua izango.

Au da, Molinos'tarraren aburuz, "pekatu ustezko" edo "pekatu ez diran" txarkeri oien iturburua:

Bein baiño geiagotan uzten dio Jaungoikoak deabruari anima jainkozkoaren adimenean eta naimenean kokatzen, anima ori apaltasunera

ERASPENKERI LIZUNA

Eraspen ustelak gizakumearen izakeran bertan ditu bere sustriak. Sustrai oiek siniskeria ta alperkeria dira. "Nik. gauzak egiteko, nekatu egin bear dut". "Jainkoa'k nekatu gabe egin dezazke". "Beraz, ni Jainkoaren lagun egiten ba'naiz, berak eginen ditu gauzak nere orde, nik ezer egin gabe". "Gaiñera, Jainkoa, aita maitetsu dalarik, bere maitasuna ta almena, beragan (Jainkoagan) uste osoa ipintzen duanari erakutsi naiean dago. Zer egin bear dut nik? Urne txikia gurasoen besoetan egon oi dan bezela, nere izate osoa bere adimen, naimen eta egin-men guztiekin, Jainkoa-baitan ipiñi..., ta" gozoki..., egon". Ortik deritzaie eraspenkerizale auei "Kietistak" edo "Egonzaleak"; "Alper-egonzaleak".

Baditu Budismoak eraspenkeri onen ttanttak, budatarrarentzat zoriona, luditik osoro urrundurik, naikeri guztiak burutik uxatuta, nork bere izate osoa, ezer egiteke, Jainkoa-baitan urtzea bait da.

Bazituan, ttantta oiek, Gnostikeriak ere, "pekatari-izateetik-iare" aitortzen bait zuan "gnosis" zeritzan "goitiko jakintza" artzera iristen zan gizakumea. (Kristautasunaren asierakoa dugu "gnostikeria", eta baita lentxeagokoa ere. Erro zarrak ditu beraz eraspenkeriak)

Izan zituan, ttantta oiek berak, gnostikeritik sortuta asko zabaldu zan "manikeismo" edo "manikeriak": "materia" edo "gorpuzkia" dan oro gaiztoa zala esaten zualako. eta ori esatean, —ezin kendua bait dugu gainetik gorputza—, pekatua ere kendu-eziña eta naitanaiezkoa dugula sinistarazten zualako, Ortik, "pekatua naitanaiezkoa ba'dugu, pekatuetaz arduratu gabe, salbamenerako beste bide bat billatzen saiatu bearke dugu" pentsatzera, oso pauso laburra dago.

Baditu, —ttantta oiek—, Protestalaritza edo ostelaritzak ere, Kai biñ'ek bere "Jainkoagandiko Predestinazioarekin" eta Luter'ek bere "sinismen-utsetiko-salbamenarekin" gizakumeek egin dezaketinari garrantzia kentzen zielako, naiz beraiek,— ez Kalbiñ'ek eta ez Luter'ek, orrelakorik nai izan ez.

Orregaitik noski, Españi'n "alumbrados" edo "barren-argituak" esan zitzaizen eraspenkeri-zale aiek, ain errez egin zituzten adiski

EuskoLatteriak Errege Katolikoan erregetzakoan' Gero, II Felipe` k laburtu zuan zerbait Aragoi'aren eskubidea, baiña bereizirik jarraitu zuten bi Latteriek: Gaztela'k eta Aragoi'ak' Eta orrela zeuden XII Iñozentzio'k II Karlos'eri Gaztelerrirako Errege bat eta Aragoi'arako beste bat izendatzeko asmoa burutik kendu zionean.

Asko ta asko saiatu zan Iñozentzio XII'a Eliz-gizonen biziera garbizarazten eta asko lagundu zion lan ortan Paul Segneri iñakitarrak, ausaz Elizak Itali'n izan duan izlaririk onenak.

Zarata aundia zegan ordurako sortaldeko mixioetako "rituen" iskamillak, eta iskamil ori baretzeko denborik gabe il zan Aitasantua. Ez zuan gai ontan begi zorrotzegirik izan, Inkisizioaren eskuetan utzi bait zuan auzia, esku okerretan baiki, ez bait zan Inkisizioa auzi naasi artan garbi ta argi ikusteko, bear bezala prestatu k egon zitekean epailaria.

Baiña beste gauza guztien gaindik Apaiza batez ere, eta Apaiz bi-kaiña izan zitzaizun bere bizitza osoan eta eriotzako orduan. Santuen modura il zan Jainkoari eta gizakumeei bere utsegiteen bakarpena eskatuaz. "Ez eizkidazute txepelkeri oiek oroitu, —erantzuten zien elertiarren eta jakintzaren arloan ludi ontan lortu zituan garaitzak aipatzen zizkienei—, une ontan ez eidazute orrelako txatxukeririk oroituarazi; alderantziz, egin eiezute Jainkoari otoitz, nitzaz erruki dedin".

Alperregontzailleen eta jantsenitarren arerio bizkor eta portitza izan zan, baiña, ala ere, ez zan Saint-Cyran'en gogorkeriaren kutsutik osoro libratu, antzerkiaren eta antzerkiegilleen aurka ari izan bait zan, kalonje baionatar arek Kristaudi guztira zabaldu zuan txorrotxkerixko giroari zagokion bezala. Izan ere, Europa guztian izan zan antzertia zigortua.

Errez ikusi daitezken akatsak dira, Bossuet'ek izan zituan akatsak. Alatagutziz, lan aundia egin zuan, eta asko zor dio Elizak. 1704'ean il zan, pakean, bizitza on eta dizdiratsu baten ondorean.

Baiña Bossuet eriotzera alderatzen ari zan urte aietan, ez zan Frantzi kezkarik aundienak sortzen zituan lurraldea; Espāni zan.

Espānietan, seme baten itxaropena galdua zegoan Karlos n'a erdi-ero gizagaixoa' Eta bere Jaurerriak Austritarren eta Borboitarren artean zatitzeko asmotan zebillen, bi sendiak bait zituan aideko' Iñozentzio Xil'ak kendu zion burutik asmo ori, eta Jaurerri guztietarako oiñordeko erregegai bat bakarria izendatzeko aolkua eman zion' Erregegai ori, Aitasantuaren lenen iritziz, Babiera'ko Printzipe Autalaria izan zitekean; gero ordea egokiagoa iruditu zitzaion Felipe Borboitarra, "Dauphin" edo Frantzi'ko erregegai illaren semea, XIV Koldobika'ren billoba.

Aitasantuaren aolkua jarraitu zuan II Karios'ek, Espānietako azken Errege Absburgetarrak. Ta, bein erregetzara iritxiz gero Felipe Borboitar onek egin bait zuan, Eusko-Laterrien Askatasuna ezereztu aurretik, Espāni'ren batasuna lortzeko ekintzarik aundiena Aragoi'ko Jaurerria ezereztuaz, XII Iñozentzio'ri zor diote espānizaleek Es^Pāni'ren batasuna.

Ori ulertu aal izateko, kendu dezagun burutik Espāni'ko batasuna Errege Katolikoek egin zutealaren ustea. Ori diote, eta ori esan dute, eta ori erakutsi dute ikastetxe guztietan beti espāniarrek, baiña ori gezurra da. Errege Katolikoek ez zuten ezer batu' Espānietako Jaurerri guztien Errege izan ziran berak, baiña ezerxo ere batzeke' Gaur, adibidez, Kanada, Australi, eta Inghlanderrria, naiz Erregiñ bat bera izan, Laterri iare eta bereziak diran bezala, ala izan ziran Gaztela, Aragoi eta

1626'garren urtean jaio zan Jakob Benigno Bossuet, ludiak izan duan izlaririk onenetakoa, eliz-iziarien eredu; bere il-predikuak batez ere mintziztiaren edestian, onenak izanen dira, noski' Iñakitarren artean ezi zan, aurreneko Errege Borboiaren ornenez "College de Navarre" zeritzaion ikastetxean' Amazazpi urte zituala asi omen zan elizkizunetan itzegiten. 1671'etik 1681'era "dauphin" edo "erregegaiaren" irakasle izan zan, eta onentzat idatzi zituan "Discours sur l'histoire universelle", "Edesti orokorratzaz mintzaldia"; "Traité de la connaissance de Dieu et de soi-même", "Jaungoikoa ta gure burua ezagutzeaz erakusketa"; "Politique tirée des probes paroles de l'écriture Sainte", "Idazti Done beraren itzetatik ateratako politikiztia".

Idazti Donearen mintzoera itzez-itz artuaz, teokrazi nabarmena erakusten digu, liburu ontan, Bossuet'ek. Bene-benetan uste izan zuan berak, Erregei Jainkoak erriaren bitartekotasunik gabe agintea ematen ziela.

1681'an izendatu zuan Koldobika XIV'ak, esker ona agertu naiean, Meaux'ko Gotzai; eta Artzai egokia izan zan Bossuet elizbarruti artan; zuzena, biotz-bera, eskuzabala, ardien ardura beti izan zuana.

Bere jokaerak uxatu zuan, agian, Frantzi'tik zisma baten arriskua. Koldobika XIV'ak "Nantes'ko Erabakia" deuseztu zuanean, asmo zintzoz lagundu zion Erregeari Frantzi'a ugonotetzaren aztarna guztietatik garbitzen' Indarkeriaren aldeko ote zan Bossuet? Bai eta ez. Elizari, dionez—, egiaren bitartez biotzak irabaztea omen dagokio; indarkeria, bearrezkoa ba'da, Laterriaren eginkizuna omen da. 1869'an idatzi zuan "Histoire des variations des Eglises Protestantes", "Eliz Protestantarien aldakuntzen edestia". Idazki ontakoa da Bossuet'ek protestalaritzari aurpegira bota zion argumentu ospetsua: "Egia ez da aldatzen; zu, berriz, eten gabe aldatzen ari zera. Ez zera beraz, Egia."

Gizon aundia bait zan Bossuet'., eta aunditasunean edozeiñi errex burua zertxo bat aizatzen bait zaio.", barka dezaizkiogun Meaux'ko Gotzaiari, barkapena merezi du-ta, bere aundikerian izan zituari arroskeritxoaren aztarnak, eta Fenelon'en auzian agertu zuan berekoikeri ta bekaizkeritxoaren ondarra.

"Philosophe, orateur, historien, théologien, controversiste, politique, Bossuet fut le génie le plus vaste et le plus complet de son siècle" (Grand Larousse). "Filosofi, teologi, edestizti, baieztaketa, eta politikan, trebe zalarik, Bossuet izan zan denbora artako bururik narroena eta oparoena".

XII IÑOZENTZIO (1689.1691)

Napolitarra zan, denbora aietako beste Aitasantuek bezala, aundikien semea. Bere izena, Antonio Pignatelli.

Bost illabete irauan zuan bere autaketak, ostera agintari katolikoek, batez ere Frantzi eta Españi'koek, aitasantugai guztiei eragozpena, ipintzen ibill ziralako' Jainkoari eskerrak, gizon zintzoa aukeratu zuten oraingoan kardenalek.

Iñozentzio XII'aren eginkizunik aipagarriena sendizalekeriari ("Romanun decet Pontificem", "Erroma'ko Aitasantuari egoki zaio" izendatu oi dan aginduaren bitartez), azkeneko aizkorakada ematea izan zan. Agindu orren xederik nabarienak autxek ziran: Konklabera sartzean Kardenal guztiak egin bear zuten, Aitasantu autatuak ba'ziran aideei kargurik edo dirurik ez emateko z ña. Baterenbategin zin ori betetzen ez ba'zuan, urrengo Aitasantua orrela eman ziran karguak kendu eta diruak itzuliaraztera beartua gelditzen zan. "Beartsu guztiak, eta beartsuak bakarrik, izan bear bait dute Aitasantuaren aide", zion Agindu arek'

Len ere izan ziran onen antzeko neurriak artu zituzten Aitasantuak, eta neurri oiekez ziran beinere Erroma'ko aundiki, salerosle, eta jende alperrentzat atsegiñak izan, ezta eliz-gizon askorentzat ere, jende-mota oiek Aitasantuen "nepotismus", edo "nepotekeriak" aideen artean banatzen zituan Elizako diruen kontura bizi bait ziran oparo. Ori bera, gertatu zan orain ere, baiña era zakarragoan apika, Iñozentzio XII'aren aginduak betirako sendikeriaren amaitza zekarrela ikusi bait zuan Erroma guztiak.

Aitasantutza paketsua izan zan berea. Berari jazo zitzaion galikanoismoaren bukaera ikusteko zoria; eta, berak gaitzetsi bait zituan gainera, Bossuet eta Koldobika XIV'aren gustora, Fenelon'en gogabideak, pakean bizi izan zan Frantzi'ko Erregearekin. Baita ere Leopoldo I'a Inperatorearekin; onengandik ere, enbaxalariaren geiegizko eskubide aien uztea lortu zuan bā'

Une ontantxe igo zan Europa guztian gaillurrera Bossuet'en izena.

zintzo eta egoki bakarra. Ori bera egin zuten Elizako lenengo Asaba Doneek: Erroma-eta-Grezi'ko kulturaz Ebangelioa jantzi: Kristok judutarren kulturaz jantzia eman zigun Ebangelioa, grezitar eta erromatar egin zuten, abangelio ori, katoliko danez, non-naitar egin bear dala ondo zekitelako. Orren antzeko zerbait egin zuan Donetomas Akinotarrak ere: Teologia indartzeko, sarkaldera iritxi berria zan Aristoteles'en filosofia erabili. Bâ..., orixe egin zuten bi iñakitar aiek Indi eta Txina'ko jakinduri zarrarekin.

Ricci ta Nobili'ren asmoen eragille bakarra, teologia ez baiña "taktika" izan zan; au da: Kristautasuna zabaltzeko "erarik" egokiena erabiltzea' Mixiolariak ziran aiek; ekintzara iraulitako gizonak; eta ekintza-gizonak taktikalari bear dute izan: "era" egokien asmazaille eta aukerazaille.

Mixiolariak, ekintzara beartutako gizonak, ederki jokatu ziran, aurkitu bait zuten lanerako "taktika" zuzena, "era" egokia. Teologilariek uts egin zuten, ekintzari ez baiño oldozketari jositako gizonak; pentsalariak' Ez bait zan auen artean iñor oartu "aituren" auzi artan taktika utsa baiño garrantzitsuagoa zan zerbait bazegoala' Auzi ura mixiotzaren "era" egoki bat bakarrik ez zala; Teologiaren atal mami-tsu bat ere bazala: Elizaren katolikotasun berberaren muiña zala. Izan ere, ortantxe bait dago katolikotasuna: kultura guztiak kristau egiteko gaitasunean.

Argikuntza-aroko Eliza, ordea, teologirik gabeko Eliza zan. Eliza bildurtia, gaiñera; baztar guztietan arriskua besterik ez zekusan Eliza. Eta, Sortaldeko "oituretan" ere, kristautasunaren garbitasunarentzat arriskua besterik ez zuan ikusi'

Teologilarien itxutasuna, Elizaren bildurra, jantsenikeriaren arra, Erlijioso-Anaidien arteko bekaizkeria, eta Kristaudibarruko politikeria", danak alkartu ziran Benedikto XIV'a "oiturea" gaitzespena egitera bultzatzeko.

"Oituren" aide ziardutenak, iñakitarrak ziran, eta iñakitar aiek, —jaiotzaz ez ba'ziran ere, legez beintzat bai—, "portugaldarrak" ziran danak Portugal'eko Erregeen "Zainketa" edo "Padroao"ren babesean lan zegitelako. Ortaz, errez asma dezakezu nortzuek izan ziran "oitura txinatarren" etsairik beroenak:

—Jantsenitarrak, lenen; (bai al zan bâ, iñor jantsenitarrak bezain garbizalerik? Bai al zan iñor iflungo "ritoei" eta "zirimoni" guztiei berak aiña gorroto zienik?. Bai al zan iñor iñakitarrak aiek aiña gorrotatzen zituanik?)

SORTALDEKO-ERLIJIO-OITUREN AUZIA

"Controversia de Ritibus Sinicis", "Txina'ko Oituren Eztabaida" esan oi zaio auzi oni Eliz-Edestian. Edo ta, "De Ritibus Malabaribus", "Malabar'ko Oiturena".

Ona (abur-laburki, eztabaida onen korapilloak:

1645: Oituren gaitzespina Erroma'n.

—1656: Oituren onespina Erroma'n bertan'

—1704: Oituren bigarren gaitzespina Erroma'n.

17/5: Irugarren gaitzespina (Aitasantuaren bulda baten bidez).

1742: Laugarren gaitzespina, eta auzi ortaz geiago mintzatze-ko debekua {XIV Benedikto'k)

1939: Oituren onespina (XII Pio'k)

* * *

Onatx orain, xeetasun geixagorekin, auzi beraren edestia: Gizadi berri baten erneztea izan zan Argikuntza-aroa. Ta ain aro garrantzi-tsuari, izenbat indar ez zuan galdu alperrik Elizak praille espaiarrek sortu ziguten zorigaiztoko iskamil ontan! Eztabaida ortan itxuturik ziardun bitartean, Sarkaldeko erridien gidaritza galdu zuan Elizak; eta, azkenean eztabaida ori oker amaitu zualako, Sorkaldeko erri zaarren kristautzea ere galdu zuan.

Ixkamillaren iturburu, Aita Nobili eta Aita Ricci dira, iñakitar auek, Indi'ra eta Txina'ra iritxi ziranean, lurralde aietako erlijioen eta gizabideen oiturak Kristau-liturgira sartu bait zituzten, oitura aiek berez ezaketen jentill-usai guttiz ustua eta garbitu ondorean.

Elizak denbora gutxian an egin zituan irabaziak ikusi ditugu; ori bait zan, zalantzarik gabe, jakituri bikain zaarreko bi Errialde zabal jendetsu aiek irabazteko bidea. Orixe zan, gaiñera, Elizak berak, bere katolikotasunagaitik, kristautze ura egiteko, erabilli zezakean bide

tuztenak, eta, arrezkero oitura aiek defenditzen jardun zutenak. Baiña orain, jantsenitarrak eta erregekerizale "argituak" ez ezê, Erregeak eta agintariak berak, eta baita gotzai asko eta Elizako beste Erljio-soen Anaidiak ere, batzuk, geiago eta besteak gutxiago, danak inakitarraren aurka zeuden' "Oiturak" gaitzestean, mundu guziaren uste ona irabazi nai ote zuan, Elizaren onerako, Aitasantu diplomazikoia?.

XIV Benedikto berari, —domingotarra izaki— inakitarrak ez zitzaizkion batere atsegin. Kontzientziapiko igikunderen batek, Lizan ote zuan gaitzeste ontan zer ikusirik'?

Alemaniko arazoeiburuz, XiV Benedikto'k onezagutu zuan jaioberria zan Prusi'ko Jaurreria, eta bera izan zan Prusi'ko Erregeari "Errege" deitu zion lenen-Aitasantua.

Edestilari ospetsu baten iritziz, XiV Benedikto txit ondo ikusia izan zan bere denborako bai katolikoan bai protestalarien artean, baiña bere baretasuna ez zala bein baiño geiagotan aultasunatik urrun ibilli, dirudi: "Was widely admired by contemporaries, both catholic and protestants; but his moderation perhaps too often bordered upon weakness".

Ez zituan Benedikto XIV'ak bi gauza ikusten' Lenengoa, orrela salbatzen zuan Eliza, ez zala munduaren Argi izan zitekean Eliz iare, bizkorra; eta bigarrena, ordurako, mendearen bigarren erdirako, Erregetza aiek, Monarki aiek, pipiak jorik zeudela, eta oiñarririk ustelena zirala, beren gaiñean Eliza sendotu nai izateko; betidanik, baiña batez ere Locke'ren erakusketak zabaldu ziranetik, oiñarririk bikaiñena EUzarentzat, erria zala, oso laister Errege ustel nardagarri aien aurka jei-kiko zan Erria! Baiña ori ez zezakean ikusi jatorri aundiko semea zan Aitasantu agureak. Ezta beste orduango Eliz-gizonek ere, Errege despotikariekin axaida-mami ziran Gotzai eta Kardenal aiek.

Benedikto XIV'a naimen onarekin ari izan zan beti' Orixe aitortu zuan beintzat eriotzako orduan, eta ez da zillegi iltzer dagon gizonaren esanik ez siñistea.

Bada beste gertakizun bat *ere*, Benedikto XIV'aren geiegizko diplomazikeria ederki adierazten diguna.

Aspaldikoa zan ordurako, jantsenkeria debekatzen zuan Klemente XI'aren "Unigenitus" Bulda, baiña ixkamilletan zebiltzan oraindik Frantzi'n bulda ura zala-ta. Espetxean sartzen bait zituan Paris'ko Parlamentuak Bulda ura onartu nai ez zutenei sakramentuak ukatzen zizkieten apaizak. Aitasantuari galdetu zitzaion apaizak punttu ortan zer egin bear zuten. Erantzun pertxenta eman zuan Benedikto XIV'ak: Jendearen aurrean, agirian, Bulda ukatzen zutenei sakramentuak ukatzeko; ez, ordea, ixillezko ukatzaille ziranei.

Ez ziran negarrez gelditu jantsenitarrak; "naiz ixillik" beren sinis-kerian jarraitzeko Aitasantuak baimena eman ziela uste izan bait zuten.

Gai batean bakarrik izan zan amorkaitza mundu guztiaren naikeriei amore ematen ibilli zan Benedikto XIV'a: mixio-lurretako "rituen" gaiean. Ortantxe bakarrik izan zan gogorra. Eta ortantxe bakarrik ez zuan gogorra izateko arrazoirik. Oso-osoan gaitzetsi zituan Indi eta Txina'ko "erlijio-oiturak", "rituak". Zergaitik ote?

Frantzi'ko jantsenitarrak "oitura" aien etsai amorratuak ziran. Blas Paskal berak neurririk gabe astindu zituan "Sorkaldeko Elizaren zorne" zirala uste zuan "oitura paganitar" aiek' Aitasantuak berriz, (Frantzi'ko jantsenitarrak al zuan bezala "Erromaratu" naiean bait zebillen), oitura aien gaitzespenak ortarako bidea errextuko ziola uste izan zuan, agian.

"Oitura sorkaldetarrak" onartzea Josu-Lagundia onartzea aiña zan, iñakitarrak izan bait ziran "oitura" aiek Elizako liturgian sartu zi

zan ere legiztiberritzaille izan. Ezta, lengo Aitasantuak ez bezalako agintari irudimenkoia ere. Ontan izan du Elizak Benedikto XIV'a baiño Aitasantu jakintsuagorik.

A! "zaletasun gutxi zien iñakitarrei": "had little sympathy to je-suits" (B.E)

Elizaren Laterrietako Errege bezala, bai; lenen mailleko agintari tzat euki bearra da Benedikto XIV'a. Ekonomia, sendotu zuan, eta". zergak moztuaz sendotu ere!. Nekazaritza, bizkortu zuan, eta lan-mota orori lagundu zion. Epaiaketako erak eta oiturak, garbitu eta zu-zendu zituan. Ortaz gaiñera. gizakume atsegiña eta maitetsua zala esaten ba'dugu, errez ulertu aal izango du edozeiñek zergaitik bere erriak orrenbeste nai izan zion: Aitasanturik maitatuenetakoa izan bait zan.

Elizaren Artzai Nagusi bezala ere, egokia izan zan' Mixioetakoz landa bere lege guztiak lege ederrak izan ziran, idazkeraz apaiñak bezain sendoak mamiz eta muiñez. Bazituan inguruan idazle yayoak, baiña bera bait zan yayoena, berak, bere erara, idatziak izan zirala lege aiek danak, diote edestilariak; eta, benetan, lege, bulda eta beste idazki aiek, latiñezko elertiaren eredu dira danak.

Benedikto XIV'aren utsuneak Eliza eta Laterrien arteko politikaren ariokoak dira. Ez zuan kemenik, ez zuan azkortasunik; ez zuan ez-tabaidetarako gogorik ere' Agintarien adiskidetasunik ez galtzarren, errez, errezegi, makurtu zuan danen aurrean burua. Izugarrizko esku-bideak eman zizkien, Elizaren barruan atzaparrak sartzeko, Austri'ko Mari Terese'ri, Zerdeña'ko Karlos-Imanol III'ari, Napoles eta Sizili'ko Fernando IV'ari, Frantzi'ko Koldobika XV'ari eta Españi'ko Karlos lil'ari.

Eta gaitz-erdi, Elizako diruetan eskua sartu nai zuten aiña sartzeko baimena besterik eman ez balie' Elizaren bizitza bera ere, Laterri bakoitzean, bertako agintarien naikundearen azpian utzi bait zuan.

,Zer billatzen ote zuan, ori egitean, Aitasantuak? Erregeen la-guntza, aurrena. Ikusten zuan bā Erroma'koEliza-ganako gorrotoa azitzen ari zala. Gero ta geiago erregekerizaleak zirala Erregeen jau-regietako aolkulariak, lege-gizonak eta jaurlariak, aristokrakziko jaun-txoak, eta auen itzalean bizi ziran "filosofi-zaleak", eta gotzaiak berberak!... Bazan, baiki, zismaren arriskua. Bā, fedezko egietaz landa amore emanaz, Erregeen naimen ona irabazi nai zuan Aitasantuak, Errege aien laguntzarekin erregekeria zismatik libratu aal izateko, eta orrela Elizaren batasuna eta osotasuna salbatzeko.

XIV BENEDIKTO **(1740.1758)**

Sei illabete iraun zuan Aitasantu au autatu zuan "konklabeak"; Sarkaldeko zisma ezkerero, Elizak izan duan "Giltzapeko Batzarrarik" luzeena izan bait zan bera. Austri, Frantzi, Espāni, Portugal, Zerdeña'ko Jaurerria, Napoles'koa, Toskana'ko Dukaterria, Benezi'ko Errepublika..' —eta nor ez?—, an ziran Laterri katoliko guztiak, beren kardsnal morroien bitartez, ia "giltzapekotasunik" batere izan ez zuan Batzar samingarri artan, bakoitza bere gustoko Aitasantua aukeratuarazi naiean.

Kardenalek ez zekiten zer bidetik jo. Batzuek, Laterri guztien zi-pozkerien gaindik Aitasantu zorrotz eta bizkor bat nai zuten; Elizaren eskubideak tinko zaindu zezazkean Aitasantu jator bat. Beste batzuek bildur zioten orrelako Aitasantu bateri; Erregeei gogorkeri geiegirekin aurpegi ematen ba'zien, Erregeak asarretuko zirala, eta asarre ortatik Elizari onura baiño kalte geiago etorriko zitzaiola uste bait zuten. Orregaitik Aitasantu politikari yayo baten zale ziran; geiegizko amore-rik eman gabe, Erregeekin pakean konpondu zitekean Aitasantu baten zale'

225 autarkiemate egin ziran "Giltzapeko Batzar" artan. Eta autarki ematen jarraituren zuten, noski, oraindik kardenalek, auetako batek, Prospero Lambertini, umore gozoko kardenal bolonitarrak, ain bere zituan ateraldi aietako bat izan ez balu: "Entzun: —esan zien kardenal konklabekidei—, Santu bat nai ba'duzute, artu'zazute Gotti; politikari bat nai ba'duzute, Aldobandi; baiña patxada ederreko agure on bat nai ba'duzute, artu nazazute ni". Entzuna..., ta erantzuna. Bera aukeratu zuten kardenalek Aitasantu.

Ez zan nolanaiko gizona. Beste orduango Aitasantuak bezala, aristokrazikumea. Pakezalea, liburuzale porrokatua, idazle yayoa, asko-jakiña. Badira Elizak izan duan Aitasanturk jakintsuena izan zala diotenak ere. Eta baliteke ala izatea, "jakintsu" itzarekin "asko irakurri zuan gizona eta asko zekiana" zala adierazi nai ba'digute. Ez ordea itz orrek "jakintza-egille", edo "jakintza-bizkortzaille", "jakintza-rentzat bide berrien edo era berrien asmatzaille" esan nai ba'du. Ez

tauek oben astunera jausten dira, eta ez zaie Jauna artzerik zillegi"
(A.A.S. 26-XI-83).

Masoikeri biurri ori beti izan da oso zati txiki bat masoitzaren sendian; bereala izan zan senditik kanpo bidalia, eta beti aparte bizi izan da. Maso zismatiko oiek emeretzigarren mendean Frantzi'ko "Grand Orient" edo "Sortalde Nagusia" izeneko Bazkuna eratu zuten; eta Bazkun orren esanera daudenak bezalakoak dirala beste masoi guztiak ere, uste izan dugu luzaroan: osoro sines-gabeak; Frantzi'ko "Grand Orient" orrek, izan ere, "Arkitektu Gurenaren" fedeari ere uko egin bait zion masoitzaren altzotik eskomikatua izan zanean. Orrela sortu da katoliko idazleen buruetan "masoi jende-iltzaille eta eliz-kiskaltzailleen" irudia, eta "le complot maconique"ren ipuia: masoiz-tza, beti Eliza nola ondatu pentsatzen ari diran deabru batzuen bazkuna dalaren ustea.

Besterik da egia. Masoitarrek, ez ziran karriketako matxino biurri apaiz-jale basatiak; burgesiko jaun lasai potxoloak ziran. Egia da logietatik atera zirala Laterri Alkartuetako, Olanda'ko eta Frantzi'ko iraultza egin zuten gizonak, baiña ots!; Frantzi'ko matxinada odoltsuan masoiak, ez ziran Robespierre ta bere "jakobindarrak"!, "xiron-detarrak baizik!

Egiatzko masoitarrek ez dituzu oiulari ta porrokazailen artean enparantzetan aurkituko; gela paketsuetako soziologilari liburuzale burutsuen maillekoak dituzulako. Auen artekoa zan Voltaire bera, baiña ez zazula uste masoien eredu Voltaire zirisartzaille erretxindua izan zanik; ez orixe' Bestelakoak ziran masoien ereduak: Inghlanderriko Pope; Frantzi'ko Montesquieu, Mirabeau eta Talleyrand; Ameriketako Franklin eta Washington; Olanda'ko Schimmelppeenik...

Katolikoei asko pentsaarazi bear liguken gauza dala iduritzen zait onako auxe: Egiatzko kristautasunaren etsai bezala izan dirala masoitzaren etsai ere munduko diktadura zakar guztiak: Hitler'en Alemani'a, Stalin'en Errusi'a, Mussolini'ren Itali'a, eta'.. Franco'ren Españi'a.

Zorionez, aldatu da gai ontan Elizaren oldozkera, 1.974'ean Sinismeraren Kongregazioak iare laga bail die katolikoei, erlijioso edo apaizak ez ba'dira, Elizaren etsai ez diran logietara izena eman aal izatea.

Atal au idatzia izan ondorean, atzera egin du ostera Elizak, Ratzinger Kardenalak izenpetzen duan Aulki Donearen gutun baten bidez. Gutun orrek masoien artera sartzea debekatzen die zorrozki Kristau guztiei. "Christifideles qui associationibus massonicis nomen dant, in peccato gravi versantur et ad Sacram Communionem accedere non possunt", dio. "Masoierakundeei izena ematen dioten Kris-

arrazoia "argituaz" utsik gabe Pake betea berez eratuko zala sinestur k. Igikunde oiek danak Inlanderrian sortu ziran; Argikuntza bera ere Olanda'koa aiña bait da Inlanderriko landarea.

Pakearen atzetik zetorren Maso tza Berria ere' Inlanderriko emaitza, beste aiek bezela.

Ez ziran sinis-gabeak masoiak. Ain zuzen Sinismena zan anaigai guztiei eskatzen zitzairen lenengo baldintza: Izadiaren Egille dan Jaungoikoagan sinistea, gutxienez. Beren buruak Salomon'en Jauretzea eraiki zutenen oiñordeko, eta beren lagundia erdi-aroko argiñen anaidien jarraitzalle egiten zituztelako, "The Supreme Architect" deitzen zioten Jaungoikoari: "Arkitektu Gurena". Animaren ezilkortasuna, ere, masoi danak egitzat artu bear zuten gauza zan' Ortaz landa, lare ziran masoitar guztiak, bere Elizan jarraitzeko.

Logia batzuetan, ala ere, Biblia Idazki Deuntzat eukitzea, baita, eskatzen zuten masoiek. Ez bait ziran berdiñak logia guztiak. Aurrena, oiñarrizat zeukaten deismua bera bat eta berdiña ez zalako, 'filosofiazale' bakoitzak bere-gisako deismu berezia asmatu bait zuan, eta gero, zuzendarien jauntxokeriengaitik eta ango ta emengo politikara ezberdiñengaitik, masoitzaren altzoan zismak eta zatiketak berealaxe asi ziralako.

Sortu zan, zoritxarrez masoikeri mota zipotz bat ere katolikotasunarentzako gorrotoz betea' Uste gabean parte aundia izan zuten Klemente XII'ak eta Benedikto XIV'ak masoiketaren adar biurri orren sor-kundean, beren gaitzespen eta eskomikatzeekin masoidira bultza bait zituzten Elizaren etsai guztiak, eta Errege katoliko gogorkerizaleen etsaiak, Jaurerri katolikoetan Erregea ta Eliza gorputz bat, eta Erregearen politika ta Elizarena politika berdin, bat bakarra bezala agertzen ziralako, Erregearen etsai zana Elizaren etsai biurtzen bait zan. Eta "ezkertiar" auek danak masoikerira jo zuten; eta an, masoikeriaren altzoan, laister eman zioten adar biurri oker arri sortzea.

Masoikeriaren adar beltz au Itali'n eta Españi'n zabaldu zan geienik, lurralderik "katolikoan" auek ziralako. Zoritxarrez masoiketaren zatitxo au bakarrik ipiñi izan zaie begien aurrean katolikoei, idazle eliz-zaintzaille guztiek zatitxo ortaz bakarrik jardun izan diralako. Izan ere! ain egoki zotorzkien masoi deabutar aiek gizadian eta Elizan bertan gerta zitezkean oker guztien erruak masoi aien lepora botatzekot Ez du oraindik Elizak bere erruak ikusten eta bere utsegiteak aitortzen ikasi. Ikasiko al du orain, —beti "aker ordezkari" baten billa ibill' gabe—, Jon XXIII'ak barkapena eskatzen erakutsi dion ezkeri'

Itali'n gertatu ziran gauzak beste modu batera. An ere, oso laister iriki zan aurreneko (ogia' Florentzi'n, ain zuzen. Baiña, Anaidi ez- ezagun aren sarrerak ikaratu egin zituan, beti agintaritzaz galtzeko bildurrez bizi izan ziran Itali'ko Jaun eta Agintaritzo txiki batzuk, eta masoikeriaren aurka jeiki ziran. Printzipeen bildur orrek eman zion aize Klemente XII'ari ere 1'734'eko Bulda masoizapaltzaille ura aldarrikatzeko. Geroztik ez da Masoiketa ta Elizaren artean konponketarik izan, gaur-gaur arte.

"Masoitarren eta Katolikoaren arteko aierkunde luzeak iturburu bat besterik ez du: Batak bestea ondo ezagutu ez izatea", esan du orain-txe bertan (1.976'aren udaberrian) New-York'eko Goigotzai Terentzio Cooke Kardenalak, Ipar Ameriketako masoitarren Batzar Nagusi batean. Itxuraz, aspaldikoa da goigotzaiak aipatutako "alkar ez ezagutze" ori; Klemente XII'aren denboratikoa. Ikus dezagun, bâ, nolakoa dan masoitzaren barruko muiña.

Muin ori, giro-giroko zitua izan zala ukatzerik ez dago. 1713'an amaitu zan, Europa guztia sutan ipiñi ondorean, Españi'ko Erregetzaren Jarraipen-guda: "La Guerra de Sucesión". Ez zan guda ura erlijiozko arrazoiengaitik egiña izan; il-berria zan Españietako li Karlos. Ta aren errege-aulkian, Absburg'etar bat edo Borboitar bat, nor ezarri, erabakitzeke izan zan egiña, eta Utrecht'eko pakearen bitartez amaitu zan' Baiñan Utrecht'eko pakeegilleek, —gudu amaitu-berri aren gainetik—, oraindik aantzi gabe zegoan beste gudu ikaragarriago bat zeukaten buruan: Ogeitamar Urteko Gudua.

Iru izan ziran, Utrecht'eko Billeran politikari garaienak: Frantzi'ko Fleury Kardenala, Olanda'ko Sligelandt, eta Inghlanderriko Walpole. Eta auxe izan zan iruen asmoa: andik aurrera guduari betirako uko egin-da, Laterriaren arteko eztabaidak konpontzeko diplomazi utsa erabiltzea. Gudaren posibilitate oro ezabatu nai zuten.

Europa guztira zabaldu zan pakezaletasun au, baiña inglanderri- ra batez ere; Oliberio Cromwell'en denboratik egiatzko pakerik izan ez zuan Inghlanderrira.

Oroi dezagun, (ortu-eziña zirudin pake ori erakartzeko borroketaz nazkatuta asmatu zuala Hobbes'ek despotikeriaren defentsa, pakea ezartzeko zigorra beste biderik aurki ez zitekealaren ustean; eta baita Locke'k ere bere demokrazia; Locke'k pakearen arriskurik aundiena erregeen arrokerian ikusten bait zuan. Ala asmatu zuten Cherbury'k, Toland'ek, eta Tiland'ek, deismua ere, auen iritziz, Eliz Kristauak gorrotoiturri biurtu bait ziran. Oroi dezagun pakearen billa etorri zala "Argikuntza" osoa, IzadiLegezko filosofiaren bitartez gizakumeen

zaren lege biurtu Erregeari "atsegiñak" ez ba'zitzaizkion. Erregeak ikusi, eta Erregeak atsegin zitzaizkiola esan arte, ez zitezkean irakurri ere. Orexegaitik, Erregeei atsegiña izan ez zitzaielako gelditu zan in-darrik gabe Klemente XII'ak erran eta Benedikto XIV'ak bir-eman zuan masoitzaren aurkako bulda. Orixe gertatu zitzaien gero Aitasantuek emandako agindu guztiei ere: Ezer ezean gelditu zirala, Erregeen "Placet" orren faltaz.

Galliera Klemente XII'aren eta Benedikto XIV'aren buldek ez zuten sendoegia beren mamia; Iru arrazoi ipintzen zituzten masoiketa eskomikatzeko: Logietan erabillitakoa ixillik gordetzeko egiten zan ziña; Logietako batzarretan erlijiomota guztietako jendeak naasian biltzea; logiek katolikotasunari egin zezaiokeen kaltea.

Ez zuten ordea Europa'ko elizgizonek orrelako akatsik masoike-rian aurkitzen. Aien iritziz masoitzaz ez zan katolikotasunaren etsai; sinispide guztietako borondate oneko gizonak pakea lortzearren alkar-billatzea, eliz-gizon aiek berak nai zuten gauza zan; eta zerbait ixillik gordetzea utsa inork dezake debekatu, ortan iñorenetzat okerrik ez ba'dago?.

Emezortzigarren mende guztian elizgizon katoliko asko izan ziran rnasoitarrak, batere animeko kezkarik gabe, Olanda'n, Alemani'n, In-glanderrian, Frantzi'n, Belxika'n; Kristaudi guztian: Apaizak, gotzaiak. eta agian kardenal bateren bat ere bai' Eliz protestalarietan, gotzai ta beste animeko guraso masoitarrak eundaka zirala esan bearril; ere ez dago'

Aipatu ditzagun, argigarri dira-ta, onako punttu auek:

—Frantzi'n, 1.770'ean 6.000 baiño geiago ziran irikirik zeuden !ogiak, Elizaren aldetik batere eragozpenik gabe. Areago oraindik: !ogia oietako buruzagiak uri askotan gotzaiak berak ziran; masoitar bat ii tzen zanean, bere "senideak" zintzo ateratzen zizkieten oiturakoak ziran mezak, eta masoitzaz-baitan zituzten graduen ikurrekin joaten ziran elizkizunera.

Belxika'n Lieja'k iru Gotzai izan zituan XVIII mendearen azkeneko 28 urteetan. Irurak masoiak izan zirala dirudi.

—Argikuntza ondo eldurik zegoan urteetan, 1.780'aren inguruan, zenbatu eziñ aiña zirala, ematen du, masoiketan sarturik zeuden apaizak; eta, apaizen artean, baita gotzaiak ere poliki.

—Jaurerri katolikoetan ez ezê, gotzaiak berak printzipe ziran Alemani'ko gotzaigo-laterrietan ere, ugari ziran, pake ta lasaitasun osoan, masoitarren !ogiak.

eta mixteriozko lainoa arrazoiaren dizdiraz "argitutako" gizon sendo aientzat iñoiz baiño kilikagarriagoak ziralako, jostaketarako besterik ez ba'zan ere. Gizakumearen sikologia beti berdiña izaki: izkutu-zale; mixterio-gose; ameskoi; erdiume. SEz ziran bâ zirikagarriak masoien graduak, eta, jostalluen antzera politak, batzarkideen mantalak eta lo-gietako ikurrak?'

—Eta batez ere, Masoitza Berriak, Argintza Zarraren alkar-maitasuna, batak besteari laguntzeko leia, eta alkarrenganako eraspenaren zaletasuna, ederki eta osoosoan jaso zitualako.

Aize auek danak bultza-ta, bizkor edatu zàn Kristaudian Masoitza.

Ingländerrian bertan aurrena, eta berealaxe Ingländerriko kolonietan ere' Geldixeago, baiña naiko ugari, Eskozi'n eta Irlanda'n. 1.721'ean baziran logiak Dunkerke'n; 1.725'ean Paris'en; 1.728'an Madriden; 1.730'ean Kalkuta'n eta Boston'en. Egia esateko, Ipar-Ameriketako kolonietan masoitarren batzokiak izan ziran jakintza-lanen, adimen-bizitzaren, politika-asmoen eta soziologi-ekintzen kabi eta babes bakarrak.

1.738'tik 1.750'era, Estokolmo'tik asi ta Lisboa'raiño. Europa guztian edatu zan, ia eragozpenik gabe, masoiketa berriaren Anaidia.

Ia eragozpenik gabe. Izan bait zan masoikeria zapaldu nai izan zuan Laterri bat. Zeiñ eta Olanda, gaiñera!. Probintzi Alkartuen Batzar Nagusiak erabat debekatu zuan, —Eliza kalbindarra'ren Sinodoak artara bultzata—, masoikeri ororen ezartzea. Ordurako Olanda'ko kalbintasunean deismoa sartzen asia zan-da, ortik zetorkion arriskuaren bildurrak igitu zuan kalbindarren Sinodoa, deismu-zale zan masoitza debekatzera.

Ez zuan debekatu orrek ezer askorik lortu' Laister, Logia sortu-berri ugarien batzarkide izanen ziran Olanda'ko gizonik jakintsuene-tatik asko; eta "artzai" kalbindarrak! eta baita Probintzi Alkartuen Statuder edo Lendakaria bera ere!!!.

Olanda'ko kalbindarren Sinodoak baiño gogorrago eraso zion masoiketari Erroma'ko Eliza katolikoak, batez ere Klemente XII'aren eskomika ezkerko, baiña ondorio geiegirik gabe onek ere, Errege kato-li koek Aitasantuen agindu ta erabakiei "Placet" esan oi zitzaion "pui pituetatik edo beste edozein tokitik erakutsia izateko baimena" ukatu zielako. "Placet" ori zan erregekeriaren izkillurik garrantzitsuena: Itzak, "atsegiña da" esan nai du. Aitasantuen lege eta aginduak, edo aolku utsak, ez zitezkean Laterri baten altzoan, Españi'n adibidez, Eli-

Anaidiak berak sortu ziran bezala sortu ziran ia uste gabean anaidien arauak ere. Eta billeretan, beren langintzako eskubideak babes-teko erabakitzen zutena, ixillean gordetzen zuten bezala, laister asi ziran anaidien arauak ere, gero eta geiago, ixillean gordetzen. Zertarako? Eskubide aiek obeki babesteko lendabizi, bai noski; baiña baita ixiltasunak ematen duan mixterioz beren buruak apaintzeko ere.

Kristauak ziran erdiaroko "Franc-macons", "Freemason" edo "Areargin" aiek danak, eta artu zuten Masoitzarentzat santu zaindari bata: Donibane Batailaria. Baziran ipuizale ere, erdiaroko semei dagokienez, eta asmatu zituzten kondaira pinpiriñak, beren langintzari iturburu aundikiak eman naiean' Salomon Erregearen-ganaño igo ziran kixazko jatorribilla. Salomon'ek Jerusalem'go Jauretxea eraikitze-ko bildu zituan argiñek sortu omen zuten, Salomon beraren itzalpean, Argiñen Anaidia: Masoitza.

Masoitza berriaren aurreneko logia Londres'en iriki zan, 1717'ko garagarrillaren 24'ean: Donibane Batailariaren egunean' Erdi-aroko Areargin aien Anaidiaren jarraille izan nai zuan, eta Anaidi aren izena artu zuan: Freemasonry, eta anaidi aietako beargiñen graduak: ikasle, ofizial, maixu, maixu nagusi; eta baita anaidi aren zaindaria ere: Donibane Batailaria. Gauza bat ez zuan artu anaidi zâr artatik: Sinispidea; kristautasuna. Masoitza berria deista bait zan.

Arin, errez. eta asko, zabaldu zan Masoitza Europa'n eta Ipar-Ameriketari. Zergaitik?.

—Argikuntzako "Filosofizaleen" artean deisrnoa modan zegoalako. Arrazoiketa utsetiko erlijio billuzia bait zan deismo ura.

—"Ogeitamar urteko Guduan" Elizen arteko borrokak porrokatu-tako pakea birrezartzeko, ArrazoiUtsezkoSinispide ori bide egokia, eta agian, bide bakarra zala uste zutelako Filosofi-zale aiek. Siniste orl, IzadiLegea bera dalarik, nai ta naiez onartu bear bait dute Eliz danek eta erlijio guztiak. Ori bera pentsatu zuan askoz lénago Ugo Grozio'k berak: IzadiLegea bakarrik zitekeala gizadi osoak, gizarteko bitzita antolatze-ko, onartu zezakean Arau Nagusia.

—Argikuntzakoan jendeari "akademiak", "billerak", "bazkunak", lagundi-mota guztiak, txit atsegin zitzaizkiolako. Bear bait zituan gizon "argituak", batzarre eta anaidi aiek, Arrazoi-Utsaren Erreiñu otzetik, gizakumeak ain kuttun duan lagunarte berora jeisteko. Orixe eskeintzen zion berriz Masoitzak bere Logietan: iñon baiño anaiarte goxogoa.

—Argikuntzako "adimenkeriaren" erdian Masoiketaren ixilkeria

MASOITZA

Emezortzigarren mendeko landarea da masoitasuna, Ingalde-
rrian, sortua. "Mason" itzak "argiña" esan nai du inglanderaz. Fran-
tzi'n, "franc-macons" deitu oi diete masoei; eta Ingalderrian "Free-
masons" ere bai. Bi itzak gauza bera adierazi nai dute: "Are-
-arria lantzen duan argiña"; inglanderazko "freestone", "are-arria"
bait da euskeraz.

Sustrai zarrak dituzte itz oiek danak; erdiarokoak. Maiz aipatzen
da garai artako langillen artean, onuragarriena bezala, katedraletan
are-arrak landu oi zituan argiña: "Magister latomus liberarum petra-
rum"; "Sulptor lapidum liberorum", edo "metre mason de franche
peer" frantziara zaarreen. Erdi-aroko latiniak ere are-arriari "petra libe-
ra" edo "lapis liber" deitzen zion.

Bene-benetan ziran kosmopolitak, nun-naitarrak, erdiaroko "ma-
gistri latomi liberarum petrarum" edo "maixu arearrilantzaille" aiek.
Uriz-uri ta erriz-erri ibili oi ziran. katedraletan, lekaidetxetan edo parro-
kietan, lanean. Bazter guztietatik etorriak, langintza berak alkartzen
zituan toki batean, ango lanak amaitu arte' Borgoña'koak eta Lonbar-
di'koak, germaniarrak eta normanditarrak, edo Bizantzio'tik etorriak,
lan berak adiskide egiten zituan danak, eta adiskide baiño geiago ere,
Anai. Ez zekian senide oietatik iñortxok nongo lurralde urrutietan bi-
zia utzi zezakean; ez zekian ere urrengo urtean bertan nun eta zer
anaiekin lanean ari zitekean. Gauza bat zekian ziur: nun-nai ere, argi
ñen artean aurkituko zala, "anaien" artean, "Argintza", "Masonry",
"Masoitza", anaidi aundi bat zalako.

Ez arian bezela sortu zituzten, poliki, urteen luzaroan, argiñek be-
rak, anaidi txikiagoak Anaidi aundi zabal aren altzoan, lanean ari ziran
toki bakoitzean, beren eskubideak zaintzeko eta opor-aldiak alaiki pa-
satzeko. Lan-tokian bertan, bizitzeko eraiki oi zituzten bordetan egiten
zituzten billerak. Borda oiei "Iogia" deitu oi zioten; "logge" Ingalde-
rrian. Lotegi, jan-gela, dantza-leku, eta batzoki, oro ziran logia aiek
unean uneak zer eska.

santua ere. Baiña eskomikatze orokor au arintxoegi eta masoitarren bizimoduaren ezaguera geiegikoarik gabe egiña izan zan, apika. Az-tertu dezagun, orregaitik, beti misteriozko laiñoz inguraturik ikusi izan dugun masoikeriaren edestia.

santuari aur onentzako' Ez zebillen oker Borboia, Toledo ta Sebilla Kristaudiko elizbarrutirik aberatsenetakoak bait ziran. Klemente XII'ak ez zion goigotzaigorik eman, baiña bai bi elizbarruti aien administraketa; eta baita kardenaltza ere. Ots!: Sebilla'ko Elizbarrutiaren errentak urtean 1.000.000 erreal ziran, eta Toledo'koarenak..., 3.500.000!. Arrazoiez deitzen die, iru milloi ta erdi auei, garai artako ekonomilari batek: "Fabulosa opulencia": "ipuietakoa dirudin dirugainka"

Urteko lau milloi t'erdi, eta, —okerragoa dana—, kardenaltza 6 urteko urne bateri!: Baduala Elizak zertaz Jainkoari barkapena eskatu!

1.737'an Klemente XII'ak eta Felipe V'ak egin zuten konkordatoak ez zuan iñor gustora laga. Ez Aitasantua, ez Erregea' Arri, konkordatoan Erregeari emandako eskubideak aundiegiak iruditzen zitzaizkion: oni, berriz. txikiegiak.

Izan zituan, ala ere, Klemente XII'ak pozaldi gozoak Españi'ren ai detik. Ala, Felipe V'aren gudarozteek Oran eta bere inguruak artu ondorean mezkita guztiak eliz biurtu zituztela jakin zuanean.

Ori baiño garbiagoa izan zuan Ejito'tik etorri zitzaion albistea: Alexandri'ko Patriarka koptiarraren katoliko biurtzea. Amar milla Kristau itzuli ziran Patriarkarekin batean Erroma'ko Elizaren batasunera.

Sortaldeko Kristautasunaren arloan. Aitasantu onek, bi Seminario eraiki zituan grezitarrentzat Itali'ko egoaldean. Baitare. izan zuan mixioetarako ardura, eta berak bidali zituan Tibet'era mixiolari buruñurdunak.

Klemente XII'aren errurik aundiena, izatekotan, illoba Neri Corsini Kardenal egitea eta illoba oni Elizaren Jaurlaritza ematea izan zan. Norbaitek, jokaera oni sendikeri esan nai ba'dio ere, erru au "erru" atsegingarria atera zala aitortubearrean arkituko da norbait ori. Neri Corsini gizon ona, jakintzen maitale sutsua, eta jakintsuen laguntzailie zintzoa atera zalako' Baita Jaurleri egokia ere. Egokia ta zugarra. Ederki erabilli zuan Elizaren Laterrietako ekonomia' Orrela, 1.735'garren urteko krisi ikaragarrian gauza guztiak neurririk gabe garestitu, eta erria txanponik gabe gelditu zanean, irureun milla urrezko ezkutui, banatu aal izan zituan Aitasantuak bere erreñuko jende xearen artean.

Egiatzko samintasunarekin egin zuan negar erriak Klemente XII'a il zanean'

Klemente XII'a izan zan Masoitza aurrena eskomikatu zuan Aita-

au aitasantutzarako aukeratu zutenean. Amar urte iraun zuan Aulki Donean, eta amar aietatik azkeneko zortziak zearo itxuturik, ta azken-azkeneko lauak ogetik jeiki ere gabe ta oroimena galduta! Bestela ere ez zirudian Aitasantua izateko oso pertsona egokia: Florentzi'ko banku-gizon aberats baten semea, ederki bizitzen oitua, animen zainketarako baiño geiago finantzetarako ezia. Ez noski bizitza burgesikoi atsegiñaren etsaia.

Ala ta guztiz, ez zan Lorentzo Corsini, esan dugun bezela, Aitasantu makurra irten' Ez orixe!

la larogei urte bazituan, (1652'ean jaio zan-da), Kepa Donearen Aulkian eseri zanean. Erroma'ko Errege bezala, ederki jokatu zuan. Bere aginduz era-berritu zan, Quirini jakintsuaren arduraz, Bati-kan'eko Biblioteka; Berak agindu zion Salvi arkitektoari "Fontana de Trevi" esan oi zaion iturri ospetsua; eta, beste arkitekto bikain bati, Galilei aipatuari, Lateran'go Jauretxearen aurreko ormaren birreraikitzea. Eraiki zuan Erroma'ko arkeologiaren pitxientzat ikustoki edo museo bat ere: eta justiziaren aide lan egiten, erru gabea izan zan.

Gogor ekin zion erregekeriari' Izan ere bere gaillurrean zegoan orduan erregekeria; "iguingarri, ia erokeriraiño iritxia" enbaxadari baten iritiz'

Benedikto XIII'ak Zerdeña'ri emandako konkordatoa balio gabea zala epaitu zuan, XII Klemente onek, kardenalen bazkun bati iritzia eskatu ondorean; Balio gabea..., maltzurkeriz eta dirua bitarteko zala aterea izan zalako' Asarretu zitzaion, orain Zerdeña'ko Errege zan Karlos Imanol III'a, eta kendu zion Erroma'tik bere enbaxadaria. Ez zuan Klemente XII'ak atzerakadarik egin.

Konkordato aren egille Coscia izan zan' Arrapatu zuten au, azkenean, eta Aitasantuak Santangelo'ko gatzeluan itxi zuan. Klemente XII'a il zanean atera zan andik, eta amabost urte geroago amaitu zituan bere egunak Napoles'en, Klemente XIV'ak zionez, "urrez zamaturik. baiña erri guztiaren erdeñuz zanpaturik".

España'ko Borboiak ere eman zion naiko neke Aitasantu oneri. V Felipe zan Borboi ura, ta 1'732'an Karlos bere semea bidali zuan Itali'ra Parma eta Piazenta'ko Dukaterriak artzera' Len esan dugun lez, Aitasantuaren feudo-lur ziran bi Laterri aiek, baiñan oraingoan ere Aitasantuaren eskubideei jaramonik egin gabe artu zuan kur Karlos printzipeak Liborno'ko kaiean.

Bazituan seme geiago Felipe V'ak. Bat, sei urtekoa. Bi..., kardenaltza, eta Toledo'ko ta Sebilla'ko goigotzaigoak, eskatu zizkion Aita-

XII KLEMENTE (1730-1740)

Bost illabete iraun zuan Aitasantu au aukeratutzeko bildu zan "Konklabeak". Konklabe naspillatua, benetan, Errege ta Agintari Kristauek alkar artzera iristen ez ziralako. Bazirudian une batean, Bentivoglio kardenalak autapen guztiak bilduko zituala, baiña España'k eragotzi zion aitasantutza. Ez zuan Davia'k ere Laterri guztien uste-onik irabazi. Ezta Corradini'k ere. Azkenean, Lorentzo Corsini, Florentzi'ko sendi aberats baten semea, izan zan aukeratua. Itz auek esan omen zizkion, Konklabean etsai bortitza izan zuan Davia Kardenalak, azkenean, ez oso gogo onez bere baiezko autapena eman zionean: "Ecco le mie vendette"; "To nere apentza", "nere bengantza"

Inperatorearen alderdiko Kardenalak aurka izan zituan Aitasantu berriak; baiña, (Konklabe artan parte artu zuan Schönborn Kardenalak dionez), Medizitarren diruak legundu amen zizkion bideak. Florentzi-tarrak izaki, bai Medizitarrak, eta bai Lorentzo Corsini Aitasantu berria ere..! Danak, aiek eta au finantzetako munduan jaiok, gaiñera...!

Medizitarrak, orduan, Itali'ko eta agian mundu guztiko bankalari rik aberatsenak ziran' Florentzi'n zeukaten ezarria beren baku-ekintza osoaren buruzagitza. Florentzi ordea, aro artan, Aulki Donearen feudo-lur zan!, eta, orregaitik, medizistarrak berak Aitasantuaren mendeko ziran! Eta Aitasantuaren agintaritzapean, zegoan aien diru-ariketa guzia!. Bazuten beraz, kosta ala kosta Aitasantu adiskide bat aukeratuarazi nai izateko arrazoi mardulik naiko!

Beren naia lortzeko, ipiñi amen zituzten dantzan Paris'en Londres'en eta Olanda'n zituzten banku-etxeetako zuzendariak ere, diru-bitarte Jaurlaritzen onespina irabazteko; esku aundiegia, izaten zuten bâ garai artan Jaurlaritzek Aitasantuen autaketan.

Ez' Ez zan, Sctiönborn'ek diona egia bada, oso autaketa garbia izan Aitasantu onen autaketa. Ala ere Aitasantu ona izan zan Lorentzo Corsini, Klemente XII'a.

Orrelako gauzak ikustean, badu noski kristauak, Espiritu Santua tartean ez ba'lebil aspaldian Eliza pikutara joana zala pentsatzeko arrazoi galanta! Pentsa: Agure zaar-zaartua zegoan Lorentzo Corsini

batzuetan bakarrik ospatzen ziran ordurarte. Eta orduan, Kristaudi osora zabaldu zituan, lege baten bidez, Benedikto XIII'ak' Zearo asarretu zitzaizkion Erregeak. Frantzi'n, eta Inperio-lur guztietan, debekatu izan zan VII Gregorio Donearen pesta! Zergaitik? VII Gregorio'ren erakusketa eta jaureketa teokraziaren oiñarritzat eukiak izan diralako!

Larogeitabi urteko agure il zitzaigun, obeitzeko jaioa zan eta agintzea jazo zitzaion XIII Benedikto santu ura. Praille domingotarrez jantzirik ibilli omen zan beti; eta, naiz Aitasantu izan, domingotarren Zuzendari Nagusiari eskuan muin ematen omen zion apalki.

"Berez omen zan inakitarren etsaia": "naturally an opponent of the Jesuits". (Ency. Brit).

Argikuntza-arroaren azken-aldiko Aitasantu ia danak inakitarren etsai zergaitik izan ziran jakin naiko duzu. Ona emen erantzuna: ala izan ez ba'lira, Aitasantu izateko erregeeen onespenik jasoko ez zutelako.

Benedikto XIII'a il bezain laister izan ziran zigortuak Coscia eta beste Kuriako jaurlari makur guztiak' Coscia bera, amar urteko espetxera eta dirutza gogor bat pagatzera beartu nai izan zuten epailleek, baiña aurkitu zuan arek bere burua izkutatzeko modua. Ala ere, kendu zioten kardenaltza. Coscia'ren laguna zan Fini Kardenala. Oni, eta beste gotzaiei ere, kendu zizkieten Kurian izan zituzten kargu guztiak.

Coscia, Fini, eta beste gizon alu aiek egindako makurkerien jakiterik gabe il zan, pakean, Aitasantua.

Santua zan, bai noski, benetan santua XIII Benedikto; baiña, len ere ikusi aal izan dugun bezala, santutasuna bakarrik ez da naikoa Aitasantu ona izateko.

aspalditik iraulka zetorren erregekerizko oitura nabarmen bat: "Monarchia Sicula"ren, Eskubide-Sorta esan oi zitzaion oitura.

Eskubide ziralako aiek, Sizili'ko Erregea egiten zuten Sizili'ko Elizaren Jaun eta Jabe.

Maiz gaitzesi izan zituzten Aitasantuek, erdi-aroa ezker, oitura trakets aiek; balte, oraindik denbora asko ez zala XI Klemente'k berak ere Argikuntza-arogan bertan' Karlos VI Inperatoreak ordea, beretzat eskatzen zituan ostera Monarchia Sicula'ren "Eskubide" ziralako aiek, eta "Monarchia Sicula" aipatu ez gaiñerako guztia egiten zuan "Fideli" izeneko bulda baten bidez ia nai zuan guztia lortu zuan XIII Benedikto'rengand ik.

A! Ori bai! Salbatzen zituan bulda arek, —naiz paperetan bakarrik—, Aitasantuen eskubideak; an esaten zanez, Aitasantuaren izenean erabilliko bait zituan Karlos VI'ak, lortzen zituan almen guztiak. Aitasantuaren izenean, baiña berak nai zuana egiñaz!

Berdiñ-berdiña izan zan Benedikto XIII'ak Zerdeña'ko Biktor Amadeo II'arekin ibilli zuan auzia.

Orduantxe, 1720'ean osatu berria zan, ain zuzen, Zerdeña'ko Ugarteia eta Saboia'ko Dukaterria batuaz, Itali'ko edestian garrantzi aundia izango zuan Laterri berri bat; "Zerdeña'ko Erreiñua" esan zitzaion Laterri berri ari; eta ordurarte Saboia'ko Duke izandako Biktor-Amadeo II'ari eman zitzaion erregetza' Lendik ere bazan au erregekerizale portitza, baiña neurri guztien gaindik azi zitzaion zaletasun ura Errege izatera iritxi zanean, eta atera aal izan zizkion gura izan zituan eskubide danak XII Benedikto'ri onekin egin zuan konkordato baten bidez.

Adur txarra izan zuan Biktor-Amadeo gizagaixoak. 1730'ean Karlos-imanol bere semearen eskuetan utzi zuan Zerdeña'ko erregetza. Baiña..., —goxoa izaki nunbait agintaritzata—, berriro errege-aulkira igo naiean asi zan. Karlos Imanol'ek ordea katigu artu zuan aita urduri eziñ-egon ura, eta onde gorderik utzi zuan, askatasunik gabe, eskierki baitua.

Aitasantuen teokrazia berbiztu aal izateari erregeek zioten bildurra zegoen, neurri aundian, erregekeri guztien azpitik. Eta bildur ura zein aundia zan adierazteko, arras egokia deritzaigu orduango gertakizuntxo bat gogoratzea.

Erdiaroaren muiñean, Aitasantu egokia, Aitasantu bikaiña izan zan VII Gregorio Donea. Baiña naiz ain Santu aundia izan bera, aren "meza" eta "ofizio" edo "eliz-otoitza" Erroma'n eta beste elizbarruti

XIII BENEDIKTO (1724-1730)

Irurogeit'amabost urteko agurea zan Kepa Orsini, —Grabina'ko Dukeraren semea—, Aitasantu aukeratua izan zanean' Praille dominogotarra, adimenez txist argia, guztiro gizon ona, eta eraspenkoia, baiña agintaritzarako balio geiegirik gabea.

Berak ere ezagutzen zuala dirudi agintari izateko ez zuala balio, al zuan guztia egin bait zuan Kardenalek eskeintzen zioten Aitasantutza bere bizkarren gaiñetik kentzeko. Baita negar ere!; egin zuan negar Kardenal guztien aurrean.

Gazterik igo zan gora eliz-karguen mailladian: amasei urte zituan domingotarren anaidira sartu zanean; ogeit'iru Kardenal egin zuteanean, eta ogeitasei gogotzaitzara igo zanean'

Aitasantu egiñik, gizon jakintsua bait zan, bizkortu nai izan zituan aski loak arturik zeuden eliz-jakintzak, eta "Kongregazio" edo Bazkun berri bat antolatu zuan ortarako: "Seminarioen Bazkuna"; eta gizon santua ere bai bait zan, zintzo saiatu zan elizjendeen oirturak txukuntzen' Asmo orrekin bildu zuan Lateran-Jauregian Erroma'ko Elizbarrutiaren Kontzilio bat'

Erregekeria izan zuan XIII Benedikto'k bere Aitasantutaren arantza; batez ere VI Karlos Inperatorearen eta il Amadeo Zerdei'ia'ko Erregearen eliz-auzi guztietan esku-sartu-naia'

Ez zuan, Aitasantu gaixoak, bi agintari aiek sortutako naasketak era egokian askatzeko yayotasunik izan, esan dugunez ez bait zuan jaurtzarako ez trebetasunik ez bizkortasunik. Ballorik-eza orrek amildu zuan bere akatsik aundienera: Otoizketarako denborik naiko aurkitzearren jaurkintza sarriegi besteen eskuetan uztera. "Beste auek" berriz ez ziran beti eginkizun artan argiegiak irten' Eta aietako bat, Nikolas Coscia Kardenala, bere burua saltzeko gerturik zegoan gizakume ustela izan zan. Tamalez, Coscia doakabearen eskuetan egon zan Elizaren jaurketa XIII Benedikto'ren aitasantutzan. Ta.', ala irten ziran gauzak!

Itali'ko Egoaldean Karlos Vf Inpetarorea zan orduan Napoles eta Sizili'ko Errege. Bazuan, ain zuzen, Sizili'ko Jaularitzak bere edestian

—Ingländerriko arazoetan Estuardetarren alde jarri zan. II Jakob Estuardetarra Ingländerritik jaurtia izan zan ezkeru, aren erregetza bir-irabazi nai en zebillen bere semea, Jakob III'a, "The Old Pretender". Agindu zion Iñozentzio XIII'ak laguntza osoa, arek erregetza lortzen ba'zuan Ingländerria ostera Eliza Katolikora ekartzearen truke. Baiña ez zuan ark ezer lortu-ta, ezer lortu gabe gelditu zan Aitasantua ere.

Iñakitarreiburuzko arazoetan berriz, aien adiskide kaxkarra izan zan betita, Txina'n Lagundirako nobizio berriak artzea galerazi zien; eta Lagundia ezereztea ere oldoztu omen zuan, batzuek diotenez. Klemente XI'ak debekaturik utzita ondorean ere, eta naiz debeku ori jakin, Txina'n elizkizunetarako txinatarren oiturak erabilliaz jarraitzen zutela botatzen zien iñakitarrei aurpegira.

Iñakitarren etsaia zala uste zutelako, Jantsenio'ren erakuskitzuneekin ez zala aurreko Aitasantuek bezain gogorra izango pentsatu zuten Frantzi'ko jantsenitarrek, eta XI Klemente'ren "Unigenitus" bulda era ariñagoan bir-idazteko eskatu zioten, baiña tinko egon zan Aitasantua-ta, ez zuten beragandik ezertxo ere lortu.

Ezer geiagorik gabe il zitzaigun, irurogei ta bereratzi urterekin, beti biotz oneko gizona eta eraspen aundiko apaiza izan genduan Aitasantu ura'

Orleans'eko Dukearen irakasle aurrena, aolkulari eta laguntzaille gera, aren adiskide aundia izan zan beti.

Adiskide izan zuan XIV Koldobika Erregea ere. Erregeak adiskidetxo ura nolakoa ez zekiala uste izan zuten aundiki batzuek gizon ura "emakumezale, ardozale, eta jokuzale" zala esan omen zioten, eta Erregeak erantzun: "E bien! Adonné aux femmes, au vin et au jeu? Cela peut être, mais il ne s'attache pas, ne s'enivre, et ne perd jamais": ¿"Emakumezale, ardozale eta jokuzale dala? Baleike, baiña ez da iño-rekin lotzen, ez da beiñere mozkortzen eta ez du sekulan galtzen".

Jaurlaritzaren jabe zalarik, Gotzai eta KardenaI izatea gogoratu zitzaion. Gotzaitza bere adiskideak, Orleans'eko dukeak eman zetzaiokean, bera bait zan LaterriBuru, baiña Dubois'ek bere asmoa jakiñarazi zionean, "Zu Gotzai?, —erantzun omen zion ark algaraz—; Ez duzu ordenatu naiko zaituanik aurkituko"! Baiña aurkitu zuan Dubois'ek eta egun berean ordena guztiak artuaz izan zan Gotzai sagaratu a.

Gizon ernea, jakintsua; jaunie trebea; oraindik sortu berria zan Frantzi'ko Akademian artua; serbitzu on egin zion bere Laterriari, eta ez kalterik Elizari; baiña ez zuan ez Gotzai ez KardenaI izaterik merezi. Aberasturik il zan, bat-bateko eriotzaz.

Gizon ura KardenaI egin izatea izan zan, bearbada, Iñozentzio XIII'aren utsegite bakarra. Baiña ortan utsegin ba'zuan ere, aitor dezagun gizon ona zala Iñozentzio; osasun kaxkarrekoa eta agintaritzarako kemen geiegirik gabea, baiña ona' Bazuan politikarako oitura, Sui-zi'n eta Portugal'en Nuntzio egona bait zan. Alatagutziz, dizdira aundirik gabekoa dugu aren aitasantutza.

—Napolos eta Sizili'ko Jaurerriak, eta Milan, Parma eta Piacenza'ko Dukaterriak Aitasantuen feudo-lurak zirala esanik daukagu. Karlos VI Inperatorearekin adiskidetasunak nai zitualako, eman zion Sizili'ko eta Napolos'ko Jaurlaritzaren "investidura" edo jazketa, ots, "agintaritza", (orrela esaten bait zitzaion erdiaroa ezker "agintaritza emateari": "jazketa ematea"; agintaritza ematen zalaren adigarritzat, agintaritzarri zegozkion jantziak eta ikurrak ematen bait zitzaizkion kargua artzen zuanari).

Baiña, asarretu zan, gure Iñozentzio Parma eta Piacenza'ko Dukaterriak, bere baimenik gabe, España'ko V Felipe'ren seme baten eskuetara igaro ziranean. Seme ori, Karlos izan zan, gero Napolos'ko eta azkenean España'ko Errege izango zana.

Garrantzi urriko arazoak? Bai noski, baiña jakiña da Aulki Doneak legeariburuzko itxura auetan ipiñi oi duan arreta'

guztietatik kendua izan bait zan, eta egin bait zituzten Españi'ko eta Frantzi'ko Jaurlaritzek berriro pakeak, alkarrekin joan ziran biak Aitasantu berria, Iñozentzio XIII'a aukeratu bear zuan Giltzape-Batzarrera.

Ain zuzen beste elizgizon bat, laister Kardenal izanen zan Gillermo Dubois gotzaiak moztu zizkion egalak Alberoni Kardenafaren aunditasun-ametsari. Frantzi'k ez zuan une artan egiazko Erregerik, mutiko gaztea zan bâ oraindik XV Koldobika, XIV Koldobikaren bir-billoba; V Felipe'ren illoba. Aren izenean Orleans'eko dukeak zeukan eskuetan Erregeordetza, eta Dubois Gotzaiak Jaurlaritzaren atzerri-arazoetako ardurapena, eta baita, laister, Jaurlaritzaren Lendakaritza ere. Ain zuzen, Erregerik Frantzi'n ez izate ortaz baliatu nai izan zuan Alberoni Kardenalak, Españi'ren onturrerako.

Giltzape-Batzarrean, Kardenalik geienak Fabrizio Paoluzzi zuten aitasantugairik atsegiñena. Eta au izanen zan Aitasantu, Inperatoreak ezezkoa jaurti ez balio.

Aundia ba'zan une aietan Borboien aala, ez zan txikiagoa VI Karlos Inperatore Absburgetarrarena, betiko Inperio-lurretaz gaiñera, bereak bait zituan orduan len Españi'renak izandako Napoles eta Sizili. Ain zuzen Kardenal bat, Anibal von Schattenbach ipiñi zuan Napoles'en Erregeordezko. Eta Kardenal au bera, eta Althan izeneko beste Kardenal bat, izendatu zituan, Giltzape-Batzarrerako, bere Ordezkariz lez.

Fabrizio Paoluzzi'ren ondorean, Mikel Gotzon Conti zan Aitasantutzarako autarkirik geiena bildu zituana; eta bera irten zan azkenean Aitasantu' Eman bait zion baiezkoa beti aurka izan zuan Orleans'eko Dukeak.

Paoluzzi'k Dubois Kardenal egingo zuala agindu zioenan eman omen zion Dukeak bere baiezkoa, edestilari batzuek diotenez, baiña ortaz dokumenturik ez dagota, ezin dezakegu autaketa artan orrelako baldintzarik izan zanik jakin.

Danadala, egin zuan Kardenal, Iñozentzio XIII'ak, bizitza makurreko elizgizon ura. Bai ote zekian Aitasantuak nolakoa zan Kardenal eginen zuan gizakume ura?

Birjaiotzako pertsona dirudi Gillermo Dubois Kardenalak. Errixka bateko medikuaren semea zan, eta amairu urtekin egin zan, tonsura artuaz, elizgizon, baiñan ez zituan artu beste ordenak irurogeita lau urteko agurea izan arte. Alare, kanonigo egin zuten ogei ta amalau urtekin, eta Arvaux'ko Abatetza, eta Saint Just'ekoa gero, eman zizkioten; errenta aundiko abatetzak biak, batez ere bigarrena'

INOZENTZIO XIII

(1721.1724)

Izenez, Michelangelo Conti, Poli'ko Dukearen semea; bere aita-ren dukaterrian jaio zan. Eta ogei ta emezortzi eguneko Giltzape-Batzar naasi baten ondorean izan zan Aitasantu izendatua.

Absburgetarrak eta Borboitarrak izan zitzaizkigun oraingoan ere autaketa aren nastaille.

Españietako 11 Karlos iltzean, bi irabazle izan zituan aren erregeztaren jarraipenerako sortu zan guduak: Borboitarrak Españietan, Absburgetarrak Europa'n'

V Felipe Borboi'ak jaso zuan II Karlos zanaren buruntza; buruntza bakarra, V Felipe au izan bait zan Aragoi Gaztelari erantsita bi Laterri zar aiekin Laterri berri bat osotu zuana: Españi.

Borboien "erdirakoitasun" edo zentralismoaren zitua da, beraz, Españi'ren batasuna. Lau EuskoLaterriak bakarrik jarraitu zuten iare. Felipe V'a bera zuten auek ere Erregetzat, baiña beren nortasunik eta askatasunik galdugabe iraun zuten. Ez ziran urtu Aragoi bezala, Españi zeritzan Laterri berri ura osotzeko. Alderantziz, Españi berri aren-gandik bereizirik Laterri iare izanaz jarraitu ziguten' "Españi" itzak euskotar aientzat ez zuan orduan, ezta portugaldarrentzat ere, politikazko zentzurik; gaur guretzat "Europa" itzak bezala, geografiazko zentzua batez ere zuan.

Frantzi'ren eta Españi'ren jabe ziralarik, aundia zan orduan Borboien itzala. Altagutziz ez zeuden oso alkaturik Españi eta Frantzi, Alberoni Españi'ko lenen ministroaren erruz. Españi'rentzat ostera Sizili, Napoles, Milan eta Zerdeña bir-irabazi nai zituan Kardenal zan lenen-ministro arek. Badira, ekintza artara Erregiñak, Elisabete Farnesio V Felipe'ren emazteak, bultzatu zuala diotenak ere. Baleike. Zuan guztia Erregiñ arri zor bait zion Alberoni Kardenalak.

Bere seme danei Jaurerri bat eman aal izteko nai omen zituan Erregiñak Itali'ko Laterri oiek.

Orrela zegoan Europa Xi Klemente'ren aitasantutza amaitzera-koan. Baiña aren azken ordurako, Alberoni Kardenala bere eginkizun

Klemente XI'aren "Unigenitus" buldak, ezerezturik utzi zuan jantsenikeriaren teologia; ez ordea, jantsenikeriaren aszetika, edo kristau-bizi-kerak". Bulda aren ondorean ere, bizirik jarraitu zuan, osoro San Ziran'en sorketa zan aszetika arek.

Bein baiño geiagotan esan dugu len ere, aszetika ori Jantseniorena ez baiña San Ziran'ena zala. "Altogether", "aide guztietatik" zala San Ziran'ena, diosku Inghlanderriko edestilari batek.

Sakonki sartu zan baionatarraren aszetika latz ura Argikuntza-aroکو kristautasunean' Ta ez Frantzi'n bakarrik, Aide guztietan sartu zan. Baita iñakitarraren Lagundian ere!

Aszetikari eta oiturizti edo moralari dagokien arloetan, asko edo gutxi, santzirandarrak izango dira orduango gotzaiak, erlijioso-anaidiak, eta josulagundia bera'

Teologiaren arloan iñakitarrak izan ziran garaille, oiturizti ta aszetikaren arloan ordea, berak izan ziran menderatuak; San Ziran, garaillea'

Esan daiteke beraz, iñakitarrak, garaitu zutela Jantsenio, ez ordea San Ziran; alderantziz, San Ziran'ek garaitu zituala iñakitarrak.

AroZarreko montanotarren aurkako borrokan gertatu zan bezala, gogortasunera okertu zan Eliza jantsenitarren borrokaren ondorean ere, unibersitateetan, lekaidetxeetan, gotzaien pastoraletan, Aulki Donearen jokaera batzuetan, Txina'ko mixioetan, parroketako pulpittuetan, eta bereiziki Euskalerrikoetan; emen batez ere: Euskalerriko pulpittuetan.

Ezagutu dituk nik, egunero errosarioa esaten zan euskal-base-rietako etxejoaun zintzoak, urtean bein bakarrik jaunartzera ausartzen ziranak' Zergaitik? "Errespetuz, Jauna"!

Janssens olandarraren "Augustinus" baiño menderakaitzagoak irten zirala San Ziran euskaldunaren idazti legorrak!

Badarama oraindik gure moralak San Ziran'en arrastoa.

Parlamentariak ez ziran sinispenez, jantsenitarrak; galikerizaleak ziran. Ta ori, ez Frantzi'a maite zutelako bakarrik, baizik eta galikeriak Paris'ko Parlamentuari berebiziko ospe, garrantzi eta almena ematen zizkiolako' Ta, ikus nola: Galikeria bere erpiñean zegoanetan, Erregea izaten zan Frantzi'ko Elizaren arazo askotan Epaille ta Zuzendari. Arazo oietarako, Erregeak, urbillen zeukan Parlamentua erabiltzen zuan: Paris'ko Parlamentua. Ala, Paris'ko Parlamentua izaten zan, azken-unean Frantzi'ko Elizaren gidari. Orregaitik ain biotzez maite zuten galikeria Paris'ko parlamentariak.

Erri xea berriz, erri xe jantsenitarra, aztikerira jausi zan; eta mirarikerira, siniskerira, egiazko erotasunera, epilepsira.

Port-Royal'era joaterik ez zeukaten ezkerro, illobitegira joaten ziran jende lander aiek; ta santutzat arturik zeukaten Paris'tar Frantzisko diakonoaren illobi inguruan biltzen ziran. San Medard izeneko illobitegian. Erregearen ertzaiñek ipiñi bear izan zioten azkena, zorakeri arri.

Erriaren gaindik, jantsenitar landuen artean, tinko jarraitzen zuan, sail batek, erejian. Lau gotzai, apaiz batzuk, eta oratoritar eta beneditar batzuk ziran artaldetxo artako artzaiak.

Ez zituan, ez orixe, gaizki bereganatu jendeen biotzak San Ziran baionatarrak.

* * *

Frantzi'tik-at, Olanda'n aurkitu zuan babesik onena jantsenitasunak'

Olanda'n ez zan gotzairik, lurralde ura kalbindar egin zan ezkerro' Gotzaien eginkizunerako, "Bikario Apostoliku" edo "Apostolutzarako Ordezkarri" batzuk izendatu zituan Aulki Doneak. Ordezkarri oiek izan ziran luzaroan Olanda'ko Elizaren Zuzendari. Eta baita Inghlanderriko Elizarenak ere.

Bikario oiek, iñakitarren etsai agertu ziran arazorik garrantzitsuenetan, Inghlanderriko mixioketariburuz sortu ziran eztabaiden erruz bereiziki.

Bera ere iñakitarren arerio zalarik, errez irabazi zituan Quesnel'ek Olanda'ko iñakitarren etsaien biotzak' Peter Calde zan orduan Olanda'ko Bikario. Zismara jausi zan au azkenean, zoritxarrez, orduantxe sortu zuan bâ oraindik bizirik diraun Eliz txiki bereizi bat.

Txakurkeritan ibilli zitzaigun Noailles, gaizki jokatu zuala apalki aitortu nai ez zualako. Ta bere aide izan zuan joku naasi ortan Paris'ko Parlamentua.

Asarre zegoan Parlamentu au XIV Koldobika XI Klemente'ren aurrean makurtu zan ezkeru, ezerezteko arriskuan ikusten bait zuan arrezkeru, betidanik ain kuttun izan zitzaion galikeria. Ezda arritzekoa asarre ori, galikeriaren giroan esku aundia izaten zuten bâ Paris'ko parlamentariiek Elizako arazoetan. Asarreak, jantsenitarrek n alkartzera eraman zituan, Aitasantuaren aurka.

Parlamentariak ordea, lege-gizonak ziran. Bearrezkoa zuten beren jarduketa zuritzeko legezko-oiñarri bat. Quesnel'ek eman zien oiñarri ori.

Aitasantuaren almena, soiisoilki "potestas ministerial s" da, idatzi zuan onek: "Ordezko Almena", ots, "beste norbaitek emanda, beste orren izenean erabilibearra dan almena". "Beste norbait" ori, Eliza osoa amen da. Eliz osoaren esanera egon bear omen du Aitasantuak.

Ez zan dotrin ori Elizaren edestian gauza berria, Birjaiotzaren asierako kontziliarismoaz mintzatzean ikusi aal izan genduanez' Baiña ederki etorri zitzalen orain Frantzi'ko jantsenitarrei eta Paris'ko parlamentariiei. Ain zuzen, jantsenikeriaren azken-aro oneri, "le parlamentarisme janséniste" esaten zaio.

Ez ziran makurtzen Port-Royal'eko lekaimeak ere. "Aingeruak bezain garbiak eta deabruak bezain arroak" zirala esan zuan Perefixe Paris'ko Gotzai izanak. Azkenean, Erregearen aginduz sakabanatuak izan ziran "aingeru-deabru" aiek; lekaimetxea bera, arriz-arri desegiña; eta an lurpeturik zeuden lekaimeen gorputzak obietatik atereak. San Ziran "santuaren" kabi izandako toki "santu" artara, antziñako santutegietara bezala joaten bait zan erromes jende xea.

1729'an il zan Noailles Kardenala, azkeneko egunak arte txepelkerian ibilli ondorean. Eskatu zion ixillean Aitasantuari barkapena. Aitasantuak, XIII Benedikto'k, Aitasantuak emandako buldak ontzat artzen zituala aitortzeko, eskatu zion; ta ala egin zuan arek, —Noailles'ek—.

Badira aitorketa ori asmo onez egin ote zuan zalantzan ipintzen dutenak. Laga dezaigun Jainkoari asmoak epaitzeko eginkizuna.

Zuk ordea, Paris'ko Parlamentuko jaun ben aiek zergaitik ain jantsenitar biurtu ziran jakin naiko duzu' Aipatu berria dugu, irazezan, arrazoiak. Zabal dezagun piska bat, astiroagotxo, arrazoi ori. Begira:

la, batez ere "ereje" deitu ziotenei barkatzen ziela, esanaz if zan.

Gizon ura beti uste onez ib lli zala inork zalantzan ipiñi?

Erljioaren barrutian ez ezê, izan zituan politikarenean ere Ques-
nel'en jarduketak ondorio interesgarriak.

—Galikeriaren eta jantsenikeriaren arteko adiskidetasun eta ai
kartasuna;

—Frantzi'ko Agintarien zatiketa: Jaurlaritza aide batetik, jantse-
n tarren aurka; Parlamentua bestetik, alde. Eta, Parlamentuarekin, le-
giztilari asko' (Oroi, "parlamentu", orduan, EpaiBatzar Nagusiari esa-
ten zitzaiola. Frantzi'ko uri aundi guztiek bazuten beren parlamentua,
naiz ospetsuena eta indartsuena Paris'koa izan).

Erregea, XIV Koldobika, nazkaturik zegoan ziraunak bezala es-
kuetatik iges egiten zion jantsenitarren ereji eraskor artaz, eta eskatu
zion Aitasantuari, arren auzi aspergarri ari lenbaitlen azken -kolpea
emateko.

Orixe bera eskatu zion Españi'ko IV Felipe'k ere, Belxika'ko Erre-
ge zalarik ez bait zitzaion berari ere atsegin jantsenikeriak lurralde ar-
tan artzen ari zan indarra.

"Vineam Meam" edo "Nere Măstia" izeneko buldaren bidez
erantzun zuan, 1704'ean XI Klemente Aitasantuak, "begirunezko ixii
tasuna" naikoa ez zala erakutsiaz, eta "anima-barrendiko onespena"
eskatuaz. "Agoz eta biotzez" eman bear omen zitzaion baiezkoa Aita-
santuari.

Ez zan ordea pakerik egin-da, beste bulda bat argitaratu-bearrean
aurkitu zan XI Klemente: 1717'ko "Unigenitus" bulda. Oraingoan bai;
esan daiteke oraingoan eriotzez zauriturik gelditu zala jantsenikeria.
Ereji guztiak bezala, ez zan bat-batean il; eta utzi zituan ondorioak; on-
dorio luzeak gaiñera. Baiña, arrezkero, ez zion Elizari arrisku aundiegi-
rik sortu'

Mundu guztiak onartu zuan "Unigenitus" bulda: Gotzaiek, Uni
Kristau-Erriak, Erregeek..., eta auen artean XIV Koldobi-
ka'k batez ere. Ez ordea eliz-gizon askok Frantzi'n; bederatzi Gotzai
aiek adibidez, eta Noailles Paris'koak! Gaizki jokatu zuan Sorbona'k
ere.

Koldobika XiV'ak Frantzi'ko lege egin zuan "Unigenitus" bulda.
Baiña orduan, Noailles Goigotzaiak, beste lau Gotzaiak, eta baita Sor
ere, Kontzilio baten eskea egin zuten. Antziñako Kontziiaris-
moaren ondarrak oraindik!. Eskomikatuak izan ziran Kontz lio-
-eskaleak'

Martin Barkox'ek zeraman orain osabaren tituloa: Abbé de Saint-Cyran. Berak idatziak ditugu sei liburu jantsenikeriaren alde' Berea dugu bereiziki "Exposition de la foi catolique touchant la Grace et la Predétermination" edo "GraziPredestinazioetaz Sinispide Katolikoaren Agerpena" deritzana'

Liburu orren aurka jeiki zan Paris'ko Goigotzaia, Antoine Noailles Kardenala, ta bildu al zitezkean ale guztiak sutara jaurtitzeko agindu zuan'

Geroago, VII Alexander'ek gaitzetsi zuan Barkox'en liburuzko esakizun bikoitz au:

—Kepa'k aiña almen badu Paul'ek Eliza-baitan.

—Paul'en dotriña, dotrin illuna da berez' Augustin Deunak argitaratu zuan egoki Paul'en dotrin illun ori. Orregaitik, besterik gabe sinistu daiteke Augustin Deunaren liburuetan dagoana, naiz Aitasantuek besterik erakutsi.

Noailles Kardenala aipatu dugu' Gaitz aundia egin zuan gizona. Chalons'eko Gotzai zan oraindik, Quesnel'ek bere "Réflexions Morales sur le Nouveau Testament" argitaratu zuanean, eta berebiziko ongietorria egin zion Noailles'ek Quesnel'en liburu oneri' Santzirandarren erara Kristau batek bere bizia nola antolatu erakusteko idatzia izan zan ain zuzen liburua!: "Bizitza on baterako Itun Berriaz Oldozketak", izan zitekean euskeraz aren izenburua. Noailles'ek, —agian zer zegian oartzeko—, apaiz guztiei gomendatu zien liburu ori. Ain ederki estaltzen bait zuan Quesnel'ek eraspenezko idazkera legunaren-pean jantsenitasunaren okerkeria!

Noailles ez zan bera jantsenitarra; buru gutxiko gizona zan soilki eta artoa, egoskorra, setatsua. Quesnel baiño geiago oraindik, bera izan zan, Kardenal egin zutenetik batez ere, Paris'ko GotzaiAulkitik, erdi-illik zegoan jantsenikeriaren azkeneko ondarrei ostera bizi eman ziena. Izan zituan ortarako lagunak: beneditar batzuk, oratoritar asko, —auen zuzendari nagusia, De la Tour, batez ere—, bederatzi gotzai, eta, jakiña, Quesnel bera!

Quesnel ere, esan dugunez, oratoritarra zan, naiz gaztetan inakitarren artean ezia. Frantzi'ko Jaurlaritza santzirandarren aurka asi zanean, Belxika'ra jaon zan Quesnel igesi, Arnauld "Aundiarekin" batera. An ere, azkenean, espetxera sartu zuan España'ko Erregeak, Koldobika XIV'aren eskariari erantzunaz. Adiskide bait ziran une artan bi erregeak' Baiña alde-egin zuan espetxetik, eta Olanda'n aurkitu zuan non pakean bizi' An il zan; gazterik oraindik; eta, danei barkatzen zie-

Laterriaren indarra ordea, etsai biurtzen ari zitzairen sanzirandarreri, Erregeak, Jaurleek, eta Aristokrazikume lizun aiek, bildur geiago artu bait zioten azkenean jantsenitarren erraiberokeriari Erroma'ko itzalari baiño.

Erregeari zioten ikarak eraginda, gerturik agertu ziran azkeneko lau gotzai sanzirandarrak Erroma'rekin pakeak egiteko, ta menderatu ziran Aitasantuaren agindura. Itxuraz bakarrik ordea!, ziñ-egiñaz izenpetu zuten idaztiko itz bakoitzari beste zentzu bat ematen bait zioten beren buruen barruan.

Orixe bera egin zuten Port-Royal'eko lekaimEEK, Arnauld "Aundiak", eta ereji labain aren jarraile geienak.

Orrela sortu zan "Pax Clementina" deitu zitzaion zinketa lizun gezurrezko batean oiñarritutako Pake ustel ura' Garaipentzat artu zuten jantsenitarrek "pake" zalako ura. Ta bazirudian sendo zegoala oraindik Frantzi'n jantsenikeria, iñoiz baiño jende geiago urbiltzen bait zan erromes Port-Royal'eko lekaimetxera.

Frantzi'n, —umea bait zan oraindik XIV Koldobika—, onen ama, Ane Erregiña, zan Agintari, eta Erregiña'ren izenean, Mazarino Kardenaia. "Pakea" sendotzeko, Erroma'ra joateko agindu zien Kardenalak Arnauld "Aundiari" eta Martin Barkox San Ziran'en illobari, an biak Aitasantuaren aurrean beren buruak garbitu zitzairen. Izugarri asarretu zituan agindu orrek Aundiki jantsenitar guztiak, ta atzera egin bearrean aurkitu zan Mazarino. Izen aundia irabazirik zeukan ordurako jantsenitarren artean Barkox'ek. Berari eman zion Arnauld "Aundiak" "Maizeko Jaunartzea"ren itzaurrea idazteko eginkizuna, baiña naiz San Ziran'en aide izan, berak ez baiño Pasquier Quesnel oratoritarrak artu zuan Arnauld "Aundiaren" eskuetatik jansenikeriaren zuzendari tza'

Sakonki sartu zan San Ziran Bérulle'ren oratoritarren artean; eta baita San Mauro'ren Kongregazio'ko beneditarren artean ere, bai aiek eta bai auek, San Ziran bera bezala, Kristau biziera giarrago baten maitaleak bai ziran'

Danadala. ezer gutxi egin zezaketen ordurako santzirandarrek; aurka zeukaten bâ Errege-Jauregiaren inguruko jenderik geiena. Jendillaje artatik asko eta asko gizon-emakume ustelak ziran; lizunak. Jende auentzat, Port-Royal'eko baratzetan bizi ziran bakarti aien ildura ta garraztasuna, salaketa ta epaiketa ixilla, baiña ulert-erreza, bait ziran-', laister uxatu zituzten baratz aietatik "bakarti" guztiak. Lekaimetxeari berari ere galerazi zioten lekaimetxerak berriak artzea.

kari" dagokion gauza da. Jainkorik gabe ezin daitekela bizitzarik eratu, uste zuan onek; ezin daitekela, ez bizitzarik ez er otzarik, modu zorionsuan eratu, uste izan zuan ark'

Akats oiek eta guzti, liburu ederra eta atsegiña da Paskal'en liburu ori' Danok gozoro irakurri duguna. Unamuno'ren ustez, iñakitarren giza-eta-izadi•zaletasunetik jantsenitarren legortasunetik baiño urbiago dagoana. Egia dia; jantsenitarrek aldatu egin bait zuten zerbait, liburu ori. Aiei eman zizkien bâ Paskal'ek bere eskuz idatzirik zeuzkan orriak, eta aiek argitaratu zuten, aurrenko aldiz, "Oldozketen" liburua' Ez dakigu beraz nola zegoan Paskal'en orrietan.

* * *

Aurrera zeramakian, bitartean, Elizak jantsenitarren aurkako borroka. Gogora ditzagun erejia sortu zanetik Erroma'k emandako pausoak:

1^a —:"Augustinus"tik jasotako bost atalen gaitzespena. (Jantsenitarren erantzuna: bost atal oien zentzua ez da erejizkoa).

2^a —Erroma'k: Bost atal oien zentzua erejizkoa da. Beren zentzuan arturik, ereji dira beraz bost atal oiek. (Jantsenitarren erantzuna: Bost atal oiek, baike, ereji dira; baiña "Augustinus" liburuan ez daude)'

3^a —Erroma'k: bost atal oiek ereji dira, eta, gaiñera, "Augustinus"ean daude. (Jantsenitarren erantzuna: Aitasantuak ez du almenik bost atal oiek "Augustinus"ean dauden edo ez esateko)'

4^a —Erroma'k: Sinismenari loturik dauden gertakizunetan badu Aitasantuak almena, ta almen orren indarrez, bost atal oiek "Augustinus" deritzan liburuan aurkitzen dirala dio. (Jantsenitarren erantzuna: Aitasantuak gai antan almena baldin ba'du ere, ez du almenik Kristauen adimen-makurtzerik eskatzeko; begirunezko ixiltasuna bakarrik eska dezake Kristauengandik.)

Ontan zeuden gauzak IX Klemente aitasantutzara igo zanean. Berrri txarrak iritxi zitzaizkion Frantzi'tik, gotzai batzuek, Aitasantuak Franzi'ko gotzairik epaitzeko eskubiderik ez zuala, idatzi bait zioten. Jantsenikeria? Galikeria? Ordurako alkartzen ari ziran bâ galikeri zipotza eta jantsenikeri mingotza.

Gorrotorik gabe idatzia bait dago. Sinismen sendoko gizona agertzen zaigu "oldozketa" auetan egillea.

Lenen mailleko olerkerik goxoenaren giroan, aurkituko duzu bertan gauza ederrik asko:

—Egiazko Kristautasuna, adibidez; sinismen eta karitate sendoko Kristautasuna, batez ere Josu'ren nekaldieriotzetaz mintzatzen danean, edota liburuaren azkenean Jainkoaren izatea azaltzen digu-nean.

—Baiña baita jantsenikeriaren apur bat ere, batez ere asieran, gizakumearen mozkeriaz ari danean.

—Argikuntzaren lenen-izpiak, bereiziki giza-arrazoia goratzen duanean. Kañabera uts amen da gizakumea, baiña... pentsatzeko gai dana! "Canne pensante"! Arrazoiak egiten amen, aundia, gizakumea!, Arrazoiak, izadiaren errege." eta Jainko-ezagule!

—Erromantik-eraren aurre-iragarpen ederra, biotz-eragiñen garrantzia goستن duanean-da. Oroi liburu ortako esaldi bika ñ ura: "Baditu biotzak Arrazoiak ez dakizkian arrazoiak".

—Baditu, —liburuak—, adimengabekeri edo "irrazionalismoaren" aztarna nabarmenak ere. Aipatu-berri ditugun "biotzaren arrazoi" oiek ere, naiz ederrak eta politak izan, ez bait dira egiazko arrazoiak. Logikarentzat ez dute ezer askorik balio. Ta arrazoiak landako arrazoia da ainbat eta ainbat aldiz aipatua izan dan bere "dama" entzutetsua ere' Ikus zer zan dema ospetsu ura:

Jainkorik badan edo ez, dugu gizakumeok arazorik nagusia' Naitanaiez, baiezkoaren edo ezerkoaren aide jokatu bearrean aurkitzen gera. Baiezkoaren aide jokatzen ba'dugu, beti irabaziko dugu; Jainkorik ez ba'da, mundu ontako zoriona, sinestunak bait dira emen egiaz zoriontsuak; Jainkorik baldin ba'da, mundu ontakoa eta beste-koa'

Badu Paskal'en "arrazoi" orrek, eun urte geroago Kant'ek "Ratio Practica" edo "Egokitasunazko Arrazoia" esango dionarekin kidetasun galanta. "Paskal'en dema", "ratio praktika"ren jarduketa bait da' Begira: "Ratio Pura" edo "Arrazoi Garbiak" (oldozketa utserako erabiltzen dugun arrazoiak) ez omen digu Jainkoa badanik argitzen; "Ratio Practica" edo "Egokitasun-Arrazoiak", ots, bizitza eratzeko erabilloi dugun arrazoiak, erakusten omen digu Jainko bat badala, kant'en ustez.

Paskal'ek ez zuan orrelakorik esan, ez zezakean esan ere, egiaz katoliko zalarik; baiña bere "dema", Kant luterarraren "ratio prakti-

Lagundi guziari ezartzen bait zizkion lepa-gaiñean Españi'ko eta Flan-de'ko iñakitar aski ugari batzuen xeblekeriak' Aurki zitezkean berdi-ñak, nai izan ezkeru, kasuista frantziskotarren eta domingotarren artean ere; baiña soilki iñakitarrei eraso nai zien ark. Auxe sinistarazi nai zuan gutun aien bidez: bazutela (iñakitarrek) gizarteko oiturak us-teltzeko aurrez artutako asmo sendoa. Orrelako asmorik izan duan la-gundi edo talde berorik ez da sekulan izan; ez daiteke izan ere. Arazoa ordea, ez zan (gutun aietan) arrazoa; jendeari (iñakitarren lepotik) par egiñaraztea baizik".

"Ez zuten aldi artan iñakitarrek idazle yayorik; ta ezin izan zuten, Frantzi'n ordurarte agertutako liburuetan ongien idatzienak jaurtitzen zien irain-zamarik desegin".

"On tantait toutes les vois de les rendre odieux' Pascal fit plus, il les rendit ridicules. Ses "Lettres Provinciales", qui paraissaient alors, étaient un modèle d'éloquence et de plaisanterie. Les meilleures comédies de Molière n'ont pas plus de sel que les premières "lettres provinciales"; Bossuet n'a rien de plus sublime que les dernières"

"Il est vrai que tout le livre portait sur un fondement faux' On attribuait adroitement à toute la société des opinions extravagantes de plusieurs jesuites espagnols et flamands' On les aurait déterrées aussi bien chez des casuistes dominicains et franciscains; mais c'était aux seuls jésuites qu'on en voulait. On tâchait, dans ces lettres, de prouver qu'ils avaient un dessein formé de corrompre les mœurs des hommes; dessein qu'aucune secte, aucune société jamais eu et ne peut avoir; mais il ne sagissait pas d'avoir raison, il s'agissait de divertir le public".

"Les jésuites que n'avaient alors aucun bon écrivain, ne purent effacer l'opprobre dont les couvrit le livre mieux écrit qui eut encore paru en France"

Egia Voltaire'k diona.

Iñakitarrek ez zuten, Paskal'i erantzuteko, ura bezain idazle dizdi-ratsurik izan; eta era txarrean gelditu ziran; bein da berriro, maltzurke-ri berak esanaz, lortu zuan bâ Paskal'ek Josuren Lagundia, —bosga-rren eskutitzean dion lez—, mundu ontako aberastasuna eta aginta-ritza lortzeko sortua izan zala, askori sinistaraztea; ta beste askoren buruetan kezka ta zalantza sortaraztea. Ez zitzaion arrazoirik falta Vol-taire irrizaleari, liburu batean, "bota'zak gézurra, zerbait utziko dik-eta", idatzi zuanean.

Azkoz ohea da "Oldozketak" deritzan Paskal'en bigarren liburua.

semeen biotzetan ezarri zuten espiritua!

Baionatarraren "seme" zintzoa izan zan Paskal. Buru barneko gaitzean bazuten "aitak" eta "semeak" kidetasun galanta. Edestilari-ek diotenez, ez amen zan bâ arras sendoa Paskal'en buru-muiñetako osasuna, ta maiz ibiltzen omen zan neurosiaren menpean.

Jantsenitar jarraitu zuan il arte. Il ere kristau zintzoa bezala il zan, baiña oldozkeraz aldatu gabe. Aitasantuak gaitzetsitako bost atal aiek ereji zirala, baiña jantsenitarren liburuetan ez zeudela sinistuz'

Ala're ezin daiteke ereje izan zanik esan; bere "aita" San Ziran bezala, asmo zuzenez ibilli bait zan beti.

Gaitza, bai; izugarrizko gaitza egin zuan Kristaudian. Alexander VII'aren erabaki ura ezkeren iltzer zegoan jantsenikeria. Paskal'en luma zoragarriak eman zion arnas berria'

Bi dira Paskal'en idaztirik izentsuenak: "Les Provinciales" ("Probintziarrak") eta "Pensées" ("Oldozketak").

"Probintziarrak", emezortzi dira; zearo jantsenitarrak. Aurreneko lauak, Sorbonaren aurka idatziak; beste amalauak, iñakitarren aurka' Azkeneko auek egin zuten, batez ere, aipatua, beren egillea.

Lenengo 1.656'e an agertu zan: "Lettre écrite à un provincial par un de ses amis sur le sujet des disputes récentes de la Sorbonne" ("Probintziar bateri (ots, Paris'tik-at bizi dan bateri) Sorbonako azken-eztabaideiburuz adiskide batek idatzitako gutuna")' Ez darama egillearen izenik. Onen ondorengo eskutizetan ere ez zuan Paskal'ek aurpegiarik eman. Batzuk izenik gabe, beste batzuk "Louis de Montaigne" izenarekin argitaratu zituan'

Arrazoi du Paskal'ek teologilari askoren lasaikeria zigortzen duanean. Ain zuzen, orduantxe gaitzetsi zituan X Iñozentzio'k lasaikerizaleen esakizunik nabarmenenak. Ez du arrazoirik ordea, Paskal'ek, Josuren Lagundiaren aurka esaten dituan geiegikerietan' Auxe bera, geiegikeri aiek zentzurik gabeak zirala esango dizu Voltaire'k berak. Entzun eiozu:

"Iñakitarrak gorrotogarri egiteko, saiatu zan ongi jendea! Aurreago joan zan Paskal; parregarri ere egin bait zituan onek! Agertu-berriak zituan "Gutun Probintziarrak", izkera dotore ta parregillearen eredu' Moliere'ren antzerkirik onenak ez dute lenengo "Gutun Probintziarre" baiño gatz geiago; ez du ezer Bossuet'ek azkenekoek baiño eder-gurenagorik.

"Egia da; liburu osoa oiñarri ustel baten gaiñean zetorren eraikia:

Paskal izanen da noski, San Ziran'en itzalpera jausitako gizakumerik jakintsuena ta entzutetsuena. Ez zuten alkar ezagutu. 1.643'an il zan San Ziran; 1.646'ean egin zan Paskal sanzirandar. Irakurriak zituan ordurako jantsenitarren idaztiak; batez ere, San Ziran'en "Letres spirituelles et chrétiennes" edo "Gogoari eta Kristautasunari-buruzko Gutunak". Ez zan edozein Blas Pascal, garai artarako irabazirik bait zeukan filosofi ta matematikalari ospetsuaren izena.

Ekonomilaria zuan aita; laister eraman zuan jantsenikerira seme matematikalariak. Baita bere arrebatxo ere. Au, gaiñera, Port-Royal'en lekaime sartu zan! Ta ara joan zan Blas bera ere, an barkartien bizimodua eramateko asmotan. Geroago, bere besoetakoa zuan illobatxo bat ere, lekaime sartu zan Port-Royal'en bertan. Gauza kutsukorra zala jantsenikeria!

Pascal'en illobatxo ark, Margarite Perier'ek, badu jantsenikeriren edestian bere garrantzia. Port Royal'en gordetzen zan Jesus'en koroiaiko arantza batek sendatu omen zion bâ begiko zauri bat. Amar urte zituan orduan neskato lekaime arek' Sendagille jantsenitar guztiek aitortu zuten zauri ura mirarik gabe sendaeziña zala, ta jantsenitar guztiek artu zuten zerutiko miraitzat gertakizun ura.

Paskal berari ere, ordurako "probintzialak" idazten ari zan Paskal'eri, ats eta indar berriak eman zizkion "mirari" aren berri jakiteak'

Ertilari izan zan bereiziki Paskal' Teologilari lez ez du geiegi bali o. Arlo ontan idaztirik garrantzitsuena "Probintziar batentzako Eskutitzak" deritzana da' Baiña idazti ortan ere idazkera bakarra du berea, bertako teologia, oso-osoan, Arnauld "Aundiarena" eta Nikole'rena bait da' Bi auek gertutzen zioten bâ teologi ori, banan-banan argitaratzen zituan eskutitz bakoitzar'ako.

Matematiketarako zan bereiziki doaitua Blas Paskal. Berak asmatu zuan Sueziko Kristiñe Erregeñiri opaldu zion "Machine Arithmétique" edo "Zenbaketarako Lanabesa", gaur-eguneko "Robots" esan oi zaien asmakizun oien aitzindaria.

Gizon aundia izan zan Paskal. Baiña izango ote zuan ainstesterañoko aipurik eta izenik, Frantzi'n jaio bearrean Olanda'n adibidez, edo Portugal'en edo Suizi'n jaio balitz? Arras yayoa bait da frantziarren abertzalekeria, berea dan oro neurrietatik gora jasotzeko.

Eskierki, matematiketan eta fisian iritxiko zan urrutira gure Paskal, Port Royal'era sartu zanean matematikak era bat utzi ez ba'litu. Lurreko gauzetan aitzea denbora galtzea iduritzen zitzaien bâ jantsenitarrei! Ez ziran, ez orixe, berdiña, Lolola'koak eta Baiona'koak beren

—Praille domingotar eta frantz skotar españiarrak gero, eta, auekin, laister, beste Elizako Anaidi guztiak; gizakumeak ain bere duan bekaizkeriagaitik, begi beltzekin begiratu bait zien beti bazter guztietan garaille agertzen ziran iñakitarrei; eta auek ere, garaikeri orrek arrotuta, emezortzigarren mendean, bizkarretik beera so- egiten bait zieten beste Anaidiei. (Nere iritzia da, baiña ez dut uste oker nabilleni.)

—"Propaganda Fide" edo "Sinismenaren Zabalkunderako Batzordea", Aitasantuek Portugal'eko Erregei emandako eskubide geiegizkoak, ostera Elizari itzultzea billatzen zualako; bai noski; baiña baita; Batzorde arek, oraindik Batzorde gaztea zalarik, bere almena, garrantzia eta nagusitasuna, mundu guztiaren aurrean agertzeko ardura aundiegia eta arintasun eta arinkeri geiegi zerabilkialako ere.

—Portugal'eko Erreiñuaren etsai guztiak, azkenik. Orduantxe berriabazia zuan Portugal'ek, España garaituta, bere askatasuna. Txina'ko iñakitar "portugaldarren" aurka leenik oiuegin zutenak, España'tik etorritako praille domingo ta frantziakotarrak izan ziran. Irabazi zuan Portugal'ek askatasuna, baiña, ortarako España'ren aurka gudan zebillen bitartean ziarauldu zan, eta Olanda'ko eta Ingalderriko mariñelen kolpeez makurtuta, galdu zuan sortaldean izan zuan aala. Emezortzigarrengo Portugal akitua, ez zan amaseigarrengo Portugal altsua, mundu-erdiaren nagusia' Agian orregaitik?, "Propaganda Fide"ren saiaketa guztiak Portugal'eko "Padrao" aren aurka izan ziran. Ez zan batere onuragarriagoa España'ko Erregeen "Patronatoa", baiña onen aurka ez zuan txitit ere esan "Propagandak". Ai, Erroma, Erroma! Gaiñera, oso yayotasun gutxirekin billi zan "Sinismen-Zabalkunde-Batzorde" au "sortaldeko oituren" auzi negargarri ontan.

1633'an asi zan ixkamilla. Ordurako lan aundia egiña zeukaten Txina'ko josulagun "portugaldarrek".

Urte ortan iritxi ziran, iñork deitu gabe, lurralde artara Donefrantzisko ta Donedomingoren praille españiarrak' ¿Fedearen azia ereiteko?. Bai; ziurki. Baiña balla España'ren izena aundiagoa ta aintzagarriagoa egiteko, eta iñakitarrena zan lurrean, beren Anaidi zaarren aipua onuragarri egiteko ere.

Filipinetatik zetozen. Bazeukaten, aspalditik, Japoi eta Txina'n oiñak ipintzeko gogo. Ez noski Filipinetan zer egiñik ez zegoalako, ugarte aien kristautzea, ordurarte beste alderdi guztietakoa bezala, axal-axalekoa bakarrik izan bait zan: bataiaketa utsa. Bazeukaten an

bertan lanik naiko mlxilaria aiek kristautasun ura sakonagutzen. Baiña Japoi'tik eta Txina'tik zetozen albiste zoragarriek lilluratu zituzten' Garaturik zegoan uzta! Ez al zan mixiolari guztien eginbearra uzta miragarri ura jasotzera len-bait-len joatea? Gaiñera, ez al zuten Españi'k, eta Donefrantzisko'k, eta Donedomingo'k, uzta-biltze aren zorian Portugal'ekin eta Doniñakirekin erdikide izateko eskumenik?.

Ordurako asiak ziran Indostan'en frantziskotarrak eta buruñurdunak Nobili'k onartutako "zirimoni malabartarrak" edo "ritos malabares" zeritzaien oitura aiek danak "idolatri" utsa, "jaikolizun-gurketa" utsa zirala oiugu egiten'

Egia da uzta ugaria zala; Japoi'nen, Txina'n eta Indostan'en, Anaidi guztietako mixiolariantzat tokirik naiko bazegoala: eta, benetan uzta-aro bikaiña zala ura'

Baiña bi erru izugarri egin ziran orduan; Anaidi zaarren aldetik baita; "Sinismen-Zabalkunde-Bazkunaren" alderditik bestea.

Anaidi zaarrak batere prestaketarik gabe sartu ziran kultura bikaiñeko lurralde apaiñ, landu, jakintsu aietan. Anaidi auetako mixiolariak, Afrika'n, Ameriketan, eta Filipinetan, kulturik gabeko jende basatien artean lan egitera oiturik zeuden. Jende gaixo auen artean lan egiteko ere, ez zuten idurimen eta asmamenik geiegi agertu...! Ta.",

Basatien artera bezela sartu ziran gero jakinturi pinpiriñaz ornitutako gizakume sortaldetar dotore aien artera. Karriketan oiuka; eskuan jasorik Gurutzetua zutela; bertako gizabide onuragarriari iseka egiñaz; Konfuzio'ren izena nardakatuaz.

Martirigai beroegien ausardia noski; baiña baita oraindik munduaren jabe zirela uste zuten españiarren arrokeria ere.

Ondorioak nolakoak izan zitezkean esan bearrik ez da: Txina'ko erriko jendeak, par egiten zien barbaritarrak zerizkion mixiolari aiei; jende jakintsuaren begietarako, berriz, nardagarria zan gizon ausarti aien lotsagabekeria.

Kristau txinatarren artean kezka mingarriak sortu zituan mixiolari berrien erakusketak.

Gobernuak, (asarretu zan azkenean-da), Kanton'go espetxera sartu zituan mixiolari aietako batzuk; eta besteak erbestera bidali' Prai-Ileena baiño kaltegarriagoa izan zan "Propaganda Fide" edo "Sinismen-Zabalkunde-Bazkunaren" errua: (VIII Alexander'en errua, Aita-santu au bait zegoan Bazkun aren atzetik).

Bazegoan noski Sortaldean Anaidi zar eta berri guztientzako

eginkizunik ugari. Baiña, aurretik, "Sinismen-Zabalkunde-Bazkunak" prestatu bear zuan, Anaidi guztien buruzagiak deituta, Anaidi bakoi-tzeko mixiolarien alorra, eta mixiolari guztien "taktika", "jardunkera". Ez zuan deus orrelakorik egin. Aidean utzi zuan gaiñera, asieran beintzat, Sortaldean frantziskotarrek eta domingotarrek egindako lan guztia; "jurisdikzio" gabe, ots "lanerako eskubiderik" gabe ari izan bait ziran aiek. Portugal'eko "padroao" aren arauz, Japoi eta Txina osoa Goa'ko Goigotzaiaren menpeko ziran orduan; ta ez ziran noski praille aiek Txina'ra Goa'ko Goigotzaiaren baimenarekin sartu!

Izugarrizko okerkeria! Bi jurisdikzio edo "aginte-iturri" sortzen bait ziran orrela Txina'n: Bata, betikoa: Aitasatuek berak, "padroao"ren bidez ezarria; bestea, berria, eta itxuraz ballorik gabea: lengoa ezereztu edo beintzat moztu gabe, Erroma'tik orduantxe bidalitako Bikario batzuen bidez "Sinismen-Zabalkunde-Bazkunak" ziria bezala sartzen zuana.

Bazkun onek bidalitako Bikario eta mixiolari alek danak gaiñera frantziarrak ziran, erdi-jantsenitarrak, Portugal katolikoaren adiskide makurrak, iñakitarren etsai beroak, abertzalekeriz beteak, une artantxe bait zegoan Frantzi bere aunditasunaren erpiñean.

Akats aundiak izan zituan "Sinismen-Zabalkunde-Bazkunak" Argikuntakoan. Mingarri zaigu au aitaortu bearra, baiña "Sinismen-Zabalkunde-Bazkuna" oraindik sortugabe egon balitz, Errege portugaldarren "padroao"ren giroan, errezago eta ugariago zabalduko zan Kristautasuna Ricci ta Nobili'ren bidetik, eta Txina ta Indostan'eko zati galantak kristauak izango genituan gaur.

Salaketa. Domingotar eta frantziskotar españiarrak izan ziran "Sortaldeko Oituren" aurka guda asi zutenak; (1633'ean iritxi ziran Filipinetatik Txina'ra). Jon Batista Morales zuten domingotarrak buruzagi, eta Andoni Caballero de Santa Maria frantziskotarrek. Bereala jarri ziran iñakitarren aurka' Andik amar urtera, Morales domingotarra egin zuan, iñakitarrek zerabilkiten mixiokeraren aurka, legezko salaketa "Sinismen-Zabalkunde-Bazkunaren" aurrean'

Gaitzespena. Bi urte egon zan Bazkun ura Morales'en salaketa aztertzen, eta 1645'ean Sortaldeko Oiturak debekatuaz erantzun zuan. Ona gaitzespen aren arrazoiak:

Iñakitarrek barau-egun eta jaiegun batzuk kendu zituztela.

Bataioaren liturgian gatzaren eta listuaren zirimoniak kendu zituztela:

Konfunzio'ri eta difuntuei egiten zitzaizkien omenak ontzat ar-

tzen zituztela:

—%6'ko irabaziarekin dirua aurreratzea zillegi zala erakusten zutela.

—Jaungoiko'ari deitzeko Txina'ko sasijaiko nagusiaren izena bera erabiltzean zutela.

—Kristoren nekaldiaz agirian mintzatzea galerazi zutela.

Salaketa oietan garrantzitsuena azkenekoa da, baiña Iñakitarrei erasten zieten "oben" ori, prailleen uste utsa besterik ez zan. Nola zeketen aantzi Morales eta Caballero agurgarriek, lenen mendeetako Elizak Jentillei Kristautasuna erakusteko erabilli zuan ardura burutsua?. Ba ardura ori bera zerabilkiten iñakitar "portugaldarrek", punttuz-puntu eta maillaz-mailla txinatarrei Kristautasuna patxada egokian erakusteko. Españiarrek ordea, ez dute inoiz egokitasunaren zentzu biziegirik izan!

Egokitasunaren zentzurik ez izate ori da, bi praille auen eta beren lagunen presa ta urduritasunaren arrazoia ere. Etorri berriak ziran praille auek Txina'ra. Ia-ia ez zuten bertako izkuntzarik ondo ezagutzen ere. Ez zuten azterketa sakon bat egiteko astirik izan; askoz gutxiago Txina'ko filosofia eta Konfuzio'ren soziologia ikasteko denborik' Ikasketa luze nekagarrien ondorean iñakitarrek Txina'n jakintsu agurgarri eta txit agurtuak ziran bezela, praille españiar aiek, —eta gero Frantzi'tiko mixiolariak—, lurralde aietatako gauzetaz zearo ez-jakiñak ziran. Ala ere, batere kezkarik gabe ausartu ziran Ricci eta Nobili'ren taiuko gizonak salatzeri.

Txina'ko jainkoaren izena erabiltzen zutela.'! Ez ote zekian "Zabalkunde-Batzak", aurreneko mendean Elizak artu zuan "Deus" edo "Theos" izena grezitarren eta erromatarren jainko ustel guztien Jainko Aita ustelaren izena zala?.

Beste lau salaketak ez dute aztertzerik ere merezi' Gezurra dirudi, baiña txepelkeri auek eragozi zuten Txina bezelako lurralde galantaren kristautzea. Baiña, Konfuzio eta aide difuntuen gurrketa? Asiera-asieratik ikusi aal izan zuten iñakitarrek gurrketa arek erlijiozentzurik ez zuala; gizarteko oitura utsazala. Eta inork zalantzarik izan ez zedan, ori bera aldarrikatu zuan geroago Kang-Hsi Inperatoreak. Bein puntu ori Inperatoreak berak garbi laga zuan ezkeri, badirudi amaitua izan bear zuala, betirako, "Oituren" auzia' Baiña ez zan ala gertatu!

Zoritxarrez, erlijioaz-landa, beste gauza asko zeuden auzi artan sartuta.

X Iñozentzio zan orduan Aitasantu, saintzirandarren estukeriak

aski mendeen artutako gizona; kontzientzi estu eta larrikoa. Zalantzarik gabe Ricci'ren eta Nobili'ren aurka jarri zitzaigun. 1645'ean eman zion bere onespena, "Sinismen-Zabalkunde-Bazkunak" Txina ta Indostan'eko oiturak gaitzetsiaz argitaratu zuan Azalpenari.

Iñakitarrek Aita Martin Martini bidali zuten Erroma'ra; Aita Martini onek, "Zabalkunde-Batza" saietsera laga ta "Santo Offizio" ("Bearkizun Donea") zeritzaion Bazkunera jo zuan, eta arrazoi osoa eman zion Bazkun onek' Alesander VII'a zegoan orain aitasantutzan, eta, Iñozentzio X'a extua zan bezain zabala bait zan au, gozoki eman zien bere onespena "Sortaldeko Oiturei", 1656'ean.

Iñakitarrek pozik gelditu ziran; jantsenitarrak asarre; Eliza, berriz, kolokan' Koloka ortatik irtetzeko, Aita Poranco domingotarrak, mixiolariak bi agindu aien artean zertara egon bearzuten argi esateko eskatu zion Klemente IX Aitasantu berriari' 1669'an eman zuan onek bere erantzuna. Erantzun pinpiriña benetan: Iñozentzio X'aren ezezkoa eta Alesander VII'aren baiezkua, biak, bizirik jarraitzen zutela eta biak ziralda Elizaren lege. Mixelariak berak erabaki bear omen zuten noiz Iñozentzio'ren agindua, noiz Alesander'ena erabilli. "Oitura" aiek siniskeri-kutsurik ez zutenean onartuak izan bear omen zuten; ez ordea kutsu orrekin zikinduak zeudenean. Auxe zan noski Aitasantu batek egin zezakean gauzarik egokiena: bera Txina'tik oso urruti zegoan ezkerre, auzia Txina'n bertan zeuden mixiolarien kontzientzien kargura laga' Baiña, une artarako ez zuan jokaera onek balio; Mixiolariak beren artean aserreegi bail zebiltzen epaiketa zuzen bat egiteko. Orixe erakusten digu aita Navarrete domingotarraren ibillerak'

Aita Navarrete au Txina'n zeuden domingotarretakoa zan: Billera batean "oituren" alde ere jarri zana. Egin bait zuten Klemente IX'aren erabakia jakin baiño len, Txina'ko mixiolariak billera bat, danak aburu batera iristeko. Kanton'go espetxean bertan egin zuten billera ori' 23 ziran mixiolari aiek; 19, josulagunak; 3, domingotarrak, aien artean Aita Navarrete bera; eta bat frantziskotarra, len aipatutako Aita Caballero. Frantziskotar setatsu au kendu ezkerre, beste guztiak izenpetu zituzten araudi bateko 24 puntu. Aita Navarrete'k izan zituan kontzientikezkaren batzuk, baiña errez, baretu ta argitu zizkieten iñakitarrek kezka danak, eta pozik eman zien onek ere bere izena 24 punttu aiei.

24 puntuko Araudi onek, Alesander VIII'aren aginduen bidean, ontzat artzen zituan Kristau-liturgirako "oitura txinatarrak". Uste zitezkeen mixioetan noizbait pakea lortzen zala, baiña uste ori ustela zan. Edo ustel egin zuan beintzat prailtxo naspildari baten mutturketak'

Bereala igesegin aal izan zuan Kanton'go espetxitik Alta Navarrete'k; eta baita Kanton'dik portugaldarrena zan Makao'ra iritxi ere' Emendik Europa'ra joan zan, Aztu zitzaizkion zearo Kanton'en izenpe-tu zituan 24 punttuak, eta ekin zien amorru bizian iñakitarrei eta Kan-ton'en berak ere onartu zituan "oitura txinatarrei". idatzi zuan liburu bat ere: "Tratados Histdricos, Politicos y Relijiosos de la Monarquia de la China", "Txina'ko Jaurerriaren Edestiari, Politikari, eta Erljioari-buruzko Erakusketak". Españi'ko Inkisizioak berberak debekatu zuan liburu ori. Pentsa nolako beazunarekin idatzia egonen zan!.

Baiña asko zabaldu zan, batez ere Europa'ko jantsenizale guztien artean. Atera aal izan zuten auek, iñakitarren azkeneko ondamena lortzeko, argumenturik ugari liburu orren orrietatik...!

Txina'ko lurretan zeuden, gaiñera, ordurako, aurreneko mixiolari frantzitarrak. Berulle'ren oratoriotarren kristaukerakoak ziran' Iñak tarren etsaiak beraz, jantsenitasunak ukituak. Ez bait ziran alperrik, berulletarrak eta Saint-Cyran, ain-ain lagunak izan. Ala, mixiolari auen etorrerak ez zituan batere iskamillak baretu.

Auzi ontan eskua sartu zuan irugarren Aitasantuak, Alesander VIII'ak, len zeuden baiño okerrago ipiñi zituan gauzak, Elizak bere jorkaeran maizegi erabilli oi duan..., esan dezagun..., `geiegizko diplomazikeriaren kulpaz"; ez bait gera maltzurkeri itza erabiltzera ausartzen, batez ere, diplomazikeri ori naimen onaren zitu izan oi dala uste dugulako.

Alesander VIII'ak Portugal'eko "padroao" zârra auldu nai zuan eta "Zabalkunde-Bazkunaren" eskubideak indartu. Ortarakc, "Apostolutzako Ordezkarî", "Vicarii Apostolici", batzuk izendatu zituan Txina'rako. Bikario oiek ez ziran Goa'ko Goigotzaiaren Eliz-Barruti-Nagusikoak izango; "Padroao"tik iare ziran beraz, eta zuzenki Erroma'ko "Zabalkunde-Bazkunaren" mendean egonen ziran.

Ziri ederra sartzen zion orrela "padroao" portugaldarrari. Ba ña, ots!: Une berberean ezagupen eta indar berria ematen zion "Padroao" berari, Bikario aiek izendatzean bi Gotzai ere izendatu bait zituan "Padroao"ko araura: Pekin'go Gotzaia eta Nankin'goa. Bi Gotzai auek Goa'ko Goigotzaiaren itzalpean zeuden; Portugal'eko Erregearren eskupean. Iñork ez zekian orain Txina'ko mixiotza noren eskuetan zegoan, ¿Goa'ko goigotzaiaren bitartez Portugal'eko "Padroao"ren eskuetan? ¿Erroma'ko "Zabalkunde-Bazkuna"renetan?

Gauza bat, bai, lortu zuan Alesander VIII'aren erabaki "yayoegi" arek: ordurarte josulagunen eta prailleen artekoa izan zan dantza artan, Erroma'ko "Zabalkunde-Batza" bera aureskulari bezala sartua-

raztea. Emendik aurrera zitalagoa izanen da borroka.

Bikario berri aiek, gaiñera, izugarri gaizki aukeratuak izan ziran. Frantzitarak ziran danak. Pentsaeraz berulletarrak' Txina'rako bidea artu aurretik, iñakitarren "lasakeriaren" eredu zeritzaizkien, '-oitura' aien etsaiak. Bikario auek dirala medio sartuko dira Frantzi'ko janse-nitarrak ere dantza artan. Ara nola:

Bikario auetako batek, Fukieng'oak, oraindik Txina'n iru urte bes-terik ez zeramazkianean, Alesander VII'ak "oituren" aide eman zuan erabakiak Fukien'go eliz-barrutirako baliorik ez zuala jakiñarazi zuan. Bi apaiz bidali zituan, gaiñera, Erroma'ra "oituren" erabateko gaitzes-pena lortzera' Apaiz auetako bat, Paris'ko Goigotzai Noailles Karde-nal jantsenizale ezagutuaren adiskide aundia zan, eta Noailles'enga-na jo zuan laguntza eske' Noailles'engana eta jantsenikeriaren kabi zan Paris'ko Parlamentuarengana.'! Sortu zan Frantzi'ko jantsenita-rren artean zaratarik naiko "Txina'ko oitura deabruzko" aien aurka!.

Alperrik' Aitasantu sendo bat bait zegoan orain Donekeparen ontzian lemazain: Iñozentzio XII'a; "Oitura" aiek atsegin zitzaizkion gizona. Orduantxe eman zuan ain zuzen —iñakitarrek eskatuta-Kang-Hsi Inperatoreak, "oitura" aiek danak erlijiozko esanairik ez zu-ten gizarteko oitura utsak zirala adierazten zuan Erabakia. Txina'ko le-ge egin zuan gañera Erabaki ori!

Baiña lenago esan dugun bezala, Txina'ko edestian txit onuraga-rrri izan dan Inperatore aren erabakiak ez zuan pakerik lortu.

Fukieng'o Bikario'ak egindako salaketaren azterketan iru gizon ari ziran: Elizako iru Anaidi Zarren Zuzendari Nagusiak iruak. Ez zitez-kean batera etorri. "Oituren" alde zegoan, zalantzarik gabe, Varese, "Fratres Minores" edo "Frantziskotar Txikarren" zuzendaria; aurka, bete-betea, agustindarrena: Serrano españiarra; eta kolokan, zer era-baki ez zekiala, Donenikolas'en Aita Felipe Karmeldarra.

Fukien'go Bikarioa bera, Maigrot Jauna, erdi apaiza erdi erlijio-soa zan: Paris'en eraiki berria zan "Atzerriko Mixioetarako Seminario"koa.

Baiña auzia erabakia zegoan une artarako Aitasantu berriaren barruan' Agian, erabakia zeukan aitasantutza artu-aurretik ere. Aita-santu au, Klemente XI'a zan. Ez zezakean, jokatu zuan baiño okerrago jokatu'

1.700'ean artu zuan aitasantutza. Presa zuan, nunbait, ixtillu aiek bukatzeko, ta urrengo urtean bidali zuan Ordezkarri bat, "Legatus a La-tere", (itzez itz, "Albotik Bidalia"), Sorkaldeko lurretara. "Bidali" onen

izena: Tournon'go Maillard'ar Tobit; tituloz, titulo utsez, "Antioki'ko Patriarka"; jatorriz, frantziarra.

Iñoiz autaketa txarrik izan ba'da, auxe izan zan noski txarrenetako. Egoskorra, setatsua, biotzez eta jenioz beroegia, sosegurik gabe-koa, eta okerren-okerren dana...! sorkaldeko izkuntzetatik tutik ere ez zekian gizona! Au izanen da, —Txina, Indi eta Sortalde guztiko Kristautasunaren etorkizuna bere baitan zeramakian auzi batean—, epai-lari garaiena' Ez da, noski, Espiritu Santuaren atsa Elizaren diplomaziraiño jeisten.

1.703'an iritxi zan Tournon Ordezkarria, ordurako Frantzi'k Indostan'en beretzat arturik zeukan Pondichery izeneko urira, eta berealaxe, bear bezalako patxadarik gabe, galerazi zituan uri artatik "Oitura Malabartarrak", "Los Ritos Malabares". Agur Aita Nobili eta bere lagulien lan neketsu zugarra!

Andik bi urtera, 1.705'ean, iritxi zan Tournon Txina'ra, eta abegi onez eta omen aundiarekin artu zuan, bein baiño geiagotan gaiñera, K'ang-Hsi Inperatoreak.

Ez zuan Aitasantuak bere Ordezkariaren aburuari itxo'iteko astirik artu. Ura Txina'ra iritxi baiño urte bete lenago, 1.704'ean, gaitzetsi bait zituan Txina'ko "Oiturak", eta Sortalde guztikoak. Ez ote zebillen azkartxoegi Klemente XI'a orrelako arazo edentsu mardulean? Amai-ka urtean! gorde zuan beintzat ixillik, argira eman gabe, bere gaitzespen ori. Baiña gauza asko gertatu ziran, bitartean, eta danak samingarriak.

Argia bail zan biziro K'ang-Hsi (edesti txinatarretako Sheng Tsou) Inperatorea..., igerri zuan Tournon Ordezkariak bazebilkiala zerbait iz eta gertakizunei aurrea artzearren, Txina'n lan egin nai zuten mixiolari guztiei, Inperatorearen "Piao" edo "Baimena", eskatzeko agindu zien'

Tournon Ordezkariak, —ezagutzen bait zuan ordurako Klemente XI'aren ixillezko gaitzespena—, "Txina'ko Oiturak" gaitzetsiaz eta In baimena eskatzea debekatuaz erantzun zuan Nan uritik.

Inperatoreak, emeki, begiramen guztiekin, baiña jostaketarako biderik eman gabe, Txina'tik irtetzeko agindu zion Ordezkariari' Izan ere, berak, Txina'ko agintari Nagusiak, "Oitura" aiek erlfjioarekin zer ikusirik ez zutela esan ba'zuan, eta esateaz gaiñera, "zer-ikusirik-ez-izate-ura" Inperioko lege ere egin ba'zuan, nor zan, ez Txina'ko giza-biderik, ez Txina'ko izkuntzarik ezagutzen ez zuan atzerritar etorri-

-berri ura, "Oitura" aiek erlijiozko oiturak zirala esateko?

Portugaldarren Makao'ra joan zan Tournon' Ez zuten emen Portugal'eko Jon V'aren jaurlariek K'ang-Hsi Inperatoreak izan zuan adeitazunik izan, giltzapera jaurti bait zuten Txina'tik erbestetutako Aitasantuaren "Legatus a Latere" doakabe ura. Izan ere, Alexander VIII'ak Txina'rako Bikarioak izendatu zituan ezkerero, asarre zegoan bâ Portugal Aitasantuarekin' Klemente XI'k, Tournon gizagaixoa "Ordezkarri" bezala Sortaldera bidali zuanean ere, egin zuan Portugal'ek bere protesta edo osteketa. Dana alperrik. Makaldua zan aspalditik portugaldarrek lurralde aietan izan zuten nagusitza ia orokorra, eta arrezkerero Portugal'eko Erregeen osteketak ez zuan Erroma'n leen aiñako indarrik

1'639'an, oraindik Portugal'eko Errege Españi'ko Felipe III'a zala kendu zioten olandarrek Portugal'eri Malaka, sortaldeko errialde guztietarako giltza. 1'640'ean, inglandarrek Madras arrapatu zuten. 1.642'an olandarrek, Formosa, eta 1.685'an Zeilan. 1.661'ean inglandarrek, Bombay; eta 1.666'ean, ogei urteko burrukaren ondorean, Muskat erori zan olandarren eskuetara.

Españi'ren aurka, bere askatasuna ostera lortzearren, zortzi urteko gudatean borrokan zebilela arrapatu zizkioten, aintza askorik gabe, lurralde auek danak Portugal txikiari. 1.668'an amaitu zan Españi'ren aurkako guda ura eta lortu zuan Portugal'ek Laterri lare izatea' Orduantxe iritxi ziran frantzitarrak ere Sortaldeko lurraldeen arrapaketa artara. 1.674'ean, Pondichery artu zuten.

Goa'ko uriaz landa, deus gutxi gelditu zitzaion Portugal'eri: Makao, Txina'ren itxas ertzeko uria; eta beste lur-apurtxo batzuk.

Makao'n il zan espetxetik irten gabe, Tournon Ordezkarria' izugarria izan zan Txina'n utzi zuan zerjakiñeza.

Klemente XI'ak, adierazi zuan bere Ordezkarriaren jokaera atsegina izan zitzaiola; Ura Makao'n giltzapetua zegoalarik 1.709'an, kardenal tzara igo bait zuan. Baiña, 1'704'a ezkerero egiñik zeukan "Oituren" gaitzespena, izkutuan gorde zuan oraindik.

Zer egin jakin naiean, Pekin'go Gotzaiak eta baita "Propaganda Fide"ren mendeko zan Kiangsi'ko Bikarioak berberak ere, Erroma'ra jo zuten, ortarako ordezkari bat bidaliaz, eta bitartean ez zuten Tournon'en debekurik argitara eman nai izan' Ez Gotzaia, eta ez Bikarioa, Josu'ren Lagundikoak ez ziran' Amazazpigarren mendearen amaiean, iñakitarrak ez ezê, frantziskota-domingotar asko ere, "oituren" aide bait zeuden Txina'n.

Klemente XI'aren barrua zalantza guztien leize izan zan beti auzi guztietarako. Eta mixioetako auzi onetan ere koJokan zebillen Aita-santu zalantzaria. Ez zan ausartzen 1.704'ean idatzirik laga zuan gale-razpena argitara ematera. Ikusten bait zuan, bâ, zenbat jende zegoan berak ixilleko idatzi artan debekaturik zeuzkan "oitura" aien aide.

Azkenean, amalau urteren buruan, irten aal izan zan 1'715'ean Klemente XI'a zalantzezko leize artatik. Baiña okerreko zulotik irten zan: "Ex illa die", "egun ura ezker" deritzaion erabakiaren bitartez, "Sorkalde'ko Oiturak" debekatuaz' Erabaki ortan, gaiñera, zin egitera beartzen zituan mixiolari guztiak: "oitura" aiek erabilliko ez zituztela juramentu-pean itz ematera. Eta Elizak dituan zigorrik gogorrenekin astintzen zituan bere erabakiaren aurka ari zitezkean guztiak.

Erabaki aren aurka aurrena ari izan zana, Txina'ko Inperatorea izan zan, baiña ura Elizaren zigorpeetatik at zegoan. Kang-Hsi'k egiazko iraintzat artu zuan Klemente XI'aren erabakia; bere pertsonaren kontrako, eta Txina'ren kontrako irain eta desdeñutzat. Akitu zitzaion noski pazientzia, eta bereala eman zuan erantzuna. 1.715'eko urte ortan bertan mixiolari guztiak bidali zituan Txina'tik, eta eliz guztiak desegiteko agindu. Baita kristautasuna galerazi ere galerazi zuan'

Klemente XI'ak, Sortaldeko oiturak debekatu zituan: XI'ak Kang-Hsi'k Sarkaldekoak debekatzen zizkion orain. Kitto.'!.

Larritu zan Klemente XI'a gizagaixoa, eta gauzak konpondu naiean beste Ordezkari bat bidali zuan Txina'ra: Yon Andoni Mezzabarba, (1.720), baiña Kang-Hsi'k ez zuan ikusi ere nai izan.

Mezzabarba Ordezkariak, agian bildurtu zalako. agian Klemente XI'ak artarako oarpen izkutuak eman zizkiolako, ezkutitz alaigarri bat idatzi zien Makao'tik mixiolari guztiei' Ezkutitz ortan eroapen pixka bat izateko eskatzen zien, eta, pozgarriagoa zana, "oituren" arloan poliki zabaltzen zien eskua.

Uste izan zuten mixiolariak Eliza begiak irikitzen asia zala. Oker zebiltzen.

Mezzabarba'k eskutitz ura idatzi zuanean aitasantu-aldaketa zan Erroma'n, eta Aitasantu berriak, Iñozentzio XI'ak, eskutitzaren berri izan bezain laister ezeztu zuan Ordezkariak ziona, eta onek, Mezzabarba'k, ordezkaritza laga, ta Erroma'ra itzuli bear izan zuan' Geiago ote zekian Txina'z Iñozentzio'k Erroma'n Mezzabarba'k Txina'n baiño?

Jarraitu zuten iñakitarrek gauzak bere punttuan ipiñi naiean, baiña jarraitu zuan Erroma'k ere ezetz esaten eta Sortaldera sortaldeko izkuntzarik ez zekiten Ordezkariak bidaltzen; azkenean, Josulagun-

dia'ren Nagusi Orokorrari, geiago Txina'ra josulagunik ez bidaltzeko "eskatu" zion.

O!, Erroma'k bere erabakiak sekulan bir-zuzendu ez nai izate betidaniko ori!!!

1'722'an il zan Kang-Hsi aundia. Elizari Txina galantaren atearain zabalik ipiñi nai izan zizkion Inperatorea: Bere ondorengoa, Yung Cheng, (txinatarren Shih-Tsung), inperiotza artu bezain laister asi zan, indarra, espetxea, erbesteratzea eta erailketak erabilliaz, kristautasunaren aztarna guztiak desegiten.

Ez zeuden Txina'ko Inperatoreak, beren erriari egindako isekaduritu zitzaiena, errez barkatzeko asmoetan.

Benedikto XIV'ak Elizaren Giltzak artu zituanean sentittu zuten itxaropen pixka bat inakitarrek; Aitasantu berria adimen zabaleko gizona zalako. SEz ote zekiten inakitarren etsai ere bazala?

Batzorde baten iritzia entzun ondorean Benedikto XIV'ak eman zuan "oiturea" auzian azkeneko epaiütza, 1742'ko "Ex quo" deriztaion Buldaren bitartez' Bulda ortan,

—Klemente XI'aren debekuari indar berria ematen zion,

—Ostera, "oitura" aiek ez erabiltzeko juramentua eskatzen zien mixiolari guztiei,

—Mezabarba Ordezkarien jokabidea gaitzesten zuan; eta,

—"Oituren" auzi artaz berriro itzegitea bera ere debekatzenuan.

Ausartu ziran ala ere Txina'ko mixiolari batzuk errukia eskatzera' Egin zuan 1.744'ean eskari bera Goa'ko Goigotzaiak ere' Alperrik. !horen aurrean kementasunik izan ez zuan Aitasantu belaxka ura, "oituren" auzian bakarrik izan zan ausartia. Ausarkeri merkea. Inorenngandik arriskurik gabe pozik uzten bait zituan inakitarren arerio guztiak.

Orrela il zan Txina'ko Eliza. Klemente XI'a izan zan bere erailea. Benedikto XIV'a, obiratzailea. "Ex illa die" Erabakia, lepo-egin zion ezpata; "Ex quo" izeneko Bulda, lur eman zion aitzurra'

Eliza katolikoan oi dan bezala, gero..', noiz-bait..., oso berandu..., XX mendean! zuzenduko ziran XVII eta XVIII mendeetako okerrak. 1.919'an eta 1.939'an! onartu ditu Erroma'k, azkenean, "Sortaldeko Oiturak"

PROTESTALARIEN MIXIOKETA—: Garai artakoa da Eliz protestalarien mixiotzaren asiera' Berandu oartu ziran Eliz aiek Kristautasunaren mixiobearraz; baiña, oartu ziran bezain laister, sendo sartu ziran mixio-ekintzan.

Elizek berak baiño lenago "sektak" edo Elizetatik ateratako "talde bereziak" asi ziran lan ontan: Inghlanderriko eta Olanda'ko "puritans", "garbizaleak". Aurreneko mixio lurak, ipar-Amerika eta Sortaldeko Indiak izan ziran'

Olanda'ko kalbindarrek, amazazpigarren mendearen asieran ekin zioten mixiokuntzari. Olandarrak Portugal'eri Sortaldean kendutako lurak, Salerosketarako Lagundi baten mendean zeuden; "Sortaldeko Indietako Lagundia"ren mendean. Bazizun lagundi onek ere mixioke-
tarako zaletasuna. Eraiki zuan, beintzat, Leide'ko Unibersitate ospe-
tsuaren ondoan, mixiolarigaiantzako Seminario bat, (1.620).

(Zori txarrez, amurru beltzarekin eraso zioten Eliza Katolikoaren mixioei eta mixiolariei bazter guztietan kalbindarrek).

Beranduago asi ziran lutertarrak' 1.719'an il zan Indostan'eko lurretan lendabiziko mixiolari lutertarra. Ziegenbalg'eko Bartolo.

Ez zuten mixiolari protestalariak, mixiolari katolikoak baiño uzta ugariagorik bildu Argikuntza-aroan, oben berera jausi bait ziran danak: bataiatu berriei erlijioaz ez ezê, kulturaz ere aldaarazi nai izateko obenera.

Lutertarrek, ala ere, mixioketan asi ziranean, iñakitarren "erak" artu zituzten eredutzat. Baiña, edo kalbindarrek beti "era" aien etsaiak izan ziralako, edo Europa'n lutertarrak jantsenitarrekin kuttunki konpontzen ziralako, edota mixiolari lutertarren artean ere Eliza katolikoak "oitura" aiek "jentillenak" zirala epaitzeak indar izan zualako, laister laga zituzten "era iñakitar" aiek, mixiotzaren kalterako.

Urria da, ikusi dezakegun bezeala, Argikuntza-aroko ostelarien mixioketaren edestia. Urrengo mendetik asita izanen da miragarria, gure Anai Berezieiek, mixioetan egingo duten lana.

KLEMENTE XIII'a
(1758.1769)

Benedikto XIV'a il zanean, berealaxe jarri ziran erne Europa'ko Laterri guztiak; eta Baita Laterrietako Agintarien Kardenal ordezkariak ere. Kardenal auk izaten ziran, bakoitzak bere nagusiari, morroi apalen gixan, aitasantugai guztien zeazketak bidaltzen zizkietenak. Oraingoan, Agintari geienak asmo berdiñekoak ziran gauza batean: Aitasantu berria Josuren Lagundia desegitera gerturik zegoan gizona bear zuan. Ez zirudian orrelako bat aurkitzeak gauza zailla izan zitekeanik, Kardenal geienak iñakitarren etsai izandako Benedikto XIV'ak izendatuak bait ziran.

Alatagutziz, Argikuntza-aroko Konklabe guztietan bezala, naasirik ibilli ziran oraingo ontan ere Laterri Kristaueetako Agintariak. Autaketa batean, Cabalchini Kardenala Aitasantu izatera zijoan unean, Frantzi'ko Luynes Kardenalak jaurti zion bide guztiak ixten zizkion "ezezko orokorra"; Calbalchini'k pozez beterik artu zuan ezezkoa. Kolobika XV'aren arrazoia? Txepelkeri bat: Donekarlos Borromeo iñakitarra Santu egiterakoan, santutze aren aide beroegi ari izan zala Calbalchini. Ikus noraiño zeuden Errege katolikoak, Borboitarrek batez ere, Josu-Lagundiaren aurka suturik.

Au ez, ori ez, eta beste ura ere ez, Karlos de la Torre de Rezzonico aukeratu zuten azkenean Aitasantu, —Klemente XIII'a—, Errege ta Jaun guztien gustora; Benedikto XIV'aren konfiantza beteko gizona izan zalako, Aitasantu aren erara jarraituaz, iñakitarren etsai izanen zala uste bait zuten. Ordurako, Borboitarrek, eta beste Agintari katoliko geienak ere bai, erabakia zeukaten Josuren Lagundiaren ondame-na, baiña oker irten zitzaizen-Klemente XIII'aren autaketa, Aitasantu au iñakitarren alde ipiñi bait zan zalantzik gabe. Bere almen guztiarekin babestu zituan jantsenitarren aurka, erregekerizaleen aurka, "filosofi-berri-zaleen" aurka, Europa'ko gobernu guztien aurka, mundu guztiaren aurka; eta Elizaren barnean ere, gotzai geienen, eta iñakitarrez landako beste praille ta lekaide ia guztien aurka.

Aipatu ditzagun jarduketa bikain arrigarri ontan lagundu zioten bi gizonen izenak, aipu ori ondo merezia dute-ta. Bat, aita santutza artu

bezain laister Klemente XIII'ak Kardenal egin zuan illoba Karlos Rezzonico izan zan' Bestea, Estaduko Idazkari Torrighiani Kardenal kementsua'

Borboitarren politikeraren gorazailleek diotenez, Klemente XIII'ak ez zuan mende artako giroak eskatzen zuan modura jokatzeko asmatu; eta, orregaitik, Josu-Lagundia gordetzearren Elizari gaitz aundiak ekarri omen zizkion'

Ez da ori egia. Mende aren giroak eskatzen zuana, edo obeto esateko, Borboitarren puzkeriak eskatzen zuana, Lagundiaren deusezteza, baiña argi ikusten zuan Klemente XIII'ak Josuren Lagundia errugabea zala, eta bera ez zan errugabe zitekean deusik gaitzesteko gizona, naiz emezortzigarren mendeak, eta edestiaren mende guztiak batera, ori egiteko eskatzen ba'zioten ere' Era berean, ondo zekusan Klemente XIII'ak Lagundia desegiteak, onik ez baiño gaitzik asko ekarri bear ziola Elizari. Geroko gertakizunek, arrazoi eman zioten; orixe gertatu bait zan urrengo Aitasantuak Iñaki Gurenaren Anaidia deuseztuta barreiatu zuanean. Klemente XIV'ren ekintza negargarri au aztertzean, oster aipatuko bait dugu Klemente XIII'aren zuzentasuna, ikusi dezagun orain Aitasantu onek beste gaietan egin zituan lanak.

Bera egiazko santu zalarik, saiatu zan, atsedetik gabe, Eliza santutasunera eramateko Gotzaien kontzientzia esnarazten. Eliza maite zualako, eman zien aurpegi agintari erregekerizaleen geiegikeriei. Borboiekin izan zituan ontan iskamillik auendienak, batez ere Parma'ko Borboiarekin'

Koldobika XIV'aren oiñordekoak, lau Laterrietan ziran orduan Nagusi: Frantzi'n Koldobika XV'a, Españi'n Karlos III'a, eta Napoles eta Sizili'n Fernando I'a' Fernando I au Españi'ko Karlos III'aren semea zan

Laugarren Laterri Borboitarrean, Parma'ko Dukaterrian, Felipe bat zan Duke, Españi'ko Karlos (II'aren anaia, biak Felipe V'aren semeak.

Parma'ko Dukaterri ortan sortu zitzaizkion Klemente XIII'ari, erregekerizko arazorik gogorrenak, ango Borboiek Elizan agintz' ko artu 'zuten oitura moztu bait zuan Aitasantu onek, "Parma'ko Oarpide" edo "Il Monitorio di Parma" esan zitzaion Agindu baten bidez. Felipe zan orduan Parma'ko Dukea, eta aren aurretik, Karlos izan zan, Felipe aren anaia, gero Napoles eta Sizili'ko Errege eta geroago Españi'ko III Karlos izango zana' Biak, --Felipe eta Karlos—, Españi'ko Felipe'ren semeak.

Laister izan zuan gaiñean Aitasantuak Borboitar guztien asarre zipotza: Fernando I'ak, Naples'ko Jaurerriaren barruan zeuden Elizaren bi Uri-Laterri kendu zizkion: Benevento eta Pontecorvo; Koldobika XV'ak, Abiñon, eta Benesitar Konterria; Elizarenak auek ere; Karlos III'ak ere bidali zion bere asarrezko marrua; Ortarakoxe gertutu zioten ain zuzen aurretik Floridablanca'k eta Campomanes'ek "Juicio imparcial sobre el Monitorio de Parma", "Parma'ko Oarpenatzaz iritzi zuzena" zeritzan idazkia. Ez zan iñondik ere zuzena "Iritzi" ura, erregekeriaren pozoiak Klemente XIII'aren kontrara okertua baizik. Naiz izenez Floridablanca ta Campomanes Gaztelerriko Kontsejuaren Fiskalak besterik ez izan, bi gizonok zeramaten Españ 'ko agintaritzaz guztia, eta berak izanen ziran, gerontzean ere, Karlos III "santtu tontto"aren bakarraginkeria eta erregekeria oiñarrituko zituztenak. Urkijo, Karlos IV'aren ministroak, jasoko zuan geroxeago bere gaillurrera Españ'ko Borboien erregekeria, regalismoa.

Menendez Pelayo edestilariak "santo tonto" deitu zion Karlos III'aren konfesore Frai Joakin Eleta Gotzaiari' Baiña, agian, Karlos III'a bera zan egiazko "santtu tonttoa", naiz Elizari ain kaltegarri zitzaizkion legeak eman, eraspenkeri ta errezoetan sarturik bizi izan bait zan beti. Ez da batere arritzekoa Errege "argitu" onen xoxotasun ori, melankoli edo go beldurak aren aita Felipe V'a ere bein baiño geiagotan zorakeriraiño eraman zuala bait dirudi.

Oroi dezagun, gauza bitxia da-ta, Parma'ko Dukaterria aitasantutzaren sorkari zala; Paul II'ak, bere seme batentzat, Po ibaiaren egoal-dean 1.545'garren urtean osatutako Laterria. Orra bā; Laterri onek mindu zuan Aulki Donea Klemente XIII'aren denboran' Ederki pasa zion deabruak Elizari kontua!

Borboitarren txatxukeri danak baiño itunagoa izan zitzaion Klemente'ri sinisgabekeriak azkeneko egun aietan munduan zegizkian irabazketak. Sinisgabekeri orren zabalkundea eragozteko iru liburu ospetsu debekatu zituan: 1759'an Helvetius'en "L'Esprit", "Izpiritua"; urte ortan bertan Frantzi'ko "Encyclopédie", "Entziklopedia"; 1763'an Rousseau'ren "Emile", "Emilio".

Klaudio Adrian Helvetius, (1715 - 1771), paristarra zan. Locke'ren oldozketa frantzerara itzuli, eta gogorrago biurtu, besterik ez zuan egin. Milla bider Locke baiño ariñagoa ta axalekoagoa da, baiña, orretxegaitik beragaitik, baita ulerterrezagoa ere; eta irakurtzeko atsegiñagoa. Onek zabaldu zuan Europa'n Inghlanderriko maixuaren Zentzukeria: Gogapen guztiak sentipen utsak dirala, eta, gizakumearen arikuntzen guztien elburua ere, sentipena bakarrik dala: atsegiña sen-

titzea.

Helvetius baiño askozaz idazle ohea da, beste toki batean aztertu dugun Jon Jakob Rousseau jinebratarra, (1712 - 1778); au ere, Locke'ren zabaltzaille eta osatzaille' Izadia, buruz aztertu leiken gauza baiño, biotzez senti daiteken gozagarri bat geiago zala pentsatzen zualako, Romantizismoaren aurreneko iturburuetako bat izan zala ere esan daiteke' Jaiotzean bertan gelditu zan amarik gabe' Aurtzaro gogorra ta samiña izan zuan, irakasle ta zaindari eman zioten "artzai" kalbindar baten etxean, "artzai" onen arrebak errukirik gabe zigortzen zualako; eta, gero, eskulantegi batean maixuak era berean astindu oi zualako' Amasei urteko mutikoa zan, ikaratuta maixu ziriziari edo grabatzaille onengandik, nora joan jakin gabe, iges egin zuanean.

Bere bizitza guztia izan zan nekez eta samiñez betea. Ez zien berak ere beste gozotasunik asko eman. Bost seme izan zituan eta bostak bidali zituan jaio bezain laister mixerikordietxera' Ume oien ama, Terese Le Vasseur, irakurtzen ere ez zekian neskame bat zan' Ogeitabost urte geroago, emakume onekin ezkondu zan Rousseau, baiña ez zuan matrimonioan zorionik aurkitu. Kalbindar, katoliko, deista, kai bindar berriro, eta ostera deista, bere sinispideak bere sentimentuak bezain atsedenkaitzak izan ziran. Ez da arrigarri, ia bazter guztietan, agintariak bere aurka ekin izatea: Jnebra'n, Paris'en, Berna'n'" Jenio kaxkarrekoa zan-da, adiskide guztiak ere aide egin zioten banan-banan: Saboian'n, luzaoran maitale lizun izan zuan Warens'ko Baranesa pinpiriñak; Frantzi'n, Diderot'ek, Holbach'ek,...; Inghlanderrian, Hume'k..'; eta abar. Erdigoseak eta mixerian bizi izan zan beti. Eta era txarrean il zan. Frantzi'ko "argitu" guztiak bere aurka otsoak bezala ipiñi zitzaizkiolako, izugarrizko ikarak menderatu zuan; mundu guztiak bizia kendu nai ziola-edo uste izateraiño. "Archifou"; "ero baiño eroago" deitu zion Voltaire`k. Rousseau ez zan eroa, baiña erotasunetik urbil ibilli zan azkeneko urteetan; eta, agian, berak, bere eskuz, il zuan bere burua'

Lagun batek bakarrik ez zion utsik egin, baiña lagun leial ori, Azkoiti'ko Altuna'tar Imanol Iñaki, "cet aimable jeune homme, né pour tous les talents et toutes les vertues" ("gizaseme gazte maitagarria, jakintza oro ta onbide guztietarako jaioa") Rousseau'k bere "Egunerekoan" dionez, eriotzak kendu zion. Biotzez maita izan zuan jinebratarak euskalduna. Entzun aren itzak: "Quels trésors de lumières et de vertu je trouvais dans cette âme forte!. Je sentis que c'etoit l'ami qu'il me fallit: nous devinmes intimes'" "Nolako argitasun eta ontasunezko altxorak aurkitu nituan nik anima sendo aren baitan! Suma nuan

bera zala nik bear nuan laguna; adiskide miñak egin giñan'" Ez pentsa euskotar "argitua" filosofilari maixuaren mendekoa zanik' "Nous goût n'étaient pas les mêmes; nous disputons toujours. Tous deux opiniâtres, nous n'étions jamais d'accord sur rien, Et, tout en nous contrariant sans cesse, aucun des deux n'eût voulu que l'autre fût autrement". ("Gure iritziak ez ziran berdiñak; eztabaida batean geuden beti. Buru-gogorak biok, ez giñan deusetan batera etortzen. Ta, naiz eten gabe alkarren aurka ari, ez zuan bata bestea, inolaz ere, bestelako izaterik naiko"), dasaigu Rousseau'k; baiña azkeneko gai antan, berak laister ikusiko zuan bezala, arias oker zebillen; ain zuzen, orixe bait zan Altuna'k nai zuana: bere adiskidea "bestelako" egitea; ostera Eliza Katolikoaren altzora erakartzea. Eta larri ikusten zuan bere burua Frantzi'ko emezortzigarren mendearen filosofilaririk argienak Euskadi'ko apostolu "argituaren" arrazoiketari aurpegi emateko' Pake eskatzen zion beintzat, —azkoitiarraren dialektikari erantzuteko gauza ez zalako dirudianez—, atsedean billa idatzi zion ezkutzitatean: "D'ailleurs vous cherchez, par zèle, à me tirer de mon état, et je me fais un devoir de vous laisser dans le vôtre, comme avantageux pour la paix de votre esprit, et également bon pour votre félicité future'.. si vous vous conduisez selon les divins et sublimes préceptes du christianisme", ("Zuk, nere egoeratik atera nai nauzu, apostolutza-miñak eragin-da; nik berriz nere obligazio bezala ikusi nai dut zure egoeran pakean uztea; egoera ori zuretzako onuragarri eta betiko zure zoriona lortzeko egokia zaizula uste bait dut, ortarako zuk bear bezala kristautasunaren agindu guren eta jainkotiarrak betetzen ba'dituzu"). Ta, orrela jarraitzen du: "Dakuskezunez, debekatua gelditzen da gai oni-buruz, bion artean, jarduketa oro". Fedea baduala berak ere, oiuegiten dio: "... quoy que ma foi m'apprenne bien des choses qui sont au-dessus de ma raison, c'est premièrement ma raison qui m'a forcé de me soumettre à ma foi"; ("Nere arrazoiarengaindik dauden gauza asko erakusten dizkit nere sinismenak, egia; baiña nere arrazoia izan da, aurretik, burua sinismenera makurtzera beartu nauana"). Apalki aitortzen dizkio adiskideari bere pekatuak eta eraman duan bizitzaren makurkeria: "... ayez assez bonne opinion de votre ami pour croire que sa morale de principes, si ce n'est celle de sa conduite, n'est pas inférieure à la vôtre, ni moins agréable à Dieu". ("Egidazu, adiskide oni, mesede: nere moralak, —ez nere bizimodua, ez—, baiñan bai nere pentsaerakoa, zurea baiño motzagoa ez dala, eta Jainkoarentzat zurea bezain atsegiña dala, pentsatzeko mesede"). Ta, amaitzeko, agur dagio euskaldunari "dans l'espérance d'en

bonheur eternel que j'espère partager avec vous dans le sein de mon Créateur" ("nere Egillearen altzoan zurekin batean izanen dedala uste dudan betikotasuneko zorionaren itxaropenean").

;Lortuko ote zuan azkoitiarrak bere adiskide eroria zentzu onera eta egiazko katolikotasunera erakartzea?. Rousseau ez zan gaiztoa; askoz gutxiago, infernuko deabrua. Gizon ona zan; bere gr ña sutsuak menderatzen erakutsi ez zion ezikera oker batek, eta bizitzaren gogortasunak, okertutako urne aundi gixagaixo bat zan.

Emezortzigarren mendeko filosofilarietan bera da, Locke'ren atzetik, gaillurrena, baita iareena ere, au da: bere-kasa ge enik pentsatu zuana. Locke'ren gogoetei Locke'k berak ikusten ez zien mamia, —mami guztia—, atereaz, Rousseau'k eratu zuan mundu berriaren muin izanen dan politikaren eta soziologiaren era.

Bera izan zan mende arek izan zuan idazlerik onena ere: goxoena, errezena, atsegingarriena. Bere liburuak izan ziran masoitzaren ebanjel oa, eta, Ameriketean aurrena eta Europa'n gero, jeiki ziran iraultza guztien garra.

Rousseau'ren aurreneko liburua "Julie ou la Nouvelle Heloise" "Jale, Eloisa Berna" izan zan, nobela itun malkogarri bat, (1761). Gero etorriko ziran beste toki batean aipatutako "Le Contrat Social" ("Itun Gizartegillea"), eta "Emile ou Traité de l'Education", ("Emilio, edo Eziketariburuz Jarduketa").

Aundiak ba'dira ere Rousseau'ren erruak, gauza batean, beintzat, ez du errurik: Ez zan bera Europa'n zabaltzen ari zan sinisgabekeriaren iturria' Sinisgabekeri ori Kepa Bayle'k 1695'tik 1697'ra argitaratutako "Iztegiak" erein zuan, eta Diderot'en zuzendaritzapean idatzi zan "Entziklopediak" zabaldu zuan bazter guztietara "Encyclopédie ou Dictionnaire de gens de lettres, mis en ordre et publié par Diderot... quant'à la part mathématique par M. D'Alembert". 1717 eta 1784'a bitartean agertu zan. Bertan idatzi zutenetatik ospetsuenak auetxek dituzu: Diderot, D'Alembert, Rousseau, Voltaire, Le Mettrie, Helvetius, Holbach, Condorcet, Buffon, Marmontel; Raynal eta Mallet apaizak; galikerizalea azkeneko au, sinismen mottelekoa bestea.

Idazleen artean, izan ziran katolikoak ere; Enziklopedia ez bait zan zuzenean sinismenari erasotzen zion liburua. Baiña, satorren antzera, azpilanean, sustrai guztiak jan eta oiñarri guztiak auts egiten zizkion, gizakume "argituen" erlijioarau bakartzat arrazoikeri utsa ñiaz. Orrela jokatu zuan ia eun urte lenago Bayle'k berak ere.

Emeretzigarren mendeko katolikoek iritziz, sinisgabe, matxino

biurri, eta gaizkille guztien Biblia izan da Frantziko Entziklopedia. Eli-zaen etsai guztiei, "entziklopeditarak" deitu oi zieten'

Ez zuten Entziklopedi ura ain guztiz-okerra ikusi argikuntza-aroko katolikoek, eta askok eraman zuten beren liburutegietara' Baita emen gure errian ere. Euskalerrian poliki zabaldu zan Jakintza ororen Bilduma zan Idazki ura; bizi-ro jakintza-miñak joa bait zegoan emezortzigarrengo Euskalerra bikain eta oparoa. Gipuzkoa'k bakarrik, beste Karlos III'aren lurralde guztiek baiño Entziklopediaren arpededun geiago izan amen zituan, Menendez Pelayo'k dionez; eta ez dio noski gezurra, Bergara'k bakarrik, —200 sendi doi-doi zituan Bergara'k—, amabost arpededun izan bait zituan'

Erejiaren pipiak urraturik ote zegoan Euskalerra bakun, eraspenkoi, "argitu" ura? Ez, iñondik ere, naiz España'ko idazle katolikoek, Menendez Pelayo buruzagi dutela, besterik adierazi nai. Errez iristen zan Erroma'n, liburu debekatuak irakurtzeko baimena, eta España'ko Inkisizioaren gaiñetik Erroma'ra jotzen zuten emengo "argituek" an bizi ziran erlijioso euskotarren bitartez, baimen ura lortzeko. Badakigu orixe egin zuala Munibe'tar Xabier Mari eusko "argituen" buruzagiak. Parrokoaren etxean gorderik laga zituan liburuak, baimena iristen zan arte' Ori, Menendez Pelayo'k eta bere jarraitzalle españa'arrek ez dioten gauza da'

Wolfran-meatza idoro ta Europa'ri platinoa, zidardiña, nola urtu, garbitu, eta landu, erakutsi zion Euskalerra langille arek bearrezkoa zuan "Jakintzen, Ertien eta Langintzen Enziklopedi" ura.

Ez zan noski Frantzi'ko au lendabiziko, mota ortako, idaztia' In-glanderrian baziran orrelako Entziklopediak eta aietako bat itzultzea ere pentsatu zuten Diderot'ek eta bere lagunek. Oso atal aulak badituala Frantzi'koak esan oi da; eta egia da, beste orrelako liburu geie-nekin gerta oi dan bezala' Baiña Jakintza gaietan liburu sendoa da; eta, argitaratu zanean, danetan onena zan.

Aia ere ondo egin zuan Klemente XIII'ak debekuepean ipiñi zua-nean, teologi ta filosofiari buruzko ataletan ariñegia eta askotan in-tentzio okerrekoa dalako. Deismotik artua du bere pentsaera; baiña biotz askoren barruan katolikotasunari bezain ainbat kalte egin zion deismoari; biotz oietan, arrazoikeri antzuaeren zitu, ateismoa erñaarazi bait zuan.

Baiña ez zan naikoa, olako liburu mardula galeraztea' Kristautasunean errotutako beste Entziklopedi bat zan bearrezkoa; Teologia, Filosofia, Soziologia, Politika, Izadi-Jakite berriak, Langintzak'.., argi-

kuntz'aroko jende jakite-gosetiari batean eskeiñi zezaiozkean Entziklopedi naro kristau bat. Baiña ez zuan Elizak ori egin zezakean gizotnik. Ez zezazkean izan ere, ez zituan prestatu-ta.

Beste bi liburu ere debekatu bearrean aurkitu zan Klemente XIII'a, biak erregekeri-zaleak. Bat Febronio'rena; bestea, Menseguy'rena'

"Justinus Febronius", Jon Nikolas von Hontheim, Treberis'ko Gotzai Laguntzallea zan. 1763'an argitaratu zuan bere liburua: "De statu Ecclesiae et de legitima potestate Romani Pontificis", "Elizaren izatea eta Erroma'ko Gotzai Gurenaren legezko-almena".

Ona zan Febronio'ren asmoa: protestalariet katolikotasunera erakartzea. Ori lortzeko protestalariet Aitasantuaren eskubide nagusiari zioten bildurra kentzea bear-bearrezko gauza zala uste izan zuan. Ez zuan noski protestalarien biotzean bildur ura makaldu. Orobat makaldu zuan gauza, Aitasantuaren eskubidea izan zan.

Lobaina'n egin zituan Febronio'k ikasketak, eta Bernardo Zeger van Espen izan zuan irakasle, jantsendarren eta erregekerizaleen artean osperik aundieneko legiztilaria. Txiki utzi zuan erregekerian, ikasleak irakaslea. Ara ikaslearen gogapenik garrantzitsuenak:

Elizak izan lezakean Almen oro Eliza osoa-baitan dago. Eliza osoak aukeratzen du Aitasantua eta Eliza osoak ematen dio Aitasantuari onek duan almen guztia.

Aitasantua Elizaren menpeko da' Badu Elizak Aitasantua epaitzeko eta Aitasantua kargutik kentzeko eskubidea.

Agintaritzari dagokion neurrian, Aitasantua, Eliza-baitan, "phmus inter pares" da; "berdiñen artean aurrenekoa".

Aitasantuaren egitekoa, lege berriak ematea ez baiña, Elizaren Lege ta Oitura zarrak zainduaraztea da.

Elizbarruti bakoitzean Gotzaiak du agintaritzia, ez Aitasantuak' Hiz osoko agintaritzan ere Aitasantuak Gotzai Guztien Batzarraren esanera egon bear du'

Laterri bakoitzako elizetan Erregeak ez daude, sinismenari dagozkion gauzetan izan ezik, Aitasantuaren menpean. Eta siniste-auzietan ere ez da Aitasantua maixu gurena, Eliz osoa baizik.

Gotzaiet eta Erregeet Aitasantuen geiegikeriei aurka egitera beartuak daude.

Itxuraz, Febronio'k, demokrazira darama Alemani'ko Eliza, baiña itxuraz bakarrik, egiaz aristokrazira bait darama: aundiki batzuen agintaritzapera. Aundiki oiek, Alemani'ko Gotzaiak ziran, eta batez

ere, une berean Gotzai eta Printzipe ziranak. Gotzai Printzipe auek, beren Laterraetarako, beste LaterriBuruek aitasantuengandik lorturik zeuzkaten eskubideak gura zituzten, eta lortu aal ezin zituztelako, aspalditik aitasantuekin asarre zeuden. Asarre ori, puztua baike, baiña berea ez baiña gotzai Alemanitarrena zan asarre ori dager Treberis'ko Goigotzai Printzipe Autalariaren Gotzai laguntzailleak: Febronio'k' Badugu, esan dugunaren egiaz oartzeko, siñale zorrotza: Alemani'ko ogeitasei gotzaietatik geienak, amaseiek, ez zuten Febronio'ren liburuaren gaitzespena beren eliz-barrutietan agertu nai izan.

Une antan Treberis'ko Goigotzai eta Printzipe Autalari, Saxoni'tar Klemente-Bentzeslao zan: Febronio'ren gaitzespena erriari irakurri zioten gotzaietako bat. Aitasantu-zale zalako? Bai, noski; baiña ez osoro. Berak eraman zuan bere Gotzai Laguntzaille Febronio, erruen aitorketara, baiña, naiz Aitasantuak ala eskatu, ez zuan ainbat iskamil sortutako Laguntzaille au kargutik kendu nai izan.

Febronio'ren erru-aitortzea bera ere, eztabaida askoren ondorean egiña izan zan, eta ez dirudi guztiz borondate zuzenekoa.

Auxe da Febronikeriaren garrantzirik aundierna: Alemani'ko Elizan ain erroturik zegoan "episkopalismum" edo "gotzakeria", argitara Irtenarazi zuala. Beste ondorenak ez zuan izan, Erregeek berak begi okerrezi ikusi zutelako; Febronio "Erregeen aldeko" baiña "Gotzaien aldeko" geiago bait zan. "Eliz osoaren mendera" egon bear omen zuan kristau orok Eliza-baitan. Baiña Febronio'rentzat "Eliz osoa" Gotzaiak osatzen duten mailla da; eta Gotzai oietako bakoitza bere eliz-barrutian egiatzko Aitasantua da, Gotzai danen artean, —onorez—, garaiena, Erroma'ko Gotzala dala. Orrelakoa izan omen zan aurreneko Elizaren "Status" edo "Izaera"

Baiña Erregeek bildur zioten Gotzai bakoitza Aitasantu egite orri; edo Jaurrenien altzoan asarre ta nâsketen sorburu izan zitekealako, edo Aitasantuaren bitartez Gotzaiak obeki menderatuko zituztela uste zutelako'

Febronio'ren idazkia Austri'ko "josepekeriaren" azia izan zala esan ai da. Ez da egia. Josepekeriaren erroak Febronio baiña askoz zaaragoak dira, eta gaiñera Mari Teresa ta Josepe lia ez ziran, oldozkeraz, Febronio'ren antzeko gizakumeak.

Frantzi'ko Iraultza Nagusiak sortutako zurrunbilloak ito zuan, erabat, Febronikeria.

Klemente XIII'ak debekupean ipiñitako bigarren liburu erregekeri-zaleak, Mesenguy'ren "Kristau-Dotriñaren Azalpenak", ez du deus askorik balio. Jantsenkeri utsa zan liburu ura beste denbora aietako liburu asko bezala, eta ez zuan aipatzerik ere mereziko Españi'ko inkisizioa noraiño zegoan Erregeen oinpera menderaturik adierazteko balio ez baligu.

Españ 'n Errege, Karlos III'a zan. Jakiña da Karlos au, bere anai Fernando VI'a Españi'ko Errege zan bitartean Sizili'ko eta Napoles'ko Errege izan zala, semerik gabe Fernando VIa ilda, erregetza bikoitzi ura laga ondorean Españi'koa artu zuan arte. Bâ", Mesenguy'ren liburu ori erabili zuan Karlos III'ak Napoles'en bere seme zârrenaren eziketarako, eta gerontzean ere oniritzi aundian euki omen zuan beti.

Klemente XIII'aren debekua iritxi bezain laister argitara eman zuan, —debeku ori—, Españi'ko Inkisitore Nagusiak Madrid'en, Erregeari deus esan gabe. Ona jarri zan Borboia'..! Berealaxe desterrura bidali zuan Inkisitore Nagusia: Quintano Bonifaz'tar Imanol Goigotzaia. Gaiñera"

Erregearen baimenik gabe ezertxorik agintzea galazi zion Inki s zioari; Erroma'tik zetorzkian debekuak edo aginduak ere ez zezazkean andik aurrera Inkisizioak Erregearen baimenik gabe aldarrikatu;

Aurreantzean Inkisizioak eman bear zituan agindu ta erabaki guztiak ez zituan "Aitasantuaren izenean" emango, bere izenean, —Inkisizioaren izenean—, baizik' Au da: Erregearen izenean, Inkisizioak itz txikitxo bat esateko ere Erregearen baimena bear zuan ezkerro;

Bere asarrerik gogorrenarekin zigortuko zituala Inkisioko epai-lari guztiak, zesaien, desobedientziaren susmurrurik iristen ba'ziztzaion: "El amago de mi enojo en sonando a inobediencia".

Quintano Bonifaz ez zan erbestera joan"., ilur-jotzeraiño apaldu zalako! "Se humilié, suplicó y rogó, protestando mil veces de su fina obediencia a todas las voluntades de su Rey y Señor, pidiendo perdón de todo si la real penetración había notado proposición o cláusula que desdijese de su ciega sumisión a los preceptos soberanos". Menendez Pelayo'ren itzak dira. "Makurtu zan, eskatu zuan, arren-egin zuan, Erregearen naimen guztiei beti izandu zien obedientzia fiñenetakoa zala oiuegiñaz; Erregearen aginduei menpetasun itxu-itxua izan omen zien beti, eta barkapena eskatzen zuan Erregearen adimen zorrotzak menpetasun orren aurkako zitekean izketarik edo esakizunik aurkitu ba'zion"

Barkapen ori lortzeko Quintano Bonifaz Inkisizioaren Maixu Nagusiak idatzi zuan eskutitzean, badira oraindik esari makurragoak. Ara zer deitzen dion Erregeari: "Dueño absoluto, rey, patrono, fundador y protector del Santo Oficio"; "Epaimai Santuaren Nagusi orokorra, erregea, zaindaria, eta sortzaillea". Inkisizioa-baitan guzirako eskumena bai omen du Erregeak; baita gauzik izkutuenak eta isillenenak jakiteko ere. "Orregaitik, —dio—, naiz gauzarik estalienak eta isillikoenak sinismenari dagozkion gauzak izan, ixilpenaren lege oiek ez dute gai oietan ere erregearentzako indarririk eta baliorik"

Gauzak, ala ba"dira, ,deitu al dezaioke iñork España'ko Inkisizioari Elizaren EpaiBatza?. Ez al da, soil-sofiki, Erregearen EpaiBatza?

UTRECHT'eko KATOLIKO ZAARREN ELIZA

Aitasantu bikaiña izan zan Klemente XIil'a' Izan zuan ala ere, —gure ustez—, utsaldi bat; Utrecht'eko Elizari, Erromara'ko bidean eragozpen aundiegiak ipintzea. Ikus dezagun Eliz aren edestitxoa, oraindik bizirik dirau bere zismak eta'

Olanda'n, oiuka pentsatzeko oitura izan du beti jendeak. Orregaitik, Olanda'n, ozenagoa izan da beti arazo guztiek atera oi duten zarata. Jantsenikeriak Probintzi Alkartuetan ateratako iskamilla ere, ozenagoa eta nabarmenagoa izan zan; Eliz bereizi berri bat osatzeraiño iritxi bail zan lurralde aietan.

Zisma bat ez da ernetzen aurretik giro egokirik billatzen ez ba'du. Ikus ditzagun bâ jantsenikeriak Olanda'n aurkitu zuan giroaren elementurik garrantzitsuenak:

Teologiaren arloan, amazapigarren mendea Bañeztarren eta Molinatarren arteko eztabaida antzueren mendea izan zan. Baiña Olanda'n, Graziari buruzko eztabaida guztiak, naitanaiez bear zuten gogorrakoak eta biziagoak izan; Kalbinkeriaren lurra bait zan Olanda, "Predestinazioaren" arazoa, eta Jainkoagandiko Graziaren ekintzaren arazoa, sinismenaren eta kristau-bizitza osoaren ardatza ziran lurra.

—Jantsenikeriak, ikusi dugun bezala, kalbintasunarekin aidetasun aundia du. Orregaitik izan ziran maiteki artuak Frantzitik eta Belxika'tik Probintzi Alkartuen askatasunera aldegin zuten jantsenitarak; eta orregairik aurkitu zuten an oiartzun sendoagoa jantsenitasunaren martiri aien deadarrek.

—Iparreko Zazpi Probintziak Españi'tik bereizi ziran ezker, lurralde artan katolikotasuna, —osoro, aurrena; etxeetatik at, gero—, debekatua izan zan, eta ala jarraituko zuan Frantzi'ko Iraultzaren denboretaraiño. Mixiolur egiña izan zan Probintzi Alkartuen Laterri osoa. Mixioa aren buruzagi Bikario Apostoliko bat izan zan 1592'tik 1723'arte. ProbintziAlkartuetako mixio aren Gotzaia, izatez, Aitasantua bera zan, baiña onek "Apostoluzarako Ordezkar" bat izendatzen zuan. Orixe esan nai du "Bikario Apostoliko" itzak. Kontsagrazioz, Gotzaiak

ziran Olanda'k izan zituan Bikario danak, baiña ez zuten "beren ize-
nean" eliz ura gobernatzen, "Aitasantuaren izenean" baizik. Gutxi
gora-bera, elizbarruti aundiko Gotzai laguntzailleen antzekoak bait di-
ra Bikario Apostolikoak. Ala, Olandako Bikario aiek, —bai Gotzai, ez
Gozgai; edozein modura're, Erdi-Gozgai—, Gotzai Oso izateko leiare-
kin bizi izan ziran beti. Eta saiatu ziran, ai zuten guztia, Utrecht'eko
Goigotzai, tituloz eta almenez, izatera iristeko lanean. Mixiolaritzako
lanak ala eskatzen zielako, eta baita beren buruari osperik aundiena
emateko ere, Bikario aien lenenetako pentsakizuna beren bikarioritza
Apaiz Aolkularien Batzar batez ornitzea izan zan. ¿Batzar onen ame-
tsa? Utrecht'ko Katedraleko Kanonigoen Kapitulo Metropolitanarra biur-
tu aal izatea. Itz batean: Neskatiak bezain kezkatu zebiltzela Bika-
rio aiek, —eta Bikarioen kontzejuko apaizak—, beren izen on eta
aipua, beren almena eta autoritatea, beren aunditasuna eta garran-
tzia, mixiolarien aurrean eta Probintzi Alkartuetako Agintarien
aurrean lausorik gabe zaintzeko.

—Olanda'ko mixiolariak, batzuek apaizak besteak erlijiosoak zi-
ran. Apaizak, Bikarioen alde zeuden, baiña es erlijiosoak; batez ere
inakitarrak' Auen kezkarik aundienetakoen artean bat, erlijiosoen
"exemptio" edo "gotzaien menpetiko iaretasuna" tinko gordetzea
zan. Askatasun orri zegozkion punttuetarako, emakumetzen asitako
neskatoak bezain sentikor eta minberatsu biurtu ziran erlijioso onura-
garri auek, berekoikeriak eta arroxkokeriak eragin-da. Ez ziran, osoro,
amazazpigarren mendeko inakitarrak amaseigarrengoak bezalakoak!

—Ez zan sekulan Bikarioen eta erlijiosoen artean egiazko pake-
rik izan, eta, zalantzarik gabe, danena zan errua. Baiña pakerik eza
orrek egurats okerra edatu zuan Probintzi Alkartuetako katolikotasu-
nean, eta zulo aundia iriki zuan apaizen eta erlijiosoen artean. Mende
osoan, inakitarrak Bikarioei Erroma'n lurra jaten ari izan ziran. Ziurki,
auek Bikarioen aurka esan zituzten gauza guztiak ez dira egiak; eta
batzuek, gogo okerrarekin asmatutako gezurren itxura ere badute;
baiña egia zan ala ere Olanda'ko Bikarioek, maizegi, Jantsenitarren
adiskide kutunak izan zirala; agian, jantsekeriaren etsairik gogorre-
nak inakitarrak ziralako! "Etsaiaren etsaiak, adiskideak". Batez ere
azkeneko bi Bikarioak, Jon van Neercassel, (1662-1668), eta Kepa
Codde, (1686-1704), port-royaldarrak izateaz gaiñera, igesi zetozten
jantsenitar guztien aingeru zaindari biurtu ziran. Bikario auen itzai
pean aurkitu zuten babes Arnould'ek eta Quesnel'ek ere.

Codde'tar Kepa'ren bikarioritzakoan lertu zan zisma' Jokaeraz al-
datzeko agindu zion Erroma'k Bikarioari, baiña Codde'k, Quesnel'en

aolkua jarraituaz, ez zion Erroma'ko aginduari jaramonik egin- Astiro ibilli nai izan zuan orduango Aitasantu Klemente XI'ak' Andik lau urtera, 1704'ean, kendu zizkion bere burua quesneldar aitortzen zuan Kepa Codde'ri kargu guztiak.

Asarretu ziran, biziki, Probintzi Alkartuetako Apaiz geienak; eta ez zituzten, Codde'ren ostean "Propaganda Fide" k izendatu zituan Bikarioak, aintzat artu nai izan. Apaiz auen buruzagiak, Utrecht'en biltzen ziran eta andik zuzentzen zuten "Propaganda Fideren" aurkako igikunde ura.

Polikipoliki, apaiz geienek makurtu zuten burua. Baiña ez danek. Ogei urte geroago, eunetik amabostek tinko jarraitzen zuten oraindik, eta ordurako zuzendarien Bazkunari "Utrecht'eko Kapitulu Metropolitarra" deitu oi zioten.

1723'an Van Espen legiztilari jantsenitarraren iritzia onartuaz, "Kapitulu Metropolitarr" onek, Aitasantuaren baimenik gabe, beren arteko apaiz bat, Steenoven'dar Kornelio, Utrecht'eko Goigotzai aukeratu zuan' Frantzitik igesi zebillen Gotzai jantsenitar batek, Varlet'ar Domingo'k, eman zion zismatikoari sagaraketa'

Zenbat ziran, orduan, Eliz jaio-berri artako apaizak?. Eunenbat; auetatik, erdiak baiño geiago, Frantziatik eta Belxika'tik etorriak. Lais-ter alkatu zitzaikien Luxenburg'eko eta Frantzi'ko lekaideren batzuk: Beneditarrak, zistertarrak, karmeldarrak, kaputxin edo buruñurdunak, eta kartuxatarrak' Aurreneko kristauen araura zibiltzala uste zutelako, "Katoliko Zârrak" deitu zieten beren buruei Eliz txiki artako elizki-deek.

Berrogei urte geroago, 1763'an Utrecht'eko Kontzilioa egin zutenean, 3 gotzai, 49 apaiz, eta 10.000 kristau ziran Katoliko Zârrak' Mererzi du eraspen. Kontzilioan bildutako Eliz txiki arek egiazko saiaketa egin bait zuan billera artan bere kristautasuna Erroma'ko katolikotasunaren kide agertzeko. ikus Kontzilio artan artutako erabakiak:

—Aitasantuak Jainkoagandik zuzenean eta bitartekorik gabe aritzen du bere almena' Kepa Donearen oiñordeko da, ta aren almen eta eskubide guztiak baditu'

—Beste Gotzai guztien gaiñetik dago Aitasantua; ez ospez eta onorez bakarrik; bai agintzaz ere; bai noski sinismenaren arloan, baiña baita gobernutzarenean ere.

—Trento'ko Kontzilioak erakutsitako guztiak Sinismenaren Egiak eta Elizaren Legeak dira. Kontzilio ura artzen ez dutenek Elizatik at dagoz. Orregaitik, sortaldeko Elizak zismatikoak dira; eta jantse-

nitasuna, erejia da.

Bazirudian, Erroma'ren altzora zetoztela Katoliko Zârrak eta pozik jaso zituan Klemente XII'ak Utrecht'eko Kontzilioaren berriak.

Laister asi ziran politikeri-zaleak azpilanean. Frantzi'ko Jaurlaritzatik asita. Aurrena Gotzai frantzitar askok, jaurlaritza berekin zeukatela bazekitelako, "Katoliko Zârren" aurka irten ziran, eta Aitasantuari aurrea artuaz, beren-kasa gaitzetsi zuten Utrecht'eko Kontzilioa' Aitasantuagandik Frantzi'ko Gotzaiena biaoño gaitzespen garrantzitsuago bat lortzearen, Erroma'ra jo zuan Frantzi'ko Jaurlaritzak'

Tamalez, Utrecht'eko Kontzilioaren aurka jarri ziran inakitar ospetsu asko ere, eta, Klemente XII'ak bezalako Aitasantu batentzat, Frantzi'ko Laterriaren ekintzak baiño pixu geiago zuan inakitar jakintsu auen iritziak. Ez ziran Kepa Klaber Deunaren denborako inakitarrak bizi...! Ez zan gutxi estutu ta murriztu Loiola'koaren semeen pentsaera...!

Segurugo jokatzeko teologilarien bazkun bat bildu zuan Klemente XIII'ak, eta bazkun onen aburua entzun ondorean, 1765'ean, "Non sine acerbo", "Ez samiñik gabe", deritzaion Bulda baten bitartez, gaitzetsi egin zuan, azkenean, Utrecht'eko Kontzilioa.

Itz gogorak darabiltziki gaitzespen ortan, —buldetan oitura dan bezala—, Klemente XIII goxo paketsuak: "Ustelkeria"; "Deabrukerizko ausardia"; "Okerkerian eta gaiztakerian gogortutako asmo biurria" "Arrokeriaren jeikitze lotsagabea", eta abar' Tamalez, luzaroan iraun du buldetan orrelako izkuntza erabiltzeko oiturak.

Bazuten noski oitura orren berri Katoliko Zârrak, baiña, alatagutiz, min sakona sortu zuan utrechtarren biotzetan XI Klemente'ren mintzaerak' Bizirik dirau oraindik min orrek'

Pozik aitortuko dugu utrechtarrak aiña sentittu zutela bulda aren argitaratzea, Erroma'n Katoliko Zârrekin alkarrizketa jarraitzearen alde zeuden Kuria bertako eliz-gizonek.

Aitortu bear dugu, baita ere, asmo onean ibilli zala beti Klemente XIII'a, eta ez zuala sekulan gaizki jokatu izan zezakeanaren ezpairik izan' Baiña, gure ustez, ez zuan arazo onetan asmâtu.

XIV KLEMENTE (1769.1774)

Oso gaixo zegoan XIII Klemente, Josulagundia ezerezteko eskatu zioten Erregeei, ain berea zuan kementasunaz, ezetz erantzun zienean.

Berealaxe asi ziran Errege auek, batez ere Frantzi, Espāni eta Portugal'ekoak, beren asmoetara menderatu zitekean aitasantu batean pentsatzen' Orregaitik, Klemente XIII'aren eriotza-ostean bildutako konklabea Elizaren edestian itunenetakoa izan zan. Iru illabete baiño geiago iraun zuan, eta ez zan bere barruan, bear bezala, "Giltzapeko" Batzar auetarako legezkoa dan ixiltasunik gorde' Errez iritxi ziran Laterrietako enbaxadarien belarrietara Konklabeko gertakizunen zeetasunak. Ala, Portugal, Espāni, eta Frantzi'ko agintariek aixa erabilli aal izan zituzten "giltzapekotasun" gutxi izan zuan Batzar aren ugelak, bakoitzak bere Laterrietako kardenalen bitartez. Dirutza aundiak jasa zituzten Kardenal "leialek" "joan-etorrirako eta beste gastuetarako"! Aitzaki onekin zuritu zuten diru zikin ura simonizko obenaren kiratsetik. ;207.000 liberako zorra ordaindu aal izan zuan Kardenal auetako batek orrela beraganatu zuan dirutik.

Enbaxadarien indarketak naikoak izan ez ba'ziran lez, II Jose Inperatorea bera etorri zan, iñork uste ez zuala, Erroma'ra, eta Uriko toki done guztiak eraspengeririk arranditsuenarekin ikustatu, eta nabarmenketarik aundiketarik aundienean pazkoazkoa, egin ondorean, Konklabean berberean sartu zan, bere anaia, Leopoldo Toskana'ko Dukea lagun zuala. Bere guraria LaterriBuruekin pakean bizi zitekean Aitasantu bat aukeratzea zala, adierazi zien konklabetarrei. Benedikto XIV'ren antzeko bat nai omen zuan; "ne quid nimis", "geiegitxorik" Erregeei eskatzeke, Eliza gobernatu zezakean Aitasantu bat.

Frantzi'ko enbaxadariarekin ere mintzatu zan Inperatorea, Josulagundiaren arazoaz. Borboien etsai zan aspalditik Inperatorea, baiña orain, iñakitarren aurka ekiteko Borboiekin alkartu nai zuan.

Konklabeko kardenaletan bat Lorentzo Ganganelli zan, Elizaren Laterrietan Rimini'ren alboko urixka batean jaioa; bertako medikua-
ren semea. Klasanztarrekin aurrena eta inakitarrekin gero egin zituan
ikasketak. Frantziskotar sartu zitzaigun, "conventuales" edo "kon-
bentuetakoak" esaten zaien frantziskotarren adarrean. XIII
Klemente'k egin zuan kardenal, Lorentzo Ricci inakitarren Zuzendari
Nagusia-
ren eskarira, esan oi danez.

Ez zan, Giitzape-Batzar artako kardenaletan, Aitasantu izateko
egokiena, baiña bera izan zan aukeratua.

Bezperan, 47 autarkitik 19 bakarrik jaso zituan bere aide. Nola ira-
bazi zituan, bigaramonean, falta zitzaizkionak?. Jaku bikoitza erabili
zuala esan daitekeala dirudi: Inakitarren aldeko kardenalen aurrean
Josulagundiaren lagun egiten zuala bere burua; eta etsai, berriz, Erre-
geen aldeko kardenalen aurrean.

Klemente XIV'a da aitasantutzarako aukeratu zuan izena.

**Apaiz bezala, errurik gabeko gizona izan zan beti; Andra
Maria'ren maitalea, otoitz-zalea; Teologi eta lagiztian poliki ezia.**

Aitasantu bezala, bi akats izan zituan: Aurrenekoa, bakartasune-
ra baztertu izatea, Gobernutza osoa besteen eskuetan, batez ere, bere
burua errez saltzen zuan Bonterpi Kardenalaren eta onen lagun
eskuetan utziaz' Bigarrena, Laterri erregekerizaleei amore ematearen
lagun izatea' Agian bigarren au, eta era berean Aitasantu onen beste
akats guztiak, aurrenekoaren ondorio dira, ez bait zitekean inor aita-
santuagana urreratu Bontempi ta bere taldearen bitartez ez ba'zan.

Laterriekin pakeak egitearren, deuseztu zuan Klemente XIII'ak
emandako "Palma'ko Monitorio" edo "Oargarri" zorrotza; eta edatu
zituan moduak Portugal'ekin adiskidetasuna birregiteko' Sari gares-
tia ordaindu zuan adiskidetasun orren truke. Portugal'eko ministro
zan Pombal'eko Markesa biurri zekenaren anai bat, Paul Carvalho, eta
adiskide ta lagunik itsuena eta kuttunena, Kosme da Cunha, Kardenal
egin bait zituan; eta beste ministroaren adiskidetxo bat, Pereira'tar
Andoni, Coimbra'ko Gotzai. Erregeen naikeria defenditzen gogorre-
takoa zan Pereira au' Erdifebronizale gaiñera. Orretxegaitik, febroni-
keria zerielako, gaitzetsi zizkion esari batzuk Klemente XII'ak.

Aitasantutzara iritxi aurretik ere ez zan Klemente XIV'a josulagu-
nen adiskide. Bazituan ortan lagunak, erlijioso geienak Josulagundi-
aren etsai bait ziran. Erabat gotzairik gelenak ere.

**Badirudi Klemente XIV'ak benetan uste zuala lagundiaren dese-
gitea bearrezko gauza zala. Baiña au, Josulagundiaren desegite au**

izan bait zan emezortzigarren mendeko gertakizunik garrantzitsuenetakoa..., merezi du, noski, so-egite geldia gogotxo bat'

JOSULAGUNDIAREN AUZIA,— Ikusi dugu iñakitarrak beren aurreneko eun urteetan izan zuten indarra. Amazazpigarren mendean, teologiaren ikasketa jetxi zan neurri berean, asko jetxi zan loiolatarraren bizkortasuna ere. Gure ustez, teologilarien makaltze ori Trento-ondorean Eliza bere dotriña zarraren gordetzalle uts eta zaintzalle bildurti biurtu izatearen ondorioa da. Bildur ori sakonagoa eta kezka-tsua biurtu zuan oraindik, Janssens eta Saint-Cyran'en erakusketan okerren zabalkunde azkarak. Jantsenkeriaren etsairik gogorrenak iñakitarrak izan ziran' Etsai garailleak,... eta garaituak.

Esan genezake Josulagundiak Janssens garaitu zuala; Saint-Cyran'ek, berriz, Josulagundia. Dogman garaille, eta moralean garaituak izan zirala iñakitarrak aski neurri polittean; Baiona'koaren txorrozeria ta lazkeria, Loiola'koaren semeetara igaro bait ziran; ez osoan noski, baiña bai, esan dugunez, aski neurri polittean.

Jantsenikeritik artutako extutasun orrek, eta, Eliz osoaren gaitza zan geiegiko bildurkeri arek moztu zion garra amazapi ta emezortzigarren Josulagundiari. Ala ere asko ta asko ari zan ostera piztutzen, mende onen bigarren erdian, eta amaseigarrenean izandako bizkortasuna berrirabazteko unean zegoala zirudian.

Ala ere, berbizten ari zan Lagundi arek, mundu guztiaren gorrota berekin zuala dirudi. Arrazoiak?'

—Lagundiaren espiritualitate bereizia' Euskalduna, ekintzarako tajutuko gizakumea da; bere gogo-bizitza osoa lanera biurtua dago. Ez da ikusketa utserako sortutako gizona. "Ikusketak", "eginketara" darama euskalduna. Izaera ori txertatu zion Iñaki Deunak Lagundi osoari, Iñakitarren eraspenera, espiritualitatea, ekintza onen bitartez munduan zitu eman bear duan eraspenera da; Eliz osoaren serbitzura egon bear duan eraspenera gaiñera. Ez da naikoa nork bere anima salbatzen; mundua salbatu bear da. Josulagundia ez da, bakardadean anima Jainkoari begira ipintzeko, sortua. "Ad maiorem Dei gloriam", "Jainkoaren aintza sendotzearen", munduan lan egiteko izan zan sortua, eta lanari ekin zioten iñakitarrek kemen guztiekin'

Ekintzari alako garrantzia ematen zion eraspenera edo espiritualitate ura ez zan elizgizon guztien baitan ondo ulertua izan. Iñakitarrek otoitzari baiña ekintzari jaramon geiago egiten zela uste izan zuten lekaide, praille eta gotzai batzuek; "kontemplazio" edo "animabarruko Jainko-gurketa" ta baita liturgien ospea ere motz-etsiak gelditzen omen ziran Iñaki'ren semeen artean.

—Gogor ekin zioten iñakitarrek lanari, eta garaille irten ziran lan-mota guztietan: filosofian, teologian, Aitasantuen ordezkari lez diplomazian, erakuskintzan, mixioetan, eta izadi-jakintzetan, matematiketan'..

Garaitzak errez dakar atzetik aundi-ustea' Iñakitarrek osatzen zuten Argikuntzakoan ere Elizako Anaidirik bizkorrena eta dizdiratsue-na' Ondo zekiten ori beraiek ere. Eta aizetu eta arrotu egin zituan jakite orrek. Elizaren biotza Josuren Lagundia zala uste izatera-edo iritxi ere zirala agian esan leike. Ala, Lagundiaren adiskide ez zan oro, Elizaren etsaia zan aien ustez, eta Lagundiaren erakusiak onartzen ez zituana, jantsenitarra!.

Arlo ontan ez zan beti garbia izan iñakitarren jokaera. Errez, arrazoirik asko gabe, geiegizko arintasunez salatu oi zuten jantsenitartzat moral edo oituriztiko gaietan aurpegi ematen zien guztia. Berak, bai noski, borondate onez egingo zuten cri, baiña salaketa aiek ez ziran zuzenak. Baita're maizegi erabilli zuten errege, aundiki, eta Erroma'n bertan elizgizon garaien adiskidetasuna beren burutapenak aurrera ateratzeko. Ori beintzat uste izan zuten iñakitarren etsaiek.

Asko ziran etsai oiek. XVIII mendean Elizaren puskerik aundiena etsai zuten iñakitarrek etsai, lekaide, praille eta gotzaien artean beintzat, batez ere Itali'tik at.

—Etsai, bereiziki jantsenitarrak eta aien adiskide guztiak. Oroi Pascal'en "Probintzialak".

Etsai, Elizako Anaidi zarrak. Zergaitik ote?

Jantsenitarren txorrostasuna asko edatu zan lekaidetxe eta konbentuen barnean' Iñakitarrek "iasaiegiak" ziran elizgizon aientzat: "lapsistak"

Esan dezagun egia. Garaitzak garaillean biotzetan arrokeria piztutzen ba'du, bekaizkeria sortzen du garaitza-bidean atzerago gelditu diranen animetan. Ta ori gertatu zitzairen Argikuntzakoan Elizako Anaidi zarrei; elizgizonak ere gizonak bait dira beste gizaseme guztiak bezala, eta gizon izateak berekin bait darama oben guztien azia.

Agustindarrak izan ziran, bearbada, iñakitarrenganako aurkatasun ortan aitzindari. Eta baita, Frantzi'n batez ere, beneditarrak eta berulletarrak ere. Baiña auek bazuten ortarako arrazoitxo bereizi bat:

Frantzi'ko Beneditarrak "Donemauro'ren Kongregaziokoak" ziran, eta ain zuzen mauritar auek ziran iñakitarrekin batera Anaidi guztien artean jakintza-gaietan aurretatuenak.

Berulletarrak, erakusketan inakitarren aurretik zeuden orduan. Berenak ziran Elizaren ikastetxerik bikainenak. XVIII mendearen erdi ra urbiltzerakoan asi ziran ostera inakitarren ikastetxeak lengo bikai tasuna bir-irabazten.

Gaiñera, bai mauritarrak bai berulletarrak Saint-Cyran'en adiskide aundiak izan ziran, eta baionatarraren pentsakeraz txit ukiturik zeuden.

Etsai, gotzaiak. Lendabizi. gotzai auk, erregeek aukeratuak izanik, erregeen adiskide ziralako. Erregeen adiskide eta "regalista" edo "erregekerizaleak" egite-maillan beintzat, naiz agian oldozte-maillan ala izan ez' Erregeek beren aolkularien iritzira egiten zuten gotzaien aukeraketa, eta aolkulari aiek danak, Argikuntzakuan, "erregekerizaleak" ziran'

Ortiz gaiñera, erregekeria eta jantsenikeria alkarrekin naasirik luzaroan ibilli ziralako, gotzai aiek aski jantsenikeriz lausoturik ibilli oi ziran oituriztiaren arloan beintzat. Gotzai auentzat ere "lapsistak", "lasaikerizaleak" ziran Loiola'koaren semeak, batez ere len esan dugun lez "seme" auk "probabilistak" ziralako eta aitortzako sakramenturako "kontrizio" edo maite-damua bear-bearrekoa ez zala, bii dur-damua ("atrizioa") naikoa zala erakusten zutelako.

Etsai, erregeen inguruko jaurlari guztiak. Bazituzten jaurlari aiek ortarako beren arrazoiak.

Inakitarrek esku aundia zuten erregeen kontzientzietan. Orregaitik, bildur zieten jaurlari eta erregeen aolkulariek, beren agintaritzza galduko zutelaren kezka.

Jaurlari eta aolkulari aiek "erregekerizaleak" ziran, "regalistak" eta, orregaitik, jantsenitarren adiskide. Josuren Lagundia, eskeintza bereiziz Aitasantuaren esanera ipiña dagoalako, ez zitekean "erregekerizalea" biurtu. Erregeen adiskide bai, izan ziran inakitarren, baiñan ez "erregekerizale".

Jaurlarien artean, ospetsuak izan genituan inakitarren aurka Portugal'eko Pombal, Espaini'ko Campomanes eta Floridablanca eta, Aranda, Napoles'ko Tarducci, Frantzi'ko Pompadour eta Du Barry andreak, biak XV Koldobika ezerezaren maitale lizunak... A! eta Paris'ko Parlamentua.

Etsai, "entziklopedista" kristautasunaren areioak. "Ecrasez l'infame" oiuzegian Voltaire'k. "Ecrasez", euzkeraz `zapaldu", "porrokatu" ezazute da; "infame" ori berriz "Eliza" da, Voltaire zipotzaren esai di ortan. Entziklopeditar aientzat, Josulagundia zan Elizaren euslerik

bikaiñena, eta ziur uste zuten Josulagundia ezereztu ezkerro errez de• segingo zutela Eliz osoa. liste ori zerabilkian buruan Españi'ko Ordezkanak Erroma'n, Maunuel Roda y Arrieta'k, Aitasantuak Josulagundia ezereztu bezain laister itza auek idatzi zituanean: "Bikain irten zaigu gure lana: il dugu semea; gauza bat besterik ez zaigu orain gelditzen egiteko: Ama, Erroma'ko gure Eliz Ama Donea erailtzea"" "La operación nada ha dejado que desear: hemos muerto al hijo, ya no nos queda mas que hacer que matar a la madre, nuestra Santa Madre la Iglesia Romana""

Jende-mota auek danak, naiz sinesgabeak, naiz "deista" utsak izan, Josulagundiaren etsaiak ziran danak, jakiña.

Portugal'ek asi zuan Iñakitarren aurka agirian gudua. 1.750'garren urtean, Paraguay eta Brasil(en arteko mugak zuzentzearren, tratu bat egin zuten Españi'k eta Portugal'ek' Amairu inditarren "Redukzio" edo "Bilduma", Portugal'en mendera igaro ziran, eta galdu zuten iñakitarrek amairu Bilduma aietan eskubide oro. Iñakitarren zaindartzarekin batera, galdu zituzten bilduma aietako jende gaixoeak askatasuna ta zoriona, meatzetako lan gogorretara beartu bail zuten jendetzura ura dana nagusi portugaldar "argituek". Jeiki ziran matxinadan inditarrak, eta iñakitarrei jaurti zieten kulpa portugaldarrek.

Merezi du, iñakitarren aurka mundu guziko agintari despota argituek erabilli zuten jokaeraren eredu bezala, Portugal'eko Pombal'ek erabilli zuana kontatzea.

Jose I'a zan Portugal'en Errege, eta Sebastian Carvaiho e Melo, Pombal'eko Markesa, Jaurlaritzaren jaun eta jabe. Argikuntzako seme zalarik, ederki egin zuan Markes onek lan ekonomiaren barrutian. baiña jaurle bezala, "munduak ezagutu duan despotarik gogorrena" izan zala, idatzi zigun Lisboa'ko nuntzioak.

Erregiña bizitu zan artean eta Erregearen naimena bereganatu zuan artean, iñakitarren adiskide agertu zuan Pombal'ek burua. Gerrogo aldatu zan zearo.

Iñakitarrek esku aundia izan zuten beti Portugal'en Xabier'ko Frantzisko'ren denbora ezkerro. Aundia zan Argikuntzakoan ere aien eskua, aundia aien ospea eta izen ona'

Pombal "erregekeri" zalea zan, eta "argituek" ain maite izan zuten "despotikeri argituaren" aldekoa; Aitasantuari almena mozteko ta Elizaren indarra moteltzeko, Portugal'en inakitarren Lagundia deuseztea erabaki zuan.

Brasil'ko inditarren arazoa artu zuan aitzaki inakitarrei ekiten asteko. Bikoitza dugu inditarren orduango auzi ura:

—1750'ean, itun bat egin zuten Espāñi'k eta Portugal'ek Paraguai eta Brasill'en arteko mugak egoki ezartzeko. Muga berri oien araura, 30.000 inditar Brasill'en barruan gelditu ziran eta naitanaiez beren Iurraldetik aterata, iparreruntz meatzetara eramanak izan ziran. Mixiolarien laguntzarekin egin zuten ibillaldi nagargarri ura, Erdiak bakarrik iritxi ziran meatzetako lanera; beste erdiak, 15.000, bidean il ziran. Ez da arritzakoa-ta, azkenean matxinadan jeiki ziran inditar aiek Portugal'eko ertzaiñen aurka. Nola ez! Mixiolari inakitarrei bota zitzaien matxinada aren errua. Inakitarrek jeikiarazi omen zuten Portugal'en aurka inditar-jendea.

—Brasill'eko probintzirik zabalena, orduan Maranhao eta gaur Amazonia esaten zaiona da. An ere bazituzten inakitarrek "redukzio" edo inditarren bildumak. Eta inakitarrek ez ezê baita buruñurdunek ere. Bâ, misiolariei Bilduma aietan administraketarako esku oro kenduaz lege bat eman zuan Erregeak 1755'ean' Eta baita beste lege bat ere urte ortan bertan inditarren joputza edo esklabutza eragozteko'

Ez zazula Pombal joputzaren etsai zanik uste. "Companhia Commercial del Maranhao" izenarekin bazan Lisboa'n, Afrika'tik Brasill'era beltzak eramateko, Lagundi bat. Bai al dakizu zein ziran Lagundi aren nagusirik aundienak? Pombal'eko Markesa eta bere anal gaztea! Anaitxo au gaiñera Maranhao'ko Jaurle edo Gobernadorea zan orduan! Ondo! Ez zeuden gauzak gaizki pentsatuak pombaltarren sakeleak diruz betetzeko; jopu inditarrak galtzen zituzten nagusiek jopu beltzak erostera beartuak aurkitzen bait ziran!

Baiña entzun zan inakitarren abotsa. Inakitarrak beti izan ziran inditarren joputzaren etsaiak. Ez joputza gauza okerra lrukitzen zitzaielako; inditarrek lan gogorretarako balio ez zutelako baizik. Orregaitik onartu izan zuten, beti, Afrika'ko beltzen joputza.

Oraingoan ere ondo iduritu zitzairen inditarren joputza galeraztea baiña nagusiek jopu beltzak erosten gastatzen zuten dirua Jaurlaritzak ordaindu bear ziela nagusi aiei, oiur egin zuten. Jaurlaritzak kendu omen zizkien ezer ordaintzeke jopu inditarrak; jaurlaritzak pagatu bear omen zizkien aien orde z erosibearren aurkitzen ziran jopu beltzak.

Ez die Pombal'ek inakitarrei bere irabaziak arriskuen ipiñi izatea barkatuko' Accabla zan Lisboa'n Nuntzio. Bâ, Nuntzio berberari sinistaarazi zion inakitarrek egiazko jopu bezala zerabilzkitela Ameriketako inditarrak, eta Paraguai'tik Maranhao bitarteko meatzetan zegoan urrearekin, an Laterri indartsu bildurgarri bat eratu zezaketela, eta Portugal'entzat eta Elizarentzat arrisku aundia izatera iritxi zitezkeala'

Kosta zitzaion Nuntzioari auzi artan gauzak argi eta egoki ikus-tea. Ez bait zan orduan erreza albisteak laister jakitea! Brasil urruti zegoan, eta gaiñera, Portugal'era iristen zan eta Portugal'etik irtetzen zan berri oro Pombal'en eskuetatik igaro bear zuan aurrena. Ala ere, jakin zuan azkenean Nuntzioak Pombal'en esklabu-negozioen berri, eta billatu zuan berri ori Erroma'ra Pombal oartzeko bidaltzeko modua.

1755'garren urtean, Santu Guztien egunean izan zan Lisboa'ko lurrikara tamala; 30.000 personatik gora il ziran; osoro deusezturik gelditu zan uria' Inakitarrek, oso zentzu gutxirekin, lurrikara ura Jainkoaren zigorra izan zala esan zuten pulpituetatik; Gobernua erlijioaren aurka ari zalako asarretu omen zan Jainkoa. Egiaz asarretu zana Pombal izan zan' 80 inakitar kondenatu zituan eriotzara. Aietako bat sutan errea izan zan.

Brasill'en beltzen salerosketarekin bezala, bere onturrera zi-joan, Portugal'en ere Pombal ardoarenarekin' Ortarako Lagundi bat sortu zuan: "Companhia do Alto Douro", eta Lagundi oni salduaraz-ten zizkien ardo guztiak, Duero Ibaiaren ertzetan, Oporto'ko ardo bika-ñaren egilla guztiei; eta Pombale'k berak ezartzen zuan prezioa! Jeiki ziran aspertuta, 1757'an, ardolariak. Joan ziran amaika urkamendira! Eta, beti bezala, matxinada aren errua inakitarrentzat izan zan.

1758'an ikerle bat eskatu zion Pombal'ek Aitasantuari "Josu-Lagundiaren xauketarako". Benedikto XIV'a bera zan orduan Aita-santu; eta Aitasantu glzagaixo onek, Saldanha Kardenala izendatu zuan Portugal'eko josulagunen Ikerle, Bixitadore' Saldanha Pombal'en adiskiderik kuttunenekoa zan, eta ala atera ziran gauzak. Bereala, batere azterketarik gabe epaitu zituan erredun inakitar guz-tiak. Eta laister agertu zan Atalaya Lisboa'ko Goigotzai Kardenalaren erabaki bat, inakitarrei meza eman eta aitorketak entzuteko eskubi-dea kenduaz. Pombal'en idazgelan idatzia izan zan erabaki ura eta ne-garrez izenpetu omen zuan Atalaya'k. Tamalez, kontzientzia garbitze-ko ez da naikoa negar egitea.

—Errege Jose I'ak bazuan izkutuko maitaletxo bat: Tesere, Tavora'ko markesa gaztea. Maitearenetik zetorrela, zauritua izan zan bein. Markesaren senar asarretua eta onen adiskidea, Aveiro'ko dukea, ziran zauritze aren egilleak. Erriari, Erregea bere baratzen oporraldi batean jausita zauriturik zegoala esan zitzaion' Alperrikako gexurra, jakinarazi bait zuten egia Laterrietako enbaxadariak' Amabi pertsona galdu zituan eriotzara, astirik eta egiazko burutasunik gabe, bereala, egin zan epaiketak. Portugal'eko aundiki guztien aitorle zirala-ta, sartu zituan auzian inakitarrek Pombal'ek, susmurru biurriak zabalduaraziaz. Amar inakitar espetxeratuak izan ziran; baiña ez zan salatarien artean inortxo, aietako bat epaimai baten aurrera eramateko gauza izan. Orrelakoa zan Pombal "argituaren" justizia.

Bildurrik gabe esan genezake gauza bat bakarrik sentitzen dala, Portugal'eko Jaurliak inakitarren aurka jaurti zituzten salakuntzak gogoratzean: Egiazkoak ez izatea. Bestelakoa izanen zan Eliza'ren aintza, markesa gazte lizun baten senarraren deretxoen alde; ardotik bizi ziran Portugal'eko nekazari gaixoen deretxoen alde; Ameriketako beltz eta inditar abere-biurtu aien eskubideen aide, Josulagundiak, edo beste edozein Anaidik, errege txoro ta jaurleri ankerren aurka adoretu jeikitzeke kemenik naiko izan batu' Baiña ez zan ura, Eliza-baitan, Erriaren Eskubidean aroa. Erregeak, Elizarentzat, izaki doneak ziran, Jainkoaren urne sagaratuak. Eta beste guztientzat baiño geiago, batez ere inakitarrentzat zan Erregea gauza sagaratu: "El Rey temporal": Jainkoaren izenean munduan agintzen zuan Erregea' Ondo pagatu zuten obena.

1759'an eman zuan azkeneko agindua Jose I'ak: Inakitar guztiak espetxera; inakitarren ondasun guztiak Laterriara. Arrazoiak: "Paraguai'ko matxinada" eta "Erregeari bizia kendu nai izatea".

Jose'ren agindu anker ori eta Pombal'en maltzurkeri ustela baiño mingarrigoa zaigu, kristauoi, Portugal'eko Gotzai danen jokabidea. Gotzai bakoitzak berealaxe idatzi zuan, Portugal'eko erri on eta maitagarriaren begien aurrean Erregearen agindua salbatzeko, bearrezkoa zan Pastoral'

Portugal'en bezala, Espaini'n eta Napoles'en, ere mingarria izanen da gotzaien jarduna. Bazan ala ere mundu zabalean inakitarzale zan gotzairik. Askok idatzi zioten Klemente XIII'ari Lagundiaren alde Portugal'eko gertakizunen berri jakitean; baiña irixten zan, nonbait Erroma'ko "Kuria"ren barneraifio Lagundiaren etsaien besoa, idazki aietatik asko, Klemente XIII'a il zanean, "galdu" egin bait ziran.

Portugal'eko iñakitarrak, milla eta eunen bat gizon, deusgabe EH-za'ren Laterrietara boteak izan ziran. Batzuek, ala ere, Portugal''eko expetxeetan jarraitu zuten' Aita Gabriel Malagrida, 72 urteko mixiolari ospetsua, eta beste bi, erejeak zirala-ta, epaiketarik gabe eraillak izan ziran.

† * *

—Aratz eta garbi gelditu zan Portugal'en Josulagundiaren izena. Ez ala Frantzi'n, ez bait zan emen iñakitarren jokaera ain zuzena gertatu.

Martinika'ko misioaren ekonomiondatzearekin asi zan Frantzi'n ixkamilla iñakitarren aurka.

Andoni Lavallette zan mixio artako Aita Nagusia, eta Lagundiaren Agintari garaien baimenarekin nekazaritzako negozio aundian sartu zan, mixio aietako gastuak ordaintzeko aiña diru sortu naiean. Badirudi, Lagundiko Agintariek eman zioten baimenaren neurritik irten zala ere, ugarte artako kafe ta azukrearen monopolioa bereganatzeraiño iritxi bait zan. Ala ere ondo joan ziran gauzak 1755'e an Inghlanderria eta Frantzi alkarren aurka gudan asi ziran arte. Sei urtean Lavalette'k Frantzi'ra bidali zituan itxasontzi guztiak inglandarren eskuetara jausi ziran. Ez zuten iñakitarrek kulparik, ezta Aita Lavalette'k ere, baiña Frantzi'ko bankariek, aurreratutako diTuen interesak eskatzen zituzten' Paris'ko "Salerosketarako EpaiMaiak" bankariei eman zien arrazoia.

Orduantxe egin zuten Paris'ko Josulagundiaren buruek aurreneko okerra: Lagundi osoaren Agintari Orokorri deus esan gabe, Paris'ko Parlamentuari eskatu zioten laguntza; iñakitarren etsairik nabarmenenari! Une artan Lagundiaren Agintari Orokorra, Alla Lorentzo Ricci zan; gizon ona, ernea ta yayoa. Konpondu zezakean agian, berak, Paris'ko josulagunen larritasuna'

Paris'ko iñakitarrek ez zuten eskuartean zerabilkiten poblema-aren aunditasunik eta astuntasunik bear bezala neurtzen. Lege-joku batekin libratuko zirala uste zuten. Lagundia-baitan, legez, etxe ba-koitza bere buruaren jabe da, diru kontutan. Orrela, ez-du etxe batek bestearen zorrik ordaintzeko beartasunik. Badu, noski, lege orrek aitzakiaren itxura. Ala iduritu zitzaion Zalerosketako Epai-Maiari; ala

—Errege Jose I'ak bazuan izkutuko maitaletxo bat: Tesere, Tavora'ko markesa gaztea. Maitearenetik zetorrela, zauritua izan zan bein. Markesaren senar asarretua eta onen adiskidea, Aveiro'ko dukea, ziran zauritze aren egilleak. Erriari, Erregea bere baratzen oporraldi batean jausita zauriturik zegoala esan zitzaion' Alperrikako gexurra, jakin'arazi bait zuten egia Laterrietako enbaxadariak. Amabi pertsona galdu zituan eriotzara, astirik eta egiazko burutasunik gabe, bereala, egin zan epaiketak. Portugal'eko aundiki guztien aitorle zirala-ta, sartu zituan auzian inakitarrek Pombal'ek, susmurru biurriak zabalduaraziaz. Amar inakitar espetxeratuak izan ziran; baiña ez zan salatarien artean inortxo, aietako bat epaimai baten aurrera eramateko gauza izan. Orrelakoa zan Pombal "argituaren" justizia.

Bildurrik gabe esan genezake gauza bat bakarrik sentitzen dala, Portugal'eko Jaurleariek inakitarren aurka jaurti zituzten salakuntzak gogoratzean: Egiazkoak ez izatea. Bestelakoa izanen zan Eliza'ren aintza, markesa gazte lizun baten senarraren deretxoen alde; ardotik bizi ziran Portugal'eko nekazari gaixoen deretxoen alde; Ameriketako beltz eta inditar abere-biurtu aien eskubideen alde, Josulagundiak, edo beste edozein Anaidik, errege txoro ta jaurleri ankerren aurka adoretu jeikitzeke kemenik naiko izan balu' Baiña ez zan ura, Eliza-baitan, Erriaren Eskubidean aroa. Erregeak, Elizarentzat, izaki doneak ziran, Jainkoaren urne sagaratuak. Eta beste guztientzat baiño geiago, batez ere inakitarrentzat zan Erregea gauza sagaratu: "El Rey temporal": Jainkoaren izenean munduan agintzen zuan Erregea' Ondo pagatu zuten obena'

1759'an eman zuan azkeneko agindua Jose I'ak: Inakitar guztiak espetxera; inakitarren ondasun guztiak Laterrira. Arrazoiak: "Paraguai'ko matxinada" eta "Erregeari bizia kendu nai izatea"

Jose'ren agindu anker ori eta Pombal'en maltzurkeri ustela baiño mingarrigoa zaigu, kristauoi, Portugal'eko Gotzai danen jokabidea. Gotzai bakoitzak berealaxe idatzi zuan, Portugal'eko erri on eta maitagarriaren begien aurrean Erregearen agindua salbatzeko, bearrezkoa zan Pastoral.

Portugal'en bezala, Espaini'n eta Napoles'en, ere mingarria izanen da gotzaien jarduna. Bazan ala ere mundu zabalean inakitarzale zan gotzairik. Askok idatzi zioten Klemente XII'ari Lagundiarren alde Portugal'eko gertakizunen barri jakitean; baiña irixten zan, nonbait Erroma'ko "Kuria"ren barneraiño Lagundiaren etsaien besoa, idazki aietatik asko, Klemente XIII'a il zanean, "galdu" egin bait ziran.

Portugal'eko iñakitarrak, milla eta eunen bat gizon, deusgabe Eli-za'ren Laterrietara boteak izan ziran. Batzuek, ala ere, Portugal''eko expetxeetan jarraitu zuten. Aita Gabriel Malagrida, 72 urteko m ixiolari ospetsua, eta beste bi, erejeak zirala-ta, epaiketarik gabe eraillak izan ziran'

* * * R

—Aratz eta garbi gelditu zan Portugal'en Josulagundiaren izena. Ez ala Frantzi'n, ez bait zan emen iñakitarren jokaera ain zuzena gertatu.

Martinika'ko misioaren ekonomiondatzearekin asi zan Frantzi'n ixkamilla iñakitarren aurka.

Andoni Lavallette zan mixio artako Aita Nagusia, eta Lagundiaren Agintari garaien baimenarekin nekazaritzako negozio aundian sartu zan, mixio aietako gastuak ordaintzeko aiña diru sortu naiean. Badirudi, Lagundiko Agintariek eman zioten baimenaren neurritik irten zala ere, ugarte artako kafe ta azukrearen monopolioa bereganatzeraiño iritxi bait zan. Ala ere ondo joan ziran gauzak 1755'eane Inghlanderria eta Frantzi alkarren aurka gudan asi ziran arte. Sei urtean Lavalette'k Frantzi'ra bidali zituan itxasontzi guztiak inglandarren eskuetara jausi ziran' Ez zuten ñakitarrek kulparik, ezta Aita Lavalette'k ere, baiña Frantzi'ko bankariek, aurreratutako diruen interesak eskatzen zituzten. Paris'ko "Salerosketarako EpaiMaiak" bankariei eman zien arrazoia.

Orduantxe egin zuten Paris'ko Josulagundiaren buruek aurreneko okerra: Lagundi osoaren Agintari Orokorri deus esan gabe, Paris'ko Parlamentuari eskatu zioten laguntza; iñakitarren etsairik nabarmenenari! Une artan Lagundiaren Agintari Orokorra, Aita Lorentzo Ricci zan; gizon ona, ernea ta yayoa. Konpondu zezakean agian, berak, Paris'ko josulagunen larritasuna.

Paris'ko iñakitarrek ez zuten eskuartean zerabilkiten poblema-
ren aunditasunik eta astuntasunik bear bezala neurtzen. Lege-joku
batekin libratuko zirala uste zuten. Lagundia-baitan, legez, etxe ba-
koitza bere buruaren jabe da, diru kontutan. Orrela, ez-du etxe batek
bestearen zorrik ordaintzeko beartasunik. Badu, noski, lege orrek ai-
tzakiaren itxura. Ala iduritu zitzaion Zalerosketako Epai-Maiari; ala

iruditu zitzaion Parlamentuari ere, eta Lagundiaren etxe guztiak Gorputz bat osatzen zutela, eta Gorputz ori, Lagundia, bere gorpuzki guztien zorretaz erantzutera beartua zegoala erabaki zuan onek'

Baiña, —ta au da Paris'ko inakitarrek ikusi ez zutena—, Parlamentuari ez zitzaion zor aiengaitik ajolarik' Orregatik, inakitarrek zorra ordaintzen asi baiño len, Laterriaren jabetzara pasa zituan Josulagundiaren ontasun guztiak. Ez zitzaion inakitarrengaitik ere ajolik; Lagundia ajola zitzaion. Pombal'ek, Lagundirik ukitu gabe, lagunditarrek zigortu zituan; Paris'ko Parlamentuak, lagunditarrei jaramonik eman gabe, Lagundia nai izan zuan desegin.

Ala, Josu-Lagundiaren Kostituzioak aztertzen asi zitzaigun Paris'ko Parlamentua!

Bitartean, Frantzi'ko inakitarrek burua galdu zutela dirudi. Bost Probintzi zituan Lagundiak Frantzi'n, eta Paris'koaren aurka asarretu ziran besteak, ura Parlamentura joan zalako; baiña beste lau auek ere, Aita Ricci'ri ezer esan gabe, Parlamentura jo zuten Martinika'ko zorra Paris'ko Probintziaren gaiñera bakarrik botatzeko eskariarekin' Gero, bost Probintzietako agintariek, —oartu bait ziran noizbat Agintari Nagusi bat bazutela!—, Aita Ricci'rengana jo zuten, zor aren jabe Lagundi osoa egin zedila eskatuaz' Egin nai izan zuan zerbait Aita Ricci'k, baiña ez zuan txanponik Lagundian aurkitu. Mundu guztiak ain aberrats zala uste zuan Josuren Lagundiak, ez zuan dirurik.

Ordurako amaitua zuan Parlamentuak bere azterkundera, eta au izan zan eman zuan azken iritzia: Josu-Lagundiaren Kostituzioak Frantzi'ko Jaurerriaren lege eta Frantzi'ko Eliza'ren askatatJunen aurka zeudela. Iritzi orren ondorio, nobizio berriak artzea eta nobizio zarreri botoak egiten uztea debekatu zion Lagundiari. Frantzi'ko Josu-Lagundiarekin Lagundi iare bat, bere Aita Agintari Orokorra bereiziarekin eta guzti, egin bearraren zuzmurroa ere jaurti zuan Erregearen jauregira. Axola zitzaion Parlamentuari, Martinika'ko mixioetako zorra!

Orduan, Gotzaiei eskatu zitzairen iritzia, eta —bedi onore Frantzi'ko Gotzai erdigalikerizale aientzat!--, Gotzaiak irten ziran, danak batera, Loiola'koaren semeen alde. Bat bakarrik jarri zan aurka: Soissons'eko gotzai jantsenitarra. Beste guztiak itz ederrak erabilli zituzten inakitarren eta Lagundiaren aide.

Ondo zijoztela gauzak zirudian, baiña Paris'ko Aita Probintzi-Nagusiak eta beste Parisko iru etxeetako zuzendariek ondatu zituzten ostera, agian obeto ipiñiko zituztelaren ustean; Notarioak izenpe-tutako idatzi bat eman bait zuten argira Frantzi'ko Elizaren "Lau Atal"

erdiastutako aiek ontzat artzen zituztela adieraziaz. Asarretu ziran Frantzi'ko beste iñakitarrak baiña azkenean, ez zuten bear aiñeko kemenik izan-da, Gobernuaren eskarira buruak makurtuaz, ziñatu zituzten Lau Atal itun aiek. Laister zuten gaiñean Ricci'ren gaitzespena eta Klemente XIII'ak artu zuan samintasunaren berria.

Gogotik ari ziran bitartean Frantzi'ko gobernuaren ordezkariak Erroma'n lanean: iñakitarrak "Regicidium" edo "Errege erailtzearen" aldeko zirala; (Au da: Erregea gaiztoa izanezkeru, menpekoari errege ori iltzea zillegi zitzaiola erakusten zutela); Koldobika XV'ari bizia kentzeko 1757'an egindako saiaketa ere, iñakitarrak gertutua izan zala; Aita Ricci'k Frantzi'rako Aita Ordezkari iare bat izendatu bear zuala; Lagundiaren Kostitutzioak aldatu bear zirala...

Tinko eutsi zuten Lorentzo Ricci'k eta Klemente XIII'ak. "Sint ut sunt, aut non sint", deadar egin omen zuan bietako batek; Klemente Aitasantuak, dirudianez: "Bitez diran bezela, edo desegin bitez".

Frantzi'ko Flande'koa, Alsazi'koa, eta Frantxe-Konterrikoa ez gaiñeko Parlamentu guztiek, Josu-Lagundia Laterriaren etsaitzat epaitua zeukaten 1762'garren urterako. Ez zuan, ala ere, Koldobika XV'ak amorerik eman nai, baiña azkenean, 1764'eko Abenduaren l'ean, desegin zuan Frantzi guztian Josu'ren Lagundia' Lagunditarrek zillegi zuten apaiz bezala Jaurerrian jarraitzea; ez bait zan aien aurka kolpea. Lagundia zan debekatua.

Baiña Lagundiaren ondasun guztiak Laterrira igaro bait ziran. 70 milloi franko irabazi zituan Erregeak. Frantzi'k... galdu egin zuan, ikasketen arloan batez ere; garairik onenean; izadijakintzen erakusketa-rekin berritzen eta bizkortzen asiak ziran unean itxi bait ziran iñakitarren ikastoki ospetsuak'

Frantzi'ko Parlamentu danak deituta, aien eta Jaurerriko aundien aurrean 1764'ean ezereztu zuan XV Koldobika'k Frantzi'ko Josu-lagundia' Ez zuan iñakitarren aurka ezer agindu. baiña auek, la danak, erbestera irten ziran Lagundiaren altzoan bizitzen jarraitzeko. 3.000 izan ziran erbesteratutako auek.

Españi'ko Borboiak, Karlos III'ak, Aita San Frantzisko'ren Irugarren Ordeneko Anai otoiz-zale ziñezkoa zan Karlos IIIak eman zuan urrengo tankatakoa. Esquilache'ko Markesaren Jaurlaritzaren aurka-ko matxinada Iñakitarrek prestatu zutela-ta, 1779'an, Frantzi baiño gutxiago ez izateko, Españaren lur guztietatik bidali zituan desterrura' 5.000'tik gora gizon, auek ere Portugal'ekoak bezala ezer gabe, Elizaren Laterrietara bidaliak izan ziran' Aranda Jenerala zan Karlos III'aren ministroa; Españi'ko Ienen Jeneral ministroa.

Españi'ko Gotzaien jokaera ez zan Frantzi'koena bezalakoa izan. Denak aintzatu ta goratu zuten, askok izkera lotsagebea erabilliaz, Erregearen erabakia' Geroago, Jaurlaritzak Erroma'ra Lagundiaren ezereztea eskatu baiño len, Gotzaiei eske ura zer iruditzen zitzairen galdetu zitzairenean, ia danak baietz, ederki zeritzaiela, erantzun zuten. 60 ziran Españi'ko gotzaiak; 8'k bakarrik erantzun zuten Lagundia ez desegitearen aide. Okerragoa dana, badirudi Españi'ko gotzaiak berak zebiltzala Lagundia deuseztu naiean iñor baiño beroago. Klemente XIV'a aitasantutzara igo zanean iru kardenalek, Solis, La Carda, eta Aspuru'k, atera zioten Aitasantu gaixo arri Lagundia desegiten saiatuko zalaren itza. Aspuru, Balentzi'ko Goigotzaia, Karlos III'aren enbaxadari zan Erroma'n. Ara zer idatzi zion Erroma'tik Aranda'ri, 1769'an: "Su majestad el Rey debe insistir mas que nunca en pedir tormalmente la destrucción de la Compañía, y negarse a todo acomodamiento" ¿Aranda'rena al da Españi'n iñakitarrei gertatu zitzairenen kulpa?.

Baziran oraindik beste bi Laterri Europa'n Borboitarren mendean: Parma eta SiziliNapoles' Emen, Sizili'ko Fernando I'a, (Napoles'ko IV'a) zan Errege, Karlos III'a Españi'koaren semea. Tanucci'ko Markesa zuan laguntzaille, Aranda, Pombal eta Paris'ko Parlamentuko enkideko gizona. 1767'an bidali zituan iñakitarrek desterrura: Elizaren Laterrietara.

Parma'ko Dukaterrian Fernando I'a, Felipe I'a, Españi'ko III Karlos'en anaiaren semea) zan agintari; Españi'ko Karlos III'aren illoba beraz. Bere osabak eta lengusuek bezala, Du Tiilot ministro erregekerizalearen aolkua onartuaz, bidali zituan onek ere iñakitarrek bere dukaterritik.

Itali'ko Laterri auetan ere ez zuten gotzaiak deusik esan. Ez da arritzekoa; Españi'koak Frantzi'koak eta Portugal'ekoak bezala, agintarien morroi apal ziralako igo bait zituzten, agintariek berak, gotzai-
-aukietara.

Zergaitik, orduan, Frantzi'koak inakitarren alde atera ziran?. An, Erregea Lagundiaren alderdiko zala ondo zekitelako, eta Parlamentuak inakitarren aurka ari ziran artean, Erregearekin batean Lagundia salbatu aal izango zutela uste izan zutelako.

Al zuan guztia defenditu zituan Klemente XIII'ak josulagun zantatuak. Maitasun guztiarekin artu zituan bere Laterrietan. Eta ondo zekian berak, lendik erlijiosoz beterik zeuden Laterri txiki aietara orrenbeste millaka erlijioso berri etortzeak sortzen zuten arazoa...! Portugal eta Borboitarrek, gelditu gabe ari izan zitzaizkion josulagunen aurka, baiña Aitasantu kementsuak ez zien amorerik eman. Agian, inakitar zigortuak goratzearen arraiatik ere pasa izan zan, "Apostolicum Pascendi Munus", (1765), "Apostolu-Artzaintza" enziklikan, Josuren Lagundia ta Eliza gauza bera ba'lira bezala mintzatzaren dala bait dirudi!

Borboitarrek Klemente XIV'a, giartasunik gabeko gizona, Aitasantu atereazi zutenean, epaiturik gelditu zan Lagundiaren bizitza'


Ez zan Klemente XIV'a inakitarren aurkako lenen Aitasantua. Gogabideaz berulletar ziralako, Klemente IX'a eta Inozentzio XI'a ere ez ziran Josulagundiaren geiegizko maitaleak izan. Azkeneko onek, pentsatu zuan Lagundia desegitea ere, eta naiz orrenbesteraño iristera ausartu ez, debekatu zion nobizio berriak artzea. Emezortzigarren mendea badira Aitasantuak Lagundiari ia-ia egiazko gorrotoa ere izan ziotenak, mende ontako Aitasantuak, Laterrien politikeriak aukeratzaren zitalako, gizontto txikiak, eta Laterrietako Agintarien neurritar tajutuak izan bait ziran asko.

Rituen auziak ere asarretu zuan Aitasanturen bat. Ala, Inozentzio XIII'ak, auzi ortan ez zutela garbi jokatzaren eta ez zituztela Errema'ko aginduak obeditzen, jaurti zien aurpegira inakitarrei.

Benedikto XIV'ak, maiz, begirunerik gabe, parregarri ipiñi oi zuan Lagundia; eta baita Portugal'etik eta Espaini'tik Pombal'ek eta Karlos III'ak inakitarren aurka bidalitako salakuntzak gozoki entzun ere.

Klemente XIV'a bera, Lagundia ezerezteko asmoarekin.igo zan, bearbada, Donekeparen Aulkira' Asmo ori aurrera eramateko, ez zitzaion Laterrien axaketarik falta izan. Lagundiaren aurka ari ziran Bor-

boitarren mendeko frantzisko-eta-domingotarrak ere' Beria bildur zan Aitasantua, adiskide asko bait zituan Lagundiak Erroma'n bertan. Gaiñera, Mari Terese Inperatoreemea iñakitarrren adiskide zala uste zuan. Gero jakin zuan, azkeneko puntu ontan, oker zebilela; Mari Terese'k, iñakirarregaitik batere ajolik ez zitzaiola adierazi zionean' Parte aundia du, beraz, emakume otoiz-jario onek Lagundiaren ondamenean, bere deus-ez-jakin-naiarekin babesik gabe laga bait zituan iñakitarrak'

"Iñakitarrren aurkako borrokaren buruzagiak Itali'ko eta Frantzi'ko  tsenitarrak ziran, eta frantziar-parlamentuetako jauntxoak, Voltaire ta entzikolpeditarren antzeko filosofilariak, ta "despotiko argituen" Laterrietako jaurleriak". ("The leaders of the opposition were Italian and French jantsinist, Gallican leaders of the French «parlements,» philosophers like Voltaire and the Encyclopaedist, and the ministers of state of the enlightened despots" (Encyclopaedia Britannica).

Oartzeke, buruzagi oiei bidea errezten zebiltzan iñakitarrren aurkako praille eta elizjendeak. Ez zuten ikusten buruzagi aiek zeren billa zebiltzan: azken unean, aitasantutzari eskubideak moztu, eta Eliza moteldu eta Laterriaren morroi biurtu naiean zebiltzala danak, eta batzuek baita kristautasuna osoro ezabatu naiean ere; ta ortarako Josulagundia ezereztu nai zutela aurrena, Aitasantuaren eskubideen alde sendo eta bizkor ikusten zutelako, ain zuzen, loiolatarrak eratutako sendia' Izan ere, sendo zegoan orduan. Baita jakintzen barrutian ere; jakintza guztietan, izadijakintzetan bereiziki, bait bait zituan Lagundiak gizon erne ospetsuak, len ere esan dugun lez. Jendez ere azitzen eta azitzen ari zan Laterri guztietan nobizio barrie' eskerrak' Bearrezkoa zuten etsaiek, "lendabizi Alaba iltzea gero Ama il nai ba'zuten'

Esan dezagun beste zerbait arrigarri ere: Jaurleri "argituek" Eliza moteltzean, eta ortarako Josulagundia desegitean, "despotikeria" nai zuten sendotu, Argikuntzako "despotikeri argitua", usmatzen bait zuten gizartean aldakuntza sakon bildurgarriak gertatu zitezkeala.

Orregaitik, Lagundiaren ezereztea Frantzi'ko Iraultza Nagusiaren lenengo urratsa lez ikusi oi du norbaitek. Entzun:

"The political leaders of the epoch rightly felt that profound changes were inevitable. An attack of the church was thought to offer the best hope for the security of the political status quo". (Ibdm.) Euskeraz: "Garai artako jaurleriak zuzen ikusten zuten ezinbestekoak ziralda aldakuntza sakonak, ta Elizari ekitea zala uste izan zuten status quo (orduango egoera) sendotzeko erarik egokiena".

XIII Klemente'ren denboran asi zuten borroka era gogorrean' Choiseul zan Frantzi'n lenen ministro; Grimaldi Españi'n; Tanucci Napoles'en, eta Pombal Portugal'en.

Zismaren bidez ikaratu nai izan zuten Aitasantua; Laterri bakoi-tzean LaterriEliz iare bat sortzeko arriskua bai omen zan aundia. Ez zitzaigun XlII Klemente kukildu.

Baiña Aitasantu bikaiñ au ilda, XIV Klemente Aulki Donera igo zanean, gogor asi ziran osterera borrokan:

1769.— Frantzi, Españi eta Portugal'eko enbaxadariak Lagundia-ren ezereztea eskatu zioten. Ez zeramazkian Klemente'k aitasantuztan iru illabete besterik. Orrelako eskarietan, XlII Klemente'k, Lagundia ezerezteko arrazoiak eskatzen zituan, benetako arrazoiak, zioak, zergaitiak' Ta iñork ez bait zion orrelako ziorik ematen, lasai gelditzen zan "errege-aulkian martiri" izan zan Aitasantu ura. (Hergenrdther). XIV Klemente'k astia eskatu zuan' Aspuru Españi'ko enbaxadariari ordeba baiezkoa agindu zion, oni ere astia eskatuaz: "Nabe patientiam in me": "Pazientziz laga eidazu lanean".

1770.— Frantzi'ko Enbaxadariak, Bernis Kardenalak, eskari bera egiten dio, bere eta beste bere bi lagunen izenean. Aitasantuak, oraingoan, XV Koldobika'ri eta III Karlos'i idatzi zien baiezkoa aginduaz. Ta iñakitarrak erarik makurrenean erabiltzen asi zan' Al zituan iseka eta txarkeri guztiak egin zizkien' Zer nai ote zuan Aitasantuak jokaera koldar eta ustel orrekin? Iñakitarren etsaiak atzipetuta Lagundia salbatu? Edo Lagundia ezereztea bere kontzientzigaiñean artu nai ez zualako, denbora irabaziaz, eginkizun zipotz ori bere ondorengoari laga?

1772.— Tomás Aspuru, gaixorik, enbaxadaritza lagata Españi'ra dator. Balentzi'ko goigotzaitza emango dio III Karlos'ek sari lez. José Moñino'k artzen du Erroma'n Aspuru'k utzitako tokia.

Moñino au izango da emendik aurrera Josulagundiaren aurkako borrokan buruzagi. Eten gabe ariko da, —Aitasantuarengana joan eta joan—, Lagundiaren ezereztea arren eta arren eskatzen. Asmatuko du zemai zakarrak erabiltzen ere' Lagundia ezerezten ez ba'zuan, Españi eta Españi'renak ziran lurretatik lekaide eta praille guztiak erbestera-tuak izan zitezkeala, eta Españi'ko eliza zismara jausi zitekeala, jakiñarazi zion Aitasantu kukilduari'

Baiña ez zan Klemente besterik gabe errenditu. Josulagundia eraberritzen asi zan, ortarako ikerleak izendatuaz' Astia nai zuan Aitasantu gaixoak irabazi: Ona zer jakiñarazi zien, asti ori irabaztearren, zirika ari zitzaizkion Erregeei; "Orain baiño leen ere beren erreñueta-

§ oitarren mendeko frantzisko-eta-domingotarrak ere. Baiña bildur zan Aitasantua, adiskide asko bait zituan Lagundiak Erroma'n bertan. Gaiñera, Mari Teresa Inperatoreemea iñakitarren adiskide zala uste zuan. Gero jakin zuan, azkeneko puntu ontan, oker zebilela; Mari Terese'k, iñakirarregaitik batere ajolik ez zitzaiola adierazi zionean' Parte aundia du, beraz, emakume otoiz-jario onek Lagundiaren ondamenean, bere deus-ez-jakin-naiarekin babesik gabe laga bait zituan iñakitarrak'

"Iñakitarren aurkako borrokaren buruzagiak Itali'ko eta Frantzi'ko

tsenitarrak ziran, eta frantziar-parlamentuetako jauntxoak, Voltaire ta entzikolpeditarren antzeko filosofilariak, ta "despotiko argituen" Laterrietako jaurlariak". ("The leaders of the opposition were Italian and French jantsinist, Gallican leaders of the French «parlements,» philosophers like Voltaire and the Encyclopaedist, and the ministers of state of the enlightened despots" (Encyclopaedia Britannica).

Oartzeke, buruzagi oiei bidea errezten zebiltzan iñakitarren aurkako praille eta elizjendeak. Ez zuten ikusten buruzagi aiek zeren billa zebiltzan: azken unean, aitasantutzari eskubideak moztu, eta Eliza moteldu eta Laterriaren morroi biurtu naiean zebiltzala danak, eta batzuek baita kristautasuna osoro ezabatu naiean ere; ta ortarako Josulagundia ezereztu nai zutela aurrena, Aitasantuaren eskubideen aide sendo eta bizkor ikusten zutelako, ain zuzen, loiolatarrak eratutako sendia' Izan ere, sendo zegoan orduan. Baita jakintzen barrutian ere; jakintza guztietan, izadi-jakintzetan bereiziki, bait bait zituan Lagundiak gizon erne ospetsuak, len ere esan dugun lez. Jendez ere azitzen eta azitzen ari zan Laterri guztietan nobizio berriei eskerrak. Bearrezkoa zuten etsaiek, "Iendabizi Alaba iltzea gero Ama il nai ba'zuten.

Esan dezagun beste zerbait arrigarri ere: Jaurlari "argituek" Eliza moteltzean, eta ortarako Josulagundia desegitean, "despotikeria" nai zuten sendotu, Argikuntzako "despotikeri argitua", usmatzen bait zuten gizartean aldakuntza sakon bildurgarriak gertatu zitezkeala.

Orregaitik, Lagundiaren ezereztea Frantzi'ko Iraultza Nagusiaren lenengo urratsa lez ikusi oi du norbaitek. Entzun:

"The political leaders of the epoch rightly felt that profound changes were inevitable. An attack of the church was thought to offer the best hope for the security of the political status quo". (Ibdm.) Euskeraz: "Garai artako jaurlariek zuzen ikusten zuten ezinbestekoak ziralda aldakuntza sakonak, ta Elizari ekitea zala uste izan zuten status quo (orduango egoera) sendotzeko erarik egokiena".

XIII Klemente'ren denboran asi zuten borroka era gogorrean' Choiseul zan Frantzi'n lenen ministro; Grimaldi Españi'n; Tanucci Napoles'en, eta Pombal Portugal'en.

Zismaren bidez ikaratu nai izan zuten Aitasantua; Laterri bakoi-tzean LaterriEliz jare bat sortzeko arriskua bai omen zan aundia. Ez zitzaigun XIII Klemente kukildu.

Baiña Aitasantu bikaiñ au ilda, XIV Klemente Aulki Donera igo zanean, gogor asi ziran ostera borrokan:

1769.— Frantzi, España eta Portugal'eko enbaxadariak Lagundia-ren ezereztea eskatu zioten. Ez zeramazkian Klemente'k aitasantutan iru illabete besterik. Orrelako eskarietan, Xili Klemente'k, Lagundia ezerezteko arrazoiak eskatzen zituan, benetako arrazoiak, zioak, zergaitiak. Ta iñork ez bait zion orrelako ziorik ematen, lasai gelditzen zan "errege-aulkian martiri" izan zan Aitasantu ura. (Hergenrôther). XIV Klemente'k astia eskatu zuan' Aspuru Españ 'ko enbaxadariari orde baiezkoa agindu zion, oni ere astia eskatuaz: "Habe patientiam in me": "Paz entziz laga eidazu lanean".

1770'— Frantzi'ko Enbaxadariak, Bernis Kardenalak, eskari bera egiten dio, bere eta beste bere bi lagunuen izenean. Aitasantuak, oraingoan, XV Koldobika'ri eta Ili Karlos'i idatzi zien baiezkoa aginduaz. Ta iñakitarrak erarik makurrenean erabiltzen asi zan. Ai zituan iseka eta txarkeri guztiak egin zizkien. Zer nai ote zuan Aitasantuak jokaera koldar eta ustel orrekin? Iñakitarren etsaiak atzipetuta Lagundia salbatu? Edo Lagundia ezereztea bere kontzientzigaiñean artu nai ez zualako, denbora irabaziaz, eginkizun zipotz ori bere ondorengoari laga?

1772'— Tomas Aspuru, gaixorik, enbaxadaritza lagata Españi'ra dator. Balentzi'ko goigotzaitza emango dio III Karlos'ek sari lez. José Moñino'k artzen du Erroma'n Aspuru'k utzitako tokia.

Moñino au izango da emendik aurrera Josulagundiaren aurkako borrokan buruzagi. Eten gabe ariko da, —Aitasantuarengana joan eta joan—, Lagundiaren ezereztea arren eta arren eskatzen. Asmatuko du zemai zakarrak erabiltzen ere. Lagundia ezerezten ez ba'zuan, España eta Españi'renak ziran lurretatik lekaide eta praille guztiak erbestera-tuak izan zitezkeala, eta Españi'ko eliza zismara jausi zitekeala, jakiñarazi zion Aitasantu kukilduari.

Baiña ez zan Klemente besterik gabe errenditu. Josulagundia eraberritzen asi zan, ortarako ikerleak izendatuaz. Astia nai zuan Aitasantu gaixoak irabazi: Ona zer jakiñarazi zien, asti ori irabaztearren, zirika ari zitzaizkion Erregeei; "Orain baiño leen ere beren erreñueta-

tik inakitarrak erbesteratu dituzten Erregeek, zugartasun osoz jokatu dutela mundu guztiak argi ikusi aal izan dezan, aretarik aundieanarekin ari naiz azkeneko bulda antolatzen".

Bulda orren leen idazpena bidaliko diela dasaie, argitaratu baiñolen, Erregeek, zuzen eratu gelditzen dan edo ez, ebatzi aal dezaten. Eta baita bidali ere, bidali zien, Portugal'eko eta Españi'ko Erregeei.

Errege Katoliko auk atsegiñik aundienetakoarekin artu zuten Lagundiaren deuseztea. Ez da egia Mari Terese'k negar egin zuala. Ain zuzen, emakume onek salbatu zezakean Lagundia, salbatu-nai izan batu'

Bi Errege bakarrik, —Prusi'ko II Frederik Iutertarra eta Errusi'ko II Katalin ortodoxitarra—, jeiki ziran Lagundiaren aide, eta jakiñarazi zuten Lagundiari zioten naimen ona'

Auxe idatzi zion Voltaire'ri Frederik II'ak:

Nere "Anai" Errege Katolikoek, —guztiro sinispide zuzeneko, eta osoro apostolutar diran Errege oiek—, bidali dituzte erbestera beren lurraldeetako inakitarrak. Ni, goitik beera ereje naizen au, gustora ari naiz, inakitar oietatik, al dedanik geienak, nere Jaurerrira biltzen. Nik gordeko dut bizirik inakitarren abenda. Eta gero, laister, Errege katoliko oiek inakitarren baten eskean etortzen zaizkidanean, garesti kobratu bear dizkiet berak bidali dituzten inakitar auk. 300 "koroï" gutxienez Lagundiko apaiz batengaitik; 600'dik gora Aita ProbintziZuzendarri batengaitik".

Eta Frederik II'ak zion bezala, bi Errege ez-katoliko aiek salbatu zuten Lagundia, ez bait zioten ez Frederik'ek, ez Kataliñ'ek Klemente XIV'aren Bulda Lagundierailleari, "Placet" edo Jaurerri aietan lege izatera iritxi aal izateko bearrezkoa zuan baimenik eman.

Bi Errege oien mendean zeuden, katoliko ziran Silesi eta Poloni. Orrela, bizirik jarraitu zuan Josuren Lagundiak bi Errege aien Laterrietan, batez ere, Poloni'ko Jaurerriaren bigarren zatiketaren ostean Frederik II'ak bereganatutako Silesi'n eta Katalin II'aren mendean gelditu zan Poloni beraren sorkaldeko zati zabalean' Eta naiz alkarturik eta lanean jarraitu zuan Lagundi ura Lagundi Aundiaren puska bat besterik ez izan, ez zan ala ere ain puska txikia Poloni'n bertan inakitarrak 2.000'tik gara bait ziran, 60 etxe ta ikastoletan banatuak. Bai Silesi'n, bai Poloni'n aundia zan Lagundiaren ospea, batez ere Aundikien artean; despotikeriaren aroan, beste bazter guztietan egin izan zuten bezala, an ere, Errege Bakaragintzaleen adiskidetasuna artu bait zuan Lagundiak bere ekintzaren oiñarrizat. Inak tarren ikastetxeetan eziak

izan ziran Poloni'ko aundiki danak, eta iñakitarren ekintza orri zor dio Poloni'k bere "sarkaldetasuna"

Oartu ziran erregeak Aitasantuaren jokuaz, eta baita asarretu ere. Moñino'k auxe iragarri zuan: Españi'n ez zala Aitasantuaren Nuntzioa onartua izango Josulagundia ezereztua izan arte, eta, era berean, Frantzi'k ez zituala Abiñon eta Benesiar konterria itzuliko, ezta Napoles'ek Pontekorbo ta Benebento, Lagundiak bizirik jarraitzen zuan artean.

Aurrerago joan zan oraindik Moñino, Aitasantua errenditurik zeukala oarturik: Lagundia ezerezten zuan legea idatzi zuan, eta III Karlos'eri bidali, onen oniritzia eskatuaz. Pozik eman zion onek iritzi on ori, eta idazki ori izan zan, Zelada Kardenalak orraztua, Lagundia ezabatzeke XIV Klemente'k izenpetu zuana. 1773'garren urtean egin zuan ori; Uztaillaren 21'ean.

Bi arrazoi ematen ziran Moñino'k prestatu eta XIV Klemente'k izenpetutako "Dominus ac Redemptor" izeneko "Brevis" edo "Idazti Labur" artan:

"Une auetan ez dezake Lagundiak len Elizari eman izan dion fruiturik eman".

'Nik azaldu nai ez ditudan beste zio batzuk".

Azkeneko esaldi ori itzez-itzez Españi'ko III Karlos'ek bere Jaurerietatik iñakitarrek erbesteratzeko eman zuan legetik artua da. Entzun "despota argitu" aren izkera:

"Estimulado de gravisimas causas relativas a la obligacion en que me hallo constituido de mantener en subordinacion, tranquilidad, y justicia, a mis pueblos, y otras urgentes, justas y necesarias, que reservo en mi Real animo"... "porque a los particulares no incumbe juzgar ni interpretar las ordenes del Soberano". "El Consejo de Castilla dará a conocer a los Reverendos Prelados Diocesanos, Ayuntamientos, Cabildos Eclesiásticos y demás estamentos o cuerpos politicos del Reyno, que en mi Real Persona quedan reservados los justos y graves motivos que a pesar mia han obligado a mi Real ánimo a esta necesaria providencia". Ori egitean, "usando de la suprema autoridad economica (gaur, "gubernativa" esango litzake), que el Todo-Poderoso ha depositado en mis manos para la proteccion de mis Vasallos y respeto de mi Corona", • dabillega diosku.

Aitasantuak berriz, —Klemente XIV'ak—, "via administrativa" ezabatzen zuala Lagundia, zion "Brevis" artan; ots, ez Elizaren Irakasle Guren lez, iñakitarren artean sinismenaren aurkako gauzarik aurki

tu zualako, ezta, Elizako Epaille Nagusi lez, aiek gaiztakeriren bat egin zutelako, Elizaren Jaunle lez baizik, Elizari pakea biurtzeko eza ura bearbearrezkoa zala uste zualako. Eta zalantzarik gabe aitortu dezakegu, seguruaski ala uste zuala berak: Lagundia ezereztearen bidez bakar-bakarrik lo^rtuko zuala pakea, eta ori egitea zillegi zitzaiola. Ainbeste' oiu, zarata, deadar eta salaketa iritxi bait zitzaizkion, zurrunbilloan, bazter guztietatik!

Desegin zuan Lagundia, baiña ez zuan pakerik lortu.

Iñakitarrak, apaiz-lanera eta ikasketara jo zuten. Ez danak. Lorentzo Ricci Lagundiaren Zuzendari Orokorra eta beste aman iñakitar ospetsu Santangelo'ko gazteluan espetxeratuak izan bait ziran.

Ez zitzaien bata bestearekin mintzatzen uzten; ezta meza ematen ere, eta jateko, razio edo ano-erdia bakarrik ematen zitzaien.

Epaituak izan ziran eta ez zuan epailleak aien aurka erru txikienik aurkitu. Ala jakiñarazi zien espetxeratu ber-berei ere.

Orduan Ricci'k, "agure zala, osasun txarrez zegoala, eta Aitasantuen agindua zalantzarik gabe onartzen zuala". arrazoitzat ipiñiaz, Kardenalen Bazkunari askatasuna eskatu zion' Ez zuan erantzunik jasoso.

1774'ean il zan XIV Klemente, eta berriro askatasuna eskatu zien Ricci'k. Alperrik oraingoan ere. Aitasantu berria, Vi Pio iñakitarren ai dekoa zan. Baiña an zegoan Moñino, eta askatasunaren aurka mintzatu zan gogor. Ez zitzaion arrazoirik falta. Iñakitarren buruzagiak askatzea Lagundia errugabea zala eta aren aurka bai berak eta bai bere Erregeak eta adiskide guztiek egindekoa okerkeri gaitza izan zala, aitortzea bait zan.

Illabete batzuk geroago VI Pio berari idatzi zion Ricci'k. Goxatu zien Aitasantuak iñakitarrei espetxe-bizitza, baiña ez zan askatasuna ematera ausartu' An bait zegoan Moñino!

Urrengo urtean, 1775'ean, il zan Ricci, bera, eta bere Lagundia, beti errugabeak izan zirala, Eukaristiko Kristoren aurrean ziñ egiñaz' Zegokion omenezko illetak izan zituan, Pio VI'ak ala agindu zualako. Egin zuan Aitasantu onek geiago ere, naiz ixillean, eman bait zion bere onespena Prusi ko eta Errusi'ko lurretan bizirik ziardun Josulagun

Ez zan geiagora ausartu, baiña urrengo aitasantutzetan, ezabatuz gero zegoan Lagundi artako iñakitarretatik, 55 gotzai egiñak izan ziran; aien artean Laterri Alkartuetako Elizan ain itzal aundia izan; zuan Jon Carroll.

Ez zan mundu guztia inakitarren etsai- Bazituzten adiskideak ere, eta ez nolanaikoak. Aski burukomin eman zioten auek XIV Klemente'ri Josulagundia ezereztera zijoanean: Aitasantuak ez zuala, esaten zioten, orrelako erabakirik emateko eskubiderik; Kontzilio bat bildu bear zala ortarako. Maiz agertu izan da beti kontziliokeriaren lurrin ustela Elizaren edestian, Aitasantuen atsekaberako. Baiña oraingoan ez zitzaion Aitasantuari kontziliokeri ura ain okerra irudituz, erantzukizuna besteren bizkarrera jaurtitzeko bidea ematen bait zion' Afa ere, ez zan XIV Klemente Kontzilio bat biltzera ausartu.

20.000 ziran inakitarrek Lagundia ezereztua izan zanean. Ez zan aietako bat bakarrik ere Aitasantuaren aurka jeiki'

Lagundiaren zuzendariak Santangelo'n, dirudianeaz Españi'k eskatuta espetxeraturik zeuden bitartean, Olanda'tik Europa'ko Sortaldera abiatu zan gizaseme gazte bat, an, oraindik bizirik jarraitzen zuan Josulagundian sartzeko. Gazte ori, gero Lagundiaren berbizkunde orokorrean ain esku aundia izan zuan Roothan Zuzendari Nagusia zan.

Laister asitako berbizkundera. 1801'ean, Aitasantutzara igo bezain laister eman zion bere onspen osoa Pio VII'ak Europa'ko sortai dean bizirik ziraun Lagundiaren zati bizkor arri. Pio VII'aren oniritziarekin, 1805'ean Jon Carroll, Ameriketa'ko Laterri Alkartuen lenen Gotzai katolikoak berbiztu zuan Laterri aietan Josu'ren Lagundia; eta andik bederatzi urtera, 1814'ean Pio VII'ak askatasun osoa eman zion osterara, Eliza osorako, Inaki Loiolatarrak sortutako Anaidi ospetsuari. Errusi'ko Inakitarren Zuzendari Nagusia, Aita Brzosky izan zan Lagundi berbiztuaren Aita Nagusi Orokor egiña; eta, onen ondorean, Aita Luis Fortes italiarra. Bi Nagusi Orokor auen denboran, eta batez ere, irugarrenarenean, Aita Jon Felipe Roothan olandarraren denboran, izugarritzko aunditze ta indartze azkarra izan zuan Lagundiak, eta azitzen joan zan beti ondorean, 1970'ean 35.000 lagundikide izateraifio. Ala're, berbizkunde aren ondoreko denbora ez zaio maizaski ain ez-titsua gertatu; laister jausi bait zitzaion berriro zigorra. Ona zigor oien edesti laburra:

—1818'an Belxika'tik bidaliak izan ziran, angu agintari alemanitarren aginduz.

1820'ean Errusi'tik bidali zituzten.

—1829'an Frantzi'ko Jaurlaritzak ikastetxe danak itxi zizkien.

1834'ean, osterara Portugal'etik dira jaurtiak.

1848'an Austri'tik, eta Itali'n austritarrenak ziran lurraldeetatik'

-1850'ean, Kolonbi'tik.

1852'an, Ekuador'tik.

—1852'an Alemani'tik.

1873'an etxe asko kendu zitzaizkien Itali'n'

—1880'ean, barrira Frantzitik bidaliak dira'

1901'ean, Frantzitik ostera (itzuliak bait ziran ara).

1910'ean, atzera berriz Portugal'etik.

—1932'an Espāñi'tik ostera.

Ikusi daitekeanez izan dute, azkeneko denboretan ere, jende ugariren partetik gorrotorik naiko Loiola'koaren semeek. Alde batetik, gorroto ori iñakitarrek sendo lan egin duten siñale da, eta bateren batzuentzat etsai bildurgarri ziralaren siñale ere bai' tAundikientzat?, GAberatsentzat?. Errege despotikerizaleentzat? Ez dugu uste baietz erantzutea zillegi zaigunik. Izan ere, gorroto ortan, erruaren zati aundi bat iñakitarrak berak dutela uste bait dugu; len bezala, emeretzigarren mendean ere, iñakitarrak, demokraziaren etsai geiago izan bail dira, despotikeriaren arerio baiño. Zorionez, Batikandar il Kontzilioaren ondorean, besterik da Josuren Laugundia; eta eman lezaioke Elizari zitu ederrik naiko'

Klemente XIV'a, Josulagundia desegin zuan Aitasantua, 1774'eko agorrillaren 22'aren egunsentian il zan, Frantziskotar "Konbentuzaleen" Zuzendari Nagusia beste lagunik alboan ez zuala. Gauza izugarriak esan dira aren eriotzari buruz: Josulagundia deuseztu zuan ezkerro, damuak jota, eratu egin zala; barrungo arrak mingoztuta, salbamenaren itxaropenik gabe il zala; iñakitarren adiskideek, edeenaren bitartez erail zutela...; Ez dira egiak gauza oiek' Baiña egia da, bere aitasantutza ituna izan zala benetan.

Ondoren txarrak ekerri zizkion Laterrietako erregekerizalei eman zien amoreak' Portugal'en, gogoak ematen ziona egiten zuan Pombal'ek, Aitasantuari deus esan gabe gotzai bat ipiñi ta bestea kenduaz; era berean, Frantzi'n, Koldobika XV'ak bere-kasa deuseztu zituan Elizako Anaidi zar batzuk; berdin ari zan Mari Terese Austri'n Erlijosio'en Anaidiak, iruditzen zitzaion modura, eraberritzen' Gera ta aundiagoa zan Espāñi'n erregekeria; eta baita gotzaien jantsenkerikutsua ere.

Aitasantu onen agintaritzan egin zan, Laterri katoliko baten gorputzean, Europa'ren edestian egindako nardakeririk aundienetako bat: Poloni'ren aurreneko zatiketa. 1772'an egin zan zatiketa ori, Prusi'ko Frederik II'a, Errusi'ko II Katalin eta Austri'ko Mari Terese'ren ar-

tean' Kendu zion bakoitzak puska ederra Poloni gaixoari. Ogei urte geroago, 1793'an egin zan bigarren zatiketa, Errusi eta Prusi'ren artean, eta andik bi urtera, 1795'an irugarrena; ostera Austri'ren, Errusi'ren eta Prusi'ren artean. Azkeneko urte ontan galdu zuan Poloni jatorrak, XX mendera arte berriz irabaziko ez zuan askatasuna.

1772'ko zatiketa arrek samindu zituan Klemente XIV'aren azkeneko bi urteak.

Zerbait esan bear dugu ala ere Aitasantu onen alde' Egin zituzten egiñalak Borboitarrak, eriotzera urbiltzen ari zan Aitasantuari kardenal berriak izenda-arazteko: borboitarren politikeraren aldeko zitezkean kardenalak. Ezetz erantzun zuan Klemente XIV'ak; tinko eutsi zion bere ezezkoari; eta kardenal berri borboizalerik izendatu gabe joan zan beste mundura.

PARAGUAY'ko INDI-BILDUMAK

Iñon gutxitan egingo zuan Josulagundiaren ezerezteak Ameriketara aiña kalte. An, Paraguay'en bereiziki, mixiokuntzaren edestian egindako saiaketarik arrigarrienetako bateri moztu bait zion bizia: Paraguay'ko indibildumen ekintzari.

Nork ez du Paraguay'ko "Redukzioen" entzuterik? Iru gauza esan nai zituan orduan Gaztelerazko "reducción" itzak: sakabanaturik dagoana bíldu, abereak eta jende basatiak menderatu, eta jende eta abere oiek gizarterako era egokian ezi.

Kolon Ameriketara iritxiaurretik, Mexiko uriaren inguruan "Aztekek", eta Peru eta Ekuator'ko Andemendien arteko aran goitian "inkak" izan ezik, basoetan sakabanaturik bizi ziran inditar-enda geienak. Eta gauza zailla bait zan inditar leiñu aiek banan-banan ebangelizatzea, berealaxe ikusi zuten Españietatik joandako mixiolariak jende aiek bizitoki iraunkorretan bein-betirako biltzea bear-bearrezko eginkizuna zutela.

Frantziskotarrak, Domingotarrak eta Agustindarrak asi ziran leenik eginkizun ortan, Mexiko'ko mixioetan. "Doctrinas" ipiñi zieten izen inditarren bilduma aiei' Eta ekonomirako eta politikarako ere inditar alderrai sakabanatu aiek bizileku tinkoetara biltzea gauza txit egokia zalako, ez zitzairen Mexiko'ko mixilariei Karlos Errege-Inperatorearen laguntzarik peitu. Ezta, laister, Españietatik joandako "conquistadores" eta "encomenderos" urrezaleen asarrerik ere, bizkor babesten bait zituzten "doktriña" aietako mixilariek bertako inditarren lurak, eskubideak, eta gizakume orori zor zaizkion begirune eta duintasunak'

Merezi dute aipu on aintzagarría Frantzisko, Agustin, eta Domingo Deunen semeek.

Baiña Bildumen mixiokera ortan iñakitarrak izan ziran geiena saiatu ziranak, eta iñakitarrek Paraguay, Goi-Parana, eta Uruguay ibai aundien ibar zabaletan eta tarteko baso eta mendietan eraikitako Bildumak izan zira beti bereiziki aipatuak eta goietsiak. Lurralde arri darenari orduan Paraguay esaten zitzaiolako "Paraguay'ko Bilduma'k"

esaten zaie Bildumeei berairi ere. Baiña Paraguay'tik at izan zituzten beste toki batzuetan indi-bildumak Iñaki Deunaren semeek: Txakoesaten zaion larre zelai zabalean adibidez.

Paraguay'ko Bildumak, —eta Mexiko'n beste mixiolariiek eratu zituzten "dotriña" aiek eta geroxeago Benezuela'n, Amazoni'n eta Pe eta Antilleetan eratu zituztenak,— ez ziran kristau-ikasbidea erakusteko bakarrik eratuak izan; gizonki bizitzeko bearrezkoa zutena ere inditarrei erakusten, saiatzen bait ziran mixiolariak.

Ontan ere, eredu izan zitzaizkigun Iñaki Loiola'koaren semeak. Ontan,... eta gizartearen eta politikaren arloan Bilduma aiek izan zuten garrantzian. Eun milla aiña inditar bizi bait ziran iñakitarren Bildumetan!

"In the Paraguay region Jesuits governed the lives of 100.000 Indians in 32 "reducciones". These were centres of conversion, agricultural and pastoral production, manufacturing and (rade, which served also as strategic outposts against Portuguese expansion from southern Brasil. Isolated from the heart of Paraguay, which centred on Asuncion, the mission became an autonomous military, political and economic "state within the state" which increasingly excited the envy of Spanish landowners in the Asunción area". (Enc' Brit.).

"32 Bildumetan, 100.000 inditarren bizitzak gobernatzen zituzten irtakitarrek. Jendea kristautzeko tokiak ziran, baiña baita lugintza eta artzaingoa, eta ortik sortutako ontasunak nola ondasun berri biurtu eta nola egoki saldu erakusteko tokiak ere' Balio izan zuten, baita're, Brasil'go portugaldarrei egoalderuntzko bideak isteko. Asuncion urian erroak zituan Paraguay'ren gorpu(zetik aski urruti bait zeuden, militarki eta politikaren eta ekonomiaren aldetik beren buruen jabe izan ziran Bildumak, "Laterri-barruan Laterri", eta egunetik egunera aundigoa zan inguruko lurren jabe egindako espaiarrek Bilduma aiei zieten bekaizkeria".

Europa'n Aundikien semeak ezitzen, Indostan'en eta Txina'n printzipe, jaurleri, eta jakintsuak bataiatzen ari ziran iñakitarrek jenderik ezerezeraiño jetxi ziran Ameriketan, berak baiño leenago beste apaiz eta praille mixiolariiek irikitako bidetik jarraituz jende aul aiei gizonki eta kristauki bizitzen erakusteko. Borondate onez lagundu zien Madrid'tik III Felipe'k'

1610'ean eman zien iñakitarrek asiera aurreneko Bildumari, eta beren Aitaren izena piñ zioten: "Iñaki Deunaren Bilduma"

Bilduma bakoitza, "uritxo" bat zan. Erdian, enparantza zuan, eta

enparantza ortan zeuden eliza, mixiolarien etxea, gaixotegia, arroztegia, eta ikastola. Karrika zuzen garbietan, inditarren etxeak, auek ere, enparantzakoak bezala, arriz egiñak. Uritik kanpora aurkitzen ziran errota, okindegia, eta beste lantegi guztiak.

Bazuten Bildumek komunismoaren itxura piska bat; lurra, baita nekazaritzakoa ere, danena bait zan oro. Bildumako biztanle guztiak zeuden lanera beartuak, baiña oso era biguñean, ondo bait zekiten mixiolariiek mende askoren luzaroko gose gorriak auldutako gizakume gaixo aiek ez zirala lan astunegietarako gauza.

Guztien alorretako lanak ematen zuan uztatik irtetzen zan guztien bizitzarako, uriaren gastuetarako, eta Erregearen zergak ordaintzeko bearrezkoa zana. Eta baita izkillu-erosketarako dirua ere, 1641'a ezkerro, iñakitarrek lortu bait zuten Erregearengandik Bildurnetako jendeek izkilluak erabilli aal izateko baimena. Artaz gero, ez ziran oienetako inditar basatiak, eta aiek baiña basatiagoak ziran Asuncion-aideko espāñiarreak edo Brasil'go portugaldarrak, uztak lapurtzera edo neska ederrak arrapatzera, asmo okerreuz urbiltzen ausartuko; len maiz egiten bait zituzten orrelako txarkeriak.

Iñakitarren Bildumek bazuten erdiaroko lekaidetxeen itxura bezalako zerbait ere, naiz Bildumetako biziera, —jakiña—, askoz ere xamurragoa, legunagoa, eta goxogoa izan' Otoitzaren neurrira egiten ziran lanketa guztiak; dotoreak ziran jauretxeko elizkizunak; atsegiñak enparantzako jaiak, eresi, abesti, eta antzerki ta guzti.

Españi'k Ameriketara bidalitako Agintarrietatik aske eta iare ziran Paraguay'ko Bildumak, asiera-asieratik iñakitarrek Bilduma aiek danak Erregearen zaintzape eta agintaritzapean jarri zituztelako, eta Erregeak, naimen guztiz, bereak lez artu zitualako. laretasun ori zalata sortu ziran Agintari espāñiar arroekin iskamilla ugariak, baiña ill eta IV Felipe'k alde izan zituzten-da, garaille irten ziran beti iskamil aietan iñakitarrek. Baita Gotzainen batekin edo besterekin izan zituztenetan ere. Elizgizon burugogor aien artean aipu bereizia merezi du Bernardino Cárdenas, Asuncion'go Gotzaiak.

Bilduma bakoitzean inditarrek berak aukeratzen zuten beren Aikatea. Alkate aien gaindik, Bildumetako inditarrek ez zuten Erregea beste agintaririk. Baiña urruti, oso urruti bait zegoan an Madriden Erregea, eta auzi guztietarako, baita auzirik astunenetarako ere, Bii duma bakoitzeko Mixiolari Nagusia izendatu bait zuan Erregeak bere Ordezkarierak, egiaren-egiz iñakitarrek ziran "Latterribarruan Latterri bat" osatzen zuten Bilduma aietako Jaurlariak auzi ororako.

Esan ere esan dio norbaitek "La Republica de los Jesuitas" Bil
Bilduma arri: "Iñakitarren Errepublika". Eta baita "Estado Jesuitico" edo "Laterri Josulagundiar" ere'

Pozik bizi ziran Iñakitarren Errepublika artan, askatasun eder paketsuan, inditarrak.

Nori zor diogun era bereiziko Redukzio aien sorketa? Acquaviva, inñakitarren Zuzendari Nagusiak eman zuan ekintza arri asiera emateko agindua, eta Paraguay'ko Aita-Probintziburu zan Diego Torres'ek asmâtu zituan agindu ura mamitzeko bearrezkoak ziran arauak. Aurreneko Bilduma, —Iñaki Deunarena—, Lorentzana Aitak eraiki zuan eta, berealaxe, bigarrena, Catoldina Aitak' Baiña bere izaera osoan eta egokian "Bildumen Errepublika" eratu eta tajutu zuan inñakitarra, eusbat izan zan, Montoya'ko Ruiz Aita; arabarra.

Esan oi da, —inñakitarren aurka—, Bildumetan inditarra, arrazoi osora iritxi gabeko aurra bezala erabiltzen zutela. Eta, ori, ez da egia. Mendez-mendeko gosez auldurik zeuden inditar gaixo aiek. Bai gorputzez eta bai gogoz, auldurik; eta aur nagien antza geiago zuten giza-
seme sendoena baiño, Bildumetara iristen ziranean- Sekulan, ez bereaiek ez beren gurasoek, lanik ez egin izateak, ito bait zuan erdiume aien biotzetan lanerako zaletasun oro. Aur makal aiek gizakume trebe, bikain, eta yayo biurtu izatea da inñakitarren aintzar k ederrena' Izan ere, bearbada, Karlos III'ak inñakitarrak bere lurretatik erbesteratu ez balitu, beste inñor baiño obeki prestatuak egongo bait ziran askatasunerako Bildumetako inditarrak emeretzigarren mendean!

Zorritzarrez, III Karlos Borboiaren agindu zoro arek ebaki zien bizia, orduan ain zuzen, inñoz baiño bizkoarrago lanean ziarduten Bildu

Inñoz baiño sendoago ari ziran, bai, orduan lanean; une artan, 1500'era iristen bait zan Bildumetan bizi ziran inditarren kopurua. Inditar gaixo aien bizitza, arrezkero, kolonizazailleen ankapean nolakoa izanen zan errez igarri dezakezu.

Bildumetako inditarrak kristauki eta gizonki ezitzeko bizia galdu zuten mixiolarien artean oroi ditzagun gaur aldareetan, "Doatsuen" maillan, agurtzen ditugun iru martirien izenak: Erroke Gonzalez, Alonso Rodriguez, eta Jon Castillo.

FEBRONIKERIA

1762'an agertu zan Justinus Febronius'en "De Statu Ecclesiae", "Elizaren Egoera" izeneko liburua. Jon Nikolas Hontheim zan "Febronius" aren egiazko izena. Alemani'ko Treberis'en jaioa, Van Espen legeztilari erregezale eta jantsenista ondo ezagunarekin egin zituan ikasketak, eta Treberis'ko Gotzai Laguntzaillea izateraiño iritxi zitzaizgun. Gotzai zala idatzi zuan bere liburua, Van Espe'ren aburuetan eta Alemani'ko Elizaren sentimentuetan, oiñarritua'

Aspaldian ez zebillen Erroma'rekin oso adiskide Alemani'ko Gotzaidia. Ez zuten ain zuzen Gotzai aiek ezer Aitasantuaren pertsoanaren edo almenaren aurka' Erroma'ren zentralismuarekin eta batez ere Erroma'ko Kuriaren administraketarekin eta Alemani'ra joaten ziran nuntzioekin zan aien asarrea'

Eta ez zan asarraldi artan Gotzaiena erru guztia, Aitasantuek Abiñon'en egon ziranez gero, azitzen eta azitzen joan bait zan Erroma'ko Kuria'ren orotan-eskua-sartzeko guraria.

Birjaiotzakoan ikusi aal izan genduan lez, ba zuten Gotzai doistarek beren "Gravamina" edo "arrenkurak" noizbeinka Erroma'ra aurkezteko oitura zaarra. 1643'ean argitaratu zuten iru Gotzaiek "Gravamina" izeneko idazki bat. Aipa ditzagun iru Gotzai aien izenak, Inperio-lurretako gotzaidi aberats aristokrazikoi aren adigarri bait dira:

Maximilian-Enrike Babiera, Koloni'ko Goigotzai eta Hildesheim'ko, Munster'ko eta Lieja'ko Gotzaia: (lau elizbarrutien jabea!)

Lotario-Federik Von Metterninch Maguntzi'ko Goigotzai eta Espira'ko ta Worms'eko Gotzaia; (iru elizbarrutien buru).

Karlos-Gasper Leyn'go Kontea eta Treberis'ko Goigotzaia. (Iru Goigotzai auek, gaiñera, Printzipe Autalariak ziran, beste lau-bost Printzipe sekularrekin batera Inperatorea aukeratzen zutenak).

Ez zuten Gotzaiek gura zuten erantzunik jaso, eta ala, bizirik zi Faim oraindik urrengo mendean Alemani'ko gotzaidiaren urduritasuna Febronio'k bere liburua argitaratu zuanean.

Giro ortan azaldu zan Febronio'ren liburua: "Justini Febronii jurisconsulti de Statu Ecclesiae deque legitima potestate Romani Pontificis liber singularis ad reuniendos dissidentes in religione christiana compositus".

Euskeraz: "Justin Febronio legegizonaren liburua; bakarra; Elizaren izaeraz eta Aitasantuaren almenaz; kristau bereziak bateratzeko edatua".

Liburuaren izenburu ortan agertzen duan bezala, asmo onak zituau Febronio'k:

Erljioari-buruzko ezberdintasunen erruz zatiturik omen zegoan Alemani, eta zatiketa ori ez omen zan Laterriarentzat gauza ona.

Bearrezkoa omen du Laterriak erlijiozko batasuna, eta batasun ori egitera omen zetorren bera.

Asmo on utsa, ordea, ez da naikoa izaten gauzak ongi egiteko-ta..., Febronio'ri ere oker jrien zitzaion ain asmo onez eratu nai izan zuan gauza.

Erejisortzaille edo zisma-egille guztiek bezala Febronio'k ere lenen denboretako Eliza aipatzen zuan eredu lez Eliza orban guztietatik garbitzeko' Ta Elizaren orbanik aundiena, Febronio'rentzat, Aitasantuen geiegitasuna zan.

Aurreneko 8 mendeetan garbia eta zintzoa izan omen zan Eliza, Eliza-baitan Agintaritzaren arazoa, zintzoa izan zalako; ez omen ziran bā mende aietan Aitasantuek beren aalmenen neurritik atera. IX mendean asi omen ziran, eskubiderik ez zuten gauzetarako, legeak, erabakiak, eta aginduak ematen, orduan argitaratu-berria zan "Pseudo-Isidorus" edo "Sasi•Isidor"en Decretales edo Erabakien bilduma oiñarritzat artuaz.

Febronio'ren Liburu osoaren ardatza, Agintaritza da, eta Febronio'k Elizako Agintaritza Aitasantuei kendu eta kristau-erriari ematen dio; gero, kristau-erriari kendu eta gotzaiei damaie, azkenean gotzaiei ere kenduta oso-osoan erregeei emateko.

Elizan Buruzagi bat izatea, Jesukristok berak nai izan zuan gauza dala dio liburuaren asieran. Buruzagi orren egitekoa ordea, Elizaren batasuna zaintzea bakarrik omen da.

Baiñan eginkizun ori betetzeko aalbide guztiak kentzen dizkio Aitasantuari, Aitasantuak ez omen du bā lege-emateko eskubiderik!

—Almen guztia Elizaren Soin Osoari, ots, Kristau-Erriari, eman omen zion Jesukristok'

Badirudi Febronio'k Eliza demokrazi biurtu nai duala. Ez ordea; Almen ori "p incipiãiter et radicaliter" bakarrik omen dago bã kristau-erriagan: "era bereizian baiña iturrian lez bakarrik"; ez omen du erriak almen ori erabiltzeko eskubiderik , almenaren erabilketa Jesukristok gotzaiei eman zielako. Beraz, izenez demokrazia eta izatez aristokrazia izango litzakela dirudi Febronio'k pentsatzen zuan Eliza. Ez; ez litzake aristokrazi bat ere izango, "Febronio'k, gotzaiak erregeen morroi biurtzen bait ditu": "Febronius reduces the bishops to a condition in which they would be merely servile creatures of the civil power" (F. Lauchert)'

Gotzaiak ez dezakete Erregearen onespenik gabe ezer agindu. "Los obispos han de examinar cada una de las medidas eclesiãsticas para ver si efectivamente no son opuestas a la seguridad del Estado" (Febronio beraren itzak dira; Garcia Villoslada'k gazteleratuak). "La Seguridad del Estado"! "Laterriaren Eskiertasuna", Iberamerika'ko diktatore guztien elburua izan da, alako eta ainbeste astakeri nardagarri zikiñ egiteko' Ara or, Febronio'ren liburuan, dotriñ orren aurreoiartzuna.

"Jure divino" omen da Erregea Elizaren zaindari: "jainkoagandiko legez", Entzun Febronio'ri, Villoslada'ren erderan: "El Soberano en su misiõn de protector de la Iglesia, ha sido constituido guardiãn de la Iglesia genuina y por lo tanto elevado de hecho por encima del Pontifice y de los obispos"'

Orra or erregekeria, bere erpiñera jaso'

Elizaren burua, Febronio'rentzat, Kontzilioa da. Kontzilio-barruan gotzai guztiak berdiñak dira, eta, aien artean, deduz eta menez bakarrik da Aitasantua lenena, ez aginpidez' Ez da, ere, Aitasantua Kontzilioaren naitanaiezko zuzendaria. Ezta, Kontzilioaren biltzaille bakarra. Ez da utseziña. Kontzilioa bai, Kontzilio utseziña da, baiña bere erabakiak Elizak ontzat artzen dituan unez gero bakarrik'

(Azkeneko ataltxo au, Sortaldeko Eliz Bereizietako teologilariak esan oi duten gauza bera da)'

Gera, Kontzilioaren legeak eta erakusketa guztiak zintzo betearaztea gotzaien eginkuzuna omen da; eta baita Aitasantuarena ere, baiña batez ere erregeena' Erregea omen da bã, arriturik entzun deza kezun au guztia:

—Gotzaiak Elizaren legeak era zuzenean erabilliarazi bear dizkie-

--Laterri•barnean Kontzilioa, bearrezkoa bada, biltzeko eskubidea duana;

—Eleiz bereziak batasunera bir-ekartzeko ardua berezia izan bear duana; eta azkenik,

—Aitasantuen geiegizko agindunzalekeritik bere burua askatu nai duan Eliz orori, indar guztiz, baita ezpatazere, laguntzera bearturik dagoana!

Zearo desegiten zuan, orrela, Febronio'k, Jesukristoren Eliza. Altaguiz, izugarrizko arrakasta izan zuan bere liburuak. Berealaxe izan zan Alemani'ko, Itali'ko, Frantzi'ko, Olanda'ko, Inghlanderriko, Españi'ko, eta Portugal'eko izkuntzetara itzulia.

1764'e an izan zan liburu ura "Index" edo "liburu debekatuen zerranda" sartua; urte ortan bertan debekatu zituan XIII Klemente'k Febronio'ren gogoetak ere, beraien sortzaillerik aipatu gabe. Baiña debeku oiek danak ez zuten febronikeriaren zabalkunderik eragozi.

Ondo gogoan euki zituzten Febronio'ren erakusketak II Jose Inperatoreak Austri'n; eta aren anaiak, Leopold Duke Nagusiak, Toskani'n, Pistoia'ko Sinodoa egiterakoan; baiña, beste iñork baiña areago eta beteago erakusketa aiek mami biurtu zituana Frantzi'ko Iraultza izan zan, Frantzi'ko iraultzalariak izan bait zitzaizkigun sekulan Elizak ezagutu dituan erregekerizalerik aundienak.

Alemani'n bertan ere, ez zuten gotzai guztiek Aitasantuaren epai-itza bearrezkoa zan leialtasunarekin onartu eta bete, ;ain bait zegoan orduan erregekeria Kristaudi osoan zabaldua!

Iñork ez daki noraiño iritxi zekizkiguken Alemani'ko erregekeriaren ondoriak febronikeria Frantzi'ko Iraultzarekin batera ezereztu ez balitz.

Febronio bera ere, badirudi zalantzan ibilli zala luzaro; baiña, azkenean, aitortu zituan bere erruak, eta pakean il zan Ama Elizaren aitzo gozoan.

JOSEPEKERIA

Inglannderrian VIII Enrike'rekin zismaraiño iritxi zitzaigun erregekeriari, "galicanisme" esan zitzaion Frantzi'n, "regalismo" Españietan, "Febronianismus" Alemani'n eta "Josephinismus" Austri'ko Aubsburgetarren lurretan, II Jose Inperatorearen izena artu bait zuan, an, Elizaren gaitz orrek.

Ez zan ala're Jose II'a izan gaitz ura Inperio'ko Elizari erantsi ziona. Erregekerizale aundia izan zan Mari Terese Inperatemea ere, II Jose'ren ama. Eta emakumezko arrigarri aren aurretik, "s'inspirant de l'exemple du réganisme en vigueur en Espagne", "Españi'n lege zan erregekeria eredutzat artuta", saiatu ziran Elizako gauzetan eskua sartzen beste Inperatore batzuk ere. (Dic. de Geog. et Hist. Eccl')

Mari Terese'ren agintaritzakoan ordea, NazioEliz bat egin nai izan zan, Eliz iarea, Aitasantuaren aginte nagusiaren menpean jarraitzekoa, baiña, autonomi edo bereburujabetza aundiz eta sendoz jantzia.

Ez uste, Mari Terese Eliza ondatu naiean zebillenik' Ez, iñolaz ere. Emakume kristau fede irmokoa zart bera, txit eraspentsua eta arras otoitz-zalea, Santu guztien miresle eta maitale adoretua. "Otoitzak eta elizkizunak ez omen zitzaizkion beiñere berak nai bezain luzeak gertatzen": "les offices et même les prieres n'etaient pas jamais trop longs à son gré" (Ibdm). Barok-erako Kristauaren eredu portitza izan genduan Mari Terese Inperatoremea.

Erregekeriaren giroan izan bait zan ezia, ziur uste izan zuan Eliza bizkortzen ari zala, bere erregekeri nabarmenezko legeen bitartez. Alatagutziz, batere kontzientzizko kezkarik gabe erabilli oi zituan politikarako Elizari kendutako aberastasunak, kontzientzi biziko Andre bizkor arek. Bere seme Jose'k ez du sekulan orrelako gauzarik egingo.

"Le despotisme illustré" edo "bakaragintze argitua" eta erregekeria bata besteari loturik daude, uztarri bateko bi idien antzera. Despotikeri Argituaren pentsakeran, Erregeak Laterri osoaren eta Laterri barruan egon leikean guztiaren Agintari Nagusi Bakarra izan bear du: Laterri osoaren Buru; areago oraindik: Laterri guzia da bera. Oroi Bosuet'en erakuspena: "Laterri osoa Printzipeagan dago".

Beraz gorputzak bere bizia buruagandik artzen duan bezala, Erregeagandik artu bear ditu Laterriak ere Laterri lez bizitzeko bear dituan lege, agindu, aolku eta arau guztiak. Errege bat, Laterri bat, Eliz bat. Errege bakar orren menpean, ez daiteke Laterri bat besterik izan' (Ortik, Argikuntzaren zentralismoa, Frantzi'ko Iraultzak osotasunera eraman zuana; Argikuntzaren gaillurra izan bait zan Frantzi'ko Iraultza). Laterri bakar ortan bat bakarra izan bear du naitanaiez Elizak ere' Erregeak bezala pentsatu bear dute Laterri bakar ortako laterkide danek, Erregearen Elizak izan bear du laterkide guztien Eliza. Orra non aurkitzen dugun, Argikuntza-aroko Errege arroputz aien intransijentzi edo "besteren abururik jasan-eziñaren" erroa.

Oldozkera ortan azia eta ezia izan zalako ibilli zan gero ain era gogorean gure Mari Terese, judutarren eta protestalarien aurka.

Frantzi'ko XiV Koldobika'ren "dragonades" edo "dragoikeri" aiek erabilliaz ezereztu zuan Karinti eta Estiri'ko protestalaritza; baionetan bidez eraman oi zuan ereje iruditzen zitzaion jendea igandeko mezara, eta pazkoazkoa betetzera; eta Morabi'n, umeak kendu zizkien protestalariei!.

Batera biguiña eta gogorra, goxoa eta zorrotza, ezta ta latza, ez zan Mari Terese nolanaiko emakumea izan. Biotz aundiko eta buru azkarreko agintaria, bera omen dugu "après Charles Quint la plus énergique figure des Habsbourgs d'Autriche", "V Karlos'en ondorean Austri'ko Absburgetarretan tankera bizkorreneko pertsona" (Ibdm)'

Ez zan ama bezalakoa irten semea. Mari Terese jendearentzat atsegiña ta biotz-bera zan bezala, izua ta goibela izan bait zan Jose II'a. Kristaua bai, naiz ereje eta judutarrekin esku-zabala, ama bezain Kristaua izan zan semea, "devout and practising catholic, and hoped to bring about a renewal of faith", "benetako katoliko eraspentsua, bere inguruan sinismena bizkortu nai izan zuana" (F. Walter). Eta lortu ere lortu zuan neurri ederrean asmo ori egi biurtzea.

Il Jose'ren guraria bere inperio-lur naasien batasuna izan zan. Bezez izan zan Argikuntza, Laterrien batasunaren zalea; Errege bat, Laterri bat, Efiz bat. Erregea bat dan bezala, bat izan bear du Laterriak, eta bat izan bear du Elizak ere.

Erregeak, Laterri guzian agindu bear du; eta Laterriko gauza guztietan. Laterriak ez dezake Erregearena beste oldozkerarik izan eta Erregeak bezala pentsatu bear dute laterkideek ere. Dakusazunez, totalismoaren iturburu izan zitzaigun Argikuntza.

Laterriaren oldozkera eta Erregearena bat bera izan bear duten

ezkero, Erregeak gurtzen duan bezala gurtu bear dute Jainkoa laterki-
de guztiek; edo, berdin dana, Laterrian ez daiteke Eliz bat besterik
izan: Erregearen Eliza. Ontan, Argikuntza, XVI mendeko protestalari-
tzaren ondorio izan genduan, protestalariak lege egindako "cujus re-
gio" uraxe artu bait zuan erlijio gaietan arautzat.

Teori utsaren mailietatik jexita ere, bazuan li Jose'k bere inpe-
rio-lurretan batasuna egin nai izateko arrazoirik aski, enda ezberdin
askok osatzen bait zuten lurralde ura; bereak zituan bâ II Jose'k
Itali'ren Iparraldea, Belx ka, Boemi-Morabi-Eslobaki, Kroazi, Ungari,
Eslaboni, Bukobina, Galazi, eta Austri bera.

Batasuna egiten asteko, doixkera, ots, alemaniera, ipiñi nai izan
zuan —Itali'n eta flanderaz mintzatzen zan Belxika'n izan ezik—, bere
inperiolar osoaren izkuntza bakarra' Alperrik, aurka irten bait zitzaiz-
kion eslabitarrak eta magiarrak.

Batasunaren billa, lege egokiak eman zituan politikariburuz eta
ekonomiariburuz; ta, ia-ia, errialde zabal aietako jendeentzat legea-
ren aurreko danen-batasuna ere lortu zuan!

Argikuntzaren irakatsia mami biurtuaz, debekatu zuan joputza
edo esklabutza. Debekatu zituan baita're, eriotzako zigorra, zigorketa
basati guztiak, eta epai-ikerketan oiñazearen erabilketa.

Batasuna'ren billa sartu zan Elizaren jaurketa edo gobernaketan
ere' Bere amak, Mari Terese'k, Argikuntzako "Errege bat Laterri bat
Eliz bat" aldarrikatzen zuan araua jarraituaz, Eliza Katolikoa ez beste
Eliz eta gurdeta-bide guztiak eragozi zituan. Agirian beintzat, ez zez-
kean iñork Jainkorik gurtu katolik-erara ez ba'zan'

Askatasun zaleagoa izan zan Jose, eta 1781'ko "Toleranzpatent"
edo Baiespen-Legearen bidez, protestalariak eta judutarrei, itzuli zien
Mari Terese'k kendutako askatasuna, baiña ez askatasun osoa: judu-
tarrei ez bait zien sinagoga berririk egiteko eskubiderik eman, ezta
protestalariak ezkillak jo aal izatekorik ere. Protestalaritzak gaiñera,
erri batean "toleranzpatent" artaz baliatzeko, eun sendi protestalari
izan bear zituan gutxienez erri artan.

Orrela, katoliko ez ziraneai emandako askatasun arek, ez zion
"Errege bateko Laterri batean Eliz bat" eskatzen zuan Argikuntzako
arau arri kementasunik aultzen' Baiña, aitor dezagun egia: beste gau-
za guztien gaindik, Éliza katolikoaren bizkortasuna billatzen zuan Jo-
se il'ak bere eliz-lege guztien bidez.

Ta ez ziran, egiaz, lege aiek urriak izan!; Mari Terese'k 1770'ean
eratutako "Eliz-Auzietarako Bazkunak" isei milla lege! eman bait zi-

tuan Jose II'aren erregetzan. Ondotxo irabazia du beraz onek edestiak eman oi dion izena: "Errege Sakristaua".

Lege-pillo ugari ortan agindurik garrantzitsuenak auek izan genituan:

Apaizgaiak apaizgorako nola ezi agintzen zutenak;

Seminarioetako irakasleak Laterriak aukeratu eta izendatuak izan bear zutela erabakitzen zuana.

Era berean, seminarioetako ikas-liburuak ere Laterriaren ardurapean ipintzun zituana. Laterriak seminarioei artuarazi zizkien ikas-liburuaren artean, bat baiño geiago Erroma'ko "Liburu Debekatuen Zerrendakoak" ziran; adibidez Arnauld, Quesnel, Van Espen, Febronio eta Opstraet'en liburuak'

Sartu zan lekaide-lekaimeekin ere Jose II'a, eta erlijioso guztiei galerazi zien atzerrian bizi ziran Aita Nagusi eta gaiñerako agintariekin arremantetan ibiltzea' Inperiolurretako praille eta monja guztiek Inperio-barruan euki bear zituzten beren agintari guztiak.

Ezabatu zituan "alperrikakoak" ziran komentu danak. Lege onen ondorioz, ezerezturik gelditu ziran Inperio-lurretan kartuxatarrak, karmaldulatarrak eta karmeldarrak, bai gizonekoak bai emakumezkoak; eta baita klaretarrak ere. Lekaidetxe eta lekaimetxe asko galdu zituzten berriz beneditarrek, premostratarrek, Donagustin'en kanonigoek; praille-monja auen etxeetatik, adibidez gaixo-zainketan edo ume-eziketan, "eginkizun onuratsu" edo "occupatio utilis" zuten etxe aiei bakarrik eman bait zitzairen bizirik jarraitu aar izateko baimena.

Ezereztutako lekaide-lekaimetxe aietako ondasunen diruarekin "Erljio-Kutxa" eratu zuan ii Jose'k eta diru ortatik ez zun txanpon bat ere politikarako, gudarozterako, edo bere onturrerako erabilli' Ontan MariTerese bere ama baiño Katoliko zintzoagoa izan zan.

Parroki berriak sortu eta eraiki zituan, apaizei sari egokia, len zutena baiño askoz egokiagoa eta beteagoa ipiñiaz. Eginkizun antan txautu zituan, ii Jose'k, "ErljioKutxeko" diru guztiak.

Apaizen eta Gotzaien saria, elizen mantenua, seminarieon gastu guzia eta erlijioaren bizitzak bearrezkoa izan zezakean diru guztia, Laterriaren kontura ipiñ zuan oso-osoa.

Ain zuzen seminarioen arazoak eman zion Ii Jose'ri buruko miñik garratzena' Lengo "elizbarruti-seminario-kontziliarrak" ezereztuta lau seminario nagusi eta zortzi seminario txiki eratu zituan. Tirol'en asarrealdi batzuk izan ezik, ez zuan, Belxika'z landa, iñun eragozpenik aurkitu' Bai ordea Belxika'n, eta gogorra gaiñera, emen erri guztia jeiki zan bâ, ia-ia iaretasun osora'iristeraiño, Inperatorearen aurka.

Leen ere 150 komentu ezeztatu bait zituan Belxika'n Ii Jose'ren "erreforma" edo berrikuntzak, aski urduri zegoan an jendea, eta zearo sumindu zan apaizgaitegien eraketaren barri jakin zuanean'

Orduango Belxika'n bi apaizgaitegi ipintzen zituan Inperatoreak: Lobaina'n nagusia, Luxenburg'en txikia, lengo apaiztegi guztiak itxiaz.

Belxika'n ere isilik artu zuten Gotzaiek II Jose'ren agindu au. Namur'koak bakarrik izan zuan bere ezezkoa emateko kemenik aski. Eta, ala, irureun ikaslekerin asi zuan bere lana Lobaina'ko apaizgaitegiak.

Apaizgaiak ordea eta Belxika'ko erria, ez gotzaiek bezalakoak izakita--., laister piztu zan matxinada. Mindurik bait zegoan, gaiñera, aspaldidanik belxikatarren abertzaletasuna. Inperatoreek ez zioten bā Beeko Lurraldeetako nortasunari bearrezkoa zan lotsarik agertzen. Ala, MariTerese'k berak ere austritar bat, Jon-Enrike•Fernad Frankenberg'eko Kontea, egin zuan Malinas'ko Goigotzai eta Lurralde Beekoetako "Primatus" edo "Lenengo". Aitasantuak berriz, —maizegi egon oi bait da zori txarrez Eliza errien naiari baiño agintarien naikeriari adikorrage—, bereala jaso zuan kardenaltzara Konte Goigotzai ura.

Iriki zuan, esan dugunez, Lobaina'ko apaizgaitegiak atea, baiña aurreneko asteetatik asi ziran ango irureun ikasle aiek beren asarrea adierazten, eta laister, asarre ori, egiazko matxinada biurtu zan.

Irakasle febronikerizale guztiak seminario artatik berealaxe bidaltzea, eskatzen zuten apaizgaiek. Izan zuan Konte Goigotzai Kardenalak, ikasle aien eskaria ontzat artzeko zugurtasunik eta kemenik aski, eta eskari arri arrera on egiteko aolkua eman zion Biena'ko Jaurlaritzari.

Wenzel Von Kaunitz-Rielberg zan Jaurlaritza aren Kantziller edo Lendakari. Eta Kaunitz au MariTerese'rekin eta II Jose'rekin izan bait zan Kantziller, ez da erreza, josepekeriaren legedi ugarian, zer zeñena dan jakitea.

Oraingo ontan ez zion Kaunitz'ek (edo II Jose'k) Malinas'ko Konte Goigotzai Kardenalari jaramonik egin, eta matxinada bizian jarraitu zuten apaizgaiek, ate, mai, leio, eta etxeko gaiñerako tresnak porrokatuaz.

Ixuri zan kalera apaizgaien asarrea, eta asi zan erria ere austritarren aurka naasitzen; Bost illabete baiño lenago, 1787'ko Jorraillean, Brabante osoa zutik zegoan, Lobaina'ko Seminarioa itxi, eta Brabanteko polikan Lege Zarrak kontuan artzeko, eskatuaz.

Mari Kristiñe Jose II'aren arreba eta aren senarra, Saxoni'tar Aiberto, ziran Belxika'ko Jaurle, eta Brabante'ko Probintzian batez ere, sutan zegoan matxinada baretzeko, baiezkoa erantzun zieten erriaren eskariei. Baiñan bi Jaurle aien baiezkoa Jose II'aren ezekoak ezabatu bait zuan.', aurrera jarraitu zuten Belxika'n matxinadek.

Urrengo urtean ere, 1788'an, iriki zituan ostera Lobaina'ko seminarioak ateak' Alperrik ordea, Belxika osoak uko egin ziolako ikaslerik gabe gelditu bait zan'

Urte ortan, indarkeriaren bidez, lortu aal izan zuan Il Jose'k erriaren zanpaketa. Ez ordea luzarorako, urrengo urtean, 1789'an, lertu bait zan Frantzi'n Iraultza Nagusia, eta Belxika osoa Iraultza aren zurrunbilloan naasirik aurkitu bait zan.

Danadala, Belxika'n josepekeriaren auziari dagokionez, garaille irten ziran Lobaina'ko apaizgaiak eta Belxika'ko erria.

Bost urte geroago il zan, 1794'ean, Jose li'a, birietako gaitzak jota. Bere anaiak, Leopold i'ak, artu zuan inperiotza, eta len-bait-len pakeak egin naiez, itxi zuan Lobaina'ko seminario istillugarri ura, eta iriki zituan lengo elizbarrutietako seminario kontziliarrak- Ez noski Toskani'ko Eliza Pistoia'ko Sinodoaren bitartez ainbeste lardaskatu zuan Il Leopold ura erregekeriaren etsai zalako, ez; Belxika'ko erri zintzoari bildur artu ziolako baizik. Ma jarraitu zuan garaille josepekeriak Inperioaren beste lurraldeetan, —agian Metternich'en denboran izan ezik—, Inperioa bera ezereztua izan zan arte.

Oso gogor mintzatu izan dira joan dan mendean edestilari katolikoek Josepekeriaren eta Argikuntza beraren aurka. Gaur arreta geiagorekin aztertzen dira edestiaren zokoak, eta Argikuntza katolikoari, batez ere Alemani'ko "Aufklarung" katolikoari, erregekeri berari eta bereiziki Inperio-lurretako josepekeriari begi legunagoekin begiratzen zaie. Aitortzen bait dute edestilari katolikoek:

—Erroma'ko kuriaren "guztian-agindu-naia" edo absolutismoa, geiegizkoa izan zala;

—Elizaren Jaurlaritza, "ezer-aldatu-naiezak" gogortutako eta "Elizatik-at-gertatzen-zan-guztiaganako-geiegizko-bildurrak" motei dutako tresna igikaitza bihurturik zegoala.

Ez dugu esan nai erregekerizaleak santuak ziranik eta aien asmoetan politika sarturik ez zegoanik. Baiña bai, aietako askoren asmoa, osa maiz, Elizaren garbikuntza eta donetasuna izan zala' Eta, ori, bereiziki, Mari Terese eta Il Jose'ren lurraldeetan. Esan ere esan bait daiteke, askotan "ez zala erregekeria, eta batez ere josepekeria, politikariaren asmakuntza izan, teologilariena baizik":

"Un mouvement de réforme entrepris dans l'intérêt de l'Eglise et de la religion, auquel la curie romaine n'était prêt ou dont elle était incapable": "Elizaren eta erlijioaren onerako Erroma'ko kuriak egiteko gogorik ez zeukan edo gaitasunik ez zuan eraberritze-igikunde bat", izan zala josepekeria dio L.J. Roger'ek' Teologilariak izan amen ziran "Eliza donetutzeko ekintzari eldu ziotenak, eta ekintza artara Agintariei bultza egin zietenak": "Ce son les theologiens qui ont commencé par déployer leur zèle en faveur d'une vaste rénovation et on su y intéresser les princes et leur conseillers".

"Il Jose'ren lege bakoitzaren atzetik bai omen zegoan teologilari edo kanonlari bat, eta asko izen amen ziran, aien artean, Mari-Terese edo II Jase bera baiño aurrerago joan nai izan zutenak": "Derriere chaque ordonnance josphiste il y a un theologien ou un cannoniste comme inspireur. Nombreux sont les cas où certains theologiens on été trop radicaux non seulement au sentiment de MariThérèse mais même de Joseph II" (Id-)

Ez zan beraz igikunde ura "Elizatik kanpora eta Elizaren etsaiek sortua izan, Elizaren alzoan eta Elizaren semeek asmatua baizik": "Il n'est pas né hors de l'Eglise, mais dans son propre sein; il n'a pas été inventé par ses ennemis mais par ses propres enfants; non par les hommes d'Etat mais par des theologiens" (Id.)

Alare, zuzengabekeri aundiak izan ziran egiñak erregekeriaren giroan' Eta aundienetako bat, Pistoia'ko Sinodoa'

PISTOIA'KO SINODOA

Pistoia, Toskani'ao uri bat dugu Itali'n; Toskani berriz, Birjaiotza-koan Florentzi'ko Errepublikak esaten zitzaion Laterri ber-bera. Eta Toskani'n, ain zuzen, eman zuan josepekeriak bere ziturik lotsagarriena, Toskani, Argikuntza-aroan Inperio-lurretako bat izan bait zan' Ain zuzen, Pistoia'ko Sinodoa edo elizgizon-billera egin zanean, Il Jose Inperalariaren anaia, Leopold Archidukea, II Jose iltzean, bera ere Inperatore, II Leopold, izanen zana, zegoan Toskani'n agintari.

Florentzi'ko Errepublikari "Dukaterri" tituloa V Karlos Inperatoreak eman zion, eta Aitasantu batek, V Pio'k, biurtu zuan Dukaterri ura "Dukaterri Nagusi": "Gran Ducato de Toscana".

Jose bezain erregekerizale irten zitzaigun Leopold ere' Eta, ala bear naitanaiez, Anton Von Martini erregekerizale ezaguna izan bait zuten biak irakasle.

Alatagutziz, Leopold'en asmoak ere, Eliza eraberritzeko bere zaletasunean, ez ziran maiz esan ai dan bezain okerrak; benetan bear bait zuan Toskani'ko Elizak eraberritze egoki bat. Eta ori, bertako elizjende beragandik asita!

Bi aldiz gure Euzkadi baiño aundiagoa ez zan Toskani'ak, iru gaitgotzaigo eta amabost gotzaigo zituan: emezortzi elizbarruti beraz; eta amar milla apaiz, bi milla ta bosteun erlijioso (mezakoak ia danak) berreun da amairu lekaidetxetan, eta zazpi milla ta bosteun monja eun da ogeitamasei lekaimetxetan, ain lur txiki eta ain biztanle gutxirentzat.

Ez Jose'k ez Leopold'ek, —eta, ezta Españi'n Jovellanos'ek ere—, ez zuten prailleenganako zaletasun geiegirik agertu' Ez zitzaien arrazoirik peitzen; geiegi bait ziran orduan erlijiosoak, eta ez noski santuegiak, geienak beintzat. Aia're, Elizako gauzak konpontzea ez zan Inperatoreari, Toskani'ko Duke Nagusiari, edo Españ 'ko Erregeari, zegokion egitekoa, Aitasantuei baizik' Baiña aitortu dezagun ezparirik gabe, Aitasantuek Ere ez zutela orduango Elizaren arazo larri batzuk ikusteko bearrezkoa zan adimen-zorroztasunik agertu; edo, beintzat, ez zuten arazo alek konpontzeko geiegizko saiaketarik egin. Prai

lle eta apaizak ain ugari ziralako, bokaziorik gabeko jende geiegi aurkitzen zan kleriguen artean. Nekazaritza-iurretan aberatsegia zan Eliza eta aberastasun orrek naitanaiez esnaarazten zuan bazter guztietan jendearen kutizia' Bi arazo oien garrantzirik ez zuten Aitasantuek egoki neurtu. Erregekeri zaleek ere dez zituztela bear bezala konpondu? Ez, ziurki. Baiña ez zuten ortarako Elizaren aldetik laguntza aundiegirik izan. Beste erabatera gertatuko ziran gauzak, politika-jendeari aurrea artuaz, Aitasantuek bokaziorik gabeko jendeari apaizgoa eragozten eta konbentu ta elizbarrutietako ondasunak egiaz bearsuen serbitzura ipintzen era egokian saiatu balira.

Ona emen, Leopold Duke Nagusiak bere Dukaterrian eman zitan erregekerizko legirik gordiñenak:

Inkiszioaren epai-maiak kendu zituan;

Eskubide bereizi guztiak kendu zizkien erlijiosoei; baita parroki guztiak ere.

Lau seminario, —Pistoia, Liborno, Aretzo, Pisa,— irikitzeko agindua eman zien Gotzaiei, apaizgaiak, ikasketarako, lekaidetxeetara joan ez zitezen;

Igandero, erriaren Kristau-erakusketan ordu bete egiteko agindu zien apaizei. Ordubete.', , gutxienez; eta igande ta jai-egun guztietan!,

Elizaren jaurkintza edo gobernurako, Araudi bat egin zuan (1786). Gotzaiek ordea muziñ egin zioten 57 ataleko Araudi orri' Bat bakarria izan zan onartu zuana: Pistoia'ko Eszipion Ricci. Ori ikusita, beste amazpi Gotzaiei ere Araudi ura era goxoan aurkezteko izan zan, Duke Nagusiaren ingurukoaren artean, Pistoia'ko Sinodoa pentsatua.

Egin zien, Eszipion Ricci'k, Sinodorako deia bere elizbarrutiko apaizei, eta 234'rekin asi zuan 1786'eko Iraillaren 28'an zorigaiztoko Batzar ura.

Sinodoaren erakusketa eta aginduetan:

—Zerutiko Graziari, salbamenari, eta oitura edo moralari dagozkien gal guztietan, jantsenitarren dotriña da egiazkoa fez aurkeztua.

Galikeriaren lau atal zaratatsu aiek, oso-osoan izan ziran onartuak'

—Ia neurrigabeko eskubideak eman zitzaizkion Duke Nagusiari.

Erlijosoen Anaidi bat bakarria besterik ez zuan izango arrezkeror Pistoia'ko elizbarrutiak, eta Anaidi bakarrak, Port-Royal'eko Araudiaren erara bizi bearke zuan.

Elizan, almena, Jainkoagandik erriarengana, kristau-erriarengana, omen dator zuzenean, eta erriak ematen amen die agintariei.

"Potestas ministerialis" omen da beraz agintarien almena; ots, erriak Elizaren "serbitzurako" ematen dien "almena"

—Demokrazizko giro ortan, jakiña, "mugarik gabea" omen da Gotzaien "almena", Aitasantua, beste gotzai guztiak bezala, Gotzai bat besterik ez dalako: "Caput Ministeriale": Eliz osoaren serbitzura-ko Serbitzari "Nagusia".

—Sinodoak, Idazti Donearen irakurketa eskatzen die Kristauei; eta Idazti Donearen zentzua ulertzeko, Quesnel'en liburuak onenak dirala dio'

—Azkenik, Josu-Biotzaganako eraspenaren aurka, Induljentzien aurka, eta beste eliz-oitura ta lege batzuen aurka mintzatu ondoren, Toskani osoko Nazio-Kontzilio bat egiteko, arren-dagio Duke Nagusiari.

Ez zan Kontziliarik egin; erria erregekeriaren aurkakoa zala ikusten zalako batez ere. Izan ere, asarretuta Ricci Gotzaiaren Jauregira sartu bait zan matxinadan Pistoia'ko erria' Florentzi'ra iges egin zuan, aal izan zuan bezala, Eszipion Ricci'tarrak' Baiña ez zan ikaratu; Florentzi'n ere Ango Goigotzai Anton Martini'ri Aitasantuaren menpetik irtetzeko aolku-ematen asi bait zitzaion! Duke Nagusiaren Ministroa zan Seratti ber-bera ikaratu ieta lotsatu! omen zan Ricci'ren jokaera aiek jakin zituanean.

1794'ean gaitzetsi zituan VI Pio'k Pistoia'ko Sinodoaren erabakiak, "Auctorem Fidei" izeneko buldaren bitartez. Aurretik Eszipion Ricci'rekin itzegin nai izan zuan, baiña onek gaixo zegoala erantzun zion, eta ez zitzaion Erroma'ra etorri. Altagutziz, —eta Pistoia'ko sinodokideen ekintza osoa ain erejikirats zakarrekoa izan—, lau urte luze eraman zituan ikerketa zeatzean Aitsantuak, bere gaitzespen bulda idatzi eta argitara emateko. Beti izan bail zitzaigun VI Pio, gauzak astiro eta patxadaz egitearen maitalea.

Gogor jarraitu zuan Ricci'k gogortasun setatsu artarako bi arrazoi emanaz: Berari ez zitzaiola Aitasantuaren buldarik bidali; eta, Bui da ark ez zuala Toskani'ko Jaurlaritzaren baiezkorik (ortu; alderantziz, aren aldarrikatzea Toskani'n Jaurlaritzak galerazia izan zala' "Placet Regium" edo Aitasantuen agindu eta erakusketak legezkoak izateko Erregeen baietsia bearrezkoa zutelaren iskamilla!

Luzaro kolakan ibilli ondorean, 1805'ean makurtu zuan azkenean burua Eszipion Ricci Gotzai biurriak, eta maiteki artu zuan berriro Elizaren altzora VII Pio'k'

Españi'n ere izan zuan bir-ernetze portitza erregekeri zismakoiak VI Pio il zanean: "Urkixo'ren zisma txikia". Mariano Luis Urkixo'tarra, IV Karlos'en ministroa zan. Orduango politikolari geienak bezala; erregekeri-zalea ere bazan. Ala, 1798'an, mixerikordietxe, kofradi, eta itxura ortako erakunde guztien ondasunak Laterriari eman zizkion lege baten bitartez, eta ondasun aien ordeztu urteroko errenta bat ipiñi zien erakunde aiei danei. Laterriak ordaindu bear zuan errenta. Guztia"., Aitasantuari ezertxo ere esan gabe, jakiña!

Judutarrak ere ostera Españi'ra ekarri nai izan zituan, Españi'ko ekonomia berbiztu zezaten. Ortarako Olanda'ko eta Antseatik-Alkarketeo Urietan lan zegiten judutarren salerosle-etxe batzuekin alkarrizketan asi zan. Ez zebillen, ontan, Urkixo gaizki, judutarrak, batere arrazoirik gabe atzerrira bidaltzearekin Errege Katolikoek eman bait zioten Españi'ko ekonomiari sekulan iñork eman dion ostikorik okerreña eta audiena.

Rio VI'a il zanean, mundu guztiak uste izan zuan urrengo Aitasantuaren autaketak denbora asko eramango zuala. Ori uste izan zuan Españi'ko Jaurlaritzak ere.

Bitarte ortan kristauak sakramenturik gabe gelditu ez zitezten, Gotzaiei Erroma'ra jo gabe "antziñako beren eskubide orokorra" erabiliaz sakramentu guztietarako eragozpen danak, bakoitzak bere elizbarrutian, askatzen asteko agindu zien Urkixo'k.

Soilki, Gotzai berri bat sagaratu-aurretik itzegin bear zuten... ez Erromarekin, ez, Españi'ko Erregearekin baizik. Ona, IV Karlos'er Urkixo'k izenpetuarazi zion erabakia:

"No pudiéndose esperar de las circunstancias actuales de Europa y de las turbulencias que la agitan que la elección de un sucesor en el Pontificado se haga con aquella tranquilidad y paz, tan debidas, ni acaso tan pronto como necesitaria la Iglesia, a fin de que entre tanto mis vasallos de todos los dominios no carezcan de los auxilios precisos de la religión, he resuelto que, hasta que yo les de a conocer el nuevo nombramiento del papa, los arzobispos y obispos usen de toda la plenitud de sus facultades conforme a la antigua disciplina de la Iglesia, para dispensas matrimoniales y de mas que les competen. En los... puntos... de consagración de obispos y arzobispos..' me consultaré la cámara por mana de mi primer secretario de Estado y del despacho" (1799; Iraillak 5).

Agindu orrekin, eskutitz bat bidali zien Urkixo'k Gotzaiei: "Espera Su Majestad que V.S'I. se hará un deber el más propio en adoptar sentencias tan justas y necesarias, y (espera también) que la muerte de

Su Santidad Pio VI no se anuncie en el pùlpito ni en parte alguna sino en los términos expresos de la "**Gaceta**", sin otro aditarnento".

Entzun orain Menendez Pelayo'k agindu oiei egiten dien azpimarraketa: "Lo mas triste no son el decreto y la circular; lo que màs angustia el ànimo y muestra hasta dónde habia llegado la podredunbre, y de cuan hondo abismo vino a sacarnos providencialmente la guerra de la Independencia, son las contestaciones de los obispos"

Ez da zugurra izketa gogor ori' Españikeriak zoraturako gizon batek bakarrik esan dezake "Iaretasunarako Gudua" —"Guerra de la Independencia"— ez baiña anai-arteko, ots, españiar-borboizaleen eta españiar-bonapartezaleen arteko gudu ura "probidentziala" ots, "Jainkoaren doaia" izan zala; ez da ain erreza, gudu ura borboizaleek irabazi izateak España ondamentetik atera ez baiña ondamentean ez ote zuan geiago azpiratu jakitea; ta, azkenik, ozenki aitortuko dugu orduango Gotzai aiek ez zeudela ain usteikerian, —podredumbre—, murgilduak. Erregekerizaleak ziran, ori bai, eta Erregeari aurpegi emateko bear aiñako kemenik gabeak ere bai, bear bada; baiña berdin berdiñak izan ziran gudu artan eta gudu aren ostean VII Fernando'ren mendeko Gotzaiak ere.

Egia da España'n eta Ameriketari IV Karlos'en mendeko Gotzai guztieie ondo iruditu zitzaizela Urkixo'ren jokaera.

Giro ortan, Araba'ko mutil eta neskatik bateri, ezkontzeko baime-na eman zien Kalagurri'ko Gotzaiak, ortarako, ezkontzea galerazten zien eragozpena, Gotzaiak berak, bere-kasa, ezereztuaz. Eta ezkondu ziran euskaldun gazte aiek. Baiña, kristau zindoak izaki-ta, ez ziran, dirudianeaz, oso lasai gelditu' Orrela, iñork uste baiña leenago VII Pio Aitasantu aukeratua izan zanean, Erroma'ra jo zuten bein da berriro, ezkontzarako eragozpenaren askapenaren billa. Eta, bein da berriro, Kalagurri'ko gotzaitegian gelditzen zan euskaldun bikain aien eskaria, Gotzaiak Erroma'ra jo bearrik ez zala esaten zualako; Berak askatu zuan ezkerero, eragozpen ura erabat eta betirako askaturik eta ezabaturik gelditu omen zan bñ!

Dakusazunez, Gotzai ura ez zegoan "usteldua". Ziur uste zuan ark, eta ziur uste zuten inguruko apaizek ere, berak bere almenez ezkontzarako eragozpenak askatu zituan bakoitzean, zintzo eta legez jokatuz zuala'

Auxe da, garai artako politikari eta elizgizonak epaitzerakoan begien aurrean euki bear duguna: Gotzaien eta Aitasantuen almen eta eskubideen mugak ez zeudela orduan oraindik argi marratuak; ez bait zegoan oraindik Aitasantuen utsezintasuna, Kontzilio Ekumeniko

baten erabakien bidez, Sinispideko-Egi edo dogma aldarrikatua. Ori kontuan artzen ez ba'dugu, eta giro artako ekintzak gure gaurko giroko arau ta gogoeten bidez epaitu nai ba'ditugu, bidegabekeri enasetik ibilliko gera, eta okerkeri aundietara jausi gindezke'

VI PIO **(1775-1799)**

Zalaparta aundiko bost illabete iraun zuan Konklabe baten ondo-rean izan zan, Aitasantu aukeratua. Berrogei ta emezortzi urte zituan. Izenez Jon Gotzon Braschi, gizon ederra zan gorputzez, azkarra adimenez, eta atsegiña, txit atsegiña, gizarterako'

Bere aurreko Aitasantuen serbitzura egon zalarik, bazuan politikazko arazoetako oitura; buruz ere onde jantzia bait zegoan artarako. Doktore zan bâ Elizaren legiztian; eta baita Laterriarenean ere.

Elizgizona bezala, akatsik gabeko apaiza izan zan beti; Elizaren maitale zintzoa'

Iñakitarren ikasle izana zan gaztetan; eta beti gorde zien bere biotz-barruan Loiola'koaren semeei esker on leiala. "Mysterium iniquitatis", "gaiztakerizko miraria", esan oi zion Josulagundia ezerezteko Lagundiaren etsaiek erabilli zuten jokaerari.

Gero, Aitasantu izatera iritxi zanean, gogo onez jakiñarazi zien Errusi'n bizirik jarraitzen zuan Josulagundiko iñakitarrei bere onepen osoa bazutela' Esan dugun bezala, naiz Kristaudi osoan Josuren Lagundia ezereztua izan, bizirik jarraitu bait zuan Prusi'n eta Errusi'n, ango agintariek, Lagundia ezerezten zuan Aitasantuaren buldari "beren "placet" edo "lege izateko baimenik" eman ez ziotelako.

VI Pio'ren arazorik mingarriena erregekeria izan zan' Erregekeria!, Kristaudi guziko Laterri guztietan.

Erregekeria Benezi'ko Errepublikan' Berealaxe betirako bere askatasuna galtzera zijoan Errepublika arroxko ura, bere kasa prailleen biziera moldatzen asi bait zan'

Erregekeria Napoles'ko eta Sizili'ko Jaurerrietan' An, Fernando Borboia zan Errege; Napoles'ko IV eta Sizili'ko I'go Fernando. Pio VI'ak, bi Jaurerri aietarako gotzairik ez izendatzearekin erantzun zion. Eta orrela jarraitu zuan luzaro' 1784'ean baziran an 30 elizbarruti gotzairik gabe zeudenak.

Izen onekin edo arekin, Kristaudi guztira zabaldurik zegoan erregekeria' "Regalismo" esaten zitzaion Españi'n eta Portugal'en; Galikeria edo "Galicanisme" Frantzi'n; Febronikeria Alemani'n; Josepe-

keria, Austri'n' itali'ko Laterri txiki guztietan ere, Benezi'ko Errepublikatik Sizili'ko Jaurreira, lotsarik gabe ari zan erregekeria Elizaren soñean atzaparrak sartzen. Kristaudiko Agintari guziak ziran erregekeri zale porrokatuak. Eta beste guztiak baiño geiago, laister Frantzi'ren jabe eginen ziran Iraultzalariak! Eta Napoleon bera!

Orrelako otso bilduragarriei aurpegi emateko gizon egokia ez zan eskierki VI Pio. Ori beintzat esan oi da. Baiña bai ote zan iñor, zurrunbillo artan, egokia izan zitekeanik?

Bere barruan iñakitarren adiskide izan zan Gotzon Brachi Kardenala. Orregaitik eman zioten asieratik beren autarkia Konklabean iñakitarren aldeko kardenalek, eta orregaitik baita're ukatu zioten berea Konklabe artan Errege Borboien ordezkari ziran Kardenalek. Baiña azkenean aukeratu eman bait zioten baiezkoa, zillegi zaigu galde au egin aal izatea: pentsaeraz aldatu ote zan Gotzon Brachi, ala Errege Borboiak atzipetu ote zituan?

Gizon bezala, gizon ona zan Gotzon Brachi. Biotz samurrekoa, tededun sakona, apaiz zintzoa, otoiz-zalea, txiro eta beartsu guztien laguna.

Erroma'ko Errege bezala ez zan okerra izan' Lan aundiak egin zituan nekazaritzaren aide; baita uriak edertzen ere. Aundiegiak!; arlo ontan egindako lanak, diru geiegi urtu bait zuan edertasun utsezko ekintzetan.

Oparo eta aundikiro bizitzearen adiskidea izan zitzaigun; baita sendikerizalea ere, mesede aundiak egin bait zizkien bere senide eta illobei, batez ere bere arreba Jule'ren semeei. Seme auetako bat, Romualdo, Kardenai egin zuan, eta beste bateri, Koldobika'ri, Duke tituloa eman zion' Jainkoari eskerrak elizgizon egokia irten zan Kardenala. Dukea alderantziz, artoa, diruzale porrokatua; inguingarria egin zan bere mailleko jendeen artean, eta aski inguingarri egin zuan osaba Aitasantuaren izena ere.

Bazuan VI Pio'k beste akats bat. Langillea zan, eta bizkorra, baiña baita losintxa-zalea ere' Abegi onez artzen zituan urbiltzen zitzaizkion zurizale ago-goxo guztiak. Oartu zan ortaz jendea, eta asko galdu zuan aide ortatik ere Aitasantuaren izen onak.

la Aitsantu danak bezala, jakintzen eta ertiaren maitalea izan zan. Berak oparo burutu zuan XIV Klemente'k asitako Laterandar "Museo" edo Erakustokia' Txit esku zabalez saiatu zan jakintsuei eta ertilariei laguntzen' Eta baita bere Laterrietako bide eta kamio zarrak konpontzen, berriak irikitzen, itxasertzeko kaiak egokiagotzen, nekazaritzako lurak ugariagotzen.'

Europa'ko uririk ospetsuenetakoa eta ederrenetakoa izan zan aren agintaritzakoan Erroma. Erroma'ra etorri ziran Europa'ko jakintsu eta ertilari asko. "Artisti italiani, (fra cui il Canova), francesi, (fra cui il David), tedeschi, (fra cui il Goethe), davano a Roma un fascino insuperabile, mantra nelle cerimonie il papa, nella sua solennità, s'imponeva ai cattolici e agli eretici. Roma fu meta di viaggi di personalità appartenenti aile più insigni case principesche d'Europa" (Enc' Ital.) Euskeraz: "Ertilari italiarrek (Canova'k adibidez), frantziarrek (Dabide'k, bat aipatzeko) eta alemaniarrek (Goethe'k bereiziki), berdingabeko dizdira ematen zioten Erroma'ri' Elizkizunetan berriz, Aitasantua, edertasun oparoan, arrigarria agertzen zan katolikoentzat ez ezik baita erejeentzat ere. Europa'ko printzipe-sendiko jendeentzat gauza aundia izan zan orduan, Erroma'ra etorri aal izatea".

Alare, ez zan egokia, naiz Aitasantuaren borondatea zuzena izan, Elizaren Laterrietako ekonomiaren erabilketa": "L'amministrazione statale, nonostante le buoni intenzioni di papa Pio VI, non fu buona". (Enc' Ital.)'

Aitasantu bezala, oartu zan munduaren gaitza zertan zegoan; ala salatu zituan bere aurreneko entziklikan Sinismenaren galera eta Jaurlariek Elizari ipintzen zizkioten eragozpenak' Baiña mundu aren erasoei erantzuteko VI Pio'k ez zuan bearrezkoa zan animeko giartasunik. Baiñan orduan ori bazuanik bai ote, iñor, Kristaudiaren zabale-
ra guztian?

Il Jose Inperatorearen erregekeria, —josepekeria—, aztertu dugu, eta laister aztertuko dugu Frantzi'ko iraultzalariena ere. Baita're mintzatu gera Pio'k Biena'ra egin zuan ibillandiaz' Il Jose'k, bere Go-tzaiei, Erroma'ri ezetarako baimenik ez eskatzeko agindu zienean jarri zan Aitasantua Biena'rako bidean' Agian bere itxura ederraz baliaturik Inperatoreagandik zerbait lortuko zuala uste izan zuan. "Le fameux voyage de Vienne en 1782 provenait sûrement en partie de l'espoir que son imposante présence suffirait à le faire réusir sur l'austere Joseph II; il produisit l'effet contraire" (L'J. Rogier)' "Il Jose zorrotza bereganatzeko naikoa izango zuala bere itxura ederra, uste izan zuan Aitasantuak; eta orregaitik egin zuan seguruaski 1782'an Bienara'ko ibillaldi ospetsu ura. Izatez ordea kontrako ondoriak izan zituan ibillaldi ark".

Bide luzean lagundu zion, itzultzerakoan, Inperatoreak; Maria-brum izeneko lekaidetxeraiño. Ta Aitasantua, Inperatoreari agur egin-da, andik Erroma'runtz abiatu zanean, bost ordu geroago lekaidetxe ura itxi zuan Inperatoreak, eta Laterriari eman lekaidetxe aren onta-

sun eta aberastasun guztiak. Oroi dezagun, ala ere, lekaidetxe ta konbentuei kendutako aberastasun guztiak Inperioko Elizaren eta elizjendearen bearkizunetan erabili zituala beti. Ez, beñere, politikarako edo bere pertsonaren onturrerako.

Alatagutziz, Aitasantuaren baimenik gabe egiten bait zituan eliz-ondasunen arrapaketa aiek, Erroma'ra iritxi bezain laister egin zion VI Pio'k osteketa edo protesta bizkorra'

Laister, ordea, —Itali'ko Iparraren zati aundi zabal bat berea bait zuan—, Aitasantuari ezer esan gabe, bere-kasa izendatu zuan II Jose'k Milan'go Goigotzaia' Asarretu zitzaion benetan Pio VIa eta orduangoa dala dirudi, egin zion eskomikapenazko zemaia, amenaza. Ez bait zan gure Aitasantu au, edestilari batzuek uste bezain mottela!

1783'ko Urrillaren 3'an, Erroma'n agertu zan, iñork uste gabe, Jose II Inperatorea. Etorrera ura, itzulpena omen zuan; Aitasantuak Bi-na'ra egin zion ikustaldiaren itzulpena' "Azara, españiar diplomazilariari, Germani'ko Eliza osoro Erroma'gandik bereizteko asmotan zebillela esan zion, eta Azara'k kendu urrats galgarri ori egiteko asmoa burutik": "Made known to the spanish diplomat Azara his project of separating the German church entirely from Rome. The latter however dissuaded him from taking this fatal step" (Enc. Cat')

Ori, ez da egia. II Jose ez zan Inghlanderriko VII Enrike'ren antzeko gizona. Bene-benetan kristaua zan; Elizaren seme zintzoa' Erregerian ain sarturik ibilli ba'zan, asmorik zuzenenarekin ibilli zan beti, eta berekin izan zituan, bere alde, inperiolurretako Gotzairik eta elizgizonik geien-geienak. Esan daiteke berekin zuala Inperio'ko Eliz osoa!

Azara, Españi'ko IV Karlos'en enbaxadaria zan Erroma'n. "Argitua", aski "librepenseur" edo "oldozkera iareko" gizona, baiña kristaua bera ere bere biotzaren barruan. VI Pio'k asko maite izan zuan eta arri eman zion bere ordezkaritza, Erroma'runtz zetorren Napoleon, diplomaziaren bidez geldiarazteko.

Esan dugunez, bereak zituan II Jose'k Milan'go dukaterria eta Mantua'koa. 1784'ean, konkordato baten bitartez, bi dukaterri oietan gotzaiak aukeratu aal izateko eskubidea eman zion gure Pio'k.

Pio VI'ak irasi zuan Laterri Alkartuetako lenen elizbarrutia: Baltimore'koa; 1789'an.

Albiste onak iritxi zitzaizkion Portugal'etik ere, Erregiñ berria, Mari I'goa, Elizaren alaba zintzo lez, bereala asi bait zan, Pombal espetxeratuta, onek egindako Zanak zuzentzen: lan okerrak; onak ere as-

ko egin bait zituan politikari azkar arek. Batez ere, ain iñakitarren adiskide zan Aitasatuari poz aundia eman zion Mari l'ak Pombal'ek espetxera jaurtitako iñakitarrei askatasuna eman ziela jakiteak.

Baiña, atsegin labur oien artean, miñ emanaz jarraitu zion nun-nai erregakeriak.

Alemanin Inperioko iru Goigotzai-Printzipe Autalariak, —Mayentza'koa, Treberis'koa eta Koloni'koa—, Ems'en bildu ziran Batzar batean, Aitasantuaren almena aal zuten guztia moztu naiean'

Okerragoa izan zan Frantzi'ko Iraultzalarien erregekeria; an, Batzar Kostituziogilleko diputaduek, II Jose'ren bidetik aurrera joaz, gaillur-gaillurreraño igo bait zuten galikeri zaarra'

Laister ikusi aal izango dugun lez, Batzar artako diputadu alek ere, ia dan-danak, Kristauak ziran, eta ez zebiltzan asmo txarrez Frantzi'ko Eliza beren-kasa jaurtzen, gobernatzan, asi ziran. Soilki, galikerizaleak ziran beren aurreko Borboien antzera. Baiña neurri oroz kanpora zabaldu zuten zoritxarreko galikeri zaar ura!

Zer egin bear zuan orduan, erregekeriaren ugaldean murgildurik, Erroma'ko Aitasantuak? Amore eman?, Gogor erantzun? Eskomikapenez eraso? Konponketen billa salatu?

II Jose'rekin biguiñegia izan zala jaurti oi diote aurpegira Pio VI'ari edestilari batzuek. Beste batzuek berriz, iraultzalariekin izan zala biguiñegia, diote, asiera-asieratik gaitzetsi ez zitualako. Eta badira, —ez gutxi gaiñera—, biguiñegia ez baiño, iraultzalariekin, gogorregia izan zala esaten dutenak; eta aburu ontakoak gera gu ere, Frantzi'ko Iraultzaz mintzatzen geranean ikusiko duzun lez; baiña badira beste edestilari batzuk, onak gaiñera, Aitasantuak iraultzalariei amore ematea alper-alperrikako gauza izango zala diotenak, eta baita gauzak okerrago ipiñiko zituala uste dutenak ere.

Ez zan noski orduan erreza, zer egin bear zan jakitea!

Ez dakigu zer egingo zuten II Jose Inperatoreak, eta beste Errege "regalista" edo erregekerizale aiek danak, Pio VI'ak aurpegi gogor eman balle. Ez dakigu ausiko zituzten Elizarekin zituzten lokarriak.

Eta, Frantzi'ko iraultzalariek? II Jose eta lengo Errege Borboiak baiño aurrerago joan ziran erregekeriaren bidetik Frantzi'ko iraultzalariek, batez ere gotzaien izendaketari zegokion arloan. Alatagutziz, baziran Frantzi'ko kostituzioan, Aitasantuak onartu zezazkean gauzak, eta gotzaien izendaketariburuzko atalak berak ere aurki zezakean, artara jarri ezkerro, nola zuzendua. Aitasantuak, ordea, ez zuari amorerik eman, eta Elizarekingo lokarri guztiak urratu zituzten Frantzi'ko irau

tzalariek' Ondo jokatu zuan gure VI Pio'k? Jainkoak daki.

Orain, gauzak atzetik ikusita, badirudi amore ematearekin, asma-tu egingo zuala, bearbada. Baiña edozeiñek asmatzen du zozketan ga-raille irten dan zenbakia, zozketa egiña izanaz gero. Aurretik asma-tzea izaten da kinka zailla eta larria. Orduan, ez zuala amorerik eman bear uste izan zuan Pio VI'ak; are geiago, ezin zezakeala amorerik eman, eta bere kontzientziko uste orren araura eratu zuan bere jokae-ra.

—Ziur uste izan zuan VI Pio'k Frantzi'n ez zuala Iraultzak bizitza luzerik izango. Ala uste zuan Europa'n jenderik geienak ere. Ez da arritzekoa: Iraultzaren aurka alkaturik altxa bail ziran gudara Europa'ko Errege guztiak! eta Frantzi'n bertan ere, Iraultzaren aurka bait zeuden erregezale guztiak!

Alatagutziz, Frantzi'ko iraultzalariek, galikeriaren bidetik, Elizari-buruz eman zituzten lege guztien aurka ezertxo esan gabe egon zan luzaroan Vi Pio, diplomaziaren bidez lege aiek aldatu ala gozatu ze-zazkealaren ustean-edo' Baiña iraultzalariek ez zioten eskurik luzatu. Ez zuten orrelakorik pentsatu... eta'. pentsatu ere... ez zezaketen orre-lakorik pentsatu! Galikerizaleak ziran; Galikeriaren araura, Frantzi'ko Eliza Frantzi'n bertan izan bear zuan gobernatua. Len, Frantzi'ko Erre-gea zan Frantzi'ko Elizaren zaintzaillea. Orain Frantzi'ko erriaren es-kuetara igaro ziran lengo Erregean aalmen guztiak, eta Frantzi'ko erriaren ordezkari bezala, berak, Batzar Kostituziogilleko diputaduek, zaindu eta gobernatu bear zuten Frantzi'ko Eliza.

Aitasantuaren barrutia, dogma edo sinispideko egien barrutia zan, eta ez ziran barruti ortara sartu.

—Pio VI'a, bere gogoz eta bere izaeraz, Frantzi'ko Iraultzaren etsaia zan; eta baita onturre edo interesen eragiñez ere, Españi'ko IV Karlos edo Frantzi'ko XVI Koldobika bezala. Errege bait zan bera ere! Erroma'ko Errege!

Eta ez bait zan tontoa.... ikusten zuan, luzarora, Iraultza erregeak ezereztera eta bazter guztietan Errepublikaz ezartzera zijoala. Berak, berriz, bere erregetza Jainkoaren doaia zuala uste zuan; Eliza era ego kian zaintzeko Jainkoak bereiziki emana. Beste orduango elizgizon guztiak bezala oso-osoan sinisturik zegoan, bâ, Aitasantuak Errege izatea bear-bearreko gauza zuala, Eliza askatasunean gobernatzeko.

—Ikusten zuan beste zerbait ere Aitasantuak: Iraultza, errijen-dea Agintarien aurka urduritzera zetorrela. Ez al zan orixe bera naikoa Itali'ren gerrialdeko lurretan Errege zan Aitasantua Iraultzaren aurka

jartzeko? Ikaratu zan Vi Pio, ikaratu ziran kuriatarrak ere; eta bazuten zertaz ikaratu:

Elizaren Laterrietan aso gaizki zebillen aspalditik ekonomia. Vi Pio'k, eta baita aurreko Aitasantuek ere, okerrak konpontzeko egin zuten saiaketa bat baiño geiago, ez zuten ordea ezer aundirik lortu-ta, asarre zebillen jendea. Sortu ziran ordurako Laterri aietan iskamillak eta zalapartak; eta matxinoei erantzuteko Inkisiziora jo zuan Aitasantuaren jaurlaritzak; Inkisizioaren bidez gorde nai izan zuan pake!

Inkisizioaren ustez, berriz, masoiak ziran Erroma'n iraultzalari bezala agertzen ziran frantzitar guztiak, eta, baita, aien adiskide italiarrak ere; ta espetxera jaurti zituan danak. Neurri oiek ordea geiago ur duritu zuten jendea'

Jaurlaritzak, zer gerta ere, 1790'ean, iñauteriak galerazi zituan. Asarretu zan zearo Erroma'ko jendea, aiek bait ziran geienik maite zituan jaiak, eta len baiño gogorragoa jeiki zan matxinada, eta arrisku-garriagoak izan ziran zalapartak.

Gogor erantzun zuan Aitasantuaren ertzaindiak. Bai Erroma'n bai Laterri aietako beste urietan asko izan ziran espetxeratuak. Ausi zituan neurriak erriaren asarreak, eta uri askotan indarrez sartu ziran jendeak espetxeetara an baiturik zuedenak askatzera.

1791'an, Frantzi'ko Agintari berriek Frantzi'ko parrokoiei "La Constitution Civile du Clergé" zin egiñaz ontzat artzeko eskatu zieten etsi zuan Vi Pio'k; eta diplomaziaren bidetik ezer lortzerik izango ez zualaren ustean, orduan gaitzetsi zituan Frantzi'ko Iraultza eta Iraultzariak eraturako Kostituzio berri ura; ots, "la Constitution Civile du Clergé".

Zakarra izan zan Frantzi'ko Iraultzalarien erantzuna:

Erroma'rekin diplomazizko arreman guztiak urratu zituzten.

Elizari Frantzi'n zituan bi Laterriak, ---Abiñon eta Benesiari Konterria— kendu zizkioten.

Vi Pio'k orduan, Europa'ko Erregeei idatzi zien, eta gutun artan, "Frantzi iraultzalearengandik Aitasantua babesteko eta Elizari Irauitzak kendutako bi Laterriak biurtzeko, Alkarte bat egin zezatela" eskatzen zien' Errusi'ko II Kataliñ'eri geiago ere eskatu zion: Errusi'ko itsas-gudu-ontzidia Itali'ra bidaltzeko, alegia. Errusi'ren indarra nai zuan urbil, ikusten bait zuan etorkizuna, eta itxaro bait zuan arrezkero frantziarren eraso.

Urrengo urtean gaixo jausi zan, eta iltzear egon zan, gure Aitasantua. Sendatu zan; baiña ez zaigu gerontzean ordurarte bezalako gi

zon bikaina eta nekaezina izango. Egia baita, "jainkozalea izateaz gainera, eskuzabal biotzbera eta aldi berean errege-aulkirako txit egokia" izan zala gure VI Pio' "Un Pontife pieux et charitable en meme temps qu'un souverain digne du Irone" (Grand Larousse).

1795'ean Frantzi'ko muga guztietan garaille ziran Konbentzioaren gudarozteak. Errenditu zan Prusi eta eman zizkion Frantzi'ri Rin Ibaiaren onuntzko lur guztiak. Pozik zegoan Espaini ere, bere burua zearo galdurik ikusi ondorean konbentziotarrekin pakeak egin zitualako' Eta orduan, Espaini'ko IV Karlos izan zan, Aitasantua Frantzi'rekingo adiskidetasunera eraman nai izan zuana' Uste bait zuan orrela Frantzi'n Elizarentzat giro goxoagoa edatu aal izango zuala, eta baita Eliz-Laterrien askatasuna salbatuko zuala ere.

Laburra izan zan VI Pio'rengandik jaso zuen erantzuna: "Non Possumus": "Ez zaigu zillegi" Laburra, bai noski, baiña sendoa, erantzuna!; Aifasantuaren gizontasunaren adigarria, argi erakusten bait dugu, bere ustez amore eman-aal-izatearen mugara iritxi ezkeru, aundik aurrera pausorik ez emateko kementasunik askiren jabe bazala gure Pio VI'a.

Urrengo urtean, 1796'ean, sartu zan Napoleon Bonaparte, Iraultzaren gudarozte indartsuen buruzagi, Milan'go urian' Ikaratu zan Aitasantua, eta Azara Espaini'ren enbaxadaria bidali zion, Bonaparte'ri, ordezkari lez pakezko alkarrizketei asiera emateko.

Aski sinismen atzeko gizona zan Azara. Eta batere sinismenik gabekoa berriz Bonaparte' Altagutziz Aitasantuaren alde ari izan zitzaizkigun mintzatzen bi "libre-penseurs" edo "oldozkeraiareko" giza-seme aiek Boloni'ko urian. Azara'rena ez da arritzekoa, Aitasantuaren ordezkari bait zan mintzaketa aietan. Baiña Bonaparte? Ordurako artua zuan Iraultzalarien partetik Aitasantuen erreiñua desegiteko agindua! Zerk bultzata asi ote zan Azara'rekin alkarrizketan? Agian geroagoko inperiotza ordurako amesten zualako eta Inperatore lez Elizarekingo adiskidetasuna bearrezkoa izango zuala aurre-ikusten zualako sartu ote zan solasaldi aietan?

Danadala, ez zuan Bonaparte'k, eman zitzaion agindua beteaz, Aitasantuen erregetzarik orduan desegin. Are gutxiago desegin zuan erlijioa, bere inguruko jakobindarrek eskatzen zioten modura. Alderantziz, eraspen aundiz artu zituan mendean zeuzkan Itali'ren iparraldeko elizgizon eta eliz-arazo guztiak. Eta, VI Pio'rekin, gudarte edo armistizio bat izenpetu zuan, une artan Frantzi'n agintari zan Direktori oaren aginduari jaramonik egin gabe.

Ez zan, ez noski, utsaren truke egiña izan Bonaparte'ren eta VI Pio'ren arteko gudarte ura' 21 milloi franko kendu zizkion Bonaparte'k Aitasantuari, eta, gaiñera, epe jakiñean (erabateko pakea lortzeko) Direktorioarekin izketan astera beartu zuan'

Ez da gauza erreza, Bonaparte'k zerabilzkian asmoak igartzea. Aide batetik, berak salbatu zion Aitasantuari errege izaten jarraitu aal izatea. Baiña besterik, Azara'rekin, —eta baita Aitasantuaren beste ordezkari batzuekin ere—, izandako solas-aldietan, batere lotsarik gabe agertu zuan Aitasantutzari, Elizari, eta erlijio berari zien erdeinu ta ezinikusia'

Asi zan VI Pio Direktorioarekin tratuan. Baiña ez zuten jarduketa aiek amaiera zuzenik izan.

Pio, Frantzi'ko katolikoel, ango Agintari berrien esanera jarri zitezten, eskari bero bat egiteko gerturik zegoan, naiz, eskari ori egitea ta iraultza ontzat artzea, mundu guztiarentzat gauza bat bera izango zirala jakin' Ez zan beraz gauza koxkorra, egiteko Aitasantua prest zegoan eskari ura, baiña askoz geiago eskatzen zuan Direktorioak; Frantzi'ko Iraultzari-buruz ordurako Vi Pio'k emanik zeuzkan bulda, erabaki, agindu eta irakaskintza guztien ezereztega gura bait zuan! "Non possumus", erantzun zuan Aitasantuak' Ez zan pakerik lortu.

Erroma'n, Busca Kardenala zegoan Aitasantuaren Jaurlaritzan Estaduko Idazkari. Frantzi'ko Iraultzari guda egitearen aldekoa zan, eta asmo orrekin, Inperatoreari eta Españi'ko eta Napoles-Sizili'ko Borboiei idatzi zien laguntza-aske. Ez zekian noski, bi Borboi auek ordurako Elizaren Laterriak beren artean nola banatu pentsatzen asiak zirala. Ez zioten erantzun. Il Frantzisko Inperatoreak bai, erantzun zion, baiña osa motza izan zan bidali zion laguntza: gizonezko bakar bat: Colli izeneko gudalburu bat, Eliz-Laterrietako gudaroztea borrokarako gertutu zezan'

Asi zan osteraga gudua. Mantua artu, eta Erroma'runtz abiatu zitzai-gun Bonaparte. Izutu ziran Erroma'n guda nai zuten Kardenalak, eta pakea eskatu zuan berriro Pio VI'ak.

Mattai Kardenala izan zan oraingoan Aitasantuaren ordezkari. Tolentino'n bildu zan Bonaparte'rekin. Eta, an, bien artean, beste gudarte bat eratu zuten. Baldintza gogorrek ipiñi zizkion Bonaparte'k Aitasantutzari. Izan ere, itun aren bitartez, Eliz-Laterrietako puska aundi bat ematen zion Vi Pio'k Frantzi'ri, eta bigarren zerga mardul bat ordaintzera bere burua beartzen. Zerga ori ordaintzeko, —ain bat zan aundia!—, Erroma'ko ertilan asko diru biurtu bearrean aurkitu zan Aitasantu garaitua.

Alatagutziz, ez zuan Bonaparte'k Elizarekin asarretu nai. "A la religion de nos pères" ("gure asaben erlijioari") aldaketa okerrik egiten ez ziola iñorri sekulan utziko, esan zion Tolentino'n bertan Mattai Kardenalari. Baiña ori esan zuanean, Erroma indarrez artzea erabakirik zeukan!

Eta, badirudi, Erroma artzeko arrazoirik naiko ematen ziela uri artako gertakizunek ere, urian bertan eta Eliz-Laterrietako beste uri aundietan artega bait zegoan jendea ekonomiaren makaltasunaren erruz; eta ugari ta sarri sortzen bait ziran zalaparta zakarrak Erroma'n.

Ala, urrengo urtean, 1798'an, istillu gogorak izan ziran Erroma'ko Transtebere auzoan. Pakea ezartzerakoan, Duphot zeritzan Frantzi'ko gudalburu bat il zuan Aitasantuaren ertzaindiak. Ta... leenago ere, Basseville izeneko Frantzi'ren Ordezkarri batek erri naastuaren eskue-tan galdu bait zuan bizia, asarretu ziran bigarren eriotz ontakoan frantziarrak, eta berealaxe sartu zan Erroma'n, Bonaparte'ren aginduz, Berthier gudalburua.

Baiturik gelditu zan VI Pio frantziarren mendean.

Larogei ta bat urte zituan orduan, eta gaixorik, oso gaixorik zegoan. Alare, batere errukirik gabe izan zan Siena'ra katigu eramana' Perlesiak jota ibiltzeko gauza ez zala iritxi zan uri artara. Egun batzuk geroago, Erroma'n il nai zuala, eta Erroma'n bizia utzi aal izateko mesedea eskatu zion gordetzen zuten gudarien buruzagi zan Haller gudalburuari. Izan daitekean erantzunik ankerrena eta zipotzena jaso zuan basati aren agotik: "Mourir? C'est ce que vous pouvez faire n'importe ou"! "II? Orixe da nun-nai egin dezakezun gauza"!

Iru illabete egon zan Aitasantua Siena'n bere gorputz makaldua sendotzen. Zearo jausia ba'zegoan soñez, bizkorra zegoan alare izpirituz. Bizkortu egin zuten oiñazeek eta zoritxarrak VI Pio'ren gogoa'

Siena'tik Florentzi'ra eramane zuten Iraultzalariek Aitasantua: eta eman zioten an, Florentzi'n, askatasun pixkatxo bat. Izan-edo zuan beintzat bi "brebe" edo "gutun labur" idazteko modua: Aurrenekoa, Frantzi'n Iraultzak eskatzen zuan "Erregetzaganako Gorroto Betierekoa" z ñ-egiñaz aurkezteko agintzen zuan legea gaitzetsiaz; eta bigarrena, —txit garrantzi aundiko gutuna bigarren au—, giro naasi artan Aitasantu berria nola aukeratu aginduaz' Gero ikusiko dugunez, Pio VI'aren "brebe" oni eskarrak aukeratu aal izan zan, bera il zanean urrengo Aitasantua: Pio VII'a.

Brebe ortako aurauek agintzen zutenenez, Kardenalik geiena zegoan tokian egingo zan, Agintari katoliko baten lurraldean, Konkla-

bea. Eta Kardenaltzan zarrena zanak deituko zituan beste Kardenalak Konklabera. Pio VIa ii zanean, orduan Austri'ren mendekoa zan Benezin zegoan Kardenaisaillik ugariena, eta an egin zan II Frantzisko Inperatorearen laguntzarekin Konklabea.

Aitasantua Florentzi'n zegoala, Frantzi'ren aurka Inghlanderria, Austri eta Errusi sartu ziran gudara' Ta, austriarrak Benezin zeudela lendik ere-ta, aiek Aitasantua askatuko ote zuten bildurrez, Florentzi'-tik, Parma'ra eraman zuten frantziarrek iraduz agure auldu gizagai-xoa. Eta, bereala, Parma'tik Turiñ'era!, aurrera bait zetozten austriarrak. Ez ziran lasai gelditu Pio VI'aren borroeroak, Austri'ko gudaroztea Turin'dik bertan bait zebillen; eta Alpe-Mendien beste aldera eraman zuten erdiillik Aitasantua' An, Besantzon'en euki zuten aurrena, eta Grenoble'n gero. Azkenean Balentzi'ra, Frantzi'ko Balentzi'ra aldatu zuten, eta emen il zan, danei barkatuz, santuen moduan, eta gizonki, gure Vi Pio.

Gorputzez zearo baldartua eta ezereztua zegoan ordurako, Aitasantutza artzerakoan Erroma'ko erriak "tanto è bello quant'è santo" oiu egiñaz agurtu zuan gizaseme bikain ura. Galdu zuan edertasuna bere gurutz-bide latzaren azkenerako, baiña ez zuan santutasunik gaidu. Alderantziz, gurutz-bide ark egin zuan santu, eta aundi, eta arrigarri, Aitasantu zigortua.

"Nadie niega a Pio VI grandes virtudes sobrenaturales: piedad, caridad, paciencia, ceio por la ortodoxia; pero algunos no han querido reconocerle suficiente energia de caracter ni bastante perspicacia para salir airoso de las grandes tempestades que agitaron su pontificado. Quizás ningun papa hubiera podido salir triunfante de potestades adversas tan poderosas como el emperador José H, la Revolución Francesa, y Napoleón Bonaparte. Sobre su sepulcro en el Vaticane le levantó Canova una magnifica estatua orante con los ojos elevados al cielo' En la inscripcidn que le hizo el P. Morcelli se lee: "Regno spoliatus auctoritatem non amisit". (Llorca). "Galdu zuan erregetza; ez, agintaritzak berea duan aunditasuna".

Aunditasun ori, galdu ez baiña azi eta aunditu egin zuan Pio VI'ak bere nekeetan erakutsi zuan gizontasunaren bidez. Beste iñoiz gutxitan bezala zegoan aitasantutza, erregekeriaren erruz, beera jausia, Aulki Donera gure VI Pio igo zanean; iñoiz gutxitan bezala utzi zuan goora jaso espexitik gorputz illobira eramana izan zanean, baiturik jasan bear izan zituen nekeei eskerrak. Iñoiz baiña geiagà maite bait zuan orduan kristau-erriak Aitasantuaren pertsonal

Norbaitek dionez, iiberriaren eriotza ildakoen liburuan idazterakoan, "gaur il da Pio VIa eta azkenekoa", esan omen zuan lumalari batek.

Ori egia ba'da, lumalari arek ez zekian ezer asko Elizak mundu ontan jasan dituan eta jasan bearko dituan nekaldietaz.

ARGIKUNTZA AROKO ELIZAREN DONETASUNA

Aitor dezagun apalki Argikuntza-aroa Santurik gabeko aroa izan zitzaigula. Sortu ziran, bai, orduan ere Santuak: Salle'ko Jon Batista, Gurutze'ko Paul, Ligorio'ko Alfontso'..; sortu ziran Santuak, baiñan banaka; ez, Birjaiotza-aroan bezala, aneika. Artaraiño zimurtu bait zuten Elizaren enborra protestalaritzak sortutako erlijio-guduek, eta daretan ankerrena izan zan azkeneko "ogeitamar Urteko Guduak". Zimurtu egin zutela diogu; ez, legortu eta antzutu, Elizaren bizia ta kementa, mundu ontakoak ez baiño beste mundutikoak diralako, legorkaitzak eta antzutu-eziñak bait dira!

Orixe esan nai dugu ain zuzen "Eliza, bat, SANTUA, katolikoa, eta apostoluena" dala sinisten dugula aitortzen dugunean: naiz eliztar geienak zearo pekatari makurrak izan, Eliza bera santua dala, eta beregana urbiltzen dan guztia santututzeko aalmena baduala, eta bera bakarrik dala gizakume bakoitza eta gizadi osoa santu egiñaz mundua salbatu dezakena.

Izan ere, ain zuzen, elizkideak santu ez ba'dira, Elizagandik urruntzen diralako ez dira santu; Eliza beti santu izanik, Elizagana urbiltzen dan guzia naitanaiez biurtuko bait da santu. Eta ori, Elizari santutasuna, gizonengandik ez baiña beragan, gorputzem anima bezala, bizi dan Jainkoarengandik datorkiolako' Izatez, Jainkoagandiko Grazia besterik es da bâ santutasuna.

Beste zerbait ere esan nai du Eliza santua dala erakusten digun sinispidearen atalak: Beiñere ez dala Eliza santurik gabe gertatuko' Naiz etorkizuneko aoren batean elizkide geien-geien-geienak pekatari nardagarriak izango balira ere, Elizak izango litukela aro beltz ikaragarri artan egiazko santu aundiak; aldareetara igotzeko duin izango liraken Santuak.

Alare, egia da Argikuntzakoan ez zala santu aundi askorik izan, eta urritasun orren arrazoiak auek izan zirala iduritzen zaigu:

—Erregekeria. Laterrietako Agintariek ez zuten Eliz-karguetarako apaiz santurik aukeratzen. Bildurgarriak bait dira santuak! Gizon onak aukeratzen zituzten elizbarrutietarako, ori, bai, eta baita jakin-

tsuak ere, bear bada, baiña ez santuak' Gizon motelak, Erregeari aurpegi emateko kemenik izango ez zutenak. Bazekiten santua ez dala motela izaten; apala, bai; baiñan motela, ez! Ez uste izan, ori, gaizta-keriz egiten zutenik, ez; beraiek, gotzaiak baiño geiago eta leenago eta obeki, Elizaren zaindariak zirala eta zaintza ortarako Jainkoak argi berezia ematen ziela sinisturik zeudelako baizik.

—Elizjendearen bizimodu aberatsa' Printzipeak bezala bizi ziran, oraindik, Kardenalak, Gotzaiak, eta beste elizgizon garrantzitsuak. Ez da arritzekoa; gizon aiek, danak Frantzi'n, Alemani'n eta Austri-aldean, eta asko Españi'n, Itali'n eta beste Laterri kristauetan ere, aberatsen semeak izaten bait ziran. Ontan ez zuan Birjaiotz-aroa ezke-ro ezer aundirik lortu Trento'ko Kontzilioak. Gotzaietatik asko gaiñe-ra, laterri-buru ziran edo lurralde zabal eta uri aundietako Jaun. Jarraitzen bait zuan oraindik feudalismoaren garaieko oitura arek' Aitasantua bera Erroma'n Errege izanik, ezin gindezke arritu Gotzaiak printzipeak bezala bizi izateaz. Gaiñera benetan uste zuten Argikuntzako Gotzaiak, aunditasuna, oparotasuna eta itxura aberats dotorea, beren karguei zuzenki zor zitzaizkien omenak zirala; dotoretasun eta apaintasun aundiko garaia izan bait zan Argikuntza-garaia'

Aberastasuna. Esan dugu izugarri aberatsak zirala elizbarrutiak eta konbentuak; eta aberastasuna, jakiña, ez da santutasuna piztutazteko girorik onena. Egia da, gotzai, abata, eta konbentu aberatsen alboan... legiazko txirotasunean bizi zirala erri landerretako apaiz gaitxoak! Baiña, aurreak erakusten bait du atzea nola ibilli, goikoak aberaski bizi zirala ikusita, ezin beekoen biotzetan txirotasunaganako maitasunik sortu' Maitasun ori gabe, berriz, santutasunarik ezin izaki!'

—Elizjendeen geiegizko ugaritasuna' Arriturik gelditzen gera gaur, garai artako praille-pillo aiek nola eta nondik sortu zitezkean pentsatzen asten geranean. Zenbat ziran? Askok! Zenbaketa ziur bat egiterik ez dago; ez zuten bâ denbora aietan jendeek estadistikak egiteko oiturik izaten, baiña agertu dezazkegu, alare, zenbaki ezagun batzuk.

Frantzi'n emezortzigarren mendearen erdian, XV! Koldobika'k erregetza artu zuanean, baziran, 25 milloi biztanleentzat, 70 milla apaiz, 30 milla praille eta 30 milla lekaime. 130 milla guztira.

Zenbaki oiek ordea ia Argikuntzaren amaierakoak dituzu. Ordurako lan aundiak egin zituzten Erregeek, eta baita Aitasantuek ere, elizjendeen kopurua gutxiagorazten; askoz eta askoz geiago bait ziran aiek XVIII mendearen asieran. Ikusi:

V Felipe Errege zala ez zituan España'k 6 edo 7 milloi biztanle besterik, baiña bazituan alare apaiz, praille, eta lekaimeen artean, 250 milla! Bai al dakizu zer esan nai duan orrek? 27 pertsonetik bat elizjendea zala! A! eta ori, aurtxo jaio berriak ere zenbatuta!

V Felipe orren denboran egindako konkordatoan, saiatu ziran, bai Erregea eta bai Aitasantua, bokaziorik gabeko jendeei elizako sarrera eragozten. Lortu zuten zerbait. Urte batzuk geroago % 65 gutxiago bait ziran España'ko elizjende aiek. Alatagutziz, XVIII mende aren azkenean bazenituan España'n 93.390 praille eta lekaime; ta 58.833 apaiz. Auetatik erdiak baiño askoz geiago ez ziran, parrokilanetan zeudenak. Besteak, uri edo erri aundietako "benefizio" edo diruzko karguei elduaz, nagi bizi ziran kezka geiegikorik gabe. Nagitasunezko giro ori aski zabaldurik zegoan konbentuetan ere, ta gauza jakiña da nagitasunean ez dala santutasunik mardultzen'

Begien bidez España'ko elizjendeen kopuru ura zenbat aiñakoa zan ikusiarazteko, eman ditzagun xeetasun batzuk:

6.500 biztanleko Gazteiz'ek bazituan kolejiata bat, 4 parroki, beste eliz bat eta 5 konbentu'

9.000 biztanleko Burgos'ek, 14 parroki, 22 praille-konbentu, eta beste 22 lekaimetxe; eta goigotzaitegiko apaiz-jendea gaiñera.

Ona zer esan nai duan orrek:

Gazteiz'en, zenbakietaan beera jota, kolejiatan kanonigo eta benefiziatuen artean 15 ipintzen baditugu, eta lau parrokietan 20 apaiz, beste elizean 2, eta konbentuetan 50, bularreko autxoak ere zenbatuta, 74 biztanletik bat elizjendea zala.

Burgos'en, elizjendea parroki eta konbentuetan era berean banatuaz, eta goigotzaitegian amar ipiñiaz, 17 biztanletik bat elizjende zala. Baiña konbentu bakoitzean 15 izango bait ziran, eta baita katedra-Jean 15 baiño geiago ere, esan dezakegu noski Burgos'en amabitik bat edo apaiza edo praillea edo mania zala' Kontu berdiñak irtetzen zaizkigu 21'000 biztanleko Balladolid'entzat: arnarretik bat elizjende zala'

España'ko gauzak? Ez bâ' Gutxi gora bera berdintsu zebillen kristaudi osoa. Balladolid baiño txikiagoa zan Alemani'ko Maienz; baiña elizjende geiago zuart.

Eta ori, mendearen amaiean, elizjendea gutxiago eta urietako jendea ugariago zan unean! Zer gertatzen ote zan mende aren asieran?

tuzu, gure ustez ugaritasun aren arrazoiak:

—Erriaren mixeria. Iñoiz Europa osoan gizakume errukarririk izan ba'da, gizakume ori Argikuntzako nekazari landerra izan da. Ala, Españi'n , 1.800'garren urtean, 28.306'700 golde-lur edo "fanegarik" one-nak, aristokraziarenak ziran; 9'093.400, Elizarenak. Españi'ko erriarentzat, Españi'ko jende ia guztiarentzat, —nekazaria bait zan orduan Españi'ko jendetza guzia—, ez ziran 17.500.000 besterik gelditzen. Eta ori, Españi osoaz mintzatzen ari gelarik, bai bait ziran Españi'ren barruan erria askoz ere txiroagoa zan lurraldeak. Mantxa adibidez, ia-ia Gaztela Berri osoa dugun Mantxa aundi zabala. An, nekazari lurretan 70 aristokraziarenak, eta % 25 Elizarenak ziran. Kontuak atera itzezu eta ikus zerorrek zer gelditzen zitzaion Elizaren edo aristokraziaren jopu ez zan erritar gaixoari.

Erria nola bizi ote zitekean galdetuko didazu; eta, ez zala bizi, erantzundo dizut nik. Begira:

XVIII mendearen erdialdera, pastoral bat idatzi zien bere apaizei Arellano, Burgos'ko Goigotzaiak, bere eleizbarrutiko errien ikerketa edo bixita amaitu zuanean. Erri guztietan, ainbeste urne, gizon-emakume egiten ziranean, nola eta nondik bizi zitezkean galdetu omen zien (apaizei, jakiña) eta apaizek erantzun: "Ez bedi kezkatu, Goigotzai Jauna, urne oietatik geienak ez dira gizon-emakume izatera iritxiko-ta; umetan ilko bait dira geienak"! Gosez eta mixeriz il zitezkeala pentsatzeak, zearo samindurik utzi amen zuan Goigotzaiaren biotza.

Españi'z esan dugunak, balla du Frantzi'rentzat, Napoles eta Sizilirentzat, eta baita Europa'ko beste lurralde ia danentzat ere' Orixe izan bait zan ain zuzen Frantzi'ko erria iraultzara eraman zuan arrazoa: gosea, mixeria!

Frantzi'n ere, ikusi dugun lez, Aristokraziarenak edo Elizarenak bait ziran nekazaritza-lur geienak! Eliza ere, naiz Aristokrazia bezain aberatsa izan ez, oso aberatsa bait zan alatagutzit' Berea zuan bâ, nekazaritza-lurraren seirurden bat osoa!

Aberatsagoa zan oraindik Españi'koa; 359'806'251 errealekoa zan Españi'ko eliz-lurren urteroko errenta' Errenta oiei, "amarrenen", "len-fruituen" eta kristauengandiko beste emaitzen balioa erasten ba'diegu, 1'101.753.430 erreal jasotzen zituan urtero Españi'n Elizak. Izugarrizko aberastasuna, bai noski. Ots, ordea!, aberastasun ori ez bail zan osoa elizgizonen kutxetara joaten. Diru ortatik bizitzen ziran bâ orduan Elizak zituan ekintza ongille guztiak. Kristaudi guzian, Eli-

zaren ardurapean zegoan, ikastoletatik gaixotegietara, on-egintza guztia. Laterriek ez zuten ortan xoxik ere eraldi edo gastatzen.

Alabazanere, diru asko gelditzen zitzaien oraindik eleizgizonei beren onturrerako. Ez zegoan ordea diru ori egoki banatua. Ederki bizi ziran goimailletakoak: doidoi edo egiazko txirotasunean erri txikieta-ko apaiz jaunak' Ala're, erriko jendea baiño obekix'ago bizi bait ziran auek ere, kutizigarriak iriduditzen zitzaizkien nekazari landerren semeei erri koxkorretako parrokiak; eta, batez ere, konbentuak!, konbentuak aberatsak bait ziran danak, eta prailleen artean estutasunik ez bait zan izaten!

Orrela, jaun altsuek eta baita erregeek ere, oiñordeko izango ez zituzten semeak, edo gudalburu edo gotzai izateko ezitzen zituzten, eta baita lekaidetxe aberatsetan abata izateko ere. Alaba berriz, abaterne egiten zuten!

Erriko jende gaixoen semeak, gosearen bildurrak bultzata, konbentuetara joaten ziran alaiki. Izan ere, ezer bide artu zezakean Arellano Goigotzaiak aipatu digun aurtzaroko gosetik bizirik irtetzea lortzen zuan gaztedi gaixo doakabe arek? Iru auetako bat naitanaiez: Ameriketako bidea, gudaroztekoa, edo konbentuetakoa'

Ala ere, ezazula uste lekaiume eta praille-mordo aiek, edo erri eta urietako apaiz ugari aiek lizunkerian bizi ziranik. Ez, orixe! Fede sendoko gizon-emakumeak ziran, eta, nun-naiko eta noiz-naiko batzuek kendu ezkerro, ustelkeririk gabeko erlijiosok: naiz santu izatera iritxi ez, pekatutik aske bizitzen zintzo saiatzen ziran gizon-emakumeak!, geien-geienak beintzat'

Nagitasuna zan aien orbanik nabarmenena. Ikaskuntzarako eta apostolutzarako zaletasun geiegirik gabe, patxada ederrean, ondo bizi ziran braillez beteak zeuden konbentuak. Apaiz eta praille askok doidoi zekiten mezakoan erabiltzen zituzten liburuak irakurtzeko aiña latin; irakurtzeko aiña, irakurtzen zutena ez bait zuten ulertzen! Teologiz, ezer ez!; aur zirala ikasi zuten dotriña eta kitto'

Oiu egin dezagun berriro, monja, praille eta apaiz aiek, gizon-emakume onak izan zirala geienak, naiz aien artean ardi galduren bat izan. Bat datorkigu azkeneko auen artean gogora: Chateauf'eko Abata, Voltaire'ren aitaponteko eta gero irakasle izana, batere sinismenik gabeko eta bizitza zikiñeko gizona' Zori txarreko umea izan zan benetan Voltaire gaixoa. Zazpi urte besterik ez zituanean il zitzaion ama, ez noski oso bizitza garbiko emakumea. Voltaire'k ez zuan sekulan bere aita nor izan zan eskierki jakin. Laterriaren serbitzura lan egiten zuan Rochebrune izeneko gizon ez-ezagun baten seme zalaren us-

tean bizitu zan, baiña uste utsean, batere ziurtasunik gabe. Abizena, Arouet, ugazaitak eman zion, Arouet batekin ezkondurik bait zegoan eriotzakoan bere ama' Izan zuan emakume onek beste seme bat ere, Armand, Voltaire baiño zarragoa, gero jantsenizale zorrotzenetakoa izan zana. Ez bere anai au, ez bere ugazazaita, ez zituan sekulan Voi taire'k maitatu' Ez zioten aiek ere, dirudianez, maitasun geiegirik iñoiz erakutsi, apaiz aitapontekoaren zaintzapean utzi zuten beintzat ama il zitzaion bezain laister. Apaiz oker ura ez zan bakarrik bizi. Bazuan mai tale lizun bat, eta maitaie onen eskuetan ipiñi zuan Voltaire muttikoa- ren eziketa. Irakasle dotorea, iñolaz ere, urne gaixoa zuzen, egoki, eta era onean ezitzeko! Ez da arritzekoa gero Voltaire'k apaizei izan zien gorroto bizia.

Apostolutzako kemenaren faltak ere ez zion Arginkuntzako Elizaren donetasunari geiegi lagundu. Jarraitu zuan jentil-lurretan Elizaren mixio-lanak, baiña ez Birjalotzako bizkortasunarekin'

Kristaudilurretan, erri-mixioak izan ziran apostolutza-ekintzarik aipagarriena.

Bear-bearrezkoak zituan kristau-erriak mixio aiek, bere apaizak, ezjakiñak, eta asko bokazio geiegirik gabekoak, ez bait ziran Kristau erria egoki ezitzeko berak bakarrik naikoak' Mixerian egoteak eta bi- zitzeko nekazaritzan-eta ari bear izateak ez zien, noski, apostolutza bizkor baterako, ez denbora geiegirik uzten, ez zaletasun geiegirik piz- tutzen. Sakramentu eta gaiñerako elizkizunak, orduango elizkizun ugari aiek danak egiten zituzten zintzo, baiña ortaz gaiñera ez ziran beste ezertan geiegi saiatzen. Agian ez zuten bearrik ere ikusten; kris- taua bait zan beren errietako jende guzia.

Erriak maite zituan apaiz eta praille aiek, bizitza garbiko eta sinis- men sendoko gizonak zirala ikusten zualako. Biotz onekoak gaiñera. Edestilari guztiek aipatuko dizute argikuntza-aroko jendeak bere eliz- -gizonei zien begirunea, eta maitasuna' Begirune-maitasun aien arra- zoia erriaren erlijiotasuna izan zala esango dizute, baiña erlijiotasun orren meritua apaiz eta praille aiena bait da, apaiz aiek eta praille aiek berak dira, orrela, maitasun aren egiazko arrazoia.

Argikuntza-aroko erria siniskeri zakarretan murgildurik bizi zala ere maiz esan oi dute edestilariak, baiña ori esatean orduango idazle "argituek" idatzi zutena berbera, geiagoko azterketarik gabe, berri- datzi besterik ez dute egiten; eta argikuntza-aroko idazl ek ez dira gai ontan sinesgarri. Ezta gotzai eta apaizak ere, jantsenitasunaren estu- kerri larriaz kutsuturik bait zeuden danak. Ala garbitu zituzten gure eli

zetatik ainbat dantza, abesti, eta oitura zaar, erriaren sinismen garbiaren adigarri zirala oartzeko'

Egia da, beti bezala, sineskeriak bazirala; Egia da erriaren ezjakintasuna aundia zala Kristaudiaren baztar askotan; Egia, baita, orduan ere pekatu-egiten zala, baiña erriaren oiturak ez ziran orduango mixiolari ospetsu aien itzak adieraztera eman lezaketen bezain zikiñak. Saint Cyran'en txorrokkeriak zerabilzkian mixiolari aien mingaiñak' Beti kontuan euki bear dan gauza da au, aro artako liburuak eskuetan artzean, batez ere Aita Mendiburu, Aita Kardaberaz eta beste mixiolari euskaldunen liburuak irakurtzean. Euskalerrian zegiten auek lan. Eta Europa'n iñoiz erri argiturik eta benetan kristaurik izan ba'da, Argikuntzako Euskalerria izan da erri bikain ori: erri aberatsa, langillea, jakitez jantzia, paketsua, sinismen sendo eta biziera garbikoa.

Gure ustez, Kristaudi osoan, Argikuntzako Eliza Birjaiotzakoa baiño ohea izan zan oituren arloan; eta baita, bear bada, sinismenaren arloan ere.

Zer falta izan zitzaion Eliz arri Birjaiotzakoa bezain dizdiratsua izateko? Santutasunerako ausardia, eta, ausardi orri sortzea girotzeko, teologi bizkor baten zirrara. Eta teologiaren zirrara orri ¿zerk eragozi ote zion sorkuntza? Bildurrak! Erejiaganako bildurrak.

Bost gizonen oroipen itzalak euki zuan esiturik Elizaren kemena. Gizon oiek ez ziran, Locke, Rousseau, Voltaire, edo beste orduango idazle aiek bezala, gizon "argituak", ez. Pentsalari eta idazle aien oldozkeran arriskurik ez zuala Elizak ikusi, dirudi. Ez zan beintzat aien aurka, bearrezkoa zan kemenarekin jeiki. Edota, idazle "argitu" aiek Erregeen adiskide kuttunak ziralako, dez ote ziran Gotzaiek, bearrezkoa zan kemen arekin mintzatzera, Europa'ko iñungo txokoetan ausartu? Zillegi bezait galdera bat: Europa, XIV Koldobika edo Iñi Karlos españiarraren antzeko Erregeen mendean egon bearrean, Ipar-Amerika'ko Errepublikaren antzeko giroan bizi izan balitz, pez ote ziran Gotzaiak, "argituen" okerkerien aurka, bizkortasun geiagorekin jeikiko?.

Danadala, Luter eta Kalbin izan ziran sinispide edo dogmaren arloan Eliza ikaratu zuten gizonak; eta oituren arloan berriz, Molinos eta Saint Cyran, eta onen atzetik zegoan Jansenio' Batez ere Luter, Kalbin eta Molinos, alpèr-egontzailleen Buru Nagusia izan zan Mikel Molinos, Saint-Cyran'en estukeriak jota... elizgizon geienak bait zeuden orduan!

Erejiarenganako bildurrak, erejira jausi aal izateko bildurrak ito zuan pentsamenaren galda teologilarien buruetan'

Eta, bearbada, erejari aiña bildur zioten teologilariak Inkisizioari. Ereji ororen jaiotza odoletan itotzeko bizkor eta tinko bait ziraun oraindik Inkisizioak' Bildur orrek izoztu zien pentsalari katolikoei teologian bide berrietatik aurrera ekiteko gogoia. Seguruagoa bait zan leengo bide zarretatik ibiltzea.

Orregaitik ain zuzen, izan zan Argikuntzako Elizaren eginkizunik ardurazkoena len aipatu dugun errimixioen ekintza: kristau-erri "zarriari" kristautasun "zarra" era "zarrean" nola egoki bizi erakusten zion ekintza! Bir-aitortu dezagun on aundia egin ziola ekintza arek kristau-erriari, baiña, geroak erakutsiko zuan bezala, ez zan bera bakarririk naikoa jakintza berrien erasoan sinismena sendotzeko.

Errimixioketarako sortuak izan ziran garai artako erlijioso-anaidi berriak; ondo anaidi ospetsu eta agurgarriak benetan: Gurutzeko Paul Doneak sortutako "Josu-Nekaldiaren Anaidia" (Pasionisten Anaidia), adibidez,

A! Argikuntzako Elizaren donetasunaren adierazle ditugu Anaidi berri auk ere, Ama Elizaren erraiak ez zirala iñolaz ere antzutu, ezta legortu ere, ez zirala legortu, adierazten bait digute.

Errimixioetara jo zuten geienbat Anaidi zarrek ere. Ondo ezagunak dira orduango mixiolari aundi aien izenak: Segneri, La Colombie-re, Koldobika-Mari Grignon Donea, Kadiz'ko Diego Doatsua, Kardaberraz, Mendiburu..' eta millaka geiago. Gizon santuak, gizon jakintsuak, lenen maillako izlari eta idazleak baike, baiña apurtxo bat Saint Cyran'en gorgokeripipiak joak'

Errimixiolari izan genituan Argikuntzako Santu berberak ere: Klemente Hofbauer, Jeronimo'ren Frantzisko, eta goraxago aipatutako Ligorio, Paul Gurutzekoa, ta Monfort'eko Koldobika-Mari Grignon'darra, erlijioso "montfortiarren" eratzaillea.

Ta.., errimixioetako sortu ez zan Anaidiak ere badarama jaio zan denboraren aztarna: teologiarik eza. Izan ere, ikasketa guztiei uko eginda, al daitekean erarik gogorrean bizitzeko agertu bait zitzai-gun Lurralde Beekoetan Trapa deritzan Anaidi berri au.

Esan dezagun leenik Trapatarren gogortasunak ez duala Saint Cyran'en gogorkeriarekin zer ikusirik. Baiona'ko kanonigo ark oldozkera zuan gogorra; ez, ainstean, biziera' Trapatarren oldozkera arras zabala da; biziera dute gogorra: Betiko isiltasuna, lo urria, egunean-bein-bakarreko otordua, eta, bera, barazki utsezkoa, peni-

tentzi bizkorrak, eguneroko soro-lana, otoizketa luzea, gauerdiko matutiñak... Ez da, noski, edozeiñentzat egiña trapatarren bizitza.

1662'an sortu zan Anaidi berri au ziztertarren zugatzetik, baiña bere zabaiketa emezortzigarren mendean egiña da.

Trapa, Lurralde Beitietao Lekaidetxe ziztertar baten izena duzu. Bertako Abata, gazte-denboran buru-ariñ izandako lekaide zorrotz bat zan: Armand Jon le Bouthillier de Rancé. Zistertarren bizitza biguiñegia izatera jetxi zalakoaren ustean asi zuan Rancé'k, Trapa'ko Lekaidetxean, bizimodu berria. "L'abbé Tempete" deitu zioten Frantzi'ko beneditar mauritarrek: "Ekaitz" Abata.

Baiña ez zan Trapa'koen biziera gogorra izan, mauritarrak izutu zituan gauza. Leen maillako edestilari ziran auek eta ondo ezagutzen zuten Elizaren bizitza luzean penitentziegille arrigarriak izan duten garrantzia. Anaidi berriak jakintza orori zion begirapen okerrak ikaritzen zituan. Ezaguna da ikasketari-buruzko gai onetan Mabillon mauritarrak eta "Ekaitz" Abatak alkarren artean izan zuten eztabaida, jakintzen aide arek, jakintzen aurka onek. Biak zuten arrazoi, bi era ezberdiñak opa bait zituzten bata eta besteak lekaidetzarako, eta Ama Elizaren altzo zabalean bi bide oiek bait ziran era berdiñean egokiak eta santuak.

Alatagutziz, eztabaida oietan gerta oi danez, maiz urratu zituzten idazkietan bai mauritarrek bai trapatarrek anaiarteko begirune santuaren neurriak'

* . *

Batez ere mistikaren barrutian izan zan, esan dugunez, agorra XVIIi mendeko Eliza. Aszetika-liburuak bai, aneika argitaratu ziran mende artan, baiña ez zuten lengo maixu zarrak esana bir-esan besterik egiten' Danak, gaiñera, jantsenikeriaren extukeri latzez orbandurik etorri ziran argitara.

Alemanin' bakarrik artu zuan aize berria kristau-aszetikak: Argikuntzatik zetorkion aizea; Alemanin' bakarrik artu bait zuan Elizak zinez eta benetan Argikuntza.

Oker itzegin izan da Alemani'ko aszetikalari aien aurka. Egia da beste munduaz baiño mundu ontaz askoz geiago itzegin zutela, baiña garrantzi aundiko utsune bat bete ziguten mintzaera arekin. Orduango kristau-bizierako maixuak, mundu au deabruaren erreñua balitz bezala aipatu ere egin gabe, beste munduaz bakarrik mintzatu bait zitzaizkigun beti.

Alatagutziz, —bai katolikoak bai protestalariak aszetika-bide beretik sartu ziralarik— egia da bateren batek bide ortan oztopo egin zuala. Badirudi bâ, Argikuntza eta Kristautasuna gauza bat bera zirala eta kristasunak, beste munduaz ainbeste kezkatu gabe, bere eginkizunik nagusia mundu au salbatzea zuala pentsatzera bat edo bat iritxiedo zala.

Sailer inakitarra dugu Alemani'ko aszetika-idazleetan ezagunena eta onena. Frantzisko Berg izango da berriz, itxuraz beintzat, kristau-kutsurik gutxienekoa gure idazle doixtar aien artean.

Urrutiegia joan zitzaigun Von Wessenberg iru elizbarrutiko gotzai "argitu" baten Bikario Jeneral edo Ordezkarari Orokorra ere. Bere seminarioko apaizgaiantzat, idazti bat argitaratu zigun Ordezkarari Jaun orrek; eta ona, liburu ortan dionez, batere atsegin ez zitzaizkion gauzak:

—Prailleak, batez ere prairie "eskaleak". (Argitu danek izan zuten eskaleentzako, eskale guztientzako, oso borondate txarra; lanik egin nai ez zuten alperrak zirala iruditzen bait zitzaien)'

—Bide-ertzetako baselizatxoak, Santuen irudiak, irudi mirarigileak bereiziki. (Egia da erriak irudi askori zion eraspena ez zala gauza garbia; egiazko siniskeria zala; baiña zorrotzegi billi zitzaizkigun ontan "argituak" eta beste siniskeri batera jausi ziran: siniskeriaren bil-durra egiazko siniskeri biurtu bait zan aien buru "argituetan"!)

Kofradiak, ibildeun edo prozesioak, eta baita arrosarioa esatea ber-bera ere. (Egia da baitare ibildeunetan eta kofradietan ondo ez zeuden gauzak bazirala, baiña baita benetan eraspen zuzenekoak ere: erriak asko maite zituan abestiak, dantzak, eta oiturak adibidez, kristau-liturgiaren edergaillu bikain ziranak).

(Erria baiño askoz okerrago ibilli ziran argituak; oitura agurgarri aiek txukundu bearrean, oiturak ezereztu, ots, buruko miña sendatu bearrean **burua** moztu egin nai izan bait zuten).

Gizon kementsua zan Von Wessenberg' Erroma'ri ezer esan gabe, berak bere-kasa argitaratu zituan alemanieraz Liturgirako liburu guztiak, eta laterazkoen ordez liburu aiek erabiltzeko apaizei agindu.

Iñork ulertzen ez zuan latera ez baiña erriaren izkuntza erabilli bear omen zan liturgian, —eta arrazoi zuan ortan—; baiña Eliza ez omen zan meendeetan aldakuntza ori egiteko gauza izango. —Eta ez zitzaion ontan ere arrazoirik peitu, bi mende bear izan hait ditu Elizak bere liturgia errietako izkuntzetan ipintzeko—.

Ekumenetasunaren arloan ere lan egin nai izan zuten Alemani'ko katoliko "argituek". Baso illunean bide berriak irikitzen ari danak ordea errez eman dezazke okerreko pausoak. Ez da ori arritzeko gauza. Eta orrelako zerbait gertatu zitzaien Alemani'ko katoliko aietako batzuei protestalariekin asi zituzten alkar-solasetan' Gure Von Weseberg'ek adibidez, berak ordaindu zien "artzai" protestalari batzuei bizitzeko bearrezkoa zutena, (erri•txikietako artzaiak ez bait ziran erritxo aietako parrokoak baiño askoz obeto bizitzen). Ortaz gaiñera berak la-gundu zien otoiz-etxeak eraikitzen ere' Bere sakeleko dirutik egiten ote zuan ori?, ala berak zaintzen zuan elizbarruti-dirua erabilli ote zuan ortarako? Danadala, badirudi zentzu onetik kanpo ib ili zitzaigu-la eginkizun oietan.

Oker irten zitzaion bere seminarioao apaizgaien eziketa ere' On-do ez ak bai, dotore eziak irten ziran seminar otik apaiz aiek: zadi-jakintzetan ederki jantziak, apaiz "argituak", izadiaren eta gizadiaren maitaleak, Idazti Deunen ezagule yayoak... Ez zan beste iñon Europa'n aiek bezalako apaizik' Baiña seminarioan ikasitako kristaukera garbi aratz "argitu" arekin kristau-errira sartu ziranean, tanka jo zuten nmuturrez erriarekin, elizetako Santuen irudiak, Santu aiekin egin oi ziran ibildeunak, eta goizean goiz egun sentian arrcsarioa kantatzea ain gogoko zitzaizkion Alemani'ko erri xee katoliko zintzoarek n

Askoz eta askoz, Alemani'ko Eliza izan zan Argikuntzakoan Elizik bizkorrena ta urduriena' Ez ordea uste, urduritasun ura iraultza txiki baten antzeko zerbait izan zanik. Ez' Alemani'ko Argikuntzak ez dizu ezertan iraultzaren zaletasunik agertuko' Dana izan zan an barea, zaratarik gabekoa, leuna, guzia arrazoiaren neurriketa otzaren bidez tajutua. Epeltasun goxokoa izan zan an giroa. Ez otza eta ez beroa: geiegiko arriskurik gabeko abaroa' "Plate médiocrité", "erdipurdikoko egoe-ra laua", esan izan diote Argikuntzaren etsai izan diran edestilari katolikoek.

Gaur ordea, beste begi batzuekin so dagie Aleman 'ko Argikuntzari edestilari ber-beroeiek, eta ozen aitortzen dute doixtar katoliko "argitu" aiek arlo askotan oso egoki ikusten zituztela gauzak; Erroma'ko Kuriak baiño obeki, eta aien leiaketa ez zitzaigula iñolaz

ere alperrikakoa gertatu, leiaketa arri eskerrak Elizaren Edestiztiak, Arkeologiak, Guraso Doneen azterketak, IdaztiDeun-Iztiak eta auen antzeko ikasketek, indar aundia artu bait zuten Elizaren Ikastola Nagusietan.

Argitu bikain aien oidozketa, asmo, eta gurariak, asko, Elizaren lege egin dizkigu gero II Batikan-Kontzilioak.

Aszetika, edo "gizonak nola Jainkoagana urbildu", erakusten duan iztia lagata mistikara, edo, "Jainkoak nola gizona beragana urbiltzen duan" erakusten digun iztira igaro gaitezen, esan dezagun azkenik Argikuntzako aszetika-libururik onenetakoa, Puerto Maurizio'ko Leonard'ek maiz-jaunartzerariburuz idatzi zuana izango dala ezpairik gabe.

Naiz Argikuntzaren mamia arrazoikeri legor otza eta jantsenike-riarena bildurkeri zipotza izan, mistika Jainkoaren ekintza dalarik, —eta Jainkoari inortxoak eskurik lotu ez dezaiokelako—, izan ziran Argikuntza-aroan ere Jainkoak mistakaren gaillurretara jaso zituan animak, baiña mistikalari aien idaztiak, Inkisizioaren bildurrez isilik zabaldu bear izan ziran eskuz-esku adiskide ezagunen artean'

Karmeldarrak ziran idazle mistikalari aiek geienak; edo lekaiume salestarrak; eta, baita, Caussade ta Milley bezala, inakitarrak ere' Era berean, izan zituzten Asis'koaren seme-alabek goimistikara iritxi ziran anima garbiak'

Mistikaren ttantta batzuk jetxi ziran kristau arrunten maillaraiño. Erri-mistika au ordea ez zan beti guztiro garbia; batez ere erri xearen altzoan aneika sortu ziran anaidi, kofradi, eta lagundietakoa.

Orduantxe ain zuzen jaiotako masoitzaren antzera, ixilpekoak ziran alkarte aietatik asko. Aueteko bat, leendik zetorren "Sakramentu Santuaren Lagundia", debekatua izan zan 1660'ean, eta ondo debekatua baiki, erdi-izkutukoa izateaz gaiñera, erdifatxista ere biurtu bait zan: protestalarien aurka gogorkeria erabiltzearen zalea, adibidez.

Indar aundia artu zuan ordurako Frantzi'n Meur'ko Bixente eta Bagot'tar Jon Apaizek 1650'ean asmatu zuten "A.A.Lagundiak" (Bi A oiek "Amis des Amis", "Adiskidean Adiskideak" adierazi nai zuten). Berealaxe agertu ziran "Les Bons Amis" izenekoa Frantzi'n bertan eta "Amicizia Cristiana" zeritzana Itali'ko lurretan.

Oiek dituzu ezagunenak, baiña oietaz gaiñera, asko eta asko sortu ziran, XVIII mendean batez ere, udaberriz landetan jaiotzen diran lo-reen antzera.

Alkarte aien sortzaille eta zuzendari, apaizak izan ziran ia beti; oso gutxitan erlijiosoak.

Ezin ukatu daiteke alkarte aiek egin zuten lan ederra. Baiñan aitortu bearra da, baitare, akats bat, akats aundia, izan zutela; eta guztiek akats bat berbera: estuak, ikusmen laburrekoak, oso "integristak" eta, ia soilki, "aurkalariak" izan zirala. Sortu ere ortarakoxe batez ere, "aurka egiteko", izan bait ziran sortuak: Kalbindarren aurka egiteko Frantzi'n, Josepekeriaren aurka egiteko Austri'n. Febronio'ren pentsakizunen aurka egiteko Alemani'n, eta Argikuntza beraren aurka egiteko Itali'n eta Kristaudiko beste lurralde batzuetan.

Alatagutziz, Argikuntza-aroko Elizak bere erraiñetan sumatzen zuan donetasun-naiaren adigarri izan genituan alkarte aiek danak, Erregeek aukeratutako Gotzai askoren kemenik-ezari aurpegi emateko apaiz zintzo eta naimen zuzeneko kristau sekularren asmaketa izan bait ziran; eta bai Erregeak bai Gotzai "argituak" eta baita erregekerizale guztiak ere etsai izan zituztelako, isilik eta izkutuan ibilli bearean aurkitu ziran. Orretzek eman zien "masoitza zuri" baten itxura.

Ala ere zitu onik naiko sortu zuten len esan dugun bezala. Zitu auetako bat Klemente Mari Hofbauer Donea izan zan, rendentoristen birsortzaillea: bera, Biena'n 1789'an bildutako Alkarte oietako batetik sortua.

Frantzi'ko Iraultza Nagusikoan, "Masoitza Zuri" onen altzoan erne ziran, illunpean apostoladutza egiteko, Sinismenaren omenez aibat odol ixuri zuten, apaiz eta kristau sekularren bazkuntxoak.

Baiña Argikuntzako Elizaren emaitzarik ederrenak iru auethek izan zitzaizkigun:

- "**Alkarte Maritarrak**"; Andre Mari'ganako eraspena zabaltzeko eratuak,
- **Gurutz-Bidea**; Josu'ren Nekaldiaren oroipena Kristauen artean bizkortzeko sortua; eta beste ooren gaindik,
- **Josu-Biotzaren eraspena**, Kristaudi guzira ain azkar eta sakonki zabaldua.

Ez zan orduan berria Josu'ren Biotzari kristau eraspenkoiak izan dioten maitasun berezia. Xili mendekoa dugu eraspen xamur orren sorkuntza, eta argi nabari dezazkegu bere aztarnak Hefta'ko Jertrudis eta Hackeborn'eko Matilde Doneen idazkietan' XVI mendean Kartuxatarrak izan zitzaizkigun Josu-Biotzaganako eraspenaren apostolu, eta Donibane Eudes XVII'ean.

XVII mende orren azkenaldian gertatu ziran Paray le Monial'eko

agertaldi edo aparizio ondo ezagunak.

Erri ortako Ikerpen Bisitazioko lekaimetxe batean bizi zan Alacogue'ko Margarite-Mari Donea (1647-1690). Eta Josu bera agertu zitzaion Biotz Donea erakutsiaz eta Biotz Done arenganako eraspena zabaltzeko aginduaz.

Laguntza osoa eman zion lekaimeari animaren zuzendari zuan Jon Croisset iñakitarrak, ez ordea beste iñakitarrek, aurka irten bait ziran auek aurreneko egunetan.

Alatagutziz, iñakitarrak izan ziran gero Josu'ren Biotzaganako eraspena kristaudian zabaldu zutenak Poloni'ko rurraldeetatik asita' Ain zuzen Poloni'ko Gotzaiak ditugu XVII Klemente Aitasantuari eraspen berri onen onespena —Aitasantuak pozik eman zien onespena— eskatu ziotenak.

Pozik artu zituan kristau erriak beste bi eraspen aiek ere. Gurutz-bidearena zeñen ederki eta sendo errutu zitzaigun jakiteko, aski duzu Kristaudiko bide eta elizetara so-egitea. Zenbat gurutze gure bideen ertzetan! Eta elizetan berriz, aurkituko ote duzu bere barruan gurutz-bideko amalau estazio edo gertakarien adigarririk ez duan elizik?

Sendo ekin zuten Alkarte Maritarrek ere betidanik kristau erriak ain berea izan duan Andre Mari'ganako maitasuna bermatzen.

Andre Mari'ren Sortze Garbiari dagokionez, Eudes'ko Donibane maitagarria irten zitzaigun XVII mende artan, Andre Mari'ren Biotz Sortzez garbiaganako jaietaren sortzaille, edo beintzat, zalantzarik gabe, lenen maillako zabaltzaille'

Trento'ko Kontzilioa ezkeror, eten gabe eta era arrigarrian ari zan zabaltzen Sorkuntza Garbiaganako eraspena, baiña XVIII mendean igo zan gaillurrera; ots, Argikuntza ere bere gallurrean zegoan mende ber-berean! Erregeek, Unibersitateek... Gotzaiak, erri landerraren kofradiek, Probintzi eta Udaletako agintariek... kristau guztiek eta kristaudi osoak aldarrikatuko dizute, edozein gertakizun aitzakitatzat artuaz, eta ziñ egiñaz aitortu ere, Andre Mari'ren Sorketa Garbian zuten siniste sendo gozoa. Benetako sinistea; ez, iez orixel, zirimoni utsezkoa; kristaudi guziak, gotzaietatik sakristauetara, erregeengandik ikazkiñetaraiño kristau guztiek egiaz eta pozik bizitzen zuten sinistea!, biotz-barneko muiñetan odolaren odol egiñik zeramaten sinistea

Ez zegoala illik ez, ez zegoala moteldurik ere Elizaren biotzean santutasunerako garra' Argikuntza-aroko edestiari begiraizen ba'diozu, moteldua iduriko zaizu aro artako Elizaren bizia' Ots ordea! Edes-

tiek gertakizun aundi ikusgarrietaz bakarrik mintzatzen zaizkigu' Elizaren bizia, ordea, ez dager bereiziki gertakizun aundi ikusgarrietan, ez datza elizgizonek argitaratu dezazketen liburu arrigarrietan edo asmatu dezazketen filosofizko pentsaera dizdiratsuetan, ez dager aida-reetara igotzen diran santuen bizitza miresgarrietan bakarrik; Elizaren bizia, batez ere eta beste ooren gaindik, Kristoren Gorputz Mistikoa dan kristau-erri osoaren bizitzan nabari dezakegu, eta ikusi aaf izan dugun lez, ondo bizkor zegoan orduan ere kristau-erria-baitan Elizaren bizitz illezkorra.

* - *

Baita gure anai protestalarien artean ere, bizi zan, zorionez, donetasunaren guraria. Eta bizi..., bizkor gaiñera bizi!

Protestalarien artean, ere, gotzaiek eta eliz-buruzagiek baiño sakonago erriko jende landerrek sumatu zuten beren biotzetan donetasunaren egarria. Ala, elizetatik-at sortu ziran egarri aintzagarri ura asetzeko asmatu ziran ia igikunde guztiak.

"Revivalism", "Birpizkunde" esan zioten Inghanderrian, igikunde aien azpitik ari zan indar donetzailleari. Izen egokia, bai; gikunde aiek, politika-erakunde biurtuta ilzorlan zeuden laterrieliz ofizial aien bizitza bir-piztutzero bai zetozen. Profeta bakartien ekintza ziran, eta Eliz ofizialetatik erantzun egokirik jaso ez zutelako Eliz aietatik kanpo gelditu ziran ia beti.

Oroi, Eskandinabi'ko Jaurerrietan eta Inghanderrian gorputz bat bakarra zirala Laterria eta Eliz ofiziala. Baita Alemani'ko protestalarien artean ere.

Alemani'z ari galararik, naitanaiez aipatu beariko dugu Leibnitz fi losofilariaren izena. Asko zor izan zion Alemani'ko Argikuntzak eta baita Europa guztikoak ere, lenen mailleko pentsaiari arri, baiñan, —zaletasun gutxi izan bait zion Argikuntzak egiazko filosofiari—, ez Leibnitz filosofi-sisterna baten sortzaille izan zalako, ez; era berean matematikalari aundia eta ekintza-gizon ernea ere izan zalako baizik. Prusi'ko Jaurerria artean Brandenburg'eko Dukaterria besterik ez zanean, berak sortu zuan Berlin'go Akademia; aurrenekoa Europa "argi

tuan"; gero, aneika, baztar guztietan "argituek" sortuko dituztenen eredua. Jakiña bait da akademiak izan zirala argituen "jauretxe", jakintza "utilis" eta ekintza "utilis" edo onuragarri guztien sorleku ta era-toki. (Gogora ezazu, Argikuntzakoan gauza orok izan bear zuala "utilis", "emankorra", "onurakorra").

Baiñan benetako kristaua eta Elizaren batasunaren maitale zintzoa ere bazan Leibnitz, eta elizen arteko begirune eta batasuna lortzeko egin zituan lanak ez ziran Alemani'ko protestalarien artean antzuz gelditu. Ala sortu zan Alemani'ko lutertarren artean erlijogaietan tolerantzi edo eroapenaren aldeko talde ugaritsu, bakun, indartsu bat'

Alemani'ko errian agertu zan, baitare, an "pietismus" edo "eraspenta" esan zitzaion igikundea. Eliza-lege-ta-sinispideariburuzko auzi guztiak bazterrean utzita, alkar-maitasuna eta eraspenta besterik ez zituzten "pietist" aiek beren kristau-bizitzarako jaso. Felipe-Jakob Spener izan da Alemani'ko pietist aien sortzailletzat eukia.

Izan ziran pietistak Suezin ere, Lavanter "artzai" lutertarraren inguruan; eta Suezin bertan sortu zuan Imanol Swedenborg'ek "Jerusalem Berriko Eliz" berri "pietista" Bizi dira oraindik, Australin, Laterri Alkartuetan eta Inghlanderrian, Eliz aren ondorengo komunitate txikiak.

Izan zuten "pietist" edo "eraspen-zale" aiek danak iragarle, profeta, eta iziari eta marrularirik naiko. Geiegi zoritxarrez. Eta, zoritxarrez, asmo oneko kristau aietatik asko Munster'ko birbaitailari aien antzera, mirarikeri txorora ta egiazko sineskerira jausi ziran; eta baita gizon-emakumeen arteko lizunkerira ere, ezkontzari dagozkion gaietan. Orrela sendiaren oiñarri guztiak ipintzen bait zituzten kolokan, eraspent-zale buru-naasien aurka zerbait egin bearrean aurkitu ziran agintariak Suezin bertan, Alemani'n, Poloni'n, eta Dinamarka'n.

Ez ziran, ez noski, eraspent-zale geienak oker biurriak izan' Aipa ditzagun gogo onez, XVIII mendearen erdian Zinzendorf'eko Nikolas Konte saxonitarrek Morabi'ko hustarren kondarrekin eratutako "Herrhuters" edo "Anai Morabitarren" Alkartea. Karitate ekintzara jo zuten asiera-asieratik eta ekintza ortan beti zuzen jarraitu dute Anal zintzo aiek' Teologiaz ez dute sekulan ezer ere jakin izan nai. Zergaitik?, Orduan oraindik Inperio-lurretan, eta Boemi'n da Morabi'n batez ere, Ogeitamar Urteko Guduak egindako erailketa, ondamen, eta gaitz ikaragarriak anai guzti aien oroimenean bizibizirik zirautelako. Ala esan oi zuan Konte biotz-berak: "Teologia? Teologia deabruaren asmikizuna besterik ez da"

Eraspenezaleen artean, ez biurrienak bear bada, baiña bai zaratsuenak Inghlanderrian sortuak izango dira noski. Aipa ditzagun ospetsuenak: "Ranters" edo "Deiegilleak"; "Diggers", "Aitzurlariak", (nekazariz osatutako taldea); eta "Levellers" edo "Berdintzailleak". Auek dituzu ezagunenak. Batez ere gizakume guztien berdintasuna eskatzen zuten, legearentzat gizakume guztiak berdiñak izatea, eta ori lortzeko egiazko alderdi bat eratu zuten; Europa'n lenen alderdi politikoa. Bildurtu zuten Inghlanderriko Jaurlaritza eta indarrez izan ziran azkenean ezabatuak.

Baiñan izan zan Inghlanderrian bertan beste erabateko eraspenezale zintzorik aski.

Beste toki batean aipatzen ditugun "kuakertarrez" gaiñera, oroi ditzagun orain Jon Bungan'ek eraturako "Pilgrim's Progress" edo "Erromesaren Aurrerakuntza" izeneko talde pakezale onurakorra, baiña batez ere Jon Wesley'k sortutako "metodisten" Alkartea'

Jainkoaren egiazko maitalea izan zitzaigun Jon Wesley. The shadow of a catholic saint", deitu zion Newman Kardenalak: "Santu Katoliko baten antz-irudia"

Eliz Anglitarreko apaiza zan Wesley, baiña Laterriaren jopu zan Eliz aren kristaukera motza iruditzen zitzaiolako, beste eraspenezaleak bezala Elizatik-at, era berri bereizi baten billa asi zitzaigun. "Kristaukera biziago eta xamurrago bat" aurkitu nai omen zuan, aipatutako Newman Kardenalak dioskunez.

Egia da Zinzendorf'eko Konteak zeramazkian lanak Wesley'k eza-gutu zituala; ta, ezagutu zituala, baita're, beste eraspenezaleen saiaketak. Baiña ez zion orrek meriturik kentzen. Gaur-egun, protestalarien artean. Elizik bizkorrenetakoa da Metodisten Eliza.

Ez zuten, Inghlanderrian, jaiotzeko, bizitzeko, eta beren lana egiteko eragozpenik aurkitu eraspenezale-taldeek, aipatu ditugun erdi-anarkista aiek izan ezik. Eta aiek, orregaitik ain zuzen, anarkistak eta Laterriarentzat arriskugarriak ziralako izan ziran zigortuak, ez erlijio-era berri bar erakusten zutelako, lege zan bâ ordurako Inghlanderrian, Oliberio Cronwell ezkerko, erlijiorako askatasuna: askatasun betea darentzat; katolikoentzat ez gaiñeko guztientzat, jakiña!

Katolikoei bezala ukatu zitzaien askatasuna Alemani'tik etorritako sozinitarrei. Erejeak omen ziran oiek ere Trinitatea ukatzen zutelako, Jainkoa Pertsona bat bakarra zala oiukatuz'

Gauzak, Olanda'n, ez zira zearo berdiñak, ez zan bâ emen sekulan kalbindarren Eliza Laterriaren Eliza izateraiño goratu, ez bait zeuden

olandar salerosle bizkorrak, politikari dagozkionetan Eliz estu zimur aren menpean bizitzeko gerturik. Orregaitik, beste iñon baiño askatasun geiago izan zan Probintz Alkartuetan erlijio-mota guztientzat, katolikoentzat izan ezik.

Ala, ereji-talde danentzat babestoki izan ziran Probintzi Alkartu aiek: Alemani'ko sozinarrantzat, Frantzi'ko ugonoteentzat, Belxika ta beste baztar guztietako jantsenarrantzat, eta baita Portugal'etik, Poloni'tik eta Errusi'tik iges-egindako judutarrentzat ere. Eta judutarrak aipatu ditugun ezkerro, oroi dezagun Spinoza, eraspentzafetalden baten ats-emailerik bereziena izan zana.

Askatasun ori kontuan artzen ba'dugu, ez gera arrituko Olanda'n eraspentzaleen taldeak aneika sortu zirala entzuten ba'dugu. Baita erdikomunista ziran sasi mistiko aien taldeak ere; errez piztu ziran askatasunezko giro biguin artan. Katolikoentzat bakarrik zeuden an ateak itxirik. Katolikotasunak bakar-bakarrik ez zuan kalera agertzeko eskubiderik! Eta, Olanda'ko giroa kalbindarra bait zan, errez adituko duzu ortaz, zenbat aiñakoa zan orduan kalbindarrek katolikotasunari zioten gorrotoa'

Ari zan alatagutziz kalbindarren gogor#asun ura zartatzen, sartu bait zan aski sakon Argikuntzaren baretasuna Olanda'ko Eliz kalbinistaren barnera, eta, baita're, naiko poliki, deismoaren pentsaerak ere. Errez nabari zitekean laister zetorrela Olanda'n ere katolikotasunarentzat askatasun-eguna.

Aitortu dezagun pozik, atal au amaitzeko, on aundia egin zuala eraspezaletasunak, bere akats eta guzti, Argikuntzaren denboran; arrazoikeri utsaren erreiñu zan Argikuntza-giro aren barru otz legorrra sinispenaren argia eta biotzaren epeltasun biguiña sartu bait zitu.

Katolikoaren artean ez zan eraspezaletasunik sortu. Ez genduan, izan ere, aren bearrik izan, katolikoaren artean Argikuntzaren arrazoikeri oztak ez bait zuan sekulan eraspen kristauren berotasunik izoztu.

XVII mendean sortu zan Argikuntza, XVII'ean igo zan gaillurrera' Ara bâ: XVIII mende ortan ez zan erlijioso-erakunde edo istituto berririk sortu.

XVII'ean bai, eta ugari gaiñera, baiñan mende artan ez bail zan oraindik Argikuntza zabaldu, Birjaiotzako Eliza aztertzerakoan egin genduan Erakunde aien aipua.

XVIIi mendean, soilki Frantzi'n eta Iraultza bere unerik-gogorrean zegoanean sortu zitzaigun bateren bat, baiña auetaz bere to

kian mintzatuko gera.

Arrazoi beragaitik, Birjaiotzariburuz egindako azalpenean itze-
gin genduan XVII mendean ain bizkorra izan zan jentillen arteko mi-
xiolangitzaz. XVIII'garrenean ere jarraitu zuan, Elizarentzat garrantzi-
tsuena dan eginkizun orrek, baiña XVIII'goak motelagoa ematen du
XVII'goarekin eta bereala etorriko dan XIX'goarekin kidatzen ba'dugu.

Oker asi zan, Aulki Donearen erruz, XVIII'mendea mixiokuntza-
rentzat, 1704'ean galerazi bait zituan, Xi Klemente'k Txina'ko eta In-
dietako Oitukurak' Ogeita emezortzi urte geroago bir-indartu zuan berri-
ro, 1742'an, Xi Benedikto'k, Xi Klemente'ren debeku doakabe ura.

Itxirik gelditu zan orrela mixiolariantzat Txina'ko lurralde zabala.
Eta itxirik bait zueden Japoin'go ugarteak ere, Ebangelioaren otsik
gabe gelditu zan Urrungo Sorkalde guzia, bi Aitasantu aiek, asmorik
zuzen eta garbienarekin eman zuten pauso zoritzarrezko aren erruz.

Neurtu ezin aiñakoa da, Txina ta Malabar'eko Oituretaz idaztera-
koan azaldu genduan lez, mixioketari lege ark egin zion gaitza mundu-
ko errialde guztientzako, batez ere, Txina, Japon, andi eta Indotxina
bezala, jakintza zar dizdiratsuz aberatsak ziran errialdeentzako; atze-
rritarra biurtu bait zien erri aiei, berez nunnaikoa dan eta izan bear
duan kristautasuna. Baiña birjaiotzakoan mintzatu bait giñan "Oitu-
rea" arazoaz, bezaigu orain naikoa, bi Aitasantuek emandako lege ta-
malgarri aren erruaren zati galanta jantsenitarrei ezarri bear zaiela,
irakurleei oroituaraztea. Bizkor ibilli bait zan Frantzi'ko jantsenikeri zi-
potza oitura aien aurka lanean, jantsenikeriak ain bere duan estuke-
riak, eta Oitura aien aldeko ziran iñakitarrei zieten gorroto beltzak era-
ginda.

**Alatagutziz, jarraitu ziran Afrika'n Ozeani'n Indietan eta Indotxi-
na'n leen asitako ekintza guztiak.**

Indotxina'n beti izan da zailla eta martiriodolez betea mixiola-
rien ariketa, Tonkin'en batez ere' Ez ziran alperrikakoak gertatu, do-
mingotarrek, frantziskotarrek eta, Josulagundia ezereztua izan zan ar-
te, iñakitarrek Indotxina osoan egindako lanak. Ibilli ziran lurralde aie-
tan Paris'ko Atzerri Mixioetarako Seminarioko apaiz batzuk ere, eta
mixiolari aien guztien izerdiaren eta odolaren zitu dira lurralde aietako
kristau bikain ugariak. Ederki azi zan gaiñera an, XVII mendean,
Eliza. Begira dezaguñ adibidez Tonkin odoltsu zaillera. Mendea asi
baiño leentxeago, 1676'an, 300.000 ziran ango kristauak; 310.000 be-
rriz mendearen azkenean, 1800'garren urtean. Amar milla kristau ez
dira asko eun eta amabi urterako, baiña anitz asko dira eun eta amabi

urte oietan mixiolariet eta kristau arruntek jasan bear izan zituzten zi izugarriak kontuan artzen baditugu.

Gogor lertu zan Txina'n ere ekaitza mixiolarien aurka. Eraillak izan ziran batzuk eta atzerrira boteak gainetakoak. Mixiolariet gabe gelditu zitzaigun Txina osoa. Oroi ditzagun martiri edo zinoopen artean 1745'ean eraillak izan ziran Fukien'go domingotarrak; eta iru urte geroago (1748) Sotxow'n urkatutako inakitarrek. Urte ori ezkeru Katakunbetako Elizaren antzera lurpetu Eliza biurtu zan Txina'ko Eliza. Merezidute esker ona izkutuan lan eginaz an jarraitu zuten mixiolariet' Alpatutako 1748 artan amaika frantziskotar zeuden Pekin'go espetxean katigu' Txina'n gelditu zan Godofredo Lainbeckhoven Nankin'go gozai inakitarra ere. Ogeitamar urte egin zituan izkutuan, egunez Vantse-kian ibaieku txalupetan gorderik, eta gauet arrantzale edo nekazari jantziz mixiogintzan saiatuaz. Izan zuan, gizagaioak, agure zala, Aitasantuak bere Lagundi maitea desegin zuala jakiteku zori mingarria' Ez zan kukildu, eta lanean jarraitu zuan Artzai Onaren modura bere ardien artean.

Era berean ibilli ziran izkututik izkutura Zsetxuan'go mendietan, ordenaziot Gotzai ziran bi Bikario Apostoliku: Martillat eta Potier' Paris'ko Atzerri•Mixiaetaraku Seminariotik etorriak biak. Ezin aztuko dugu noski, milla bider arrigarria izan zan apaiz txinatar bat: Andres Ly.

Igaro gaitezen Sortaldeku Indietara. 1639'an Malaka, 1642'an Forartu zituanez gero, eta 1640'ean Inghlanderrria Madras'en jabe eta 1661'ean Bombay'rena egin zanetik, esan daiteke Indietan Portugal'en aala birrindurik gelditu zala.

Gaitz aundia egin zion orrek mixioketari, katolikotasunaren etsai amorratuak bait ziran jabe berriak. Ez ziran, alare, an ari ziran mixiolariak, —frantziskotarrak, inakitarrek, karmeldarrak eta oratoritarrak—, bildurtu, eta lanean jarraitu zuten zitu ederra bilduaz. Madure'ko mixioak bazituan 1700'ean eun milla kristau. An lan egin zuan Donibane Britto zinoopa ospetsuak, eta bost urtetan sei milla inditar bataiatu zituuala esan ci da' Bi milla bataiatu amen zituan berriz Maraba'n iru illabeteko epean, eta zortzi milla! urrengu urtean.

400 eliz bazituan 1717'an, 65 urte leenago Olandaka'ko kalbindarren mendean gelditu zan Zeilan'ek, eta 1743'ean bera zan Indietaku mixiorik sendoena.

Afrika'n eta Ameriketn ere ederki saiatu ziran ordena guztietaku mixiolariak, eta baita apaiz sekularrek ere.

Ameriketa bi zatitan banatu-bearra dugu orduango mixio-lana aztertzerakoan: oraindik jentilla zana, eta "kristauturik" zegoana, ots, España bezala eraturik zegoan zatia. Bigarren ontan orain guk uste baiño garra geiagorekin bizi zan kristautasuna. XVII mendearen erdirako bazituan Amerika'ren zati onek 6 Goigotzaigo eta 32 gotzaigo; bi Abadi, 3 Inkisizio, 840 praille-konbentu, 70.000 eliz baiño geiago, eta ezin zenbatu aiña ikastetxe eta ikastolatxo, aneika gaixotegiz gaiñera. XVIII mendea amaitzerakoan 34 ziran an elizbarrutiak.

Eukaristia eta Andre Mari'ren Sortze Orbangabea ditugu ango kristau aien eraspenik maiteenak, eta bere akats guztiekin egiazkoa eta benetakoa zan kristautasun arri, ez zitzaion mailla onuragarriko jenderik peitu. Bi euskaldun, olerkarien artean: Gurutzeko Sor Jone-Ines "Amargarren Musa" eta Rafael Landibar, "Ameriketako Birjilio". Euskalduna zan jatorriz Arze'ko Diaz teologilaria ere' Izan zituan Eliz arek Gotzai bikaiñak, baita're gotzai Santuak; eta arrizko ertiaren landan ez da iñon barrok-era EgoAmerikan bezain dizdiratsu ta eder agertu' Bitez esan dugunaren adierazle Kuzko'ko eta Mexiko'ko katedralak eta Pernanbuko edo Kito'ko eta beste ainbat eta ainbat lekue-tako jauretze bikaiñak.

Madrid'ko eta Lisboa'ko Jaurlaritzekin oso-osoan bat egiñik lan egin zuan Ameriketara Eliza'k. Ameriketako errien kulturik ez zuan ulertu ango Elizak. Are geiago: ez zuan ikusi ere egin! Oro zan an basatia, "salvaje", España'tik edo Portugal'etik joandako mixiolarieneztat, eta baita Kanada-aldean Frantzitik joan ziranentzat ere.

"Basati" asko gelditzen zan oraindik Argikuntza-aroan Ameriketako basoetan, eta ez ziran, mixiolarien ardura eta onginaiari dagokionez, azturik gelditu; España, Frantzi, eta Portugal'etik, erlijiosoen Anaidi guztiak, eta baita apaizak ere, ederki saiatu bait ziran "basakristautasuna aldarrikatzen' Nolako lan, neke, izardi eta eriotzen truke, Jainkoak bakarrik daki.

Ezin esango dizut "basati" aiek zenbat ziran XVIII mendean; ez bait dugu ortarako zenbaketa ziurrik.

Kolon Ameriketara iritxi zanean, gaurko Kanada eta Laterri Alkartuen lurralde guztietan ez omen ziran 1.500'000 inditar besterik bizi; 5.000'000, Mexiko eta Erdialdeko Amerika osoan. Ego-amerika danean berriz, 9.000.000 besterik ez' Guztira, Artik-itxasotik Antartik'ara, 15.500.000. Amabost milloiti t'erdi bakar-bakarrik! Badira kopuru au gorago, —500 milloira arte—, edo beerago, —8 milloitaraiño jaso ala jexti egiten duten edestilariak, baiña gaur-egun ziurrenak nik eman dizkizudan zenbaki oiek dituzu.

Argikuntzakoan ere oiek izango ziran Ameriketari bizi ziran inditar-
rak gutxi goraberrira: Amabost milloi t'erdia.

Itzegiteko berriz, 2.000 izkuntza ezberdin (bi milla!) erabiltzen
amen zituzten orduan Ameriketako jendeek. Bazan noski nun lan egi-
ña!

Izkuntza aiek ikasten ez zuten mixiolariak, geienak beintzat, neke
aundirik artu. Alentzat, izkuntzen ugaritasuna "obenaren ondorio bes-
terik ez zan". "Izkuntza basati aiek ez ziran kristautasunaren ederta-
suna adierazteko gauza". "Gaztelera zan ortarako izkuntza egokia".
"Izkuntza probidentzizkoa", ots, «Jainkoak ortarako naita aukeratua»,
leen, kristautasuna Europa'n zabaltzeko, latera aukeratu zuan beza-
la". Batere lotsaren apurrik ere gabe idatzi zigun ori dana Lorenzana
Mexiko'ko Goigotzaiak gutun pastoral batean.

Ez zaitez ala're Gotzai españiar sutsu arekin asarretu. XVIII men-
dean ez zan oraindik etnologiarik sortu, eta izkuntzei ez zitzaion gaur
guk ematen diegun baliorik ematen; eta ez aztu, zure gaurko oldozke-
rarekin ezin dezazkezula epaitu orduan beste oldezkerak batekin ari-
tzen ziran gizakumeen itzak eta ekintzak.

Okerragoa da Lorenzana'k mixiolariak dotriña inditarren izkuntze-
tan erakusten galerazi zuela, eta ortarako gaztelera erabiltzera beartu
zituala. Ortan seguruaski Goigotzaiaren españizalekeria zebillen ar-
ro. Españiarrak beti uste izan bait dute kristau izkuntza bakarra, egiaz,
gaztelera bakarrik dala. "Mintza zaitez kristaueraz, oiur egin izan diote
beti beste izkuntza batez mintzatu diran guztiei. "Habla en cristiano"!

XVIII mendean gaiñera, abertzaletasunaren adigarritzat zeukaten
gaztelera España'ko "argituek" Gaiztotzat zeuzkan Jovellanos berak
"gaztelera, jakintza-gaiak erakusteko eta ikasteko, ona ez ezik onena
ere bazala uste ez zutenak": ("No solo buena sino la mejor para dar y
recibir las ideas científicas"). Ala uste izan zuten Euskalerrian bertan
Peñaflorida'ko Konteak eta arekin ziarduten "Lurralde ontako Lagu-
nek". Inor ez bezala saiatu ziran latera baztertuta Unibersitateetara
gaztelera sartzeko, lanean, eta gaztelera ipiñi zuten beren Bergara'ko
Seminarioan ere. "Amagandiko izkuntza", "lengua materna" esaten
zioten gaztelerrari'

Bada Araba'n, Ibero ibaietik ez urriti, Armiñon deritzan erritxo
bat. Eta bazan dirudianez Armiñon'en jakinduri aundiko gizakumeren
bat. Bergara'ko Seminarioan euskera ipiñi bear zala idatzi zien armi-
ñondar arek gure "Lagun" argituei, Euskalerrian Amarengandiko Iz-
kuntza gaztelera ez baiña euskera zalako' Bai al dakizu zer erantzun
zioten zalduntxo argitu aiek: Euskera, etxe-barrungo izkuntza zala,

"lengua domestica"; Amarengandiko Izkuntza ordea, "la Lengua Materna", gaztelera zala emen ere!

Euskaldun batzuk beren Euskalerrian euskera beren izkuntza ain gutxitzat, eta gaztelera izkuntz arrotza ain aundizat etsitzen ba'zuten, nola arritu gindezke Lorenzana eta gaiñerako mixiolari españiar danak, beren izkuntza goratzen eta inditar izkuntz arrotz aiek ezezten ikusten baditugu?

Alatagutziz, eta XVIII mendeko jendeari orduan oartu ez zitekean gauzetaz kontuak artzen asi gabe, merezi dute mixioalari aiek gure esker ona. Elizaren aldetik eta baita gizadi osoaren aldetik ere zor zaie omenik zindoena, inditar gaixoen alde egin zuten lanagaitik' Oroi dezagun Brasill'en. —inditarrak ere, beltzak bezala, jopu edo esklabu biurtu nai zituzten portugaldarren aurka—, inditar aien askatasuna lortzeko mixiolariiek jasan zuten borroka. Garaille jrien ziran zorionez borroka ura asi ta aurrera eraman zuten mixiolari iñakitarrak, Jose I Erregeak 1755'ean inditarrak gizakume iareak zirala legez erabaki zuanean. Oroi ditzagun, Paraguai'koak aipatu ditugu-ta, Kaliforni'n lan egin zuten iñakitarrak ere, Salvatierra, Ugarte, eta Rolandegi euskaldunak batez ere. Ain zuzen Rolandegi izan zan Beeko Kalifornia erdi-ugarte edo penintsula bat zala aurrena oartu zana, eta albiste ori Madrid'ko Jaurlearitari eman ziona, egiazko lur-idorotzaille eta erri-sortzaille izan hait ziran mixiolari aietatik asko. Ala' Goiko Kaliforni'n, Junipero Serra eta bere anai frantzikotarrak. Frantziskotarrak izan ziran, inditar•apatheen lurra ainbeste izerdi ta odol ixuriaz kristautu zutenak. Frantziskotarrak, baitare, naiz buruñurdunak, Antilla Txikietan eta Benezuela'n ari izan ziranak. An, —eta Filipine 'an, beste Anaidietako erlijiosoekin batera—, ibilli ziran domingotarrak eta agustindarrak ere.

Egin zan lan Afrika'n ere, naiz XVIII mendean motel xamar ibilli, an, XVII'ean, ain bizkorki asi zitzaigun mixiokuntza. Ez zan. ala ere, lan eder ura gelditu. Zerbait auldu eta gutxitu, bai; baiñan ez ordea geldi tu! Ondo balio duala iduritzen zaigu XVIII mendeko Afrikarentzat, eta baita orduango mixio-lur guztientzat ere, españiar edestilari batek Madagaskar'ko mixioetaz dioskuna: "Ei siglo XVIII fue de silencio; casi de muerte. Hubo algunas tentativas infructuosas. El triunfo habia de ser del siglo XIX". (Montalbàn')

Badu XVIIil mendeak, Elizaren edestirako, neguaren antza. Eliza ez da sekulan ilko, illezkorra bait du biziematen dion Ats Gurena; baiñan badirudi, aldi batzuetan, izadia neguz bezala, loak arturik geldi

tzen zaigula' Neguz ez da 1111k egoten izadia, lo baizik; eta indartsu ta kementsu berbizten zaigu Lorez ta zituz beterik udaberriero. Alaxe berbiztu zitzaigun Eliza ere, bizkor eta lori, XiX mendea iritxi zanean'

Era berdiñean egon zan len ere lo. X mendean, —"Burnizko Mendean"—, eta era berdiñean esnatu zan berriro, zoli, eskolastikaren aroa loratu zanean; edo XIV'go "nominalismo" izoztuaren atzetik XV'go eta XVI'go Birjaiotza sortu zanean.

IRAULTZA-AROKO ELIZA

Frantzi'ko Iraultza Nagusia ez zan Iraultzen aro artan aurrekoa izan, ezta ere azkenekoa, baiña bai osperik aundienekoa, eta Europa'ren gorputzean, —Napoleon'en bitartez batez ere—, arrastorik sakonenak laga zituana.

Frantzi'ko Iraultza Nagusia, Frantzi'ko bizitzaren puskatze bat izan zala, pentsatu oi da maizegi, eta ori ez da egia. Gogakizunen mailan, Iraultza Nagusia, Argikuntzaren ondorio zan; erlijioarenean, galikeriaren elburu garaiena; politikarenean, berriz, Iraultza, Borboitarren despotikeriaren gaillurra besterik ez zan izan, Robespierre eta Napoleon'en denboretan batez ere, orduan igo bait zan Frantzi'ko Iraultza bere erpiñera'

Iraultzen aroaren egunsentia. 1685'etik 1688'ra, Inghlanderriko "Aintzakorra" esan oi zaion Iraultza izan zan. Egia da borroka artan Parlamentua, ots. burgesia irten zala garaille, baiña alatagutziz iraultza ark Inghlanderriko Erregeen despotikariari neurriak ipintzen bait zizkion, esan leike, Demokraziaren bidetik, aurreruntzko urrats eder bat izan zala: bigarren urratsa.

Aurrenekoa, askozaz leenagokoa dugu: 1215'eteko Ekaiñaren 23'an "Lurrik Gabeko" Jon Inghlanderriko Erregeari "Carta Magna" edo "Gutun Nagusia" izenpetuarazi zion Iraultza. Monfort'eko Simon izan zuan borroka arek buruzagi, eta pozgarri zaigu euskaldunoi Inghlanderriari aurreneko Demokrazia eman zion iraultza artaz Webster edestilariak diona: Alegia, Demokrazi ura edatzeko, Euskalerriko Lege Zarra euki zuala Monfort'eko Simon'ek erudutzat. Emen Euskalerrian ikasi zuala demokrazia zer zan.

Ba#eiken gauza, Laburdi eta Zuberoka Inghlanderri'ko Erregea izan bait zuten erdiaro artan Jaun, eta emen, bere Erregearen ordezkari, egona bait zan Simon Monfortetarra. Eusko-Demokraziaren alaba dugu beraz Inghlanderriko Demokrazia. Baiña bien arteko ezberdintasun batekin: Askoz ere zabalagoa, naraogoa, sakonagoa, oparagoa zala Euskalerriko Lege Zarra Inghlanderri'ko Carta Magna baiño.

Baiña txikia bait da Euskalerra eta oso gutxi ezagutua izan bait da bere biziera, Demokraziaren bidean egiazko urratsa, mundua demokrazia eraman zuana, Iparramerika'ko Iraultza izan zan, 1766'ean Laterri Alkartuei askatasuna eman zien Iraultza' Ogeitabi urte geroago Frantzi'ko Iraultzak ez zuan Ameriketakoak lortu zuana nardaskatu ta iguingarri biurtu besterik egin'

Itzuli gaitezen ordea, Eliza iraultzen aroan nola ibilli zan ikusten asteko, Inglannderrian "Aintzazkoa" esan zitzaion Iraultzara: "The Glorious Revolution" Izan ere, borroka ura, gizarteko iraultza ainbat izan bait zan erlijio-gudua, ots, protestalariet II Jakob Stuart Errege katolikoaren aurka egindako gudua; esan ere esan daiteke b̄a Cronwell garbikeri zaleak asi zuan borrokaren jarraipena izan zala'

Kolpe batez, katolikotasunari, —berbizitu naiean zetorren Inglannderriko katolikotasunari—, eta Erregearen despotikeriari, eraso zien "Aintzazko Iraultzak"

Despotikeriaren aurkako borroka lez, erregea buru zuan demokrazi bat erditu zuan' Ikus dezagun, erlijio-guda lez nolako giroa sortu zion Elizari.

Ez ziran asko, Irlanda'tik at, "Jaurerri Alkartuko" katolikoak: Eunetik bost—,(% 5)—, XVIII mendearen asieran. Gutxitzen joan ziran ordea-ta, larogei urte geroago eundik bat —,(% 1)—, besterik ez ziran. Au da: 100.000 bakarrik, an bizi ziran 10.000.000'ren artean.

Geiago ziran Ezkozi'n: eundik amar, —(% 10); 1.300.000 biztanleen artean 13.000; eta orrela, batere gutxitu gabe jarraitu zuten Argikuntza-aro guztian. Agian, indartu eta ugaritu ere egin zitezkean, 1745'ean Stuard'arrek ostera erregetza berenganatzeko sortu zuten guda zorigabe artan sartu ez balira; apaizgaientzat ikastetxe bat irikitzeraino ere iritxi bait ziran! Baiña galdu egin bait zuten Stuard'arrek guda, Knox'en denboran bezala zigortuak izan ziran ostera, itxia apaizgaien ikastetxea, eta erbesteratua, "Stuard'arren aldeko guda Jainkoak nai zuan gauza zala" aldarrikatu zuan Highlands'etako Bikario Gotzaia. Zigorketatik iges egitearren, Ipar Ameriketara aldegin zuten katolikoek ugari.

Irlanda, Ulster'eko lau konterrietaz landa, katoliko zan osoro, naiz anglikandarrek, aurrena, eta gero Oliberio Cronwell'en "puritans" eta garbizaleek, katolikotasuna ezerezteko al zituzten guztiak egin.

go mendean 1641'eko matxinadan 600.000! seme galdu zituan Irlanda txiki, menderakaitzak. Ondo ezaguna da Oiberio Cronwell'ek jeikitze ura zigortzeko erabili zuan ankerkeri odoltsu nardagarria' 1690'ean, Mari II'a Stuard, eta bere senarra, Guillermo III'a Orange, errege zirala, "Jaurerri Alkartuaren" barrura osoro sartua izan zan, indarrez, Irlanda, Limerik'eko Itunaren bitartez.

Ez zan noski erreza, Britani Aundi ta Irlanda'ko Jaurerri Alkartuan, katolikoentzat bizia. Legez, danak Laterriaren otsaiak ziran, eta ez arrazoirik gabe gaiñera, Donepio V'ak, zoritxarrez, 1570'ean argira eman zuan "Regnans in Excelsis". "Goitiko Erregetza duanak", deritzaion Buldaz, Jaurerri Alkartuko Errege protestalarie ez obeditzea agintzen bait zien' Eta eskomikaren zigorpean agindu ere!

Britani Aundi guztia mixio-lur bihurturik gelditu zan. 1623'an izen-datu zuan Erroma'k Inghlanderrirako, aurreneko Apostolutza-Bikarioa; 1650'ean Eskozi'rako, lenen Apostolutza-Prefektoa' 1687'an Inghlanderrria lau pusketan zatitua izan zan: Londres, Midland (Erdialdeko Lurrak), North (Iparra), eta West (Sarkaldea)' Zati bakoitzaren buruan Bikario bat izan zan ipiñia. Ain zuzen, Elizaren ber-edatze au, Jakob II Stuard'ek katolikoatasuna bizkortzeko zerabilkian asmoaren atal bat zan; eta urrengo urtean, 1688'an, Jakob II'aren aurka jeikitako "Iraultza Aintzakorra" sortuarazi zuten arrazoietako bat ere izan zan.

Borroka artan katolikoak Jakob II'aren alde ipiñi ziran, eta onekin batera izan ziran izkilluketan menderatuak. Ala-ta guztiz, onurakorra izan zan Iraultza Aintzakorra katolikotasunarentzat. Iraultza ura ez zan protestalaritzaren gurenda bakarrik; demokraziaren garaitza ere izan bait zan, naiz demokrazi ura ego motzekoa izan.

Ordurarte katolikoek bizitza Elisabet I'aren "Zigor-Legeen" mendera zegoan. Ara "Zigor-Legedi" aren atalik nagusienak:

—Aitasantuak Inghlanderriko kristau baten gaiñean edozein motako eskubiderik bazuala aitortzen zuan guztiarentzat... eriotza.

Erregea Inghlanderriko Elizaren "Supreme Governor", "Jaurle Nagusi", ez zala zion guztiarentzat... ondasun guztien galera eta bizitza guztirako espetxea. (Ikusi daitekeanez, lege au anglikan ez ziren pro aurka ere bazijoan).

—Laterriaren Elizako mezara igandeetan joaten ez zanarentzat..., "Shelling" baten isuna, diru-ordainketa, "toties quoties": mezara joaten "ez zan bakoitzean". Langjlle batek igandetik igandera iru "shelling", bakarrik irabazten zituala kontuan euki ezkerro, igande bakoitzeko diru galtze ori, bere sinispidean tinko jarraitu nai zuan katoliko

edo kalbindar guztia gosera ta eriotzara beartzea zala, esan-edo leike.

—Sinispideari-buruzko kezka batengaitik, edozeiñek eraman zezakean edozein, epaimai baten aurrera'

Protestalarientzat Idazti Donea ulertzeko askatasuna Sinismenaren "oiñarri nagusi" bakarra dalako, "Eliza Institutzioak" ez du aientzat guretzat aiña garrantzi. Orregaitik, "eliz" batekoak errez joan oi dira, kontzientziko kezkarik gabe, beste "eliz" bateko billeretara. Katolikoentzat zan bâ bereiziki, lege ura samiña. Ta baita, "Puritans" zintzo aientzat ere. Amerika'ra joan ziran auek, zigorretik iges'

1688'ko "Iraultza Aintzakorrak" ez zuan legerik aldatu, baiña bai zigorrak arindu. 1688'an bertan emandako lege berriak Erregea Elizaren buru zala aitortu nai ez zuanari, zigor au ematen zion: Izkillu bat eramateko debekua; bost liberatik gora balio zuan zaldi baten jabe ezin izatea; etxetik bost leguaz aparte, baimenik gabe, ezin joan izatea; notariotzarik eta medikutzarik ezin egin izatea, eta parlamenturako autaketan parterik ezin artu izatea. Bazan noski naikoa; baiña oso gutxi, alare, "Erregiñ Birjiña"ren ankerkeriarekin kidatu nai ezker. Oroitu bezate gaiñera protestalarien zipozkeria ain gozoki aizatu oi duten katolikoek, garai ura arte ez zala, Lurralde Beekoetako Probinzi Alkartuetaz kanpo "Iraultza Aintzakorra"tik irtendako Jaurreri Alkartua bezain Laterri zabalik izan. Ezta Enrike "Naparra"ren Frantzia ere, naiz antziñako edesti guztian ura bezain agintari jasankor eta amore-mailerik izan ez' Baiña emezortzigarren mendean bertan Españi'ko Karlos III'aren Laterrietan —"agian Azkoitia'ko Zalduntxo" eta auen jarraile "argitu" onuragarrietaz landa—, t,Nor zegoan protestalariei zabaltasun osoa emateko prest?; INor zegoan 1688'ko "Iraultza Aintzakorrak Inghlanderrian eman zuan aiña emateko gertu?.

"Aintzakorra"ren emaitzarik garrantzitsuenak, ala ere, demokraziaren eredu ez diran, bi lege auek izan ziran: "The Tolerance Act", "Jasanpenari buruzko Erabakia", Trinitatea ukatzen zuten Sozinitarreri eta Katolikuei ezik, beste ErljioTalde guztiei askatasun osoa emanaz. Eta, "The Test Act" edo "Proba-Legea", gudarozten graduak artzeko edo Laterrian edozein kargura igotzeko Anglitar Elizako Eukaristian jaunartzea eskatzen zuana.

Auen antzekoak izan ziran ondorengo iru Erregeen denboran eman ziran legeak: despotikeriz eta Eliza Katolikoarenganako gorrotoz beteak. Iru Errege oien izenak: I Ane, Mari II'aren aizpa, (1702-1714) I Gorka (1714-1727), eta II Gorka (1727-1760), azkeneko bi auek Hannovertarren sendiko aurreneko Erregeak'

Legedi gogor orren arrazoia, katolikoak, buruntza galdu zuten Stuard'arren alderdiko ziralakoaren ustea zan; ez noski mamirik gabe-ko ustea, buruntza galduta ondorean ere Stuard'arrek aukeratzen bait zituzten Irlanda'ko Gotzai katoliko izkutuak, eta 1745'ean Eskozi'n Karlos Eduardo Stuard erregetza bereganatzeko burrukara sartu zanean, bere alde atera bait ziran katolikoak, eta, gaiñera, "Donea" egin bait zuan matxinada ura, Ugo Mac Donald, "Highlands", "Lur-Garaietako", Bikario-Gotzaia.

"Prefectura Apostólica" bat besterik ez zan Eskozi XVI mendea ezker. "Aintzakorra" ondorean, 1694'ean Bikariotza egiña izan zan, eta baita geroxeago bi zati egiña ere: Highlands edo Goierriko Bikariotza eta Lowlands edo Beterrikoa.

Astiro astiro, Argikuntzaren gogaeten zabaltasuna gizakume jakintsuen buruetan eta biotzetan sartzen zijoan neurrian, joan zan an katolikoentzat biziera, errezeagoa eta eramankoiagoa egiten ere' Gogorak ziran legeak, baiña ez bait zituan iñork betearazten, bazuten katolikoek, zalapartarik gabe egiñ egezker, beren Jainkogurketa egiteko lain eskubide. Eskozi'ko Glasgow eta Edinburg'en gertatutako otoitz-tokien erretzeren bat edo beste aantzi ezker, pakean bizi izan ziran Britania Aundi'ko katolikoak.

Jende arrunta ziran danak, garrantzi gutxiko jendeak. Politika bi-detik osoro bazterturik egon bearrak fedea ukatzera eraman bat ziztuan ordurako aitoren seme ziranak. Ala igaro ziran Anglikerira, amasei ta amazpigarren mendeetako estutasunetan katoliko sendo izandako Norfolk, Shrewsbury, Beaufort, Bolton, eta Richmond, jatorriko dukeak, eta konte ta beste aristokrazimailletako sendi asko; eta baita Swimburg'etarrak eta Shelley'tarrak bezelako burgesikume asko ere. Zigorketa gorria baiño arriskugarriagoa bait da iñork jaramonik ematen ez dion artalde batean gelditu bearra' Jende langilleak, jende arrunta eta dirurik gabeak jarraitu zuan Eliza-baitan, eta jendetxo au ere ttanttoka-ttanttoka, len aipatu dugun bezala, Anglitasunera zijoan' Osoro utsik geldituko zan, noski, Eliza Katolikoa Inghlanderrian, XVIIl'aren azkenean, Irlanda'tik, aurrena, eta Frantzi'tik igesi gero, etorri zitzaion jendea izan ez balitz.

Kulturaz ere urri zebillen Eliz ura; Baita apaizen eta Bikarioen maillan ere; ez bait ziran auek apaiz eta gotzai anglitarren neurria iristen'

Bikario danak, ordenazioz, gotzaiak izan ziran. "In partibus infidelium", tituloz, "sinisgabeen mendera jausitako lurraldeetako" elizbarrutiren bateko Gotzaiak. Izan zituan, ala ta guztiz, Inghlanderriak,

onespen aundia irabazi zuten bikario eta apaiz batzuk' Gutxi baña txit aipagarriak:

—Rikardo Challoner (1691-1781), salerosle presbiterizaleen sendi baten altzoan jaioa; urne zala ama alargunarekin batera biurtu zitzaizgun katoliko. Douai'ko apaizgaitegian egin zan TeologiDoktore. 1741'ean izendatu zuten Londres'ko Bikario' Gizon santu eta askojakiña, liburu sorta ederraren egille izan zan. Bereak dira: "The ground of the Old Religion", ("Erlijio Zarraren (Marria)", apologetika-lan bikaiña; edestiaren barrutian, "Britannia Sacra" ("Britania Donea") eta "Memoirs of Missionary Priests", (Apaiz Mixiolârien Oroitzak); aszetikarenean, berriz, "The Garden of the Soul" ("Gogo-Lorategia"), gizaldi askotako otoiz liburu kuttuna; eta "Meditations for every day of the year", ("Urtearen egun bakoitzarako Otoiz-IsiiGaiak").

—Gorka Gay, 1778'tik 1805'era Low Lands'etako Bikario izana, eta Eskozi'ko Elizaren askatasunerako lana bizkor egin zuana' Au ere, apaiz egin aurretik protestalari, presbiterutarra, izana zan.

—Merezi du aipu on, 1764'ean "Sartaldeko" edo "West"eko Bikario izandako Aita Walmesley lekaide beneditarrak' Matematikalari ospetsua zalako, "Royal Society" berberak Batzar ospetsu artan batzar-kidetza eman zion'

—Apaizen artean, Ugo Tootell, (1672-1743), oso liburu ospetsu baten egillea: "Church history of England from the year 1500 to the year 1688 with lives of the most eminent catholics", ("1500'etik 1688'arteko Inghlanderriko Elizaren edestia, eta bertako katoliko garaienen bizitzak"), oraindik ere denbora artako gertakizunak estudiatzeko idazkirik garrantzitsuenetakoa. Tamalez, beste gai guztietarako duan egiztasuna, Josu-Lagundiaz ari danean galtzen du, iñakitarren etsai beltza bait zan' To!, noraiño sartu zan Loiolakoaren semeenganako ezin-ikusia.

Badu, —bai noski!—, Tootell Apaiz Jaun goresgarriaren eziñikusi orrek arrazoi mardula, Inghlanderrian ere, —Olanda'n eta beste bazter batzuetan gertatu izan zan bezela—, iñakitarrek alde batetik, eta Bikarioak eta apaizak bestetik muturturik bait zebiltzan. Erlijioso danak, gotzaien jurisdizio edo aginpenetik iare zirala oiu zegiten. Bikarioek, berriz, beste mixiolari guztiak bezala erlijiosoak ere beren esanera egon bear zutela esaten zuten, mixio bakoitzaren buru, Aitasantuen Ordezko bezala, bertako Bikarioa zalako. Orrela ipiñi ezkereragiak dirala gauzak ematen du' Baiña, auziaren koxka, batzueragintarritza eta besteen iaretasuna non asi ta non amaitzen ziran jakitea zan.

Apaiz Jaunak ederki konpontzen ziran beren Bikarioekin, eta iguingarri zeritzaien erlijiosoen arroxkokeria, bear bada Bikarioen geiegizko agindu-naia iksuten ez zutelako, edo-ta Apaiz Jaunek erlijiosoen aldean beti sentitu izan duten aundiagotasunagaitik. Tootell ospetsua ere'..., Apaiza izaki.

Iñakitarrak ziran gaizkiena ikusiak Inghlanderriko norgeiaoka txoroxko artan; arroxkoenak ziralako; eta baita ugarienak ziralako ere. "Ugarienak"... , erlijiosoren artean, lurralde arriskutsu artako mixiolaririk geienak, askoz eta askoz, Apaiz Jaun sekularrak bait ziran.

Ona orduango Inghlanderriko mixiolarien zenbaketa:

- Karmeldarrak; bat edo beste.
- Domingotarrak; 12
- Frantziskotarrak; 30
- Josulagunak...; 70
- Apaiz Jaun sekularrak; 250. Egia esateko, 250'etik gora.

Guztira 300 ziran, meza-emailleak, jaupariak, Inghlanderri guztirako. Gutxi; eta aiek beren artean asarretuak.

Zenbaketa oiek 1716'koak dira. Mende orren amaiean, Eskozi'ko mixilari guztiak, ia danak apaiz sekularrak, 40 ziran. Irlanda'n, 1732'an, baziran 1500 apaiz, emen ere, geienak sekularrak. Erdi-izkutuan ematen zuten meza ugarte osoa-zear zabaldurik zeuden berderatzireun isillezko "mezategietan"

Mixiolarari oiek danak gizon benetakoak ziran, langilleak, txirotasun eta estutasunik aundienean bizi ziran gizonak, santuak, martiriak sortzeko egokia dan mamiz egiñak. Atzerrian egin bear izaten zituzten ikasketak' Belxika'n batez ere erlijiosoak; eta Apaiz Jaunak, Erroma'n, España'n eta geienak Frantzi'n, Saint Omer'ko Seminarioan edo Gillermo Allen'ek eraikitako Douai'koan.

Atzerrian ezi bear-izate orrek bazituan bere arriskuak, garai artan Europa'ko Seminario katolikoak zituzten akats eta mozkeri guztiak berekin eramaten bait zituzten mixiolariek Jaurerri Alkartura. Orrela Eskozi'rako mixiolarientzat Paris'en antolatu zan ikastetxea jantsenkeriz kutsutua egon zalako' Eskozi'ko katolikotasuna extua ta gogorra izan zan, inguruan zigortzaille zeukan kalbinkeria bezain extua ia-ia.

Zorionez, Argikuntzaren lasaitasun osasungarriak kendu zion Eskozi'ko Eliza katolikoari, emezortzigarren erdia ezkerero, zapuzkeri orren kiratsa.

Benetan izan zan Arginkuntza, aro eder berri baten sorkuntza Jaurerri Alkartuko katolikoentzat.

Argikuntzak, Gizakume ororentzako begirunea erakutsi zion In-
glanderri osoari. Argikuntzaren seme izan zan Masoitza, eta masoi-
tzak ez zien Logietako aterik katolikai isten. Gotzai "anglitar" geie-
nak, berriz, masoiak izan oi ziran, katolikoen onerako.

Argikuntzaren ikurra Askatasuna zan, eta askatasunak kristauen
sekulartzea ekarri zuan berekin. Laterri katolikoetan lege-egille ta po-
litikalariek, Erroma'ko kuriatik urruti, erlijioa beren-irudira antolatu
nai izan zuten bezala, Inglanderrian ere Laterri-gizon "argituek"
beren-kasa eratu nai izan zuten, Legezko Eliz Anglikandarraren uztar-
petik iare, erlijioen biziera.

Orregaitik, Inglanderriak Kanada osoa 1763'an bere-egin zua-
nean, inoren osteketarik gabe askatasun osoa eman aal izan zion
Londres'ko Jauraritzak Eliza Katolikoari. Eta, azkenik, Argikuntzaren
arnari, —eskierki ederrenetakoa, eta politikarako garrantzitsuena—,
izan zan Ipar Amerika'ko Laterri Alkartuen sorkundea; eta 1776'aren
Uztailleko 4'ean gertatu zan sorkunde antan ikasi zuan Jaurerri Alkar-
tuak, bere larrutik ikasi ere, politikaren eta erlijioaren arloetan, aska-
tasuna, jendeai, eta Elizei, eman zezaliekian, eta eman bear zitzaien,
gauza zala.

**Ipar Ameriketako iraultzak aldatuarazi zituan, ikusiko dugun be-
zala, Jaurerri Alkartuan eta beste toki askotan, politika-bideak, eta be-
ra izan zan, baiki, Iraultzen Aroaren egiazko asiera.**

IRAULTZAREN ITURBURUAK

Izan zan Argikuntzaren amaiean Iraultza-aro luze bat 1775'etik 1849'ra. Ekaitz izugarri ura Europa'ren sarkalde osora eta Ameriketa guztietara zabaldu zan. Orregaitik, gaur edestilariek, "The Atlantic Revolution" edo "The Western Revofution" esan oi diote: Iraultza "Atlantiarra", "Sarkadetarra".

iraultza orokor aren erasorik gogorrenak auek izan ziran:

1775'etik 1783'ra, Ipar-Amerika'ko Iraultza'

1781'ean Kolonbi'n lertu zan iraultza'

1781'etik 1782'ra, Inghlanderrian matxinadak.

1782'an, Jenoba'ko Errepublikan agertu zan Iraultza nun-naitar ura.

1787'tik 1790'ra, Belxika'n'

1792'an, Belxika'n bertan berriro.

1792 artan, Alemani'n.

1795'ean Olanda zegoan iraultzan sartuta'

1796'ean Itali'ko Laterri batzuk.

1798'an Suizi.

1806'ean Ego-Ameriketako errialdeak sartu ziran iraultzara.

1830'ean, ostera Frantzi.

1842'an, Europa'ko Laterri geienak.

Napoles'en ilbeltzean asi zan azkeneko urte ortako zalaparta latz ura. Laister igaro zan Itali'ko uri geienetara. Otsaillean Paris jeiki zan, eta matxinada ontan galdu zuan erregetza Louis Felipe'k. Paris'en atzetik, Inghlanderria naaSi zan berriz; eta gero Belxika; eta Suizi. Ondorean, Biena altxatu zan Metternich jaurtzatik botatzeko. Gero, Ungari, Alemani, Frankfurt'eko uria; eta azkenean, urduritu zan Prusi astun patxadatsua ere.

Europa'ri dagokionez, esan leike aurreneko Iraultza-Aro au 1849'an amaitu zala; emeretzigarren mendean anarkizale eta Marxitarrek sortuko dituzten matxinadak, beste landare-mota baten zituak bait dira.

Aurreneko Iraultza-Aroak aldaketa izugarriak egin zituan Sarkai de guztian; baina borroketarik ezagutu ez zuten errialdeetan ere, bere izpiritua Atlantika-ren bi aldeetara edatu bait zan. Iraultza sakon aren sustraiak?

—Olagintza eta langintza guztien makinizatzeak, eta ortik sortutako, salerosketaren indartzeak, aberastu zuten burgesdia; Orregaitik, eta une berean liberalkeriaren dotriñari eskerrak politikarako erne-tu zalako, beretzat artu nai izan zuan burgesdi argi eta yayo arek Late-riren gobernutza.

Nekazariak ere, "argituek" erakuskintzan egin zuten lana on-dorioz, esnatu egin ziran'.., eta berentzako nai zuten lantzen zuten lu-rra.

1730'a ezkerro, berriz ere "argituen" ekintzari eskerrak, erriaren osasuna arras obeagotu zan; 1715'etik 1800'era Europa-ren jendetza bi aldiz aundiagoa izatera iristeraiño. Baiña giza-ugaritze au batez ere urietan egin zan, ola-uri berrietan; eta lantegien inguruetan sortu zan langille-mordoak izugarritzko problemak sortu zituan; gosetik igesen-gibearraren arazo berberatik asita. Eta non lo-egin eta non biziaren arazoa; ta jantziarena, garbitasunarena, osasunarena, umeen azitzea-rena, langilleen deretxoena...

1770'aren inguruan ikaragarritzko krisis eta estualdiak gertatu ziran ekonomian, Ameriketara idorotako meatz berriak, batez ere 1730'a ezkerro Brasill'en billatutako urreak' inflaziora eraman bait zuan ludia. Gelditu gabe joan ziran gauzak mendearren bigarren erdian garestitzen eta garestitzen. Gero ta aundiagoa zan erriaren gosea, eta amorrazioa. Aristokraziak, —eta elizjende garaiak—, ikaraturik, beren bentajak eta eskubideak defenditzea besterik ez zuten pentsatzen.

Beste errietakoen aldean askoz zakarragoa izan zan Frantzi'ko Iraultza, problemak ere, alderik gabe, askoz zakarragoak bait ziran an: Frantzi'k zuan jendetzarik aundiena: 26'000.000 laterkide, 1789'an; Frantzi'k zuan, toki batean bilduta, jende-piliorik aundiena: Paris'ko uria. Aristokrazirik ustela eta zipotzena Frantzi'koa zan; beste iñon-go ba iño nardagarriagoa agertzen zan erriaren begietara Frantzi'ko Monarkia, edo "Bakalduntza": giartasunik eta mamirik gabeko azal-uts zuri puztua; beste iñon baiño garestiagoa zan Frantzi'ko "Bakal-duntza" ura. Eta ori; erri gosetuak bazekian! Frantzi'ko Elizak ez zi-tuan arazo oiek ikusi; eta ikusi zituanean, apaizak, Apaiz Jaunak, ba-karrik izan ziran ikusi zituztenak' Eta auek ere, berandu. Gotzaiak, ba-teren bat izan ezik, aldaketa ororen aurka egon ziran beti.

XVIIil mendearen erdia ezkerre, ikusi ahal izan zuten "argituek" "despotikeri argituaren" bidez ezer ez zutela lortuko, mundu guztian erregeak aldakuntza ororen arerio ziralako; eta Iraultzan pentsatzen asi ziran.

Errez eta laister zabaldu zan iraultzaren gurari irmo ura, gogapen zabalkunderako Argikuntzak ordurako sorturik zeuzkan edo berealaxe sortuko zituan Erakundeen bitartez: Oroi Europa guztiko "Ekonomi-Bazkun" aiek; eta "Lurgintza-Alkarteak", "Irakurle-Batzokiak", "Masoitza-Logiak", mota oroko "Akademiak" eta Ikastetxeak. Leibnitz filosofilariak aurrena, Berliñ'en antolatutako Akademitik asita, Boston'go Logiaraiño, —gure artean Munibe'k eratutako "Euskalerraren Adiskideen Alkartea" aztu gabe—, ugari ziran, eta azkarrak, Atlantik txasabaleko bi aldeetan gogapen berriak zabaltzen ari ziran Erakunde aiek'

Bitartean, Laterrien ekonomiazko larritasuna arintzeko, Europa'ko Erregeek ez zuten erriaren zergak jasotzea beste burutapenik idoro.

Ta orrela asi zitzaigun edestian. —zerga berrien zamak bultzata, ain zuzen—, Iraultzaren Aroa. Ipar-Amerika'ko 13 Kolonietan asi zan.

AMERIKA'ko IRAULTZA

Zearo ezberdiñak ditugu Ipar-Ameriketako eta EgoAmeriketako izaera eta jokaera. Asieratik izan ziran orrela, oso ezberdiñak bait ziran bi lurraldeetara joan ziran jendeak ere.

Iparrera, sendi osoak joan ziran, erlijio-askatasunaren billa, Ameriketako lurra landuaz bizitzeko asmo paketsuarekin. Ez ziran borroka-lariak. Nekazariak ziran: "Rangers". Emakumeek n joan ziralako ez ziran inditarren emeekin naasi.

Egoaldera, gizaseme gazteak joan zitzaizkigun; ez sendi osoak. Aberastu-naiak bultzata zijoazen aruntz. Ez ziran lan-egitearen zaleak, lur-arrapatzaileak baizik, "Conquistadores", lurrak berentzako artuta ango inditarrei !an egiñaraziz bizi nai zutenak. Emakumerik eraman ez zutelako bertako emeekin ezkondu eta naasi ziran.

Iparrekoak, Maryland'era joandakoak izan ezik, protestalariak ziran danak, "puritans", "garbikeri-zaleak", sekta edo talde ezberdiñetakoak, eta beren artean ere, —taldea taldearekin—, oso ederki konpontzen ez ziranak.

Ingländerriko askatasun-faltaren erruz asko sufrittu ondorean joan ziran Amerika'ra askatasunaren billa, baiña ez zuten berak ere Ameriketan besterentzako askatasunik zabaldu. Zipotzak izan ziran talde bakoitzekoak beste taidekoentzat; eta zipotzagoak oraindik, danak, katolikoentzat. Talde edo sekta bakoitzak bere kolonian, bat egin zuan Eliza eta Laterria, naiz Ingländerrian danak batasun orren erruz ainbeste neke ta naigabe jasanak izan.

Zearo atzipeturik zaude "Pilgrim Fathers" edo "Aita Peregrinu" aiek demokrazizko jendeak ziralara uste ba'duzu. Fanatikuak ziran, buru-beroak. "Guztientzako-askatasun-berdiñaren-zale" izatetik milla leguaz urruti zeuden. Protestalariak ziran, eta protestalaritzak ez du iñoiz iñor demokrazira eraman. Ori, mundua demokraziruntz eramate ori, XVII eta XVIII mendeetan, Argikuntzaren eginkizuna izan zan. Bai; egia da: Argikuntza baiño askoz leenago ezaguna zuan Teologi Katolikoak demokrazia, erkala, eta erkala-zaleak izan ziran gure teologilari nagusiak, Tomas Donea, Bitori'ko Frantzisko, eta Suarez, adibidez,

baña, tamalez, egi ori azturik zeukan Argikuntza aroko teologiak.

Geroxeago Ipar-Amerika'ko koloni aiek ain erkala-zale agertzen ba'zaizkigu, ez diogu orrengaitik protestalaritzari ezertxo ere zor, Argikuntzari baizik, azkar zabaldu, eta sendo errotu, bait zan an Argikuntza. Alatagutziz, anaiarteko gudu izugarri bat bear izan zan, lurralde eder artan, jopu beltzei askatasun eta, legez eta izenez bederen, "eskubide berdiñak" emateko. Legez eta izenez, oraindik, izatez, jopu beltz aien semeen eskubide eta almenak ez bait dira larru zuriko jendeek dituztenaren berdiñak' Laterritik Laterriera ere ezberdintasun aundia dago, gaur-egun oraindik, beltzen eskubide oiei buruz.

Eta orixe gertatzen zan asiera artan bertan ere, (naiz orduan Amerikaren Ipar-Iparrean jopu beltzik ez izan): askatasun orokoarren arloan ez zirala koloni aiek danak berdiñak. Rhode Island'ek adibidez esku zabala izan zuan eguneroko bizitarako sekta edo talde guztiekin. Ez zitzaion arlo ortan arazo latzegirik ere sortu ez baitzan an katolikorik bizi, eta protestalari aientzat auzirik gogorrena deabrukeri zikiñ uste zuten katolikotasuna bait zan.

Orregatik merezi du goratzarre bereizia kuakertarren Pentsilbani'k; asiera-asieratik egin bait zuan lege erlijio ororentzako begirunea eta askatasuna. Eta Pentsilbani'k beti kuakertarren eskuetan jarraitu zualako, bera bakarrik dugu Laterri Alkartuen jaiotzean Eliz guztientzat askatasun berdiña betidanik lege-legezkoa izan zuan Laterria'

Askatasuna guztiei eskeñiaz sortutako irugarren laterria Gorka Calvert katolikoak eraikitako eta onen seme Zezilio'k aurrera ateratako Maryland izan zan. Biak, Inlanderriak katolikoaren aurka zeramagian zigorketatik igesi joan ziran Ameriketara.

Gorka Calvert Baltimore'ko Baroia, protestalaritzatik katolikotasunera igarotako negozio-gizon bizkorra zan. Birjini'n antolatu nai izan zuan, aurrena, bera bezala Inlanderrietik bidali edo igesegindako katolikoentzat bizi-leku berri bat, baña muturtu zitzaizkion danak protestalari ziran birjinitarrak, eta alde egin bear izan zuan andik ere. Orduan, katolikoentzat ez eze, gizakume guztientzat ere, babes-kabi bat antolatzeke asmo bereziarekin 'Maryland' edo Marilanda'ko kolonia eratu zuan. Zezilio Calvert, Baltimore'ko bigarren Baroia, tajutu zuan Koloni gaztearen Konstituzioa, Marilanda sinispide guztientzat iaretasun osoaren aberri egiñaz. Orregaitik daramaki Laterriaren Uri nagusiak sendi onen aristokrazitituloaren izena: Baltimore.

Carlos l'aren erregetzan eraiki zuten Calvert'arrek Marilanda. Alia bataiatu zuten Carlos'en emazte Mari Erregiñaren izenarekin: Marilanda. "Puritans" garbizaleak Erregearen aurka, —eta Eliza Anglita-

rraren aurka ere bai—, zalapartaka zebiltzan garaia zan, eta eundaka igesegin bear izan zuten Erregearen justizi gogorretik Ameriketara. Asko askatasun osoa ain naroki eskeintzen zien Marilanda'ko kaietara' Ostera, Cromwell'en diktatura gogorra erortzean Stuardafrak erregetza artu zutenean, Ameriketara aldegin bear izan zuten cronwelldar fanatikoek. Baiña "garbizalerik" fanatikoenak, itxuenak, Cromwell'en aurretiko zigorraldietan igesegiñak izan ziran.

Agian asiera-asieratik katolikoak baiño geiago ziran protestalariak Marilanda'n, baiña, eten gabe etortzen ari ziranekin laister izan ziran askoz geiago, eta protestalarien eskupera jausi zan Laterria.

Agur katoliko ta lare jaio zan Marilanda'ren askatasuna!. Oliberio Cromwell Inghlanderrian diktatore zala, 1654'aren inguruan itxuski erabilliak izan ziran katolikoak Marilanda'n ere' Inghlanderrian bertan bezalaxe!

Ala ere Baltimore sendiaren itzal aundiak, eta sendi onek katolikotasunaren aide zeraman ekintzak lortu zuten Laterriko Batzar Nagusiaren partetik baretasun eta goxotasun geixago katoliko gaixoentzat. Baiña orduan iritxi zan 1688'garren urtea: Inghlanderia'ko Iraultza Aintzakorraren urtea. Galdu zuan aristokraziak bere almena, batez ere aristokrazi katolikoak; eta, jakiña, baita Baltimore'ko Baroiak ere Marilanda'n. Orrela, demokraziaren izenean egindako Iraultza Aintzakorra, Marilanda'n beintzat, demokraziarentzat azkeneko tankatako erailkorra izan zan. Iraultza artan artu bait zuan Marilanda'k ere parte.

Baiña oraingoan ez ziran katolikoak ankapetuak, Eliza Anglitarra Marilanda'ko Laterriaren Eliza egin bait zuan Iraultza arrek eta marilandar guztiak Eliz onen mantenua eta gastu guztiak pagatzera beartu bait zituan: i Katolikoak, eta anglikeria ezin ikusi zuten beste protestalari "garbizaleak"; danak! Ala ere, Eliza katikoa zigortzeko, batu ziran protestalari guztiak, beren arteko bekaizkeriak aztuta' Ana l'goa Erregin zala Marilanda'ko Batzarre Nagusiak "papist expansion" "aitasantukeriaren zabalkundea" moztutzeko, lege bereizi bat eman zuan' Ez zion Erregiñak lege orri baiezkorik eman. Ana Stuard, Jakob H katolikoaren alabak, malte bait zituan bere aitaren elizkideak naiz bera egiazko anglitarra izan, eta al zuan guztian babesten bait zituan. Baiña Ane'ren atzetik etorri ziran Hannover'tarren erregetzak, batez ere Gorka l'arena eta Il'arena, itzalak izan ziran Marilanda'ko Eliza katoikiokarentzat'

1718'an lege batek katolikoei Batzar Nagusiko batzarkideak autatu aal izateko eskubidea kendu zien; ikastola katolikoak ere debekatuak izan ziran. Emezortzigarren mendea makurra izan zan an kato-

likoentzat; eta orrela, katoliko jaio zanean Laterririk iareena zan Marilanda, danetan zipotzena izatera iritxi zan azkenean, protestalarien eskuetan'

Zanpaketa aren azpian zimurtuta, katoliko asko, batez ere ospe aundiko sendi katoliko asko, anglikerira igaro ziran; baita Calvert'-arrak berak, Laterriaren eraikilleen ondorengoak, ere. Beste sendi asko Pentsilbani'ra joan ziran igesi, berak bezala askatasun zale ziran kuakertar maitagarrien artean pakea billatzera. Beti izan zan Pentsilban i, sortze-sortzetik asita, demokrazi osoa.

Baiña Pentsilbani, amazpigarren mendearen azkenean sortua zalarik, mende orren asieran jaiotako Marilanda baiño azkoz berriagoa bait zan..., Katolikoei zor zaie, Ipar-Ameriketean demokrazi betezko lenen Laterriaren sorketa. Politikaren barrutian ieta baita erlijioarenean ere! gizakume guztientzat iare ta zabal izan zedin, Marilanda oparo bare paketsua pentsatu eta eratu izatearen aintza katolikoei zor zaie

Marilanda'z gaiñera, bada Laterri Alkartuen artean, Inghlanderriko Koloni lez batera demokrazizko eta katoliko jaio zan beste Laterri bat!: Yorke Berria, gero Jakob II, Inghlanderriko Errege izango zan York'eko Dukeak berak eratua.

Oraingo New York dagoan Manhattan ugartera olandarrak iritxi ziran aurrena, eta Amsterdam Berri deitu zioten an altxa zuten erriari. Olandarrak eta inghlanderrak maiz ibiltzen ziran alkarren artean borrokan, itxasoko nagusitasuna zala-ta. Borroka oletako batean arrapatu zuan York'eko Dukeak Amsterdam Berria, eta bere tituloaren izena eman zion: Porke Berri. Uria Dukearen mendean gelditu zan; Erregearen eginduz York'eko dukaterriaren zati berri bat bait lizan'

Len protestalari izandako dukea, katolikoa zan ordurako, eta biontz osoz lagundu zien katolikoei eta josulagunei Yorke Berrian'

1682'an katoliko bat izendatu zuan Koioniaren jaurleri, eta jaurleri katoliko onek urrengo urtean, 1683'an lege egin zuan erlijio guztien berdintasuna, eta eman zien danei askatasun berdiña. Tamalez, beste kolonietan bezala, York Berrian ere Iraultza Aintzakorrak erail zuan demokrazia: demokraziaren izenean, jakiñal iProtestalaritza ez dala sekulan, edestia-zear, Argikuntza edatu zan arte, demokrazizalea izan! Ain zuzen, protestalarien Iraultzak Inghlanderriko errege-aulkitik jaurti zuan Errege ura, li Jakob Stuard'arra zan, Errege izan aurretik York'eko Duke lez, Ameriketako bere kolonian, Yorke Berrian, katolikoek ezarritako demokrazi orokorra ain begi atsegiñez ikusi eta ain borondate guztiz on-artu zuana.

Egia da Inghlanderriko Errege egin zanean despotikerira, ots, bakarrik-agintzekerira jean zitzaigula Ameriketara ain demokraziale agertu zitzaigun York'eko Dukea. Erregetzaren aunditasunak zoratu zualako? Katolikoa zala-ta inghlanderriar protestalariak eten gabe egin zioten aurkaketa beltzaren erruz? Il Jakob Stuardarraren aldaketa ortan nork ote du errudunik aundiena? Errege katolikoak? Protestalari amorekaitzek?

Danadala, era samingarrian utzi zituan katolikoak Yorke Berrian ere, Marilanda'n bezala, Iraultza Aintzakor protestalariak', an eman ziran legeei so-egiten bazaie. Baiña ordurako'txit zabaldurik bait zegoan an Argikuntza, eta sendo errotua Argikuntzaren seme, —semeetako bat—, dan masoitzza, iñork ez zion legedi zipotz arri jaramonik egin, eta pakean jarraitu al izan zuten katolikoek eta iñakitarren mi-xioek.

Aitor dezagun, gogo onez, masaiotzak baztar guztietan sortu zuala alkarrenganako begirunea eta gizakume guztiei askatasun eta eskubide berdiñak eman bear zaizkielaren etsipena, eta orrela kalbindarren itxukeri amorratua, argikuntzaren baretasun eta adeitasunera igaro zan polikipoliki. 1730'a ezkeroko asi ziran zabaltzen Logiak. Izugarrizko indarra artu zuten, erdiaroko logiek bezala, Ipar-Ameriketakoak ere logiakide guztiei era guztietako laguntza biotz osoz ematen zielako; eta, laguntza ori, Koloni batetik bestera atsedean gabe ibilli oi ziran negozio-gizon aientzat txit baliozkoa zalako. Logien sorkundea eta zabalkundea arras izan zan Katoliko-Elizarentzat onuragarria. Badio Elizak zor ori masoitzari.

Bazuten katolikoek argituen bearra eta masoien bearra askatana lortzeko, berak bakarrik ez ziran bā ezertarako gauza. Ain bait ziran gutxi! Gaiñera, leendik gutxi izanik ere, Amerika aietan Inghlanderrian bezala gutxitzen da gutxitzen zijoazen, eta zearo deuseztera iritxiko ziran noski Alemani'tik ia banaka-banaka baiña etenik gabe zetozen nekazari ta eskulangille katolikoengaitik izan ez balitz.

Ala ere, 1785'ean Inghlanderriaren aurka Amerika'ko Iraultza piztu zanean, ondo gutxi ziran 13 Kolonietako katolikoak: Ogei ta bost milla besterik ez. Lau milloei biztanle zituzten orduan 13 koloniek. Lau milloei oietan katolikoak milletik sei besterik ez ziran. Ta, ona fora zeuden banatuak:

Yorke Berriko Kolonian, 1'500;
Marilanda'n, 16.000;
Pentsilbani'an, 7.000;
Birjini'an 300;

eta gaiñerako 9 kolonietan bat edo beste bakarrik; 200 guztira 9 Koloni aietan'

Ez zan erreza katoliko aientzat katoliko bizitzen jarraitzea. Protestalariak egin zitzaieten kalteaz landa, apaizik ere ez bait zuten bear aiña.

25.000 Katoliko aientzat danentzat, naiz ain lurralde zabalean sakabanutuak egon, ez zuan Elizak an, erlijiosoak ere kontatuta, 24 apaiz besterik. Ogeita lau oietatik berriz, 23 bi kolonitan bakarrik zeuden: 18 Marilanda'n eta 5 Pentsilbani'n'

Ala're, goiz iritxi zan Eliza Ipar-Amerika'ra. 1634'ean eldu ziran Marilanda'ra lenen mixiolariak: bi apaiz eta bi anai; iñakitarrak'

Ordurako, geiago ziran Marilanda'n protestalariak katolikoak baiño, eta bildurtu ziran iñakitarrek jende asko irabazten zutela ikustean. Sartu bait zitzaien geiagotasuna galduko zutelaren kezka' Altaguztiz, artean politika katolikoaren eskuetan zegoalako ez zuten iñakitarrek eragozpen aundirik aurkitu.

1648'a arte katolikoaren eskuetan jarraitu zuan Marilanda'ko agintaritzak. Urte ortaz gero asi ziran arâ iristen Inghlanderriko protestalari garb kerizale odoiberoak' Ta orduan asi ziran nekeak.

Yorke Berrira, 1680'aren inguruan joan ziran mixiolari iñakitarrak, eta 1706'ean Pentsilbani'ra.

Iñakitarrak izan ziran 13 Laterrietako mixiolari bakarrak, 1773'an Lagundia barreiatua izan zan arte; eta orduan ere, iñakitarrik geienak, aburu zuzenez, apaiz bezala bertan jarraitu zuten lanean'

1688'an "Sinispen-Zabulkuntzako Bazkunak", Inghlanderrian, 4 Bikarioaren zuzendaritzapean 4 elizbarruti egiñik bait zeuzkan, Londres'ko Bikarioaren mendean ipiñi zituan 13 Laterrietako iñakitarrak. Badi-rudi "Propaganda Fide", bere nagusitza adierazi ta sendotzearen, neurrietatik kanpo zebillela orrelako burugabekeriak agintzean, urrutitxo bait dago Ameriketatik Londres, emengo Bikarioari Ameriketatik ango apostoluzarako baimenak eskatzeko, eta problemetarako zuzenbide bat emanarazteko' Gaiñera Ameriketako auziak eta Londres'koak ez ziran berdiñak; Londres'ko Bikarioak ez zituan aiek ezagutzen; naitanaiez sortu bear zuten eztabaidak, Bikarioa, nolakoa zan usmatu ere egiten ez zuan lurralde artako bizierari buruz legeak ematen asten ba'zan.

Ontan utsegin ba'zuan, asmatu zuan gero "Propaganda Fide" k Laterri Alkartuen Errepublikarako lenen Mixio-Burua izendatzean (1784). Buruzagi au iñakitar bat zan: Jon Carroll; Marilanda'koa, Karlos

idaztearen anaia, gizon ernea, askatasunaren lagun zindoa, Benjamin Franklin'en adiskide kutuna.

1789'an Pio VI'ak Laterri Alkartuetako lenen gotzai egin zuan Carroll ori: Baltimore'ko Gotzai. Lan asko egindako, adimen zabaleko gizona zalarik, Jon Carroll'ek eraiki zuan aurreneko, lurralde aietako, apaizgaitegia: Baltimore'ko Seminario Nagusia. Erljio guztientzako eskumen berdiñak ematearen laguna zan' Bere apaiz guztiak asko maite izan zuten.

Berak erakutsi zizkigun Laterri Alkartuetako 25.000 Katoliko aien akatsik nabarmenenak:

- Gurasoek aurren eziketari bear aiñako ajolik ez omen zioten ematen'
- Jendeak iganderoko Meza ta urteroko Pazkoazkoa errez uzten omen zuan'
- Gaztediak dantza eta jokurako geigizko irritsa omen zuan'
- Neska gazteei maitekerizko eleberriak bear baiño geiago atsegin omen zitzaizkien.
- Jopu beltzen Kristautzari ez omen zitzaion jaramonik ematen.
- 13 Laterrietako 24 apaizetatik asko zarregiak izateak larritasun aundian ipintzen omen zuan Elizaren etorkizuna.

Azkeneko korapillo au askatzen, Frantziko Iraultzatik igesi etorri ziran apaizek lagundu zioten Laterri Alkartuetako aurreneko Gotzaia-ri, apaiz aietako asko bertan gelditu bait ziran betirako. Eta apaizekin igesi etorritako lekaimiak ere ez ziran alperrikakoak izan. Auen laguntzarekin ikastolak eta otoitz bakarrerako lekaimetxeak iriki aal izan bait ziran.

Esan degun bezala, pakean bizi ziran 13 Kolonietako katolikoak, Inlanderriaren aurka Iraultza sutu zanean. Betidanik bizi izan ziran ala kuakertarren Pentsilbani'an eta masoein zuzendaritzapeko Yorke Berrian. Bedi gure oroipen adiskidetsua kuakertar paketsu eta masoi zuzentasun-zale aientzat. Baiña guda asterako pakean bizi ziran katolikoak beste Kolonietan ere, ordurako zabaldu bait zan Koloni aietan, arras, Argikuntza.

Askatasuna aldarrikatu bezain laister egin zuten legezko 13 Laterri berri Alkartuek sinispen-iaretasun cri. Politikazko Askatasunaren aldarrikatzea, 1776'ko Uztaillaren 4'ekoa da. Bâ, urte ortan bertan eman zituan Birjini'ak erlijio guztientzat iaretasun eta eskubide berdiñak, ta Birjini'ren atzetik, urte artan bertan, Marilanda'k'

Ipar Amerika'ko katolikoak beti izan ziran txit zabalak, guztien as-

katasunaren lagunak, "argituak". Buru-belarri sartu ziran, Ingalde-
rriaren aurka, politikazko askatasunaren aide gudian. Guduaren pres-
taketan parterik aundiena artu zutenen artean oroi dezagun Karlos
Caroli, idazlaria, Marilanda'ko Diputadu bezala "Azkatasunaren Azai
pena" izenpetu zuana. Bera bakarrik zan izenpetzaille aien artean ka-
tolikoa' Oroi dezagun idazlearen anai Jon, Ba timore'ko Gotzai izanen
zana, artu bait zuan onek ere prestaketa artan parte.

1787'an Filadelfi'n Laterri Alkartuen Kostituzio edo "Oiñarri-
-Legea" gertutzeko bildu zan Batzarrak katolikoetaz ari izan zan
Oiñarri-Lege aren 6'garren ataltxoan, eta askatasun eman zien, Late-
rri guztietarako, katolikoei. Orrela igaro zan artikulo oh 1789'ko Kosti-
tuziora.

Filadelfi'ko Batzarkide aiek danak "argituak" ziran, eta asko, ma-
soiak. Eskertu dezagun, ontan, katolikoek ain neurrigabe zigortu oi
duten Argikuntza; eta, gaur-gaur arte, ezer onerako aipatzera ere
ausatu ez diran masoiketa.

Entzun Laterri Alkartuen OiñarriLegearen sarrerako itz berbere-
tan Argikuntzaren abotsa:

"We, the people of the United States, in order to a more perfect
Union, stablsh Justice, insure domestic Trankility, provide for the
common defence, promote the general Welfare, ad secure the Bles-
sings of Liberty to ourseives and our Posterity, do ordain and esta-
blish this Constitution for the United States of America"; "Guk Laterri
Alkartuetako erriak, Alkartasun bizkorrago bat lortzeko, Zuzentasuna
ezartzeko, erriko Pakea eskartzeko, guztion babesketa antolatzeko,
Narotasun orokorra aziarazteko, guretzat eta gure oiñordekoentzat
Askatasunaren onura Bedeinkatuak tinko egiteko, OiñarriLege au
eratu ta ezartzen dugu Amerika'ko Laterri Alkartuentzako".

Gero, 1791'ean OiñarriLege arri egin zitzaizkion "Aurreneko
Amar Zuzenketatik" batek, aurrenekoak, "The First Amendment", ka-
tolikoei Kostituzioak emandako iaretasun ori, erlijio guztientzat za-
baldu zuan'

Ots! Erlijioarloan Edestiaren iraulketa Ipar-Amerika'ko Laterri
Alkartuen Oiñarri lege onetan egin zan. Ordurarte, Laterria ta Eliza bat
ziran. I Kostantino ezkerorrela izan zan beti, baiña "cuius regio"
arauak egin zuan legezko bataketa ori. Eliz guztietako teoiogilariek
uste zuten Laterri bakoitzak bere erlijio bat bear zuala; Erlijiorik gabe-
ko Laterria deabrukeri bat zala; Laterria Elizaren otsein-antzeko zer-
bait zala. Eliza Laterria baiño gurenagoa, jainkotiarragoa, zalako, La-

terria Elizagandik bereiztea pentsatze utsa ere, oben aundia zala; La-terriak Eliza mantendu eta defenditu bear zuala etsai guztiengandik; Eta, Eliz bakoitzak bera zala egiazko Eliza uste zualako, danak Late-rria beste eliz guztiak desegitera bearturik zegoala irakasten zuan; "askatasun" itza bera itz madarikatua zeritzaien. Gezurrari eta okerra-ri, Egiari bakarrik zor zaion askatasuna ematea, amen zan "erlijiorako askatasuna": erejiari eta gaiztakeriari aize-ematea.

Ipar-Amerika'ko Iraultzan egin zan, arrezkero indar artuaz joan dan politikaren-sekulartzea. Laterri Alkartuen OiñarriLegean agertu zan, leenik, Laterria ta Eliza alkarrengandik bereiztu bearraren gogae-ta, eta antxe egin zan, gaur Elizaren eta Laterriaren artuemanetarako jokaeraren ardatza dan Bereizte ori. Eta bereizte orren ondoren beza-la, antxe agertu ziran ere, lenengo aldiz, Erlijio guztien Eskubideen berdintasuna eta erlijio guztientzako askatasuna, lege egiñik.

Il Batikandar kontzilioak egin du kanon-lege Argikuntzaren mami ta muiñ izan zan pentsakera ori.

Onela dio 1791'eko lenen Zuzenketak: "Congress shall make no law respecting an stablishment of religion or prohibiting the free exercise thereof; or abridging the freedom of speech, or of the press, or the right of the people peaceably to assemble, and to petition the Government, for a redress of grievances"; "Batzar Nagusiak ez du erlijio bat ezarriarazteko edo erlijio bat galerazteko legerik egingo; ezta itze-giteko ta idazteko askatasuna, edo pakean alkarrekin jendea bildu aal izateko edo Gobernuari gaitzen ordainketa eskatu aal izateko eskubi-dea laburtu lazakeanik ere""

Soziologiaren barrutian izugarria izan zan Ipar-Ameriketako Iraultzaren garrantzia: 13 Laterrietako erriaren garaitzak, beste lurraldeetako erriak esnatu zitualako; eta filosofilari ta politilari "argituei" Iraultza aurrera atera zitekean gauza zala erakutsi zielako. Laterri Al-kartuetako Oiñarri legea izanen zan arrezkero munduko beste kostitu-zio guztien eredu. Eta erri guztietako askatasu-zaleen itxaropena gu-ritzeko, an zegoan itsasoaren beste aldetik, lerden, maitagarri, gero ta biziago, Amerika'ko Errepublika gaztea, askatasunaren profetemea.

Askatasuna, amestegietako lili ez ezê, mundu ontako gauza ere bezala, erakutsi zion munduari Ameriketako Iraultzak.

Baiña guri, askatasun orrek erlijioaren baratzan sortuarazi zituan emaitzak zaizkigu batez ere ajolagarri. Berealaxe ikusi aal izan ziran emaitza oiek Kanada'n eta Jaurerri•Alkartuan bertan'

Kanada'ko itxas ertzera frantzitarrak iritxi ziran aurrena, eta, an,

bi koloni eratu zituzten: Bat, Akadia, gaurko Eskozi Berrian, 1604'garen urtean asita. Eta geroxeago, Frantzi Berria, gaurko Kebek'eko Provintzia. Kebek uria bera 1608'an egiña da.

Akadia, amazpigarren mendean amasei urte inglandarren eskuetan egon ondorean, laister izan zan aiena betirako, Utrecht'eko pa-keak inglanderriaren mendeko egin bait zuan. Frantzi Berriak frantzi-tarren eskuetan jarraitu zuan oraindik beste berrogeitamar urtetan. Azkenean, "Zazpi Urteko Gudua" amaitu zuan "Paris'ko Itunak" In-glanderriari eman zion ura ere.

Berrogeitamar urte oietan izan zan iskamillik eta borrokatxorik naiko, mugen kontuengaitik, ango inglandarren eta frantziarren ar-tean

Borroka oiek ziralako, eta Inlanderri'ko protestalarien zipozke-ri agaitik, oso txarto erabilliak izan ziran Akadi'ko katolikoak (ia danak normanditar nekazariak) eta auen mixiolari kaputxin edo buruñurdu-nak, josulagunak, eta frantziskotar "izkutukoak", ("recolets"). Katoli-koetatik, berriz, pilloka izan ziran sendi osoak, indarrez, Boston aldera arrastaka eramanak. Osoro aienatuko zan Arkadi'ko Katolikotasuna, 1763'an Frantzi Berria Inlanderriaren aginpena igarotzean, oni eman-dako erlijioaskatasuna Akadi'ri ere, iñork itxaro ez zuala, Inlande-rriak eman ez balio.

„Zergaitik orrelako zabaltasun oi? Mendearen bigarren erdian Ar-gikuntzak Inlanderrian sustrai sakonak boteak zeuzkalako, bai nos-ki, baiña"., baita politikazko arrazoiengaitik ere.

Frantzi Berrian katolikoak asko ziran: 100.000, gutxi gora bera, Akadi'koak beti oso gutxi izan ziran bezala. Danak Frantzitarrak ziran, eta borrokaiariak gaiñera, aien gogaera espainarren eta portugaldarre-na bezalakoa bait zan: Kristautasuna zabaltzea, bai noski, baiña baita Aberria aunditzea ere!: "Kristoren gurutzea eta LiLiLorea inglande-rriarren muturren aurrean landatzea", aldeetarako bidean dagoan le-kaime ark idatzi zuanez. Erregeek ere, Frantzi'ko Erregeek, Espaiñ'ko edo Portugal'ekoen antzera, beren eginkizunik garrantzitsunetzat zeu-katen mixiotza. Mixiolariei laguntzea izaten zan lurralde urrun aietara bidaltzen zituzten Jaurlei eman oi zieten agindurik arduratsuená'

Bikaiñak izan ziran agindu ari betetzen Kanada'ko Jaurleak, ba-tez ere irugarrena, Salle'ko Roberto, lurralde aietako mapak egin zi-tuana.

Ango mixiolariak ere iñakitarrak izan ziran; aurreneko urteetan "Irok" izeneko inditarren erasoaldietan ainbat odol ixuri zuten gizon

sendoak' Gero iritxi ziran sulpizitarrak eta frantziskotarrak. Auetakoa zan Luis Hennepin belxikarra, raroxamara gai askotan, baña Mississipi Ibaiaren Aran guztia lendabizi ikertu, aztertu ta estudiatu zuan gizona. Merezi dute aipu berezia Gotzone Marizi'tar Doneak asmatutako Ursuletarrak ere.

Kanada'ko Elizaren edestia, ederra da eta ituna. Ederra, bertan mixiotariek egindako lana arrigarria izan zalako; ituna, mixiolari oiek berak atertugabe alkarrekin iskamil bizian bill ziralako. Azkeneko alderdi ontatik soegin izkerero, Eliza kanaditarraren edestia ango eliz-gizon guztien arteko borroka txatxu baten edestia da'

ErlijiosoAnaidiak alkarrekin asarre ibilli oi ziran, batez ere iñakitarrak eta sulpizitarrak, bi auek bait ziran ango Anaidirik bizkorrenak.

Laister sulpizitarrak Kanada'ko lenen Apostolutza-Bikarioarekin asarretu ziran. Eta baita Kanada'ko Agintariak, Frantzi'ko Jaurlaritza, eta Rouen'go Goigotzaia ere' Ona zinkiminki txatxu aien zioa:

— Rouen'go Goigotzaia zan Frantzi'k Ipar-Amerika'n zituan lurralde guztietako mixioen Buru'

— "Propaganda Fide"k, Frantzi'ko Erregeen atzaparretatik mixio aiek erlijio-gaietan iaretzeko, Kanada'rako Apostolutza-Bikario bat izendatzea pentsatu zuan.

— Ez ziran iñakitarrak asmo orren aideko, beste lurraldeetan geratu zanetik ikasi bait zuten Bikario aiek beren eskubidetxoen gelegizko maitaleak izaten zirala. Baiña, Erroma'n aurrera jarraitzeko asmotan zeudela ikustean, Kanada'ko bikariotza iñakitar batentzat lortzea etorri zitzaien burura, Oartu ziran ordea eziñezko gauza izango zutela ori, eta apaiz sekular bat, Frantzisko Montmorency-Laval, aurkeztu zioten orduan "Propaganda Fide"ri kargu artarako. Eta uraxe izendatu zuan Erroma'k.

— Gizon ona ta txit egokia zan Bikario berria, baiña iñakitarren berekoikeriaren araura aukeratua izan zalako, aurka ipiñi zitzaizkion Frantzi'ko Eliza eta Frantzi'ko Jaurlaritza.

— Bereala, bere Ordezkarri Orokor edo Bikario Jeneral bat izendatu zuan Kanada'rako Rouen'go Goigotzaiak ere, Sulpizitarren Aita Nagusia. Bi Bikario bildu zitzaizkigun beraz, batera Kanada'n, eta biak legezkoak, itxuraz beintzat, Rouen'go Goigotzairi ez bait zion iñork ordurarte Kanada'rako zuan eskubiderik kendu'

Aundiagoa egin zan iñakitarren eta sulpizitarren arteko asarre petraia. "Propaganda Fide"k aukeratutako Bikarioak Seminario bat sortu zuan Kanada'n iñakitarren laguntzarekin: galikerizko usai orotik

aratz izan bear zuan apaizgaitegia. Muturtu zan Frantzi'ko Jaurlaritza, eta sartu zitzaigun saltsan XV Koldobika bera.

Lortu zuan Erregeak, Erroma'n, nai izan zuan guztia. X Kiemente'k elizbarruti biurtu zuan Kanada'ko Bikariotza, eta bertako Gotzaia izendatzeko eskubidea, Frantzi'ko Erregeari eman zion. Garaille irten zan galikeria. Bainan ez ziran amaitu iskamillak'

Bere gogoz utzi zuan bikariotza, Frantzisko Montmorency-Laval, "Propaganda Fide'k izendatutako Bikarioak. Bere atzetik Erregeak izendatuta etorriri ziran Gotzaiak ordea Erregearen morroi apalak izan ziran, eta denbora geiago igarotzen zuten Frantzi'n Kanada'n baiño; ta jakiña, sortu ziran asarre-bide berriak urrundik agindu nai zuten Gotzai aien eta Kanada'n lanean ziarduten mixiolarien artean. Eta lengo asarre zarrak ez bait ziran agortu, litxerkeri guztien ontzi biurturik gelditu zan mixio-lur ura: Kanada'n gogorki eta arrisku aundien artean lan zegiten mixiolariak, Paris'en Errege adiskidearen Kortean goxoki bizi ziran Gotzaien aurka; apaiz sekularrak, erlijiosoen aurka; auen artean sulpizitarrak inakitarren aurka; eta auek, oitura zuten lez, berekin konpontzen ez ziran guztiei, erarik ariñenean "jantsenistak" esanaz.

iAluak eta koxkorak gerala gizakumeok, eginkizunak sagaratue•nerako biltzen geranean ere! Pikutara joanik zegoan aspaldian Eliza gizakume utsen lana izan balitz!

Kontu zarrak, Elizaren edestian!

Ala ere bizkor ziraun katolikotasunak, mutturkeri aien danen artean ez bait zuten mixiolariak apostolutza-lana aztutzen. Katolikotasunaren sendotasun orrek, ikaratu zituan Inghlanderriko Jaurleriak, eta laga zioten Eliza Katolikoari askatasuna. Ala ere, "Paris'ko Itunaan", (1763), Kanada'ko katoliko guztiei beren s nispidea agirian jarraitzeko askatasuna eman zienean, ez ziran aztu mozkeri batzuk ipintzeaz; ostelaritzak beti bezala, berezkoa dun askatasunaren atsaikeriarekin jarraitzen bait zuan: "Cuius regio"...!: ¿"Norena Lurralde? Arena bedi lurraldeko erlijioa". Ori egin nai itandu zuan Anglikeriak ere Kanada'n, baiña ez zan ausartu. GAu esateko gure arrazoiak?:

Bat: Paris'ko Itunaren idazkian esaten zanez, Kanada'ko katolikotasunari askatasun ura "Inghlanderriko Legeen araura zillegi dan neurrian", ematen zitzaiola.

Bestea: Inghlanderriko Legeen araura askatasun ura ematea ez zala iñola ere zillegi, ez bait zuten Lege aiek Anglikan Eliza besterik onartzen eta orregaitik, lege aiek aipatze utsak arriskuan ipintzen zuala agintzen zitzaien askatasuna!

Irugarrena: Inghlanderriko gobernuak itzez-itz agindu ziola Kanada'ko lenengo Jaurlariari, katolikotasuna zaratik gabe desegiten, eta protestalaritza zabaltzen, batez ere ikastola berrien bitartez, al zuan guztia saiatzeko.

Ez zuan Kanada'ko Jaurlariak Londres'ko asmoak mami biurtzeko astirik izan, berealaxe asi bait ziran egoaldeko 13 Koloniak urduritzen. Urduriketa ori Kanada'ko katolikoetara oso errez igaro zitekela gogoratze utsak, ziaro ikaratu zituan Inghlanderriko agintariak' Orrela etorri zan amaika urte gerogo, 1744'ean "Kebek'eko Erabakia", "The Act of Ouebec", katoliko guztiei, "Erroma'ko Sinispedearen aitortzea" iaretasun osoan utziaz. Ba-zan idazti ortan ere lerro zital bat, askatasun ori Erregearen "Supremacy" edo "Nagusitasunari" menderatua katolikoei ematen zitzaie bait zion; baiña Erregea Aitasantu biurtzen zuan Elisabete I'goaren "Supremacy Act" ura onartu bearrik ez zala, argi ta garbi esaten zualako, ez zion inork lerro zipotz arri jaramonik eman.

Urrengo urtean, (1785), Amairu Kolonien urduritasuna Iraultza odoltsu gogorra biurturik zegoan. "Kebek'eko Erabakiaren" bitartez gorde zituan beretzat Inghlanderriak Frantzi Berria eta Arkadia, ots, Frantziar-Kanada Katolikoa, eta baita, agian, Kanada osoa ere, bi Prohibitzi aietako jendeak 13 Kolonietako iraultzalariekin borrokarako ai kartu ba'ziran, ezin izango bait zuan Kanada'ko zabaltasun neurri-gabea babestu.

Inghlanderria'n bertan ere aldatu zuten bere politika Agintari Anglitarrek. Gorka III'a zan errege, Irugarren errege Hannover'tarra. Okerak izan ziran Britaniⁱko Ugarteetan, eta batez ere Ameriketean, aurreneko Hannover'tar biak Elizarentzat. Laterri Alkartuetako Iraultza garailleek makurtu zizkion irugarren oneri, eta bere Jaurlaritzari, arrotasunaren aize ta aundiuste guztiak.

1778'an, Ameriketean Iraultza sutan zegoan denboran, egin zan lege "Catholic Relief Act", "Katolikoen Lasaipenerako Erabakia". "Erabaki" orren bidez iare uzten zitzaien katolikoei lurreko eta itxasoko gudarozteetan gradu guztietarako bidea, eta Jakob II'aren bi alaben denboran, Mari eta Ane'ren denboran, emandako lege zipotz asko baztertuak izan ziran.

Baziran oraindik Inghlanderrian protestalari egoskorrak, eta egin zituzten, "Relief Act" arek katolikotasunari ematen zion lasaitasunaren aurka biurrikeri galantak: lapurretak, eliz-kixkaltzeak, .katoliko-erailketak"" "The Gordon Riots" deitu oi zaie, Inghlanderriko edestian, zabarkeri aiei: "Gordon-Matxinadak"; Gorka Gordon, Eskozi'ko dipu-

taduetako bat, izan bait zan oiurik aundienak egin zituana. Alperriko oivak; aldebatetik, ordurako, kultura pixka bat zuten jende guztien buruetan Argikuntzaren gogoetak erroturik zeudelako, eta bestetik 1783'an, Inghlanderriaren gudaroztea zapaldu ondorean, lpar-Ameriketako matxinoak Amairu Kolonien askatasuna (ortu zutelako).

1783'ko urte ortan bertan igo zan Jaurlaritzaren lendakaritzara Gillermo Pitt "Gaztea" Bere aita Gillermo Pitt "Zarra" anglikerizale estua izan zan bezala, semea zabala izan zan, irikia, "argitua"; Inghlanderriak izan duan jaurlerik yaoenetakoa.

Ordurako egiña zeukaten lagundi bat katoliko sekularrek Inghlanderriari: "The Catholik Committee", "Katolikoek Batzordea". 1789'ra-ko. alkarrizketa luzeen bidez, iritxi ziran, Gobernua eta Batzorde ori, elkargo batera. Pitt Gazteak, neurri gabeko askatasun osoa eskeintzen zion Batzordeari Eliza Katolikoarentzat, bi gauza auek aitortzeko gerturik ba zegoen:

Aurrenekoa: Aitasantua utseziña ez zala.

— Bigarrena: Aitasantuak Inghlanderriko katolikoek gaiñean "direct", "bitartekotzarik gabeko" eskubiderik ez zuala.

Eliza "Anglitartzeko" zaletasunaz eskatzen ote zuan ori Pitt Gazteak? Ez noski; ori baiño irikiagoa bait zan. Baiña ondo zekian aitorketa bikoitz ori gabe, Laterriaren Elizak, Parlamentuak berak, eta batez ere eskrupuloz betetako Gorka III'ak ez zutela amorerik emango.

Katolikoek Batzordea gerturik zegoan aitorketa bikoitz ura egiteko, eta gerturik zeuden Bikarioak ere. ¿Zisma berri baten jaiotza? Ez oriexe! Aitasantuaren utsezintasuna, ez zan oraindik EgiSinis-Bearra. Eta Aitasantuaren agintaritzari Inghlanderriari "bitartekotasun" bat ipiñi nai izatea, Europa'ko Errege guztiek aspalditik lorturik zeukaten "placet", "Atsegin zait", zeritzaion eskubide ura besterik ez zan'

Baiña, etorri ziran Bikario berriak, lengoen aburukoak ez ziran Bikarioak, eta ez zan deus lortu aal izaterik izan. Bai; lortu zan zerbait: Bikarioek eta Katoliko Sekularren Batzordearen arteko asarrea.

Bi gizonek erreztu zioten Pitt Gazteari bidea: Douglas Bikarioak eta Horsley Eliz Anglitarrako Gotzaiak. Bi gizon auen lanari eta Lenen Ministro Pitt Gaztearen borondate onari eskerrak, 1791'ean eman aal izan zan Parlamentuan "The New Relief Act", "Lasaipenerako Erabaki Berria"; ia deretxo guztiak, iñongo aitorketerik egin gabe, katolikoei ematen zizkien Erabakia: Parrokiak egiteko eskubidea, baiña parroki oiek kanpotik jauretze-itxurarik ez izateko baldintzarekin; ikasto-

lak iñoren baimenik gabę iriketzeko eskubidea; Meza eta Sakramentu guztiak egitekoa; Parlamenturako diputaduak autatzeko; salerosketara koa"

Bazuan orduantxe Eskozi'ko Elizak ere Bikario jator bat: Gorka Gay, kalbintasunetik katolikotasunera etorria, eta Erroma'n apaiz-i kasketak egiña; eta gero "Lowlands" edo "Beelurretako" Bikario Izendatua' Onek lortu zuan Eskozi'ko Eliza ere "Lasaipenerako Erabakiaren" babespean ipintzea, ondo prestaturik bai zeukan ordurako Argikuntzak Eskozi'a orrelako aldaketa bat ango jendeek ere onartu aal izateko.

Aurrerago joan nai zuan Pitt Gazteak; Eliza katolikoari eskubide oso-osoak emataraiño, baiña Gorka 111'k ez zion ortaraiño baeizkorik eman' Ez, Gorka 111'a askatasunearen aurka zegoalako, gizon argi tua zan-da; kontzientziko larritasunez beterik zegoalako baizik. Askatasun ura erregetzara igotzean Eliza Anglitarraren Eskubide guztiak gordetzeko egin zuan juramentuaren aurka zijoala uste bait zuan.

1800'ean lortu zuan Pitt Gazteak Irlanda ta Inghanderriaren batasuna azkeneko punttura eramatea, Elizarentzako Irianda'n askatasun osoa ematearen truke. Ordurako bazuten an katolikoek lasaitasun aundia, 1777'a ezkeron konbentuak irikitzen ere asi bait ziran'

1768'an igo zan Gorka III'a Jaurerri Alkartuaren erregetzara, eta ordurako erregutzen zan bere alde Irlanda'ko elizetan. Alare, askatasun osoa katolikotasunari emate ori gelegizko gauza iruditu zitzaion Erregeari bere kontzientzian. Pitt Gazteak, irlandarrei eman zien itza betetzerik ez zuala ikustean, gobernuaren lendakeritza laga zuan. (1801).

Gorka III'a, gizagaixoa, ez zan iñoiz buru sendoko gizona izan. Azkeneko urteetan erotuta ere egon zan, eta Gorka IV'ak eraman bear izan zuan, erregeordezko bezala, Jaurerri Alkartuaren agintaritza.

Ostera 1804'ean Pitt Gaztea zan Jaurlaritzaren buru. Urte ortan lortu zuan Irlanda'ko Elizak iaretasun osoa. Gerontzean Irlanda'k sortuko dituan borrokak, politikazko askatasuna lortzeko izanen dira.

Badira gure artean katolikotasuna Inkisizio uts, eta protestalari-tza beti Iiberalkoia eta biotz-zabala izan dala uste dutenak; edo Inghanderriko demokrazia akatsik gabeko politika-era bat izan dala pentsatzen dutenak. Ez dira orrelako oiek irlandarrak izango' 1804'eko pake artan ere ipiñi bait zien irlandarrei Inghanderri protestalariak bai dintza koxkor zital bat: Katolikoek ezkillak jotzea dabekatua izanen zuten, eta Katolikoan Jauretseek ez zuten ezkiltorrerik izango.

Egia da. España katolikoan ez zuten anglitar protestalariak, eskiliek gabe ere, Jauretzerik egiteko eratasunik. Baiña baldintzak ezberdiñak ziran zearo, España'n ez bait zan anglikandarrik. Gaiñera, leialki eta apalki aitortuko dugu, maiz-aski ez dala Elizaren jokaera politikazko arazoetan txukunegia izan. España'ren zipozkeria noraiño iritxi daitekean berriz, euskotarrok ondotxo dakigun gauza da.

Laguntza aundia izan ziran Inghlanderriko Elizarentzat Frantzi'ko Iraultzatik igesi joan zitzaizkion katolikoak. 1791'ezkero asi ziran Gotzai ta Apaizak Frantzi'tik igesegiten, eta aldeegindako auek geienak Inghlanderrira joan ziran' 1797'an baziran an 19 Gotzai, 6.000 Apaiz eta beste orrenbeste kristau sekular' Beste ñon ez bezala izan ziran onartuak. Jaurlaritza berak billatu zien Gotzai, eta Apaiz askori non bizi; eta Jaurlaritzak berak lagundu zien, diruz, bizimodua aurrera ateratzen. Erriak ere abegi ona egin zien, eta osatu ziran burgesitarren artean, etorri berriei laguntzeko alkarteak. Ez zitzairen orrelako abegirik egin Laterri katolikoetan. España'k, indarrez, urrutiko tokietan bizitzera beartu zituan apaiz igesegiñak. Jrantzi'tik etorritako gudarozte errepublikatarren alde ipiñiko ote ziralaren bildurrez?. Ori ala ba'da, politika-begi zorrotzagoa izan zuan Inghlanderrikk, Frantzi'ko Errepublikaren etsairik gogorrenak igesegindako Apaiz eta Gotzai aiek izan bait ziran.

Arrigarriagoa dana, egiazko adiskitasunak egin ziran Frantzi'ko efiztar eta Eliza Anglitarreko Gotzai eta Apaizen artean, agian Frantzi'ko eliz-gizon aien kultura bertako Apaiz katolikoana baiño aundiagoa zalako. Baiña, ala ere, ez zan orrelako adiskidetasurik sortuko, artarako Argikuntzak ez batu girorik prestatu.

Ostera iritxi nai izan zuan Pitt Gazteak Eliza Katolikoari eskubide guztiak ematera, eta ostera Gorka IV'aren kontzientziestutasuna izan zuan eragozpen'

Erljio-arloan, benetan bizkortu zuan inghlanderriko Eliza Frantzi'ko iraultzak; aurrena, Frantzi'tiko kristau sekular aietatik asko an gelditu ziralako, eta Apaizak, danak, parrokietako lanetan asi ziralako, eta auetatik ere asko betirako inghlandar egin ziralako; gaiñera, Frantzi'n Saint Orner eta Douai'ko apizgaitegiak itxiak izan ziran ezkerro, Eliza Inghlanderrian bertan Seminario Nagusia irikitza beartua aurkitu zalako.

Asko erakutsi zion Inghlanderriko Jaurlaritzari Amerika'ren Jeiki

Frantzi'ko iraultzalariei ere, Laterri Alkartuetako iraultzaren ga-

raipenak eman zien burrukarako aize. Baiña beste bide batzuetatik ibilli zan Frantzi'n iraultzaketa.

Frantzi'n baiño lenago izan zituan Ameriketan bertan jarraitzaileak Iparreko Iraultzak. Amairu Koloniak Inlanderriaren aurka oraindik borrokan zebiltzala, "Erritar Arruntak", "Los Comuneros", jai1i ziran Kolonbi'n Jose Antonio Galan buruzagi zutela. Oso gutxi ezaguna da matxinada au, baiña bera izan zan Ezpañi'ren uztarri astunaren aurka Ameriketa guztiaren itxarkundeko lenen txinparta. Errez zapaldu zituan Españi'ko gudarozteak "komunero" ausarti aiek baiñan ez zan antzu gelditu ixuri zuten odola. Eta, matxinadaren giroan, Antonio Nariño'k gizakumearen eskubideei buruz egin zuan aldarriketa bizkorrak izan zuan oirartzuna Egoameriketako erri menderatuen biotzetan: Egoameriketako Laterri guztien askatasuna XIX mendean.

FRANTZI'ko IRAULTZA NAGUSIA

Argikuntzaren zitua izan zan Frantzi'ko Iraultza, ez azkeneko zitu, Argikuntzaren zitu izan bait ziran XiX mendeko gertakizunak. Egia esateko, baita gure egunotaraiño ere, Argikuntzaren itzala iristen zaigu oraindik. Gauza on asko izan bait zituan Argikuntzak. Baiñan baita txarrak ere; ez zan bâ bestela mundu ontako gauza izango'

Alderdi txar orren emaitza dugu berriz, nere ustez, Frantzi'ko Iraultza Nagusia; giza-arrazoï utsa jainkotzat artzean, "argitu" aiek —Voltaire, Diderot, eta Rousseau'k batez ere— eraturako giro motzaren emaitza'

Maiz entzuna izango zera noski, Frantzi'ko Iraultza edestiaren ardatza izan zala, ta aro baten amaia eta bestearen asiera. Frantziarrek esaten dute ori' (Bere etxeko gauza, gertakizun eta jendeen goratzaille itxuak bait dira frantziarrak). Barria, ori, dioten ori..., egia ez da!

Edestiaren ardatza, Kristautasuna zabaltzeko Kristok ELiZA sortu izatea izan zan. Eta gure-gure denbora berri auetan berriz, aro baten amaia eta beste aro baten asiera Amerika'ko Iraultza dugu, arek eman bait zion feudalismoari azken kolpea, ez Frantzi'koak; Iraultza ark sortu zuan mundua demokrazi biurtu bear zuan giroa. Frantzi'koak, bere ikaragarrikeri neurrigabeen bidez, giro ori kirastu eta aldakuntza ori eragozi besterik ez zuan egin. Iguingarri egin zituan bâ Errepublikaren, Askatasuna'ren eta Demokrazia'ren izenak. Jendeak, batez ere kristau-jendeak, eta Elizak berak, bildur artu zien itz oiei; izugarrizko bildurra.

"Liberté, Egalité, Fraternité" izan zan Frantzi'ko Iraultzaren ikur-itza' Gezurrezko ikurra! Ederki artu zion neurria Frantzi'ko iraultzalarien ezpainen itz oiek zuten baloreari euskaldun bertsolari batek:

"Liberté, Egalité, Fraternité"?

Ai iru gezur oiek egia balite"!

Frantzi'ko Iraultzik izan ez balitz, askoz lenago, milla aldiz lenago zabalduko zan, Argikuntzaren zitu jatorra lez, munduan demokrazia. Areago oraindik; XiX mendean, izan zan bezala, demokraziaren etsai izan bearrean demokraziaren aldezerik aundiena izanen zan Eliza'

Ez da nere uste au, ziorik gabeko ustea. Laterri Alkartuetako Iraultzaren garaitza garbiak eta Iraultza artan sortutako Errepublikaren jokaera egokiak arriturik utzi zituzten Europa'ko argitu zuzen guztiak eta baita Elizako jendeetako sorta bikain bat ere'

Baiña Elizaren edestian zer-ikusi aundia izan zuan gertakizuna bait dugu Frantzi'ko Iraultza, aztertu dezagun, arretaz, gertakizun ura.

— • i

Frantzi'ko Iraultza Unez-Une

1789'garren urtea.

Ekaiñak 17: "Les Etats Généraux", "LaterriMaillen Billera".

Ekaiñak 23. ErriMaillako ordezkariak eta Elizjende-Maillako ordezkari geienak, LaterriMaillen Batzarra "Assemblée Nationale", "Nazio-Batzar" biurtzen dute, batzarkide bakoitzari autarki bat emanaz. (Len autarkia LaterriMaillena izaten zan; mailla bakoitzak autarki bat; iru autarki beraz guztira)'

Dagonillak 4: Aristokraziak eta eliz jendeek uko dagie beren pribilejio edo abantail bereiziei. Laterkide guztiek ordainduko dituzte, aurrerantzean, zerga guztiak. Ordurarte eginkizun ortaz iare ziran Aristokraziko eta Elizako jendeak.

Dagonillak 26: Gizakumeen Eskubideen aldarrikatzea' Arrezkero ez da katolikotasuna Laterriaren erlijio izango, erlijio guztiei askatasun eta eskubide berdiñak ematen bait zaizkie'

Urrillak 5 eta 6: Paris'en zalaparta gaitzak. "Assemblée" edo Diputaduen Batzarra Bertsalles'tik Paris'era igaro bearrean aurkitzen da, ordurarte Bertsalles'en egin bait zituan bere billerak. Aurrerantzean gero ta geiago izango dira Paris'ko karriketari zalapartak.

Azaroak 2: Talleyrand Autun'go Gotzaiak eskatuta, Elizaren ontasun guztien jabe egiten da Laterria' Laterritik jasoko dute elizjendeek bizitzeko eta elizkizunetarako bear duten guztia'

1790'garren urtea

Otsaillak 13: ErlijiosoAnaidien debekua' Debeku ortan ez dira sartzen gaixoak zaintzen edo irakaskintzan jarduten duten erlijiosoak.

Uztaillak 12: "Constitution Civile du Clergé", "Elizgizonen Arau Laterkoia", Elizbarruti berriak edatuaz eta Gotzaiak eta Parrokoak erriak aukeratuak izan bear dutela aginduaz'

Azaroak 27: Gotzai eta apaiz guztia "Elizjendearen Arau Laterkoia", ziñ egiñaz, onartzera beartua'

1791'garren urtea

Joraillak 13: Aitasantuak "Elizjendearen Arau Laterkoia" gaitzes-tea.

Ekaiñak 20: XVI Koldobika'ren igesketa.

Irailak 3: Erregeak izenpetzearekin lege egiten da Frantzi'ko Kos-tituzio edo OiñarriLege berria. Iraultza osoturik dagoala, aldarrika-tzen da'

(Egunetik egunera ari da jakobatarren indarra mardultzen).

Bere-egiten ditu Frantzi'k Abiñon eta Benesiar Konterria, Eliza-ren bi Laterri aietan auteskunde bat egiñ ondorean.

Urrillak 1: "Assamblée Legislative" edo "Batzar Legegillearen" billera.

(Gero eta geiago, ziñ-egingabeko apaizak iraultzalarien etsaiekin bat egiten ari dira).

(Europa'ko Errege eta Frantzi'ko iraultzalarien arteko ezin-ikusia ere aundiagotzen dijoa).

Azaroak 29: Ziñ egin ez duten apaizen aurkako legea. (Badina 30 milla edo 40 milla atzerrira iges egindako apaizak).

1792'garren urtea

Frantzi, Austri eta Prusi'ren arteko gudua.

Orrilak 25: Apaiz bat erbesteratua izan daitekela, 25 laterkidek sa-latzen ba'dute, erabakitzen duan legea.

Dagonillak 10: Erria, indarrez, Tullerietan sartzen da; Erregea ta bere sendia katigu. Beste asko eta asko ere espetxeetara jaurtiak di-ra.

(Irailaren asieran Frantzi'n auteskundeak. Aurreneko aldiz eman-go dute laterkideek aurtarkia).

Irailak 5'etik 6'ra: "Irailleko Erailetak" Millatik gara katigu izan

ziran Paris'en illak; aien artean zinketarik egin ez zuten 300 apaiz eta 3 gotzai.

Iraillak 20: Valmy'ko kañoiketaren ondorean gudaren aldaketa frantziarren alde.

Iraillak 21: "La Convention Nationale"ren billera. Errepublikaren aldarrikatzea.

(Unetik unera dijoa giroa Elizaren aurka gogortzen).

1793'garren urtea.

Ekaiñak 2: "Xirondatarren" erortzea. "Jakobatarrak" nagusi, eta aien izenean, Robespierre'

Iraillak 18: Ziñ egindako apaizei "Laterriaren langille" izatea kentzen zaie, baiña oraindik Laterriak babesten ditu, bai, aiek, bai beraien Eliza ere.

Urrillak 10: Mari Antoniete'ren erailketa.

Azaroak 7: Apaiz guztiei beren apaiztasunari uko egiteko agintzen dien legea.

Azaroak 20: Paris'ko Notre Dame'n "jaikeme arrazoiaren" ospaki zuna' (Era bildurgarrian, Frantzi osoan sinisgabekeria zabaltzen d ijoa).

Abenduak 21: Tolerantzizko Legea kristautasunari askatasuna emanaz. Ordurako Danton'ek galeraziak zituan erlijioaren aurkako antzerkiak. Baiña zabaltzen eta zabaltzen ariko da oraindik sinisgabekeria.

1794'garren urtea

Orrilla: "Izatedun Nagusiaren " gurketa Laterriko erlijio aldarrikatzen du Robespierre'k. Errepublikaren eta Konbentzioaren etsaien aurkako lege izugarriak. Eraiketak, pilloka! Frantzi osoan 150 parroketan bakarrik ematen da meza.

Uztaillak 27: Robespierre'ren erailketa.

1795'garren urtea

Otsaillak 21: Laterriaren eta Elizaren arteko bereizketa orokorra. Ister-begiz begiratzen zaio Elizari, baiña badu onek, apaizentzat eta sakramentu-gintzarako askatanik aski.

FRANTZIA'ka IRAULTZA NAGUSIA

Frantzia'ko iraultza ez zan erlijioaren aurka egin; Frantzi'ko iraultza, "Politika-Era Zârraren" aurka egin zan; "Contre l'Ancien Règime". Zoritxarrez, Eliza "Politika-Era Zâr" arekin gorputz bat egiñik zegoan. Eta ez ziran iraultzalariak izan Eliza, Era Zâr aren alderdian ipiñi zutenak' Eliza bera batu zan Era Zârrarekin iraultzalarien aurka, batez ere auek errepublikazaleak ziralako' Españi'ko bigarren Errepublikan gero gertatuko zana bera, gertatu zan orduan Frantzi'n'

Frantzi'ko iraultzak "Politika-Era Zârretik" jaso zuan zamarik ikaragarriena Laterriko ekonomiaren mixeria izan zan. Errege Borboien jokaerak lur-jota utzi zuan Frantzia, Dirua bear zuten iraultzalariak Europa'ko erririk ugarienari jana emateko, eta Laterriaren soîña ostera bizkortzen asteko. Dirua, berriz, burgesiaren eskuetan zegoan, eta Elizarenetan. Izugar ri aberatsa bait zen Franziko Eliza!

Benetan aberats izatera iritxi zan Frantzi'ko burgesia Argikuntza-aroan' Baiña burgesi orrek politikaren auzietarako, Inghlanderrikoak, edo Lurralde Beekoetakoak, edo itali'ko Laterrietakoak baiño askoz eskubide gutxiago zuan Frantzi'n.

Bazekiten Frantzi'ko burgeskumeek berak bakarrik zuzendu zezaketela Frantzi'a. Baiño ortarako dirua bear zuten' Burgeskume aiek ordea ez bait ziran etxe-kalte, ez zuten, Aberriaren aide beren patrikak ustutzen asterik pentsatu. Elizaren ondasunetara jaurti zuten eskua. "Dirua bear du Frantzi'k. Elizak badu ugari dirua. Ar dezagun bâ Frantzi'arentzat Elizaren dirua"!

Ortan, Frantzi'ko Erregeek uneoro egin oi zutena besterik ez zuten egiten. Baiña, orain diru-bearra Erregeen denboretan baiño izugarri aundiagoa zalako, diru geiago kendu zioten Elizari. Zuan guztia kendu zioten, Ez zuten ori eliz-jendea gose gorrian ipintzeagaitik egin; burges iraultzalariak berak artzen bait zuten bere kargura, apaizen mantenua; eta mantenu egokia, gaiñera.

Ez zan ori bakarrik naikoa izanen Eliza, jeiki zan bezala, Iraultzaren aurka jeikitzeke; ia-ia orixe bera egin bait zuan bere Laterrietan Jose II Inperalariak. Eta ez zituan Elizak Inperatorearekin artuemanak pu skat u.

Egia da Iraultzak, "Apaizen Kostituzio" berria, zin egiñaz ontzat artzeko eskatu ziola elizjendeari. Ori bera eskatzen zioten baztar guztietan Erregeek ere: zin egiñaz edo zin egin gabe, apalki Erregearen esanera egoteko. Puntu bat bakarra zan "Kostituzioan" Elizak artu ez zezakeana. SEz ote zitekean ori konpondu? Elizan eskuak sartuaz zebiltzan orduan bertan ere, Errusi'ko Katalin eta Austri'ko Jose. Eta ez zuan VI Pio'k auen aurka ezer esan. Ain zuzen, Jose i'ari ikustaldi bat egitera Biena bertara joan ere egin zan!, eta baita gero. Erroma'n, ikustaldi ura eskertzeraz etorri zitzaion Jose, maitekero artu ere.

1782'an joan zan Pio VI'a Biena'ra. Bere asmoa "josepekeriari", neurriak ipintzea zan.

Audikiro artu zuan Inperatoreak Aitasantua, eta onen eskuetatik egin zuan Pazkoazkoa.

Gauza bat ikusi aal izan zuan Pio VI'ak Biena'ko egonaldi artan: Gotzairik geienak inperatorearen jokaeraren aldeko ziralak' Merezi dute gai antan aipu ona Treberis'ko Goigotzai Aulalariak, Biena'ko Goigotzaiak, Ungari'ko Goigotzai Nagusiak, eta beste gotzainen batek, Aitasantuaren alde ipiñi ziralako.

Urrengo urtean etorri zan Inperatorea, Erroma'ra, Aitasantuak Biena'n egin zion ikustaldia ordaintzera.

Osa onak ziran, ikustaldi auetan, Pio VI'aren asmoak, baiña alper-alperrikakoak izan ziran. Eta, gaitz-erdi ikustaldi aiek ori besterik, alperrikakoak, ez ba'ziran irten!; kaltegarriak ere izan bait ziran Elizarentzat. Zergaitik? Inperatorea eta Aitasantua ain alkarturik ikustean, Aitasantuak Inperatorearen jokaera ontzat artzen zuala eta aurrera jarraitzeko eskubidea ematen ziola uste izan zitekealako.

Aurrera jarraitu zuan Jose'k, gero ta erregekerizaleago'

Ez zan, ala ere Inperatorearentzat agiriko gaitzespenik izan' Ez zan, agian, Frantzi'ko Iraultzaren aurka ere izanen, Frantzi'ko Errepublikak eliz-jendeari "Monarkia", "Bakalduntza", gorroto izateko ziña eskatu ez balla' Billatuko ziran alkarrizketarako bideak.

Pio VI'a, Biena'ko joan-etorria egin zuanean, baztar guztietan izan zan onuratu eta gōraldua.

Pozez oiuka onartu zuan erriak Augsburg'en, Munich'en, Biena'n bertan eta errixkarik txikienetan. 1782'ko urte ortan bertan Frantzi'ra etorri balitz, arrera bera egingo zion Frantzi'ko erriak, Frantzi'ko erria Iraultzaren asierako denboretan ere Elizaren eta bere apaizen maitale bait zan. Oraindik, jendearentzat, frantzitarra izateak katolikoa ere izatea esan nai zuan, bai jende langille arruntarentzat..., eta bai burgesi-

kumeentzat ere. Auek iraultza asi zutenean, ez zuten Eliza ezerezterik pentsatu. Aberastasunen maillean Eliza txiroa izan balitz, —izorionekoak txiroak!—, eta politikaren maillan bere buruzagiak Erregearen alderdikiderik boroenak izan ez balira, —izorionekoak zuzentasunaren gose ta egarri diranak!—, Frantzi'ko Eliza, sendoagoa eta bizkorragoa irtengo zan Iraultzatik.

* * *

IRAULTZA'REN EGUNSENTIA: "L'ASSEMBLEE DES NOTABLES"; "OSPETSUEN BILLERA".— Auzi guztiaren ardatza ekonomia zan une aietan. izan zituan Koldobika XVI'ak ministro argiak gai ontarako: Malesherbes, Turgot, Calonne, eta Necker. Gizon yayoak, eta naimen zuzenekoak. Baiña Frantzi'ko dirueza konpontzeko, mirari bat bear zan' Ainbesteraiño ondatu bait zuan ekonomia Borboitarren politika arroak eta biziera lasaiak...

1787'garren urtean Calonne zan Frantzi'ko ekonomiministroa' Bide zuzen bat billatzeko Jaun onuragarri batzuen Billera bat egin zuan. Jaun aiek Aristokraziko jendea, Gotzaiak, eta burgesitar bat edo beste ziran. Azkeneko auek, gutxi; eta Erregearen alderdikoak. Calonne'ren asmoa argia eta apala zan; alde guztietatik zuzena gaiñera' Ez zuan iñortxok Elizari gaitzik egiterik pentsatzen eta azkoz guxtxiago Calonne'k. Calonne'ren asmoa, Aristokraziari, eta Gotzaiei ere, zergak ordaiñaraztea zan, auek ordurarte beti iare izan bait ziran Laterriari diru emateko bearkizun ortatik.

Frantzi'ko Eliza, —iGotzaiek!—, ez ziran une larri ark zuan garrantziaz jabetu; eta ezetz erantzun zuten, aristokrazitarrekin batera. Alare, Iraultzaren asieran Elizaren aurkako lenen urratsa Elizak berak eman zuan' Ona nola: Frantzi'ko Parlamentuek, —"Legediaren Aristokrazi" ziran, Parlamentuek—, Calonne'ren asmo "berdintzailleari" aurpegi emateko, "L'Etats Généraux" edo "LaterriMailla-Guztien" billera eskatu zuten. Orduan "Odolaren Aristokraziak" bezala, "Elizarenak" ere gustora eman zion bere baiezkoa Parlamentuen eskariari; bai bait zekiten iru Aristokrazi auek, Billera artan garaille irtengo zira-la bertako autaketak-egiteko-moduari eskerrak.

Berenganatu zuten Koldobika XVI'a ere; ta Calonne, minlstrotzatic jaurtia izan zan; eta bere probintztik landa erbesteraturik bizitzera beartua gaiñera'

Necker suizitarra izan zan urrengo ekonomiministroa, eta Parlamentuen eskariari amore emanaz "Les Etats Généraux" edo "Laterriaren Mailla guztien Billera Orokor" ura biltzea pentsatu zuan' Frantzi'n Laterriaren mailla guztiak iru ziran: Aristokrazia, Eliza eta Erria' Azkeneko oni, "Iru garren mailla" "Le Tiers Etat" deitzen zioten' Iru Mailla oien Billera zan Frantzi'n, gaurko Parlamentuan itxurarik geiena zuan gauza. Ez zuan beñere indarrrik geiegi izan, baiña, ala ere Borboitar bakarragintzalei ez zitzaien atsegiña-ta, bazeramazkian Batzar arek bi mende illik zegoala' Azkeneko billera 1614'ean egin zan; Richelieu'ren denboran.

Eta, orain berriro biltzera zijoan LaterriMaillen Batzar artan garrantzi aundia izanen bait zuan Elizaren jokaerak, ikusi dezagun nola zegoan Eliz au Frantzi'ko Iraultzaren egunsentian.

Aberatsa..., zearo zan aberatsa Frantzi'ko Eliza' Nekazaritzako lurren bostorden bat berea zuan: 1/5; ia laurden bat. Beste era batera gauza argitzeko, egizu kontu Frantzi'ko probintziak bost probintziko taldeetan banatzen baditugu, bosteko bakoitzean probintzi bat Elizarena izango genukela. Egia da Elizak diru asko bear zuala; ikastetxeak, gaixotegiak, eta karitate-etxe guzti-guztiak, unibersitateak berak, bere eskuetan bait zeuden' Ez bait zuan Laterriak ekintza oietan txanponik eralgitzen.

Garai artan bertan Elizak 2.200 gaixotegi zituan Frantzi'n eta 30'000.000 franko gastatzen zituan ortan; eta beste 30 milloi irakaskintzan.

Egia da, baita ere, amaseigarren mendea ezker ordaintzen ziola Laterriari "gogozko" zerga bat: "La corvée". Urteko 7.000.000 franko-tan ipiñi zan Elizaren "gogozko" diru-emanbear orren muga 1561 garren urtean. Eta arrezkero aldatu gaberik zegoan muga ori, naiz bizitzaren balioa, eta erriaren ta burgesiaren zergak, ikaragarri garestituak izan'

Bereak zituan, lurren errentetaz gaiñera, Elizak, urtero jasotzen zituan "amarrenak" ere. Auek ez ziran bazter guztietan berdiñak. Bretaña'n amarrenak baiño geiago ziran; beste toki batzuetan gutxiago. Bata-bestearekin esan leike %5'a jasotzen zuala Elizak: Frantzi'ko uzta guztiaren eundik bost. Ez da gaizki! "Amarrenen" zerga oni jendeak gorroto aundia ziola, esan bearrik ez da. Ainbeste zergen artean, larriegia bait zan garai artarako'

Ala ere Apaizak ez ziran aberaski bizi. 2 millatik 3 millara franko irabazten zituan Apaiz Jaun batek urteko. Apalki, baiña goserik gabe bizitzeko aiña. Okerrago zeuden Españi'n.

Gotzaiak eta Abatak bai; baita titulo utsezko Abatak ere, printzi-peak bezala bizi ziran. Elizaren zerga edo "Corvée" ura ordaintzetik iare bait ziran, gaiñera. 130 ziran Gotzaiak Iraultzaren asieran. Danak aristokrazikumeak. Oso gutxik zuten beren Elizbarrutietako jendeekin eta Apaiz Jaunekin artu-emanik. Erdiak, Bertsalles'en bertan bizi ziran' Erregearen kortean. Ez zituan erriak maite, ez bait zuten eraspenik merezi. Batzuk, gaiñera, nardagarriak ziran: Rohan Kardenala, diru ondatzaille bat zan; Autun'go Gotzaia, Talleyrand, ez lotsarik ez araurik ez zuan gizona; eta Tolosa'ko Goigotzaia, Brienne Kardenala, politikeri-zale utsa. Kardenal onek Jainkoa sinesten ote zuan galdezka ibilli oi zan XVI Koldobika. Danak zeuden beti, baita Talleyrand ziztrina ere, Erregea indartsua zan bitartean, Erregearen aurrean burua makurtzeko.

Begirunerik merezi ez zuten gotzaitxo auen antzekoak izango dira, gera, Frantzi'tik aldeegitean, Inghlanderritik pastoral-eskutitzen bidez, Erregea ta Eliza, Bakalduntza eta Kristautasuna, bat egineñ dituztenak.

Lenengo iraultzalariak ez ziran "antiklerikalak" Benetako katolikoak ziran' Galikerizaleak ziran; eta erregekerizaleak. Baita antiklerikal-xamarrak ere, bearbada. Baiña II Jose'rekin eta II Kataliñ'ekin pakean bizitzeko modua aurkitu ba'zan, aurkitu zitekean, agian, Frantzi'rekin bizitzekoa ere, lenen une artan. Katolikoa bait zan Frantzi.

Errietako Apaiz Jaunak, ondo ikusiak ziran; eta benetan malte zituan erriak. Era berean ziran maitatuak, egiaz lan egiten zuten lekaide ta prailleak. Erria kristaua zan. Argikuntzaren gogaetak ez ziran burgesitarren mailletik beera jeitxi' Eta argituen artean ere ausartiak, edo geiegikerizaleak, gutxi ziran oraindik; eta siñisgabeak, askoz gutxiago. Galikerizaleak, bai; mundu guzia zan Frantzi'n galikerizale'

Ondo ageri da Frantzi'ko katolikotasuna "Cahiers de Doleances", edo Frantzi'ko politika ta ekonomiaren buruzagiak noizean bein, Erregeari Jaurerriaren "gaitzak", "doleances", agertzeko idazten zizkioten "cahiers" edo "kuadernuetan" 1787'an idatzitako "kuadernu" oietan Elizaren aberastasunak aipatzen dira, baiña ez asmo okerrarekin' Iraultza beraren bezperan, idazki oiek Elizaganako begirunez bererik daude, eta bertako eskariak Elizarentzako onuragarriak zirala ere esan leike, baiña Frantzi'ko Gotzaitxo aiek ez zituzten gauzak ulertu' Aien itxutasunak, Elizak jasan bear zuan ondamenean, badu errurik naiko.

BURGESITARREN IRAULTZA

1786'eko Maiatzaren 5'ean bildu ziran Bertsalles'en "Laterri Mai Ha Orokorrak". Egun ori artu oi da Frantzi'ko frauftza Nagusiaren asieratzat. Bâ... parte aundia izan zuan Batzar artan Elizak. Baiña esan dezagun aurretik gauzatxo bat: LaterriMailla aien Biltze utsa egiazko Iraultza bat zala, Erregeari "bakarrik-agintzea" kenduta, ostera agintaritzaren zati bat, feudo-aroan bezala Aristokraziari itzultzea zalako. Iñongo mugarik eta iñoren eragozpenik gabe agintzearren lurperatu zuten Borboitarrek LaterriMaillen Batzarra. Orain, atzera berriz Batzar aren mugen ta esien barruan Erregearen agintaritza erts tzean, Aristokraziaren zaintzaperera, uztarpera, zekarten Aristokrazitarrek Erregea. Orregaitik, LaterriMaillen Batzarra eskatze arri, "Aristokraziaren Iraultza", noizean bein deitu oi zaio.

Iru Aristokrazi mota, bereizi dezazkegu orduango Frantzi'an: Odolezko Aristokrazi feudozalea; Elizaren Aristokrazia; (Goigotzaiak, Gotzaiak, Abatak); Legiztiaren Aristokrazia: Jaurerriko 15 edo 16 "Parlamentuak", batzuetan bat geiago, besteetan bat gutxiago; ez bait ziran beti numero berekoak izan' Parlamentu auek, Epaitegi Nagusiak ziran' Ez zuten LaterriMaillen Batzarrean aulkirik baiña berak ziran, lege-ezagule ziralarik, Batzar aien izpiritua, batzarkideen aolkulari, Batzarrak artutako erabakien iragarle". Eta beste bi Aristokraziekin, geeienean, beintzat, ederki konpontzen ziran.

Ez zan ordea txikiagoa izan Irugarren Maillakoen poza'

Ezta're Apaiz Jaun agurgarriena.

Gera ta okerrago zijoan Frantzi murriztuaren ibillera-ta, mundu guztiak nai zuan an aldaketa bat. Baita gotzaiak ere' Batez ere Aix'ko, Bordele'ko, Arles'ko, eta Tolosa'ko Goigotzaiak, eta bereiziki Narbona'koa, Nilfon, zebiltzan gogorrenik aldaketa-billa lanean.

Baiña gotzaien asmoak ez ziran Apaiz Jaunenak bezain aratzak' 1787'an, Erregeak, larri, Frantzi'ko gotzaidiari diru-laguntza eskatuz; bear-bearrezkoa zuan diru-laguntza. Ezetz erantzun zioten aiek, eta Etats Généraux edo LaterriMaillak batzarrera deitzeko eskatu. Ez zekiten zer eskatzen zuten.

Apaizek ordea, erriarekin bizi ziran-eta, biotz-biotzez maitatzen zuten erria. Ezagutu ere iñork baiño obeto ezagutzen bait zituzten erri aren estualdi ta larritasunak. Orregaitik poztu zituan ainbeste, azkenean bi menderen ondorean ostera Laterri-Maillen billera egitera zi-joala jakiteak' Begira zer idatzi zuan apaiz agure zaar batek gertakizun aren berri jakin zuanean:

"Laister beteko ditut larogei urte. Eta urte oietan danetan ez dut gaurko au baiño egun pozgarriagorik izan, egun onek aro berri baten egunsentia ikustaarazten bait dit. Zorionekoa bedi egun au argitaratu duan eguzkia"! Apaiz agurgarri onek ere ez zuan asko pentsatzen gertakizunek nolako bira, bira okerra, eman bear zuten. Izan ziran Batzar aren albisteak asarreturik utzi zituan apaiz batzuk ere; agian, andik gauza onik atera ez zitekeala ikusten zutelako batzuen batzuk, eta beren eskubideak galdu zezaketela ikusten zutelako beste batzuk. "Gerta daitekeana gerta, jakingo dugu apaizok esku batean ezpata eta bestean gurutzea artuta gure eskubideak babesten", esan zuan apaiz jaun asarretu batek. Borrokalaria gizona!

Batzarreko LaterriMailla aiek, iru ziran: Aristokrazia, Eliza ta Erria, irurak batzarkide sail berdiñarekin. Baiña ez zuten autaketerako batzarkide bakoitzak autarki bat ematen, ez bait ziran batzarkideak autaketak egiten zituztenak, LaterriMaillak baizik, eta Mailla bakoitzak autarki batekin. Orrela, iru autarki, iru boto, bakarrik zenbatzen ziran Batzarretan. Eta Aristokraziak eta Elizak, geitxuenetan, alkarrekin jokaten zutelako, beti ere bi autarki baten aurka..., erria irtetzen zan galtzaille. Orregaitik ain pozik artu zuten Odolaren eta Elizaren Aristokraziak "Legediarena"ren pentsakizuna'

Oartu zan Erregea Batzar aren garrantziaz. Ikusi zuan Bakarragintzearen amaia zala, "Absolutismoaren" amaia. Egiatzko Iraultza bat; eta ez zion Parlamentuen eskakizun arek batera atsegiñik egin. Baiña Jaurerri guztiak Batzarraren billera eskatzen ziolako, ez zuan eskariari bere onespena eman beste erremediorik izan.

Orrela bildu ziran, batzarrean, LaterriMaillak, eta batzar antan Elizak zer ikusirik asko izan zuan. Batzar orren billera-deia elizgizon batek egin zuan, Tolosa'ko Goigotzai Loménie de Brienne Kardenalak, au bait zan orduan ministro.

Elizak asi zuan, Billera, aunditasunik oparoenarekin: Sakramentu Txit Doneraren ibildone batekin. Paris'ko Goigotzaiak, Juigne'k, eraman zuan Sakramentua' Atzetik Koldobika XVI'a zi Joan, eta aurretik, 1'200 diputaduek, Mirabeau ta Robespierre aien artean zirala, danak argizagi piztuak eskuetan zituztela' Goigotzai berak eman zuan gero

Pontifikai Meza. Ez zuan iñork, orduan, Eliza zigortzerik gogoratzen. Eta, gero, diputadu aietatik askok Elizarentzat mingarriak litezkean gogoetak erabilliko ba` dituzte ere, gogaeta aiek ez ziran Elizatik landa sortu, Elizaren altzoan baizik, Bossuet'en antzeko teologilari, kanonlari, eta elizgizonen buruetan; galikeririk jatorrenaren emaitza izan bait ziran'

Eta asierako ibildeune ta meza bat baiño garrantzitsuagoa dana, Batzar arek, Iraultzari sorkundea eman aal izatea bera, Elizari zor dio' Ez, noski, gotzaiei; baiña, bai, Elizari: iru mailleko batzarre artan garrantzitsuena zan Eliz-Maillari. Ara nola.

Ordurarte, esan dugun bezala, iru LaterriMaillak diputadu-sail berdiñarekin joaten ziran Batzarrera. Baiña oraingoaren deia egin zan ezkerro sendo lan egin zuten iraultzalariak ErriMaillari beste bi Maillei aiña diputadu emateko. Asko idatzi zan ortarako eta idazlari aietan yayoenetakoa Jose Siéyès, Chartres'ko Bikario Orokorra izan zan. 'Qu'est ce que le tiers état?', "Zer da irugarren Mailla"? galdetzen zuan Siéyès Apaizak izen ori zuan liburu batean' "Irugarren Mailla, Frantzi osoa da, —erantzuten zuan Apaiz Jaunak—, Frantzi'n amar gizakumetik bederatzi, erriko-jende diralako". Ta orregaitik, gutxienez, beste bi Maillentzako aiña diputadu eskatzen zituan Erriaren Maillarentzat, orduan esan oi zan bezala "Irugarren Maillarentzat".

Frantzi'ko erria zala irugarren Mailla ori, diosku Siéyès'ek, baiñan naiz "Erria"ren izena eraman, ez zan erria. burgesia zan, burgesi-kumeak bait ziran Mailla ura osotzen zuten guztiak' Erriaren abotsa, Apaiz Jaunak eramaten zuten iru Maillen Batzarretara.

Egun gutxitan liburu orren 30.000 ale irakurri ziran; eta bere arrazoia uka-eziña zalako, lortu zuan ErriMaillak beste bi Maillek batean aiña diputadu izatea' Orrela, 1789'ko Batzarrean, Aristokraziaren mailak, 300 Bazkide izan zituan; Elizarenak beste 300; Erriarenak berriz, 600.

Batzar artan, iraultzalariak, Erriaren Maillan zeuden. Baiña Elizaren Maillak bat egin zuan, maiz, Erriarekin billeraren une askotan' Batez ere aurrenekoan; ondoriorik aundiena izanen zuan auzian: Autarkiak, Botoak emateko modua erabakitzean.

Necker'ek LaterriMaillen Billera egiteko aburua onartu zuanean, Paris'ko Parlamentuari galdetu zion autarkiemate ori nola egin bear zan. Beti bezala; erantzun zuan Parlamentuak. Mailla bakoitzak autarki bat emanaz. Liste orretan deitu zituan Brienne Kardenalak 1787'an Iru Mailletako bazkideak, eta uste orrekin onartu zuten Billeraren as-

moa Aristokraziak eta Gotzaiak. Baiña, ezan uste errekin etorri, Billerara, Erriaren Mailla' Ezta Elizarena ere'

Gotzaiak eta Aristokrazitarrek ez zuten apaizen jokaera nolakoa izan zitekean pentsatzen nekerik txikienarik artu, Batzarra biitzeari baiezkoa eman ziotenean. Bazan bâ au garrantzi galanteko punttual; Elizaren Maillan geienak apaizak izaten bait ziran. Onek erakusten digu bi aristokrazi aietako gizontxo aien adimenaren zorrotzasuna zein ñen urria zan. Baita ere Gotzaiak apaizen gandik zein ñen urruti bizi ziran

1789'ko Billera artan Eliz-Maillaren osokuntza auxe izan zan: Gotzaiak, 47; Abatak, 35; Apaiz Jaunak, 208!; geienak, erri txikietako parrokoak. Erria maite zutenak, eta erriak maite zituanak.

Bero zetozen gaiñera Erriaren eta Elizaren bazkideen biotzak. Parlamentuak, Aristokrazien alde jarri ziran Frantzi guztian, batez ere Paris'en, Grenoble'n, Dijon'en, Rennes'en, Tolosa'n eta Bearne'ko Paube'n' Erria, 1780'a ezkeru, gose gorrian zegoan, eta amorraturik; eta azkeneko urteko uzta izugarri txarra zetorren' Ekonomiaren arloan ez zuan iñortxok Laterriaren paper-diruagaitik txanpon bat eman nai. Literaturarenean, millaka idazkiño argitaratu ziran, LaterriMaillaren Billeran autarkiek emateko era zarraren aurka. Idazkigudu onetan ere parte aundia artu zuten apaizek' Idazkiño aietan aipatuena eta irakurriena aipatu dugun Sieyès apaizarena izan zan: eta idazki artan beste bi Maillak aiña diputadu izateaz aparte beste gauza bat ere eskatzen zuan Irugarren Maillarentzat Chartres'ko Bikario Jaunak. Iru Maillako bazkide bakoitzari, autarki bat ematea, bestela ordurarte bezala Mailla bakoitzak autarki bat eman bear bazuan, alperrikakoa bait zan Irugarren Maillak beste biak aiña bazkide izatea.

Ori izan zan Billerak argitu bear izan zuan aurreneko atala: Autarkiemateak egiteko modua, eta auzi ori argitzeko autaketa bat egin zuan. Era zarraren aide agertu ziran Aristokraziaren Maillakoak. Berriaren alde Erriarenak' Elizak zeukan bere eskuetan erabakia; ta erriaren alde jarri zan Eliza' Ona, Elizaren Maillaren autarkien xeetasuna. Aristokraziaren alde irten ziran Abata danak, eta iru ez gaiñeko Gotzai danak; baiña apaizetatik, 63 bakarrik' Beste Apaiz Jaun guztiak erriaren aide agertu ziran'

Errez irabazi zuan Erriak autaketa, Apaizen laguntzari eskerrak; eta une berean atera zan garaille Iraultza, berez Irugarren Maillak ziztuan 600 autarkiei Apaiz Jaunenak batu ezkeru Billeraren jabe bait zan Iraultza. Gauza bera ziran bâ, Erriaren Mailla eta Iraultza.

Ondo ulertu zuten, noizbait!, iru Aristokrazietakoek ori' "Ce sont ces f... de curés qui on fait la Révolution"; ("Apaiz i'.. auek izan dira, Iraultza egin dutenak") oiu zegian aietako batek.

Siéyès Apaizaren erakusketak ondo ulertu zituztelako, Irugarren Maillako Bazkideak, Frantzi guztiaren egiazko ordezkari zira zera zeo sinisturik zeuden. Siniste sendo orrek eraginda, Irugarren Mailla Frantzi osoaren Batzarra bihurtu zuten; "Assemblée Nationale" "Nazio-Batzarra". Eta Nazio-Batzar ortara deitu zituzten beste bi Laterri-Mailletako Bazkideak. Orrela sortu zan Frantzi'n egiazko lenen Parlamentua'

Au zan Frantzi'ko bigarren Iraultza, edo Iraultza Nagusi bakararren bigarren unea: Burgesiaren Iraultza. Burgesiak Aristokraziaren aurka egiña, aurrenekoa Aristokraziak Erregearen aurka egin zuan bezala'

Aundiki gutxik erantzun zioten Irugarren Maillaren deiari. Aurreneko momentuan alkartu zitzaizkionen artean aipagarrienak auetzek daitezke: Orleans'ko dukea, erregearen lengusu zana; Necker ministroa, Paris'ko jauntxoak, Liancourt'eko dukea, Lafayette eta Mirabeau, markesak biak, asiera-asieratik bait ziran auek iraultzalariak.

Zerbait egin nai izan zuan gobernuak Iraultzari egalak moztutzeko, eta "Nazio-Batzarra" bihurtutako Irugarren Maillako eta Elizaren Maillako Batzarkideei, Batzar-Gelako sarrera itxi zien. Ez ziran auek bihurtu. Bertsalies'ko pelota-plazan bildu ta ez zira andik bereiziko Frantzi'ari Kostituzio berri bat emangabe, ziñ-egin zuten. XVI Koldobika'k bazkide Iraultzalarien aurka deus geiagorik egiteko modurik ez zuan. Bera, gizon bezala, batere baliorik gabeko gizona zan; Erregiña, Mari Antoniete, Austri'ko Mari Terese'ren alaba, kaxkariñ utsa. Erri gosetia, borboitarren lujo nardagarriaz asperturik zegoan; Aristokrazi ustel lizunak, iraultzalari trebeei aurpegi emateko kemenik ez zuan. Gudaroztea, Ipar-Ameriketako Iraultzan errepublikatarren aide parte artu zuan ezker, errepublika-zalea zan. Atzeritik, batez ere Suizi'tik, bere buruaren zaindaritzarako izkillu-gizon geiago ekartzeko, txanponik ez zuan Koldobika XVI'ak' Filosofilariak eta kultur-jendea, —Laterri Alkartuetako Erkalaren bizkortasunak eta zintzotasunak lilluraturik—, gero ta geiago errepublikaren alderdikoak ziran. Erregearen euspen bakarra burgesia zitekean' Baiña Burgesia "Nazio-Batzarra" osatzen zuten iraultzalari aiek ziran!

Orregaitik, beste erremediorik ez zualako, onartu zuan Koldobika XVI'ak azkenean, "Assemblée National" ura, eta Batzar arren altzora sartzeko agindu zien Aristokraziaren ordezkari, eta baita Batzarra-

ren aurka zeuden Elizarenei ere. Gotzaiak, ia danak zeuden Batzar aren aurka.

Batzar artan nagusi ziran burgesitarrek, ez zioten Koldobika XVI txepelari naitasun aundiegirik, eta askoz gutxiago oraindik Mari Antoniete txoliñari, baiña ez ziran erregetzaren etsaiak; ezta Batzarreko Apaiz jaunak ere. Nazio-Batzarreko gizonentzat, oraindik, Laterri Alkartuetako Errepublika baiño geiago zan eredu, Inghlanderri'ko Erregetza. Ta orixe biurtu ere zuten Frantzi'ko Laterria : Demokrazizko Kostitutuzio batean oiñarritutako Erregetza bat.

Eta "La Assemblée Constituante" k ezarri zuan Erreiñu demokratiku artan, salbatu zezakean ziurki XVI Koldobika gaixoak bizia eta baita buruntza ere, aolkulari okerrak gaizki erakutsi ez ba'zioten. Aoi kulari oker oiek Mari Antoniete, Aristokrazi'ko Jauntxoak, eta Frantzi'ko Gotzai itxuak izan ziran, "odol urdiñeko" gizontxoak.

Dana dala, Iraultza, egiñik zegoan. ErdiAroko Iru Laterri-Maillen Billera Orokorra, betirako ezerezeturik gelditu zan. "Etats Généraux" aien orde, orain Batzar bakar bat sortu zan, Frantzi guztiaren Ordezkarri zan "Assemblée Nationale", "Nazioaren Batzarra" Batzarra-baitan zegoan agintaritza, aala; ez Erregearen pertsonan. Eta Batzarra Erriaren Ordezkarri baizik ez zalako, Erriarena zan agintaritza, aala. Egiatzko Erkala bat biurtu zan Frantzi'a; egiatzko Demokrazi bat. Baiña Demokrazi orren erpiñean, ez almenez, baiña bai omenez, Laterri guztiaren Buru, Erregeak jarraitzen zuan. Ta ala jarraituren zuan gero ere, XVI Koldobika'k, oker gidatua izan zalako, oker jokatu ez balu.

L'Assemblée Nationale" ura, "Assemblée Constituante", biurtu zan bereala, "Batzar Kostitutuzioegillea". Eta "Kostitutuzio" edo "Oiñarri-Lege" berria gertutzen ari zan bitartean, 1789 artako uztaillean, izugarrizko kalteen iturburu izanen zan gertakizun tamal bat izan zan Paris'en aurrena eta Frantzi guztian gero. Sikologia-baitako gertakizun bat: "La Grande Peur", edo "Bildur Aundiaren" sorkundea'

Erria-baitan sortu zan, aurrena, Bildur Aundi ura.

Erregeak, Necker kendu zuan ministrotzatik, orrela Bartzar Kostitutuziogilleko burgesitar demokrazi-zaleei gidaria kentzen zielaren us-tean. Baiña erriak maite zuan Necker; eta asarretu, eta bildurtu zan erria, zigorketa gogorretara oiturik bait zegoan' Oroitzen zuan oraindik nola, 1775'garren urtean, "Guerre des Farines" "Iriñen gudua" deitutako matxinadan ogiaren garestitzearen aurka jeiki zanean, gobernuak, gudaroztea gaiñera boteaz erantzun zion.

Ortaz gaiñera, Aristokraziak Erregearekin bat egiñik Iraultza odo-

letan ito nai zualaren zurrumurrua zabaldu zan Paris'en eta bazuan zurumurru orrek bere mamia. Egia zan beintzat Batzar Kostituzioegillea onartu zuan bezain laister, Erregea, Batzarra barreiatzeko gudari-biltzen asi zala. Egia zan ere, azkeneko egunetan gudaroztearen zati mardulak Paris'en inguruetan biltzen ari zirala.

Orrela sortu zan frantzitarrek "La Grande Peur", "Bildur Aundia", deitu oi dioten ikara-aldi beltz orokorra. "Bildur Aundia" erria-baitan sortu ba'zan, erritik aristokrazietara igara zan, eta iru aristokrazietako jendeetatik, iraultzalaririk gogorrenetara. 1789'ren uztailla aipatu oi da, Bildur Aundiaren arotzat, baiña, orduan, sortu besterik ez zan egin, Napoleon'ek agintaritzaz artu zuan arte iraun bait zuan. Guk ez dezakegu gaur, bildur orren zama zenbaiteraiñokoa izan zan igarri. Oso-osorik erotu zuan Frantzi'ko jendea, eta erotasun orokor arek eraginda egin ziran Frantzi'n, ludian egin diran izugarrikeririk aundiene-takoak.

1789'rako irikirik zeuden, eta bizkor ari ziran lanean Paris'ko Urian iraultzalarien "Clubs" edo "Batzokiak". Bil-toki oietan alkartzen ziran, Iraultza aurrera ateratzeko, politika aldatzearen zale ziran gizonik urdurienak' Gizon auen artean baziran asmo zuzenekoak, baiña, iraultza ta gudate guztietan gerta oi dan bezala, baita, ez kontzientzirik eta ez biotzik ez zuten indarkerita-odoltzale erdieroak ere. Azkeneko auek geienak "Jakobins", "Santiagotarrak" edo "Jakobatarrak" deitutako saillekoak ziran. Izen orren arrazoia auxe da: bakoitza eliz batean, Santiago edo Donejakobarena izandako elizean ipiñi zutela. Jakobatarrak ziran Frantzi'ko Iraultzaren buruzagirik gogorrenak: Danton, Robespierre, Marat, Desmoulins, Fouché, Tallien. Eta baita nardagarrienak eta erailleenak ere: Fouquier-Tinville, Barrere..'

Jakobatarren saila bezain ospetsua zan "Girondins" edo "Xirondatarrena". "La Gironde", Bordele uria buru artuta, inguruko lurrekin eratu zuten "Departamentu" berriari deitu zioten iraultzalariek. Xirondatar-saillekoak, geienak, Akitani'ko eta Gaskuña'ko diputaduak ziralako deitu zitzaizen izen orrekin. Auek askoz baretsuagoak ziran, zentzu geiagoko gizonak' Xirondatarrak ziran Brissot, Condorcet'eko markes matematikalaria, Petign,...

Bi sail auek errepublika-zaleak ziran, baiña, —ori gertatu baita beti borroka-denboretan—, biurrienak egin zuten gogapen-ereintzarik aundiena erria-baitan, eta auek artu-arazi ere zioten politika berriari beren jokaera zital odoltsua' Ez gaitu orrek arritu bear, Edestiaren lege da-ta. Oroiz zazute zer gertatu zan España'ko azken-gudatean, Elizak ainbat ur bedeinkatuz onetsi zituan frankotar txit kristauen artean.

Eta beste aldean, Errepublikaren aldean. ¿Ez al ziran an anarkistak, beren gogorkeriarekin gertakizunen jabe biurtu, naiz España "gorriko" jende guztiaren aldean, —anarkista aiek— apur batzuk besterik izan ez?

Bazan Batzar Kostituziogillean beste sail bat ere: "Les Feuillants", "Orritsuak", Iraultzaren "eskubia", erregetzaren aldekoak; beintzat, errepublika-zale osoak ez ziranak. Auen artean ezagunak dituzu: La Fayette'ko markesa, Ipar-Ameriketako Iraultzan Ingianderriaren aurka borroka egin zuana; Bailly izarriztilari ospetsua, Batzar Kostituziogillearen Lendakari zana. Baita Mirabeau'ko markesa ere, Batzar aren egiazko gidaria, eta baita Batzar artako "bourgeoisie" edo "burgesi" geien-geiena ere.

Erria, batez ere Paris'en, goseak ez iltzeko, landetan bildutako belarra janez ziardun erri kupigarria, iraultzaren aldekoa zan, eta, "Iraultza" oiuka, jaurti zan karriketara lendabiziko egunetatik. Baiña Drain bere biziaren bildur zan, bai bait zekian, Aristokrazia iraultza zanpatzeko gertuketan ari zalaren susmur ura egia ba'zan, Erregearen gudariek jende xearen artean eginen zuten erailketa, izugarria izanen zala. Ta erriak Erregearen gudaroztea, —geienbat atzerritarrez, eta batez ere Alemani eta Ungari'ko soldatariz osatutako gudarozte ugaria —, Paris'ko Sevret zubira iritxi zala jakin zuanean, lertu zan, jende lander guztien biotzetan ordurako ler-zori zegoan Bildurraren ugaldea.

Uztailla zan. 12'an jakin zan Necker, erriaren maitea, ministrotzatik Erregeak bota zuala. Iraultzalarien zigorketa, astera zijoala uste izan zuan jendeak' 14'ean, "a panic-stricken people", dio inglandar batek, "ikaramiñak jotako erria", "aux armes", "izkilluetara", oiuka gudaroztearen izkillutegietara abiatu zan' Izkilluak arrapatu, ta andik La Bastille izeneko gaztelu beltzara jo zuan; eta egun artan bertan, 1789'ko Uztaillaren 14'ean artu zuan erri izutu arek, tiroka, Borboitarren indarraren eredutzat euki oi dan Gaztelu galant ura: ordurarte Erregearen etsaiak espetxeratzeko erabili oi zan gaztelu bildurgarria.

Ez zan ortan gelditu, ikarak sortutako, erriaren amorrua. Izan ziran erailketak. Probintzietan nekazari gaixoak bertako aristokraziko lur-nagusiei zioten bildur; eta auen gazteluak txikitzeari ekin zioten. Egin zituan, baike, erriak, okerkeri, ugariak; mundu guziko kristau erregezaleek gustora aizatu oi dituzten geiegikeriak. Baiña ipiñi ditzagun gauzak bere neurrian. Uztail artan Frantzi'ko erriak Frantzi guztian egindako erailketak, azkeneko "gurutzada" españarrean "gurutzetarrek" Naparroa'n bakarrik egindakoak baiño askoz gutxiago dira. Gi zadi ikaratua, edo gizadi muin-berotua, aldi guztietan, eta alde guztie-

tan, eta baita sinispide guztietan ere, beti bait da berdiña.

Garai ontakoa da Paris'ko Udalak, pakea gordetzeko, osatu zuan "Nazioaren Ertzaindia" deitu zitzaion izkillu-gizonen taldea, eta Lafayette'ri eman zitzaion Ert. a nd arren buruzagitza. Egun aietakoa da Frantzi'ko Erkalaren ikurrina, Lafayette berak asmatua: Urdin eta gorri zan Paris'ko ikurriñari, erdian, Erregearen ikurriñaren margoa ipiñi zion: zuria' Ikusi daitekenez, Ameriketako errepublikazaleen alboan Inghlanderriko Erregearen aurka ib Ili zan Lafayette iraultzalaria bera, ez zan oraindik erregetzaren etsaia.

"La Bastille"ren menderaketak gauza bat laga zuan argi Frantzi guztiaren begien aurrean: Ordurarte politikazkoa izan zan iraultza, iz-killuketako iraultza biurtu zala.

Eta, orduan..', erritik Aristokraz ra igaro zan "Bildur Aundia", "La Grande Peur". Bildur orrek eraginda laga zituzten "Nazio-Batzar Kostituziogillearen eskuetan Aristokraziak eta Elizak beren abantail guztiak. Elizaren partetik, presa geiegirekin egindako uztea izan zan ura.

Eliz-jendeak ordurarte izan zituan irabazpide guztiak, —au da: amarrenak eta elizkizunen sari guztiak— "Nazioari" ematen zitzaizkion, Nazioak apaizen mantenuaz kontu izango zualaren uste utsaren truke; baiña "kontu-izate" ori, nolakoa eta zenbaiteañokoa izanen zalaren xeetasunik tajutu gabe.

Ordurarte, irabazpide aietatik, (eta Elizaren lur-eta-etxe-ondasunen errentetatik) irtetzen zan, apaizen, gaixotegien, mixerikordi-etxeen, seminarioen, ikastolen eta beste karitate-ekintzen mantenuerako bear zan guztia. Orain, apaizen mantenua, batere muiñik eta formarik gabekoa, "Nazioaren" ala-olako "itz-emate" uts baten babespe ezerezean gelditzen zan'

Elizak lagaketa burugabezko ori egiteko erabili zuan izkera bera ere arras zoroa da, erregeen aurrean erabil li oi zuana bezelakoa, aizekeri merkez betea. Ona, dagonilleko 4'aren gau oroigarri artan Paris'ko Goigotzaiak esan zituan itzak: "Frantzi'a dan bezain Nazio zintzo, zuzen eta eman-zale" baten eskuetan pozik ipintzen ditu Frantzi'ko eliz-jendeak bere diru eta pribilejio guztiak. ("Entre les mains d'une Nation aussi juste eta aussi généreuse que l'etait la Nation francaise").

Poliki-poliki, "Nazio-Batzarra" "ezkerreruntz" zijoan, alde batetik Batzarre-barruan Jakobatarrek indar-artzen ari ziralako, eta bestetik batzarrean gelditu ziran eliz gizoñak ezkerrenetakoak ziralako; besteak..., joan egin bait ziran! Apaiz jaunak, parroketako eginkizunak parroketara eraman zitualako, eta Gotzai eta Abatak, Batzar beraren

etsai ziralarik, Batzarrera gutxitan agertzen ziralako. Elizjendearen "iges-egite" onek "ezkertiarren" eskuetan utzi-edo zuan Batzarraren ibillera'

Orregaitik, Batzarrean jarraitzen zuten eliz-gizonek, batere kezkarik gabe eman zioten Laterriari 1789 artako agorrillean, elizetako ontzi ta tresnetan Elizak zuan urre ta zillar guztia. Emaitza onek ez zuan osteketarik, protestarik, billatu, ikusten bait zuan kristauen artean ere mundu guztiak Frantzi'ren ekonomiaren ondamena zenbaiteraiñokoa zan. Garrantzitsuagoa izan zan "Nazio-Batzarrak" eman zuan urrengo urratsa: Elizaren ontasun guztien sekulartzea.

Urrilla zan' Autun'go Gotzaiak eskeiñi zion Batzarrari sekulartze ori egin zitekealaren gogoeta. Mauricio Talleyrand-Perigord, Autun'go Gotzaia, aristokrazikumea, aurtzarotik izan zan, egun batean Gotzai izan zedin, bokaziorik gabe apaizketarako destinatua. Bere bizi guztian printzipe-moduan bizi izan zan, eta azkenean Printzipe izatera irixi ere zan, bai bait zuan, ortarako, :ialtzurkeririk aski!.

LaterriMaillen Batzarrean, bera izan zan ErriMaillaren aide piñi ziran iru gotzaietatik bat.

Eliz-Aberastasunak sekulartzearen auzi au aurrera ateratzea ez zitzaion erreza gertatu, naiz, len esan dugun bezala, Batzarrean gelditzen ziran apaiz urriak ezker aldekoak izan. Talleyrand bera ezkerrekoa edo eskubikoa zan esaterik ez dago, beti "bere-interes-aldeko" uts izan bait zan. "Bere-interes" oiek eskatzen zuten araura, aurrena Erregearen aide egon zan; gero Errepublikaren aide. Napoleon Inperatorearen alderdira igaro zan geroago, eta Inperatorea jausi zanean, ostera Borboitarren alderdira.

Elizaren ondasunen sekulartzea, ondasun aiek danak Elizari kendu, ta Laterriari ematea zan. Elizaren aberastasunen jabe Laterria egitea. Uste baiño osteketa aundiagoak aurkitu zituan Batzarrean gogoe ta onek, 386 autarki aurka izan bait zituan. Ala ere, Batzarkiderik geienak, 568'k, baiezkoa eman bait zuten, Laterriaren jabetzara pasa ziran Elizaren ondasun guztiak. Ordaiñez, Laterria egin zan Elizaren mantenuaren kargu, ta ortarako apaiz bakoitzari 2.400 franko urteko ematera beartu zan' Lujorik gabe, baiña ederki bizitzeko naikoa' Ain zuzen, apaiz geienak irabazie irtetzen ziran orain ipintzen zitzaien sari onekin.

Edestilari katolikoek maiz esan ai dute, apaizen amarrenak, elizetako urre ta zillarrak, eta Elizaren ondasunak, ez zirala erri xearen eskuetara joan; Laterriarenetara joan zirala. Baiña ezin giñazke auzi ortaz ariñegi mintzatu' Laterria mixeriaren ertzean zegoan, eta mixeri

orren errudunak ez ziran iraultzalariak, edestilari oien adiskide diran Errege Borboitarrek eta aristokrazikume erregezaleak baizik'

3.000.000.000; iru milla milloi franko igaro ziran Laterriaren mendera eta amar urte bizi aal izan zan Laterria dirutza orren gantzuketa-rekin, naiz bearrak estututa, Elizaren ondasun aiek, laisterkeri aundiegiarekin, eta modu txarrean, saldu. Oso merke saldu bait ziran ondasun aiek subasten bidez'

Orregaitik, Abatak, Gotzaiak eta beste Elizgizon guren aberatsak kendu ezkeru, ez zuan osteketa geiegirik billatu Eliz-Aberastasunen Laterriratze orrek. Jende katolikoa ez zan arritu, Laterria mixeriatik altxatzeko bide bakarra zala uste izan zualako, eta, len ere, Eliz-Aberastasunak Laterriaren mendera pasaraazi nai izatea Borboitarren eliz-politika-eraren muiña izan zalarik, artarako gertutua zegoalako. Bene-benetan Nazio-Batzar-Kostituziogilleak, galikeria bere erpiñeraiño igo besterik ez zuan egin. 1789'ko Urrillean Talleyrand'ek egin-dako eskaria, 1516'ean Frantzisko I'ak Leon X'ari atera zion konkordatoaren azkeneko atala baizik ez zan. Orregaitik, Batzarraren altzoan ere, kezkarik gabe eman zituzten apaiz eta katoliko askok beren autarkiak Talleyrand'en eskari aren alde.

Elizaren ondasunei "Les Biens Noirs", "Ondasun Beltzak" deitu zitzaizen' Ondasun oiek, aurrena korrittuan jarri, eta gero, saldu, egin zituan Laterriak, "Assignats" izeneko txartel batzuen bidez. "Assigner"ek frantziara zarrean "korrittuan jarri" esan nai zuan; eta % 5'eko korrittua ordaintzen zion Laterriak txartei aiek erosten zituanari. Baiña, andik zortzi illabetera interesak ezin ordaindu zituala erabaki bait zuan, "assignats" aiek gaurko banku-txartelen antzeko paper-diru biurtu zituan ; eta Ondasun Beltzak korrittuan ipintzea, Ondasun Beltzak saltzea biurtu zan.

Ekonomiaren arloaz landa, "Assignat"en naste-borraste arek, itxaro ez zuan politikazko irabazpena, eta aundia gaiñera, ekarri zion Iraultzari. Jende askok erosi zituan, pozik, ondasun beltzak; Laterri lur-joari laguntzeko! —nola ez?—, baiña baita beren buruak errez aberastutzeko ere'

Erosle aietatik geienak katolikoak ziran, katoliko onak, zintzoak, eta, esan dugun bezala, batere kontzientziko kezkarik gabe egin zuten erosketa. Baiña, era berean, uste ez zutela, Iraultzaren alderdian ipiñi zituzten betirako beren buruak, Iraultzak eman zizkien eta bakalduntzak ziurki kenduko zizkien aberastasun aiek defenditzeko. Orra nola ugaritu zan Frantzi'n iraultza-zaleen zerrenda.

Zenbat eta eliz-ontasun geiago erosi, orduan da aberatsago egin ziran "eskubitar" asko; eta zenbat eta aberatsago orduan da iraultza-zale eta frantzizaleago. Oro edertzen bait du diruak; baita iraultzarik gogorrena ere'

1789'aren Azaroko 2'an Batzar Kostituziogilleak egin zuan sekulartze artatik irten zan Eliza, II Jose Inperatoreak bere Laterrietan eratutako Elizaren berdiña zan: ekonomi-arloan estutasunik gabeko Eliza; baiña Laterriaren mendera makurtutakoa!' Jose II'ak eratutako Elizaren "berdiña", esan dugu. "Antzekoa" legoke obeki, Jose II'ak ez bait zuan bere asmoak Austri'n aurrera ateratzeko astirik izan.

• • •

Alderik gabe astunagoa izan zan Batzar-Kostituziogilleak eman zuan urrengo pausoa: ErlijiosoAnaidien sekulartzea'

1790'aren Otsailleko sekulartze ori egin zuan legeak iru atal zituan; 1^a Otoizketa utserako Anaidietan Erlijioso-Eskeitza edo Boto berriak egiteko debekua. 2^a, Jende gutxi zituzten konbentuak isteko, eta bertako erlijiosoak, naiz anaidi diferenteetakoak izan, konbentu batera biltzeko agindua' 3^a: Irugarren atalak, konbentuak ikertzeko (eta praille-monjei konbentuetatik irtetzeko baimena emateko) esku-bidetzen zituan udal edo ayuntamentuak.

Bazan au, noski, Elizaren Jauntasunarentzat irain galanta. Ala ere ez zuan iñork, Frantzi'n, deus aundirik esan. Ezta Frantzitik kanpora ere. Len ere galikeriak orrelako gauzak egin bait zituan, 1768'an azkenekoa; eta orduantxe bertantxe Jose II Inperatoreak jokaera berdiña bait zebilikian.

Gotzaiek eta Apaiz jaunek barreneko atsegin goxoarekin artu zuten Batzar Kostituziogillearen lege au, ta ez, bakarrik eliz-jendea-baitan beti izan dan bekaizkeritxoagaitik; baita, la jenderik gabeko lekaidetxeak ain aberastasun aundien jabe izatea oker iduritzen zitzaielako ere' 301 ziran orduan zistertarren lekaidetxeak bakarrik, eta geienak ia utsik zeuden, zazpi lekaideko komunitate bat naiko ugaritzat jotzen bait zuten zistertarrek berak.

Jende katolikoari, ikastola ta gaixotegietako erlijiosoak ukitu gabe gelditzen ba'ziran, beste prailleengaitik ez zitzaion axolarik. Eta egia esateko, ez zuten auek ere begirunerik geiegi merezi' Laterriak eskeiñi zien urteko sariarekin konforme, pilloka irten bait ziran lekaidetxeetatik, batez ere beneditarrak, ziztertarrak, dom i ngotarrak, Donagustin'en Kanonigoak. Erlijiosotegi asko gelditu ziran usturik; eta beste batzuk, osoro kolokan. Edestian ain ospetsu izandako Kiuni'ko Lekaidetxe Nagusiak 40 lekaide zituan orduan, eta 40 aietatik, 38 irten ziran kanpora.

Orduan konbentuetatik irten ziran erlijiosoen artean ospetsuena Fouché oratoriotarra dugu, "konbentzionala" aurrena, Napoleon'en serbitzura gero, eta Errege Borboiarenera azkenean, Napoleon jausi ondorean.

Legeak, beraz, bere mamian, lege zindoa eta zuzena zirudian. Egia da "Batzarrak" lege ori emateko eskubiderik ez zuala. Baiña galikeri, josepekeri, ta erregekeri guztien aroan, norik ikusi zezakean deus garbirik "eskubide" eta "jurisdizioen" arloan? Ez al zuan Ligorio'ko Donalfontso berak esan ez zala gai ortaz itzegitera ausartzen ?.

A!. Anaidien izen ona gordetzen jakin ez zuten lekaide ta praille aien aldean aipatu ditzagun ia batere galerarik izan ez zuten Anaidien izenak: kaputxin edo buruñurdanak, kartuxa, trapa...; eta, emakumeen artean, ia lekaimetxe danak. Bedi gure esker ona tinko iraun zuten eliz-jende aientzat' Eta, subastaz saldutako konbentu aiek, asko, lurrrera boteak izan bait ziran nekazaritza-landak ugaritzeko, gertakizun aien ondoriorik okerrena ertiaren arloan galdu eta desegin ziran pitxiena izan zan eskierki, etxe asko aietako jendeek ez bait zuten, ikusi dugunez, geiegi balio'

Eliza izadi-legearen adierazle dan ezkerro, ezin dezakegu oroituz gabe utzi Batzar Kostituziogilleak egindako "La Proclamation des droits de l'homme et du citoyen", "Gizakumearen eta laterkidearen eskubideen iragarketa" Bazituan iragarketa arek utsuneak. Batzarkideak burgesitarrak izanik, nekazari ta eskulangille arrunten sariketaz eta langillei dagozkien eskubideetat ez bait zuan deus esaten. Alata-gutziz bear-bearrezkoa zan eginkizun zuzena izan zan ura, naiz Batzarrak iragarketa ura ematean Ameriketako Iraultzalarien urratsak jarraitu besterik egin ez. Ain zuzen Lafayette, Ameriketako guduan ibilli a, izan zan Batzarrari iragarketa ura eskatu ziona.

Ordurarte, Batzarraren altzoan, gogoz batu ziran, gairik geiengentan, eliz gizonak iraultzalariekin. Izan ere billera artan batzarkiderik geienak katolikotzat zeuzkaten beren buruak, eta orrela pentsatu ez

zezaketanak ere, begirune osoa erakusten zioten katolikotasunari, gali keririk jatorrenaren araudiaren modura. Mirabeau berak "religion du public", "Iaterriko jendearen erlijioa" esaten zion katolikotasunari' 1790 aren Jorrallean, erdi-mistiko erdi-robepiertarra zan Gerle kartuxako lekaideak Batzarrari katolikotasuna Laterriaren Erljio izendatze-ko eskatu zionean, Batzarrak ez zion eskaririk onartu, baiña, garbi ipiñi zuan, "motion" edo "aitorpen" baten bidez, "que l'attachement de l'Assemblée à la religion catholique, apostolique et romaine, ne pouvait être mise en doute", ("Erljio katoliko, apostolukoi eta erromatarrenenganako Batzarraren eraspenna, zalantzan ipiñi ez zitekean gauza zala")'

Ala ere orduantxe sortu zan elizgizon eta iraultzalarien artean lenengo zarrata; Batzarrean ia eliz-gizon guztiak Gerle kartuxatarrak egindako eskariaren alde jeiki bait ziran. Zarrata ori askoz aundiagoa eginen zuan Batzarraren urrengo erabakiak: "La Constitution Civile du Clergé", "Eliz-jendearentzat Laterriak tajututako Araudia", lege egiteak.

"Araudi" ura Batzarrak ortarako autatu zuan legegizonez osatutako Batzorde batek egindako lana zan. Ondo egindako lana gaiñera puntu batzuetan. Ara araudi aren atal egokiak: Frantzi'ko Goigotzai-goak 18'tik 10'era, eta gotzai-goak, 135'etik 85'era jeistea; eta len zabaltasunez eta aberastasunez oso ezberdiñak ziran elizbarruti aiek, danak al zan berdiñenak egitea. Orrela tajutu bait ziran Laterriaren 85 Probintzi edo "departamentu" berriak ere: berdintasuna billatuaz. 85 probintzi auen mugak berak eman zitzaizkien 85 elizbarruti berriei.

Era berean antolatu ziran parrokiak ere; txikiak batuaz eta oso aundiak zatituaz.

Egokia zan, gotzai ta apaiz guztiei beren elizbarruti ta parrokie-tan, (dirurik ez kobratzeko zigor-pean), bizitzera beartzen zituan atala ere, agian Elizaren obenik aundiena konpontzera zetorrelako'

Orduango kanonigoen biziera kontuan artu ezkeru, ez daiteke okertzat epaitu animen-zainketa berekin ez zuten eliz-kargu guztiak ezerezten zituan atala ere.

Era berean, ez zan txarto egiña elizkizun guztietarako ipintzen zuan sari-araua.

Atal auek danek, Inperatorearen Josepekeria Frantzi'ra ekarriaz, Galikeriari bere azkeneko taiva eman besterik ez zuten egiten. Baiña baziran beste bi puntu lengo auek baiño askoz makurragoak: Elizgizonen autaketa egiteko era eta autatutakoei jurisdizioa, almena, emateko modua.

Gotzaiak, Frantzi guzian, erriak auteskunde-bidez ankeratuak izango ziran. Baita parrokuak ere: era berean izango ziran aukeratuak.

Autalariak, politikako karguetarako autarki emateko gai ziran guztiak izanen ziran; naiz Elizatik edo sinismenpen orotik landa bizi. Gotzaia, Eliz-barrutiko jende guztiak aukeratu zuan, eta Apaiz jaina, parroko jende juztiak. Aitasantuak ez zuan gotzai-autaketan, gotzaigintzan eta gotzaiei almen edo jurisdizio-ematen zer ikusirik izango. Frantzi'ko Elizaren administraziotik eta eraketa edo organizaziotik kanpo, osoki kanpo, gelditzen zan Aitasantua.

Jurisdizioa, almen guztia gotzaiek beren goigotzaiagandik artuk zuten, eta apaizek, gotzaiagandik. Jurisdiziorik Aitasantuari eskatzea debekatua zan. Ala ere gotzai izendatu berria bere autaketa Aitasantuari jakinaraztea beartua gelditzen zan.

Araudi oni "Constitution Civile du Clergé" deitu zitzaion, Elizak Laterri-barruan eraman bear zuan politikariburuzko bizitza, bizitza "laterkoia", "civile", antolatzeke egiña zala adierazteko: Elizaren bizitza kanpotiarra bakarrik zuzentzeko, bere barruko bizitza jainkotiarra, eta bere izadizgaindiko Bizitzaren eskubideetan ezertarako sartzetxe. "Gozzai bati, almena Jainkoagandik bakarrik datorkio, baiña gotzai ori ta bere "ardiak" laterkide dituan Laterriak badu "Artzai" ta "ardi" oien Elizbarrutia mugatzeko eskubidea", zion Camus diputaduak.

Ala ere, Aitasantua orrela baztartze orrek, Eliza Katolikoaren Zertasuna ta Nortasuna bete-betean ukitzen zituan.

Baiña''', ipiñi dezagun, alako garrantzi izugarria izatera zijoan gertakizun ura, bere garaiean, bere garaieko begiekin ikusi ta epaitu dezagun'

Ordurako, denbora luzaroan ari izan ziran erregeak, bere naikeria beste araurik gabe, gotzai-izendaketan. Orduantxe bertan gogoak ematen zion modura aldatu zituan, maltzurkeriz bereganatutako Poloni'an, eliz-barrutien mugak Errusi'ko Katalin II'ak, Aitasantuari ezertxo esan gabe' Pio VI'ak ez zuan orregaitik asarrerik txikienaren aztarnik agertu. Jose II'ak bere lurraldeetan zer zegian ere ikusi dugu, Erroma'tiko osteketa ezagunik gabe' Frantzi'n ordurarte, Laterriaren Burua Erregea izan zan, eta Erregeak aukeratzen zituan gotzaiak. Orain Laterriaren Buru, Erria zan. Egokia zirudian beraz gotzaien auteketa orain Erriak egitea. Aldaketa sakonik gabe galikeri zaarrak aurrera jarraitzen zuan'

Autaketak erriak egite ortan, eta gotzaiek batek beste, Aitasantuak eskurik sartzetxe, jurisdizio-emate ortan, argiargian agiri da jan-

tsenkeriz gantzututako azken-aroko galikeriaren izpiriturik izkutuena; "Gotzaikeria":

"Aurreneko denboretako Elizan erriak aukeratzen zituan bere Artzaiak, eta Artzaien artean egin oi zan almen-ematea" "Arrezkerozko Aitasantuek gauza orotan eskua sartu nai izatea "Erromakeri" puztua besterik ez da, Eliza bereizi bakoitzaren eskubideen aurka dijoan erromakeria". "Aurreneko arauetara itzuli bear du Elizak, bere antziñako araztasuna berriro idoro nai ba'du". Orixe izan zan Van Espe, Quesnel, Pascal, Febronio eta beste gotzakerizaleen gogoera, agian Erroma'ko Kuriaren geiegikeriek eta aro artako Aitasantu geienen balio koxkorrak bizkortuarazi zuten gogaera.

Zisma bat sortzeko deus gutxi falta zan Frantzi'n "Elizgizonen LaterriAraudia" Batzarrean aizatu zanean'

Zenbaiteraño Borboitarren galikeriak zisma-giroa prestaturik zeukan jakiteko, esan dezagun gotzai asko Araudi aren aurka bazeuden ere, aurka egote ori ez zala Araudi ura Aitasantuaren eskubideen aurka zijoala uste zutelako; ez. Araudi arri lege-indarra emateko "Nazio-Batzarra" nor ez zala uste zutelako baizik. Ortarako, Frantzi'ko Elizaren Kontzilio bat eskatzen zuten. Aitasantuak zer ikusirik izanen ez zuan kontzilio bat, seguruaski' Orrenbesteraño zegoan gotzakeria ta galikeria Frantzi'ko Elizaren muiñetan sartuta..

Erroma'k berak ere ez zien argitasun aundirik eman Frantzi'ko Gotzaiei. Maiatzean asi zan "Araudi" zaratatsu aren azterketa Batzarrean, eta uztaillean izan zan Lege egiña. Bi illabete oietan, bakarrik gelditu zan borroka artan Frantzi'ko Eliza, ez bait zuan Pio VI'ak tutik esan. Zergaitik? Katalin II'arren Errusi'a bezala Koldobika XVI'aren Frantzi'a oraindik bakalduntza bat zalako, eta Eliza orduan mundu guzian, oso bakaldunzale zalako; Aitasantua bera ere Bakaldun bait zan. Bazuan Pio VI'aren ixiltasun arek beste arrazoi bat ere: Aitasantua Bakaldun izate bera; bere Laterrietatik bi, Abiñon'go Uria eta Konterri Benesitarra, ("Le Contat Venaissin") Frantzi'ren barruan bait zeuden. Bildur zan Pio VI'a, (leendik bi Laterri aietako jendeak Frantzi'ra igarotzeko naia ere agertu zuan-da) betirako lurralde aiek galduko ez ote zituan, Frantzi'ko "Asamblée" aren aurka oi u egiten ba'zuan'

Bada beste arrazoi bat ere, eta arrazoi egokia, Aitasantuaren isii-egote arentzat: "Plus took no immediate action, but negotiations were begun to explore the possibilities of modifying the plan" (Enc' Brt.).

Euskeraz: "Berealako artan ez zuan Pio'k ezer egin, baiña Arau ura aldatzerik ba'zegoan ikusteko arremantetan jarri zan".

Ez dirudi arremen aiek benetasun eta pulamentu aundikoak izan ziranik.

Eta, ontara ezkerero, zillegi bezaigu erantzunik ez duan galderatxo bat:

Aitasantuak bakarrik salba zezakean Frantzi'ko Eliza zismatik ausardizko kolpe baten bitartez. Vi Pio kemen geiago, adimen argiago eta begi luzeagoko gizona izan balitz, beste irten-biderik ez zegoan ezkerero, iraultza-une aietarako, erriari gotzai aukeratzeko baimena, eta gotzai ei batak besteari jurisdizioa emateko almena emanaz'.., ¿ez ote zuan gertakizunak artzen ari ziran jbillera makurra geldiaraziko?

Iñork ez daki' Iñork ez daki, ezta're, Aitasantuak ori lortu balu zenbat odol eta zenbat negar ta oiñaze ez ziran Frantzi'n eragoziko.

Egia da, Arau arek bazituala bi atal iñolaz ere onartuak izan ez zitezkeanak: gotzai eta apaizak aukeratzeko sinisgabei eta kristau ez-katolikoei katolikoei bezala ematen zien eskubidea, eta gotzai ei alkarri jurisdikz oa emateko ematen zien almena.

Egia da, —Aitasantuak gotzai ei alkarri jurisdizioa emateko almena ematen ba'zien ere—, Arau arek bazuala beste punttu bat Aitasantuak ontzat artu ez zezakeana: gotzai eta apaiz-aukeratzeko sin isgabei eta kristau ez-katolikoei ematen zien eskubidea. Ala're, ori, aida-tu zitekean punttua zan.

Baiñan, igerturik ote zeuden "Assamblée"ko diputadu aiek punttu cri era zuzenean aldatzeko? Ez dezagun aantzi, galikerizaleak zira-la, eta galikerizale gogorrentzat, Aitasantuak sinismeneko gauzetan bakarrik zuala bere almen guztia, ez Frantzi'ko Elizaren administrazio eta eraketa edo organ zaioko gauzetan' Gauza auek, Frantzi'ko Elizan, Frantzi'k zuzendu bear zituan "galikan-elizaren oitura agurgarrien araura".

Danadala, isilik jarraitu zuan VI Pio'k luzaroan, naiz Frantzi'ko gotzaiak, la danak, Kostituzio aren aurka zeudela jakin.

Batzar Kostituziogille artan diputadu ziran 32 gotzaietatik, bi bakarrik zeuden Kostituzioaren aide: Talleyrand, eta bizia gaixoak era txarrean amaitu bearra zan Gobel. Beste guztiak, aurka ziran. Eta andik iru illabetera, Erregeak "Araudia" izenpetu ondorean babesik gabe gelditu ziranean, Frantzi'ko gotzaidi guztiak itzuli zituan begiak Erroma'ra, deus egin baiño len, "successeur de Saint Pierre, interprète de l'Eglise entière", ("Donekeparen oiñordeko, Eliz osoaren iragarle") dan Aitasantuaren iritzia eskatzeko. 135 gotzaitik 123'k izenpetu zuten eskari ori; eta Aitasantuari, "Exposition des principes sur la

constitution civile du clergé" ("Elizjendearentzat osatutako Laterri-Kostituziaren Agerpena"), izeneko idazki bat bidali zioten, Kostituzio ura txar-iritziaz.

Sei illabete egon zan oraindik Pio VIa erantzunik eman gabe' Egia da urtebete lenago, Erroma'n, Kardenalen Konsistorio edo Isillezko Billera batean, itzegin zuala, Iraultzaren gogapenak, batez ere Erljio-Askatasuna, gaitzesteko' Gaur, Bigarren Batikandar Kontzilloak gizakume ororen eskubide aitortu duan Askatasun ori, katolikotasunarekin alkartu eziña iduritzen zitzaion, orduan, Pio VI'ari. Baiña, Frantzi'ko enbaxalariak ala eskatu ziolako, argitaratu gabe gorderik laga zuan gaitzespen ura. Enbaxalari au ere elizgizon bat zan: Bernis Kardenala. Bitartean, Frantzi'n katoliko guztiak zebiltzan nora jo ez zekitela. Baita Erregea bera ere.

1790'aren Uztaillako 12'an egin zuan lege LaterriAraudi ura Elizjendearentzat, NazioBatzarrak. Ez zitzaion asieran, gertakizun arri, zuan aiñako garrantzirik eman'

Bi egun geroago, Uztaillaren 14'ean, Bastilla gazteluaren menderatzearen urte betetzea zan: iraultzalarien Jai Nagusia. "Champ de Mars", "Marte-Landa" izeneko zelaiean, Meza Nagusi aunditsu batekin ospatu zan pesta' Talleyrand Gotzaiak esan zuan meza ura, Erregearen, eta Jaurerri guzitik etorritako milloi-erdiko jendetza baten aurrean' Ez zuten iraultzalari aiek Elizari ostiko ematerik pentsatzen'

XVI Koldobika gizagaixoa, amar egun egon zan, zalantza gorritan, "Kostituzio Zibilla" ura izenpetu edo ez, zer egin jakin gabe. Ez zion beintzat Erroma'k asko lagundu' Bi gotzaien aolkuek eraman zuten, azkenean, Kostituzio aren azpian bere izena ezartzera. Gotzai aiek? Ciccé'ko Champion, eta Pompignan'go Le Franc'

Bigaramonean iritxi zitzaion Erregeari, Pio VI'aren eskutitz bat Kostituzio ura ez onartzeko eskatuaz. Orduan, bezperatik izenpeturik zeukan Kostituzioa argitara ez ematea pentsatu zuan, baiña, azkenean, illabeteko kontzientziestualdien ondorean, bazter guzti tatik artara bearturik egin zuan Erregeak Jaurerriaren lege elizjendearen "Kostituzio Zibilla".

Frantzi'ko Elizarentzat unerik mingarriena, eta atsekaberik aundienetakoa, 1790'aren Azaroa izan zan, orduan agindu bait zitzaion Gotzai, Parroko, eta beste eliz-kargu pastoralkoi bat zuten Apaiz guztiei, juramentuz Kostituzio ura onartzeko. Zin egin nai ez zuanak, kargua galduko zuan.

Lau gotzaiak bakarrik egin zuten ziña. Beste guztiek, gizonki

erantzun zuten ezetz. Apaizetatik'.., ia erdi batek bai, egin zuten juramentu ura. Fede txarrez?. Gero aztertuko dugu auzi ori,

Izan ziran beste iru gotzai ere zin egin zutenak, baiña irurak, beren kargura elizbarrutirik ez zuten gotzaiak ziran.

Zinketa aren aurreneko ondorena, Frantzi'ko ia eliz barruti guztiak, - lau ez gaineko guztiak—, eta bi milla parroki, artzairik gabe gelditzea izan zan, ziñegin ez zuten guztiek galdu bait zituzten beren karguak.

Arin ibilli ziran utsune ori betetzeko Iraultzaren alderdiko elizgizonak. Berealaxe asi ziran Frantzi'ko bazter guztietan, autarkia emateko gai ziran laterkide guztiak, igandeetan, gotzai eta parroko berriak aukeratzeko autaketak egitera beartzen' Sei illabete barruan Elizaren organizazio guztia berreraikia zegoan, eta elizbarruti bakoitzak bazuan bere gotzai berria' Gotzai auek, aurreneko biak beintzat, Talleyrand'ek sagaratua zituan, au bait zan Kostitutioa ziñatu zuten lau gotzai aietako bat.

Kostitutioa onartu zuten apaiz auek pekatari epaitu baiño len, artu ditzagun kontuan zeaztasuntxo auek:

—Gaitza dala orrelako apaizdi ugaria apostasiegille izendatzea.

Gero ikusiko dugun bezala, apaiz aiek geienak, Konbentzioak eskatuta, egin zuten beren buruen "Déprêtrisation " edo "apaizgoaren uztea", baiña ez zuten federik ukatu. Eta ez dezagun aztu, gaitzespenak jaurtitzen asi baiño len, izugarria zala egun aietan, —Konbentzio-koan—, Frantzi guzian bildurra: "Le Terreur" esan oi zaio orduango Frantzigirotari.

--Apaiz aien artean, apaiz egokiak, bizitza garbikoak, fede sendokoak apaizketaren maitale zintzoak, bazirala.

Aitasantuak ez ziela zer egin bear zutenik esaten' Zalantzan zebiltzan Frantzi'ko elizgizonak. Ez zuten askok zinketa ura pekatu-rik gabe egin zitekeanik edo ez zitekeanik ikusten. Aitasantuagandiko argia nai zuten. Ez zien Pio'k argirik eman' Zortzi illabete luzez isilik egon zan.

—Aitasantuaren isiltasun orren lañopean, askok, kristau artai dearen artzaintza artzairik gabe ez lagatzea, Kostitutio baten dozenerdi bat lerroetako itz batzuk baiño garrantzitsuagoa uste izan zutela; eta, orrela, beren kontzientzia salbatzeko baldintza batzuk ipiñi ondorean egin zutela ziña' "Pour autant que cela ne me mettra pas en conflit avec mes convictions religieuses", izaten zan baldintza ori: "Zinketa au nere erlijio-arauen aurka ez doan neurrian". Kristau-erria Sa-

kramenturik gabe, Mezarik gabe, Bataiorik gabe, Aitorketarik gabe, Azkeneko Sakramenturik gabe gelditzeak ekarri zezazkean ondorenak ematen zien kezka, Apaiz Jaun aiei.

Amaika urte geroago, 1801'eko konkordatoan, Pio VII'ak oraingo "Constituion Civile du Clergé" au, jurisdizioari buruzko atala ez gaiñeko guztian, ia osorik "Konkordato" baten bidez onartu zuala, eta, Kostituzioaren araura autatuta beren karguetan jarraitzen zuten gotzietatik batzuk ere ontzat artu zituala' Eta berdin parrokoak' Konkordato ortan, —Napoleon'ekin egiña izan bait zan—, Gotzaiak Napoleon'ek aukeratuak izango ziran, ez, erriak.

Aitasantuaren utsezintasuna oraindik egi sinisbearra egingaberik zegoalako, aitasantuen aginpideen mugak ez zirala orduan gaur bezala ezagutzen; muga oiek ezagutzeko Elizaren oitura beste gidaririk ez zegoala. Eta garai artan, Elizako gotzaien artean asko zirala, Alemani'n, Frantzi'n, eta España ta Itali'ko lurraldeetan ere, Aitasantuaren almena sinismenaren arlokoa bakarrik zala, eta, beste gauzetarako, gotzaiak naikoak zirala uste zutenak.

Giro ori aurkitu zuan gutxi gora bera, VI Pio'k Austri-aldean, II Jose'ren gotzaien artean. Eta aien antzekoak ziran gutxi gora bera, VI Pio il ondorean Urkijo ministroaren erabakia onartu zuten España'ko gotzaiak, laister ikusiko dugunez. Giro ortakoak ziran, baita're, batere zismarik sortzeko asmorik gabe, galikeririk jatorrenaren altzoan, "la Constitution Civile du Clergé" onartu zuten gotzai eta apaiz frantzia-rrak. Eta baita aien aolkulari zituzten teologilari eta kanonlariak ere. Altaguztik, Frantzi'ko Elizaren aintza da-ta, aitor dezagun berriro Frantzi'ko gotzaiak ia danak, uko egin ziotela Kostituzio arri. Baiña aitor dezagun baita're ori egitean, gotzai aietako batzuen arrazoiak ez zirala teologiariburuzkoak ziran. Ala're bear zan orduan ezetz esateko, kemen ugarial

Zoritzarrez, gotzai aiek, la danak, atzerrira iges egin zuten, eta an aristokrazitar erregezale igesegiñekin alkartu ziran Frantzi'ko Jaur-larritza berriari aurka egiteko; eta orrela erlijioa politikarekin nastaarazi zuten'

Beren elizbarrutietako apaizentzat, gaiñera, izan zezaketen begirune guzia galdu zuten. Ez zan leen ere aundiegia Gotzai Aristokrazi-kume biziera goxoko aiei, apaizek zieten eraspena, baiña orain zearo galdu zuten guzia. Orregaitik, Gotzai aiek, Kostituziorik ez ziñ-egiteko aginduaz atzerrira alde'gin bezain laister idatzi zituzten pastoralak, oso arrakasta txikia izan zuten Apaiz Jaunen gogoetan.

Ondo adierazten digu igesegindako gotzaiei zitzaien arbuio latza

eta ezin-ikusia, iges-egin ez zuten gotzaietako baten illobi-gaiñean idatzi zanak: "Artzain onak bere bizia ardien alde emoten dau, alogerakoak barriz otsoa etorten ikustean, ardiak bertan-beera itzita iges egiten dau" (JN.10,11. Kerexeta'k euskeratua).

—Kostitutio zibilla Batzarrean lenen ziñatu zuan elizgizon diputatua, gero gotzai ospetsu izanen zan Grégoire apaiza izan zitzaigun. Zinketa ura egiteko aurretik jaiki zituan itzak ederki tdirazten dizki-gute orduango Frantzi'ko elizjendearen zalantzak, kezkek, eta argi ikusi aal izateko aurkitzen zituzten illuntasunak:

Kostitutio artan akats asko ikusten ditu Grégoire'k, baiña bere mamia atsegin zaiolako, ez du, ziñegiñaz (Kostitutio ura) ontzat artze-ko eragozpenik. Batez are gotzai aukeraketarako katoliko ez diranei ere eskubide-ematea, ez zaio batere gustatzen' Era berean gaizki iruditzen zaio Elizarentzako dan Kostitutio ura Aitasantuarekin itzegin gabe egiña izatea.

Frantzi'ko Eliza, bi zatitan ebakia gelditu zan "Les Assermentés", "Ziñatuak", "Ziñegiñak"; eta, "Les Insermentées", "Ziñegingabekoak". Azkeneko auei, gobernuak, "Les Réfractaires" deitzen die bere idazkietan.

Berandu ibilli zan Pio VI'a. Frantzi'ko Elizaren zatiketa egiña zegoan arek Kostitutioa gaitzetsi zuaneko. Orregaitik, erlijio arloan, ez zuan Pio VI'aren ekintzak ezer lortu.

Diplomaziaren arloan, bi ondorio ekarri zituan Aitasantuaren gaitzespenak: Elizak oraindik Frantzi'n zituan bi Laterriak galtzea, eta Frantzi'k Aitasantuarekin artuemanak urratzea'

Frantzi'k Erroma'n zuan enbaxalariak, Bernis Kardenalak, ez zuan Kostituziorik ziñatu nai izandu eta Erroma'n gelditu zan Aitasantuaren babesean. Ez zuan, orrekin, asko irabazten Frantzi'ko apaiz "ziñatuen" begien aurrean "Erromazaleen" alderdiak; Bernis, beste bere gotzai kide frantzitarrak bezala, axalkeri utsezko aristokrazikumea bait zan, Andre Pompadour Erregearen maitale lizunaren adiskidetasunak gotzaitzara jaso, eta beste Frantzi'ko gotzai geienak iñakitarrren aldeko agertu ziranean, Josu-Lagundiaren desegitea lortzeko sendo lan egin zuana'

1790'eko Uztaillaren 12'an izan zan "la Constitution Civile du Clergé" Frantzi'ko Kostituzio Orokorren zati bezala Nazio-Batzarrean aldarrikatua' Eta besterik gabe, osoturik zegoan arrezkero Frantzi'ko Iraultza Elizari dagozkion gaietan.

Geroagoko odoikeri, nardakeri eta ankerkeri guztiak Batzar Kos•tituziogilleko ekintza orren ondorio izan ziran.

Ez zuten asko pentsatzen, Batzar artako iraultzalari burgesitar patxadatsu aiek beren ekintza artatik orrelako ondorio makurrik irten zitekeanik!

Baiki, baziran Batzar artan sinismenik gabeko gizonak, baiña oso gutxi; eta auek ere, naitanaiez gogoan artu bearra zuten beste batzarkideak benetako katolikoak zirala, Frantzi'ko erria ere osoan katolikoa zala, bere apaizak malte zituan erria, itzal aundia zutela apaizak erria-baitan eta baita're, apaiz aiek aldaketa baten aldekoak zirala geienak, eta, batez ere Batzarrean aulkia zuten apaizek izugarritzko eragitea izan zutela Iraultzaren etorreran; aien autarkiei eskerrak izan zuala Iraultzak etorri aal izatea. Ez zuten gaiñera Jaun aiek Elizari ekiteko asmorik; danak zeukaten Eliza, Eliza Galitarra, erriaren oitura onentzako bear-bearrezko oiñarriztat' Zer esanik ez batzarkide katolikoek.

Orregaitik, batzarkide aietako askok, "Elizjendearentzako Laterri Araudi" ura mamitzekoan, Eliza, —Galia'ko Eliza—, sendotzen ari ziralara uste izan zuten, beren buruetako galikerigiroaren modura. *me of these changes were intended rather to strengthen than to weaken the Church*": "Aldaketa aietatik batzuk, Eliza aultzeko ez baiña Eliza sendotzeko asmoarekin pentsatuak izan ziran" (Enc. Brut.)

Iraultzaren lendabiziko agerpena Elizaren zatiketa izan zan: Eliz Kostituzionala, (ziñ egiñaz Kostituzioa ontzat artu zuten aiena), eta Eliz Amorekaitza, (Kostituzioa onartu ez zutenena). Aurrenekoa Laterriaren Eliza zan Laterriaren laguntzarekin estutasunik gabe bizi zana; bigarrena, aberriaren etsaitzat artua, bizitzeko eskubiderik gabeko Eliza, Laterriak zigortua. Ots: zigortua..', ez Eliza zalako, ez katolikoa zalako, baizik Laterriaren Kostituziorik onartzen ez zualarik Laterriak politikazko etsaitzat artzen zualako.

Badakigu ziur zenbat izan ziran Kostituzioa onartuaz ziñ egin zuten gotzaiak. Baiña apaizak? Ez da erreza erantzuna, orduango zerrendak eta estadistikak gaizki egiñak bail daude. Laterriaren eskribauek, egiten zituzten orduan ere beren xikinkeriak! Esan daiteke,-len ere adierazi dugun bezala, apaizetan, erdiak izan zirala ziñ-eman zutenak. Baiña, zortzi illabete geroago, —noizbait!—, VI Pio'k Kostituzio ura

gaitzetsi zuanean, asko eta asko izan ziran len emandako ziñari uko egin ziotenak. Ta, ori, estadistiketan ez dago; baiña zerbait adierazten digu guri: VI Pio'k, isilik egon bearrean, garaiz itzezin batu, apaiz aiek ez zutela ziñ ura egingo, eta, agian, Kostituzioaren araura sagaratu ziran aietatik ere, bat baiño geiago ez zala sagaratuko.

Beste galdera bat egin naia ere izango duzu noski: ,Nolakoak ziran, gotzai eta apaiz amorekaitzak ziñik ez egiteagaitik galdu zituzten elizbarruti ta parrokiatarako, Kostituzioaren araura aukeratutako gizonak?

Mota guztietakoak izan ziran' Baita, —bi gotzai adibidez—, sinis-
menik gabekoak ere; beste batzuek, bizibide bat billatzeko sagarake-
ta eskatu zuten; ta baziran borondate oneko gizonak ere, nola ez?

Eliza bi zati egin zala esateak, Frantzi ere bi zati egin zala esan nai du. Mingarria izan zan askotan zatiketa ura: senarra Eliz batekoa, bestekoa emaztea; gurasoak aide batetik, besterik seme-alabak. Erriaren erdi bat bestearen aurka, irainka, toki batzuetan arrika, eta makilka: eta baita tiroka ere baztarren batean.

Jende landerra ez zan geiegi urduritu. Erri xeeko jendeek apaiz bat nai zuten beren errixkan, meza emateko, ezkontzak, bataioak eta illetak egiteko, ta pesta-egunak ospatzeko. Kultura geixagoko jendeak bai, benetan artu zuan borroka ura, batzuentzat apaiz "amorekaitzak" Aberriaren etsaiak bait ziran, eta Elizaren etsaiak berriz besteentzat apaiz "ziñegiñak". Orregaitik, aiei, amorekaitzei, eta aiei jarraitzen zien jendeari "erromatarrak" esan zitzairen; "abertzaleak" berriz ziñegiñei eta beren jendeari.

Gertatu ziran gauza portitzak borroka artan:

Erri batean andre, neskatik eta urne "erromatarrak" "kikirriki" egiñaz jarraitu zioten apaiz "abertzaleari" elizaraiño' Kepa Doneak Kristo bezala, ark ere Eliza ukatu zuala adierazi nai zioten orrela'

Beste erri batean, "abertzaleek", apaiz "erromatar" baten itzaldetik zetozen neskatxak, ibaiertzeko lokatzera jaurti zituzten ankaz gorra, ta an lokatzez igurtziigurtzi egin ongi, eta loiez estalirik utzi.

Parroki bateko kutxa donetik, apaiz "erromatarrak" eukaristia jasozuala jakiñik, katu beltz eder bat sartu zuten an apaiz aren alderdikoek. Bigaramonean, parroko "abertzale" berriak jende guztiaren aurrean, eraspelik aundienarekin kutxa doneko atetxoa iriki zuanean, an barruan izaturik zegoan katua jaurti zitzaion aurpegira.

Asi ziran algaraz an zeuden "erromatarrak"; asarretu ziran "abertzaleak"; ekin zioten alkarri makilka, eta borroka gorrian amaitu

zuten pesta.

Bein baiño geiagotan, illetak egiterakoan, bai batzuek bai bes-teek, zerraldoak iriki ere egin zituzten, baita illobitik atera ere, zerrai doen barruan gorputza zegoan ikusteko, beste alderdikoek an arriak-edo sartu ote zituztelaren bildurrez.

Uri batean, makiika erabili zituzten "erromatarrek" apaiz "abertzale" baten mezara joan ziran emakumeak. Bestean berriz, "abertzaleak" izan ziran ugelezko zartailluak artuta "erromatarrei" bizkarrak gogoz berotu zizkietenak'

Beste nonbait, gotzai "abertzaleari" elizan sartzan ez uzteko, "erromatarrek" gurdikada bat arri igo zuten torrera eta andik gotzaiari eta berekin zetorren jendeari ekin. Tiroka sartu bear izan zuten ertzai-ñek elizan eta torrea indarrez artu.

Gotzaiei zegokionez ez zan ainbeste iskamil izan, gotzai geienak atzerrira iges egin zuten bâ. Parrokiak ordea, baiera bi parrokoekin aurkitu ziran ia danak: parroko "erromatar" zarra, eta parroko "abertzale" berria.

Batzar Kostituziogilleko diputaduak berberak, ikusten zutenaz arriturik zeuden, eta asiak ziran egin zutenaz dam utzen ere'

Frantzi'ko kristautasunari berriz izugarritzko gaitza egin zion Eliza istripu zikiñ aietan sarturik ikusteak. Epeldu egin zan jendeak Elizari eta elizgizonei zien eraspena, eta oztu berriz sinismena. Ordurarte, bete-betean kristaua zan Frantzi'ko erri-jendea. Arrezkero, ez da len izan zana bezalakoa izango.

Jende ura, Erriko jendea, baztar guztietan eta bereiziki urietan gero ta Iraultzaren zaleago ari zitzaigun biurtzen. Zergaitik?.

—Iraultza ark gauza on asko zitualako. Erria berriz, aristokrazia-ren mendean bizitzez arperiturik zegoan, eta pozik audienarekin ar-tzen zituan itxaropen gozoa zekarkien aldakuntza berri guztiak. Urietan berriz jende zerbait-ikasiak, Amerika'ko Iraultza zeukan gogoan oraindik, eta ura jokatu zan bezala uste zuan jokatuko zala Frantzi'koa ere.

—Bai Amerika'ko Iraultza, bai Frantzi'koa, Argikuntzaren zituak ziran, eta Argikuntzako gogoetek arrakasta aundia izan zuten Frantzi'-ko jende landuaren artean; baita katolikoaren artean ere' Orregaitik izan zan iraultzaren etorrera ain begi onez artua. Iraultzak "Gizakumearen eta Laterkidearen Eskubideak", "Les Droits de l'Homme et du Cito-yen" aldarrikatu zituanean, pozez egin zuten oiur katolikoek ere.

Arrisku aundia zitekean jendearen iraultzazaletasun ura Elizarentzat; lendabizi, Iraultza Kostituzio-Elizarekin alkartuta zegoalako; baiña Eliz ura Eliz zismatikua bait zan, Erroma'gandik bereizia.'. , iraultza-zale egiten zan neurrian zisma-zale ere egiteko arriskuan aurkitzen zan Frantzi'ko erria'

Gaiñera, poliki poliki gero ta eliz ororen etsai, kristautasunaren etsai, biurtzen ari zitzaigun Iraultza. Bazuan beraz, iraultza-zale biurtzen zanak, kristautasunaren arerio biurtzeko arriskua ere.

Zergaitik, Elizarekin batera asi zan Iraultza, Eliz ororen eta Kristautasunaren aurka biurtu zan azkenean? Politika eta erlijioa alkarrekin nasi ziralako'

Nasketa orren errua, nere ustez, Elizarena izan zan lendabizi. Elizak naasi zituan Erlijioa eta politika

Eliza, Laterri Alkartuetan izan ezik, Erregezalea zan osoosoan munduko bazter guztietan. Aitasantua bera Errege bait zan.

Errege txiki batzuk ziran gotzaiak ere bakoitza bere elizbarrutian. Eliza ondo konpontzen zan erregeekin, naiz noizbeinka aiekin asarrealdiak izan. Izan ere babes ziurra bezala ikusten zituan Elizak erregeak. Esan, ez zuten esaten, baiña sentittu bai, ziur sentitzen zuten beren biotzetan elizjendeek erregetzak Jainkoarekin zer-ikusirik zer-bait bazuala' Jainkoagandiko gauza zala. Gauza sagaratua, erlijiozkoa.

Orregaitik, Iraultzak Erregeari erasotzea, berari erasotzea bezala artu zuan Elizak, eta berealaxe Iraultzaren aurka jarri zan eta erregeza-leen aide. Ikusi dugu gaiñera nola. Geiago dana, badirudi, teologiaren maillan, Iraultza eta Katolikotasuna alkarrekin ez zitezkeala bizi, pent-satu ere pentsatu zuala.

Iraultzalariek bazekiten ori, eta kezka bez begiratzen zioten elizjende garaiari. Oso kezka beltzez berriz, ezkerreko iraultzalariek; jakobatarrek adibidez. Bazekiten auker aurka zutela Aitasantua. Eta ez ziran ortan atzipetzen' Ikus:

1791'ko udaren asieran atzerriruntz alde'gin nai izan zuan XVI Koldobika'k, atzerriko erregeekin alkartuta Frantzi tiroka bir-irabazi

eta iraultza zearo zanpatzeko. Erregiñak bultzatzen zuan ortara' Ez dira arriztekoak Errege-Erregiñen asmoak, aburu ortakoa bait zan Mirabeau ber-bera ere, ministro izatera iritxi ez zalako Iraultzarekin asarretua. Normandi'ra joateko esaten zion onek Erregeari eta ango errege-zale ugarien artean gudarozte bat osatzeko, "naiz ekintza orrek Frantzi'n anaiarteko gudua sortu. Irten zan Koldobika XVI'a, bere emazte eta umeeekin, antzaldaturik, zalpurdiz austritarren aidera joateko asmotan igesi. Ez zuan bere asmorik lortu, baitua izar bait zan bigaramonean. Aitasantuak ordea lortu zituala Erregeak bere asmo oiek uste izan zuan, eta ona nolako gutuna igorri zion:

"Nous vous souhaitons un retour prompt, pacifique et glorieux dans votre royaume, la restauration de votre pouvoir et de vos droits. Que la religion vous ramene avec la foule des évêques qui reganent leur siège; qu'elle régne sur vous peuples dont vous aurez brisé l'esprit de révolte et la licence, dont vous aurez ramené les âmes aux moeurs, a la piété, au devoir".

Euskeraz: "Ostera zu zure erreñura azkar, paketsu, eta aintzaz, itzultzea da gure naia; bir-irabazi itzezula len-bait-len zure almen eta eskubideak' Itzuli bedi zurekin erlijioa, itzuli bedi gotzaidia, gotzai-aulki galduetara. Bedi erlijioa zure errialdeetan erregiñ!; eta ortarako, ezereztu itzezu erriaren baitan matxinadarako gogoia, I izunkerirako zaletasuna. Erakutsi eizkiezu jendeei oitura zuzenak, eliz-zaletasuna, eta nork-bera-bearra betetzeko leia.

Zorionez, gutun orren berri ez zuten iraultzalariek sekulan jakin.

Politikazko arrazoiekin soziologiazkoak alkartu ziran Iraultza Kristautasunaren aurka eramateko. Begira nola:

Aristokrazitarrak ziran Iraultza birrindu nai zutenak. Erria, ordea, Aristokraziaz zearo nazkaturik zegoan. Katolikoak berriz, Aristokrazitarrekin alkartzen ziran Iraultza desegiteko' Iraultza salbatzeko beraz, naitanaiezkoa zan Aristokraziarekin batera Katolikotasuna zanpaztea. Ori ez dala egia? Ez dala logikazko arrazoa? Ez. Ez da' Baiña iraultza-garaietan logikak ez du ezer askorik balio izaten.

Politikaren eta Erljioaren nâsketa, Europa'ko Erregeek tiroka Frantzi'ko Errepublikari eraso ziotenean iritxi zan bere erpiñera.

Uste zuten Errege aiek erria, batez ere Iraultzarekin oso konforme ez zegoan erriko jende katolikoa Errepublikaren aurka jeikiko zala. Zearo atzipetu ziran; gaur egunotan Errusi'ri erasotzean Hitler atzipetu zan bezala. Orrelakoetan erriak ez du aberria besterik ikusten: Aberria arriskuan. Eta sutsu jeikitzen da aberriarenaskatasuna atzerritarren erasotik babesteko. Ala jeiki zan Frantzi'ko erri osoa ere Frantzi'-

ko askatasunaren aide. Muga guztietan izan ziran atzerritarrak garai tuak'

Baiña, Iraultzarekin bat-egiña gelditu zan Frantzi'ko jenderik geiena, eta Iraultza berriz, —Aitasantuaren onespenearekin eta katoliko-koen laguntzarekin erlijioaren izenean etorri bait zitzaizkion Errege aiek gaiñera—, katolikotasunaren aurka okerturik gelditu zitzaigun.

Esanik utzi dugu, Elizarentzat egiñik gelditu zala, Iraultza Nazio-Batzar Kostituziogilleak "la Constitution Civile du Clergé" aldarrikatu zuan une berean'

Alatagutziz, Kostituzio ura ez zan inñolaz ere "iraultza" bat; ez zan "aldaketa" bat ere. Ez zan denbora berrietako gauza, aro zaarrekoa baizik: 'Ancien Régime' edo "Era Zarraren" jarraipena zan: galikeri zarraren jarraipena.

Galikeri utsa besterik ez zan Elizaren Ondasun guztiak nazionalizatzea, ots, Laterriarenak egitea' Galikeririk jatorrena zan, baita're, Aitasanturik bazanik ere kontuan artu gabe, gotzaiak nola aukeratuak eta saragatuak izan bear zuten, Laterriak agintzea, naiz Frantzi'ko Gotzaiak azkeneko atal onen aurka jeiki.

Bi galikeri-mota ziran bâ Frantzi'n: "Gotzaiena", eta "Politikalariena". Politikalarien galikeria, al zan guztia Frantzi'ko Laterria Frantzi'ko Elizaren jabe egitea izan zan. Kostituziogilleko diputaduek, jakiña, politikalaria ziran geienak, ez, gotzaiak; eta politikalarien galikeriaren araura eman zuten gotzaieiburuzko legea.

Ta... Gotzaien arrazoiak ere, agindu ura ontzat ez artzeko, ez ziran, beste orduango gertakizun batzuetan bezala, oso-oso katolikoak' Entzun, Lafayette'ri zer esan zion Narbona'ko Goigotzaia zan Dillon'ek: "Arazo ontan aristokrazikume lez ibilli gera Gotzaiok. Ez dai-teke esan, geienontzako beintzat gure jokaeraren arrazoia erlijioa izan danik".

Baitare esan dugu, Kostituziogilleko Jaun dotore aiek Kostituzio ura ematean egin zutenaz damututa bezala zebiltzala. Agian orregaitik lortu zuten Batzar artako bi diputaduk, Siéyès Chartes'ko Ordezkarri Orokor edo Bikario Jeneralak eta Talleyrand Autun'go Gotzaiak, 1791'ko Orrillaren 7'an, "la Loi de Tolérance" edo "Igaropen-Legea" esan zitzaiona.

Ez zan, ez, asko, Lege ark "igarotzen" uzten zuana, meza ematea bakarrik uzten bait zien apaiz "amorekaitzei". Beste sakramenturik ez zezaketen egin; ezta komuniorik eman ere. Askoz gutxiago sermoiketantari.

Ez zuan lege arek ñor pozik utzi, ez "ezkertiarak" ez "eskubitarrik"; gauza bat bakarra lortu aal izan zuan: "erromatarren" eta "abertzaleen" arteko guda bir-piztutzea' Uriren batean artilleria ere erabilli bear izan zuan gudarozteak pake-egiteko. Ta ez zan "erromatarren" aurka izkera zipotza erabilli zuan gotzai "abertzalerik" peitul

Giro zikiñ ortan, Erregearen iges-egin naiak biziro kezkatu eta sumindu zituan ezkerreko jende danak; eta "jakobatarak" bereiziki.

1791'ko 21'eanean izan zan Erregearen iges-egite ura. Suak-arturik, Errepublikak eskatzen asi ziran Paris'ko karriketarak jakobatarak, eta baita Paris'ko erria ere, aiekin'

Ikaratu ziran agintariak, eta gudaroztea atera zuten kalera' Izan zan odol ixurketa, izan ziran illak. "Legezko iraultza" amaiturik zegoan unean asten zitzaigun "odolezko Iraultza".

Jakobatarak, Frantzi osoan, Eliz amorekaitzari ekin zioten. Otsordea! Ez eliza zalako! Oraindik ez zeuden, agirian beintzat, jakobatarak kristautasunaren aurka, Erregearen aurka zeuden, eta orregaitik ekiten zieten "amorekaitzei": Erregearen aldeko eta Errepublikaren etsai ziralako.

Zori gaitz artan al zuan guztia egin zuan Frantzi'n pakea bir-ezartzeko "Kostituziogilleak". Asmo orrekin eman zuan, —Lafayette'ren eskariari erantzunaz—, Amnisti edo Barkapen zabal bat 1791 artako Iraillaren 13'an.

Ta", orrela amaitu zuan bere bizia Nazio-Batzat Kostituziogilleak.

L'ASSEMBLEE LEGISLATIVE ("BATZAR LEGEGILLEA")

1791'ko Agorrillaren azkeneko egunean itxi zan "Nazio-Batzar Kostituziogillea", ordurako amaitu bait zuan bere egitekoa: "Oinarrri-Lege" berria'

Bere azkeneko erabakia, Oinarrri-Lege berri aren araura, Frantzi'ren Legedi berria antolatu bear zuan Batzarraren autaketa gertutzea izan zan; "L'Assemblée Législative", "Batzar Legegiilea" izan bear zuana nola autatu erabakitzea. Tamalez, ondorio txar asko ekarriko zuan baldintza bat ipiñi zuten autaketarako: Batzar Kostituziogi leen batzarkide izan zanik ez zitekeala Batzat berrirako autatua izan.

Orrela, Frantzi'ren kalterako, politikarako bazterturik gelditu ziran ainbeste lege-gizon yayo eta politika-gidari trebe, amaitu-berria zan Nazio-Batzar Kostituziogillean batzarkide izan ziralako. Frantzi'ko Iraultzak zuan jenderik onena gelditu zan, baldintza aren erruz, lege-egite-lanetik kanpora. Baldintza aren erruz, "Assemblée Législative" ko diputadu lege-egilleak gazteegiak izan ziran, jaurlaritzarako eta legegintzarako oiturikgabeak'

Txit garesti ordaindu bear izan zituan luzarora Frantzi'k oker ortatik sortu zitzaizkion gaitzak. Frantzi'k... eta Elizak!

Alatagutziz, 1791'ko Urrillean Batzar Legegillea iriki zanean esku-bitarrak ziran ango diputadurik geienak: "Feuillants" edo "Orritsuak" orduango mintzaeran: Frantzi'a Inghanderriaren antzera tajutu nai zutenak: erregezaleak beraz; eta galikerizale jatorrei zegokienez "Eliz Ziñegiñaren" aldekoak; baiña, meza ematen-da jarraitzen zuten "Ziñik Egingabeko" apaizei ez-ikusia egitearen zaleak' Erroma'rekin "modus vivendi" edo pakean "bizitzeko era" bat billatzeko asmoarekin asi zuten gaiñera diputadutza. Baiña Batzar ontan nagusi "jakobatarrak" eta xirondatarrak izan ziran. Xirondatarrak bereiziki. "Orritsuak" baiño ezkerragoko jendea.

Lengo "Batzar Kostituziogillea" bezala, oraingo "Batzar Legegiile" au ere zearo burgesa zan, burgeskumeak bait ziran bertako batzarkideak, eta burgeskumeek aukeratuak, i Frantzi iraultzalarian autarkiematea ordaintzen zan zergari loturik zegoan bâ! Zergarik or-

daintzeko gauza ez zanak ez zuan autarkirik! Jende Ianderrarentzat ez zegoan Frantzi'ko demokrazi iraultzakoian tokirik' "Liberté, Egalité, Fraternité"? Arrazoi zuan Euskalerriko bertsolariak: "Ai iru gezur oiek egia balite"!

Dakusazunez, "Kostituziogilleko" iraultzalariak bizira ekarri zuten Frantzi berria, Monarki edo Balkalduntza demokraziko eta burges bat zan. Ta katolikoa! Politikaren aldetik Inghlanderriko Erreiñuaren antz-irudia. Ala, jarraitu ere jarraitu zezakean XVI Koldobika Inghlanderriko III Gillermo izan balitz, eta MariAntoniete Inghlanderriko II Mari' Baiña Koldobika adimen urriko gizona zan, eta MariAntoniete, emetsezko la ño tartean bizi zan anderetxoa, Frantzi'n "politique du pire" edo "zenbat-eta-okerragoobe" oiu zegian politika-bidearen alderdikorik sutsuena.

Politika-bide orren alderdikoek, Iraultzak, egin daitezkean izugarrikeririk aundienak egitea nai zuten, uste bait zuten izugarrikeri aiek zenbait eta aundiagoak izan orduan da azkarrako jeikiko zirala Europa'ko Erregeak eta Frantzi'ko Iraultza zanpatzera etorriko zirala, batez ere, Mari Antoniete'k illoba zuan Inperatorea.

Guda ziur etorriko zala uste izatean ez zebillen oker Koldobika XVI'aren emaztea. Etorri bait zan azkenean guda. Bazekian gaiñera ordurako, bere illoba Frantzisko II'a gudaterako gertuketan ari zala. Baiña MariAntoniete'k, eta bere adiskideek ez zioten Frantzi'ko erriari onek merezi zuan baliorik ematen. Ezta Aitasantuak ere. Frantzi'ko Errepublikaren gudarozteak, errez menderatu bait zituan Inperatore eta Errege danak, naiz Iraultzaren gudaraisail gazte oiturik-gabe ura, aiseran, atzeruntz bultzatua izan.

Polikipoliki, Iraultza, argi-argian Elizaren aurka ipintzen asi zan. Politikak zer ikusi aundia izan zuan Iraultzaren jarduketa ortan. Asiera-asieratik egon ziran Gotzaiak eta Erregea bat egiñik, Iraultzaren aurka. "La Bastille" jausi zanean, eta "Bildur Aundia" aristokraziara igaro zanean, Frantzi'ko Jauntxoak ugari aldegin zuten atzerrira, eta lanean asi ziran iraultzaren aurka. Jauntxo aien buru, Artois'ko kontea, Karlos Felipe, erregearen anaia ipiñi zan, bera ere bildurrez Treberis'ko Printzipe Autalariaren kortera igesegiña. Treberis'ko Printzipe Autalaria Treberis'ko Goigotzaia zan. Bazuan oraingo goigotzai onek, iraultzaren etsaien buruzagia onartzeko, arrazoi bereizia: Frantzi'n galdu zuan agintea; Treberis'ko Goigotzaiaren mendeko, "sufraganei", bait ziran Frantzi'ko bost gotzai, beren elizbarrutiek, Iraultzak, berriz, elizbarrutien mugaketa berregitean, atzerritar goigotzaien jabetasun guztiak deusegin...!

Gero, gotzaiak ere atzerrira joan ziranean, oraindik aundiagoa izan zan Eliza ta Bakalduntzaren batasuna. Baiña asieratik bazekian erriak, gotzaiak, aristokraziako jauntxoek eta atzerriko Errege guztiek iraultzaren porrokatzea, eta iraultzalarien zigorketa prestatzen ari ziralara. Bildurak zerabilzkian batak eta besteak dantzan. "Bildur Aundia" zan, Frantzi'n, nagusi'

Giro ortan asi zuan Batzar Legeegilleak bere amaika illabeteko lana, 1791'aren Urrillean. Bi Eliz zeuzkan lan arri begira Frantzi'an: "L'Eglise Constitutionelle" ("KostituzioEliza"), eta "L'Eglise Réfractaire" (Eliz Amorekaitza"); Ziñ egin zutenen Eliza, eta ziñik egin ez zutenena.

Zigorketa latza jasan bear izan zuan Eliz Amorekaitzak. Eliz ortako apaizak jendea Iraultzaren aurka berotzen ari izaten ziralara, uste bait zuten iraultzalari guztiek; eta geienetan aiek uste bezala gertatu ere gertatzen zan. Bazekiten baitare, atzerrira igesegindako gotzai eta apaizek Iraultzaren aurka lanean ari ziralara Aristokraziarekin bat egiñik.

Naspil orrek, Eliz ooren aurkako aierkundera piztu zuan erri irauitzaleariaren altzoan; okerragoa dana, katolikotasunaren aurka lan egiteko girorik egokiena gertutu zien, jakobatarren artean ordurako erlijioaren etsai ziran borrokalariei.

Egunetik egunera ugaritzen zijoan iraultzalarien kopuruan sinisgabeen taldea; eta baita erriaren artean ere. Aitasantua eta Gotzaiak Aristokraziarekin eta Erregetzarekin ain bat-egiñik ikustean, jende askok uste izan bait zuan Demokrazizale eta Errepublikazale izateko naitanaiez katoliko izatez utzi bearra zala, katolikotasuna deuseztu gabe erkala ezartzerik izango ez zalako'

Bildurra ta gorrotoa mardulagotzeko, Frantzi guztian zabaldu zan, Aitasantua buru zuan "Europa'ko Erregeen Alkarte" bat, osotuaz zijoala, Frantzia izkillupean menderatzeko. Ta, ori egia izan zitekeala, mundu guztiak bazekian' Pio VI'a, erabaki bizkorretarako gaitasunik gabeko gizona izan bearrean, Pio V'a edo Sixto V'aren antzeko Aitasantu bat izan balitz, aspaldi Alkarte ura egiñik egongo bait zan. Ez zitzaion Pio VI'ari ere, artarako gogorik peitu; ausardia peitu zitzaion.

Ateka ortan agindu zuten Batzarreko "Feuillants" eskubitarrek berak, ziñik egin nai ez zuten apaiz "amorekaitzen" giltzaperatzea; eta eriotzaz zigortu zuten atzerrira igesegitea. Baiña agindu ura ez zan lege biurtu. Erregeak ezezkoa jaurti ziolako! Kostituzio berriak ematen bait zion Erregeari Batzar Legeegillearen erabakiak, "ezezko" edo "beta" bitartez, bi urterako lotan, indarrik gabe, utzi aal izateko eskume-

na. Ez nolanaiko eskumena orrela, Inperatore gaztea'

Gauzak orrela, Inperatore gaztea, Frantzisko il'a, Frantzi'ren gaiñera etortzeko prestaketak aurreratzen ari zala jakin zan. Batzarrak, orduan, 1792'aren epaillean, gobernu aldatu zuan, "Orritsuak" kenduta, aiek baiño gogorragoak ziran Xirondatarrak ipiñiaz. Gobernu berriak, Inperatoreari aurrea artzearren, gudara eramane zuan Erregea. Pozik artu zuten gobernuaren eskaria Koldobika XVI'ak eta bere emazte Mari Antoniete'k, seguru bait zueden Inperatorearen gudarozteak iraultzalari gosetien taldeak berealaxe zapalduko zituala, eta Inperatorearekin Prusi'k, Inghlanderriak, Españi'k eta Aitasantuak bat eginen zutela. Azkeneko puntu ontan ez zebiltzan oker, berealaxe idatzi bait zien Pio VI'ak, Errege katolikoei ez ezê, Errusi'ko Katalin II'ari, eta Inghlanderriko Gorka II'ari, arren da arren egiñaz, iraultzalarien eskuetatik Frantzi'ko Erregea gaizkatzeko, eta... Abiñon uria ta Benesitar Kon Aitasantuari itzultzeko.

Bazirudian beste puntu guztietan ere asmatzen zutela Frantzi'ko Errege•Erregiñek. Bazirudian MariAntoniete'ren "la Politique du Pire" edo "okerrena gertatzea" komeni zalako ura, egokitzat eukibearra izanen zala ere. Frantzi'ko muga guztian garaille bait zan Inperatorearen gudaroztea guduaren asieran; eta laister Prusi ere sartu bait zan borrokan, Frantzi'n oiñak ipintzera zetorrela esanaz.

Atzerritarrekin batera zetozen, erbestera igesegindako aristokrazikumeak, izkilluak eskuetan, iraultzalariei lepoegiteko Ieiaz.

Pozik zueden Frantzi'n Eliz Amorekaitzeko katoliko eta apaizak. Erria-baitan ordea, igo zan gaillurrera, berri aiek jakitean, jende xearren "Bildur Aundia" berriro; ta "panic-stricken-people" edo ikarak-jotako-erri izutu ark Erregearen jauregiari eraso zion. Sartu zan barrura. Ez zion alare Erregeari gaitzik egin. Soilki, Erregea ardoz betetako ontzia eskuan jasorik Frantzi'ko gudarozten garaitzaren alde topa egiten ikustearrekin, konforme gelditu zan.

Ez zala gaiztoa Frantzi'ko erri iraultzalaria! Ez zala edestilari batzuek esan ci duten bezain gaiztoa! ¿Konformatuko ote zan orrenbesterekin Erregea, konformatuko ote ziran erregezaleak, erri ura mendean artzeko indarrrik aski izan balute?

Ez zan erria lasai gelditu; bai bait zekian, Erregeak bere biotz guztiz austriarren eta prusiarren gurenda nai zuala.

Ta erriaren bildurra ta ikara oraindik aundiagoak egiteko, an ari zan arerioen buruzagia, Brunswick'eko Dukea, Paris auts biurtuko zuala esanaz, erria ostera Erregearen jauregian sartzea ausartzen

ba'zan. Ikara, erotasun biurtu zan'

Gauzak okerrago ipintzeko, bi "jakobatar" ziran Paris'ko kaleetan nagusi: Danton eta Marat, bildurrik eta zentzu aundirik gabeko erdimartiri ta erdi eroak biak; erri ikaratu aren barnean atzerritar guztien aurka iraultza salbatu zitekealaren itxaropena piztutzeko, mintzaera yayoko izlariak.

Bi buruzagi oiek eraginda, Erregearen Jauregibarruan zan ostera Paris'ko erria Dagonillaren 14'ean.

Egun batzuk geroago, erregetza galduta, espetxean genduan XVI Koldobika bere sendiarekin. Ez zan andik bizirik irtengo'

Ez genezake, demokrazia babestearren, XVI Koldobika gaiztotzat epaitu. Egia da 1790 ezkerro Austri'ko Leopold il'arekin eta Prusi'ko li Federik Gillermo'rekin arremanetan zebillela, izkutuki, Iraultza zapaltzeko. Ordurako, atzerrian zan bere anai bat ere, Artois'ko Kontea, eta Koldobika beraren onospen osoarekin, fraultzatik iges-eginda atzerriko erregeen artean Frantzi'ko Jaurlaritza berriaren aurka guda gertu-tzen ari zitzaigun.

Printzipe orren ekintzaren zitua izan zan "Pillnitz'eko Itunbena", Austri, Prusi, eta Alemani'ko beste Laterri batzuk, Frantzi'ri guda egiteko alkartzen zituana. Esan bearrik ez da Koldobika XVI'a ere, Frantzi berriaren aurka, Pillnitztarrekin bat egiñik egon zala. Nongo erregek ez zuan orrela jokatu?

XVI Koldobika bera, al izan ba'zuan, pozik ipiñiko zan gudarozte atzerritar aien aintzinean, eta pozik botako zituan giltzapera iraultzalari guztiak, eta ez dezake inork, orregaitik, Frantzi'ko Erregea kulpatu. Ez dezagun bada, Frantzi'ko Gobernuia ere kulpatu, Errege etsaia espetxera bota zualako. Zalantzik ez duan gauza da, baitare, iraultzalari guztiei, aal izan ba'zuan, Erregeak lepoa moztuko ziela, bere ustez danak traidoreak ziralako. Ez zan, lepamoztutze ortaz inor arrituko. Era berean, Frantzi'ko gobernuarentzat, errikosemeen gudaroztearen aurka borroka odoltsuan zebiltzen atzerritarrekin alkarturik zegoan Erregea, etsai traidore bat zan. Ez gaitezen bada arritu, Errege orri, azkenean, lepoa moztutzen ba'dio. Ez ditzagun ez Erregea ez Errepublikak kulpatu. Edo, bear bada, kulpatu ditzagun biak, odoikeriaren lagun izan ziralako, baiña ez ditzagun alderdi batekoak deabru, eta beste-koak santu biurtu.

1792'aren Epaillean jausi ziran "Orr tsuak", eta "Xirondatarrak" artu zuten jaurlaritza. Oso gazteak ziran auek, —40 urte zituan beren diputadurik zarrenak—, ausartiak, àmeslariak, garaiz aurretiko "erro

mantikeri -zaleak", bizitzaren ezaguera sakonik gabekoak; naiz "jako baiño biguiñagoak, benetan "ezkertiarak"; sinisgabeak geienak, edo beintzat sinismenagaitik ajolik ez zitzaien gizakumeak; Argikuntza-aroko filosofilari buru-ariñen semeak.

Egun beltzak zetozen Frantzi'n kristautasunarentzat. "Apaizak dira zuen etsairik gogorrenak", "les prêtes sont vos plus cruels ennemis" oiuzegian Merlin de Douai diputaduak Nazio-Batzar Legegillean. Zein apaiz? Amorekaitzak? Bai noski. Baiña, ordurako iraultzalari askoren ustez, baita Kostituzio-Elizekoak ere, arras ari bait zan sinisgabeberia Frantzi osoan zabaltzen.

Jorraillaren 20'ean asi zan Austri'ren aurka gudua' Danak zeuden pozik borroka ura asi zalako' Iraultzalariak, garaitza berena izango zalakoan, eta erregezaleak, Maria Antoniete batez ere, iraultzalariak errez zapalduak izango zirala uste zutelako. Robespierre bakarrik zebillen bildurrez. "Salduak izango gera", "nous serons trahis", deadar egin zuan Batzarrean guda artaz mintzatu zanean, eta Frantzi guztira zabaldu zan, laister, aren deardarra, oso gaizki asi bait zan iraultzalarientzat borroka.

"Nous sommes trahis" oiuzegiaz igesari eman zioten Frantzi berriaren gudariak borroka-lekuan'

"Nous sommes trahis" oiuzegin zuan Frantzi guzian errijende' ikaratuak' Gauzak okerragotzeko, bir-piztu ziran katoliko "erromatarren" borrokak, beti ere aski urduri zebiltzan Sarkaldeko eta Erdialdeko lurraldeetan.

Orduan, jakin zan, Vi P o'k ordezkari bat bidali zuala Austri'ko Inperatorearekin itzegiteko. Austri ordea Frantzi'ren aurka gudan zegoan, eta atsegin gaitza egin zien iraultzalariei ibillera aien berri jakiteak. "Nous sommes trahis", entzun zan kaleetan. Egia da Aitasantuak, Austri'n "erregekeriaren" auziak nola konpondu zitezkean ikusteko bidali zuala, aruntz, Maury bere ordezkaria, —eta, jakiña, baita Abiñon eta Benesiar Konterrria nola bir-irabazi zezazkean ikusteko ere—, baiña ordezkaria aukeratzerakoan oso baldar ibilli zitzaigun. Maury..., frantziarra bait zan, Iraultzatik atzerrira igesegiña, erregezale porrokatua' Gaiñera, Inperio|urretara iritxi orduko oso era traketsean mintzatu zan, jendea Frantzi'ren aurkako gudara bultzatuaz' Eta orrela mintzatzean bere-kasa ari izan ba'zan ere, ez zezakean aztu Aitasantuaren ordezkari zala. Ez zuten Frantzi'ko iraultzalariak aztu!

Orrillaren 26'ean, Batzarraren erabaki berri bat, apaiz ziñatugabeen aurka. Naikoa zala 20 laterkideen salaketa apaiz ziñatugabe bat atzerrira jaurtitzeko, beste epaiketarik gabe. Egun bat ematen zitzaion

erritik irtetzeko; iru egunean irten bear zuan probintzitik, eta ogeitamarean Laterritik' Erregeak ez zuan lege cri izenpetu nai izan. Erria, asarre, Tullerietara sartu zitzaion eta iraultzalarien "frixiar-kapela" gorria jantziarazi zion isekaz.

1792'ko Dagonillaren 10'ean "Sans culottes" edo "galtza-gabeak" esan oi zitzaien "ezkertiarak" ziran Jauralaritzan agintari. Be reala izan ziran debekatuak, irakasketan eta gaixozainketan lan egiten zuten erlijiosoen Erakundeak, Institutoak, Frantzi'n oraindik bizirik zeuden, elizjendeen, Erakunde bakarrak; itxi ziran, praille zarrentzat-eta, artean irikirik ziarduten konbentu apurrak; galerazi zitzaien elizjendeei abittuz jantzirik ibiltzea; debekatu ziran Paris'en prozesio edo ibildeunak; eta apaiz guztiei, zinketa edo juramentu berri bat egiteko agindu zitzaien: "askatasunaren eta berdintasunaren z ña".

Ona zinketa berri aren itzak: "Je jure d'être fidele à la nation, de maintenir de tout mon pouvoir la liberté, l'egalite... et de mourir, s'il faut, pour l'execution de la loi". "Zin dagit Nazioganako leiala izango naizela, nere almen guztiz aldeztuko ditudala askatasuna eta berdintasuna" eta legea betetzeko nere bizia emango dedala bearrezkoa ba'da' .

Zinketa berri onek ez zuan itxuraz beintzat, erlijioariburuzko gairik ukitzen, eta kontzientziko kezkarik gabe ziñatu zuten apaiz batzuek' Apaiza nola ez egon askatasunaren eta legearen alde?

Apaizik geienak ordea, ,zillegi al zait, —galdetzen zuten—, edozein askatasun, baita Jainkoaren legea bera ontzat artzen ez duan askatasun au ere babestuko dedala ziñatzea? IBai al dezaket legea, edozein lege, baita Jauralaritza kristautasunaren aurka ematen an dan lege-sorta auek ere, nere bizia emanaz bear ba'da, beteko ditudala ziñatu? Ta." ziñik egin gabe gelditu ziran.

Bi zati egin zan ostera Frantzi'n Eliza; KostituzioEliza!. (Beste Elizako apaizak, edo atzerrira joanak, edo, al zuten bezala lan egiteko, izkutura gordeak bait ziran).

Bazuan orduan Frantzi'n Elizak apaiz bikain bat: Emery, Seminarioetan apaizgaien eziketarako, sortua zan Sansulpiziotarren Anaidiaren zuzendaria, elizjendeen artean itzal aundiko gizona. Itzegin zuan onek, Nazio-Batzar Legegillan zinketaren itz aiek idatzi eta lege egitarazi zituan Gensonne diputaduekin, eta iritxi ziran biak aburu batera: Z ñak, juramentuak, kontzientzirik ukitzen ez zuan neurrian bakarrik izanen zuala balore. Ortik adar artuaz aldarrikatu zuan Emery'k ziñ ura egitea zillegi zala.

Ez zuan luzarorako pakerik lortu, jakin bait zan Frantzi'n Erroma'-ko Kardenalak, Kongregazio edo batzar batean, zinketa aren aurka mintzatu zirala' Altagutziz ez zuan VI Pio'k argitara eman nai izan bere kardenalen debeku ura.

Debeku aren ordez beste idazti bat argitaratu zigun VI Pio'k, Nazio-Batzar Kostituziogilleak 1789'ko Dagonillaren 27'an aldarrikatutako "gizakumeen eskubide" aiek gaitzetsiaz' Egia da Eskubide aien artean "erlijiorako eskubidea zegoala" eta orduan Batzar arek ematen zion zentzua ez zala oso zuzena, erlijio guztiak berdiñak diralarik, gizakumeak atsegiñen zaiona aukeratu dezakeala, adierazi nai bait zuan. Alare, azkarregi eta ariñegi ibilli zan Aitansua; askatasun ark bai bait zuan egiazko zentzua, eta zentzu ori argitzea naikoa bait zuan' Denbora aietan ordea. ez zegoan eliz-jendea, gero Elizak lege egin duan erlijio-askatasuna ulertzeko prestatua.

* * *

Guda lekuetan aurrera zetozen etsai atzerritarrek. "Austriarren eta Prusiarren aurka borrokara irtetzen zan oro, Erregearen etsai lez, eriotzaz zigortua izango zala", jakiñarazi zuan orduan Dagonillaren 3'an, Brunswick'eko duke mingain-luzeak' (kararen bidez jenderik gabe utzi nai zuan Iraultzaren gudaroztea. Oker jo zion kukuck, Frantzi'-ko erritarren ikara gorroto biurtu bait zan; gorroto, atzerritarren aurka; gorroto, Erregearen eta erregezaleen aurka, eta gorroto Erregearekin eta atzerritarrekin bat egiñik ikusten zuan Elizaren aurka.

Urte artan bertan, 1792'an, Dagonillaren 26'ean, apaiz erromatar guztien erbesteratzea agindu zuten Jaurlaritzako "sans-culotte"ek, eta urrengo illaren asietan, 2'an, 3'an eta 4'ean, espetxeetara sartu zan eroturik bezala Paris'ko jende landerra, eta erregetarrak iltzeko asmoarekin, arrapatu zituan guztiak il zituan an: aritokrazikume bait-uak, salerosleak, lapur-gaizkilleak, emagalduek, umeak, eta apaizak. Irureun apaiz eta iru gotzai il ziran orduan Paris'ko espetxeetan. Guztira, 1.200 izan ziran iru egun aietan erailldako gizon-emakume eta umeak'

Zergaitik egin zuan ori Paris'ko erriak? Ez da erreza erantzuna. Oroi Españi'ko gudatekoan Madrid'en, Bartzelona'n, eta ia uri guztietan, egin ziran ikaragarrikeriak. Paris'ko erria ez zan gaiztoa;

Españ 'koa ere ez. Erria, an eta emen, eroturik zegoan, gainera jaurti zioten gudaren erasoetaz ikaraturik' An eta emen, baziran kristautasunaren etsai amorratuak, baiña gutxi. Erriak, Paris'en, ez zien apaizei apaizak ziralako eraso; etsai erregezaleak zirala uste zualako baik. Berdin jazo zitzaigun Españi'n ere' Paris'ko erria erlijioaren aurka joan balitz, apaizak bakarrik ilko zituan; ez zituan, espetxeetan zeuden emagaldtu, lapur, eraille eta gaiñerako gaizkilleak ilko.

kkarak artuta zegoan Paris, Brunswick'eko dukeak bota zion erronka ezagutu zuan ezker. Bazekian gaiñera Paris'tik ez urruti zue dela etsaiak. Kinka larri artan, "erregezaleek, atzerrirarei Paris'en sarrera erreztoko, matxinada ikaragarri bat gertützen ari dira espetxeetan" oiuegin zuan norbaitek, eta, eroturik, espetxeetara sartu zan, erioagarri, Paris'ko jende izutua.

Itxutu egiten, orrelakoetan, jendea! Nardagarriak izan ziran Españi'ko gudatean egin ziran piztikeriak. Ta... ,Franko'ren Españi'an gudatekoan eta guda amaitu ondorean egindako fusillaketak? Nola egon zan, ala're, isilik Españi'n katoliko-jende guzia? Nola egon ziran isillik apaizak eta Gotzaiak? Auena da errua; ez, militarrena' Militarrek ez dira moralistak; ez dira Jainkolegearen maixu. Apaizak eta Gotzaiak dira moralistak, maixuak, eta profetak: Jainkoaren izenean, orrelakoetan, zorrotz itzezin bear dutenak. Itsutu egiten dala kinka larri oietan jendea! Bedi omen Euskalerrian argi ikusi eta zuzen jokatzeko kemen izan zuten apaizentzat!

Paris'en, NazioBatzarrak berak, "sans culotte" ezkertiarrek zuzentzen zuten Batzarrak, geldiarazi zituan erailketak!

Paris'ko erria eta Frantzi osokoa, ez zan erailketa utsean gelditu' Adoretzu joan zan borroka lekura, atzerritarren aurka, erregezaleen aurka eta "erromatarren" aurka, ordurako bat bezala ikusten zituan Iraultza eta Aberia babestera. Orduan bertan, —eta baita geroxeago ere, "Alons enfants de la Patrie, le jour de gloir est arrivé", "goazen aberrikumeok! iritxi zaigu aintz'eguna"! abestuaz—, atzekoaz-aurrera biurtu zuan gudaren ibillera. 'rail aren 20'ean izan zuan Valmy'n lenengo gurenda, eta laister—, naiz oraindik gora-berak izan— garaille ikusiko ditugu Iraultzaren gudarozteak Españi'n, Itali'n, Austri'n, Alemani'n eta Lurralde Beekoetan' Oparo zabaldu zituan Frantzi'k bere mugak, eta Europa'ko Erregeek pozik ikusi zuten beren burua Iraultzarekin pake-egin aal izate utsarekin. Ondo benetan abestu zezaketen Iraultzaren gudari gazteek "iritxia zutela aintz-eguna"

Onela amaitu zuan bere bizia Nazio-Batzar-Konstituziogilleak, eta aren orde z "Convention Nationale" edo "Nazio-Aginte-Alkarte" bat izan zan aukeratua.

LA CONVENTION NATIONALE.— NAZIO BILLERA.

1792'ko Iraillean asi zuan Konbentzioak bere lana: Irailaren 21'ean. Egun ortan bertan ezabatu zuten Batzar artako 750 diputaduek Erregetza, eta bigaramonean, 22'an, Errepublika ezarri. Frantzi'ko "Lenen Errepublika". Bi egun lenago irabazi zuten, prusiarrak zapalduaz, Valmy'ko garaitza Frantzi'ko iraultzalariek' Ura izan zan Iraultzaren lendabiziko gurenda borroka-lekuetan. An izan orren zan Goethe olerkari doixtarra, eta "gaur asi zaigu eta ementxe asi zaigu edestiaren aro berri bat" oiu-egin omen zuan.

Konbentzioa, jakobatarren eskuetan egon zan beti, naiz asieran agintariak, Errepublika berrian, xirondatarrak izan. Konbentzioa, egiazko diktadura izan zan eta baita ikaragarritzko tirania ere, jakobatarrek Robespierre buru zutela, agintaritzan jarri ziranez gero. Konbentzioak ezarri zuan "le terreur", 'izu-ikara", politika-modu lez Frantzi guzian.

"Par la, la jeune démocratie parlementaire taisait place à la plus brutale des dictatures' La revolution aboutit à la plus inhumaine des oppressions de conscience au nom de la liberté, et à des excès de cruauté au nom de la fraternité. Elle organisa la règne de la terreur" (UJ' Rogier): "Bide ortatik, parlamentuzko demokrazi gazteak diktadurarik piztikoiarenari idiki zion atea. Iraultza, askatasunaren izenean kontzientzianpaketarik ankerrenera, eta, anaitasunaren izenean odoiixurketarik iguingarrienera jausi zan. Berak ezarri zuan Agintari lez "Ikara".

Egia; eta gaitz aundia egin zion demokraziari.

"Askatasuna", "demokrazia", "errepublika", itz sagaratuak ziran Europa'ko jende argituentzat Iparramerika'ko iraultzalariek itz oien zentzuaren araura beren Laterria ain era egokian, dotorean, eta garaisuan edatu zutenez gero.

Ameriketa'ko Iraultzarik gabe ere Argikuntzako gogoetek, — arras zabaldurik zeuden-da—, aurkituko zuten bidea era paketsuan odolketarik gabe demokrazia European ezartzeko. Laister gaiñera, oso laister, uste oi dan baiño azkarrago eginen zan demokraziaren ezarke-

ta ori, zearo gertuturik bait zegoan artarako giroa.

Amerika'ko Iraultza demokrazialei ekintzaren bidez arrazoi ematera etorri zan' Demostrazio bat izan zan, agerpen bat egiztatze bat. "Ikusi ezazute, —o u zegien mundu guziko "argituei"—: demokrazia ez da "egin daitekean gauza"; "egin dan gauza" da. Begira egiozute gure Errepublikari eta ikus emen demokraziaren garaitza". Ta benetan, Laterri paketsua zan, Laterri indartsua, azkarra, aberatsa eta bizkorra Ipar-Ameriketako Errepublika; ta edonork ikusi zezakean egunetik egunera aberatsagoa, indartsuagoa eta aundiagoa eginen zala.

Zalantzarik gabe esan daiteke errepublikazale zirala Europa'ko "argitu" guztiak Frantzi'n iraultza asi zanerako. Baita apaizen artean ere bat baiño geiago' Frantziarrek moztu zioten demokraziari bidea. Gaiztakeriz zikindu bait zuten demokraziaren izena. Demokrazia Elizaganako gorrotoarekin alkartu zuten. Demokrazia eta Rousseau'ren-pentsaera okerra, bat egin zituzten; demokrazia eriotzarekin uztartu zuten.

Orregaitik, demokraziaren aurka ikusiko ditugu XiX mende osoan katolikoak, Eliza bera, eta baita Aitasantuak ere. Demokraziaren aurka ikusiko dugu borrokan munduko erririk demokrazialeena, Euskalerrria, betidanik munduko demokrazirik zaarrenean eta beteenean bizitutako Erria. Baiña demokrazi gaitzetsi ta borrokatu ura ez zan egiazko demokrazia: ez zan Tomas Deunaren, Bitori'ko Frantzisko domingotarraren eta Suarez iñakitarraren demokrazia: 11 Batikan Kontzilioko demokrazia.

Katolikotasunari ere izugarritzko kaltea egin zion Frantzi'ko Irauitzak, Konbentzioa agintaritzan asi zan ezkerre batez ere'

—Irailleko lege batek, berriro ezkontzeko eskubidea ematen zien dibortziatu edo ezkontz-ausle guztiei. Eta..' Apaiz eta elizjende danei ere ezkontzeko baimena ematen zien!

Len ere bigarren zinketaren erruz zatiturik zegoan Kostituzio-Eliza geiago zatitu zuan oraindik lege barri onek. Apaiz batzuk, eta gotzai bat edo beste, eskondu egin ziran. Besteek lege ura kontzientzietan sartzen zala zuzen-zuzenean, eta Laterriak kontzientzietan sartzeko eskubiderik ez duala, esan zuten. Gaiñera, KostituzioElizeko apaiz eta gotzaiak, Frantzi'ko beste elizjende guztiak bezala, osoki erregezaleak ziran, Grégoire (Blois'ko Gotzai egiña) bezalako bat edo beste kendu ezkerre. Orregaitik, sumindurik utzi zituan Errepublikaren ezarketak, eta asarre zebiltzan Konbentzioarekin'

Baita Konbentzioa ere aiekin.

Urrillaren 18'an sortu zuan Konbentzioak "le Comité de Sûreté Générale" edo "Eskietasunerako Batzorde" bat; izatez, almenez, eta ekintzez, Frantzi'ko egiazko Jaurlaritzza izan zana. Egunetik egunera ari zan indar artzen agintarien artean Maximilian Robespierre, eta gora eta gora joan zan, gillotinak lepoa moztu zion arte. Baiñan, aurretik, izugarrizko kalteak egin zituan Frantzi'n.

1973'ko Urtarrilla XVI Koldobika Erregea epaitzen igaro zuan Konbentzioak. AI zuten guztia egin zuten xirondatarrek Erregeari bizia salbatzeko, baiña azkenean eriotzara galdua izan zan. Eriotzaren alde eman zuan bere autarkia ordurarte erregezale eta Frantzi'n Ing landerrikoa bezalako erregetza demokratiko bat ezartzearen aldeko izan zan Robespierre'k berak. Baita, jakiña, jakobatar danek ere. Eta baita jakobatar ez ziran batzuek; Siéyes apaizak adibidez'

Urtarrillaren 21'ean izan zan XVI Koldobika gillotinan erailla' Gizonki eta kristuaiki il zan, guztiei barkatuaz. Gizonki jokatu zuan, azken-aidera, Elizaren aurkako legeei bere izenpena ukatuaz ere, eta leen ere gotzai aolkulariek atzipetuta onartu zuan "la Constitution Civile du Clergé". Kontzientzi oneko gizona zan. Aolkulariak izan zituan txarrak.

Epaillaren 12'an jeiki zan izkilluz Errepublikaren aurka eta Erregetzaren da Katolikotasunaren aide Vendée'ko lurraldea Frantzi'ren Sarkaldean. Bizirik iraun zuan, gogor, Vendée'ko gudak, Napoleon'ek agintaritzza artu zuan arte'

Erregearen epaiketa ezkerro, alkar ezin ikusirik zebiltzan, beti ere etsai izan ziran xirondatarrek eta jakobatarrak. Auek irabazi zuten bo-roka.

Ler zorian zegoan Frantzi'an giroa' Bi illabete leenago Epaillaren 18'an austritarren aurrean garaituak eta zearo zapalduak izan ziran Errepublikaren indarrak. Dumouriez zuten buruzagi, aundinaiez betetako gizona' Uste izan zuan nunbait bere gudaroztearen ondamena ikustean, Errepublikak guda galduko zuala, eta austritarrekin alkarrizketan asi zan, aiekin batera Paris'era etorrira, bertan berak bere burua diktatore ipintzeko'

"Nous sommes trahis" deadar egin zuan berriro Robespierre'k eta arekin erriak. Asi zan Konbentzioa baztar guztietan aberrisaitzaille billa. Robespierre'rekin Marat zan orduan Konbentzioan gizonik altsuena ta sutuena.

Ekaiñaren 2'an izan ziran xirondatarrek baituak; illabete geroago, Marat izan zan erailla (Uztaillaren 13'an), bere etxeko bañuntzian ze-

goala' Charlotte Corday izeneko neskatx batek il zuan aitzoz.

Esan daiteke eriotz orrekin asi zala Frantzi'n "le terreur", "izukara", esan oi zaion Iraultzaren aro odoltsua' Urrengo udararte iraun zuan' 1793'tik 1794'ra beraz. Robespierre izan zan aro artan, jendeak gertakizunen gidaritzat euki zuana, naiz agian bera ere izuak eta ikarak ereginda ibilli, ez bait zan orduan Frantzi'n, bere ingurukoei bildurrik, —izugarritzko bildurrik—, izan ez zionik.

Bildurrik gabe, Charlotte Corday igo zan gillotinara; Marat'en eraille gaztea. Era berean gillotinara joan bear izan zuten xirondatarren buruzagirik ezagunenak; eta baita jakobatarren arteko buruzagi askok ere, Robespierre'k eta bere ingurukoek Iraultzaren etsaitzat arzen ba'zituzten.

Adibidez, oroi ditzagun bai batzuen bai besteen arteko aitzindari-izenik ospetsuenak: Danton, Hébert, Condorcet, Desmoulins, Bailly, Pethien, Brisset, Barnave, Felipe "Berdintasun" izen-artu zuan Orleans'ko Duke XVI Koldobika'ren lengusua, Manon Phiipton "Madame Roland... Andre onen senarrak, Roland ministroak, iges egitea lortu zuan, baiña emazteak lepoa gillotinan galdu zuala jakitean, bere burua il zuan. Ez zan bakarra izan bere buruari bizia kentzen.

Saia gaitezen Robespierre'ren sikologia ulertzen. Rousseau'ren miresle eta ikasle zintzoa izan zan beti' Ez zan kristaua, baiña bai egiazko fededuna. Aren jainkoa "l'Étre Supreme" edo "Izatedun Gurena", izan zan: deisten Jainkoa' Zalantzarik gabe sinisten zuan ilda ondorean ere gizonaren gogoak bizirik jarraitzen duala, eta beste bizitza artan ematen diola Izatedun Gurenak, bizitza antan irabazitako saria edo zigorra.

Politikari-buruz Inghlanderriko erregetza zuan eredu. Errepublikak ez zitzaion atsegin. Ezagutzen zituan bi errepubliketatik, bata, Benezi, salerosle dirutsuen eskuetan omen zegoan bâ, eta bestea, Laterri Ai kartuetakoa, lur-nagusi aberatsen eskuetan' Noren eskuetan zegoala uste ote zuan Inghlanderriko erregetza?'

Robespierre, eta jakobatar geienak, deabru utsak zirala uste duana ez dabil ondo.

Izlari bikaiña izan genuan; zuzentasunaren maitale zintzoa; eta baretsua "Assemblée Constituante" eta "Assemblée Législative"ko jardunaldietan'

Berak eman zien noski, Frantzi'ko iraultzalari guztien artean, arretarik geiena soziologiko edo gizarteko arazoei' So-egiezu, Konbentzioaren gidaritzat artu zuanean, politikagintzarako biotz-barruan

zeramazkian asmoei:

—Azoketan, gauza guztiei, erri landerraren txanpontxoan neurri-ra zegozkean sal-neurriak ipiñi'

Zerga bereziak ezarri aberatsei, Laterriaren bermaketan, legezkoa zan bezala, parte geiago artu zezaten.

Gaixoen, elbarrien, txiroen eta jende beartsu guztien bizitza Laterriaren zaintzapean jarri.

Leen mailleko ikasketak, danentzat bearrezkoak egin eta danentzat doan ipiñi'

Atzerrira igesegindako Aristokrazi erregezaleari ondasun guztiak kendu'

Aristokrazikume aiek Iraultzaren aurka, atzerritarrekin bat-eginda borrokan zebiltzan' Bâ, beraien dirua erabilliko zuan Robespierre'k aiek menderatzeko, diru arekin Errepublikaren gudaroztea ber-izkillatuz'

Maite izan zuan zuzentasuna. Ori zalantzan ipintzereik ez dago. Maite..., baita geiegi ere. Ontasun osoaren zaleegia zalarik, ez zion iñorri, ez bere buruari ez bere ingurukoei, okerkeritxo bat barkatzen. Beste giro batean, iritxiko zitzaigun agian santu izateraiño errukitsua-goa izan balitz, eta goxoagoa; ots, giza-aulkera ulertzeko gai izatea (ortu balu. Baiña zuzentasunari izan zion geiegizko zaletasunak itsutu egin zuan eta gauzei neurriartzeko gai ez zan fanatiko biurtu.

"Spento il grande tribuno che aveva tentato di domare la rivoluzione, Robespierre, uomo di principi rigidi e dall'anima di inquisitore, senza la qualità di uomo di stato che Danton aveva, ma caro al popolo per la sua incorruttibilità, si asside dittatore" (A'M. Ghisalberty). "Akitu zan Robespierre izlari eder bezala' Ez zuan Laterrigizon izateko Danton'en gaitasunik, baiña maite izan zuan erriak, ezergaitik saltzen ez zan gizona izan zalako. Eta, oldozkeraz amorekaitza, eta gogoz inkisiziolari bait zan, diktatore biurtu zitzaigun"!

Irakurri duzunaren ondorean ez zera arrituko Frantzi'ko "galtzagabe" guztiak Robespierre'ren miresleak izan zirala esaten ba'dizut. Baiña gogorra izan zan aiekin ere, bere ustez bide okerretik jotzen ba'zuten. Berak gillotinaarazi zituan galtzagabeen buruzagi anarkista eta komunistak, beste iraultza baten billa karriketara borroka-naiean irte ziranean. Agian orregaitik, gero, Jaurlaritzatik jausi zanean, ez zioten galtzagabeek sinistekoa zan bezala lagundu.

Gorrotogarri egin zan azkenean' Pentsa: Errepublikaren etsai zirala uste zan guztien ondasunak Laterriarentzat arrapatzeko asmoa

ere erabilli bait zuan buruan. Asmo utsetan gelditu zan burutapena. Ez zan bâ lege egiña izan, baiña lege izatera iritxi ba'litz, ez zan Frantzi'n, edonor zigortua izateko, edonor orren oben-bearrik izango; naikoa izango zan obenaren "itxura", obena egiña izango zalaren ustea'

"Zentralista" amorratua izan genduan Robespierre, ots, aginte eta almen oro Laterriaren erdira, Laterriaren Uri-Burura eramatearen zalea' Jakobatar danak ziran zentralistak, Laterriaren erditik agintzearen maitaleak, xirondatarrak federalistak edo Laterriko errialde bakoitzari burjabetzaren zati bat ematearen aldekoak ziran bezala.

Baiña jakobatarrak egin bait ziran azkenean konbentzloaren jabe, beraiek eman zioten Frantzi'ko Iraultzari, ain berea izan zuan zentralismoa. Ortan ez zuten Errege Borboien politika-bidetik aurrera jo besterik egiten. Erpiñeraño eraman zuten Borboien politika. Robespierre, XIV Koldobika baiño zentralistagoa izan zan oraindik; eta zentralismoari dagokion gauza orotan, gogorragoa, ankerragoa, izan zitzaigun Frantzi'ko Iraultza, Frantzi'ko Borboi-talde osoa baiño. Frantzi'ko Iraultzak sartua dugu Europa'ko Laterri batzuetan ikusi dezakegun zentralismoa' Españi'ko zentralismo zoroa bereiziki.

Elizarentzat ere, mingarria izan da Frantzi'ko Iraultzak Europa guzian erein zuan azia; Iraultzak askatasunaren eta demokraziaren eta aurrerapen ororen etsai lez aurkezten bait zuan Eliza, askatasun-egarri, demokrazigose, eta aurrerapen-irrika zeuden jendeen aurrean' Len ere esan dugun lez, bat-egin zituan demokrazia eta erlijiorik-eza; eta Elizaganako ezin-ikusia. Baiña ortan badu Elizak ere errua. Ez bait zuten orduango elizjendeek Iraultzak zekarzkian gauza onak, zekarzkian gauza okerretatik bereisteko yayotasunik izan. Gauza on asko eta asko zekarzkian Iraultzak. Adibidez, Elizaren dotriñaren atalak ziran "Gizakumearen Eskubideak" Baiña deismo-laiñuz bildurik aurkeztu zitalako, gaitzetsi egin zituan eskubide aiek Vi Pio'k. Naikoa zan, Iraultzalariek erantsita Giza-Eskubideek zekarten "deismukeri" ura dana kristautentzat artueziña zala adieraztea; baiñan ori egin bearrean, Giza-Eskubideak gaitzetsi zizkigun Aitasantuak. Axala zuten okerra; mamie zintzoa zan. Baiña azal eta mami, orori egin zion uko VI Pio'k.

Frantzi'ko Iraultzak ez zuan Eliza, Eliza zalako jo. Ezta, asieran beintzat, jakobatarrek berak ere. Erregezale eta demokraziaren aurkako agertzen zitzaielako jo zuten Eliza' Altagutziz izugarrizko kaltea egin zioten kristautasunari'

Gogor eraso zion Konbentzioak Eliz "amorekaitzari". Agindurik zeoan leendik, ziñik egin ez zuten apaizak atzerrira joan bear zutela naitanaiez. Bâ orain, 1973'ko Uztaillan, eriotzara galtzen zituan, ordurako erbestertu ez ziran apaiz danak' 24 orduko epea ematen zien FrantziTik irtetzeko' Alare askok, kristau-jendea apaizen laguntzarik gabe ez uztearren, naiago izan zuten Frantzi'n izkutatuturik gelditu, naiz bizia galtzeko arriskua izugarria izan.

Paris'en espetxeetako erailtza zikin aren ondorean, 30'000'tik 40.000'ra apaizek aide egin omen zuten erbestera. Apaiz soillak; gotzaiak eta apaiz ospetsuak, leenago, Iraultzaren asieran, aldegiñak bait ziran' Altagutziz, ez zitzaion Frantzi'ko kristau-artaldeari artzai onik, ardiengaitik bizia emateko gerturik dagoan artzairik faltatu. Bedi martiriezpaleko apaiz aientzat gure aipurik miresgarriena'

Il artan bertan, bigarren ziñik egin ez zuan apaiz oro Guayana'ko lan gogorretara galtzen zituan Konbentzioak. Apaiz asko il zan Guayana'ko giro erioгарrian. Beste asko, ontzietan gosez eta izurriz il ziran' Beste batzuk mariñel ankerren jostailu, itsasora jaurtiak eta bertan itoak izan ziran.

Ez zan Kostitutuzio-Eliza ere konber,tz otarren gorrototik salbatu. Ta, ona zergaitik:

1793'ko Ekain artan, federalismoaren aldeko matxinada gogor bat izan zan 60 departamentu edo probintzitan' Xirondatarrak, jakiña, matxinoen alde irten ziran, eta baita Kostitutuzio-Elizako apaiz asko eta asko ere.

Errez oartu ziran Konbentzioan jabe bakar ziran jakohatarrak, Frantzi'ko apaiz guztiak, "erromatarrak" eta "abertzaleak", danak, beren aurka zituztela.

"Bai al dakizute zein diran zuen etsaiak, —deadar egin zuan Konbentzioan asarre diputadu batek—: Apaizak dira zuen etsaiak' Ots, orde: apaiz danak, ziñik egin nai izan ez dutenak bezala zin egin dutenak ere' Danak dira bâ erregezaleak eta aristokraziaren lagunak; izan ere Erregeak eta aristokrazikumeak bait dira, munduan, apaizak iza-tea nai dutenak". Marat bera izan zan itz oiek jalki zituan diputado ura.

Ta gogorki eta zitalki eraso zion orduan Frantzi'ko Iraultzak eliz-jende guztiari; eta baita kristautasunari ber-berari ere.

—Sei laterkide bakarren salaketa naikoa zala, erabaki zan orain, apaiz bat, beste epaiketarik gabe, zigortzeko'

—Dei berria, ostera, apaiz "erromatarrentzat": Eriotzazko zigorra atzerrira ordurako joan ez zan guztiari. Oso epe laburra ematen zitzairen Frantzi'tik irtetzeko: 24 ordukoa. 3 egunekoa, oso barruan bizi ziranentzat'

Une artakoak dira "Izate Gurenaren" eta "Arrazoi Jaikemearen" gurketak ere, eta baita "Déprétisation" edo kristautasuna zearo ezeztzeko saiaketa bera. Urte bete osoa iraun zuan saiaketa onek.

Robespierre'k berak egin zuan Laterriaren-Erlijio-Legezkoa, "Izatedun Gurenaren Erlijioa", konbentzioko agindu baten bidez; eta Paris'ko enparantza nagusian ospatu zuten lenen aldiz "Izatedun Gurena". Orduango ertilaririk bikaiñenak, David'ek, gertatu zuan artarako, menditxo baten eran, aldarea; eta Robespierre izan zan gurketa-jai antan Apaiz Nagusia.

"Izatedun Gurenaren" gurketa baiño parregarriagoa izan zan "Arrazoi Jainkemearena".

"Notre Dame" edo "Gure Andrearen" katedralean, arkaitz baten antzeko aldare bat eraiki zuten Paris'ko Komunaren kisuskilleek' Arkaitzaren gaiñean antziñako grezitarrek egin oi zituzten jauretxe aietako bat bezalako jauretsetxo ipiñi zuten eta aren aurrean aulki dotorea. Arkaitza, bean, neskatil politez inguratua zegoan dana: Jainkeme berriaren jaupareme berriak. Isiltasun oso baten erdian, jauretsetxotik Arrazoi Jainkemea irten zan bere gurtzailleen aurrera, aundikiro, egiaz beste munduko izaki bat balitz bezala. Soiñeko zuria zeraman; urdiña, soiñekoaren gaiñetik kapa; eta gorria buruko txano frisiarra: iraultzaren iru margoak'

Aintza-oivak jaurtiaz onartu zuten beetik jaupariemeek' Bera, an goian oial urdiñez estalitako aulki artan eseri zan, bere bi eskuekin jendea "onetsiaz". Abesti ozenen bidez erantzun zioten gurtzailleek' Itzaldi luze bat etorri zan gero. Itzaldiaren mamia: "fanatikeriaren aroa amaitua zala arrezkero' Arrazoa bakarrik izango zala egun artaz gero munduan Jainko lez gurtua, eta gurketa berri orrek, gizadia egiaren eta zuzentasunaren erreñuan sartua zala, adierazi nai zuala. Apaizik ez zala geiago ludian izango; gizakume oro izango zala Arrazoiaren apaiz". Beste abesti-sorta batek eta Arrazoiaren amenez intzentsua erretzeak amaitu zuten parregarrikeri ura'

A! An goaian zegoan emakumezko gazte ura, mundu berriaren igarle progresista aiek gurtu zuten emakumezko ura, neska lizun bat zan; komediantea; eta ez oso ona komedianta lez ere.

Paris'tik kanpora ere egin ziran "arrazoigurketak", Izatedun Gurenaren gurketak bereiziki, Baiñan bi erlijio aiek ez zioten kristautasun-

nari batere gaitzik egin. Bai ordea "déprêtisation" esan zitzaion beste ekintza arek.

Déprêtisation itzak "ezapaiztea" esan nai du, ots, "apaiz izatez uztea". Baiña aruntzago joan nai izan zuten Paris'ko Komunaren asmoek. Orregaitik, "déchristianisation" ere esan oi zaio ekintza arri: "Ez-kristautzea". Neretzat, bi gauza ez berdiñak ditugu "apaiztasunaren" eta "kristautasunaren" aurkako eraso aiek' Komunaren ekintza, aurrenekoa; Konbentzioarena, bigarrena. Ezkertiarren eskuetan zegoan, zan guztia, Paris'ko Komuna, ta erlijio oro ezereztea izan zan bere gurararia' Ori dala-ta begi okerrez begiratu izan zion Komunari benetako sinisle izan genduan Robespierre'k. Eta baita, agian, Komuna'k zuan indarragaiti ere; eta Konbentzioaren barnean Komunaren asmoen aldekoak ikusten zitualako' Paris utsak Laterri osoak aiña baliu duan Frantzi'an ez bait da txantxetako gauza Paris'ko Komuna!.

Bere asmoak aurrera ateratzeko, apaiz guztiei apaizgoa uzteko agindu zien Paris'en Komunak. Danei: "erromatarrei" eta "abertzaleei"

Jan Batiste Gobel!, Paris'ko Golgotzai "abertzalea" izan zan len-dabizi ukamen ori egin zuana, Komuna'ko Jauregian, gela nagusi'ko maigaiñean bere eraztuna, bular-gurutzea, eta apaiz egiña izan zane-ko dokumentu edo agiri-idazkia ipiñiaz, eta "Iraultza garaille zan ezke-ro Askatasunaren eta Berdintasunaren erlijioa besterik ez zala bear" esanaz.

Bereala, beste bi Kostituzio-Elizako Gotzaiak egin zuten antxe bertan ukamen bera, eta azkenean KostituzioElizako apaiz geienak jo zuten Gotzai doakabe aien bidetik, Fratzi osora zabaldu bait zan Paris'ko Komunak asmatutako apaizgoari uko-egite ura.

Ukalari aiek zenbat izan ziran jaikin naiko duzu' Asko. Baiña Kostituzio-Elizakoak danak, edo, beintzat, ia danak. Besteak, "erromatarrak", ixillean beren ardiak al zuten bezala artzaintzen jarraitu bait zuten.

Une artan KostituzioElizaren Gotzaiak larogei ta bost ziran. Ogei ta (auek, beren elizbarrutiak utzita, erretirua artu zuten; beste ogei ta iruk apaizgoari ieta sinismenari! egin zieten uko; beste amar berriz ezkondu egin ziran, eta beste zortzi gillotinatua izan ziran, politikazko arrazoiengaitik geienak, xirondatarrek eta federalistak ziralako' Ogei gotzai bakarrik gelditu zitzaizkion Kostituzio-Eliz arri. Gregoire zuzendari zutela ogei Gotzai oiek bir-eratu zuten Frantzi'ko Kostituzio-Eliza.

Merezi du Gregoire'k aipu bereizia' Iraultzalari sutsua zan; erre-publikazalea, bete-betean; baiña benetan kristaua. Paris'ko Komunaren Jauregian zan bera, Gobai Gotzaiak apaizgoari uko egin zionean. Asarretu zan ori ikustean, eta ekin zion gogor Goigotzai ukatzaileari ukamen ura bizkorki gaitzetsiaz. Ez zuten eriotz-zemaiak ikaratu. "Ni apaiza naiz, eta apaiz izan nai dut, —egin zuan alu—; apaiz izango naiz beti, eta apaiz ilko naiz".

Zaillagoa da zenbat izan ziran apaiz ukatzaileak jakitea, orduan ere Jaurlearitzak bere aide puztu bait zituan estadistikak' Ogei ta amar milla apaizetatik, sei millak jarraitu zuten zintzo; ogei ta lau millek egin zuten uko. Ukoegille auetatik zazpi milla ezkondu egin zitzaizkigun; asko, gillotinari zioten bildurrak bultzata.

Bildurrak bultzata jokatu zuten, ukatze utsa egin zuten aietatik geienak ere. Ez zuten sinismenik ukatu beintzat; ezta eskondutakoek ere, auen ezkontzak askotan, itxura utsezko ezkontzak izan bait ziran. Oroi gaiñera, ukazailleetatik, amazazpi milla ezkondu gabe gelditu zirala, eta oletako askok ez zirala iñolaz ere ezkonduko erantzun zietela ezkontzeko agintzen zieten agintarieri, naiz erantzun orrek egun aietan eriotzaren arriskua berekin eraman.

Izan ziran apaizak, eta ez gutxi gaiñera, ukapen arrl batere garrantzirik eman ez ziotenak. "Adarra jo dezaiegun agintari ergel oiei baietz esanaz, eta jarrai dezagun len bezala gure ardiak zaintzen" pentsatu zuten beren baitan. Ta, orrela, garrantzirik gabeko zirimori batean agintaria atzipetu besterik ez zutela egin sinisturik, len bezala jarraitu zuten meza esanaz eta beren elizkideei sakramentuak emanaz'

Bai noski, Izan zan benetan sinismenari uko egin zionik ere. Ala, "nere bizitzeko egunetatik apaiz egin nintzan ura nai nuke ezabatu", oi ugin zuana; edo bere bata oko izena utzita, "Apostat" izen-artu nai izan zuan beste ura. Baiña ez dezagun aantzi Kostituzio-Eliza sortu zanez gero Eliz artarako sagaratu ziran gizonezkoetatik, batzuk batere bokaziorik gabeko gizonak zirala; eta ez zala, federik ez zuanik ere, aien artean peitu.

Baiña izan bait ziran borondate onekoak ere, ez zitzaion Eliz zori gaitzoko arri martiririk faltatu. Gutxi, baiña omen osoa merezi dutenak. "Une minorité se montre fidéle jusqu'a l'eroisme, plus d'un subissant de ce fait la persécution, la prison, la mort" (Fliche). "t_eialki jokatu zuan sali txiki batek; eta batek baiño geiagok jasan zuan zigorketa, espetxea, eriotza".

Apaizen ezereztea lortu zuanean egin zuan berea Paris'ko Komu-

nak, —"Izatedun Gurenaren" gurketa ere ezerezteko—, "Deesse Raison" edo "Arrazoi Jainkemearen" gurketa' Mintzatu gera Arrazoi Jainkemea mamitu naiean urdin-gorri-zuriz jantzirik Paris'ko katedralean aldare berri baten gainean agertu zan neskamotz artaz.

Arrazoigurketa irrigarri ura, ia departamentu guztietan izan zan urrengo egunetan egiña. Eliz asko Arrazoi Jainkemearen jauretxe biurtu zizkiguten; eta beste asko berriz lurrera boteak izan ziran; edo dantzatoki, edo beste edozertarako toki lez erabiliak' Iñork ez daki zenbat ertilan guren arrigarri, egun aietan galdu zan. Frantzi, eroen eskuetan zegoan orduantxe. Ero aiek ordea ez ziran asko, oso gutxi baizik, eta ez zan zailla aiek zuzenbidera ekartzea.

Erria nazkatzen asia zegoan. Eta baita Konbentzioa bera ere; eta Konbentzioaren barruan "ErriOsasunarako Batzordea".

Frantzi'ko egiazko Jaurlaritza zan Batzorde ark artu zuan ero aiei eskuak lotzeko eginkizuna; eta Batzordearen izenean Robespierre berak' Ez zan txantxetan ibilli' Guillotinaz erail zituan Komunaren burzugaia, Chaumette Gaspar Paris'ko alkate erdi eroagandik asita. Guillotinapean makurtu bear izan zuan burua eta bizia galdu Jon Batiste Gobel Paris'ko Goigotzai uko-eginak ere.

Bereala, iru agindu eman zituan Robespierre'k: Kostituzio-Elizari gaitzik ez egiteko; elizik ez isteko; ateismoaren aide ez itzegiteko.

Agindu oietan zionaz jabetzeko oroi ezazu, gorago esan dugun lez, txit ulerkaitza zala Robespierre'ren sikologia; egiazko siniste zala; arrazoiaren elburua Misterioaren aurrean burua makurtzea zala aidarrikatzen zuala, eta, orregaitik, arrazoa jainko biurturik ikusteak oso atsegin gaitza egin ziola; eta naiz beti mundu au gizakumeen zeru biurtu naiean ibilli, —Robespierre izan bait zan iraultzalari frantziar guztien artean gizarte-arazoetako kezkarik biziena izan zuana—, gizakumearem egiazko saria mundu antan ez baiña beste munduan aurkitzen zala sendo sinistu zuala. Baietz! Bazuala Robespierre'k santu izateko gaitasunik aski, beste eziketa bat izan balu; egin zituan ikaragarrikeriak ere, bere kontzientzi estuak artara beartzen zualaren us-tean egin bait zituan,

1774'ko Jorrallean kendu zion Konbentzioak Kostituzio-Elizari, ordurarte Jaurlaritza iraultzalari guztiek eman izan zioten diru-laguntza. Orrela egin zan, I Kostantino ezkeru, Eliza eta Laterriaren arteko lenen bereizketa.

Bitartean gogor jarraitzen zuan 1793'ko udan asitako "dekristianazioa". Konbentzioak sortu zuan, kristautasuna ezereztuta, "Izatedun Gurenaren" erlijioa Frantzi'ko erlijio bakarra egitea, elburu zuan

ekintza ura' Baiña izugarrizko gogorkeri eta txatxukeriak egin bait zizuten aitzaki orrekin toki askotan, laister ipiñi ziran "dekristianizazio" aren aurka konbentziotar geienak; baita Roberpierre ere.

Frantzi kristautasungabetzeko salaketa latz ura ez zan Paris'tik asi, departamentuetatik baizik; departamentuetara Konbentzioak "en mission", edo "ikerketarako" bidali zituan ordezkari batzuek eman zioten asiera; Fouché oratoritar izanak bereiziki.

Une artan, Robespierre'ri aurpegi emanaz, Danton, Marat, eta Herbé ziran Paris'en, eta Frantzi osoan, nagusi' Laister galduko zuten irurak bizia, eta Robespierre egingo zan ostera Paris'en eta Frantzi'n agintaritzaren jabe; baiña bitartean gaitz aundia egin zitzaion Elizari eta baita ertiari ere, zenbatu eziñ aiña bait dira orduan ondatu ziran Elizaren liburutegietako ale bikaiñak, elizetako irudi apaiñak, eta bes-telako ertipitxi baliosoak.

Ikus nola jokatu zuan Fouché'k Nebers'eko urian eta uri onen departamentuan:

—Dagonillaren 10'ean asi zan; bere alabaren "bataio" jainkoga-bea, erarik ospetsuenean, jende guztiaren aurrean egiñaraziaz'

Iraillaren 27'an itzaldi luze bat eman zuan katedraleko pulpitu-tik erlijioaren aurka. Apaizak ezkondu gabe gelditzea debekatu zuan egun artan bertan; ezkontza agintzen zien danei, eta ezkondu nai ez zutenei, urne txiro bat edo agure zar bat, semetzat, gurasotzat, edo senidetzat artzea, eta orrela artutako pertsona mantentzea. Danentzat zan lege ori: "erromatarrentzat" eta "abertzaleentzat".

Urrillaren 8'an, "erriak oraindik berea lez gordetzen duan sasi-erlijioa", —erlijio kristaua alegia—, erriaren buru-biotzetatik kenduta, "errepublikaren erlijioa" danei arrerazteko asmo sendoan zegoala jakiñarazi zien bere mendeko guztiei.

Lentxeago Moulin izeneko urian, beste itzaldi sutsu bat jaurti zuan ango katedraleko pulpitutik. "Ibildeun" irrigarri bat egin zuan gero, kristautasuna isekatu naiean. Katedraleko jantzi donez jantzirik ibilli ziran uriko jakobatarrik gogorrenak ibildeun artan.

Gero, uria araztu edo purifikatu bearra zala-ta, elizetako santuen irudi, margo eta erreliki guztiak izan ziran porrokatuak.

Azkenean, jai zaratatsu baten barruan, uri artako Gotzaiak, egin zion, erarik aundikoienean, apaiztasunari uko' Gotzai arlote arek ez du bere izena aipatzerik merezi.

—Urrillaren 8'an, kristau-jaurespidea edo gurketa debekatu zuan; eta elizjendeak beren jantzi bereziekin kaleetan ibiltzea, ta illeta kris-

tauak, galerazi zituan. Fouché'ren menpeko lurraldeetan ez zan ilda-koentzako ere askatasunik izango. Danak joan bearko zuten naita-naiez, onespelik gabeko illerrian zulo laiku batera.

Beste departamentu batzuetan ere egin ziran orrelako abereke-riak. Bourges'en adibidez, beneditar izandako Laplanche'k apaizei meza ematea eta orduen liburuan bere otoitzak egitea galerazi zien. AI, eta, zigorketa lez, etxeko ogea kenduta lurean lo egitera beartu zituan. Bertako gotzaia berriz, amabi semeren aita zan gizon bat, ba-tean ordena guztiak emanaz, apaiz sagaratzera beartu zuan.

Errez oartuko ziñan Konbentzioaren "bidali" aiek, konbentziotar "izatedun-guren-gurtzalleen" asmoak atzera utzita aurreraegi joan ziralara, eta asarre zegoala Konbentzioa. Orregaitik, Robespierre izan zan txorakeri aiei daneei amaia eman ziena.

Mundua Frantzi'ko Iraultzaz nazkatzen asirik zegoan. Konbentzioa sortu zan ezkerro, okerkeri aundiegiak egin bait ziran an.

"Pendent trois ans, de l'automne 1792 à l'automne 1795 la révolution va s'acharner sur la religion en France... les jacobins s'emploient à extirper le fanatisme. Ces mesures ont atteint à l'occasion le protestantisme, voire la maçonnerie qui sont entrés en sommeil' Le mouvement est le fait de minorités actives: clubs et sociétés populaires, Commune de Paris, armées révolutionnaires destinées à assurer la sûreté intérieure, représentants en mission qui l'étendent sur les provinces".. (Dic. Hist. et Geogr. Ecclesiastiques). Euskeraz:

"Izugarrizko sarraskia egiten astera zijoan Iraultza 1792'ko udazkena ezkerro erlijioaren aurka' «Sasi-sinismena», ezabatu naiean gogor saiatu ziran jakobatarrak. Protestalaritzari eta baita masoitzari ere eraso zioten, eta loak-artuta bezala gelditu ziran biak. Bizi ziralaren sinalerik emateko gauza ez ziralara. Sail txiki batzuen ekintza izan zan zigorketa ura dana: "klub" edo batzoki iraultzalariena, alkarte urri batzuen, Paris'ko Komunarena, Laterri-barruko pakea zaintzeko sortuak izan ziran ertzain-sail batzuen, eta ikerle bezala Paris'tik bidalitako ordezkariena. Auek zabaldu bait zuten lurraldeak-zear ekintza ura".

Egia, Iztegi ospetsu orrek diona, azkeneko oarra izan ezik' Pro-bintzietara bidalitako ordezkariak zabaldu bakarrik ez baiña, asi ere asi egin bait zuten iskamil ura dana.

Bitartean, gillotina ez zan beñere geldik egon. 1793'ko Urrillaren 10'ean sortu zan, Konbentzioaren altzoan, "le Gouvenement Révolutionnaire" edo Iraultzaren Jaurlaritza, eta 6 egun geroago, 16'ean, izan zan Mari Antoniete gillotinatua. Aitor dezagun, len bers senarra

bezala egiazko kristau lez urbildu zala eriotzara Erregin doakabe ura.

Lentxeago, Urrilaren 5'ean sortu ziguten konbentziotarrek egutegi berria. Izen berriak eman zizkieten illabete danei, izaditik artutako izenak, eta zazpi eguneko asteen ordeaz amar eguneko amarrekoak eratu zituzten. Amargarren eguna, jai eguna izanen zan. Urtea 'raillaren 22'an asiko zan, Errepublikak sortua izan zan egunean, eta aurreneko urtea, aro berriaren lenen-urtea, 1792. Errepublikak ezarri zuten urtea, ain zuzen.

Ez zan egutegi-berrigintza ura umekeri utsa bakarrik izan. Kristautasunaren usai guztia ezabatu nai zuten jakobatarrek ordurarte Elizaren jaien inguruan bizi eta jai aien araura biziera eratu izan zuten frantziarren buru biotzetatik. Jesukristoren jaiotzan oiñarritua genduan kristau giroa' Erljio-gabeko Errepublikaren jaiotzan oiñarritua egonen zan berria' Igandean, "Domekan", "Jaunaren eguna" ospatzen zuten zazpiko bakoitzean ordurarte Frantzi'ko jendeek. Astea amar egunekoa egitearekin, Jaunaren oroigailu oro kendu nai izan zuten egutegi berriaren egilleek.

„Beren asmoa lortu ote zuten?”

Ez, frantziar geienen biotzetan. Bai batzuenetan. Paris-inguruan, batez ere, jaso zuten ziturik ugariena, izan ere Paris'en biltzen bait ziran, (eta iraultza-ordu naasi aietan iñoiz baiño geiago), Frantzi osoko jenderik biurrienak. Askoz gutxiago lortu zuten Frantzi'ko beste lurraldeetan; eta Iparraldean adibidez eta Sarkaldean, ia batere ez. Ez dezagun gaiñera aantzi Paris'en inguruko auzo txiroetako jende landerraren kristautasuna oso axal-axalekoa zala, siñiskeri guztien koipe lodi zikiñez orbandua. Oso urria eta motza izan bait zan jende gaixo aren kristau-ezikera.

Galikeriak gaitz aundia egin zuan Frantzi'n XVI mendea ezkerre, batez ere salerosle eta gizarteko erdi-mailleko beste jendeen artean. Aitasantuaren autoritateari almena laburtzean, autoritate ororen almena ipiñi zuan galikeriak zalantzan. Ondo prestatua aurkitu zuten, beraz, giroa Argikuntzako ertzakoi edo extremistek Autoritatearen ize-nari eta egokitasunari iseka egiteko.

Gaiñerakoa, edonork bere begiz ikusi zezakeanak egin zuan. Ala, asko eta asko ziran Frantzi'n Gal ikan-Elizako gotzaien aundikeriz, eta Errege Borboien eta aien inguruko aristokrazikumeen lizunkeriz asperturik eta nazkaturik zeudenak. Ezin ulertu zuten Errege eta aundiki aiekin gotzaiek izan oi zuten adiskidetasuna. Orregaitik, benetako zuzentasun-aro berri baten asiera lez artu zuten Iraultza'ren etorrera.

Eta giro ortan, mistika berri bat sortu zan: Iraultzaren mistika. Jainkorik gabeko mistika. Ez, naitanaiez, Jainkoaren aurkako mistika, asieran beintzat, baiña bai Jainkoarekin aririk ez zuana: mistika laikoa.

"Il se cree et consolide une idéologie révolutionnaire que se présente comme constitutive du monde moderne. Si les religions de remplacement, notamment le culte de la Raison, sombrent tres vite dans le ridicule ou l'ennui, en revanche un certain humanisme laïque auréolé du prestige de la Grande Révolution régénératrice du genre humain, subsiste comme un rival sérieux du christianisme. Et les hommes auront appris à se passer du pratique et à discuter la religion comme la politique" (Die. His' eta Geog' de la Eglise):

"Mundu Berriaren ardatza lez zetorren Iraultza Nagusian oiñarritutako oldozkera iraultzalari bat sortu zan orduan. Kristautasunaren ordezkoko izan zitezen asmatutako erlijioak, —arrazoaren gurbeta adibidez—, laister ezereztu ziran; arrigarri ziralako, eta jendea aietaz laister aspertu zalako. Baiñan alderantziz, gizadiaren salbatzaille bezala zetorren Iraultza Nagusian oiñarriturik sortu zan Jainkorik gabeko giza-era ark bizirik iraun zuan, eta arrezkero arrisku aundia izango zaio Elizari. Izan ere jendeak erlijioa, —aginduak betetzea utzita—, politika-gaiak bezala eztabaidan erabiltzeko oitura artu bait zuan".

Jainkoa bazterrean azturik uzte ortaz, bazan Frantzi'an katolikoak aiña kezkatu zegoan gizon bat: Robespierree. 1794'ko Ekaiñaren 8'an, Pentekostes egunean, ospatu zuan leen ere aipatu dugun Izatedun Gurenaren lenen gurbeta Tuillerietan. Zer billatzen ote zuan eginkizun arekin'? Jainkoaz aztutzen ari ziran frantziarrei Jainko bat bazala gogoraaztea eskierki. Baiña baita, agian, zerbait geixeago ere. Jende askok beintzat Eliza Katolikoaganako itzulpen baten lenen urratsa ikusi zuan Pentekoste eguneko Jainko gurbeta oparotsu artan; Frantzi Eliza Katolikoaren altzora bir-ekartzeko zubia eraikitzen astera zijoala Robespierre uste izan zan, eta badira itzulketa ori Robespierre'ren asmoetan zegoala dioten edestilariak' Ortarako, astirik ez zuan izan. Illabete geroagoago, Uztaillaren 27'an gillotinatua izan bait zan. Bera, eta bere irurogei ta amar adiskide!

Robespierre il aurretik eta Robespierre il ondorean izugarria izan zan Uztail artan odolketa Frantzi'an. Paris'en eta departamentuetan, Robespierre bezain gogorak izan bait ziran asieran Robespierre bota zuten Tallien eta onen adiskideak. "Ala, zuriek erabilli zuten "terreur" edo gogorkeria, ez zan, aien arerio "gorriek" erabilli zutena baiño goxoagoa izan": "The white terror were harly les bloodthirty than the

massacres of their opponents under the red" (Enc. Brit).
Bloodthirty: odol-egarri!

"LES THERMIDORIENS" edo "THERMIDORTARRAK"

(Konbentzioaren bigarren aroa)

"Thermidor", edo "berotzaillea", Iraultzarako gertutu zuten egutegian, Uztaillari ipiñi zioten izen Konbentzioko jakobatarrek, billatzen bait zuten, —erailketa ta erailketaren artean, —urtearen illei orrelako izadiolarki merkeko izenak ipiñiaz jolasteko astia. Eta, robespiertarrak jaurlaritzatik lepamoztegitara eraman zituan matxinada uztaillan izan bait zan, "thermidor-illean", thermidortarrak deitu zitzaizen matxinada ura egin zutenei: Tallien eta bere lagunei.

Thermidortarren aurreneko egintza, "Erri-Osasunerako Batzordea" eta jakobatarren batzokiak desegitea izan zan' Aneika jende irten zan giltzapetik' Elizarentzat ere onuragarria izan zan Thermidor-Matxinada.

Baiña"., ez, asieran. Zergaitik? Tallien, Fouché, eta beste thermidotar-buruzagiak, erlijio ororen etsai ziralako, eta Robespierre'k, ostera Katolikotasuna berrezarri nai zuala uste zutelako, eta arrazoiarekin uste ere, dirudianez beintzat. Espetxean zeuden apaizak, bertan jarraitu zuten; eta espetxeratu zuten apaiz geiago ere thermidotarrek. Eta, noizean bein, izkutatutako apaizen bat arrapatua ba'zan, berealaxe gillotinatua izaten zan' "Arrazoi Jainkemearen" eta "Izetedun Gurenaren" gurketak ere egiten ziran noiz edo bein oraindik bazter batean edo bestean; baita Frantzi'k irabaziberri zituan lurrai deetan, an ere, lege guztiak, Frantzi'n bertan bezalakoak izaten bait ziran. Ala egin ziran Maestricht'en eta Akisgram'en "Izatedun Gurenaren" gurketa; eta "Jainkemearena" Anberes'en. Frantzi'ko muga guztietan beren bizia Errepublikaren alde ematen ziarduten gudariek ez zuten orrelako umekeririk merezi' Bazter guztietan ziran garaille' Baidu ortan Konbentzioak meriturik aski, bai Robespierre'ren Konbentzioak, —lenen aroko Konbentzioak— bai Tallien eta beste thermidortarrenak —bigarren arokoak—, ere'

Konbentzioaren garaiekoa da Gernika'ko Zugaitzari, bertara joan da, Tallien'en aginduz, Frantzi'ko gudarozteak egin zion izkillu-aurkezketak' Orduangoa da, baita're Tallien'ek EuskoDemokrazia go-restuaz, Konbentzioan egin zuan itzaldi ospetsua.

Nola ezagutzen zuan ain ondo Tallien'ek gure Lege Zarra? Errez' Tallien, Terese Cabarrus'ekin ezkondua zegoan' Terese'ren aita berriz Baiona'koa zan, eta Euskalerrian bizia; Gazteitz'en argitaratu zuan bere libururik ospetsuena' Españi'ko politikan sartua ere egon zan, III Karlos'en ministro bezala, eta berak sortu zituan Españi'ko loteria eta Españi'ko lenen bankua: San Karlosen Bankua.

Terese'k, berriz, zer-ikusi aundia izan zuan Termidor'ko gertakizunetan. Espetxean zegoan, eta lortu aal izan zuan andik senarrari albiste larri bat bidaltzea: biar goizean gillotinatuko naute eta nere atzetik zu eta zure adiskideak izango zerate gillotinara eramanak.

Albiste gogor orrek bultzata ausartu ziran Tall en eta bere adiskideak Robespierre agintaritzatik botatzera.

Egoaldeko Eusko Laterriek ez zioten Konbentzioari gudaz eraso, Bizkai'k ezik. Españi'k bai; baiña Araba'k Gipuzkoa'k eta Naparroa'k, ez' Gipuzkoa'k, Getari'ko Batzar Orokorrean, IV Karlos erregetzatik kenduta, Frantzi'rekin alkartzea ere erabaki zuan, baiña Frantzi'k Lege Zarra osoan gordetzeko baldintzarekin. Eta Konbentzioak ez bait zuan baldintza ori onartu, IV Karlos bir-artu zuan ostera Gipuzkoa'k, Arrasate'ko Batzarrean, Erregetzat.

Bizkai errez izan zan menderatua. Burgos'era joan zan Aldundia, eta andik Frantzi'rekin pakeak egin zituan, eta frantziarren buruzagi zan Moncey jenerala guda-denborako Bizkai'n Jaurle izendatu.

1794'aren Urrillean, 17'an, orain thermidortarren mendean zegoan Konbentzioak, apaizen saririk geiago ez ordaintzea erabaki zuan. Orrela Eliza ta eliz-jendearen mantenurako Laterriak ematen zuan diru-laguntza oro moztu zuan. Arrazoiak?. Bi:

—Aurrenekoa; thermidortarren buruzagiek Elizari, Eliz orori, naiz Eliz "Ziñegiña" izan, zioten naimen txarra. Baiña au ez zan arrazoi bakarra, ezta arrazoi naikoa ere, thermidortarren artean, Konbentzioan bertan, asko eliztarrak bait ziran, Ala Gregoire Gotzaia, eta beste batzarkide batzuk. Ala, irain askoren artean entzun aal izan zituan txaloak ere Gotzai trebe arek, lege aren aurka mintzatzeko, oi zuan bezala bildur-ttanttarik gabe Batzar artan jeikita, Konbentziotarrei, Eliza ezereztu naiean zabiltzala aurpegira jaurti zienean. "Bada erlijiorako askatasuna Turkitarren artean, bada Arjeli'n, bada Marrokitarren artean ere' Baiña Frantzi'n, Asakatasunen Frantzi'an... lez!!!". Oiek izan ziran txaloak irabazi zizkioten itzak. Egun batzuk lenago, Konbentzioan zegoala, bere begiekin ikusi zuan nola lau gotzaiek apaiztasuna ukatzen zuten. Konbentziotar batzuk ori bera egiteko eskatu ziotenean, itz eder auekin erantzun zien: "Apaiz izateko jaiio nintzan eta

apaiz ilko naiz". Leenago Paris'ko Komunan esan zituan itzen antze-koak.

Bigarren arrazoa: Au borobilla; bueltarik gabekoa: Laterriak txanponik ez zuala. Gobernuak Elizaren ondasunak saltzetik jasotako diruak, ari bait ziran amaitzen, batez ere Frantzi, itxas-ertza guztietan eta lur-muga danetan jasan bearrean aurkitzen zan gudateetako gas-tua gobernuarentzat diru-jario izugarria zalako' Geroago, izkilluz menderatutako lurraldeetatik ateratako dirutzak lagunduko dio ekonomia-
ren zama arintzen Frantzi'ko Jaurlaritzari.

Lege au eman zan ezkeru, izan zan geldirune-antzeko aterketa bat Elizaren zigorketan. Irten ziran, zokoetatik, izkururik zeuden apaizak eta asi ziran berriro meza ematen. Agintariek ez zuten apaiz aiek arrapatzeko kementasunik naiko, edo..., ez zuten, artarako, gogorik.

1795'eko Otsaillean, Lege berri bat eman zuan Konbentzioak. Lege ortan, Eliza ta Laterriaren bereizketa egiten zan Iparramerikako Kostitutuzioan egin zan bezala. Ez zan beraz aurrerantzean "LaterriEliz bat" izango. Bi Elizei, "z ñatuari", eta "ziñatugabeari", eskubide berdiña ematen zitzaien jauretze barruetan beren elizkizun egiteko' Kanpoko guruteta oro eta ezkillak jotzea bakarrik bi Elizei, eta beste edozein Erljio-Erakunderi, galerazten zitzaien.

Une artako auzia, katolikotasunarentzat, Frantzi'n, apaizen urritasuna izan zan'

Batzuk eraillak, eta beste batzuk Guayana'ra katigu eramanak izan ziralako; beste batzuk berriz erbestera aldegin zutelako, edo sekularizatu, eta baita ezkondu ere, egin ziralako, apaiz gutxi zan Frantzi'n' Gutxi eta alkarren artean asarretuak' "Ziñatuak" eta "ziñatuga-beak" ezin alkar ikusi bait zuten' Bi Eliz aietatik bazuan bakoitzak bere Aldizkaria bata besteari errukirik gabe erasotzeko. "Annales de la Religion", ("Erljio-Albisteak") zeritzaion Eliz Ziñatuarenari, "Annales Catholiques", ("Katoliko-Albisteak"), ziñatugabeko Elizarenari.

Bi aldizkari auek argitara irten aal izate utsa, batez ere "Ziñatugabeko" Elizarena argitara atera aal izatea, bada, denbora gutxian Frantzi'n egin zan aldakuntzaren siñale galanta.

1795 artako maiatzean, Konbentzioak apaizei beren apaiz-etxe ta elizetaz ostera jabetzeko eskubidea eman zien' Baiña ez zan txikia izan eskubide onek sortu zuan istillua, legeak, apaizei, eskubide ura erabilli aal izateko, Errepublikaren Legeen esanera egonen zirala itza ematea eskatzen bail zien.

Eskari artan ez zegoan erlijio-proulemarik, baiña, bereala naastu ziran ostera politika eta erlijioa, millaka argitaratu ziran idazkiñoetan'

Une artantxe errez egin zitekean bi Elizen batasuna, eta Eliza ta Errepublikaren arteko pake osoa. Baiña aristokraziak eta Gotzaiak atzerrian ezzuten batze ori eta pake ori egiterik nai' Ordurako atzerriara igesegindako aundiki aiek Errege berri bat aukeratuta bait zeukaten: XVIII Koldobika; eta Errege onen alderdikoak ziran igesegindako elizgizon aiek, eta baita, Frantzi'ren barruan, "ziñatugabeko" apaizak ere' Gotzai aiek atzerritik idatzitako pastoraletan, argi ikusi daiteke zenbaiteraiño ziran gotzaiak erregezulo, eta noraiño zeuden itxuturik, denborak aldatu zirala, eta gotzaiak Laterria-baitan izan zituzten "detraxoak" baztarrera botatzeko garala iritxia zala, ikusi aal izateko' Ez zeuden amore emateko Gotzai aitorren semeak...! Gizon aien sikologiaren azpian, Españi'ko bigarren Errepublika-aroko gotzaien sikologi-azpian bezala, "Errepublika" itzari, ta "Erkala" itzari, zieten gorrotoa zegoan; barru-barrutik "Bakarduntzaren" gurtzaille bait ziran'

"Non Possumus", oi u egin zuan aurrena Koldobika XVIII'ak "non possumus" deitu zuten gero bere Gotzairik geienak, "non possumus" esan zuten Frantzi'n "iñatugabeko" apaizek: "Ez dezaiokegu"... , Konbentzioari, Errepublikaren legeen esanera egongo gerala, itzik eman. Eta ez zioten itz ori eman.

itz-emate ori gaitzesten zuten Pio Vi'aren eskutitz faltsoak ere zabaldu ziran Frantzi'n. Maltzurkeri orrek erakusten digu nola zeuden, —ezkerrean eta eskubian—, biotzak berotuta, eta buruak lausotuta. Baita ere, gero beste lurraldeetan gertatuko dan bezala, noraiño zeuden eskubitarrak beren interesen aide erlijioaz, Eiiaz eta Aitasantuz serbitzeko prest'

1795'aren aurreneko illabeteetan, Frantzi'n egindako baretasunaz baliaturik, igesegindako apaiz asko itzuli ziran..., gauzak zeuden baiño okerrago ipintzera; etorri bezain laister, kristauen artean, Erkalaren aurkako propaganda ausartia egiten asi bait ziran aietako asko.

Erkalaren gudarozteek, Frantzi'tik at, Europa danaren aurka borrokan zebiltzan. Frantzibaitan, maiz sortu ol ziran matxinada koxkorrak; ez zan ordea Vendee'koa matxinada koxkorra: , Loira ta Charente ibaien artean, itxas aidera dago Vandée; 1793 ezker, Iraultzaren-aurkako-Iraultza-bat zan gudu gogorrean jeikirik zebillen' Arrisku aundia zitekean gobernuarentzat orain atzerritik itzulitako apaiz aien ariketa'

Baiña 1795'ko urte orretan Errepublikaren indarrak garaille ziran Europa guztian. Apirillean egin zuan Prusi'k pakea. Kanpotiko arriskuaz libratuta, barruko arriskutik libratzea gogaratu zuan Errepublikak. Ortarako, iritxi berriak ziran apaiz urduri aiek baretu nai izan zi-

tuan aurrena, ostera berriz, 1795 artako Urrillaren 29'an Eliz-gizonei bi zinketa eskatuaz.

—Aurrenekoak, Errepublikaren legeen esanera egoteko, eskatzen zien, atzera berriz, itz auek erabiliaz: "Je reconnais que l'universalité des citoyens français est le souverain et je promets soumission et obéissance aux lois de la République"; ("Agintaritzaren jabe Frantzi'ko laterkidedia dala, aitortzen dut; eta Errepublikaren legeen menpera ta esanera egongo naizela, agintzen dut"). Ikusi daitekean bezala, zinketa ontan ez da Jaungoikoaren izenik nästen.

Bigarrenak, Frantzi'tik at zeuden Eliz-agintarien idazkiak erriari ez irakurtzera beartzen zituan. Bigarren au, zuzen-zuzenean, atzerrira igesegindako Gotzaien eskutitz pastoralen aurka zijoan'

Ez bata ta ez bestea, zinketa aiek, ez ziran elizjendearentzat berriak. Aurrenekoa, erregekeriak beti eskatu duan eta oraindik eskatzen duan gauza da, gaur-gaur arte Franco'ren España katolikoan, ziñ ori bera egin bear izan bait dute gotzai guztiek; eta ez gotzaiak bakarrik. Edozein kargu artzeko, eta baita edozein txatxukeri lortzeko ere, Jaungoikoaren izena ederki sartua zeramakian zinketa baten bitartez, espaniar orori "la adhesión al movimiento" edo "Franco'ren ariketaren aide egon bearra" eskatzen bait zitzaion'

Bigarrena, orduango errege guztiak bazuten "Placet" ura besterik ez zan. Konbentzioaren azkenekoetako agindua, izan zan urrilleko zinketa eskatze ura; urrengo illean amaitu bait zuan Konbentzioak bere lana, Frantzi'ari Kostituzio berri bat eta Politika-Era berri bat emana: "Direktorioa".

Ara nola zegoan politika-era berri au tajutua: lenengo maillan, legegaiak aztertu ta eratzeko, Batzar bat: "Le Conseil des Cinq-Cents"; "Bosteunen Batzarra". Bigarren maillan, beste Batzar bat: "La Chambre des Anciens", "Agureen Kamera", "Senat" edo "Senatua", ("Aguredia", itzaren zentzua biurtu nai izan ezker), 250 ziran Senatuko "Agureak" Irugarren maillan, bots batzarkidek osatutako Batzorde bat: "Le Directoire", "Direktorioa", "GidariBatz", legeak betearazteko ipiña. Kostituzio berri au antolatzen parte aundia izan zuan Siéyès apaizak, "Urrezko Gaztedia" lagun zuala. "Urrezko Gazte" auek, atzerritarren aurkako gduetan ibilli ziran mutillak, zentzunezko errepublikazaie zintzoak ziran, berak urruti Erkalaren alde borrokan zebiltzen artean, jakobatarrak Frantzi'n egindako odolkerienetsaiak, jaurlaritza egoki baten lagunak.

Direktorioak 1795'eko Urrillatik 1799'ko Azaroaraiño iraun zuan' Ikus dezagun Elizarekin izan zituan arremanak.

Pakezkoak, asieran.

Direktorioaren aurka zeuden erregezaieak eta Konbentzioaren aroko ezkertarrak' Batak eta besteak, bat artuta altxa ziran izkiilluketan Paris'ko karriketan, 1795'eko Urrillan bertan, baiña ordurako Tolon'en inglandarren aurka borrokan ospetxu egiña genduan Napoleon Bonaparte'k, errez menderatu zituan.

Bi illabete geroago, Abenduan, Direktorioak, "Ziñatugabeko" Elizaren aurka emandako lege gutziak kentzeko erabakia artu zuan. Ez zan ori, aurrera eramateko, erabaki erreza; alde batetik, Direktorio bereko batek baiño geiagok, apaiz "ziñatugabei" bildur geiegi zielako; eta besterik, apaiz aietako asko ta asko, bildur ura arrazoiezkoa egiñaz, —osoro politikan, Errepublikaren aurka, sarturik jarraitzen zutelako: "Edo, ostera, Erregea, edo deusez!". Ala ere, Direktorioak ez ikusia egiten zien apaiz buru-bero aiei.

Jeiki ziran ostera ezkertiarrek 1796'ren maiatzean, Gracchus Babeuf, erdikomunista, erdimilenarista, buruzagi zutela' Eta ez bait zan ain erreza izan matxinada ura zapaitzea, Direktorioak, eskubitarren artean adiskidetsunak egin naiean aurrera jarraitu zuan, Elizari gero ta askatasun geiago emanaz.

Errepublikak irabazi zuan aunditasunak ere baretze orri giro egokia gertutzen zion' Ez zan iñoiz Frantzi, bere edestian, orduan bezain aundia izan. Guda zer zan ere ez zekian "urrezko gaztedi" ark osatutako gudarozteak, aurrena Domouriez, eta gero, Pichegru, Hoche, eta Jourdan buruzagi zituala, len Borbolek amestu ere ez zituzten lekuetaraiño zabaldu zituan Frantzi'aren mugak' España garaituarekin, ere, pakea eginda zegoan. Eta barruan, 1796'ean, Vendée'ko gudua amaitua zan. Askatasun osoa eman zien Direktorioak bendeetarrei erlijio-arloan. Erromarekin diplomazizko korapilloak lotu maiean ere asi ziran batzuen batzuk. Ez danak, oraindik, Direktorioko Batzar eta Erakundeen altzoan askok Elizari bildur bait zioten; eta beste batzuek, agian, gorroto ere bai'

Pakezko giro orren barruan, 1797'aren Dagonilleko 24'ean, askatasun osoa eman zitzaie apaiz guziei; "ziñatuei" eta "ziñatugabei", ezkillak jotzea ere iare utziaz, eta, garrantzi geiagokoa dana, zin-egin-bear guztiak kenduaz.

Bazan ura Pio VI'ak zerbait egin nai izateko garai egokia"! Pio VI'ak, ez zuan ezer egin. Ezta atzerrira iges-egindako gotzaiek ere. Auek, eta ura, Erregearen alderdikoak bait ziran; Errepublikaren etsaiak. Ala ziran, pakearen usaiera, millaka, Frantzi'ra itzuli ziran apaizak ere. Direktorioak Dagonilleko lege ori ematerako, bai omen zi-

ran amairuren bat milla, geienak Inghlanderritik, itzulitako apaizak. Danak ziran erregezaleak, eta zoritxarrez, asko, erregezale ez ezê, baziran Erregearen gudari, Kristoren apaiz baiño geiago, eta burubelarri sartu ziran politikerira; Erliioari mesederik aundiena egiten zielaren ustean; ori bai'

Pio VI'ak ez zuala deus egin esan dugu; eta cri, egia da'.., eta ez da egia. Egin..., egin bail zuan zerbait, eta izugarritzko ondorio ederrak izan zezazkean zerbait, gaiñera' Baiña egin zuana..., berak desegin zuan, egindakoa argitaratu gabe laga bait zuan! 1796'eko Uztaillaren 5'ean katolikoei Direktorioaren agintaritzan onartzeko eskatu zien, idazki baten bitartez. Kuriak kendu zion burutik, idatzirik zeukan eskari ura argitara emateko asmoa. Aitasantua bera baiño aitasantuzaleago izatearen kalteak.

Orduan gertatu zan Agorrillaren 4'eko "Coup d'Etat" edo "Latterri-Kolpea"; iraultzalarien egutegian, "Fructidor" edo "Zitu-Ille'ko" Kolpea, Direktorioaren "eskubitasunaren" aurka, Elizaren etsai edo Elizaren bildur ziran politikalariek emana'

Bereala, Direktorio berriak ziñ-egite barri bat eskatu zien apostoladutzako karguren bat zuten Elizgizon guztiei' Erliioaren barrut an, ez zuan garrantziko gauzik zinketa berriak eskatzen, baiña bai politikarenean; Erregetzari "haine éternelle", "betirako gorrotoa", izanen ziela ziñ egiteko eskatzen bai zitzairen Gotzai ta Apaiz Jaunei. Ondo zekian "Zitu-Illean" jaiotako Direktorioak aiztoa non sartu!.

Ostera berriz, bi zati eginda gelditu zan, goitik beera, Frantzi'ko Eliz gaixoa.

"Gorroto" itzak sortu zituan aurreneko kontzientzialantzak, Laister garbitu zituzten zalantza oiek egokitasun osoko gotzai batzuek, eta auen artean, beren zentzu onez ondo ezagunak ziran, Melloy, Mercy eta La Tour de Pin'ek, pertsonen aurkako gorrotoa baka-ririk zala kristautasunak debekatzen zuan gorrotoa, adieraziaz.

Direktorioak agintzen zuan lurretan bizi ziran Eliz-gizonetatik askok, eman zuten ark eskatzen zien ziña, batzuek azkarrago, besteek geroago, asko, luzaroan, zer egiñ ez zekitela ibilli bait ziran Malinas'-ko Goigotzai Von Franckenberg Konte Kardenala bezala, Pio VI'ak zerbait esanen zualaren zai. Luzaro egon bear izan zuten zai; Pio VI'ak ez bait zuan ezer esan; edo, idatzi, beintzat. Ia bi urte geroago, 1799'aren jorraillean, zabaldu zan bâ Frantzi'n "zuzmuru" bat: urte bete lenago, 1798'aren otsaillean, Aitasantuak "itzez" ziñ ura egitea zillegi ez zala adierazi zuala.

Malinas'ko Goigotzaiak berak, azkenean, ziñik ez egitea erabaki zuan. Baiña geienak baiezgora alderatu ziran. Beste batzuek, Frantzi'-ko kristaudiaren artzaintzaren beartasunek artara eramanda, zillegi ez zala uste zutena egiña izan zedilla nai izateraiño iritxi ziran. Ala Alla Emery, sulpizitarra, garai artan Frantzi'n gogo-zuzendaririk ospetsue-netakoa. Ez zuan apostolutzako kargurik eta, ez zegoan bera ziñ-
-ematera beartua' Baiña bai ziñ-ematera bearturik zeudenentzaz kezkatua. Ikus zer idatzi zion gizon zintzo eta jakintsu arek Gotzai adiskide bateri: Nik ez nuke neronek zinketa ori egingo' Baiña auxe eskatzen diot Jainkoari: Artzairik gabe artaldea gelditu ez dedin, eraman ditzala gure Apaiz Jaunak zinketa ori egitea zillegi dala uste izatera, ortarako zerutik gauzak eta gertakizunak era egokian zuzenduz'

Atzerrira aldeginda zeuden gotzaiak, aiek bai, zalantza aundirik gabe, eta batere kontzientziko kezkarik gabe, egin zuten arrandi ziñ-
-ematearen aurka, beren babes-toki goxoetatik idatzitako pastorale-tan. "Horrible monstruosité, blasphemé et parjure", "Deabrukeri ikaragarria, birao, eta traizioa" omen zan Direktorioak eskatzen zuan ziña. Ez ote zan zintzoagoa, Direktorioaren ziñ-eskatze ura, pertsonak politikarako duan askatasunaren aurkakoa zala, izkera zakarrrik gabe jendei jakiñaraztea? Askatasun beraren aurkakoak ziran, baita're, Gotzai aiek, jendea Errepublikaren aurka eta erregetzaren alde jarriarazteko, egiten zituzten saiaketak'

1797'an asi zitzaigun agintzen Bigarren Direktorioa eta aurrenekoa baiño areago joan zan Elizaren aurkako ekintzetan'

Egia da kirten egokia eman ziola artarako erbestera igesegindako elizgizonen ariketak, batez ere Bigarren Direktorio ontako agintariak beti erregezaleen kolpe baten bildurrak estuturik jardun zirala oroitzen ba'dugu.

1798'ren asieran eman zuten bildur orren aurreneko siñalea, sei milla apaiz Belxika'tik eta beste bi milla Frantzi'tik Guayana'ko indarlanetara baiturik eramateko agindua zabalduaz' Baiña agindua agindu, milla bakarrik izan ziran baituran artuak, eta milla aietatik irureunen bat Guayana'ra eramanak' Auetatik erdiak, itxasoan aruntzakoan edo gero Guayana'n il ziran, ango giro makurrak zigortuta. Beste apaiz aiek zergaitik ez ziran baituak izan jakin naiko duzu, tarte aundia bait dago Gayana'ra eramanak izan ziran irureunetatik, arâ eraman-bearrak ziran zortzi milla aietara. Erreza da erantzuna: Batzuk, beren kristauen artean izkutatu ziralako, beste asko errietako agintariak Direktorioaren agindua kontuan artu nai izan ezzutelako, eta, azkenean, Paris'ko agintariak danak aburu berekoak ez ziralarik, Direktorioak

ere bere agindua betearazteko deus aundirik egin ez zualako.

Ez ditzagun aztu, ala ere, Ré eta Oleron ugarteetara katigu eramana izan ziran ia milla apaizak, eta 1795'garren urte artako aurreneko illabeteetan fusillatuak izan ziran 40'ak. Baiña egia bere tokian ipintzeko, esan dezagun deportazio eta fusillaketa auek politikazko arrazoiakgaitik egiñak izan zirala, eta, erlijioarekin, zer ikusi askorik ez zutela izan'

Gotzai askok atzerritik bidaltzen zituzten Pastoraletako erakusketak ez ziran, noski, agintarien biotzetara pakea eramateko osoro egokiak. Ara gotzai aien irakasbideen ale bi: "Erregetzarik gabe, Elizak bizi aal izaterik ez zuala", zion Nikolay Jaunak; eta "Betiko Osasuna lortzeko, mundu onetan erregetza politikaera bearrezkoa ez dala esatea, erejia zala", La Fare Jaunak.

1799'ko Azaroaren 9'an Napoleon'ek kolpe baten bidez Agintaritzartu zuanean amaitu zan Direktorioa, eta Direktorioarekin iraultzaren aurreneko Atala, naiz itxuraz, gauzak berdin jarraitu; NapoleoL; .i'ek Ertzaindiaren buruzagitza apaiz izandako Fouché jakobatarrari, eta Atzerriko Arazoen Ministeriotza Talleyrand gotzai ukatuari eman bait zizkien.

Iraultzaren aurreneko amar urteak "Bildur Aundiaren" zamaren azpian igaro ziran. Urte oietan, batez ere "Le Terreur" deitutako infernukeri arek iraun zuan amar illabeteetan, "Bildurra" izan zan, Frantzi'ko Politikaren eragille orokorra.

Iraultzalarien artean baziran egiazko politikolari yayoak, Necker, Barras eta Mirabeau'ren antzekoak; asko. Zori txarrekoa izan zan Frantzi'rentzat azkeneko onen eriotza. 1791'ren jorrailleko 4'ean il zan. Azkarregi. Bere eriotzak Iraultza gazteari, zuzendari egokienetako bat kendu bait zion.

Izan ziran egiazko idealistak ere, Lafayette, Desmoulins bera, eta, batez ere, erria!: borroka-leku guztietan Errepublika garaille ateara zuan "urrezko gaztedi" ura! erriko jendeen semez osatutako gaztedi gailena.

Izan ziran uste zuzeneko galikerizale sutsuak, Siéyès apaizaren, eta Gregoire gotzaiaren antzekoak' 1799'aren azkenean, Gregoire setatsua oraindik Nazio-Kontzilio baten bitartez Kostituzio-Eliza bizkortu naiean zebillen. Bildu zuan Kontzilioa eta joan zitzaizkion 32 gotzai eta beste 68 gotzaien ordezkari' Egin zuten, bi urte geroago, beste kontzilio bar ere, 1801'ean. Ez zuten sasikontzilio galikandar aiek ezer lortu, baiña gizon auek ere, beren modura, katolikotasuna bizkortu naiean zebiltzan.

Izan ziran nazka ematen duten gizon maitzurak; beren buruen interesak bakarrik billatzen zituzten gizakume iguingarriak. Auetakoak dira Talleyrand gotzaia, Fouché oratoriotarra... , eta baita Orleans'ko Dukea (XVI Koldobika'ren lengusua), iraultzalari biurtu ondorean "Felipe Berdintza" izentzat artu zuana. Erregearen eriotzaren aide eman zuan "Felipe Berdintzak" bere autarkia, Koldobika XVI gizagaixoaren epaiketari. Eriotza berdiña izan zuan berak ere, urte batzuk geroago, ikusi genuenez.

Baziran gaizkilleak ere, iraultza gudaketa eta gurutzada guztietan gerta oi dan bezala. Batzuk, egiazko sadikeri-zaleak; gaitz egiñaz gozatzen zuten pistiak; beste batzuk, mistikeri zoro baten aizeak erotutako "santu" beltz biotzik gabeak. Aipa ditzagun, Marat, Danton, Robespierre, eta auek baiña nardagarriagoak, Carrier, Hébert, Collot...

Iraultzalaririk ezagunenak, Iraultzak berak, gillotinaren bidez, irentsi zituan. Jakobatarrek gillotinatu zituzten xirondatarrik ospetsuenak: Brissot, Vergniaud, Gensonné, Roland andrea, "Felipe Berdintza", Desmoulins... Beste xirondatar askok beren buruei beren eskuz kendu zioten bizia, jakobatarren eskuetara ez erotzearren. Oso gutxik erbestera aide egin aal izan zuten.

Jakobatarrek, beren artean! alkar erail zuten. Batzuek, Robespierre'k berak bidali zituan gillotinara' Ala, Danton, eta "anarkisten taldea", Hébert eta onen adiskideak. Robespierre'k erail zituan ArrazoiGurketak ospetsu egin zituan Paris'ko komunaren buruzagiak ere. Komunatar aien adiskide zalako erail zuan Paris'ko Goigotzai izandako Gobe! "ukatua" ere. Bi auek izan ziran Gobel'eri egin zitzaizkion karguak: bizimodu lizuna eramatea; Ateismoaren zabaltzaille izatea. Elizarekin pakeak eginda il zan, bere pekatuen ordaiñez eriotza pozik artzen zuala, espetxetik idatziaz. Auek izan ziran bere azkeneko itzak gillotinari aurpegi eman zionean: Vive Jésus Christ"! "Gora Jesukristo".

Beste jakobatar batzuk, "thermidorko" matxinadak gillotinaarazi

zituan. Orduan lepoa galdu zutenetakoak dira Robespierre, Couthon, Saint-Just, Carrier, Fouquier-Tinville...

Marat, Karlota Corday izeneko neska batek il zuan 1793'ko uztailaren 3'an. Eriotzera baldin izan bait zan, laister moztu zion gillotinak lepoa, erregezaleek "aingeru" izendatu zuten neska gazte oni ere' Ez da errez ulertzen nola bizia salbatu aal izan zuten jakobatarrik gogorrenetakoak ziran Collot, Billaud, eta Barère'k, "thermidortarrek" egin zuten garbiketetan. Baiña iru oiek ere, espetxeko zuloan murgilduak izan ziran.

Izenbat jende erail ote zan, Frantzi guztian, Iraultzaren amar urte auen luzaroan? Ez da erreza erantzuna, estadistikarik ez bail dugu' Erregezaleen liburuek numero auek ematen dituzte: 12.000, (1792'ko agorrillan); 1.376, (1793'ko uztaillean). Baiñan aipatutako denbora oietaz landa ere erailketak izan ziran. Eta guztira, jende askok galdu zuan, noski, naaspil artan lepoa'

Aizatu dituzte ederki idazle katolikoek, eta arrazoiarekin, Iraui tzak egindako erailketa aiek' Baiña karitate geixagorekin begiratu bear genioke, aga begibarruan daukagun katolikook, lastoa daukan arerioari. Iraultza artean Frantzi'k zituan biztanle berak zituan 1936'ean Españi'k, eta Konbentzioak bere mendeko lurraldeetan gero izan zituanak baiño askoz gutxiago. Ala ere, pozik giñazke katolikook, Españ 'ko "gurutzadan", "gara Kristo Errege" oiuka, "gurutzartuek" iru urtetan fusillatutakoak, Frantzi'ko iraultzariek Ibero eta Rin ibaien arteko lurralde zabalean amar urtetan gillotinatutakoak baiño geiago ez balira! Ta ori, guda amaitu ondorean Franko'k fusillatu zituanak zenbatzekel

¿Frantzi'ko iraultzalariek apaiz asko il zituztela?. Askoz gutxiago, egia da, baiña erail zuten apaiz santu sail ederra, "gurutzartuek" ere, emen, Euzkadi'n.

Franko'k emen ildako apaiz aiek, ,apaiz ziralako ez baiña, erailleen ustez, politikolari etsaiak ziralako, illak izan zirala?' Baita Frantzi'ko aiek ere!

Frantzi'n gjendea erailtzeko moduak ikaragarriak izan zirala?. Ez beti. Ia ildako danak, gillotinatutak izan bait ziran. Baiña bai batzuetan. Nantes'en Carrier basapistiak, egun batean 138 pertsona itoarazi omen zituan Loira ibaiean, eta beste batean, 90 apaiz' Bereiziki dira iguingarriak "errepublikar-eztaiak" Apaiz bat eta emakume bat alkarri lotuta bizirik ibaiera jaurtitzeari esaten zitzaion orrela. Bai; neurririk gabeko ikaragarrikeriak egin ziran Frantzi'ko iraultzan. Laga ditza-gun ixillean Españi'ko gurutzadan egindakoak. Baita gurutzada amai

tu ondorean egindakoak ere. Oraindik ere..., Jainkoak gorde zaitzala Laterri eskubitarrretako ertzaiñen eskuetan erortzetik.

Egiazko gurutz-bidea eraman bear izan zuan urte aietan Frantzi'ko Elizak, batez ere egiazko Elizak, "Kostituzio Zibillaren" araura eratutako beste Eliz ura, Aitasantuaren baimenik gabe eratu zalako, zisma-eliz bat besterik ez bait zan, naiz galikerian ezitako bere elizkideek ala uste ez. Eta elizkideok ere oartu ziran azkenean gaizki zebiltzala, ta Napoleon'ek pakea egin zuanean arrenkurarik gabe igaro ziran egiazko Elizara.

Ikusi dugunez, Eliz zismakoi artan ere izan ziran egiazko ziñopak, martiriak; eta apaizgoa ukatu nai izan ez zuten apaiz guztiak, naiz Iraultzako Jaurlaritza danek eskatutako zinketa guztiak egiñak izan, egiazko Elizako apaizak bezain gogorki erabilliak izan ziran'

"Le Terreur" edo "Ikararen" aroan, Frantzi guztian laureun eta larogei ta lau izan ziran EpaiMai Iraultzalarien aurrera eramandako apaizak. Orra bâ; 484 oietatik, irureun da ogei, Kostituzio-Elizekoak ziran, eta 64 (irurogei ta lau) bakarrik Egiazko Elizakoak. Eliz ontako apaizak, batzuk atzerrira joanak bait ziran ordurako, eta beste asko berriz, ixillean eta izkutuan gorderik bait zeuden beren ardien artean lan egiñaz jarraitzeko.

Mixiolur bihurturik gelditu zan Frantzi guztia, eta doidoi bizia gorde aal izan zuan Elizak izkutuan, sakramentuak al zuan bezala isillean ospatuaz. Askotan, inguruan apaizik ez zalako, amaika tokitan kristau soillak bildu oi ziran zoko gordeetan, berak bakarrik, otoizketarako, igande eta jaiegunetan'

Ala're, Direktorioarekin izan zuan Elizak askatasunik aski. Baiña orduan ikusi aal izan zan, zenbateraiño zegoan mixio-lur biurtua amar urte leenago osoro katolikoa zan Frantzi; uri eta errikozkor azietan begi okerrez begirutzen bait zion, gaztediak bereiziki, sotanaz jantzita kaleetara agertzen asi zan elizjendeari.

Gaztediaren sentimentu oiek, amar urteren luzaroan erlijioaren aurka, ikastoletan, izparringietan, eta karriketan egin zan propagandaren ondorioa zan' Ortaz zalantzik ez dago. Baiñan guk, gure buruari galdetu bear dioguna, au da: Propaganda ura zergaitik egin zan, eta batez ere, zergaitik ain uzta ugaria jaso zuan. Eta gure ustez erantzuna bikoitza, edo irukoitza, da. Zergaitik egin zan propaganda ura'?

Iraultzalarien artean Elizari egiazko gorroto fanatikoia ziotenak baziralako. Ez ordea asko' Ezkerrekoetatik, ere, geienak, deista utsak, beraz erlijio-askatasuna emateko beren baitan eragozpenik ez zutenak bait ziran.

Gotzai ta apaiz askoren jokaerak propaganda arrigiro egokia gertutu ziolako'

IV Pio'ren diplomazia' Ezer gutxi egin zuan Aitasantu onek, eta, egin zuana, beranduegi' Gauza bat bakarra egin zuan azkar, eta ura gure iritziz, okerra: Europa'ko Erregei Frantzi'ren aurkako borrokara deitzea. (Ala're, aitortu dezagun Aitasantuak bazuala, Errege zalarik, bere Laterriak arriskuan ikusten zitualako, dei ori egiteko eskubidea).

Alderantziz, zuzen ibilli zan, —gure ustez—, Direktorioa Frantzi'-ko Jaurilaritza lez on-ezagutu nai izan zuanean, baiña ez zuan on-ezagutze ori Kuriaren aburuaren aurka aurrera eramateko ausardirik izan. Ori bait zan IV Pio'ren akatsik aundiena: bere buruagan konfiantzarik ez izatea. Baiña, —gure ustez au ere—, leenago egin bear zuan Pio VI'an Frantzi'n gertatutako aldaketaren on-ezagutzea; Nazio-Batzar-Konstituziogillea bildu zanean; bear bada'

Egia da Batzar arek iru lege gogor eman zituala Elizari-buruz; alare, ez lege aietan, ez Frantzi'ko Konstituzio berri osoan fedearen aurka ezer ez zegoan' Elizaren administrazioa eta gobernua ukitzen zituzten lege aiek, ez sinismena. Ona berriro iru lege aien mamia:

Gotzaiak, erriak aukeratuak izango zirala. (Elizaren aurreneko mendeetan, erriak aukera oi zituan, toki askotan, Gotzaiak. Ez zegoan beraz ontan Aitasantuak ontzat artu ez zezakean gauzarik)'

Orrela aukeratutako Gotzaiiei jurisdizioa edo aala, Goigotzaiak emango ziela. (Aurreneko mendeetan, jurisdizioaz ez zan itzegiten. Ematekotan, Gotzai sagaratzailleak ematen zion jurisdizioa, Gotzai sagaratu berriari. Gaiñera IV Pio'k, eman zezaien Goigotzaie, gauzak erabat zuzendu arte Gotzai berriei jurisdikzioa emateko almena)'

Elizari ondasun guztiak kendu zizkion lege ark. Ori lapurreta bizi-bizia zan, egiña izan zan erari so-egiten ba'diogu. Baiña lapurreta orren antzekoak egiten ari ziran II Jose eta II Katalin, eta ez zien Pio VI'ak ezertxo ere esan.

Gertakizunek artu zuten ibillera ezagutu ondorean errez ematen dira guk eman ditugun epaiketen antzekoak' Baiña, orduan, IV Pio'k ez zekian gertakizunek zer ibillera artuko zuten. Berak, —eta ia Europa osoak—, ziur uste zuan Frantzi'ko Iraultza zapaldua izango zala. Ori gertatu balitz, Valmy'n Errepublika garaille irten bearrean Erregeek irten balira garaille eta Iraultza zapaldua izan balitz, eta IV Pio'k aurretik guk esan dugun guzia egin balu, gaur guk, seguruaski, IV Pio Iraultzaren asieran Nazio-Batzar Konstituziogillearekin aulegia izan zala esango genduke; gogorragoa izan bear zuala; ez Gotzaien arazoan, ez Elizaren ondasunen arazoan, ez zuala amorerik eman bear!'

Batek baiño geiagok esango dit VI Pio'k zuzen jokatu zuala amorerik ez ematean' Batzar Kostituziogillea 1789'tik 1791'ra egon zala bildua, eta azkarregi zala orduan amore ematen asteko, etorkizuna nolakoa izango zan jakiterik ez zegoalako'

Bai, —erantzungo diot—, baiña Pio VI'ak ez zuan ezer egin: ez amore eman ez amorerik ukatu; ixillik egon zan; baita, Batzar arek apaizei ziñ-egitea eskatu zienean Frantzi'ko Eliza bi zati egiten zala ikusi ondorean ere. Eta ziurki uste dugu Frantzi'ko Elizaren batasunak iru atal aietan amore ematea merezi zuala.

Geroago ere ez zitzaion VI Pio'ri erabaki sendo bat artzeko adionik peitu' Ikus:

Batzar Kostituziogillearen atzetik Batzar Legegillea etorri zan. Politikolari gazte "orritsuak" izan ziran an nagusi, eta ez ziran Elizaren etsai. LBaiña orduan Austri eta Prusi Frantzi'ren aurka guda gertutzen ari zirala, eta VI Pio'k, zuzen pentsatzekotan, ziur uste bear zuala guda artan Frantzi zapaldua izango zala?' Bedi! Baiña'..,

1792'an aurrera zijoan Iraultza. ¿Austri eta Prusi, Frantzi'ren barruan sarturik zeudela? Bai, baiña lortu zuten iraultzalariek aurreneko garaitza, guduari buelta emanaz; urte orren Irailleko 21'ean, zapai du bait zituan Dumouriez buruzagiak Valmy'n prusiarren indarrak' t, Goitzxo zala oraindik etorkizuna argi ikusi aal izateko? Ikusi aal izan zuan Goethe olerkariak, odolketa ura aro eta era berrien jaiotza zala esan zuanean' VI Pio ordean, ez izaki Goethe! Gaiñera, urte artan bertan, illabete t'erdi geroago, austriarrak izan ziran berriro Jemmapes'en zapalduak' Baziran bâ bi gertakizun oiek edozein kezkaarazteko aiña! Konbentzioan, xirondatarrak zeuden oraindik agintari' Pio VI'a ez zan egokitasun ortaz baliatu.

1794'aren Uztailleko 27'an artu zuten "termidortarrak", Robespierre jaurtita, Konbentzioaren zuzendaritza; eta erregezaleen matxinadak menderatu bezain laister asi zitzaizkigun Elizarekingo adiskidetasunaren billa. Orduan ez zegoan gertakizunen ibillera zalantzan ipintzerik, berealaxe, bazter guztietan garaille bait ziran iraultzalariak. Españi'ko Ibero ibaiaren ertzetaraiño iritxi ziran; Rin ibaiaren ertzetaraiño Alemani'n, eta bereak zituzten Belxika, Olanda, eta Itali'ko Iparraldea. Ikusi zuten orduan Europa'n danek Iraultzaren gudarozteak menderakaitzak zirala, eta Frantzi'rekin pakea nola moldatu pentsatzen asi ziran Europa'ko Erregeak. Españi'ko Karlos IV'ak eta Godoy bere ministroak ere ikusi aal izan zuten gertakizunek bueltarik ez zutela eta arin izenpetu zuten iraultzalariekin Basilea'ko pakea. Dirudiane z VI Pio'k bakarrik ez zuan oraindik ezer argi ikusten.

—Frantzi Europa'ko nagusi zala, eskuak zabaldu, eta, danei, baita Elizari ere, askatasuna emateko asmoarekin sortu zan eta asi zan agintzen Direktorioa' Ez zuan Aitasantuak une ura bear bezala aprobetxatu; ezta geroagoko adiontasunik ere, Frantzi'ko katolikoei Errepublikan on-ezagutzeko eskari ura ez bait zuan, bearrezkoa zan keme-nez, aurrera bultzatu.

"Tolentino'ko Pakea" ere, Aitasantuak Napoleon garaille orokorrarekin izenpetutako pake ura ez zan inolaz, orduango gertakizun aundi aiek eskatzen zuten erantzun bizkor sendo erabatekoa. Pake ura gaiñera, beste irten-biderik ez zualako, eta Erroma'ko Uri bakarrean bederen bere askatasuna eta agintaritza, bere Erregetza! sai batzeko izenpetu zuan Pio VI'ak.

VI Pio Errepublikaren etsai eta Erregetzaren aldekoa zan. Ez dugu zertaz arritu; bera ere Errege bait zan. Alare iraultzalariekin leialki al-karrizketan asteko gai izan balitz, seguruaski garai artako Errege arropuzekin bezain ongi konpunduko zan Errepublikarekin; bai beintzat orduantxe il Katalin errusiarrarekin edo Jose II Inperatorearekin, bezain ondo. Ta ortaz oartzeko ez zeukan Ameriketara begiratu besterik. Baiña Ipar Amerika'ko Iraultzak ez zion Erroma'ri ezer erakutsi. Ain zegoan urruti Amerika ura! Eta ain ziran "beste mundu batekoak" amerikar adikaitz aiek!.

Tamalez, politika eta erlijioa naasiegiak egon ziran orduan Europa guztian, Frantzi'n bereiziki.

Erregezaleek, Errepublika zapaltzen ez ba'zan betirako ilko zala Frantzi'n Eliza uste izan zuten, Elizaren bizitzarako erregetza, monarkia, bear-bearrezko gauza zala sinisturik bait zeuden. Orregaitik esaten zuten Gotzaiak Errepublikari laguntzea pekatu aundia egitea zala. Errepublikazaleek berriz, Eliza ezerezten ez ba'zan Errepublikak bizi-tzerik ez zuala izango pentsatzen zuten azkenean; ikusten bait zuten elizjendeen erregezaletasuna.

Elizaren ta Iraultzaren arteko alkar ezin-ikusi ortan, erru aundia zuten iraultzalariek ere. Elizarik ukitu ez balute, Elizako gotzaiak nola aukeratu eta nola sagaratu bear ziran agintzen asi ez ba'ziran, eta Elizaren ondasunak, Aitasantuarekin itzegin gabe, lapurren modura era zikiñean ebatsi ez ba'zituzten, errez konpunduko ziran Elizarekin; naiz aristokrazikume ziran Gotzai aiek ez, apaizak, ia-ia danak, iraultza eta aldaketa onuragarri baten guratzaille bait ziran' Eta orduan, aurka izan bearrean, bere alde izango zuan Iraultzak Frantzi'ko kristautasunaren indar guzia.

Frantzi ordea galikeriaren sorterrria izaki! Eta Eliz galikerizalea-
ren semeak izaki berriz, Iraultza egin zuten busgeskume aiek!

IRAULTZA, FRANTZI'K MENDERATUTAKO LURRALDEETAN

Españi'n Ibero ibaiaraiño sartu ziran Kobentzioaren indarrak. Españi'ko gobernua gogorra izan zan len ere FrantziTik igesi etorritako apaizekin, Frantzi'ko ertzatik urrutira baztertu, eta, gaiñera, apostolutza-lan guztia eragotzi bait zien. Meza ematea soilki zuten zillegi'

Ez zan ain gogorra izan Konbentzioaren gudariekin borroka-tokietan, "urrezko gaztedi" boluntario aien aurrean, arin iges egin bait zuan Españi'ko gudarozteak' Ez da arritzekoa, gudarozte ura soldataren usaira bildutako alprojez, edo indarrez eramandako eskale ta espetxeetako gaizkillez osatua bait zan; eta, gaiñera, adore eta yayotasun urriko gizonak bait ziran bere agintariak.

Elizaren edestirako ez du konbentziotarrek Auñamendi'az onuntza. egon ziran denborak garrantzi aundirik. Emengo lau Eusko Laterriak konbentziotarrekin izan zituzten adiskidetasunak, geiegizkoak. izan zirala uste izan dute idazle espāñiar katolikoek; batez ere Tallien Konbentzioaren buru egin zan ezkerro; gorago esan dugun bezala, Tallien'ek aginduta joan bait ziran Frantzi'ko gudariak, Gernika'ra Erkalaren izenean, izkilluak makurturik euskotarren Aritzari agur egitera, "Eusko-Demokrazia omen zan, bâ, munduan zaarrena".

1795'garren urtean egin zituan Espāñi'k Frantzi'rekin pakeak. Eta baita adiskidetasunak ere, Espāñi'ko Erregetza ta Frantzi'ko Iraultza, Alkarte baten bitartez bat egiñik gelditu bait ziran' Inghlanderrria menderatzea lortu nai zuan Espāñi'k alkarte orren bitartez; Frantzi'k egoaldekoko muga etsairik gabe iagatzea, eta Espāñi'n zeuzkan indarrak Alpeen egoaldera eraman aal izatea, an, Zerdeña-Saboia-Piamontetarren aurka, eta Austri ta Errusitarren aurka ekin zezaten. Orrela, pakean itzuli ziran ostera Espāñi'ren mendera, iraultzalarien eskuetara jausitako Espāñi'ko lurak Zerdaña ezik. Espāñi'ko Errege katolikoa, eta Frantzi'ko Errepublika jainkogabea, batera joan ziran Trafalgar'ko itxas-muturrera. An desegin zituan Nelson'ek borroka bakar batean, Frantzi'ko eta Espāñi'ko ontzidiak. Inghlanderrria, XIX mende guztirako, itxasoan nagusi gelditu zan.

Ikus ditzagun Frantzi'ko Iraultzalarien ibillerak Europa'ko beste bazterretan.

Suizi'ra, Iraultzalarien izkilluak baiño lenago iritxi ziran iraultzaren gogoetak, batez ere Jinebra'ra. Baiña iritxi zitzaizkion laister Iraultzaren izkilluak ere; pakean jarraitu aal izatea zail bait zitzaion Suizi'ri, bere inguruan Frantzi, Austri, Itali eta Zerdeña'ko Jaurerria borroka bizian zebiltzan bitartean'

Izugarrizko erru bat egin zuten iraultzalari frantzitarrek, arrapatu zituzten errialde guztietan. Bertako aberastasunak Frantzira lapurretan eramatea baiño erru aundiagoa, naiz orixe bera txikia izan ez: Lurralde aietan indarrez Frantzi'ko politika-era bera ipiñi nai izatea, era ark Elizaganako berekin zuan bekaizkeria ta guzti. Aberastasun-eramate ura, Frantzi'k, bere gogoaren aurka jasan bearrean aurkitu zan guda baten saritzat jasotzen zan ordaña zala ulertu zezakean jendeak. Baiña naitanaiezko polikika-ezartze ura eta Laterriren mugen aldakuntza aiek, ta —iraultzalariiek Elizari bildur zietelako—, Eliza ta Kristautasunaren aurka zijoazten lege aiek, ez zituan jendeak ulertzen.

Ori gertatu zan Suizi'n are. An, Laterriaren mugekin nai zuten guztia egin-da, Kantoiien Konfederapena desegin ondorean, politika-era berri bat ezarri zuten: "La République Helvétique"; "Elbeziarren Errepublikak". Eta, naiz bildur eta arreta geixagorekin, Frantzi'ko "Kostitutuzio-Eliza" ezarri nai izan zuten Suizi'ko kantoi katolikoetan. Gogorkeri orrek suizitarren abertzaletasuna ta kristautasuna bizkortu besterik ez zuan egin'

Ordurako, Frantzi'tik igesi etorritako lau milla apaiz arturik zeukan bere babesean, orduan gaur bezain aberatsa ez zan Suizi'k. Eta ez kantoi katolikoek bakarrik; baita protestalariak ere, batez ere Jinebra'k, al zuten guztia ein zuten apaiz aiei bizimodua gozatzeko, Iraultzaren gudarozteak Suizi indarrez artu zuan arte. "Gora Askatasuna" deadarka sartu zan Suizi'n, beste tokietan bezala!

Orduan, Frantzi'tiko apaizek, aldegin bear izandu zuten; eta, Suizi'koei, Frantzi'ko "Kostitutuzio Zibilla" bera ziñaratu nai izan zitzaien' Ez alper gaiztoan; 216 apaizetik 16'ek bakarrik egin zuten zinketa. Ta, aldi berean Valais'en, Friburg'en eta Unterwalden'en jendea izkillueta jotzen asi zalako, kontu geiagorekin billi bear izan zuan gerontzean, Frantzi'k, "Elbeziar-Errepublikaren" gaiñetik ipiñia zeukan "Zaindariak". Erriaren adorea ipiñi zion neurri Frantzi'ren despotikeriari, Suizi'n, Eta baita Belxika'n ere.

Inperioaren zati zan Belxika, Frantzi'n Iraultza asi zanean. Laister

erori zan Frantzi'ko gudarozteen eskuetara. Iraultzalariek ez zuten an, (Suizi'n egin, eta Olanda'n eginen, zuten bezala), Errepublika erdi-iaire bat ezarri. Belxikarrentzako begirune-apurrik gabe, Belxika osoa Frantzi'ko Laterriaren zati biurtu zuten. Eta orrela Frantzi'ko legeak, besterik gabe, Belxika'n lege izaten asi ziran' Beintzat frantzitarren iritziz, naiz, laister ikusiko dugun bezala, belxikarrak uste diferente-koak izan.

Aberastasun asko lapurtu zion Frantzi'k Belxika'ri eta Belxika'ko Elizari. Itxitako lekaidetxe ta konbentuen salketak bakarrik, 500 millo li bera eman zizkion' Frantz 'ra eraman ziran ertipitxiak zenbatu-ezin aiñakoak izan ziran'

Lapurkeri oietaz gaiñera egiazko txolinkeriak egin zituzten irauitzalarien buruzagi batzuek, eliz bat edo beste "Arrazoi Jainkemearen" edo "Izatedun Gurenaren" jauretxe biurtzeaz landa' Ala, bide ertzeta-ko Gurutze ta Santu-irudien porrokatzeak, eta Bruxelles'ko Udaletxearen gaiñean dagoan Mikel Donearen irudia puskatu nai izatea. Doi-doi salbatu aal izan zuan irudigille batek bruxelatarrek ain malte zuten Aingerua, ateraldi parregarri baten bitartez. Donemikel'en irudia As-katasunaren irudi biurtu zuan. Ortarako, Aingeruari gurutzea kendu ta eskuetan Frantzi'ko ikurriña eta buruan iraultzalarien "frixitarren" kapela gorria ipintzea, naikoa izan zuan.

Baiña ez zion orrelako iñautekerizko ziri irigarrien bitartez bakarrik erantzun Belxika'k frantzitarren gogorketari, apaizei Kostituzioari-buruzko zinketa istillugarri ura eskatu zitzaientean, apaiz belxikatarrek, ia danek, ezez erantzun bait zuten' Apaiz auen auzia Bruxelles'ko EpaiBatza-Nagusiaren eskuetan ipiñi zuten iraultzalariek. Frantzitarrentzat siñale bildurgarria izan zan Batza aren epaiketa: Apaizak errugabeak zirala ebatzi bait zuan, Frantzi'ko legeek Belxika'n ere lege izateko arrazoiezko oiñarririk ez zutelako. Aintza ta gorespen epaille aien zintzotasunari eta bildurrik-ezari!

Direktorioaren azkeneko egunetan, "Fructidor" edo "Zitu-Illeko" kolpearen ondorean gogortu zan ostera Elizaren zigorketa. Erregetzari "Haine Eternelle", "Betirako Gorrotoa" izateko zinketak sortu zuan Belxika'n ere, Frantzi'n bezala iskamilla guztia. Apaiz askok ez zuten ziñegiteko eragozpenik ikusi; baiño geienak, ezezkora alderatu ziran' Au izan zan Frantzi'ren erantzuna: Gotzaiak, baita Malinas'ko Von Franckenberg konte goigotzaia ere, erbestera jaurtitzea, eta 600 apaiz Guayana'ra indarrezko lanketara bidaltzea. 600 auetatik 500, erriak garde zituan. 100 izan ziran Guayana'ra eramanak, eta geienak an gai du zuten bizia. Elizetatik landa, baita ziñegindako apaizei ere, apaizta-

sunaren usaia zezakean oro galerazia izan zitzaien. Apaiz-jantziz ibilteza ere bai.

Asarre beltza sortu zuten agindu zipotz auek belxikarren artean. Deus gutxi falta zuan erriak jeikitze baterako, eta jeikitze ori, eragozteko, Direktorioak, munduan aurreneko aldiz, 1798'ko Agorrillean, lege berriz, "la coscription" edo "indarrezko gudaritza" agindu zuan. Altxa zan Belxika gogorkerizko demokrazi frantzitarren aurka' "Guerre des Paysans", "Nekazarien Gudua" deitu zitzaion altzakunde arri.

Odoltsua izan zan Frantzi'ren erantzuna, baiña Napoleon'ek agintaritza artu, ta pakea ezkeiñi zuan arte, ez zan Belx ka baretu. Ezta orduan ere osoro, eta ara zergaitik: "Nekazarien Guduan", al zuten guztia lagundu zioten apaizek matxinoei, eta baita soldaduskatik igesi zebiltzan mutil mordo ugariei ere' 1200'000 soldatu bildu nai izan zituan Frantzi'k, indarrez, bere serbizura, Belxika'ko lurraldeetan!.

Orregaitik, batez ere apaizak zigortu zituan Frantzi'k; 9000'tik gora Apaiz izan ziran Guayana'ra jaurtitzeko izendatuak' Baiña ia danak, berriz ere, erriak berak gorde zituan, eta ez ziran Belxika'tik atera. Bertako agintariak ere, ez ziran ardura geiegi ipintzera ausartu, erriaren erantzunari bildurrez'

Napoleon'ek Konsul izenarekin, jaurlaritza artu zuanean, "Betirako Gorrotoaren" ziña kenduta, —"Kostituzioko legeak onartzeko"—, zinketa berri bat eskatu zien apaizei' Oraingoan, ez zan "Eliz-jendearen Kostituzioa", ziñatu bear zana, Frantzi'ko Errepublikaren Kostituzioa baizik. Ateetatik barrurako elizkizun guztietarako askatasuna ere eman bait zuan Napoleon'ek, agertu ziran atzera izkututako apaizak, eta itzuli ziran erbesterratuak. Baiña sortu zan, baita ere, osterara zinketa egin ote zitekealaren eztabaida. Egon ziran, belxikarrak, Erroma'k esaten zuanaren zai, baiña oraingoan ere Erroma'k ez zuan ezer esan; Atzerrian zeuden Gotzaiek, ez zala ziñ egite ura zillegi jakinñarazi zuten; Apaizen artean, baiezkoaren eta ezezkoaren alderdikoek, gogor eraso zioten alkarri idazkiñoen bitartez. Ezezkoen alderdikoetan garrantzitsuenetakoa Namur'ko Gotzaiaren Ordezkarari Orokorra izan zan: Kornelio Steven. Ain gogorki Aitasantuaren alde ta Iraultzaren aurka jokatu ondoren, miñ aundia eman zien eskubitar odobero auei VII Pio'k 1801'ko konkordatoaren bitartez, Iraultzarekin pakeak egiñ izateak.

Ez zuten konkordatu ura onartu nai izan, eta zismara joan ziran, arrazoi aundirik gabe Namur'ko Ordezkarariaren izena atuaz. "Les Stévenistes", edo "Eztebetarrak", esan zitzaien.

Alemanian ere ez zan egokiegia izan iraultzalari garailleen jardunbidea. Ez, ordea, Belxika'n bezain gogorra. An ere ederki artuak izan ziran Iraultzatik igesi joandako apaizak; batez ere Münster'ko Gotzai Printzipearen Laterrian. Gotzai au, Austri'ko Artxiduke bat zan; Mari Terese'ren semea; Frantzi'ko Mari Antoniete'ren anaia.

Pakeak egitean Prusi menderatuak Frantzi'ren eskuetan laga bear izan zituan Rin ibaiaren onuntzko lurralde guztiak. An ere egiñaraz; nai izan zitzaien apaizei "betirako gorrotoari" buruzko ziña. Alperrik; Apaizek ez zuten erantzun; erriak apaizak gorde zituan; eta errietako agintari alemaniarrek, al zuten guzia erria defendittu zuten, eta Frantzi'ko Jaurlaritzaren aginduei eragozpenak jartzen leiatu ziran' Ez zuan, beraz, katolikotasunak zailtasun aundiegirik Frantzi'pera jausi tako Alemanian'ko lurretan aurkitu'

Gogorragoak izan ziran Itali'ko gertakizunak. Itali'n, Laterri asko ziran orduan' Iparraldean, Saboia'k, Piamonte'k eta Zerdeña'k, Jaurreri bat osatzen zuten: "Zerdeña'ko Jaurrerria"; Aruntzago, Lonbardi'a, Inperatorearena zan; Aruntzago oraindik, Benezi'ko Errepublika zegoan. Egoaldera goazela, Modena'ko dukaterria, Parma ta Plasentzi'k osatzen zuten dukaterria, Luka'ko Errepublika txikia, Toskana'ko Dukaterri Nagusia, eta Elizaren Laterriak, zeuden. Beerago, Napoles eta Sizili'ko Jaurrerriak.

Naiz austritarrak eta errusitarrak, iraultza ondatzearren, Laterri oien alde etorri, danak borrokatu, zapaldu, eta eraberritu zituzten Frantzi'ko iraultzalariek, Napoleon buruzagi gaztea agintari zutela. Aldaketa aundiak egin ziran, politikaren arloan, Laterri italiarretan' Baiña guri erlijioaren arloan egindakoak ajola zaizkigu.

Bere Laterrien askatasuna lortzearren, Pio VI'ak 1797'an Tolentino'ko Pakearen bitartez Eliz-Laterrietako bi, Ferrara eta Boloni, Napoleon'en eskuetan laga bear izan zituan, eta 21 milloi libera eman gainera, eta ertilan pillo aundia. Baiña, ez zuan askatasun osoa ain errez lortuko, Frantziz'ko Jaurlaritzak Iraultzaren aurkako "brebe" guztiak ezezteko eskatzen bait zion, batez ere Kostitutzio-Elizaren aurka idatzia. Eraso zion ostera berriz Napoleon'ek Aitasantuaren gudarozte txikiari, eta oraingoan beste 15 milloi libera eta iparralde osoa eman bear izan zituan Pio VI'ak'

Napoleone'k austritarrei kendutako Lonbardi'arekin, Parmata Plasentzi ta Modena'ko Dukaterri izandakoekin eta Aitasantuari artutako iru Laterriekin "Errepublika Zisalpinarra" osatu zuan: Frantzi'ren esanera egon bear zuan, itxurautsezko Laterri iarea'

Frantzi'ko gudariak Erroman' gelditu ziran' Ala ere, ez bait zituan

Aitasantuaren Laterri guztiak frantzitar egin, eta Aitasantua oraindik Errege iare laga bait zuan, Napoleon'en jokaera ez zan Frantzi'ko agintari guztien gustokoa izan' Baiña Napoleon'ek ez zeukan presarik. Bazekian Erroma artzeko garaia etorriko zala, baiña Erroma artze ori eta Aitasantuari erregetza kentzea ez zuan berak bere eskuz egin nai, ordurako Napoleon aunditasunetan pentsatzen asia bait zan, eta bere buruaren aunditasuna lortzeko ez bait zitzaion katolikoen areriotasunik konbeni'

Pio VI'ak, orain, iraultzalariak gaiñean zituanean, "Pastoralis sollicitudo" izeneko idazki baten bidez, Frantzi'ko katolikoei Errepublikara ontzat artzeko agindu ere egin zien. Beranduegi, noski, Frantzi'ko erkalazaleentzat, Pio VIS., Europa'ko Errege guztiak Mosku'tik Madrid'era eta Londres'tik Napoles'era, Frantzi'ren aurkako gudara deitu zituan Etsai Nagusia besterik ez bait zan.

Aitasantuari, Frantzitarren aurka azpilanean ari zala, aurpegira bota oi zaio; Napoles'ko Erregearekin eta Inperatorearekin isillezko mintzaketan zebillela, eta orregaitik eraso ziola Napoleon'ek' Egia da; eta ez zan koxkorra izan isillezko ariketa aien berri jakin Napoleon'ek zuanean sentittu zuan amorrua. Baiña diplomazizko ariketa aiekin, bere erria defendittu besterik ez zuan egiten Pio VI'ak, bere Laterrieta-ko jendeak, geienak, ia danak, frantzitarren menpean erortzearen etsai bait ziran'

Ikusten zuan ori Napoleon'ek, eta zugaruki jokatu zuan era erreza-go eta garaia egokiago baten zai.

Baita etorri ere, laister etorri zitzaion kolpe ura emateko garaia.

Itali'ko beste errietara bezala Erroma'ra Iraultzaren gogabideak lenago iritxi ziran izkilluak baiño eta gogabide aiek bazituzten onartzailleak, burgesiaren artean eta baita elizgizon batzuen artean ere.

Iraultzaren gogabideetaz landa, naikoa zabaldurik zeuden Itali guztian jantsenikeri eta onek aizatutako gotzaikeria. Gotzai askok esan zuten' agirian, Frantzi'ko "Eliz-jendearen Kontitutio Zibilla" onde iduritzen zitzaiela. Baziran, jurisdizioari buruz, Gotzaien agintaritza iarean oiñarritutako Eliz bat ber-eratu bear zala ziotenak ere. Aita santuari, gai ortan, omenezko lendakaritza bakarrik ematen zioten. Pistoia'ko Sinodoa ez zan gertakizun bakartia izan.

Esan dugun bezala, erria, une aietan, frantzitarren aurka zegoan Elizaren Laterrietan. "Gora Kepa Deuna", maiz entzuten zan oiva zan. Baiña baziran, orduan ere, Aitasantuen gobernuzarekin konforme ez zeuden jendeak. Burgeskumeak geienak, Eliz-Gizon garai batzuek, eta

Santacroce printzipea bezalako aristokrazikumeren bat' Printzipe onen ama, Erroma'n Frantzi'ko enbaxadari ezagutu dugun Bernis Kardenalaren adiskide aundia izan zan. Bazuan Printzipeak Kardenalen aurka egoteko arrazoirik naiko'

Orain, gudari frantzitarrak Erroma'n zeudenean, azi egin zan Aitasantu-Erregearen etsai ziran jende aien ausardia. Egun batean, ixkamilla txiki bat sortu zuan mota ontako jende talde batek Aitasantuaren ertzaiñekin, eta ixkamilla ortan, Frantzi'ko gudarien buruzagia il zan. Aitasantuarekin alkarrizketarik asi ere egin gabe, oni deus esan eta egiteko denborik eman gabe, gudarozte bat bidali zuan Frantzi'k Aitasantuaren erregetza desegiteko. Berthier izan zan godarozte orren agintaria.

Napoleon'en asmoak ederki ari ziran betetzen' Berthier'ek aitasantuen jaurerria "Errepublikak Erromatarra" biurtzen zuan artean, Napoleon Itali'ko Iparrean elizgizon garaiekin artuemanetan ari zan, bera Aitasantuaren etsai eta katolikotasunaren arerio ez zala esanaz.

Erroma'ko Jauntxoek berak eskatu zioten Berthier buruzagiari Errepublikaren ezarketa, "Aitasantuak animen barrutian berez dituan Eskubideak zalantzan jartzen ez zirala", eta Errepublikaren Buru izan ziran zazpi Kontsulek, "Aitasantuaren izenean" aginduko zutela adieraziaz' Erri biurriak aurrea artuko ote zien bildurrak eraman zituan Erroma'ko Jauntxoak artara.

Berthier begirunezko gizona izan zan VI Pio zaarraren aurrean. Ez ala, aren ondorean agintaritzak artu zuan Massena, eta onen ondoan zeuden Direktorioaren bi "Commissaires", "Komisario" edo "Ordez-kariak". Gaur Laterri Komunisten gudarozteetan ikusten ditugun "Komisario Politikazaiñak", Frantzi'ko Iraultzaren sorketa bait dira. Erroma'n "Ordez-kari" aiek Bassa eta Haller izan ziran, azkeneko au Zurich'eko lutertarra, izen bereko izadiztilari ospetsuaren semea.

Haller izan zan Pio VI'ari agintaritzak lagatzeko eskatu ziona, eta, ark, ezetz erantzun ziolako, Erroma'tik katigu atera bear zuala esan ziona. Lotsagabekeririk aundienarekin guztia; Aitasantuari beaztetik eraztuna indarrez kendu ere egin bait zion! Eta VI Pio zaarrak Erroma'n iltzea eskatu zuanean, "edozein tokitan berdin iltzen zala", iardetsi ziona'

Direktorioaren aurreneko asmoa Aitasantua Toskana'ko lekaidetxe batean gordetzea izan zan, ez bait ziran, esan oi danez, Taileyrand'ek eman zuan aolkua jarraitzera ausartu. Ona zer nai zuan gotzai izandako gizakume nardagarri arek. Aurrena, Aitasantua onde gorde, eta gero, mundu guziari, Aitasantua il zala jakiñarazi; Kardenalei Aita-

santu berri bat aukeratuarazi, eta orduan, Aitasantu zarra atera izkutu-
tik agerira' Egia ote, ori nai izan zuala?

Ez zuan Napoleon'ek bere asarrealdirik beroenean orren purtzii-
keri aundirik pentsatu, baiña ez zan urruti ibilli, auxe agindu bait zion
Erroma'n Frantzi'ren Ordezkarri zegoan Jose bere anaiari: IV Pio iltzen
zanean, beste Aitasantu baten autaketa eragozteko, eta une artan
Frantzi'koa bezalako Iraultza bat Erroma'n sortarazteko.

Laister ikaratu zan Direktorioa Aitasantuaren katigutzak Itali guz-
tian sortu zuan urduritasunaz jabetzean, jende sail aundiak joan bait
ziran mendietara izkilluz frantzitarrei erasotzera. Izkillulari auen buru-
zagi ospetsuenen, artean izan zan eliz-gizon bat baiño geiago: Tiburzi
artziprestea, Bataglia apaiza, Manzinotti ta Romanello frantziskota-
rrak... Izan ziran betidaniko gaizkilleak ere' Bat "Fra Diavolo",
Napolen-Jaurerriko mendietan lapur bildurgarria, Drain Elizaren eta
Erregetzaren eusle ta babesle biurtua'

Aitasantua, zalpaldi batean, Frantzi'ra eramane zuten frantzita-
rrek. Bide txar eta zailietatik eramane ere. itali'n zebiltzan Austri'ko eta
Errusi'ko gudarozteen ustegabeko ekinaldi batean Aitasantua iare
gelditu zitekealaren bildurra bait zuten.

Ibillaldi luze onetan, iraultzalariek ez ezè, Aitasantuarekin zijoaz-
ten apaizak eta Pio Via bera ere, erriak Aitasantuari zion maitasunez
arriturik gelditu ziran' Bazter guztietatik zetorren jendean, bide ertze-
tan belauneko Aitasanturen onespina eskatzera. Bidearen zailtasu-
nik gogorreanean, Gap erritxoan gelditu zan Aitasantu nekatua, alditxo
batean, atsedean artzera' An etorri zitzaion bertako apaiz "ziñegiña",
belauneko barkamena eskatzera'

Ez zegoan urruti, katolikotasunaren indarrez eta Aitasantutzaren
aunditasunaz ederki oartu zan begi luzeko eta aundinari marduleko
gudari erne bat: Napoleon Bonaparte.

Aitasantua Valence'n, Frantzi'ko Balentzia'n, itxi zuten, eta an il
zan "ignosce illis", "Barkatu eiezu", esanaz'

Illen liburuan onela ezarri zuan Aitasantuaren eriotza, uriko eskri-
bauak: "Fructidor'eko 12'an; VIII urtean, —(1799'ko Dagonillaren 29)
Décès'.. du dit Jean Ange Braschi, exerçant la profession de pontife";
"izenez Yon Gotzon Braschi, ofizioz aitasantu, izandakoaren... erri-
otza".)

Une artan, Direktorioa osatzen zutenak auetxek ziran: Barras,
Sieyès, Talleyran, Roger Ducos, eta Moulin. Pio VI'aren eriotzaren be-
rri ekarri zien mezulariak, itz auekin eman zien albistea: "il da... Pio

VI'a eta azkenekoa". Ez zuan arek uste, beste Aitasanturik izango zani. Ortaraiño iritxi zan Elizari zitzaion gorrotoa. Noren erruz? Ez bait zuten bazter guztietan iraultzariak eta katolikoak ain gaizki alkar aditu. Ikus ditzagun Olanda'ko gertakizunak.

Biziro aberatsa ta indartsua zan, orduantxe, zazpi probintziek osatzen zuten Laterri txikia' Beste errialde guztien aintzinean egon zan, jakintzen arloan, Argikuntza-aro guztian. Yayoak eta argiak ziran bere burgesitarrak, eta bildurgarriak mundu guztian bere itxas-ontziak. Kalbintasuna ez zan beiñere Laterriaren erlijio izatera iritxi, ez zuten, bada, burgesitarrek askatasunik galdu nai, eta orregaitik, Olanda'k ez zuan egiazko "Laterri-Eliz" bat ezagutu. Argatik izan zan an, iñon baiñl() aundiagoa gogoeta guztientzako iaretasuna. Olanda'n argitaratzen ziran beste iñon argitaratu ez zitezkean idatziak, eta Olanda'tik zabaltzen ziran Europa'ra.

Katolikotasunak bakarrik ez zuan, askatasun ooren babestoki zan Olanda'n, askatasun osorik. Iare zuten Katolikoek beren sinispidea jarraitzea ta elizkizunak egitea, baiña zerga bereziak ordaintzera beartuak zeuden, eta Laterriaren karguetan parte artzeko eskubiderik ez zuten. Elizetatik landako erlijio-ekintza ere debekatua zeukaten, eta elizek ere kanpotik eliz-antzarik gabeko etxeak izan bear zuten. Katoliko aiek ez zuten konbenturik ere, eta ez zitzaien Olanda barruan gotzairik izatea zillegi. Ta ori, Olanda'ko katolikoak asko zirala, % 40 baiño geiago' la biztanleen erdia. "Beeko Lurraldeetako Probintzi Alkartuak" zan Laterriaren izena, eta Laterriaren politika-era Aristokrazia zan, Kostituzioak berak agintaritzta sendi talde baten eskuetan ipintzen bait zuan. Iraultzaren aroan, Aristokrazia ori, geienki, usteldurik zegoan, egiazko Oligarki biurtua.

Laterri-Buru edo "Statuder", Orange-Nassau'ko Gillermo V'a zan orduan.

Eliza katolikoaren eraketari dagokionez, mixio-lur zan Olanda eta "Propaganda Fide"ren menpean zegoan.

Sustrai aundiak zeuzkan ordea Argikuntzak Olanda'n boteak, sortu ere antxe, Olanda'n, eta Inghlanderrian sortu bait zitzaigun Argikuntza XVII mendean'

Argikuntzak gozatu zuan Olanda'n kalbindar estuen protestalari tzak gogortu eta zipoztutako giroa. Ala, XVIII mendearen amaierako asko ziran an, kalbindarren artean ere, "danentzat askatasun eta eskubide berdiñen" alderdikoak. Frantzi'ko iraultzalarien erak nazkatzten ba'zitian ere, atsegin zitzaizkien aien gogoetak; aienak, eta bat ez ere iparramerikatarrenak, ez bait zuten Laterri Alkartuen eratzaiz

Ileek beren Kostituzioa egiterakoan Olanda'ko Probintzi Alkartuena alperrik aipatu!

Olanda'n, danentzako askatasun eta eskubide berdiñak eskatzen zituzten "argituek" "abertzale" esan oi zieten beren buruei' Alderdi ortakoak ziran ango katolikoak.

Eta azkenean, Argikuntzak eman zien Olanda'ko katolikoei, Frantzi'ko iraultzalarien gudaroztearen laguntzarekin, askatasun osoa.

Frantzi'koaren antzeko Errepublika bat ezarri zuten iraultzalari frantziarrek Olanda'n: "La République Batave". Errepublika orren aldekoak izan ziran bertako katoliko danak, eta baita apaizak ere, naiz jokabide orrek Bruxellas'en bizi zan Olanda'rako Aitasantuaren Ordezkaria asarreturik eta arriturik utzi.

Ordezkarri ark Zesar Brancadoro zeritzan, eta egin zituan aal izan zituan saiaketa guztiak Olanda'ko katoliko eta apaiz aiek iraultzalarien aurka ipintzeko, ortarako eskutitz pastoral irmoak idatziaz' Bazi zun pastoral oiek idazteko eskubidea, bera bait zan "Propaganda Fide'ren" izenean Olanda'ko mixio guztien buru.

Olanda'ko apaizek ordea ez zuten pastoral aietako bat irakurri ere izan nai, eta gustora egin zuten iraultzalariak eskatzen zieten zinketa: Statudertza betirako gorrotatzeko eta Errepublika Batabitarren esanera egoteko zinketa'

Erroma'ko Kurian ez ziran olandatar katolikoek jokaera ulertzeko gauza izan, baiña ez zan iñor, an, aien aurka ezer egitera ausartu. Ezta, olandarrek eskatzen zuten bezala, Olanda'rako Gotzai bat izendatzera ere.

Zerga bereizirik ordaindu bearrik gabe, politikagintzarako eta politikazko edozein kargu artu aal izateko eskubide guztien jabe, askatasun betean, iñongo eta iñolako eragozpenik txikienarik ere gabe, pake-giro osoan, pozik zeuden katolikoak, eta bizkor azi eta indartu zan Olanda'ko katolikotasuna, Frantzi'ko iraultzalariak an sortu zituzkieten baldintza onurakorretan'

Beste lurraldeetan ere, eta Frantzi'an bertan, ez ote zan ori bera gertatuko, katolikoak eta apaizak lurralde aietan ain erregezale agertu ez balira?

NAPOLEON

lñoiz izan bada munduan bere doai guztiak alperrik galdu dituan gizonik, gizon ori Napoleon izan da' Eta bazuan doai ederrik asko, gizakume arroxko onek. Korsika edo Kortzegaren jaio zan Napolione, Karlos Buonaparte eta Letizia Ramolino'ren bigarren semea, 1769'garenean. Ondo italiarra zan beraz, Frantzi'ko Nagusi berria: Napoleone Buonaparte Ramolino.

Ain zuzen Jenoba'ko Errepublikari erosi berria zion, Frantzi'k, Kortzegaren ugartea; eta Frantzi'ren aurka altxata' Napolione'n aita Karlos, eta ama Letizia ere, abertzaleen alderdian mendietan gudan zebiltzan ura jaio zanean. Emezortzi urte zituan orduan Letizia'k, amalau zituala ezkondu bait zan, garai aietan Itali'n oitura zan bezala' Napolione'ren anaitxo zarragoak Jose zuan izena. Au izango da España'ko Jose I Erregea.

Edestilari guztiek diote emakume gazte eder, polit, tiraila zala Letizia. Baita kristaua zala ere, naiz bere kristautasuna oso landua izan ez. Bizi guztian eraman zituan bular-gaiñean eskapularioa eta gurutzea'

Seme Napolione, naiz jenioz amaren itxurakoa izan, erlijioz aita Karlos'en antzekoa irten zan: sinismen-gabea; geien-geienaz, azal utsezko deista motel bat; eta deista baiño geiago, —kortzegatarra izaki— fatalista, "adur" onean edo txarrean sinisten zuan gizona, beti siñale egoki edo siñale okerrei begira zegoana' Gorde zuan bere bizi guztian italiarren beste xinixkerizko oituratxo bat ere: zerbaitek uste gabeen arrapatzen zanean "Giesu, Giesu" esanaz bular gaiñean bi gurutz arin egiteko oitura. Orixe izan zan Napoleon'en erlijio guztia' Ama Letizia'k, bere senarra frantzitarren aurka matxinoen artean mai karretan zebilela ez zuan noski bere semeen eziketarako astirik geigi izan.

Matxino abertzaleak, azkenean menderatuak izan ziran. Karlos aita, askatasun-itxaropen oro galduta, Frantzi'ren serbitzura jarri zan. Brienne'ko Guda-Ikastolan sartu zuan bigarren semea. Laister aldatu zituan onek Napolione izena eta Buonaparte abizena' "Napoleon" eta

"Bonaparte" itzek frantzitar itxura gelago zuten, eta frantzitarra izan nai zuan gudari kortzegatar abertzalearen semeak: Napoleon Bonaparte'k. Oññarri txikia bait zan Kortzega aren aundikerizko ametsentzako. Frantzi'tik bai, Frantzi'tik menderatu zezakean mundu guzia.

Bere burua beste Jainkorik ez zeuan sekulan Napoleon'ek izan' Bere buruaren serbitzura ipiñi nai izan zuan oro: Iraultza aurrena, Frantzi osoa gero, Eliza geroago, eta azkenean Ludi osoa. Ingländerrriak eragotzi zion bere azkeneko asmo au. Entzun, esan dugunaren adigarritzat, Napoleon berak Atlantika'ren erdian katigu zegoalarik esan zituan itz auk: "Aitasantuaren naimenaren jabe, modu batera edo bestera, azkarrago edo beranduago, baiñan azkenean aren naimenaren egiazko jabe egingo nintzalaren itxaropena eta ustea ez nintuan sekulan galdu. Eta ori lortzen banuan, al nolako esku luzea nere mundu guztiko gogabideak antolatzeke!, nolako tresna nere eskuetan Aitasantua"! (... "quelle influence, que levier d'opinion sur le reste du monde"!).

Napoleon'en igoketa, azkarra izan zan, Tolon'en inglandarren aurka bere burua aipagarri egin zuanez gero. Konbentzioaren alderdi koa zan, jakobatarra, eta doidoi salbatu zan espetxetik, —edo gillotinatik,— Robespierre erori zanean. Direktorioaren denboran, Barras direktoreak, 1795'ean kortzegatar buruzagi gazte oni eman zion Paris'. eko matxinada zapaltzeko eginkizuna. Napoleon'ek atera zuan bizirik Errepublikak, egun aietan' Ez diote ori borboitarrek iñoiz ere barkatu. Ogei ta sei urteko mutilla zan orduan Napoleon.

1796'ean, Barras'en eskuetatik artu zuan emazte Josefina Tascher de la Pagerie, Antilletan jaiotako alargun gaztea. Guillotinan il zan andre onen senarra 1794'ean, Konbentzioa agintari zala. Gizon aren abizena eraman zuan beti, berea lez, Josefina'k: Beauharnais, eta eriotzatik urbil ibilli zan bera ere senarra il ziotenean, Tallien'ek atera bait zuan espetxetik Robespierre jaurlaritzatik jaurtita-gero.

Ezkonduta bi egun geroago, eztaiak amaitzeko astirik gabe irten zan Napoleon Paris'tik, Direktorioak Itali'ko gudaroztearen agintaritzak eman ziolako. Gurendaz-gurenda, Campo Formio'ko eta Tolentino'ko Pakeen bitartez amaitu zituan Itali'ko borrokak. Aurreneko pakearen bidez, II Frantzisko Inperatorea makurtuarazi zuan; bigarrenaren bidez, VI Pio Aitasantua'

Bazuan Napoleon'ek, munduan iñork izan ba'du, borrokak errez irabazteko gaitasun bizkorra. Baiña borrokak irabaztekoa bakarrik; ez bait zuan sekulan, Pitt Ingländerrriko Lenen Ministroaren antzera, luzarorako jokabide egoki zuzenik eratzeko gaitasunik izan. Ala gertatu

ziran alperrikakoak azkenean, Kadiz eta Lisboa'tik Akre ta Mosku'ra-
ño ain modu arrigarrian lortu zituan garaitza mardul guztiak, ondame-
nik negargarrienean amaitu bait ziran danak. Millaka eta millaka giza-
semeei alper-alperrik galduarazi zien bizia!

Politikari bezala ere baldarra izan zan. Ortan, gaiñera, aundi-
tasun-galeak eta berekoikeriak itxuturik ibilli zan naizenik. Orregaitik,
Napoleon'en ekintzak Frantzi'ri eta Europa'ko Erri guztiei, eriotza,
odola, ondamena, eta negarra ta oiñazea besterik ez zien ekarri. Dizdi-
ratsua izan zan baike Napoleon'en bizitza, baiña oiñaztarriaren dizdira
izan zan berea: kaltegarria'

Alper-alperrikakoa irten zan Ejito'ko gudan ixuriaz zuan odola
ere. Itali'n garaille irten zalarik, Ejito'ra joan zan 1798'an' Bidez, artu
zuan Lekaide Gudari Donibanetarrena zan Malta ugarte, garaitu zi-
tuan gero Piramideetako borrokaldian Ejito'ko mamelutarrak, garaitu
zituan baita turkitarrak ere Abukir'ko borroketan, baiña naiz Siri'an
sartu, ez zan Sir Sidney Smith'en eskuetatik Akra uria artzeko gauza
izan, eta Nilo'ko borrokan Nelson'ek osoro zapaldu zuan. Inghanderria
gelditu zan Ejito'n garaille. Eta Inghanderriak jarraituko du garaille
aurrerantzean ere; naiz, itxuraz, gurenda gurendari alkartuaz, Euro-
pa'ko jabea Napoleon izan, itxasoan nagusi Inghanderria zalarik, nai-
tanaiez gaidurik bait zegoan Frantzi'a. Au izan zan Napoleon'en beste
akatsik aundienetakoa: itsasoko gudateari garrantzirik ez ematea.
Akats aundia guda-buruzagi batentzat'

Gaiñera, Ejito'ko guduak Frantzi'ko gudaroztea alper-alperrik
Europa'ko tokirik ariskugarrienetatik urundu baizik ez zuan egiten'
Orrela artu aal izan zuten ostera, austriarrek eta errusitarrek baturik,
Itali guztia' Orregaitik itzuli bear izan zuan Bonaparte'k laisterka
Frantzi'ra 1799'an. Ejito'n zer irabazita?. Ezerrez: aintza, gudarientzat,
Piramideetako borroka astean bezala. esari borobillak zuzentzeko
adiontasuna eta... deusez geiago'

Errez asmatu ta jaurtitzen zituan Napoleon'ek esaera bortitz do-
toreak. Ez zituan noski alperrik, ain gustora, Rousseau'ren idazkiak
irakurri. Izango ditu izketakdi pertxentak elizgizonentzat ere, garaia
iristen zaionean.

Frantzi'ra itzuli zanean Direktorioaren barruan pretatutako iraul-
tza bat aurkitu zuan: "Brumaire" edo "Laiño-illeko" Kolpea. "Direkto-
reetako" batek eratu zuan Kolpe ori: Sieyès apaiz izanak, eta Napo-
leon'en irugarren anaiak, Luzian'ek aurrera atera, Direktorio'ko Legee-
gillen Batzarraren Lendakari, ots, "Bosteunen Batzarraren" Lendakari
bait zan Luzian au. Direktorioa desegiña izan zan eta bere orde

"Kontsuladua" zeritzan "iru-gizonen-lendakar tza" bat izan zan Late-riaren Burutzat ipiñia. Iru Kontsul aien artean Napoleon irten zan "Kontsul Nagusi" izendatua. Sieyès apaizak tajutu zuan Kostituzio berria.

"Brumaireko Kolpea", 1799'ko Azaroaren 9'an izan zan. Arrezkero Napoleon izanen dugu Frantzi'aren Jaun eta Jabe.

Urrengo urtean, 1800'ean Marengo'ko garaitza ospetsuak, ostera Itali'ren Nagusi egin zuan Bonaparte, eta baita Europa guztiarena ere. Ta Napoleon'en nagusitza Frantzi'aren nagusitza bait zan, laister irabazi zituan Napoleon'ek frantziarren biotzak:

Baiña bazekian berak Frantzi'ko Agintari, pakean, izateko, naita-naiez katolikoekin pakeak egin bear zituala. Asmo orretan amaitu zuan Vandée'ko gudatea probintzi artako katolikoei askatasun osoa emanaz' Apaiz bat, Vandeetarren artean Errepublikaren aurka ibillita-ko apaiz bat, Bernier, izan zuan pake-egite ortan laguntzaliarik onena' Ondo ordainduko zion Napoleon'ek, arek egin zion mesedea.

"Ma politique est de gouverner les hommes comme le grand bre-veut l'être. C'est en me faisant catholique que j'ai fini la guerre en Vandée, en me faisant musulman que je me suis établi en Egypte, en me faisant ultramontain que j'ai gagné les esprits en Italie. Si je gou-vernais un peuple de Juifs, je rétablirais le temple de Salomon".

"Jenderik geienak nai duan erara erriak gobernatzea da nere poli-tika' Vandée'ko gudua amaitzeko, katoliko egin nintzan; Ejito'n oiñak ezartzeko, musulman; italiarren gogo ona irabazteko, erromazale' Ju-dutarren Jaurleri banintz Salomon'en Jauretxea bir-eraikiko nuke".

Egia da Napoleon, —bere maixu Rousseau eta bere lagun Robes-pierre bezala—, ateismoaren etsai zala, baiña ez, aiek bezala, Jainkoa sinisten zualako, ateismoa gizabide ororen etsai eta, batez ere, Late-riren politikazko bizitzaren eraille zala uste zualako, "Destructeur de toute morale", "moralitate ororen ondatzaille", deitzen zion ateis-moari. "Il n'y a que la religion qui donne a l'Etat son appui firme et du-rable", ("Erlijioa bakarrik da Laterriaren oiñarri sendo eta iraun-korra"), esan oi zuan. Eta, "erlijiorik gabeko gizarte bat, eta lemarik gabeko ontzi bat, biak antzekoak dirala": ("Una société sans religion est comme vaisseau sans boussole"). Bazuan ori sinisteko parregarri dirudian arrazoi bereizi bat' Ez amen daiteke aberastasunezko ezber-dintasunik gabe gizarterik izan, eta ezta aberastasunezko ezberdinta-sunik erlijiorik gabe ere: "La société ne peut exister sans l'inégalité des fortunes, et l'inégalité des fortunes sans la religion", iErlijioa aberatsen eta pobreen arteko diferentzien egille."! i Pozik artuko zuan

beretzako, Karlos Marx'ek esakizun ori...!

Badu beste zerbaite oargarri Napoleon'en esakizun orrek. Bear-bearrezkoa dala dio aberastasunen arloan ezberdintasuna, gizarteak gizarte bezala bizi aal izateko. Ori bera pentsatzen zuten Mirabeau, La Fayette, Robespierre, Tallien, Barras eta beste iraultzalari guztiek, Frantzi'ko Iraultza Nagusia burgesitarrek Aristokraziaren aurka egin-dako iraultza besterik ez bait genduan izan. Askatasuna ta anaitasunarekin batera BERDINTASUNA, "égalité", eskatzen zuten aiek, baiña berdintasun ori, legearen aurrerako guztien berdintasuna besterik ez zan. Berdintasun ori mamitu zuan bere Legedian Napoleon'ek.

Aristokraziak zituan abantail eta bentaja geiegizko guztiak deuseztuta, gizakume danak Laterriko legearen aurrean berdiñak egitea, ez zan nolanaiko irabazketa gizadiarentzat, eta irabazi orrengaitik mezezi ditu gure eskerrik beroenak Ameriketara sortuta, Europa'ra igaro zan Iraultzak' Baiña aberastasunen ezberdintasun iguingarria berdiñagotzerik ez zuten iñoiz iraultzalari aiek pentsatu. Osoki bestelakoa izan zan gai ontan Iraultzaren ondorioa: Liberalak bait ziran aiek, ekonomiara ekarri zuten askatasun orokorraren erruz lèn baiño aundia-goak egin ziran aberatsen eta landerren arteko ezberdintasunak. Orre-gaitik, liberalen Iraultza beste iraultza baten sorburu izanen da: anarkiste ta sozialisteen, ekonomiari-buruzko, Iraultzaren sorburua.

Legeari-buruzko berdintasunez landa beste zerbaite ere ekarri zion "Le Code Napoleonique" edo "Napoleonen Legediak" Frantzi'ri: militar arek ain biotzez maite zuan "l'ordre social": 'erriko pakea".

Eta bere ustez nai ta naiezkoa zuan ortarako ere erlijioa, "Jainkoa sinesten ez zuten jendeak ez zitezkeala gobernatu, eta naita naiez tiroka ezibearrak" zirala, —"on les mitraille"—, esaten bait zuan. Pake ori lortzeko, berriz, katolikotasuna iruditzen zitzaion erlijiorik egokiena. Entzun'zaiozu: "Dans la religion, je ne vois pas le mystère de l'Incarnation mais le mystère de l'ordre social".

Napoleon'ek eraman zuan, milia aldiz garaille, Frantzi'ko ikurriña Europa'ko bazter guztietara, ta ori biziro atsegiña izan zitzaien frantzi-tarrei. Egia zan Napoleon'ek Austerlitz'en eta beste ainbat tokitan irabazten zuan bitartean, Ameriketara Haiti galtzen zuala, eta Luisiana 15.000.000 dolarren truke Laterri Alkartuei saldu bearrean aurkitzen zala; Europa'n bertan, armetan jeikita, inglandarren laguntzarekin Jaurerri lare egin zitzaion bere Kortzega armen bidez menderatu bear izan zuala, eta Inghlanderrria ere garaitza-garaitza zijoala, Malta artu ondorean, Finisterre'n Calderre'n bitartez eta Trafalgar'en Nelson'en bidez Frantzi'ko itxas-ontzidia eta Espaiña'koa apurtuaz'

Egia zan laister Wellington Portugal'en zala; eta Bimiero, Busaco, Talavera, Fuentes de Oñoro, Alba de Tormes, Ciudad Rodrigo, eta Gazteiz-barrena, borroka guztiak irabaziaz, garaille eraman zituala bere indarrak Waterloo'raño' Egia zam guztiro ondatua uzten zuala Napoleon'ek Frantzi'a, Baiña..., Frantziarren abertzalekeriz, gurendak bakarrik, naiz gurenda aiek odolez eta diruz ain garestiak eta, gaiñera, guztiro alperrikakoak izan, gurenda dizdiratsu aiek bakarrik oroitzen ziztuan Frantzi'ko erri abertzalekerizaleak Napoleon il zanean, eta mitologiako erdijainko txiki bat biurtu zuan bereala gurenda aien egillea' Orduan, katolikoak ere, Napoleon santutu naiéan bezala asi ziran. Ez dugu guk ere ukatuko Napoleon'ek Frantzi'n baretasuna egin zuala: eta Elizari pakea ekarri ziola; ez da gutxi!

Direktorioaren aroa, len ustela eta moldakaitza izan zan. Pol ti kazko eskiertasunik gabea; lujo aundikoa, "Ontasun Beltzak" merke erosi azaberastu ziran aundiki berriak oparo gastatzen bait zuten di rua; lizunkerizko aroa, Paris'ko anderetxo aberastu-berri liraiñak, soin-gaiñean laiñoantzeko oial xare-xare bat besterik gabe, Tullerietan egurasten ziran aroa.

Erljio gaiean, oartu zan Direktorioa katolikotasunaren aurka jarraitzearekin ez zuala deus irabazten eta laga zion Elizari pakerik aski. Bereala itzuli ziran Frantzi'ra, aldeginda zeuden apaizak' 1796'ean, auetako 20.000 osteraz Frantzi'n ziran. Direktorioaren errurik aundiena, Pio VI Aitasantuari egindako iraiña izan zan.

Napoleon'ek, egia da au, konpondu zituan Frantzi eta Aitasan tuaren arteko eztabaidak, konkordato baten bitartez, baiña Napoleon ez zan katolikoa izan. Amairu urte zituanean galdu zuala fedea, dio berak; abertzaletasuna galdu zuanean ain zuzen' Ordurarte Kortzega'ren askatasunaren aldekoa izan bait zan. "Frantzitarrok lau, baten aurka, izan baziñaten ez zenuten iñoiz Kortzega'rik artuko; Baten aurka amar ziñatelako artu aal izan zenuten", jardetsi zien, arrapaketa ura zala-ta, arrosko iseka zegiote ikastola-lagunei.

Gerontzean ez du Napoleon'ek, ez erlijiorik, ez aberrik izango' Bere burua, naiko Aberri eta naiko Erljio zuan. "Zakur bat edo urde bat beren bazka jaten ikusten ditudanean, auxe esan oi diot nere buruari: oiek eta nik urdailla badugun bezala, nik animarik baldin ba'dut, badute oiek ere nerea bezelako anima. "Tout est matière. Dan guztia gorpuzki utsa da", arronka egin oi zuan' Eta, "Nere ustez. eguzkiaren beroak, loiean ariaz, sortu du gizakumea". Orregaitik, Aitasantuaren antzera Kristo egiaz sinisten zuan gizonik izan zitekeala pentsatze utsak ere arritu egiten zuan. Sant'Elena'ko ugartean zegoala, il baiño

illabete l nago, bere azkeneko garaia urbiltzen zitzaiola oartzean, ona zer esan zion Bertrand'i: "Je suis bien heureux de n'avoir point de religion; c'et une grande consolation: je n'ai point de crantes chimeriques, je ne crains rien de l'avenir"; ("Zorionekoa ni erlijiorik ez dudaia-ko' Benetan zait, auxe, pozgarria; orrela, ametsezko bildurkeri orotik iare bait naiz. Ez diot etorkizunari batere bildurrik").

Ez zan noski ain aundia Napoleon'en lasaitasuna eriotzaren aurrean; beste auxe bait dasaigu bere testamentuan: "Apostoluen erlijio erromatarrean amaitzen dut bizia; erlijio ortan jaio nintzan orain dala berrogei ta amar urte luze" Zintzo mintzatu zan askeneko orduan: "Erljio ortan jaio nintzan"; "erlijio ortan iltzen naiz". Ez dio, —ez zan egia izango•ta—, "erlijio ortan bizi izan naiz"; bizi, jainkogabekeria bizitu bait zan beti.

Itxurak, bai; ederki bete zituan erlijioaren itxurak, bein Frantzi'ko Laterriaren buru izatera iritxi zanez gero. Igandero joaten zan mezara. Sakramentuaren bitartez sagaratuarazi zituan anaiarreben ezkontzak. Bera..., nai gabe urbildu zan ezkontzako sakramentura, ikusiko dugun bezala. Bai a bigarren ezkontza, bai, Elizaren araura egin nai izan zuan' Ez noski Elizaren legeengaitik ajolarik ziolako; ezta ere apaizen adiskide zalako. Frantzi katolikoa zalako baizik.

Apaizengaitik, "maltzurkeria ta gezurra besterik ez zutela i oiz bazter guztietan zabaldu" esaten zuan. Ma ere, ondo zekian berak apaizen bearrean aurkitzen zala, erri katoliko bat gobernatzeko' "Il faut  tre ma tre des pr tres' Il faut les tenir par l'int r t, il faut qu'ils soient pay s par l'Etat": ("Apaizen nagusi izan bear dugu. Sakeletik eldu bear zaie apaizei. Orregaitik, Laterritik kobratu bear dute")'

Frantziko Eliza bereganatzeko, ordea, Aitasantuarekin egin bear zituan aurrena pakeak. Ontan Direktorioak bai o begi zorrotzagoa izan zuan eta laister oartu zan Konstituzio-Elizaren balio-ezaz' "Badut itxaropen sendo bat —esan zien Milan'go elizgizonen Aitasantuarekin topo-egitea lortzen badut, Kristaudiaren Buruari eta Frantzi'ari alkar-artzea eragozten dieten korapillo guztiak askatzeko zoria izango dudalaren itxaropen bortitza"!

Napoleon'ek berak bildu zituan Milan-Lurreko elizgizonak, bere politika-bideak Milan'go Elizaren bitartez Eliza osoari adierazteko' 1800'ean garagarriaren 5'a zan' Sartu berria zan Milan'en, etsaiak menderatuta, Napoleon gaztea garaille. Arriturik entzun zioten elizgizon aiek Iraultzaren Buruzagi Nagusiari Katolikotasunaren aintza betea zan itzaldia' Ez zuten, noski, orrelako gauzarik itxaro. "Nik deitu zaituztek; eta deitu ere, katolikotasunariburuz nere sentimentuak no-

lakoak diran adieraztearren, deitu zaituztet. Almen oro nere eskuetan dago orain Frantzian; eta katolikotasunari pakea eta eskiertasuna emateko asmo sendoa arturik daukat, eta ori lortzeko eman bear diran pauso guztiak emateko, gerturik naukazute". Eraso zien "filosofiazaleei" eta aiek zabaldutako pentsaera "oker eta makurrei". Gaitzetsi zuan "Frantzi'ko Errepublikak Elizaren aurka eratutako zigorraldi mingarria": ("Cette cruelle persécution que la République Française exerça contra la religion").

Baiña Errepublikak noizbait "begiak iriki omen zituan", eta ikusi omen zuan "Erkala eta Erljioa alkarrekin bizi zitezkeala"; geiago oraindik; "que la religion catholique était comme une ancre qui pouvait seule la sauver des efforts de la tempête"; ("erlijio katolikoa bakarrik zala ekaitzen ekinaldietatik Erkala sabaldu zezakean aingura").

Bazan mutiko pijoa, Napoleon, ondo zetorkionean itzaldi borobillak jaurtitzen!. Baita, lotsarik gabe, egoki zitzaiona egiten ere. Ala, andik astebetara, Marengo'n austitarrak zearo porrokatuta lau egun geroago, Milan'go Katedralaren aldare-ondoan zegoan, zutik, "Te Deum" baten bitartez Jainkoari garaitza eskertzen. Napoleon'en inguruan, Lonbardi'ko gotzaiak, apaizak, prailleak, aberastasun guztiez jantziriko katedral ederrean Jainkoari kantari. Ez zan noski gutxi aldatu Iraultzaren aurpegia.

Bazuan Napoleon'ek Aitasantuaren bearra, baiña Frantzi'ko Elizaren bearra zualako bakarrik. "Aundia da nere indarra, (zion bein batean)' Ala ere, nere indar guztiarekin Frantzi'ko erlijio zaarra aldatu nai ba'nuke, nere aurka altxatuko litzaidake erlijio zaar ori, eta ziurki menderatuko ninduke. Katolikotasuna da gure errialdeen erlijioa" Erlijio ori bere serbitzura ipintzeko bear zuan Aitasantuaren laguntza. Bein Frantzi'ko apaizen eta Errepublikaren artean adiskidetasuna eginik, "bitarteko atzerritarra" ezerezteko moduan izanen zala esan zuan Diputadu sail baten aurrean: "supprimer l'intermédiaire étranger": Aitasantua!.

Auxe zan Napoleon. Bere izena goresteko Frantzi ondatu, eta Europa guztian ainbeste odol-ixurketaren egillea; odolez ez ezè, diruz ere osoro ustu zuan Frantziko erriari begiak lausotzeko, izkilluz menderatu zituan lurraldeetan ainbeste lapurreta eragin zuan gizona; oroitzapen mingarriko pertsona.

Gaizkille bat ote zan? Ez dirudi. Ala're kontzientziaz ez zan sekulan arduratu' Ona edestilari baten itzak Napoleon'ez ari dalarik: "A aucun moment on ne pourra penser qu'il juge luimême sa conduite selon la loi du Bien et du Mal"; "Iñoiz bere eginkizunak zer Ona ta zer

Gaiztoa dan erakusten digun legearen araura antolatzea gogoratu zitzaien ere ezin uste izan dezakegu". Au da: moralitatearen zentzunik gabeko gizona izan zala' Jainkoari eskerrak, adimen argikoa, sentimentu onekoa eta biotz ederrekoa ere bazan' Ez zuan inondik ere Hitler baten antzik. Bere errurik aundiena aundinaikeria izan zan, eta bere utsunik kaltegarriena, aundikeri orren aurkakoak zitezkean gaietan, besteen iritzitari bear añaako jaramonik es egitea.

Eta, bazuan bere aldean politika ta diplomaziarako bera baiño ya-yoagoa zan gizona, Iraultzaren luzaera esoan lenen maillako karguak izan zituan, iTalleyrand!,konte baten semea eta Alexander Gotzon Talleyrand Duke Kardenalaren iloba' Bigarren semea zalako, orduan aristokraziaren oitura zan bezala, Elizarako prestatu zuan bere aita kondeak, naiz mutillak bokaziorik ez izan, Elizan kargu dirutsu batera iritxiko zalaren ustean. Eta baita iritxi ere, Autun'go Gotzaia bait zan, Iraultza asi zanean. Baiña apaiztasunari uko eginda, Katalin Grand'ekin alkaturik bizi zan, Napoleon'ek Atzerriko Auzien ministeritza eman zionean' Katalin Grand au, jaiotzez frantziarra zan, eta diplomaziarari inglandar batekin ezkondurik zegoan, baiña bere senarrarengandik bereizirik zebillen Talleyrand'ek ezagutu zuanean' Ordurako galdua zuan onek Sulpizitarren seminarioan gazte zalarik landu zuan fedea.

Baiña dirutza aundiaren jabe bai, bazan Talleyrand, bai bait zituan iru milloi franko... Inghlanderriko bankuan!; ondo ikusten bait zuan, Inghlanderri ta Frantzi'ren artean ura au baiño askoz segurugoa zala. 18 milloi franko laga zituan iltzean, eta ori, bere bizitza printzi-peen eran igaro zuala. Izan ere, Printzipe izatera ere iritxi bait zan, Napoleon'i eskerrak. Onek egin zuan, bada, "Talleyrand-Perigord'eko Duke" eta "Benebento'ko Printzipe". Benebento, ordurarte, Elizaren Laterrietako bat zan.

Napoleon'en aldean gizakume nardagarria da Talleyrand. Ura bezain berekoi ta aundikerizalea, baiña ura baiño azpi-suge gogaikarriagoa iruditzen zaigu' Dirutza ura, geienik, jendeari mesedeak egiteagaitik jasotzen zituan eskupeko oparoekin osatua zuan.

Ala ere ez dugu uste "traidore" itza Talleyrand'i inork erantsi lezaiokeanik. Maite zuan Napoleon, eta malte zuan Frantzi, bera bezalako gizakume batek norbait edo zerbait malta lezakean aña'

Napoleon baiño argiagoa zan, eta begi luzeagoa eta zorrotzagoa zuan. Aurren-aurrenetik ikusi zuan Inghlanderriaren aurkako gudua Frantzi'aren eta Napoleon beraren ondamena zala, eta egin zuan aal guztia Napoloen'eri Inghlanderriarekin pakean bizi arazteko' Baiña Na-

poleon baiño geiago maite zuan Talleyrand'ek bere burua, eta Napoleon aundi-naiak eta arrokeriak naitanaiez ondutako zutela ikusi zuan, onen etsaiekin izkutuko alkarrizketan asi zan. Aurretik (ordurako geldieziña ikusten zuan Napoleon'en ondamenetik bere burua salbatzearren), 1807'an AtzerriAuzien ministeriotza laga zuan. Urrengo urtean asi zan Errusi ta Austri'ko Inperatoreekin ixillezko artu eman aietan. Ez zuan arrisku geiegirik azpilan ortan, Ertzaindiaren Ministroa, oratoriotar izandako Fouché bere aldeko bait zuan; onek ere, Napoleon'en jaustea argi usmatzen zualako, gerorako bere bizimodua prestatu nai zuan. Mutiko argiak biak! Beren nagusia baiño argiagoak!

Utsegite aundi bat bakarra izan zuan Talleyrand'ek bere diploma-zian: Napoleon'i Portugal'en aurka guduan sartzeko aolkua eman izatea, Napoleon'ek ortaz galdetu zionean; naiz Talleyrand'ek ordurako min istrotza utzi, askotan eskatzen bait zizkion Napoleon'ek aolku ta iritziak. Talleyrand'ek, gero, ez ziola arri orrelako aolkurik eman, esan oi zuan, baiña egia dirudi eman ziola. Zalantzarik gabe ikusi bear zuan Talleyrand'ek Portugal'en aurka ekitea, Españi'ren aurka, eta, batez ere Inghlanderriaren aurka ekitea ere bazala. Ez ote zan Frantzi'ko Imperatoreari ezetz esatera ausartu? Napoleon'en erorketa lenbaitlen gertatzea nai ote zuan?. Errusi'ko Alexander l'ari ere, Napoleon'i indarrez aurpegi emateko aolkua ixuri bait zion.

Garbia edo zikiña bere jokaera, gauza batean ez zuan Talleyrand'ek errurik izan: Frantzi'ren ondamenean. Are geiago: leialki serbittu zion Frantzi'ri, Napoleon jausi ondorean, Koldobika XVIII'ren ministro bezala, batez ere Biena'ko Batzar ospetsuan. Napoleon'ek bere burua ondatu nai ba'zuan, ez zan ori Talleyrand'en kulpaa; ezta Fouché'rena ere, eta auek bezelako kontzientzi urriko gizonak, bein ondarena usmatu zutenean, beren buruak salbatzearren azpilanean asteak, ez gaitu arritu bear. Zintzo egon ziran ordurarte biak Nagusiaren esanera'

Inghlanderriaren aurka ekitea eragozi nai izan zion, ziurki, Talleyrand'ek: egoki eraman zuan Austri'ko Imperatorearen alabarekin ezkontzera, eztai aindiki oiek aundi-naia asetuko zielaren ustean eta orrela mundu guztiaren aurka gudan ibiltzeko gogoa baretuko zielaren itxaropenean; eta, leenago oraindik, gustora lagundu zion, Frantzia irabazi zezan, Aitasantuarekin konkordatoa egiten'

Garrantzi aundiko auzia izan bait zan konkordato ori, Aitasantuak ere saritu nai izan zuan Talleyrand, eta Napoleon'ek eskatuta, eman zion Gotzai izanari Kataline Grand'ekin egindako sasi eskontza saga-

ratzeko eskubidea.

Azkenean, Elizarekin pakeak osoro eginda il zan Talleyrand, 1838'an, egiazko kristauen eran.

VII PIO (1800-1822)

Gizonki eta kristauki, Frantzi'ko iraultzalarien geiegikeriei bururik makurtzeke, eta bere gaizkilleei barkatuaz, espetxean izan zan VI Pio Aitasantua. Erroma'n bertan aurrena eta atzerrian gero iragan bear izan zituan neke, oñinaze eta eriotz eder baten dizdirak, aunditu zuten Aitasantu zorigabe aren irudia, mundu guztiaren begien aurrean' Martiri batena bezala artu zuan aren gorputza Erroma'ko erriak. Indarkeririk gabe. osoro menderatu zituan Aitasantu zaarrak Frantzi'ko agintari urduriak' Ogei urte len baiño gurenagoa zan orduantxe Aitasantuzaren ospea. Frantzi'n bertan, Iraultza-aroko odolketa eta nasteatatik, gazteagoa ta bizkorragoa rtetzen ari zan Eliza' Ondo zekusan ori Napoleon'ek.

Zorionez, ederki neurtu zituan aurretik Pio VI'ak bere eriotzaren ondorean Aitasantu berri bat Erroma'n aukeratzeko agertu zitezkean eragozpenak. Eragozpen oiek garaitzeko eskubide osoak eman zizkion Kardenal'en Dekanoari, Konklabea noiz eta non bildu, onek erabaki aal zezan' Dekano au Albani zan, eta Giltzapeko Billera Benezi'n egitea erabaki zuan. Austritarren mendean zegoan orduan Benezi, eta pozik eman zuan baimena Frantzisko II Inperatoreak, Aitasantua politika-auzietan bere aldera eramateko asmoarekin, jakiña.

46 ziran une artan munduko kardenalak; 35 alkartu ziran Bene

Iru illabete iraun zuan Konklabe artan, izan ziran aldi neketsuak; bi zatitan bait zeudan kardenalak berezita. Batzuek, iraultza ororen etsaiak, Aitasantu gogor borrokalari bat gura zuten. Alderdi ontakoak ziran Frantzi'ren arerio danak, batez ere Inperatorea, eta nola ez, atzerrian bere burua Frantzi'ko Erregetzat zeukan XVIII Koldobika, eta, jakiña, orduan Konklabean zegoan frantziar Kardenal bakarra, Maury, XVili Koldobika'ren adiskide berea. "Aulki Donearen politika gero-ta-geiago dator gure alderdira" idatzi zion, orduantxe bertan, bere "erre-geari". Bazuan, nonbait, zerbaiten itxaropena konklabe artan' Baiña ez zuan Maury'k asmatu, bai bait zan batzarra artan beste alderdi bat ere, Aitasantu barekoi eta diplomazizale bat aukeratu nai zuana. Alderdi onen aldekoa zan Españ 'ko Erregea, orduan, ain zuzen Españi katolikoa ta Frantzi'ko gobernu iraultzalaiia Inghlanderriaren aurka. Iaztanki baturik bait zeuden.

Giltzape-Batzar artan gizonik yayoena ez zan kardenaletako bat, oraindik doidoi osperik zuan Gotzai apal bat baizik, Batzarrean kardenalen laguntzaille zegoana; Erkules Consalvi, (1757-1824), Elizak izan duan serbitzaririk egokienetakoa, eta, gure uztez, Talleyrand'en eta Metternich'en gaiñetik, emeretzigarren mendeko diplomazilaririk argiena. Consalvi'k eraman zuan legunki Giltzapeko Batzarra, Aitasantutzat Pio VII'a autatzera, eta lan ontan biziro lagundu zion beste Gotzai bikain batek: Despuig españiarrak'

Pio VII'a, Bernabe Chiaramonti beneditarra, izaera gozoko, baiña biotz sendoko gizona, naimen bikaiñekoa, eta, zorionez, politikaren arloan pentsaera zabalekoa. Orduango oiturei zegokienez, jatorri ospetsuko umea zan: Chiaramonte'ko Kontea, jaiotzez.

1800'eko epaillaren 4'ean artu zuan aitasantutza; Paris'en Sieyès apaizak azkeneko jakobatarren aurka eta borboitarren aurka asmatu zuan Kontsuladutza eskierki Napoleon'en eskuetan zegoanean.

Bazuan kezkatu egoteko, arrazoirik naiko Austri'ko Imperatoreak. Eta, beste Koldobika XVIII Frantzi'ko errege-naiak ere; Aitasantu berriaren pentsaera zabala, ondo ezaguna bait zan. Ez ziran aztu oraindik, Imola'ko Gotzaia zalarik 1797'ko eguberri-egunean egin zuan, mezako itzaldia "Demokrazia Ebangelio'ko erakutsien aurka" ez zegoala esanaz; are geiago: "Erkalak, beste politika-moduak baiño geiago gizarteko birtuteak eskatzen ditualako, auek baiño ebangelioaren bear aundiagoa duala". Ez ziran aiek, garai artan Gotzai baten ezipaiñetatik meza-barruan errez entzun zitezkean itzak.

Bazuan une artantxe Elizak Aitasantu erne zabal baten bearra, izugarriak eta zearo berriak bait ziran Eliz arek, guttiz aldaturik zegoan mundu artan askatu bearko zituan korapilloak.

"Ondo bestelakoa aurkituko zuan noski ludia, Noe Asaba zaararak, ugalde nagusiaren ostean, Ontzi done salbatzailletik, bere abere ta gutzi, atzera legorrera irten zanean! Ez zuan ziurki gutxiago aldatu-ra aurkituko gizartea, 1775'ean ildako kristau batek, 25 urte geroago, 1780'ean, berbiztu izan balitz". Majiña bat aldiz esandako ta idatziteko esakizuna duzu auxe. Erkules Consalvi Kardenalak asmatua da. Eta ez zion iñolaz ere, gezurrik kardenal zorrotz arek itz oiek pentsatu eta jaurti zituanean; 25 urte aietan Kristaudian gertatutako aldaketak berebizikoak izan bait ziran:

—Soziologia eta politikaren arloan lendabizi' Ordurarte, aristokrazia deitu oi zaion sistemaren araura antolatua egon zan gizadia. Sistema orren muiña gizakumeen ezberdintasuna da. Kristauak ziralarik, danak sinisten zuten, Jaungoikoaren aurrean, animako gauze-

tan eta Beste Mundurako auzietan gizakume guztiak berdiñak, eta, (bakoitzaren santutasunaren neurriaz at), guztiak balio berekoak zira-la; ez ordea mundu ontako bizitzari zegozkion gaietan' Mundu onetan, Jaungoikoak ala naita, gizadia mailla ezberdiñetan eraikia zegoan. Jaiotzak erabakitzen zuan gizakume bakoitzak izanen zuan mailla. Eta ezberdintasun ori, izadiaren egintza zala uste zutelako, guztiek, Jaungoikoa beraren erakundetzat zeukaten. Politikaren antolaketa ere, ezberdintasunean oiñarritua zegoan; jende aren ustez batzuk agintzeko eta besteak esanera egoteko sortzen bait zituan izadiak. Ezberdintasun au ere Jaungoikoaren naia zan, berak erabakitzen bait zuan, jaiotzaren bitartez, erridi guztietan errege nortzuek izan bear zuten, eta berak ematen bait zien orrela aukeratu zituan agintariei, agintzeko ai mena.

Orain, berriz, demokraziak, "erkalak", aal ori, almen ori, erriaren baitan zegoala, erriak agintariari ematen ziola, eta, ortarako, erriaren altzoan gizakume guztiak zearo berdiñak zirala, erakusten zuan. Erakusketa oiek mamituaz eratu ziran Inghlanderriko politika-era, Laterri Alkartuetakoa bereiziki, eta askoz leengao ta egokiago, orrelaxe era-tua zegoan Eusko Laterrietakoa.

Emeretzigarren mendeko politikaren edestia teokrazizko aristo-kraziaren eta demokrazi errikoiaren arteko borroken edestia izanen da. Berez, gogapen utsen maillean, demokraziaren eta Elizaren artean ezinkonponketarik ez dago. Are geiago; demokrazia da kristau-dotri ñari kideen zaion politika-era. Orixe erakutsi zuten Akinas'ko Tomas eta, batez ere Bitori'ko Frantzisko domingotarrek.

Erkala eta Kristautasunaren arteko kidesan cri ikusi zuan argi Pio VII'ak; eta baita VI'ak ere, naiz onek demokrazi oker baten oinpean zanpaturik, erbesteko espetxe batean neketartean azkeneko egunak jgare. Ala ere, andik aurrera, etorkizuneko gizadi berriaren erditze-min izandako emeretzigarren mendeko borroka aietan Elizako agintariak, aristokraziaren aide ipiñi ziran, eta begi okerrez so-egin zioten demokraziari. Ikusiko dugu zergaitik.

Leendik ere bildur izan zion beti Elizako buruzagitzak erkalari' Bildur onek bazuan bere arrazoia. Erdi aroan, demokraziari ardurarik geiena eman zioten idazleak Zabarella eta Cino izan ziran, eta auen atzetik teologilari nominalistak, batez ere Okam, Padua'ko Marsilio, Kusa'ko Nikolas, eta baita Bitori'ko Frantzisko'ren irakasle izan ziran Sorbona'ko Doktoreak ere: nominalisten artaldekoak danak. Idazle auek danak, Laterria ez ezê, Eliza bera ere demokraziaren araura anto-latu nai izan zuten, Eliza-baitan almena Kritaudi osoan dagoala eta

Aitasantuari almen ori Kristaudiak ematen diola eta Kristaudiak kendu dezaiokela erakutsiaz. Ori zuzen-zuzen Elizaren zertasuna desegitea zan; eta arrisku orrek izutu zuan Eliza.

Zori txarrez, orduango teologiariek, nominalisten erakuskizun osoaren aurka irten ziran, erakuskizun artan, Donetomas'en araura dotriña zuzena esakera okerretatik bereisten saiatu gabe' Bitori'ko Frantzisko'k eginen zuan bereizketa ori. Ala ere, Frantzisko Suarez kendu ezker, ez zien luzaroan pentsalari kristauek demokraziari jaramonik egin. Bildur izan zioten, eta bildur ori zebillen oraindik Consalvi Kardenala bezain gizakume iriki baten adimenean, 1820'ean Elizaren Laterrietarako demokraziak balio ez zuala zionean, "jaurbide edo gobernukera ori Elizaren Laterrietan sartzen ba'zan, Eliza beraren jaurbidera ere sartuarazi nai izango zutenak asko izanen ziralako", eta "Eliza demokrazi biurtu nai izatea, erejia litzakelako". Egi aundia azkeneko esakizun au. Ez, ordea, leenagokoa, Demokraziak Eliz-Laterrietarako ere berdin-berdin balio bait zuan.

Ortaz gaiñera bazuan, ordurako Elizak "erkalari" ikara izateko beste arrazoi oiñazetsu bat ere, azkeneko urteetako esperientzitik jasoa. Izan ere ain zakarki jokatu ziran Frantzi'n "demokraziale ziralako" iraultzagille zakar aiek..! Jakobatarrak egindako nazkagarrikeriek estali zituzten, demokraziak inglanderrian, Laterri Alkartuetan, eta Olanda'n Elizari ekarri zizkion bentajak. Egia da, bein baiño geiagotan agintari kristauek Frantzi'ko iraultzalariak aiñako ikaragarrikeriak egin oi zituztela; baiña, beti, errezago ikusten da auzoko begietako izpia norberenetako aga baiño'

Egia da, bait'ere, Frantzi'ko iraultza azkenean Elizarer, aurka biurtu izate artan, bazuala parte katolikoek politikariburuzko jokaera erregezaleak, eta ordurarte, Eliza, Errege Borboitar despotikalariekin ain bat-egiña egon izateak. Baiña ementxe dago, ain zuzen, Elizako gizonak erkala onartzeko izan dituzten, sikologiatik sortutako, ingira ta kezken sustraia: Elizaren izaera berean. Eliza, Kristoren naiaz, ez da demokrazia, jerarkia baizik' Kosta egin zaio luzaroan, elizgizon askori, Laterria, Jainkoaren borondatez, jerarkia ez dala, eta demokrazia izan bear duala aditzea. Mende Iuzeen buruan, Eliza, Erregeekin ari izan zan artu-emanetan: Errege katoliko "eliz-zaindareekin"... , Elizaren eskubideak babesteko; Errege protestalari eliz-zapaltzailleekin..., Elizarentzat askatasun apur bat lortzeko. Zail egiten zitzaion orain Erriarekin artuemanetan astea. Ordurarte, zaindu-bearra zan artaide utsa bezala ikusi oi zuten Elizako gizonak Erria' Erri gaixo orren alde mintza oi zan Eliza aurpegiz-aurpegi Erregeekin- Orain, Erri ori eskubide guz-

tien jabe bakarria jeiki zitzaion aurrean, eta berarekin aurpegiz-aurpegi alkar-izketan asi bearra, arrigarri ta kezagarri gertatzen zitzaion, ez bait zekian alkarrizketa ori nola ta zertan amaitu zitekean'

—Laterrien sekulartzea' Auxe zan aro berriak Elizari zekarkion bigarren korapilloa. Politika-era zarrean, Laterria, edo Elizaren adiskide edo Elizaren etsai zan. Gerontzean ez da izango ez etsai ez adiskide, teori edo oldozkizunen maillean beintzat. Ipar-Amerika'ko Iraultzaz gero, Laterriak ez du "bere" Elizik izango; eliz guztiak, sinispide guztiak, izango dira berdiñak beretzat; danak onartu eta danei emango die eskubide berdiña. Danak izango dira askatasun berdiñaren jabe.

Bizitzeko eta lan egiteko era berri bat ikasi bearrean aurkitzen da Eliza katolikoa. Beste edozein giza-aikartek bezala, Laterriak laterkide ta alkarte guztiei ematen dizkien eskubideekin bakarrik, beste bentajarik gabe eta agintarien laguntza bereizirik gabe bizitzen ikasi bearko du' Ta era zaarretara oituarentzat, era berriak beti izan oi dira kezka-g arriak'

—Burgesiaren Iraultzaren atzetik Laister sortu zan munduan beste Iraultza-mota bat: aberri-askatasun zaleen Iraultza. Laterri Alkartuek berak erakutsi bait zuten aberri zanpatuen askatasuna lortu zitekean gauza zala, Ego-Ameriketara eta Eslabi'ko erridietara, sortu zan bizkor Iraultza abertzalekoa; artu zuan indar berria betidanik askatasun-zale izandako Irlanda txikian ere. Lurralde oietan denetan apai-zak izan ziran iraultzalari abertzaleen ats-emaille, eta baita, askotan borrokaldietan buruzagi ere. Ordura-arte, Erroma'ko Kuria, eta Aitasantuak, askatasun billa iraultzan zebiltzan lurralde aietako Erregeen adiskide izan ziran geienbat. Orain ordea, zer egin? Noren alde jarri? Eta, iare bihurtutako lurralde aietan, nola Jaurlaritza berriekin konpondu lengo Jaurlaritza kolonizalariekin asarretu gabe?. Aspalditik zekarren politika-erak ere, lengo Errege kolonizalarien aide bultzaten zuan Elizaren Buru Nagusia. Bera ere Errege bait zan! Gaiñera, Itali'ko Erri guztiek Itali'ren batasuna eskatzen atera zijoazenean.., bildur zan Aitasantua. Eta ez arrazoirik gabe; Abertzale askatasun--zaleei erregeen aurka laguntzea Itali'ko erriari Itali'n oraindik agintari ziran Errege, Printzipe, Duke, eta beste Laterritxoetako Buruen aurka laguntzea bait zan' Aitasantua bera izaki berriz Errege aietako bat!

Aitasantuek ez zutela beren erregetzaz arduratu bear? Ori, zuk eta nik eta mundu guztiak, **gaur**, aski argi ikusten dugun gauza da, baiña **orduan**, mundu guztiak, bai adiskideek bai etsaiek, Aitasantua bere erregetza zaindu eta babestera bearturik zegoala ziur uste zuten' Zalantzarik gabe sinisten zuten Aitasantuek, Erroma'ko Errege, Eliza-

ren onerako eskubide osoarekin eta arrazoi guztiz ziralara, eta erregetza ori ezin zezaketela iñoren eskuetan utzi: ez beste Errege baten eskuetan ez erriaren eskuetan. Aitasantu aiek ezin zezaketen erria agintari izaterik, ain errez onartu; ez zezaketen erkala, kezka aundirik gabe, ontzat ikusi.

Eta Iraultza aberkoi aien arantza askoz samiñagoa zan oraindik Elizarentzat, Irlanda'n eta Poloni'n bezala, iraultzalariak katolikoak eta Errege zanpatzailleak zismatikoak ziranean, Errege auekin asarretzea, aien mendeko katolikoak era minkatzean ipintzea bait zan: Aitasantu batek ezin egin zezakean gauza.

—Argikuntzak izadijakintzei emandako ardua bereiziak, sortu zuan beste irugarren Iraultza bat ere: Industrilraultza, lanabesa berrien sorkuntzarekin batera Inghlanderrian asia. Iraultza onek, "kapitalista" biurtu zituan argikuntza-aroko burgesitar aberatsak: Diruaren bitartez langilleen eskuetako lana erosiaz, dirua irabaztea besterik pentsatzen ez zuten gizakume errukirik gabeak: Kapitalistak! Lèn aipamenik aundiena "jatorri garbia", "aitorren" seme izatea ba'zan, orain aipamen ori "aberatsa", ola asko eta aundien jabe izatea zan.

Oso-osoan, diru gurbeta orren etsai zan Ebangelioko dotriña. Eta giro materializatu ortan Ebangeiioa naLa zuzenki aldarrikatu pentsatubearrean aurkitzen zan Eliza: Oraindik egitez amaitu ez duan gauza, eta. agian, sekulan amaituko ez duana, arlo ortan beti izango bait du zer-egiñik aski.

Gainera ekonomiaren sendotzeak beste Iraultza gogorrago bat ekarri zuan atzetik: Proietaritzaren Iraultza' Kapitalistek beralkeriarren erakutsien araura, askatasun osoa eskatzen zuten, —eta lortu zuten—, ekonomiarentzat. Orrela, langilleen izardiaz al zuten geiena baliatuta, gero ta aundiagoak izan ziran aien irabaziak, eta irabazi oiekin aziarazitako ola eta lantegiak. Ola oiek jendetza aundiak bildu zituzten inguruan. Eta, langille oien irabaziak al zan txikienak izaten ziralako, beartasun gorrian bizi oi zan jendetza ura dan. Orrela sortu zan "proletaritz": Bere eskubideen arloan zanpaturik zegoalaren ezague-ra argia zuan langilledi au kapitalisten aurka jeiki zanean, ostera nola jokatu asmatu bearrean ikusi zuan Elizak bere burua. Aberats zanpatzailleen aide?. Langille zanpatuen alde? Tamalez, Elizaren Buruzagien biziera errez eta aunditsukoiak, burgesitar legun goxoen aidera aisago bultzatzen zituan Elizaren buruzagi aiek, berak oartzeko agian, proletari txiro, latz eta ezjakiñen aidera baiño'

—Ekonomiaren bizkortasunak arras aberastu zituan Kristaudiko Laterriak' Aberastasun orrek zemakion indarrarekin ludi osoaren jabe

egin zan "gizakume zuria"; katoliko edo protestalari, izenez beintzat, kristau zan gizakume zuria. Emeretzigarren mendeko kolonikeriak indar artzen zuan garaiean bazuan Elizak zer esanik aski, eta erantzukizun galanta. Zillegi al zan, politika ta ekonomiaren gaietan, kolorezko jendea jende zuriaren menpean ipintzen zuan kolonizatzeko ura?

Ez ziran gudariak eta salerosleak bakarrik Kristaulditik kolonietara joan ziran jendeak. Teknikaren aurrerapenak, erreztu zituan mixiolariantzat ere munduaren bazter guztietako bideak. Baiña, asmatuko ote zuten mixiolari aiek abertzalekeria eta Europa'ko kultura kristautasunaren mamitik bereizten?. Ikusiko-ote zuan Elizak kolorezko jendeen kulturaren balioa, kristau-dotriña ta bizitza kultura aietan mamitzeko?'

Argikuntza-arogan jaiotako "jakin-naiak" izugarritzko aurreraketak eragin zizkion IzadiJakintza orori emeretzigarren mendean. Aurrerakuntza oiek, bere erakusketak aztertu ta eraberritzera beartzen zuten Eliza, Biblia bera nola ulertzetik asita. Ezin dezakegu gaur igarri ludiaren sorkundeko "sei egun" aien problematsu utsak bakarrik, zenbat burukomin eman zien orduango teologilariei.

Baiña. ori baiño makurragoa dana, Jakintzen aurrerapenak ere sortu zuan bere Iraultza: Adimen Iraultza. Izadi-Jakintzen dizdirak zoraturik, Elizari uko eginda, sinismena galdu zuten zearo jakintsu batzuek Kristaudian. Ez ziran oraindik asko, baiña bai Iraultza zail berri bat sortzen ari zalaren adigarri. Ta erriko jende landu asko jakintsu aien bidetik jotzen asi zan. Ez zuan sekulan Elizak protestalaritzaren sorkuntza ezkerorrenbeste jende galdu. Emeretzigarren mendea jainkogabekeriaren mendea izanen zan. Bazetorkion ortik eginkizun galantik Elizari. Nola adierazi jainkorik gabeko jakintsu aiei Jainkoaren bearra?, eta, Fedea eta Jakintza, bata bestearen arerio ez zirala?'

Baziran, noski, aipatutako arazo oiek danak kezka-iturri mingarriak Elizarentzat! Bitartean, protestalaritza, milla zatitan puskatzen ari zan; ortodoxia berriz, lotan bezala, bizi zalaren aztarnik emangabe zetzan, Errusi'ko Tsarren eta Turki'ko Sultanen mendean.

XVIII mendeko teologirik-ezak ere ez zion Eliza gaixoari, arazo izugarri aiek danak zuzen ikusi eta egoki ebazteko, geiegi lagundu.

Galera guztiek, beti, bildurra sortu oi dute. Eta Protestalaritzakoan izandako galera aiek Eliza-baitan bildur aundia sortu ba'zuten, ez zan txikiagoa izan Iraultza-aroko auek sortutakoa.

Emeretzigarren mendeko Eliza ere, Eliz bildurtia izanen da. Ez, Eliz illa. Ezta ere motela' Baiña bai era zarrei geiegi lotua, jakintzei eta

aurrerapen berriei bildur geiegi izanen diena. Ain zuzen ez da Eliz bildurti orren utsegiterik txikiena izango jendetza berrien sikologiari dagokionez, ereji bati "modernismus" izen-ematea. Izen politegia, atsegiñegia, ereji bati emateko; jende berriarentzat maiteena zan itza.

.

Baziran, noski, aipatutako arazo oiek danak kezka-iturri mingarriak Elizarentzat! Bitartean, protestalaritza, milla zatitan puskatzen ari zan; ortodoxia berriz, lotan bezala, bizi zalaren aztarnik emangabe zetzan, Errusi'ko Tsarren eta Turki'ko Sultanen mendean.

XVII mendeko teologirik-ezak ere ez zion Eliza gaixoari, arazo izugarri aiek danak zuzen ikusi eta egoki ebazteko, geiegi lagundu.

Galera guztiek, beti, bildurra sortu oi dute. Eta Protestalaritzakoan izandako galera aiek Eliza-baitan bildur aundia sortu ba'zuten, ez zan txikiagoa izan Iraultza-aroko auek sortutakoa.

Emeretzigarren mendeko Eliza ere, Eliz bildurtia izanen da. Ez, Eliz illa. Ezta ere motela. Baiña bai era zarrei geiegi lotua, jakintzei eta aurrerapen berriei bildur geiegi izanen diena' Ain zuzen ez da Eliz bildurti orren utsegiterik txikiena izango jendetza berrien sikologiari dagokionez, ereji bati "modernismus" izen-ematea. Izen politegia, atsegiñegia, ereji bati emateko; jende berriarentzat maiteena zan itza'

Ala ere Pio VII'aren arazorik gogorrena, erregekeri-arazo zaarra izan zan: Austri'ko Frantzisko II'aren erregekeria, eta, batez ere, Napoleon Bonaparte'ren erregekeria. Aurrenekoarengandik aldegitoko, berealaxe joan zan Benezi'tik Erroma'ra, naiz laisterketa orrek Inperatoreari min eman. Bigarrenarengandik iges egiteko, Frantzi'rekin 1801'ko Konkordatoa izenpetu zuan.

Eginkizun auetan, eta baita beste guztietan ere, egoki lagundu zion Ercule Consalvi Kardenalak. Ain zuzen, VII Pio'ren lenen erabakietako bat, elizgizon ospetsu ura Kardenal izendatu eta bere laguntzaille, eta andik bereala, bere Laterri Idazkari egitea izan zan.

1801'ko KONKORDATOA

Bazuan larria Napoleon'ek Aitasantuarekin len-bait-len pakeak egiteko, buruan zerabilzkian asmoak aurrera ateratzeko bearrezkoa bait zuan Frantzi'ko katolikoen laguntza. Ala ere ez zitzaion erreza irten Konkordato baten gertuketa. Oarturik zegoan aspalditik, Iraultzak VI Pio'ri eraso zion ezker, aundia zala Europa osoan, —eta Frantzi'n bertan—, Aitasantutzak irabazi zuan ospea; eta ospe orrek berekin zerman indarra! Altagutziz, uste zuan Napoleo'nek Pio VII xaloaren naimena zurikeri batzuen bitartez errez irabaziko zuala' Orregaitik agindu zion Erroma'ra bidali zuan Cacault Ordezkaritari, "Pio VII'arekin onek 200.000 gudara bere esanera baleuzka bezala" jarduteko. Ez zebillen oker Napoleon, Pio VII maitagarri legunak, berak bakarrik bai bait zituan, batera, 200'000 gudarrien adore ta kemenak.

Esan leike, gaiñera, Napoleon beraz eta Pio VII'az landa, mundu guztia Konkordato aren aurka zegoala.

Aurka zeuden, bai ezkerrekoak eta bai eskubikoak. Aurka, Frantzi'n, iraultzalaririk gogorrenak; batez ere, aiztian oraindik ain Napoleo'en adiskide ziran "jakobatarrak"; izugarria bait zan ordurako, auek El zari zioten gaizkinaia'

Aurka zeuden, eskubi aldetik, Inghlanderria, Austri, Prusi, Errusi, eta Europa'ko beste Laterri guztiak; danak, Iraultzak altxatu ta bizkortutako Frantzi aren etsai ziralako. Aurka, XVIIII Koldobika Borboia eta bere alderdiko frantzitar erregezale guztiak. Aurka Frantziko elizjende guztia; "ziñ-egin" zuten aiek, Konkordato ura Frantzi'ko "Kostituzio-Elizaren" amaia izanen zala usmatzen zutelako, eta "ziñik" egin ez zutenak..., soilki, erregezale porrokatuak ziralako. Aurka, Kristaudi zabaleko Eliz-buruzagi eta katoliko sekular oartuak ere, beren "eskubideak" eta "beren patxadazko biziera oparo eta paketsua" arriskuan gerta zitezkealaren bildurrez agian, baiña baita "demokrazia" eta "kristautasuna" alkarrekin batu ez daitezken itzak zirala uste zutelako ere.

Danak ikusten zuten Konkordatoa Iraultzaren "kanonizatzea" zala, Demokraziaren onartzea, Errepublikaren sendotzea, eta Frantzi be-

raren bizkortzea; Laterria-baitan pakea ezarriaz, Frantzi'ko katoliko guztiak Frantziko gobernuaren serbitzura ipintzen bait zituan konkordato arek. Ederkitxo ikusi zuan ori Napoleon'ek berak, beste guztien aurretik...!

Pio VII'ak ere zalantzarik gabe nai zuan konkordatoaren egitea, Frantzi'ko Eliz gaixo martiriaren egoera konpondu eta atondu nai zualako. Ala, Napoleon'ek alkarrizketa eskatu zion bezain laister bidali zizkion bere ordezkariak. Baiña ez zuan Pio VII'ak Napoleon'ek aiñako presarik; kosta ala kosta, beste edozer gauzaren gaindik, Elizaren eskubideak babestu nai bait zituan'

Maiz asarretu zan Napoleon zakarra, amairu illabete iraun zuan konkordato-prestatzearen alkarrizketa neketsuan. 1800'eko Azaroan 5'ean asi zan alkarrizketa ori, 1801'aren Otsaillerako urduri zan Napoleon, eta berak idatzitako konkordatoeskema bat onartzea eskatu zuan, alperrik. Azitzen eta azitzen zijoan Napoleon'nen asarrea. Jorraillean bost eguneko epea eman Pio VII'ari, eskema. aldaketarik gabe izenpetzeko. Ez zan Aitasantua errenditu, naiz Elizaren Laterriak erabat Frantzipera jausi zitezkeala ikusi'

Cacault enbaxadariak askatu zuan korapillo ura, Napoleon murtuaren agindua beteaz Erroma'tik irtetzean, Consalvi Kardenala bera Paris'era bidaltzeko Aitasantuari eskatu zionean. Eta, ziurki. Consalvi'k bakarrik atera zezakean aurrera Konkordato aren auzia. Ez zitzaion eragozpenik eta nekerik peitu, baiña azkenean, amaitu aal izan zuan bere eginbearra 1801'eko Uztaillaren 15'ean' Amabi ordu luze iraun zuan egun artako billera lerreragileak.

Laburra zan Konkordatoa: Sarreratxo bat eta 14 ataltxo; izketa motzekoak danak' Ikusi ezazu bere mamia; edestian izan duan garrantziagaitik, merezi bait du berridazte au'

"Sarreratxoa. Errepublikaren Gobernuak, aitortzen du Frantzi'ko laterkide geien-geinen (de la grande majorité) erlijioa, katolikotasuna dala. Aitasantuak ere aitor dagi, bere aldetik, bentaja aundiak jaso ditzazkeala oraindik katolikotasunak, erlijio oni Frantzi'n askatasuna ematen ba'zaio, eta batez ere Errepublikaren Kantsulak, gizon bezala, erlijio ortan bizi izaten ba'dira (de la profession particulière qu'en font les Consuls de la République)".

Ainbeste urtetan iraindua, zigortua eta galerazia izan ondorean, ara berriz Erroma'ko katolikotasuna ("la religion catholique, apostolique et romaine") Frantzi'ko erlijio, eta Iraultzaren buruzagien berberren erlijio, ofizialki ezagutua. Bazuten "jakobatarrak" zertaz asarretu...!

"I'go Ataltxoa. Erljio katolikoa Frantzi guztian iare erabillia izanen da' Erljio onen erabiltze ori "public", "publikoa", izanen da, baiña erriaren pakerako Jaurlaritzak ernan lezazkean aginduen araura". Azkeneko baldintza ori: "Jaurlaritzak eman lezazkean aginduen araura" dion ori, Jaurlaritzari edozein geiegikerirako ateak irikitzea zala-ta, kolokan egon zan azken-unera arte, eta Napoleon'ek "erriaren pakerako" dioten beste bi aiek onartu zituanean bakarrik eman zion bere baiezkua Consalvi'k, bi itz oien bitartez, asko ez bazan ere, Jotzen bait zituan zerbait beintzat, zerbait, Gobernuaren eskuak.

"Publicus" itzak bi esanai ditu erderetan: "zerbait, agirian agertu daitekeana dala", eta, "zerbait ori erri guztiarena, au da, Laterriarena dala". Dokumentu ontan, berez, aurreneko gauza esan nai du; baiña, iru Kontsulen erlijioa katolikotasuna izan bear lukeala esaten dalako, eta lenengo ataltxoan katolikotasuna ia Frantzi guztiaren erlijioa dala esan dalako, badirudi bigarren zentzua ere baduala, baitipat, gero Eliza katolikoaren gastu guztia Laterriaren kargura gelditu bear duala ere esaten dala kontuan artzen ba'dugu' iA, nolako aldakundea Kontentzioaren denboretatik!

"2'gn ataltxoa: Aulki Doneak, Jaurlaritzarekin alkar artuta, Frantzi'ko elizbarrut en eraketa berri bat eginen du".

"3'gna: Aulki Doneak Frantzi'ko Gotzaiei, Aitasantuak ala eskatu ezkeru beren elizbarrutiak uzteko gerturik egon bear dutela jakiñarazten die. Gotzai batek edo bestek, uzte ori egin nai ez balute, beste Gotzai batzuk izendatuko lirake aien elizbarrutietarako'

"4'gn ataltxoa: Errepublikaren Konsul Nagusiak egingo du Gotzaien aukeraketa. Almena, jurusdikzioa, Aitasantuak emango die".

"5'gn ataltxoa: Gotzai guztiak egin bearko dute leialtasun-ziña Konsul Nagusiaren aurrean (entre les mains du Premier Consul), beren kargua artu aurretik".

"9'gn ataltxoa: Gotzai bakoitzak eginen du bere eliz-barrutian parrokien erakunde berria, baiña eratze orrek ez du indarrrik izango Jaurlaritzak baiezkua ematen dion arte".

"10'gn ataltxoa: Gotzaiek ezindatuko dituzte parroketako apaiak, baiña Jaurlaritzaren onespena duten pertsonen artean bakarrik".

"11'gn ataltxoa: Gotzaiek izan dezakete Kanonigo-Talde bat Katedralerako, eta Seminario bat Eliz-Barrutirako' Baiña, mantenurako, ez bata ta ez bestea, ez dira Jaurlaritzaren kargura egongo".

"12'gn ataltxoa: Salduak izan ez diran Eliz guztiak, kristau-bizitzarako bearrekoak ba'dira, Gotzaien ardurapera itzuliak izanen

dira'''

"13'gn ataltxoa: Pakearen izenean, ('..) Elizaren ondasunen eros-
lei itz ematen die Aitasantuak, ez berak, ez bere ondorengoek, ez die-
tela sekulan ezerren konturik eskatuko'''

"14'gn ataltxoa: Elizbarruti berrietako Gotzaien eta apaizen bizie-
ra egokiaren gastuak Frantzi'ko Errepublikaren Jaurlaritzak sarituko
ditu"

Baiki, asko irabazten zuan Elizak Konkordatoaren bitartez eta,
batez ere, beste irabazketa guztien gaindik, bizi aal izateko eskubi-
dea. Ez zuan gutxi irabazten Jaurlaritzak ere, eta pozik egon zitekean
Napoleon, Frantzi'ko Kontsul Nagusi gaztea'

Ikusi daitekeanez, konkordato berria Borboitarren garaieko gali-
keriutsa zan, Leon X'ak eta Frantzisko I'ak egin zuten Konkordato
aren berdin-berdiña. "Nazio-Batzarrak" eraturako "Eliz-Kostitutioare-
kin" bi punttutan zan ezberdiña. An, erriak aukeratzen zituan go-
tzaiak, emen, Jaurlaritzaren Lendakariak; an, Gotzaiak ematen zieten
jurisdizioa Gotzai berriei, emen, Aitasantuak' Eta bi puntu auker-
batez ere bigarrena, garrantzi aundikoak ziran. Orregaitik, pozik gelditu
zan Aitasantua Frantzi Borboitarren era berberera itzulia ikusten zua-
lako. Aia ere, Erroma'n, Kardenalen erdiak konkordatoaren aurka irten
ziran.

Izan zituan Napoleon'ek ere bere eragozpentxoak. Kontsuladu-
tza-aroko bi Batzar Nagusiak, ("le Tribunal" eta "le Corps Legislatif")
iraultzalari zaar ezkerkoiez beterik zeuden. Eta auker konkordatoaren
etsai ezagunak ziralako, konkordato ura lege biurtzea gerorako laga
bearrean aurkitu zan Napoleon. Ez zuan denbora alperrik galdu, Kon-
kordatoa zearo okertu zuan araudi bat gertutzen ari izan bait zan bitar-
tean' Ara nola etorri ziran gertakizunak.

—1801'eko Dagonillaren 15'ean aldarrikatu zuan Pio VII'ak, "Ec-
clesia Christi" derizalon enziklikaren bidez, Konkordato berria. Arritu-
rik jakin zuan, artean oso-oso erregezale zan munduak, Errepublikak,
—;Frantzi'ko Errepublikaki—, eta Aitasantuak, pakean, alkar-artu zu-
tela!

Ura izan zan, errialde katoliko baterako Elizak gobernu laiku bat
ontzat artu zuan lendabiziko aldia; naiz Konkordatoaren idazketa ka-
toliko usaez betea egon, egiaren egiz Frantzi'ko Jaurlaritzak laiku ja-
rraitzen bait zuan. Ura zan, baita ere, errialde katoliko batean erlijio
guztientzako aretasuna Elizak, deus esangabe, lagatzen zuan lenen-
go aldia. Baiña gauza oiek baiño geiago arritu zuten kristaudia Errege
bati lepoa moztu zion Errepublikarekin Aitasantuak alkar-artu aal iza-

teak.

—Egun berean, Dagonillaren 15'ean, eskatu zien Pio VII'ak Borboiaroko Gotzaiari beren elizbarrutiak uzteko. 85 ziran une artan Gotzai aiek eta 36'ek ezetz erantzun zioten Aitasantuari. Onek, orduan, erregetzaren denborako 139 eliz-barrutiak desegin zituan; eta, orrela, Gotzai amorekaitz aiek danak jurisdiziorik gabe gelditu ziran. Ala ere bi Gotzaiak gogor jarraitu zuten beren eliz-barruti desegin-berrietako lurraldeetan agindu naiean.

Probintzi batzuetan, batez ere Lyon'en, kristau sail batzuk, eta apaiz batzuk ere bai, zismara joan ziran Konko datoa egin zuan Eliza-baitan bizitzea zikin iruditzen zitzaielako "La Petite Eglise", "Eliz txikia" deitu oi zaio eratu zuten komunitateari' 1945'gn urtean 4.000 ziran oraindik "Eliz Txiki" ontako kristau zismatikoak. Ez gaitu arritu bear katoliko auen jokaerak. Erregezaleak ziran, bete-betea, Frantzi'ko ia katoliko guztiak; zigorketa izugarriak jasan bear izan zituzten Iraultzaren denbora luzean. Ain zuzen ere, zismatiko geiago ez sortu izatea da arrigarri. Eta merezi dute baiki oroimen maitekorra, beren pentsaera Aitasantuaren esanera makurtuaz, Konkordatoa apalki, txintik atera gabe, onartu zuten Gotzai, apaiz eta beste katoliko aiek danak ere: Frantzi'ko Eliz osoak. Merezi dute oroimen ori, batez ere, "eskubiaren" ertza gogorrean bizi dan jendea beti zismarako arriskuan bizi oi dala kontuan artzen ba'dugu.

Latza izan zan Konkordatoa "KostitutuzioEliza"ko Gotzai ta apaiz "ziñatuentzat" ere. Bereala ikusi bait zuten auek, jokua galdu zutela. Alperrik itzezin zuten Napoleon'ekin; alperrik bildu ziran "kontzilio" batean (1801) 43 Gotzai; eta, 55 Apaiz, "beste eliz-barrutien izenean"" Alperrik oiue egin zuan Grégoire Gotzaiak "kristautasunaren onerako egiña izan zala, iraultzalarien eskariari erantzunaz egin izan zuten ziñā.", eta "serbitzu ortan zintzo ari izan zirala beti, naiz, orregaitik ain zuzen, jakobatarren aldetik zigorkada gogorak jasan bear izan"... Alperrik asi nai izan zuten Gotzai "ziñatuek" ziñ k egin ez zuten Gotzaiekin alkarrizketan. "Zismatiku utsak besterik ez zirala", ta "egiazko Gotzaitzat ez zituztela ezagutzen", erantzun bait zieten aiek. Frantzi'ko elizgizon "garbiek" ez zuten elizgizon "zismagilleekin" alkarrizketarik gura' Ordurako gaiñera Napoleon'ek erabakirik zeukan zizmaaren ezerezte. Gauzak ala, beren karguak utzi-bearrean aurkitu ziran "Kostitutuzio-Elizako" 59 Gotzaiak'

Ez zan lan erreza Gotzai berrien aukeratzea' Borboi#arren aroko 139 eliz-barrutiak 60'ra jetxi zituan Konkordatoak' Gotzai auen aukera Napoleon'ek egin bear zuan, eta onek, onela egin zuan aukera ori: 32,

gizon berriak; 16, Borboitarren aroko gotzai izanak; eta 12 Kostituzio-Elizaren altzoan, Erroma'ren baimenik gabe, era zismatikoan sagaratuak izan ziran gotzaiak.

Sumindurik jakin zuan kristaudiak gotzai zismatiko aiek gotzai-goan jarraituko zutela, eta, katolikorik "garbienak", Aitasantuari botatzen zioten kulpak. Ara Erroma bertako ormetan idatzirik agertu zan bertsoa:

"Pio per conservare la fede
perde la sede
Rio per conservare la sede
perde la fede".

("Pio (VI'ak) sinismena gordetzearren, Aulkia galdu zuan; Pio (VII'ak) Aulkia gordetzearren, sinismena galdu du")

Baiña Napoleon'en zakurkeri artan ez zuan Aitasantuak errurik. Samintasunik aundienarekin artu zuan berak ere autaketa aien albisteak, "Kostituzio-Elizako" Gotzaiak beren jokabide okerraren damua agertu bear zutela, aurretik agindurik bait zeukan, ta ezetz erantzun bait zuten Napoleon'ek aukeratutako 12 aietatik 10'ek' Amar auen ai de jarri zan gaiñera Napoleon bera, "un homme qui se r tracte se d shonore", ("bere burua ukatzen duan gizonak bere izen ona ukatzen du"), esanaz.

Bendeetarren kapillau izandako eta orain Napoleon'ek Orleans'ko Gotzai izendatutako Bernier mingain-zuriak konpondu zuan, itxuraz beintzat, auzia. Ona nola: Isiliezko damu-agertze bat naikitat onartzeko Aitasantuaren "Legatus" edo "Bidaliari", eskatuaz. Bidali au, Caprara Kardenala dugu, zuan kemena arras txikia zala ondo jakina zalako, Napoleon'ek berak kargu ortarako eskatua. Zearo ikaraturik zegoan une artantxe Caprara, Napoleon'ek izugarrizko asarraldi batean Konkordato guztia porrokatuko zuala adierazi ziolako. Errez sinistatu zuan, gauzak okerrago ez ipintzeko, Gotzai zismatikoei ixillezko damu bat eskatzea naikoa izango zala. Bernier berak artu zuan, damu ori eskatu eta damuaren ordeztu gotzai Aitasantuaren barkapena emateko eginkizuna' Ez daki inork nola bete zuan. Caprara Bidaliari idazki bat eman zion, Bernier berak bakarrik izenpetua, oraindik gogor zirauten azkeneko sei Gotzai zismatikoek "eskaten zitzaiena bete zutela" esanaz. Baiña ori gezur borobilla zan, sei Gotzai egoskor aiek laister jakiñarazi zuten bezala. Ordurako, ordea, artua zuten Bidaliaren eskutik, bakoitzak bere gotzai-kargua.

Geldi gaitezen unetxo batean gertakizun auetan pentsatzeko. Sei Gotzai auen arrokeriak ez dio KostituzioElizari ospe aundirik eman;

baiñan, ezta gure Eliza Katolikoari, Aitasantuaren eskarira beren gotzaigoa laga nai izan ez zuten beste gotzai borboitar aien setakeriak ere, bereiziki, aietako bat, azkenerarte, "Petite Eglise" aren alde egon zala oroitzen ba'dugu. AIa ere ez ziran gaiztoak gizon aiek. Gotzai onek ez zuan "Eliz Txikiarentzat" gotzai berririk sagaratu, ori kanon-legearen aurkakoa izanen zalako. Pozik galdu zuten bizia Konbentzioakoan eliz-gizon erregezaleek gillotinapean "federik ez ukatzeagaitik". Bizia galtzeko une-unean ipiñi zuan bere burua, —Paris'ko Komunaren aurrean—, Grégoire "Gozzai zinañtuen" buruzagiak, sinismenaren alde eta jakobatarren zipozkeriaren aurka ain bizkorki itzegin zuanean. Baiña bai batzuk ta bai besteak, Gotzai aiek geiago ziran mundu ontako politikolari, beste munduko ordezkari baiño' iEz dago, zorionez, Elizaren jarraipena gizonen eskuetan!.

Alatagutziz, gizon auek politika baten serbitzura bait zeuden, askoz iguingarriagoak deritzaizkigu nork bere buruaren onturrea beste elbururik izan ez zuten elizgizonak. Pozgarria da, oso-oso gutxi izan zirala ikustea.

Ez dugu argi ikusten bi apaizen asmoa zer eta nolakoa izan zan ere. Baleike beren jokuaeren elburu bakarra Elizaren serbitzua izatea: aal zuten onenik Elizari eta Aberriari serbitzea. Bernier eta Maury dira bi apaiz oiek. Ezaguna dugu aurrenekoa. Vendée'ko guduan, erlijio ta politika-gaietan erregezaleen aolkulari nagusi eta gidari izan ondorean Errepublikaren aidera igaro zan; konkordatoaren osakundean bere jokaera ustelkoia nolakoa izan zan, aipatu dugu.

Askoz garrantzi aundiagokoa da bigarrena, Maury, oiñetako-konpontzaille besterik ez zan zapatari baten semea. 1784'ean egin zuten zapatarikume erne au Akademikoa, eta Iraultzaren asieran Nazio-Batzarkidea izan zan' Ez zan bildurtia' Izkera gogorarekin eraso zion Talleyrand'i, onek Elizaren ondasunak Laterriari ematea eskeiñi zuanen. i"Zorionak, Jaunak! Ez ditu aurrerapen txikiak egin Batzarre onek besteren ondasunak ebasteko moduan", oiua egin zien batzarkideei auek Talleyrand'en eskaria lege egin zutenean. Gogorak izan ziran Maury apaizaren itzak Batzarreak apaizei "Elizaren Kostituzioa", zin egiñaz, ontzat artzeko eskatu zienean ere: "Prenez-y garde, Messieurs, il est dangereux de faire des martyrs". ("Kontuz, Jaunak. Ondoren txarrak iekarzkizute martiriak egiteak"). Maury Batzar-Gelatik irten zanean baziran apaiz egoskor arrentzat, oiuka, eriotza eskatzen zutenak ere. Baiña, berak, Erroma'ra igesegin zuan.

Erroma'n Pio VI`aren adiskiderik maiteenetakoa izan zan, eta laister Goigotzai egiña, lenengo, eta Kardenal gero. Era berean zan

Koldobika XVIII Borboiaren adiskide laztana' Erroma'ko babes segurutik, eten gabe ari izan zan Frantzi'ko Errepublikaren aurka deadarka. Bera zan, ludi guztiaren aurrean, Erregenai Borboiaren zaindaririk bizkorrena, yayoena, seguruena. Orregaitik egin zuan Koldobika XVIII'ak bere Ordezkarri, Pio VII'a aukeratu zuan Konklaberako, ikusi dugun bezela. Konklabe artara sartzera zijoanean idatzi zion Kardenal Ordezkarri onek, pozez beterik, bere "errege" Koldobika XVIII'ari, "Aulki Donenaren politika oso-osoan bere alde zeukala zalantzik gabe".

Santutzat zeukan kristaudiak Frantzi'ko Maury Kardenal erbesteatua. Ala ere, igarri aal izan zuan Pio VII Aitasantu berriak aren donatasuna ain-ain garbia ez zala; Paris'era Napoleon koroiatzera zijoanean, maltzurkeriz beterik alderatu bait zitzaion Maury "santu" ura isekagarri zan eskari bat egitera: Napoleon'en aurrekoek eraildako kristauen alde Paris'ko Karmeldarren elizan Meza bat esan zezala eskatzera.

Andik laister zan Napoleon Inperatorea bera Milan'en, Itali'ko Jaurerri berriko Buruntza artzera etorria, ain zuzen: Lonbardi'ko erregeen "Burnizko Koroi" zaarra artzera etorria! Elizgizon asko urbildu zitzaion, Itali'n, agur egitera. Elizgizon auen artean baita Maury Kardenala ere, borboitarren aingerua. Bost minutu egon zan Inperatore Bonapartetararekin izketan. Irten zanean... izearo bonapartetar bihurturik irten zan! "Irabazi nau, oso-osorik, betirako", zion, bere aldakuntza zuritzearren. Ikusi aal izango dugu, nagusi berri onen esker ona irabaztearren, noraiño jetxi zan, eta nola lausotu zuan bere izenaren ospe ona.

—la bederatzi illabete luzatu zuan Napoleon'ek Konkordatoa Frantzi'ko lege aldarrikatzea. Denbora ortan tajutu zituan "les 77 Articles Organiques" edo "Ataltxo Eratzailleak"; Konkordatoaren erabii keta Frantzi'n nola eratu edo "organizatu" erakustera zetozen 77 arau nabarmenak' Talleyrand'en buruak pentsatu zituan, eta Portalis legiztilariaren lumak idatzi' Katoliko zintzoa zan Portalis au, baiña baita galikeri-zale garratza ere.

77 ataltxo oiek eta Konkordatoaren 17'ak, danak batera izan ziran Lege aldarrikatuak, guztiak batera, dokumentu bat bakarra izan balira bezala. Bere gaitasun guztia zikintzen zuan Napoleon'ek, Aitasantuak ezer jakingabe egindako maltzurkeri orrekin..., baiña bere serbitzura Jotzen zuan, era berean, Eliza betirako. Badakigu moralitatearen zentzurik ez zuala Napoleon'ek beiñere izan.

Zan guztia eta zuan guztia zor zion Iraultzari ordurako iruzur egin zion gizonak, izan ote zezakean kontzientziko kezkarik Elizari ere iru-

zur egiteko? Ala ere, bazuan, baike, Napoleon'ek bere izen onaren ar-
dura, baiña..., aren iritziz, onuragarri zan agintari batentzat, agintariari
indarra bizkortzen zion guzia. Ez dezagun aantzi, Makiabelo'ren mai-
tale ta komentatzaille izan zala Napoleon.

Aipatu oi dituzte edestilariek beste bi arrazoi ere Napoleon'en az-
pikeri beltz ura zuritzeko:

Bata; oraindik bi batzar Nagusietako lege-emailleak geienak
Elizaren etsai izanik, Konkordatoarentzat Batzar aien onespena ira-
baztearren sartu zituala, azpikerian, 77 artikulo aiek, Baleike; ataltxo
aiek erantsita ondorean ere 51 batzarkide autarkirik eman gabe geldit-
tu bait ziran autarkia aurka eman zuten 21'etaz gaiñera.

Bestea: Iñoiz ez bezelakoa zala une artantxe Aitasantuaren
aintza Frantzi'n; bere aginduz ainbeste Gotzairi kargua lagaaraztean,
berreun zati eginda utzi bait zituan Pio VII'ak "Eliz Galitarraren Esku-
bide" ziralako aiek danak. Jalki zioten ori belarrira Napoleon berari in-
guruko aolkulariek.

77 ataltxo aiek ez dute banaka aipatzerik merezi, Elizaren lepora
jaurtitako 77 lokarri besterik ez bait dira. Ona garrantzitsuenak: Jaur-
laritzaren baimenik gabe ez zitekean Eliz-legerik argitaratu; Frantzi
guztian, Kristau-lkasbidearen liburua, berdiña izanen zan, eta Jaurla-
ritzak baitetsia; Jaurlaritzaren baimenik gabe ez zitekean kontzilorik
edo sinodorik egin; Teologi-lkastoleetan 1682'ko "Artikulo Gali-
tarrak", naitanaiez izan bear zuten erakutsiak eta onartuak; Gotzaiak
ez zezaketen Jaurlaritzaren baiezkorik gabe Seminarioko irakaslerik
izendatu."

Konkordatoa lege egin zuan egunean bertan, 1802'ko Jorraillaren
8'an, eratu zuan Napoleon'ek Protestalarien Elizen bizimodua ere;
eta, bearbada, auei Eliza Katolikoari baiño geiago lotu zizkien eskuak.
Badira, katoliko ta protestaiariak alkartuta Lateral-Eliz frantzitar bat
osatzea pentsatu zuala diotenak ere. Ez dirudi egia, ez bait zan Napo-
leon ain ergela' Iñoiz olako gauzarik aipatu bazuan, Aitasantua edo
Gozaiak izutzeko bakarrik egin zuan aipu ori.

Urte artako Pazko-Egunean, Paris'ko Notre Dame'n, Caprara Kar-
denalak esandako meza batek, eta ondorean abestutako Te Deum ba-
tek ospatu zuten Konkordatoaren aldarrikatzea. An ziran Errepublikar-
ren Agintariak, Kontsul Nagusia, Napoleon, buru zutela. Aspaldiko ur-
teetan ez zan orrelakorik ikusi. Asarre ziran iraultzalari ezkerkoiak,
baiña pozik, oso pozik zegoan Paris'ko erria. Ostera —inoizbait!—,
katolikotasuna zan Frantzi'ren erlijioa.

Ez zan ain betea Pio VII'aren poza. Altxa zua oiva 77 artikulo aien aurka. Baiña pozik zan, eta egitan pozik bera ere; naiz oraindik lotua, pakean beintzat!, ikusten bait zuan, azkenean, Frantzi'ko Eliza' Ez zion Napoleon'i bildurrik; kupida zion. Eta baita esker ona ere; bere maltzurkeri ta trakeskeri guztiekin, Napoleon'ek egin bait zuan posible pake ori, eta Frantzi'ko Elizaren zismaren amaia, eta Frantzi'ko uri ta urixka guztietan katolikotasunaren berbizkundera.

Ta... a! nolakoa izan zan berbizkunde ura. Bazirudian erriak erlijio-gosea zeukala. Ala izan zuan ain arrera ozena, Chateaubriand'en "Le Génie du Christianisme", "Kristautasunaren Barne-Indarra", deritzaion liburuak.

FRANTZIKO ELIZAREN BERBIZKUNDEA

Iraultza ez zan Elizaren aurka ekiteko sortua. Maury apaizak, "Elizaren Kostitutzio Zibilla" indarrez ezarri nai zuten batzarkideei, martiriak egin izatea damutuko zitzaie la oi u egin zienean, "ez zuala iñork martirik egin nai", erantzun zioten aiek; eta egia esaten zioten. Baiña martiriak egiteko bidean zeuden arrezkero berak jakin gabe; Elizari, kanpotik, Aitasantuaren baietsirik gabe, zisma-usaieko Kostitutzio bat indarrez sartuarazi naiean bait zebiltzan.

Frantzi'ko Iraultza, gaiñera, indarkerizko iraultza izan zan beti. Indarkeriz ezarri nai izan zuan demokrazia, ortarako askotan egiazko demokrazia porrokatuaz. Ala egin zuan Belxika'n' Batez ere, ala oinpetu ta zapaldu zuan Laburdi, Benaparoa eta Zuberoa'ko Eusko-Legezarra. Ala, Frantzi'n bertan 1797'ko autaketak eskubitarrek irabazi zituztenean, Direktorioak ez zien, demokraziaren legeen araura, jaurlaritzariak eskubitarrei eman; aldez beste, len baiño makurrago zigortu zituan. Orduan eskatu zien apaizei erregetzari betirako gorrotoa izateko ziñegitea ere.

Egia da, demokrazia babesteko, indarra erabillibearren aurkitu zala askotan Iraultza, Europa'ko Errege danak, eta Frantzi'ko borboitarrek, Errepublikaren aurka, indarkeria erabiltzeko gerturik bait zeuden beti. Eta, inolako indarkeria gaiñera! Baiña jende guztia indarrez errepublikazale egin nai izate ura iguingarri zitzaie erregezaleei. Bazuten aiek beren politika aurrera atera nai izateko eskubidea; bai noski!, Errepublikak, ordea, ez zien orrelako eskubiderik ezagutzen, bai bait zekian borboitarrek jaurlaritza artzen ba'zuten, errepublikazale guztiak urkamendira joan bear izango zutela, eta Demokrazia betirako porrokatua izango zala.

Korapillo ortan, erregezaleek ez zuten, beren eskubideak egitarraazteko, indarkeria beste biderik aurkitzen, eta orixe egin ere egin zuten. Frantzi'n, berriz, Gotzai, eta katoliko ospetsu danak erregezale bait ziran, nai ta naiezkoa zan azkenean Eliza ta Errepublikak alkarri eraso bear izatea, eta orixe gertatu ere gertatu zan' Errepublikazaleek, Eliza zapaltzean demokrazia salbatzen zutela uste zuten; Elizako jen-

dea berriz, Errepublika desegitearekin Sinismena salbatzen zuala sinisturik zegoan.

Eta aro artan agintaritza Errepublikak zualako Eliza izan zan kolpeak eraman zituana. Ala ere, naiz urte batzuetan argitara agertzerik izan gabe bizi, ez zan Elizaren gogobizitarik eten. Barrenagotu, garbiagotu eta sendoagotu egin zan. Martirien odolak ere, indar berria eman zion; gillotinan ildako millaka aien artean asko Sinismenaren martiri il bait ziran'

Ipiñi ditzagun ziñopa aien eredu, elertiak ain ezagun egin dituan Compiègne'ko 16 lekaima karmeldarrak' Konbentuak galerazi ondorean alkaturik jarraitu zutelako izan ziran "Iraultzaren Epaitegira" eramanak. An, "fanatikeriz" beterik zeudela oiuegin zien Fouquier-Tinville epaileen lendakariak.

—"Ta...izer da "fanatideri" dalako ori?, galde egin zion xalo-xalo lekaima aien Ama Zuzendariak"—"Erabilli oi dituzuten oitura ezerez oiei diezuten eraspene zoroa da zuen fanatikeria", erantzun zien arek.—"Aizpak'..! Entzun al duzute?, erlijioa malte degulako galtzen gaituzte eriotzara...! Zorionekoak gera, Jainkoaren maitasunaren omenez gure bizia eman dezakegulako" Urkamendiaren oiñean Lekaima-Eskeintzak ber-eginda, "Veni Creator" abestuz igo zituzten gillotinarako maillak. Azkeneko lekaimetxoari lepoa moztu zioten arte ez zan ixildu abestiaren doña.

Berdin-berdin mereziko luteke aipurik goresgarriena beste anai dietako elizgizon eta emakumeek. Eta, batez ere!' apaizek!, Frantzi guztian, bildurrik gabe, ixilpean meza ematen, sakramentuak egiten, gaixoei eriotz-orduan laguntzen, eten gabe ari izan ziran parroki aundi eta txikietako Apaiz Jaunek. Berak ziran, jakituriz ere Frantzi'ko Elizak zuan jende-motarik prestatuena' Berak izan ziran Frantzi'ko laterkide••-sailik kementsuena ta bildurrik gabeena ere. Askota-asko igo ziran urkamendira. Danak aipatzea gauza eziña litzakelako, gogora dezagun danen omenez, isekaz mezako jantzitan urkamendira eraman zuten Noël Pinot' Bere burua ala jantzirik ikustean, "aitaren" egin eta, "Intro bo ad altare Dei", orduango Mazaren sarrerako itzak, patxada osoan esanaz igo zituan urkamendiko maillak, egunero alderekoak igotzen zituan bezala: "Urbildu nadin Jaungoikoaren aldarera" ,Nola aantzi Salignac-Fenelon maitagarria, "L'Oeuvre des Petits Savoyards" edo "Sabotitar txiroen Ekintzaren" asmâle eta zuzendaria? 80 urtetik gora zituan eriotz-epaia eman ziotenean. Erailbearrak eramateko erabiltzen zuten gurditik erriari alaiki sermoiegiñaz egin zuan gillotinarako bidea.

Askoz gutxiago izan ziran erlijio utsezko arrazoiengaitik eraildako kristua sekularrak: amarreko batzuk bakarrik. "¿Es-tu fanatique'?". ("Fanatikoa al aiz"?), galdetu zior aietako bati, Lyon'en, epailleak. "Je serai tout ce que vous voudrez, mais je suis catholique"; ("Deitu nazazu gura duzun bezala; ni katolikoa naiz"), erantzun zion arek' Ta orretxegatik, katoliko izateagaitik, il zan gillotinan'

Auroze, Lyon'go salereoslea, zan, ziñopa bikain ura.

Naitanaiezkoa zan martiri aien itzak eta odolak, erriko jendeen biotzetan sakonki sartuta, fruitu ugariak eman bear izatea.

Baiña, ¿deitu al daitezke martiri, kanon-legearen araura, gillotin-an ildako kristau aiek?.

Ariñegi eman zion izen onuragarri ori Koldobika XVI Borboiari, 1793'ko Garagarrillaren 13'ko kontsistorio-itzaldian, Pio Vi Aitasantuak' Gaiñera, Klermont'eko gotzaiari "al zuan bezain laister ostera Frantzi'n katolikotasuna ezartzeko" gerturik zegoala idatzi ziolako kendu ziotela, dio, iraultzalariek bizia' Ez dio Aitasantutzari omen aundirik egiten Pio VI'ak arinkeri onekin. Aitor dezagun, ala ere Koldobika XVI'a gizonki eta, batez ere, kristauki il zala gillotinan.

Egia da kristau aietako askok, kristau ziralako bakarrik galdu zutela bizia. Egia da, baita ere, beste askok salbatu izanen zutela lepoa, epailleen aurrean sinismena ukatu izan balute, baiña egia da, alaber, Errepublikak ez zituala, kristau ziralako erail, Eliz osoa erregezale eta errepublikaren arerio agertzen zitzaiolako baizik. Orregaitik, VI Pio baiño egokitasun geiagorekin mintzatu zan XVI Koldobika'ren arreba gaztea, Elizabete Printzesa, espetxean, eriotzara galdutako bere lagun izutuei itz aukeratu esan zizkienean: "On n'exige pas de nous, comme des anciens martyrs, le sacrifice de nos croyances; on ne nous demande que l'abandon de notre misérable vie. Faisons à Dieu ce faible sacrifice avec résignation"; ("Ez digute guri, antziñako martiriei bezela, sinismena ukatzerik eskatzen' Bizitza oiñazegarri au utzibeara bakarrik eskatzen zaigu; egin dezaiozun gogo onez Jaungoikoari emaitza koxkor ori").

"Kanon-legezko" martiri izena ez ba'da ere, merezi du, beintzat, "santu" izena orrela mintzatu zan neskatiak' Ta orrela deitu zion Pio VII'ak, Napoleon'en koroiazioan, Paris'en ziardun bitartean bizitzeko, neskatiaren gelan oiña ipiñi zuanean: "Sancta Elisabetha".

Elizabete izan da Borboitarren zuaitzak emandako ziturik ederrena. Beste sen ide guztiak erregearen aldetik igesegin zutenean, bera gelditu zan bakarrik, anaiari eta koñata doakabeari laguntzako. Bera izan zan Koldobika XVI'aren eta Mari Antoniete'ren aingerua' Berak

ats eman zien espetxean eriotzaren zai aurkitu zituan guztiei. "Oker dabilta gure erailleak, baiña berak jakiteke. Ez nuke, iñolaz ere aiek zigortzerik nai, aiek Jainkoagana eramatea baizik", esan oi zien espetxekideei' "Jainkoa-baitako zorionera zoaz; seta mundu zeken ontan laga nai zenduke zure semea"? esan zion semearekin batera il bearrak samintzen zuan ama beti. Kristau-literaturako loretxo pitxia da, eriotza onartzeko idatzi zuan otoitza' Beste ogeitairukin eraman zuten urkamendira' Bera erail zuten azkena. Guillotinak igo ta jetxi ziar-dun bitartean, —ekiñaldi asko izaten bait ziran maiz, lepo bat ebakitzeko—, Elisabete, astiroastiro "De profundis" salmoa esaten aritu zan' Guillotinapeko zuloan burua sartzerakoan erailea arropa kentzen asi zitzaionean, bularra agirian gelditu zitzaielaren bildurrez, "au nom de votre mère, Monsieur, couvrez-moi", esan zion irriparez: "Zure amaren izenean, Jauna, estali nazazu"

⚪ Arrigarri al da erriaren biotzean kristau-fedeak sendo iraun izatea?. Gaiñera an zeuden beti, erriz-erri ixillean ibilkari, zorro ondo estalian sakramentuak egiteko bearrezkoa zan guztia eramanaz, Apaiz Jaun izkutuak, kristau-fede arri kemen berria emateko.

Apaiz auetako batek, René Berault'ek asmatu ta antolatu zuan lekaime-talde berri bat, jakobatarrak gogorren ari ziran une berean: "Mariaren Biotz Deunaren Alaben Lagundia"; "Les Filles du Sacré-Coeur de Marie". Badu merezimendurik, apaiz onek!, eta baita bere neskatz aietako bakoitzak ere.

Geroxeago agertu ziran beste bi Lagundi: "Les Prêtres" (gizonezkoentzat), "les Filles" (emakumezkoentzat) "du Coeur Immaculé de Marie": (Mariaren Orbangabeko Biotzaren, Apaizak", eta, "Alabak"). Biak, Clorivière apaizak asmatuak'

Garrantzi aundikoa izan zan beste apaiz baten asmakuntza ere. [insolas, Lyon'go eliz-barrutiko Ordezkarri Orokorra, izan zan apaiz au. Bere eliz-barrutia "mixioketarako lur-zatitan", eta bere apaiz urriak, "mixiolari taldetxoetan" banatu zituan, sail bati lur-zati bat emanaz, an erritik-errira izkutuan ibilliaz, beren eliz-lana egin zezaten' Errezago zitzaien, orrela, aparzei beren buruak izkutatzea, eta jarraikorragea zan eliz-lana; naiz taldetxo bat iraultzalari etsaien eskuetan erori, besteek aske jarraitzen bait zuten' Orrela jaio ziran "Lansolas'en Mixioak", eta laister zabaldu ziran ia Frantzi guztira'

1795'ear., Direktorioak agintzea artzean, erlijioarentzat lasaitasun geixago ikusi zan bezain laister, an ditugu ostera Frantzi'n, len erbestera igesegindako apaizak, —iapaizak betil—, Gotzaiek naiago izan bait zuten atzerriko eskiertasun goxoan jarraitu.

Izan zan, ala ere, Gotzai kementsu bat edo beste. Auen artean, Maille de la Tour-Landry izan genuan bizkorrenetakoa' Bera asi zan, izkutuan, apaiz berriak sagaritzen'

Frantzi'n bertan bezala, artu zuan indar berria Elizak Frantzi'k be-
reganatu zituan lurraldeetan ere: Belxika'n, Itali'n, Suizi'n, Rin-Ibaia-
-arterako Alemani'n... Ona zer zion 1796'ean Clarke guda-buruzagi
gazteak, Errepublikaren gudarozteen agintari nagusi lez Itali'ra iritxi
bezain laister: "Nous avons manqué notre révolution en religion":
("Uts atera zaigu gure Iraultza erlijioaren arloan"). Eta, Errepublikaren
lurralde guztietan erriaren egiazko gidariak apaizak zirala aitortu on-
dorean, auxe dio: "On est redevenu catholique romain en France et
nous en sommes peut être au point d'avoir besoin du Pape lui-même
pour faire seconder chez nous la Revolution par les prêtres";
(Katoliko-Erromatar biurtu zaigu Frantzi'a eta agian Aitasantu berbe-
raren bearren aurkitzen gera, apaizen laguntzarekin Iraultza aurrera
ateratzeko.

Orixe bera ikusten zualako eginen zuan geroxeago Napoleon'ek
katolikotasuna, legez, Frantzi'ren erlijio: "frantziar geienen erlijio",
berak erabillitako izkeran. Clarke berriz, Feltré'ko duke izendatu zuan.
Garen begien zorroztasuna eskertzeagatik ote?

Napoleon'ek askatasuna eman zion bezain laister atera zan argi
ra Elizaren bizkortasun ura.

—Iriki ziran seminario berriak. Aita Emery'k, sulpizitarren zuden-
dariak, berririki zuan, ostera, Paris'en San Sulpizio'rena. Merezi-
-mendu aundiko gizona, Aita Emery; Iraultzako denboran elizgizonen
artean sortutako nâsketan, bera izan bait zan senik zintzoeneko gida-
ria. Paris'ko seminario onen atzetik, bereala iriki zituzten sulpizitarrek
beste amar. Zazpi izan ziran Donebizente Paul'ekoaren "lazaristek"
irikitakoak. Gotzai guztiak nai izan zituzten, irakasketarako apaizez
baliatuaz, beren seminarioak osatu. Orixe izan zan orduango gotzaien
kutizia. "Nere osaba Fesch kardenala eltzean sartuta lurrinzen
ba'duzute, lurriñ ordez seminarioak irtengo zaizkizute eltzetik", esan
oi zuan barrez Napoleon'ek'

—Askatasunarekin batera asi zuan Frantzi'ko Elizak kristau
erriaren gogo-lantzea, batez ere mixioen bitartez' Lansolas apaizaren
"mixioketak" ez zuan, Eliza aske zan ezkeru, aurrera jarraitzeko arra-
zoirik; bazuten, ordea, zer egiñik aski, emezortzigarren mendeko "erri-
-mixio" zaar aiek, eta berealaxe asi ziran apaizak ekite ortan. Eta, no-
lako erantzuna eman zion erriak mixiolari aien deiari."! Alako jende-
tza,, biltzen zirala ikusirik, ikaratu zan Fouché'ren inperio-ertzaindia.

Ez zan Napoleon mixioak osoro debekatzera aursatu, baiña mixioei ainbat eragozpen ipiñi zielako, ia erabat geldituarazi zuan mixioketa "bildurgarri" ura, "atsedenik gabeko izlari ibiikari aiek ezertarako onak ez zirala", ("bons à rien"), esanaz' Bazuan, noski erriak, la amar urteko legorte-ondorean, Ebangelioko uren egarria...!

—Erlijosoen Lagundien berbizkundera ere, Frantzi'ko kristautasunaren birjaiotzaren adigarri deritzaigu. Ots, ordea! Emakumezkoen Lagundiei bakarrik eman zien Napoleon'ek bizi aal izateko baimena gaixotegietan eta neskatoen ikastoletan lan egiñaz onurakor izango zitzaizkiola uste zualako. Napoleon jausi zanean, lekaimeak baziran 12.426. Ursuletarrak, Donebizente'ren "Karitate-Aizpak", Karmeldarrak eta, eta, eta,".

Napoleon'ek ez zuan ulertzen Lagundi-ugaritasun aren arrazoa, eta lekaike danak, monja-sail bereizi aiek, gudarozte baten antzera, danak Lagundi bakar batean batu nai izan zituan, eta Lagundi ori, "Sa Altesse Imperiale Mme. Letizia'ren" zaintzapean ipiñi: Bere amaren zaintzapean. Ez zekian Napoleon'ek lekaimeak zer diran! Aitasantu batek baiño geiagok nai izan zuan, leen ere, batutze ori bera lortu. Danek uts egin zuten: Aitasantuek, eta Napoleon'ek'

Gizonezkoen Lagundietzat, ez zan Frantzi berrian tokirik. Naiz Pio VII'a bera beneditar izan, ez zuan, konkordatoaren bidez, Otoitz Utseko Lagundientzat iaretasunik lortu. Ain zuzen, beneditarrek, Aitasantuaren "anaiek", bazituzten Frantzi'n 1.500 etxe Iraultza asi zanean, baiña 30 bakarrik Napoleon erortzean; eta auek ere ez Inperatore Bonaparte'tarra aien adiskide izan zalako; "lekaideak eta aritzak amaiezak diralako" baizik, Lacordaire'k bein esan zuan bezala' Napoleon'entzat lekaide guztiak "alperrak ziran eta alperrikakoak".

Begi alalagoarekin begiratu zien, Napoleon'ek, erakusketan ari oi ziran Lagundiei, auek osaba Fesch kardenalak adierazi zion bezala, "Latterria diru-gastatu-bear gaitzetik libratu zezaketelako". Era berean abegi ona ipiñi zitzairen Atzerriko Mixioetarako Lagundie ere, bere aundikeriametsak betetzeko auetaz baliatzea pentsatzen bait zuan Bonaparte'k. "Beste lurraldeetako izkutuak jakiteko ondoondo etorriko zaizkit", —esan oi zuan—. "Jantziak babesten ditualako, berdin gabeak dira lurralde aien azterketarako. Salerosketaren onerako eta politikaren asmoetarako, albistari egokiak izanen ditut" Orrela izan ziran onartuak "Kristau-Ikastoletako Anaiak", "Pauldarrak", "Gogo Deunaren Aitak" eta "Atzerri-Mixioetako Aitak".

Beste Lagundietzat ez zan errukirik izan: "Aski ona da nere Apaizdi sekularra, (mon clergé), eta ez dut mamorru (énergumenes) oien

bearrik. Ez bait ditut beren gogabideak ezagutzen ere"!

Orixeri zion bildur Napoleon'ek: Prailleak aren esanera baiño Aitasantuaren esanera geiago egongo ziralar! Apaizak menderakoia-goak izango zitzaizkiola uste zuan. Ez zuan apaiz-jendea ezagutzen-da, oso ibilfi zan oker, berak aitortu bear izan zuan bezala: "Irrist egin dut' Uste nuan nik apaizak beste gizonen antzekoak zirala..., baiña ez dira ala' Nazio baten altzoan beste "nazio" bat osatzen dute apaizek' Aien egiazko aberria Erroma bakarrik da. Ez dezakegu alkar ulertu apaizek eta nik". Goratarre aundia da ori Frantzi'ko parroki-apaizentzat. 40'000 ziran auek 1808'an eta ederki lan egin zuten apostolutza-mota guztietan, eta baita Lagundi berriak sortzen, —edo ta, sortzaillei laguntzen.

Ona, iraultz-aroko Lagundi-Sortzailerik ospetsuenak: Coudrin: ("Picpus" deritzan Lagundia), Ander Fonet Donea: ("Gurutz-Alabak"), Sofi Barat Donea: ("Biotz Donearen Alabak"). Ta, sortu zitzaizkigun orduan beste lagundi batzuk ere, naiz aipatutakoak bezain ezagunak ez izan.

Ona berriz orain, Iraultz-aroaren amaieran bertan, Napoleon jausi ta bereala, Frantzi'ko Elizak eman zizkigun Sortzailleen eta auen Lagundien izenak: Jon Mari Lamennais: ("Kristau Irakasketarako Anaiak"), Bordele'ko Chaminade: ("Marianistak"), Martzelino Champagnat: "Anai Maristak"), Jon Klaudio Colin: ("Aita Marsitak"), Eujenio Mazenod ("Mariari Eskaiñiak")...

Gotzaien menpekoak ere zenbatuta, izan ziran laureun, iraultzakoan Frantzi'n sortu zitzaizkigun Lagundiak: Iraultzakoan edo Iraultza amaituta bereala. Ez zegoan noski antzurik, loredi bikain ugari ura er-naarazi zuan kristautasuna! Ezta're, ez ziran noski motelak lore aiek sortu aal izateko Frantzi'ko Eliza zaindu eta landu zuten Apaiz Jaun agurgarriak.

Ots, gaiñera!. Orduantxe asi zan kristau sekularren mobimentua bera piztutzen' Apaizak egon ziran mobimentu orren azpian ere: Fournier, Boulogne, eta batez ere Bertier de Sauvigny eta Frayssinous' Lau milla entzule, Ikastola Nagusietakoak geienak, bildu izan zituan onek bere itzaldietara!

Naiko burukomin eman zieten apaiz auek Fouché'ri eta bere ertzaiñei, Fouché, orain, ain iraultzalari zakarra izan ondorean, Napoleon Inperatorearen ertzaintza-ministroa bait zan.

Ala ere ez zuan Elizak dana lorea izan Frantzi'ko baratzen; izan zan an arantzik aski ere!

Burgesitarrak, eta gudarozteko buruzagiak, eta baita Unibersitateko agintari ta irakasle asko ere, jainkogabeak ziran; Gobernuko jendeak, beste ororen gaindik, Napoleon'en serbitzura zeuden; eta okerragoa dana, Eliza zearo loturik zegoan Napoleon beraren mendera. Mendetasun au eskiertzeko Ministeritza berri bat sortu zuan onek gobernuaren altzoan: "Le Ministère del Cultes"; Gurketa-Auzietarako Ministeritza. Beti sekular bat izan oi zan ministro au, baiña Gotzai guzien Gotzai Guren bait lizan agindu oi zien, edozer gaietan, Frantzi'ko elizgizonei.

Ertzaintza-Ministroa bera ere, oratoriotar izandako Fouché sinismen-gabea, maiz sartu oi zan gotzaiei zer egin aginduaz.

"Zer ikusirik asko dute, Jaunak, zuen egitekoak eta nereak, —idatzi zien gotzaiei bere aurreneko eskutitzean Fouché'k— "elburu bera bait dugu zuek eta nik: zuzenbidea erakutsiaz eta erriko pakea zainduaz Inperiotzaren sendotasuna lortzea".

Onde ulertu zuten Gotzaiek Ertzaintzarako Ministroaren erakusketak. Ona, Maury Kardenalak, "Borboitarren aingeru" izan zan arek berak, Paris'ko Goigotzaigoa artu zuanean esandako itzak: "Gaur, —egun artan izan bait zan Paris'ko Prefecto edo Jaurlaria ere izendatua—, gaur eman dizkio Inperatoreak Uriari onek bearren dituan bi gauzak: Gotzaia eta Jaurlaria. Ertzaindi sendo batekin eta apaizdi egoki batekin ez da erriaren pakerik faltako; "car un archevêque est encore un préfet de police!" (Goigotzaia bera ere ertzaindiaren Buruzagi bat bait da").

Jaso zuan erriak Maury'ren gogoeta. Ala deitu izan zitzairen urte aietan danetan Gotzaiei, "prefets en soutane": "sotanaduten ertzainburuak". Ain zuzen orduantxe asi ere bait zan sotana, apaizentzat obligaziozko jantzi biurtzen.

Izketa utsa baiño zerbait geiago bazan Maury'ren esaria. Pozik ari izan ziran Gotzaiak pakea, —"l'ordre"—, bear-bearreko gauza zala bein da berriro erriari oi egiten eta naitanaiezko soldadusketa kristautentzat obligaziozkoa zala erakusten; eta baita ertzaindiari "les mauvais esprits", "pertsone biurriak", onera erakartzeko gogo osez laguntzen ere.

Mingarriagoa da oraindik Elizaren askatasun donearen maitaleentzat, Gotzai aiek Napoleon'ek osatutako "Catéchisme imperial" edo "Imperioko Kristau-lkasbidea" onartzean agertu zuten menpetasun lotsagarria. Ez zion inork, politikerez beterik zegoan idazki arri muziñik egin; ez zion akatsik billatu' Portalis galikerizalea, orduan "Gurketen-Ministro" egiña, izan zan katekisma ura gertu bear izan

zuana; eta lan au egiteko bere illoba D'Artros kanonigoa eta Bernier, "bendeetar" izandako apaiza, orain, Gotzai izendatu berria, aukeratu zituau. Irurak ziran Napoleon'en serbitzura saldutako gizonak; eta baitipat Napoleon'en nagusitasuna sendotzeko eratua zegoan idazki bat antolatu ziguten' Artarako Bossuet'en Kristau-Bidea artu zuten oiñarri, baiña Gotzai teokraziale aren erregekeria neurri gabe anpatuaz. Puntu bat (ortu nai izan zuten katekisma berriaren bitartez, Napoleon agintaritzat kristau guziei artuarazi naiaz landa: Frantzi'ko kristauei, ezarri berria zan eta danak ain gorrotu zuten "bearrezko sordadusketak" ontzat arreraztea. Ortarako zalantzarik gabe aitortuko dute egia ez dana: soldakusketa ori kontzientziak agintzen duan gauza dala.

Ikus "Kristau-Ikasbide" aren iru galdera:

"D' —Quels sont les devoirs des chrétiens à l'égard des princes qui les gouvernent, et quels sont en particulier nos devoirs envers Napoleon I, notre Empereur?, (G. —Zeintzuek dira kristaek agintariei zor dizkieten bearrak eta batez ere guk Napoleon I gure Inperatoreari zor dizkiogunak"?)

"R. —Les chrétiens doivent aux princes que les gouvernent, et nous devons en particulier à Napoleon I notre Empereur, l'amour, le respect, l'obeissance, la fidélité, le service militaire, les tributs ordonnés pour la conservation et la défense de l'Empire et de son trône: nous lui devons encore des prières ferventes pour son salut et pour la prospérité spirituelle et temporelle de l'Etat". (E. —Kristauek agintariei, eta batez ere guk Napoleon I gure Inperatoreari, auxe zor diegu: maitasuna, begirunea, aginduak betetzea, zintzotasuna, soldadusketa, eta zergak ordaintzea aren inperioa eta errege-aulkia sendotu eta babesteko; alaber, aren osasunaren alde, eta Laterriaren gorputz-izpirituen bizkortasunaren alde biotzez otoitz egitea").

"D. —Pourquoi sommes-nous tenus de tous ces devoirs envers notre Empereur?" (G. —Zergaitik diogu guk Inperatoreari orrelako zorra"?)

"R. —C'est, premièrement, parce que Dieu, qui crée les empires et les distribue selon sa volonté, en comblant notre Empereur de dons soit dans la paix, soit dans la guerre, l'a établi notre souverain, l'a rendu le ministre de sa puissance et son image sur la terre. Honorer et servir notre Empereur est donc honorer et servir Dieu même; (E. —Batez ere Inperioak egin, eta nai duan bezela banatzen dituan Jaungoikoak, gure Jaun egin dualako, eta bere Almenaren ordezkari eta bera berberaren iduri ipiñi digulako. Ala, gure Inperatoreari goratzarre eta serbitzu egitea, Jaungoikoa bera gorestea eta serbitzea da")'

"D. —Que doit-on penser de ceux qui manqueraient à leur devoir envers notre Empereur"? ("G. —,Nola epaitu bear ditugu gure Inperatoreari zor zaizkion bearkunak betetzen ez dituztenak"?)

"R. —Selon l'apôtre saint Paul, ils résisteraient à l'ordre établi de Dieu même et se rendraient dignes de la damnation éternelle. ("E. —Paul Bidaliak dionez, Jaungoikoak berak ezarritako erakuntzaren aurka ibilliko lirake, eta betirako ondamenaren gai egingo".)

Frantzi'ko txoko guztietan erakutsi zan Katekisma ori, gotzai guzien onespelik beroenarekin, eta beste iñork baiño obeto bete zuten Gotzaiek berak liburu artan Inperatoreari-buru agintzen zana.

Ez dira aztu oraindik gure errian Españi'ko Gotzaiek Franko diktatoreari esan oi zizkioten txepelkeriak. Bâ..' txepelkeri oiek berak, eta gaiñera itzez-itz ia-ia berdiñak, esan oi zizkioten bein eta berriro orduango Frantzi'ko Gotzaiek Napoleon'i, aren goratarrea egiteko. Entzun: "Jainkoaren Ardura edo Probidentziaren doaia", omen zan Napoleon, eta "Salbatzaillea"; "Jainkoak bereiziki bidalia"; "Elizaren Salbatzaille edo gaizkatzaillea"; "Kostantin Berria"; "**Jainkoak berak** inperiotzarako gurtzia"; "Erri Donea askatzera datorren Ziro berria", "Gure denboretako Karloman"; "Oraingo Alexander Aundia"; "L'homme de la droite de Dieu", "Jainkoa'ren eskubiko gizona", au da: "Jainkoa'ren eskubia dan gizona", edo "Jainkoaren indarra berekin duan gizona"; "Le Christ de la Providence": "JainkoArduraren "Kristo" a, au da, —"Kristos", "Igurtzia" bait da—, "JainkoArdurak Errege igurtzi digun gizona".

Inperatorearen edestian dana zala "jainkotiar, dana mirari" zion gotzai batek, Charrier de la Roche'k: "Tout est surnaturel, tout est **miracle**" "Vous êtes le plus parfait des héros sortis jusqu'ici des mains de Dieu": "Zu zera Jaungoikoa'ren eskuetatik orain arte irten dan gizandirik bikaiñena", esan zion Le Coz gotzaiak. Ez gaitezen, beraz, arritu lèn aipatutako Charrier de la Roche Jaunari onako ikaragarrikeri au entzuten ba'diogu: "Le grand Napoleon est mon Dieu tuteur", "Nere Jainko iagolea da Napoleon aundia".

Izkera txoro orren samintasun guztia txestatzeko gogora dezagun bein baiño geiagotan esan dugun auxe: Bere onturrerako gauzetan, moralitatearen zentzurik ere ez zuan gizona zala, goratarre oiek danak gotzai ergel aien ezpaiñetatik jasa zituan gizona.

Ergelak?, ergelak baiño geiago, noski, bildurriak, eta agian,... esker ona agertunaizaleak ere bai. Eta ez, bakarrik, ziran guztia Napoleon'i zor zielako; baita arek, Elizari, agirian bizi aal izatea biurto ziolako ere.

Onela dio "Inperioko Katekismoaren" beste punttu batek:

"D' —N'y a-t-il pas des motifs particuliers qui doivent plus fortement nous attacher à Napoleon I, notre Empereur?. (Ez al da Napoleon I gure Inperatoreari geiago lotzen gaitun beste arrazoï bereizirik"?)

O. —Oui: car il est celui que Dieu a suscité dan les circonstances difficiles pour rétablir le culte public de la religion sainte de nos pères, et pour en être le protecteur. Il a ramené et conservé l'ordre public par sa sagesse profonde et active; il défend l'Etat par son bras puissant; il est devenu l'oïnt du Seigneur par la consécration qu'il a reçu du souverain pontifice, chef de l'Eglise universelle". ("Bai, bera bait da gure asaben erlijio donea karriketara erakartzeko, eta erlijio orren babesle izateko, Jainkoak une garratz ontan aukeratutako gizona. Berak ekarri digu gizarteko pakea ere bere jakinduri sakon eta kemena bitarte. Eta Eliz osoaren Buru dan Aitasantuak sagaratu bait du, bera dugu guk guretzat Jainkoaren Igurtzia").

Zurikerizko mintzaeraz jantzirik gauza asko esaten dira "Katekismaren" erantzun ortan. Ona gauza oiek, azkenekotik asita:

"Eliz osoaren buru dan Artzai Gurenak sagaratu du (Napoleon) eta sagaratzeko orrek Jainkoare Igurtzi biurtu du"

"Bere Jakinduri sakon eta bizkorraz Napoleon'ek ekarri digu kaleetara erriko pakea; eta berak zaintzen digu pake ori";

"Aldi eta zori garratzetan, bera aukeratu du Jaungoikoak gure asaben erlijio doneari, agerian ari aal izateko eskubidea eman eta, gerra, eskubide ori Elizarentzat zaindu ta gordetzeko"

Daramakiten geiegizko loxintxakeriaz garbitu ezkeru, gauza oiek danak egiazkoak dira' Bai; ondo jakiña dugun gauza da, bere aundikeria puztutzeko bakarrik egin zuala Napoleon'ek ori dana, baiña, egin zuala beintzat, egia da; eta ez da arritzekoa Gotzaiak aren eginkizun oiengaitik, esker onez beterik egon izatea. Aitasantuak berak ere gorde zion beti, baita espetxean ere, esker on ori.

Gaiñera, Napoleon'ek, —italiarra izaki—, omenik aundienarekin artu ta artuarazten zituan Gotzai Jaunak; (eta baita Aitasantua ere; baiña au, alderik gabe, Frantzi'ko gotzaiak baiño ernegoa ta bizkorragoa zan).

Diruz." ez zien diru geiegirik Gotzai ematen: 15.000 franko, urteko, Goigotzai, eta 10.000, Gotzai. Apaizei, berriz, 1.500 edo 1.000 franko parrokoiei, eta 500 laguntzallea. Doidoidoi, eraz bizitzeko'

Parrokoak, 1808'an, 2.974 ziran; laguntzailleak, 29.680. Auetaz

landa (Frantzi'ko apaizak 40.000 bait ziran), 6.255 Laterriko dirurik gabe gelditu ziran' Esan leike beraz Frantzi'ko apaizak egiazko txirotasunean bizi zirala' Oroi dezagun 1789'ko "Batzar Kostituziogilleak", —diruak askoz geiago balio zuan unean—, apaiz bakoitzari, egoki bitzizeko, 2.400 franko urtean ezarri zizkiola'

Napoleon'ek, amasei milloi franko gastatu zituan 1.809'an Elizaren mantenu guztian. Ezer gutxi, diru arri atera zion probentzurako, ordurarte beintzat ez bait zan inoiz, errialde bateko Eliza agintarien esanera egon, Frantzi'koa Napoleon'en esanera egon zan bezala. Koldobika XIV Borboitarren jarraillerrik bizkorrena izan zan Bonaparte galiakeriaren arloan. Laterria zentralizatzen berriz, bere adiskide Robespierre-ren jarraile izan zan. Ala eraiki zuan, unibertsitate zar guztiak deseginda, Frantzi'ko Unibertsitate bakarra, unibertsitate berri onen fakultateak uri aundienen artean banatuaz. Unibertsitate orren menpean satu bear izan zuten Elizaren ikastetxe aundi; ta txiki guztiak, eta baita seminarioak ere'

Unibertsitate orren Nagusi, jakiña, Laterria zan: Napoleon bera; "despotikeri argituaren" denboran "Errege Eguzkia" baiño askoz geiago, Napoleon bait zan orain Laterria'

Orrela, Laterria, Gudaroztea, Ertzaindia, Unibersitate, eta Eliza bere eskuetan zitala, uste zuan Napoleon'ek munduaren jabe eginen zala. Baiña zutik zeukan aurrean beti Inghlanderrria; eta Inghlanderrria baiño menderakaitzagoa irten zitzaion Pio VII xalo, goxo, biguin, maigarria. Inperatore Bonaparte'tarrak baiño gogorragoa zuan izpiritua Aitasantu beneditarrak.

Baiña Aitasantuaz mintzatzen asi baiño len, aitortu dezagun, zabal-zabal, Bonaparte'ren Gotzai aiek gizon gaiztoek ez zirala' Alaiki artu zuten irabazi motzak eramazanzen zien biziera extua, ta erriak, orretxegaitik, Borboitarren denborako beste gotzai aberats aiek baiño askoz maiteago izan zituan. Lan asko egin bear izan zuten eta egin zuten, gotzai berri auek, jauretze, otoiz-toki, apaiztegiak, berriro antolatzen eta apaizak alkarren artean adiskidearazten ; 40.000 apaiz aien artean jende arras ez-berdiñak bait zeuden: konbentu itxietatik irten-dako prailleak, "ziñik egingabeko" borboitar borrokalariak, "ziñ-egindako" demokrazialeak, eta iru sail oietatik sortu-berri ziran bonapartetarrak'

"Ziñegiñei", Caprara'k, damua agirian agertzea eskatzen zien. Ez zegoan ortan Napoleon, ez bait zan alperrik jakobatarra izan. Orrela, apaiz aiek Konkordatoaren agindu guztiak ontzat artzen zituztela ziñ egitearekin conforme gelditu bear izan zuan Caprara'k, naiz ziñ utsura, Kanon-legeen argira, naikoa izan ez.

Apaiztasuna lagata ezkondu ziran apaizekin oso biotz bera izan zan Pio VI l'a' Errez eman zien beren egoera Eskontzako Sakramentua-
ren bidez konpontzeko baimena. Errexegi, Fratzi'ko Elizan bertan
oraindik bizirik jarraitzen zuten erdi-jantsenitar ugarien iritzira.

Lan ederra egin zuten Gotzai aiek apaizgaiak billatzen, Frantzi`ko
apaizdiaren irurden bat irurogei urtetik gorakoa bait zan. Uzta ederra
jaso zuten lankera ortan, Napoleon agintzen egon zan amalau urtetan
6.000 apaiz berri sagaratu bait zituzten. Gutxi dirala? Bai, noski, Bor-
boien denborakoeekin neurtu ezkeru, orduan urte batean bakarrik sa-
garatzen bait ziran geiago. Ez ordea; Napoleon'en denborako gizon-
-urritasuna gogoratzen ba'dugu, Napoleon'ek Frantzi'tik landa bait ze-
rabilzkian gizon gazte guztiak, eta bere aundikeriaren zoroak eragin-
da, neurri gabe ari bait zan Frantzi'ko gaztediaren odola bazter g uztie-
tan, alperrik, kezkarik gabe ixurtzen. Pentsa: 500.000 gazte eraman zi-
tuan Errusi'ra; 15.000 bakarrik itzuli ziran bizirik. "Pour la Gloire"!
Aintza utsaren ornenez!.

Oroigarri da baita ere Gotzai aiek beren ardiengana urbiltzeko
izan zuten ardura' Napoleon'en osaba Fesch Kardenalak 50.000 kon-
firmatu zituan urte batean; "zin-egille eta baita apaizgoaren ukatzaille
ere izandako Primat'ek, 45.000; 20.000 Pindoll'ek illabete batean; La
Tour d'Aubergne'k, 10.140 zortzi egunean' D'Aviau'k, oiñez, makil bat
eskuan zuala eta baserritarren laguntza utsarekin, ibill zuan bere eliz-
barruti zabala; berdin egin zuan Lorena'n Jauffret'ek.

Erriko jendearen kuttuna izan zan beste Gotzai bat ere: Du Bourg,
erriz erri sernoilari euriz busti-busti eginda bein baiño geiagotan billi
ci zalako, agian.

Ez zuten orrelako gauzarik egiten Borboien denborako Gotzai
aberats aundiekiek. Lotsagarritzat epaituko zuten, ziurki, orrelako ibil-
kera. Orixe bera uste izan zuan Napoleon'ek ere, len aristokraziaren
etsai jakobatarra izandako Napoleon'ek' Ez zirala Gotzai ibilkari aien
jokaerak gotzaitasunaren izen onarentzat egokiak, bein baiño geiago-
tan agopeka esan bait zuan.

Iraultzalari Inperatore biurtutakoaren Gotzaiak, —bere Minis-
troak, bere Mariskalak eta bere Duke ta Konte berriak bezala—, apain-
tazunez eta kirkilieriz ornitutako gizonak bear zuten, Inperatorearen
disdira aundiagoa zedin'

Gotzai gaixoak! Jaurlaritzaren baimenik gabe beren elizbarrutiek
irtetzea debekatua zeukaten; beren artean batzarrik egitea ez zi-
tzaien zillegi; banaka-banaka deitzen zituan gobernuak Paris'era, ez
danak batean, Paris'en, alkartuta, isillezko bilierarik egin ez zezaten.

Eta ain aundia bait zan Gotzai aiek Napoleon'i zioten bildurra..., beren artean batak besteari idaztera ez ziran ausartzen."

Alatagutziz, bai bait du Gogo Deunak, Gotzai argalen gaindik bere Elizari ats emateko aala, sendotuaz ta bizkortuaz zijoan egunetik egunera Frantzi'ko Elizaren bizia.

Gaiñera, Gotzaiak argalak ba'ziran ere, ez zan, orduantxe, argala Elizaren Buru Nagusia: Pla VLI'a, arria ta xaloa, baiña biguiña bezain portitza' Aitasantu ura "berreun milla gudarien buruzagi balitz bezala" tratatzeko agindu zion Napoleon'ek, konkordatoa egiterakoan, Caucault bere enbaxalariari. Ta onek berriz, agindu ura ematen zion gutuna irakurtzean au esan omen zuan: "Nola? Berreun milla? Baita bosteun millaren jabe balitz bezala ere! Danok dugu gaur munduan Aitasantuaren bearra". Itxuraz, Napoleon bera baiño argiagoa ta burutsuagoa zan aren enbaxalaria; une artan, San Petersburg'etik Lisboa'ra Londres'tik igarota, mundu guztia bait zebillen Aitasantua irabazi naiean. Baiña VII Pio ez zan bere burua txurikerien truke saltzen zuan gizona. Ez orixe? Bedi gure omena Aitasantu Beneditarrarentzat!

IMPERIOA TA AITASANTUTZA AURREZAURRE

Bazijoan mamitzen Napoleon'en ametsa.

Bere etekiña besterik billatzen ez zualako, uko egin zion gazte-gaztetandik Kortzega bere aberriari, naiz bera kortzegatar askatasunzale borrokalarien semea izan'

Europa osoaren jaun da jabe, gizon gutxik lortu aal izan duten gaillurrera igota zegoanean ere, Frantzi'ri erantsi zizkion ainbat lurrai deen truke, askatasuna eskatzen zuan bere aberri Kortzega'ri ez zan askatasun ura emateko gauza izan. Eta gero, Kortzega inglanderriarren laguntzarekin iare jeiki zanean, ezpairik gabe menderatu zuan tiroka seme ukatu arek bere aberri gaixoa'

Zillegi bezaigu galdera bat: bere senideak ainbeste errialdeetako Errege egin zituan Napoleon Inperatoreak mola ez ote zuan aietako bat, Kortzega erreinu iare biurtuta, Kortzega'ko Errege edo Erregin izendatu?, naiz'.. erreinu aren askatasuna, beste erreinu bonapartearena bezala, itxura eta izen utsezko askatasuna izan'

Nere ustez, Kortzegatarrek itxura utsezko askatasunarekin etsiko ez zutela usmatzen zualako, eta, gaiñera, Kortzega ugarte izanik, bertarako Errege edo Erregin izendatzen zuan senidetxoa askatasun osoaren zale errez biurtu zitzaiokeala pentsatzen zualako' Izan ere, askatasun-lei arri aize ta indar emateko, ez bait zebiltzen urruti, ordurako itxasoetan nagusi zan Ingenderriaren gud'ontziak.

Berak, —Napoleon'ek berak—, bere naimen onez zuzenean askatasun oso ura eman balio Kortzega'ri, berekin eta bere alde izango zuala beti Kortzega'ko jendea? Bai noski, batez ere bera Frantzi'ko eta Itali'ko Jaun da Jabe zan bitartean. Baiña Napoleon ez zan ezertaz fiatzen; ez zuan uste osorik iñorengan ipintzen; bere burua soilki sinisten zuan adiskide ziur bakarra; bere burua izan zuan beti ekintza guztietan elburu nagusia.

Bere onturreak eskatzen ziolako ukatu zion Kortzega'ri askatasuna. Bere burua ospetsu egiteagaitik odolustu zuan Frantzi'a. Bazuan ontan Napoleon'ek Hitler'en antza.

Bi gizonei zor zien Napoleon'ek Frantzi'ko Jaun eta Jabe izatea: Siyès apaizari, eta Luzian Bonaparte, bere anai gazteagoari. Siyès'ek prestatu, eta, orduan "Bosteunen Batzarreko" zuzendari zan Luzian'ek aurrera ateratako kolpeak jarri zuan bâ Napoleon, Kontsuldutzan'

Ez zien beñere Napoleon'ek, ez Siyès'i, ez anal gazteari, ain mede aundirik eskertu' Napoleon billaua zalako?. Ez orixe' Baiña Siyès ez zan sekulan diktadurtzaren aurrean makurtu; ezta inperiotzaren aurrean ere' Demokraziale eta errepublikaren aldeko jarraitu zuan beti' Luzian anaiari, berriz, Napoleon'ek ez zion ark egin zuan eskontzarik barkatu'

Napoleon'ek bere senideen eztaiak politikerrako izkillutzat erabilli oi zituan. Orregaitik biziro asarretu zan anairik gazteena, Jeronimo, Iparamerika'n zegoalarik, Baltimore'ko gotzaiaren aurrean ango andereño batekin, Elisabete Patterson'ekin, ezkondu zanean, eta be-realaxe ausiarazi zion ezkontza ura, VII Pio'ren aolkuaren aurka' Paris'ko goigotzaigoaren epaimaia izan zan ezkontza ezereztu zuana, Napoleon'ek aurkeztu zizkion ;ru arrazoiak entzun ondorean. Auetxek ziran arrazoi aiek: 1^a: Jeronimo'k emeretzi urte besterik ez zituala, 2a: Elisabete protestalaria zala, 3^a: Ezkontza ez zala, egiña izan zan tokian jurisdikzioa zuan apaiz baten aurrean egiña izan. Azkeneko arrazoi onek bakarrik egiten du ezkontza bat baliogabea, Trento'ko Kontzilioa ezkerro, baiña Trento'ko kontzilioa lege egiña izan dan tokietan bakarrik, eta orduan ez zan oraindik ura Lateral Alkartuetan lege egiña izan. Ortik, Pio VII'aren ukoa. Esku zabalagoa izan zuten Paris'ko eliz-epai lleek.

Napoleon'ek, bereala, Wurtemberg'eko Erregearen alaba ;protestalariarekin!, ezkondu zuan Jeronimo gaztea.

Gogorragoa irten zitzaion Luzian. Au, artean maitale izan zuan Alexandere Bleschamp, Direktoriokoan oial xare-xarez jantzirik ibilli oi ziran pinpiriñ aietako batekin, ezkondu zan. Erroma'ra aldegin zuten ezkonberriak. Fesch kardenala zan Erroma'n Napoleon'en enbaxalari. Ezetz erantzun zien gogorki Luzian'ek ezkontz-austea eskatzen zioten Napoleon anaiari eta Fesch osabari. "Ondo al deritzaizu Kardenal bat ezkont-ause biurtzea? Gorde itzezu kardenai-jantzi gorripean zuren azpikeri zik ñak", esan zion osabari.

Consalvi Kardenalak, jakiña, bete-betea eman zien arrazoiak senar-emazteei; eta adiskide izan zuan, gaiñera Luzian; au bait zan, izan ere, Bonaparte'tarren sendian kulturaz landuena' Baiña arrezkerro, Luzian'en eta Napoleon'en artean ez zan beñere egiazko adiskide-

tasunik izan.

Siéyès'ek eta Luzian'ek, Napoleon Kontsul,— eta berealaxe "Kontsul Nagusi"—, egin ba'zuten, laister borobildu zuan onek Nagu-sitasuna, 1802'an "Bizitza Guztirako Kontsul" izendaarazi bait zuan bere burua, eta 1804'ean..., iInperatorel. Baiña, azkeneko titulo au odol errugabez zikindurik jantzi zuan; Enghien'go dukearen odolez zi-kinduta. Borboitarra zan gizon doakabe au, Borbon'go Dukearen semea, Konde'ko Printzipearen billoba. Napoleon'en aurka erregezaleek matxinada bat gertatu zutela-ta, Napoleon'ek, erregezaleen alderdia betirako izuturik lagatzearren, atzerritik, Baden'go dukaterritik, dere-txorik gabe lapurretan ateraka, kixazko epaiketarik gabe fusillatuarazi zuan duke gaixoa, jaiotzaz borboitarra izatea beste errurik gabe.

Erriarengana ez zan orrelako xeetasunik iristen, eta pozik zegoan Frantzi'ko erria orduantxe, Itali aldean ainbeste lur irabazi zion buru-zagi gaztearekin' 1802'an iru milloi t'erdik eman zioten auteskundee-tan baiezkoa, "Bizitza Guztirako Koltsul" egiterakoan; zortzi milla izan ziran autarkia aurka eman ziotenak. Inperatore izendatzerakoan, berriz 2.500 bakarrik izan ziran aurkakoak'

Urrengo urtean Aitasantuak, Frantzi'ko Elizari pakea ekarri zion Kontsul bizkorrari eskerrak ematearren, lau frantzitar izendatu zituan kardenal.

Bazuan Napoleon'ek osaba apaiz bat, Kortzega'n Artxidiakono izana, gero, iraultzakoan, apaiztasuna ukatua, konbentziopean mer-kantiispektore edo aztertzaile egon ondorean, ostera, damuturik, Elizaren altzora itzulia, eta Napoleon berak Konkordatoaren araura Gotzai egin zuana. Auxe izan zan lau Kardenal aietako bat: Jose Fesch Ramolino, Letizia Ramolino Napoleon'en amaren anaia. Eta auxe bidali zion Napoleon'ek Aitasantuari enbaxalari. Aitasantuak egin zion mesedearren truke, bere esker ona agertzearren? ala, Aita-santu arriskugarri ura enbaxalari leial baten ikerketapean eukitzeko?'

Oraindik, itxuraz beintzat, Iraultzaren arauetatik atera gabe ari zaigu Napoleon. Kontsul Nagusi bezala, Errepublika baten Lendakari da; erriaren izenean agintzen du. Laistes ordea, bere burua Inperatore sagaratzen duanean, eginen die iruzur Iraultzari, Errepublikari Erkalari. Bere Katekisman erakutsiko duan bezala "Jainkoak aukeratu duala-ko" eta "Jainkoaren izenean" erabailliko du agintaritzza. Agur, erria-gandiko eta erriaren izeneko aalari !!!

Ez diote erkala-zaleek barkatuko. "Petit Sultan", "Xultantxo", deituko dio Staël andre idazleak. Napoleon'en omenez ari omen zan

Bethoven bere irugarren Sinfonia moldatzen. Baiña izugarri asarretu omen zan Napoeon'ek inperiotza artu zuala jakin zuanean' Eta sinfonari "illeta" bat erantsita, izengoiti au ipiñi omen zion: "'Gizandi baten eriotza"; jausi ta il bait zitzaion, betirako, Iraultzaren Aingeru eta Demokraziaren Gizandi izanen zala uste izan zuan Buruzagi bizkor ura: Napoleon.

Benetan artu zuan Napoleon'ek bere inperatoretza. Aurren-aurreneko lana, Akisgran'era joanda, an, Karloman'en illobigaiñean otoi(?) egin ostean, Sarkaldeko lenen Inperatore "done" aren Aulkian eseritzea izan zan, Karloman'en oiñordeko ta jarraille zala adierazteko.

Oratoriotar izandako Fouché'k eskatuta egin zuten Inperatore, Batzar Nagusiek aurrena eta erriak gero, Napoleon Bonaparte' Baiña ez zan ori naikoa Napoleon'entzat' Frantzi'ko Erregeak olio donez igurtziak eta sagaratuak izaten ziran "Jainkoaren izenean". Sagaratze ori, berak ere nai zuan' Gaiñera, gutxi zeritzaion "Frantziarren Inperatore" izatea. Karloman izan zan bezala, "Erroma'ko Inperatore" izan naiz zuan, Kristaudi osoaren Buru' Baiña... baiña... Aitasantuak baka-rrik eman zezaiokean titulo altsu on. Aitasantuaren bearren arkitzen zan, beraz, Napoleon. A!, Fouché "Inperioko Konte" izendatu zuan Napoleon'ek 1808'an, eta bereala Otranto'ko Duke! (1809).

Ez Napoleon'entzat, ez Pio VII'arentzat, ez zan erreza Sagaratze-ko urrats ura ematea. Napoleon'entzat, oraindik Jaurlaritza ta Batzar Nagusietan eta batez ere gudaroztean; errepublikaren maitaleak eta erkala-zaleak asko ziralako; Pio VII'arentzat, bere inguruko jende justia, —kardenalak eta gotzaiak—, ia danak, borboizaleak ziralako, eta gaiñera, Frantzi'ko Borboiek ez ezê Europako Errege eta Jaurlaritza guztiek, Españi'koaz landa, Bonaparte kortzegatar iraultzalari jakobatar arlote aren koroiaketa, iraiñik aundienetakotzat artuko zutelako' Ain zuzen Españi txit katolikoa zan aspalditik, —Direktoriotza ezke-ro, Frantzi'ko Errepublika Jainkogabearren adiskide bakarra. Ta adiskide xamurra gaiñera adiskidetasun orren omenez eraman bait zuan bere itxazontzi-sail guztia Trafalgar'ko ondamenara. Bazan noski yayo IV Karlos Borboiaren eta aren ministro Godoy'ren, Politika-era!

Pio VII'ak eta Napoleon'ek, berenez artu zuten aurrea jarraitzeko erabakia. Europa'ko mapa bat begiratzea naikoa zuan Aitasantuak, alako indarra zuan gizon batekin adiskidetasuna lortzea Elizaren etorkizunerako bear-bearrezkoa zuala oartzeko. Errez adierazi zien ezker-tarrei Bonaparte'k, sagaratze ura, beren politikarentzat arras egokia zala, borboitarrei politika-ekintzarako erabilli zezaketen argumenturik

bizkorrena ezerezen zielako: Borboiak "Jainkoa'ren Igurtziak" izatea, alegia. "Jainkoaren Igurtzia" izanen zan Napoleon bera ere! Eta inork igurtzia, gaiñera! ;Aitasantuak ber-berak! "Pentsa ezazute: Qu'en diront les Bourbons? ("Zer esango dute Borboiak"?) itaundu omen zien Jaurlearitzako ezkertiarrei.

Consalvi —Aitasantuari aurrera jarraitzeko aolkua eman zion Kardenal bakarra— gelditu zan Elizaren Jaurle lez Erroma'n, VII Pio, Paris'eruntz, bidera irten zanean.

Ibilladi dizdiratsua! Italia-barrena eta Frantzi'a-zear, aintza abeztuaz onartu zuan baztar eta txoko guztietan jendeak Aitasantua. Errege ta elizgizon askoren politikeriez landa, ari zan gogo Deuna kristua-erriaren baitan lanean. Zindo ziraun Elizaren Sinismenak. Fouché, ertzaintzaren Buruak, eman zion ongietorria Aitasantuari, eta, "nola aurkitu duzu gure Frantzi'a"?, galdetu zion. "Jainkoari eskerrak, be-launeko auspeztutako erri baten erditik igaroaz egin dut nere ibilketa Frantzi'n," erantzun zion Pio VII'ak pozez. ("Béni soit le Ciel! Nous l'avons traversée au mil ieu d'un peuple à genoux!"). Gauean, Tuille-rien aurrean zan Paris'ko erria; ta an egon zan i"Aitasantua"! i"Aita-santua"! deadarka Pio VII'a leiora irten zan arte. Ta ori'.., Napoleon'ek Aitasantua Paris'en sartzea gauerako lagaarazi zuala, erriaren po-zezko ongietorria nolabait eragoztearren.

Laister ezagutu zuan Pic VII'ak Bonaparte'ren arrokeria. Baita Bonaparte'k Aitasantu xalo eta arrai aren zailtasuna ere. Ez zegoan Pio VII'a Elizaren dizdira zikindu zezakean gauzarik txikiena ere egiteko asmotan. Ezta Napoleon ere bere aunditasunaren aurkakoa zitekeala uste zuanik egiteko. Ala iritxi ziran egiune batera:

Napoleon'ek Koroiaketa-aurretik egin bear zuan Kostituzioa-ren juramendua, Aitasantua Jauretxean sartu aurretik egingo zuala, Kostituzioaren zati bait ziran Aitasantuak gaitzetsi zituan Napo-leon'ek asmatu-rik "Ataltxo Organiku" aiek.

Napoleon ez zala, Erregeek eta Inperatoreek egin ol zuten be-zala, Aitasantuaren aurrean auspeztuko'

Erabaki zuten, bait'ere, Inperatoreak mezakoan Jaunik ez artzea, eta Buruntza Napoleon'ek berak bere eskuz jantzi aal izatea, ez da bâ egia edestilari askok diotena: eskuetatik arrapatu ziola Aitasantuari Inperatoreak buruntza.

Uste zuten Aitasantu-Inperatoreak, bezperan, dana zegoala ego-kitua. i Bai, to!.

Bezpera-gau artantxe agertu zan negarrez Josefiñe Aitasantua-

rengana, egiaz ezkondua ez zegoala esanaz. Azpikeri emekoi orren bidez gauza bi lortu nai zituan andre negartiak: bere ezkontza, jeta Inperi otza! aseguratzea; bai bait zekian, Napoleon'i semerik ezin aman aal izan ziolako, Bonaparte'tarrak danak eta Napoleon bera ere beste ezkontza batean pentsatzen asiak zirala.

Erez igarri dezazkezu Josefiñe'k gau artan sortu zuan iskamilla, eta Napoleon'en amorrua; sakramentuzko eskontzarik gabe sagaraketarik ez zegoala!, bai zion Pio VII'ak.

Burua makurtuta, ixillean egindako indarrezko ezkontza batera jetxi bearrean aurkitu zan Europa'ren nagusia, bere koroia ketaren egunsentian. Pio VII'ak ixillean eskontzeko baimena eman zion. Osaba Fech kardenala izan zan ezkontza-egillea. Gero kanonlariei buruausterik aski emanen zien ezkontza!

1804'eko azaroaren 2'an izan zan sagaraketa. "Vivat Augustus in aeternum" "Bizi bedi Augusto betirako", zioten makuetakoko idatziek. "Gure aitak ikusiko ba'gindu, Jose", esan zion Napoleon'ek anai zarrinari, maku aien azpitik igarotzean.

Inperatorearen zalpurdiak urrezko arrano zeramakian. Ara bâ... ¡Jausi egin zan arrano ura inperatorea jauregitik ateratzean! ,Zer pentsatu ote zuan edozertan siñale onak edo txarrak ikusteko zalekeria ain bere zuan Bonaparte'k?'

¿Zer irabazi zuan Pio VII'ak Paris'en igaro zituan lau illabetean? Ezerrez Inperatorearengandik. Ez beintzat..' ain gogoko zuan "Ataltxo Organikuen" deusezte. Geienaz, Kostituzio-Elizako Gotzaien menpetasuna, artara beartu bait zituan aiek Napoleon'ek indarrez. Ez zuan (ortu onek ere Pio VII'agandik apaiztasuna ukatuta andrea artu zuten gotzaiantzat sasiezkontza ura sagaratuta aal izateko baimena' Orregaitik, badira, Talleyrand'ek ere ez tu aal izateko baimena. Orregaitk, badira, Talleyrand'ek ere ez zuala bere eskontza sakramentu biurtu aal izaterik iñoiz lortu, dioten edestilariak. Baietz diote beste batzuek: azkenean, lortu zuala. Egia jakin gabe gelditu bearko dugu, oraingo.

Baiña ezer gutxi atera ba'zuan Inperatoreagandik, dana irabazi zuan, bere goxotasunarekin eta santutasunarekin, erriagandik eta Frantzi'ko elizgizonengandik. Paris'ko erriak ez zekian zer egin Aitasantuari atsegin emateko. iñoiz ez zan Frantzi'ko Eliza ain Aitasantuarren ondoan egon. Batez ere apaizak betirako gelditu ziran Aitasantutzari Iotuak. Apaizak!; Gotzaiek, bat baiño geiago, bein baiño geiagotan okertuko bait dira oraindik galikerira; edo beintzat, ez bait dute bear bezala galikeriaren aurka deadar egingo.

Irabazi zuan Pio VII'ak borboitarren eta borboizaleen gorroto miña ere. "Erroma'ra joango naiz, an, San Pedro'ko atetan nere protesta idaztera", oiuegin zuan Probentza'ko dukeak, geroko Koldobika XVIII'ak' Ta ara zer itz poxpoliñak jaurti zituan idazle katolikorik ya-yoenetakoa zan Maistre'ko Jose'k: "Les forfaits d'un Alexandre Borgia sont moins révoltants que cette hideuse apostasie de son faible successeur", ("Borxa'tar Alexander'en oztopoak ez dira bere ondorengo ezerez onen fede-ukatzeko ikaragarria bezain iguin-emaileak. Ontarriño zegoan, ezkubitarren artean, erlijioa politikarekin nâstua'

Aruntzakoan bezala onotzakoan ere txalotua, goratua eta aintzatu izan zan Aitasantua. Negar ere gin zuan Pio VII'ak, Lyon'en erriaren zaletasuna ikustean' Eta baita Erroma'n sartzerakoan, bere-bere zituan ardiaren poz-irrintziak entzutean.

Zorion betean bizi zan Napoleon ere. Ez zuan neurrik bere aundi-naiak' Urrengo urtean, 1805'ean jetxi zan Milan'era Itali'ko Jaurerriaren Buruntza jaztera. Baiña Itali'ko Jaurerri ura, Milan-aldeak, Benezi'ko Errepublika izanak eta Elizaren Laterrien iparreko probintziek osatzen zuten Lurralde txiki bat besterik ez zan. Eta Napoleon'ek geiago nai zuan: Alpe-Mendietatik Sizili'ko Ugarteraiño, Itali guztiaren Errege izan nai zuan. "Toute mon ambition est tournée vers l'Italie; c'est une maîtresse dont je veux que perssone ne partage les faveurs", esan ol zuan. ("Nere zalekeri guztia maitaletxo baten antzeko dedan Itali'rentzako da. Maitaletxo orren laztanen jabe, nintzaz beste, ez da iñortxo izango"). "Iñortxo" ori Aitasantua zitekean, Erroma'ko Erregea. Aitasantua?' "Aitasantua nere mendeko izanen da": "Le Pape sera mon vassal", epaitu zuan Bonaparte'k'

Goraka dijoa Bonaparte'ren izarra. 1806'ean egiten da adimenen jabe "Inperioko Unibersitatearen" bitartez. "L'Université Imperiale" k iru mailla zituan, gure lenengo, bigarren eta irugarren mailleko erakuskintzen kidekoak, eta monopoliorik gogorrenaren modura osatua zegoan. "Ez da zillegi, zion legeak, Inperioko Unibersitateaz landa eskolarik edo beste edozein motako ikastetxerik eraikitzea" "Mon bout principal est d'avoir un moyen de diriger les opinions politiques et "morales", "Nere lenengo asmoa politikari ta oitureiburuzko pentsamen oro moldatu aal izateko izkillu bat nere-egitea izan da", aitortu zuan lau-lau Napoleon'ek berak, Unibersitateari sortzea ematerakoan.

Egia da, gaurko Eziketa-Ministeriotzen antzekoa zan Unibersitate artan, apaiz askori eman ziela Napoleon'ek sarrera, eta Gotzaiei ere laga zitzaie la ikastolak ikertzeko aala... , baiña ori..., Napoleon "bere Elizaz" seguru zegoalako bakarrik izan zan.

Egia da, baita, Argikuntzako filosofilari jainkogabeen erakuskin-tzak Unibersitatean aipatzea bera ere galerazia zegoala, eta katolikotasuna erakustea, berriz, agindua. Baiña ondo dakigu Napoleon'ek erlijioa, eta batez ere Frantzi'n katolikotasuna, erria menpean eukitze-ko, bear-bearrezko gauza zala uste izan zuala beti.

Inperatoreari orrelako adimen-jabetasuna ematen zion Unibersitate despotikoi aren aurka ez zan Gotzai baten abotsik inperio guztian entzun, naiz, gure iritziz, "Napoleon'en asmakizun makur guztien artean makurrena ta gaiztoena, ezikuntzaren monopolio au izan", gero Felizitas Lamennais'ek esanen zuan bezala. Baiñan an katolikotasuna bakarrik erakusten zalako eta katolikotasunaren aurka ezer esate utsa gelerazia zegoalako, pozik zeuden Frantzi'ko Gotzaiak' Ez da arritzekoa; ainbeste urtez ikusi bait zuten katolikotasuna iraindua eta zapaldua! Ez zan txikia giroaren aldakuntza konbentziokoarekin kida-tu ezkeror!

Alatagutziz, ez da Elizarentzat pozgarria Napoleon'en Gotzaien jokaera motela. Ez zekiten, beren Nagusiaren betartea alaitzeko zer egin! Izan omen zan antziñean, naiz Elizaren santutegian agertu ez, Neopoli izeneko gudari kementsu bat, martiri illa eta santu bezala gurtua izatea iritxi zana: San Neapoli' Bâ... Bonaparte'ri axkure goxo senriaraztearren, etimologizale zurikalariek, San Neapoli gizagaixo ura, San Napoleon biurtu zuten, ortarako filologiaren lege guztiak zapalduaz eta izkiekin egiazko mirariak egiñaz. Ez zion ajolarik. Pozik ar-tu zuten Frantzi'ko Gotzaiak Santu berri aren agerketa parregarri ura, eta Jaurlaritzak eskatu zuan bezala, Dagonillaren amabostean, Andra Mari egunean!, ipiñi zuten San Napoleon sortu-berriaren jaia. Ez zuan gaizki aukeratu gobernuak eguna, bai bail zekian, aspalditik Frantziko erriak nolako poz bikaiñez ospatu oi zuan Dagonilleko egun eder ura!

Losintxa ta zurikeri oiekin jainko-txiki bat biurturik zegoan Napoleon' "Txina'n, Inperatorea Jainko izaten da; eta ala izan ere bear du", esan zion bein bakarka bere adiskide laztan bati.

Ez zuan alperrik pentsatu, oraindik kontsul zala, diru-laguntzen bitartez alizjendea irabaziko zuala. Diruaren bidez bereganatu zituan protestalariak ere. Judutarrei ez zien diruz lagundu. Masoiei, naiz izkutuan, begi goxoz begiratu oi zien beti. Eta, Jose bere anaia bat Frantzi'ko Logiaren Maixu Nagusi izatera iritxi zan' Danadala, protes-talariak, judutarrak eta masoiak, danak ezarri zituan bere serbitzitzura Napoleon'ek legearen bitartez, eta danak egon ziran, —bear bada Gotzai katolikoak baiña nabarmenago—, Nagusi Aundia zurikeri eta

itz-jario ustel atsegingarriaren koipez igurtziigurtzi egiteko prest.

Zurikeri oien erdian iritxi zitzaion Napoleon'i bizian jaso zuan ai bisterik gogorrenetako bat; Trafalgar'en Frantzi'ko eta Espāni'ko itxas-ontzidi osoak urperatuak izan zirala. Egin bear zuan zerbait bere izena gora jasotzeko eta tximistaren arintzarekin, oraindik aurpegi ematen zioten Austri'ko ta Errusi'ko gudarozteei ekin zien Morabi'ko Austerlitz'en 1805`eko Abenduaren 2'an. Agian ura izan zan Bonaparte'ren gurendarik borobillena. Berealaxe eskatu zuan Austri'k pakea, eta garailleari Benezi eta Dalmazi eman bearren aurkitu zan. Jo zuan Bonaparte'k Itali'ra, eta Napoles'ko Jaurerria artuta, Jose bere anaia egin zuan bertako Errege.

Ipar-aldean, beste anai bat, Luis, egin zuan Olanda'ko Errege; eta Alemani'n "Rin'go Konfederaketa" sortu zuan il Frantzisko Inperatoreari kendutako lurrekin. Konfederapen ura Frantzi'ren menpean ipiñi zuan.

Orrela il zan, Napoleon'en atzaparretan, bere sustraiak VIII mendeko Karloman'en eta III Leon Aitasantuaren denboretan zituan "Sacrum Imperium Romanum Germanicum" aintzatsua: "Erroma'ko Germaniar Inperiotza Donea". Berak bakarrik nai zuan Erroma'ko Inperatore Napoleon Bonaparte'k' Arrezkero, Il Frantzisko eta bere ondorengoak Austri'ko Inperatore besterik ez dira izango.

Urte ortan bertan baztertu zuan Napoleon'ek Iraultzak sorturiko Egutegia. Egutegiarekin batera deuseztu ziran Direktoriotzako bi erlijio berriak: "Teofilantrofia" eta "Amarnaka-Eguneko-Gurketa", ("Le Culte Décadaire"). Ez dugu bi erlijio auetaz deus esan; ez bait zuten batere garrantzirik izan.

Aurrenekoa Robespierre'n "Izatedun Gurenaren Gurketa" besterik ez zan, Luis Mari Larevéllière'k berbiztua. Gizon au, aristokrazikumea, erdi emeslari erdi buru-ariñ, 1795'etik 1799'ra Direktoriotzako bost direktoreetako bat izan zan. "Teofilantropia" itzak berriz, —elenerazko "Jainkoa" "Gizona" eta "Maitasuna" esan nai duten itzez osotua egonik—, argi adierazten digu erlijio ura zer zitekean: Jainkoa eta gizonaganako sentimentu utsez oretutako Maitasun olertikoi bat. Ez zuan beiñere Teofilantropiak jarraille askorik izan' Bere garairik bizkorrean ere, ez zituan Paris'en bost Jauretxe besterik izan; Eliza Katolikoari kenduak bostak, jakiña.

"Amarna-Eguneko-Gurketa", iraultzalariek Kristau-Igandea aztuarazteko asmatu zuten Egutegiaren ondorio izan zan. Egutegi artan bezala asteak amar egun zituan, eta azkeneko amargarren eguna Jai egitea agindu zan, baña legeen paperetaz landa, bizirik gabeko erli-

jioa izan zan iraultzalaririk ezkerkoienek eraturako erlijio irrigarri au' Governuaren serbitzura zeuden pertsonak bakarrik bildu oi ziran Amargarren Egunean aberriabestiak kantatzera, eta Iraultzaren orne- nez itzaldi Ioretsuak olestu eta entzutera. Ta aiek berak ere, biltzen ba'ziran, legeak agintzen zielako, edo legeari bildur ziotelako, bildu oi ziran'

Egia esateko Direktoriotza amaitzerako, ondo amaituak zeuden bi erlijio-putz aiek. Betirako lurperatu besterik ez zituan egin Napo- leon'ek Konkordatoaren bidez aurrena, eta Iraultz-Egutegia desegi- tearen bidez azkena.

Bizkorra eta oparoa agertu zan illunpetik Katolikotasuna. Opa- roa? Bai orixe! A! nolako aberastasunarekin ospatu oi ziran jai guz- tiak Inperioko aundiki danen aurrean! Orain, agintariak elizkizunetara joan-bearrean bezala aurkitzen ziran, ala beren karguak obeto ta luza- roago gordeko zituztelaren ustean. Aundiagoa dana, gizartean bertan, meza galtzea gaizki ikusia zegoan! Modan ipiñi bait zan mezara joa- tea; modan, andrazkoek lepoan arrosarioa zintzilika eramatea...

Kristautasun ura, jakiña, geienik axai utsezkoa zan, eta bildurra zegoan aren azpian, eta norberekoikeria' Oroitzen al duzu zer gertatu zan emen, Euzkadi'n, Franko'k gure aberria "salbatu" zuaneko lenen denbora aietan? "Gure elizak ez dira sekulan orain bezala bete. Sen- dotu eta indartu zaigu oraintxe gure Eliza", deadar zegian orduan Gi- puzkoa'ko Apaiz Jaun frankozale batek, eta ori bera oldoztu-bide zu- ten Napoleon'en garaiean Frantzi'ko Gotzaiek ere. iIndar urri laburra eta sendotasun aula, diktadoreen bidez Elizari etorri lekiokena!

Gaiñera, Frantzi'ko elizkizun aiek mundukeri-usaiez zakartuak zi- ran: Lujo oparoz jantzitako andre aundiekiek egin oi zuten jauretxeetan eskea; Erroke Deunarenean, Delarue bankalariaren emaztea izaten zan eskale, eta Konte errusiar bat izan oi zuan laguntzaille; bi mo- rroiek jarraitzen zioten atzetik; Afrika'ko mutil beltz tantai batek era- maten zion soiñeko garestiaren itsats luzea.

Ez zaigu, noski, gaur, Delarue Andrea, Meza Santu baten edergai- llurik egokiena izan litekeanik iduritzen. Kontuz ordea! Ez dezagun az- tu edestilari baten obenik astunena anakronia dala, ots, gertariak eta denborak naastea' Ez zituzten orduan gauzak gaur bezala ikusten' Iz- kutupera bearturik egon zan ordurarte Eliza. Berbizturik eta garaille zekusaten orain katolikoek Eliz ura bera. SEz al zan, ain zuzen, andre aberats dotore ura, berbizkunde ta garaitza aren iduririk ederrena ta egokiena?

Ta..., dana, Napoleon'i eskerrak! Igandero joan oi zan bera ere mezara.

Liturjiaz landa, txukundu ziran bizierako oitura enasak. Ala, direktoriotzako jazketa Isaiak galeraziak izan ziran; eta moztuak dantzatokitako geiegikeriak. Pozik zegoan elizjendea' Ez zuten gotzaiek, ez zuten katolikoek, galikeririk zakarreneko giro artan Elizarentzat arrisurik izan zitekeanik ere pentsatzen.

Gizon batek bakarrik izan zuan begi luzea. Lamennais'eko Felizitas apaizak. 1808'an idatzi zuan liburu bat: ("Elizaren egoeraz gogapen batzuk"), Elizarentzat askatasunik-eza baiño gaitz okerragorik ez dala, adieraziaz. Ertzaindiak bildu zituan bereala liburu aren ale guztiak.

Baiña Lamennais, Bonald, de Maistre, ez dira oraindik jendearentzat ezagunak. Chateaubriand zan une artan Frantzi osoaren kuttuna, Chateaubriand'eko Frantzisko René (1768-1848) ez oso mutiko santua emakumeekingo adiskidetasunen arloan, baiña sinismen sendoko gizona'

Lenen mailleko idazlea da, eta "Erromantiera" edo "Romantisme", ta "romanticismo" deitutako elerti-aroaren aitzindari. Zailantzik gabe, "Le Génie du Chistianisme", "Kristuatasunaren Izpiritua", da bere liburutik ederrena ta garrantsitsuena, Liburu mardula; zortzi tomotan edatua. Ala ta guztiz, aidean saldu ziran bere lenengo agerpeneko larogei milla aleak' Negar ere egin omen zuan Napoleon'ek liburu ura irakurtzean, agian bere sentimenkeriarentzat kidekidekoa zalako' Ori bait zan Chateaubriand bretoiaren idazkia: sentimentu utsa. Baiña, a! nolako itz goxo beroetan bildutako sentimentu apaña! Ordurarte elertian legezko izan zan arrazoikeri legorraren gauzarik etsaiena dugu Chateaubriand'en liburuko sentimentu ura. "Erromantikera" bera ere arrazoi utsaren legorkeriaren aurkako jeikitze bat izan bait zan batez ere.

Argikuntzaren asieran, "egiazkoa da kristautasuna; zergaitik? arrazoitsua dalako" oiur egin zuan Locke filosofoak' "Egiazkoa da..., ederra dalako", dio orain Chateaubriand olerkeriak. Bi argumentuak dira baliorik gabeak. Aurrenekoa, Lock'ek "arrazoi" itzari ematen zion zentzuan arrazoiak gaidiko misterio oroz kristautasuna ustutzen zualako. Bigarrena, "edertasuna", soil-soilik atsegiñaren iturri dalako; ez iñolaz ere, egiaren oiñarri.

Ala ta guztiz, on andia egin zuan Chateaubriand'en idazkiak. Naiz Kristautasuna, egiazkoa, ederra dalako bakarrik ez izan..., egia bait da ala ere, Kristautasuna ederra dala; eta edertasun ori, iñork gutxik be-

zala, idazkera aratz, polit, errezean, Chateaubriand'ek goxoki ager-
tzen zualarik, Kristautasuna, atsegiña egiten bait zuan.

"Le Moniteur", Jaurlaritzaren aldizkariak berak egin zuan liburu-
aren gorespena, bai konkordatoaren aro artan liburu ura Napoleon'en
politikarako biziro egoki zetorrelako, eta bai kontsul Nagusiaren per-
tsona bera goratzera zetorrelako ere, sarreran "ondamenetik gaizkatu
gaituan gizon bikaiña" esaten bait zion Napoleon'i, eta orrela, libu-
ruak begien aurrean zabaltzen zuan edertasun zoragarri guzti aren
berbiztaille ta sabaltzaille, Napoleon agertzen bait zuan. Liburu ura
Frantzi guztiak aurrena, eta Kristaudiko jende landu guztiak gero,
ziurki, irakurriko zuten ezkerro, mola eta nun Napoleon'entzat goratza-
rre aundiagorik eta zabalagorik aurkitu?

Esan dezagun, ala ere, gero, Napoleon'ek zuzentasun ororen aur-
ka Enghien'go konte Borboia il zuanetik, kementsu jeiki zala Chateau-
briand inperatore eraillearen aurka, eta arrezkero beti izan zala aren
etsai. Bestela ere, aski zail ari ziran gauzak Bonaparte'rentzat gerta-
tzen, Chateaubriand'en liburuko sarreraren itz loxintxagarriek ez bait
zioten Napoleon'i Inghlanderriaren adiskidetasunik irabazi. Ezta Pio
VII'aren menpekotasunik ere'

Agindu zion koroiaketarakoan Napoleon'ek Pio'ri Itali'ko Elizaren
gauzak konponduko zituala. Urrengo urtean, Itali'ko erregetza artu on-
dorean, (1805), konponketa ori egin zuanean, pozik gelditu ziran apai-
zak, irabaziaz irtetzen ziralako batez ere ekonomiaren arloan; ez ordea
Erroma, Itali'ko Elizaren goitik beerako eratze berri ura, Aitasantua
ezertarako kontuan artu gabe egiña izan bait zan, galikeririk gogorre-
naren araura.

Ez zegoean Napoleon ere Aitasantuaren politikarekin pozik, ez
bait zuan onek, Inghlanderriaren aurkako gudatean, Napoleon'en alde
sartu nai. Urte ortan bertan artu zion indarrez Napoleon'ek Aitasan-
tuari Ankona uria, kai ura Inghlanderriaren eskuetara jausi zitekeala
aitzaki ipiñiaz. Ez zan Pio VII'a ikaratu, eta izkera latz eta garratza era-
billi zuan, Napoleon'i bere osteketa, protesta, jakiñarazteko.

Zerbait egin nai izan zuten Austri'k eta Errusi'k Napoleon Itali'tik
kanpora botatzeko' Alperrik, ordea; une artan bertan desegin bait zi-
tuan zearo Napoleon'ek bi Laterri aien gudarozteak Austerlitz'en. Ga-
raitza bikain ospetsu aren ondorio, laister egin zan ia Itali osoaren ja-
be. Eliz-Laterrien azkeneko ondarrak arrapatzea besterik ez zitzaion
falta Itauli guzia bere-egiteko.

Inghlanderriari, oraindik Eliz-Laterri laburtuetan gelditzen ziran kai
guztiak isteko, eta Frantzi'ren etsai zitezkean lurraldeetako enbaxa-

dariak Erroma'tik jaurtitzeko agindu zion orduan Pio VII'ari. Ezetzerantzun zion onek, auzia zalantzan ipiñi ere gabe. Austerlitz'eko garraipenak ez zuan Aitasantua larritu. Gaiñera, Consalvi, eta Pio VII'a bera, baziran, noski, Talleyrand eta Fouché bezain zorrotzak, eta aiek bezain argi ikusten zuten nunbait, luzarora Napoleon'ek bere burua galduko zuala.

Mingarria iritxi zan Erroma'ra Bonaparte arrotuaren agindua: "Zu zera —zion Aitasantuari— Erroma'n Errege, baiña ni Inperatore: eta, orregaitik, zuk ere etsaitzat eukiko dituzu nik etsai ditudan guztiak"" Pic VII'aren erantzuna: "Ez""

Napoleon'ek Civitta Vecchia arrapatzeko agintzen die Napoles'ko Errege izendatu berna zuan Jose bere anaiari, (1806); eta Pio VII'ak bere aldetik, ez zuala Napoles'ko Erregetzat onezagutuko jakiñarazi zion Jose Bonaparte'ri' Oroi dezagun Jaurerri ura Aulki Donearen feudo-lur zala.

Napoleon'ek, Foch Kardenal osabaren ordezkontentziotar izandako Alquier, enbaxalari lez Aitasantuari bidaliaz, erakutsi zuan bere asarrea; eta Consalvi Estadutzako idazkaritzatik jaurtiaraziaz.

Ez zuan VII Pio'k enbaxalarialdaketa arekin ezer galdu, Napoleon'en osaba setatsu ura baiño askoz xaloagoa izan bait zitzaien XVI Koldobika erailtzearen aide bere aurtarkia eman zuan jakobatarra. Ain zuzen Fesch izan zan, Napoleon'i, Erroma'n etsairik gogorrena Consalvi zuala, idatzi ziona' Orregaitik beartu zuan Napoleon'ek Aitasantua Consalvi baztertzeraz.

1806'gn urte ortan asmatu zuan Napoleon'ek "le Bloqué Continental" edo Inghlanderriari "Europa'ko kai guztiak istea". Izutu gabe erantzun zion Pio VII'ak Bonaparte'ri ez zuala berak itxiketa artan parterik artuko, erri guztien Aita zalako. Arriturik zekusan munduak lekaidemee goxo aren ausardi baretsu menderakaitza. Ez zion iñork zuzentasunaren maltez, edestiaren luzaroan, ain etsai galant bildurgarri bati, orrela aurpegiarik eman' Enrike IV eta beste erdiaroko Inperatore aiek baiño aiderantzarik gabe askoz altsuagoa bait zan orain Letizia Romarigo Kortzegako basa-gudari baten emaztearen semea.

Alare, konponketa billatu nai zuan oraindik Napoleon'ek, bildur bait zion Aitasantu arri. Eta konponketa onuragarri bat lortzeko, aurretik ikara sortzea erabaki zuan, ta, ortarako, Aitasantuari Ankona eta Urbino kendu zizkion, eta Frantzi'ri erantsi; eta gero, Kontzilio bat bitzeko erronkarekin izutu nai izan zuan Pio VII'a' Itz utsezko erronka, erneegia bait zan Napoleon, bere politikarentzat ain kaltegarri izango zitzaien oker bat egiteko. Bazekian bada, ori egin ezkeroko katoliko guz-

tiak bere aurka ipiñiko zitzaizkiola, ta orixe zan ain zuzen Napoleon'ek iñolaz ere nai ez zuana.

Baiña egin nai zuan beste zerbati ere Aitasantua makurtzeko.

Bere ugazumea, —Josefiñe'ren semea, Eujenio Beauharnais—, zeukan Itali'ko Jaurerrian erregeordezko. Oni, Erroma'n Frantzi'ko gudaroztea sartuarazteko agindu zion, Napoles'era igaro bearraren aitzekiarekin, ez bait zan Napoleon oraindik Aitasantuari ager an ekitera ausartzen. Bein frantziarrak Erroma'n, Kardenal guztiak uxatuak izan ziran Aitasantuaren aldetik, eta batzuk, espetxeratuak: auen artean gero Leon XII izango dan Della Ganga. Kardenalik zaarrenak bakarrik lortu zuten urian iare gelditzeko baimena.

1808'ko Otsaillaren 2'a zan. Iru urte bazeramazkian Inperatoreak Aitasantua estutuaz. Bitartean, errenditu zitzaizkion Prusi'ko Federik Gillermo III'a Jena'ko borroka-ondorean, Errusi'ko Alesander I'a Tilsit'eko Pakean, eta baita laister Austri'ko Frantzisko lia ere, Waggram'en jasandako ondamenaren ostean. Biena'n zegoan Bonaparte, garailfe, eta bazirudian España eta Portugal ere errenditzera zijoazkiola' Aitasantua bakarrik, ez zitzaion Europa guztian errenditu nai. Ain zuzen, orduantxe bertan egin zuan Aitasantuak Estadutzako Idazkari, "Zelanti" deitu oi zitzaien Kardenal gogorren alderdiko buruzagi zan Bartolome Pacca Kardenala. Ondo ulertu zuten danak, ori egitean, Aitasantuak, bururik makurtzeke zindo irauteko asmoa erakutsi nai izan zuala. Ulertu zuan Napoleon'ek ere, eta 1809'ko Loreillaren 17'an Biena'ko Sctiömburnn Jauregian, asarre, Aitasantuaren Erregetza deuseztu-ta, Elizaren Laterri guztiak Frantzi'ri itsasten zizkion agindua izenpetu zuan.

Meollis zan Erroma'n frantzitarren Buruzagi, ta andik egun batzuetara, Garagarrillaren 10'ean jakiñarazi zien erromatarrei Bonaparte'ren erabakia. Gau artan bertan ezarrarazi zituan Pio VII'ak Uriko ormetan, ixillean, lapurreta ura egin zutenak eskomikatzen zituan buida. Ez du buldak izenez Napoleon bera aipatzen baiña errez adi zeza-kean edonork, batez ere Napoloen'en aurka zijoala eskomika ura.

Aia ulertu zuan Napoleon'ek berak ere, artu bait zuan, gaiñera, laister, eskomikaturik zegoala argi esaten zion Aitasantuaren eskutitz bereizi bat. Bazter guztietan agertu zuan bere amorru beltza, ez eskomikatze batengaitik ajolik ziolako, baizik eta bulda arek, ordurarte "Elizaren Zaindari Nagusi" bere burua agertzearren egin zituan lan guztiak, kolpe batez ezerezten zizkiolako. "Zer uste du!, ¿eskomikena bidez nere gudariei izkilluak eskuetatik kenduko dizkiela"?, egin zuan oi'u' Samiñagoa da oraindik, Murat bere ezkon-anaiari idatzitako esku-

titz batean, jalki zuan sentipena: "Je recois la nouvelle que le pape m'a excommunié. C'est un fou furieux qu'il faut enfermer", ("Iritxi zait aitasantuak eskomikatu naularen berria. Eroa duk ori; itxi bearra dan ero gaizto bat")'

Murat, Jase Bonaparte Españi'ra igaro zalako Napoles'ko Errege izendatu berria zan. Iñork ez daki Napoleon'en itz auek zer bideetatik ibilli ziran Murat'ek jaso zituan ezker. Agian ez zuten itzez-itz adierazten dutena esan nai, eta Napoleon'en amorruren agerpen zitala besterik ez ziran: baiña itzez-itz artu zituzten Erroma'n, arek ipiñitako serbitzariak, eta bereala artu zuten Aitasantua'katigu' Arin ibilli ziran, 1808'ko Ekainaren 5'a eta 6'a arteko gauean izan bait zan Pio VI'f'a baitua'

Itxaro zuan ori dana, Aitasantuak, eta askatasuna ez ezik bizia bera ere galdu zezakeala ondo zekialako, eskomika -bulda gertatu zuanean idatzi zuan beste bulda bat ere, bere ondorengoa nola aukeratu ta izendatu erabakiaz'

Negargarria, bai noski, baiña baita parregarria ere, izan zan Aitasantuaren atzematea. Kirinal deritzaion jauregian bizi zan orduan Aitasantua. Ertzaindiko Buruzagi Rodet izan zan lan "aintzagarri" aren egitea egoki antolatzeko, eta, zaratarik gabe aurrera ateratzeko, aukeratua' Zaratarik gabe; bildur aundia bait zioten bonapartetarrek erriaren matxinada bati.

Gizon bapoa, Rodet buruzagia, eginkizun artarako' Katolikoa zan, Amabirjiñari jaiera bizia ziona eta Amabirjiñaren ospez eraspen-abesti batzuen egillea; baiña Napoleon'i saldua. Bere ertzain-sail bat, frantziarra, aukeratu zuan lanerako. Eraman zituan, zer gerta, bi batailloi napolitar ere, —Murat'en gudariak—, frantziar ertzaiñei babes-egiteko. Aitasantuaren indar guztia amarren bat mutil ziran, suiziarrrak, apaingailu besterik ez ziran galtzairuzko azta zaarrez ornituak.

i Batere zaratarik gabe egitekoa zan gau antan egin bear zan guztia! Isilik!. Leioetatik sartuta, barrendik atetzar aundiak irikitzeo asmoa zeramakian Rodet'ek, baiña ausi egin zitzaizkien ertzaiñei, ortarako eramandako sokak. Arrabost geiegi are atera zuten noskita, asi zan tilinka alboko konbentu bateko ezkillatxo bat. Larritu zituan ezkill-soiñu arek frantziarrak, eta Rodet bera asi zan, buruzagia zala azturik, aizkora eskuan zuala, atera puskatu naiean tankataka; ta ez zuan, noski, biderik iñoiz irikiko, bere kapitan batek komon bateko leiotxo izkututik sartuta, atea zabaldu ez balio.

Sartu ziran mordoka Bonaparte altsuaren izkillulari "aintzagarri" aiek danak Jauregig eletara. Ia galdu ere egin ziran ainbeste ezkaratz,

salol, zurubi eta kamara artean. Sartu zan lapurrelara, guda-gizonen inguruan ibilli oi dan azpierriko jende zirtzila ere. iritxi ziran noizbait danak beren elburura' An zegoan, kamara aundi baten buruan bi Kardenalen erdian, bakarrik, gero Chateaubriand'ek ikusiko zuan bezala, "zurista, ituna, erlijiotasunez igurtzia, Elizaren neke samin guztiak aurpegiak agiritia", Pio VII Aitasantua.

la oartzeke kendu zuan burutik kapela Aitasantuaren aurrean Rodet buruzagiak. Ori bera egin zuten ertzaiñek ere. Artega eskatu zion Rodet'ek Napoleon'en izenean Pio VII'ari Erroma'ko erregetza Napoleon'i emateko. Baretzu, baiña zindo, erantzun zion frantzieraz Aitasantuak: "Nous ne pouvons pas, Nous ne devons pas, Nous ne voulons pas", ("Ez dezakegu, ez zaigu zilllegi, ez dugu gura"). Gero, astiro ta legun eman zizkion ezezko aren arrazoiak. "Ez genezake leiotik jaurti gurea ez dana. Lur auen erregetza ez da gurea; Elizarena da, eta gu. aitasantuok, ez gera erregetza orren administralari baizik. Ez du nigandik inperatoreak irrikitzen duanik lortuko, milla zatitan puskatzen ba'nau ere".

Zapaldurik zegoan Rodet orrelako gizon baten aurrean. Belauneko muin eman zion, lagun bezela Aitasantuak luzatu zion eskuari- Baita ertzain eta gudariak ere, egiazko eraspenarekin artu zuten, katigu irtetzean Aitasantuak danei eman zien onespina.

!par aidera irten zan Pio VII'aren zalpurdia. Pacca zijoa berekin' Eta, aurrean, ugelzaiñaren ondoan, Rodet.

Diruaren galdera eign zion Aitasantuak kardenalari. 3 "grossi", (15 sos), zeramazkian Pacca'k. "Papetto" bat, (22 sos), izan zan Pio VII'ak bere patriketan aurkitu aal izan zuan guztia. Orduantxe egin zuan. parra gogoz Aitasantuak aurreneko aldiz, orrenbeste atseka-been ondorean. Rodet buruzagiak eman zion, kupidaturik, ontzako urrez betetako zakuto bat' Berea zuan diru ori ertzaintzako buruzagi arek. Era berean eman zion zeramakian tabako guztia ere, ez bait zuan Aitasantuak ezer artzeko astirik izan.

"Pozik egon gaitezke Rodet bezalako gizon baten eskuetan jausi gelarako", esan zion Aitasantuak Kardenalari'

Ez zan. ordea, Rodet. Aitasantuak uste zuan bezain "aingeru"; bi nagusiren serbitzura zebillen txoria baizik' Kristau bezala, maite zuan Aitasantua; politikari bezala, Napoleon'en esanera zegoan. Alia ida tzi zion Jaurlearitari gusto txarreko eskutitz bat Aitasantuaren lepotik iseka egiñaz. Parregarritzat aipatzen zuan eskutitz doakabe antan Pio VII'ak aspalditik berekin zeramakian estetako gaitz mingarri bat ere' Gero, Napoleon jausi zanean, al zuan laisterrenik idatzi zion Aitasan-

tuari barkamena eskatuaz' Pacca Kardenal eskubitar txorrotxak ez zion laga, orduan, barkamen ori itzez eskatzeko Aitasantua bera ikusi aal izatea. Jakiñarazi zion, ala ere, Aitasantuak ez ziola iñoiz gorroto-rik garde. Baiña auek geroagoko kontuak dira.

Aitasantua arrapatu zuan egun aietan ere izan zuten buruasterik naiko aitasantu-arrapazailleek, ez bait zekiten beren katiguarekin zer egin, Napoleon'ek agindu argirik eman ez zuan ezkerero. Urietako agintari napoleondarrek ez zuten uribarruan alako atxilotu arriskugarr rik nai eta, ala, uritik urira, gero ta iparralderago zijoazen beren eiza ba- fiotsuarekin eiztari larritu aiek. Orrela, iñon gelditzeko baimenik lor- tzen ez zutela, Itali'tik irtenda, Saboia-gora zebiltzan nora-jo ez zekite- la; bazter guztietan jaurlariek auzi artaz Napoleon'gandiko albisterik jaso izan ez zutelaren aitzakiarekin, aurrera jarraitzeko esaten bait zie- ten. Bazan ura korapillo naasia ertzaindi'ko buruzagi zorabiatu ba- tentzat!

Bidali zuan ordurako albiste ori Napoleon'ek, baiña, ez bear be- zain argia, Aitasantua Itali'tik ez ateratzeko bakarrik agintzen bait zuan. Gaiñera, —alako laisterkeriz zebiltzan danak—, ez zuten Aita- santuaren zaindarien albiste orren berri Grenoble'ra iritxi ziran arte ja- kin; eta, bereala, Ital 'ko bidea artu zuten ostera' Ez zekiten Napo- leon'ek, Aitasantua Grenoble'n zegoala jakin zuanean, bertan lagatze- ko agindu zuala' Asarretu zan arras Napoleon, bere agindua berandu iritxi zalako Rodano ibaiaren jbarra beera Aitasantua berriro Itali'ra zeramakitela entzun zuanean. Gaiñera Greboble'rako ibillaldia isi- llean egitea lortu bazan ere, oraingo ontan jakin zituan erriak Aitasan- tu atxipetuaren ibilketak, eta pilloan agertzen zitzaion bidera, bere za- letasuna oiuka eta negarrez adieraztera. Frantzi'ko erriarrak ez ziran asko ta asko igandetan mezara joango, baiña biotz-barruan kristauak ziran, eta Aitasantuarekin zeuden. Al, nolako miña egin zion, une ar- tan, Napoleon'i ori ain argi ikusi aal izateak. Asi zan laister bere burua zuritzen.

Len ere, Erroma artzeko agindu zuan ezkerero ari zan Napoleon "berak Aitasantuaren animeiburuzko Eskubiderik ez zuala ukitu nai", esaten eta bir-esaten. Areago zijoan orain; "berak ez zuala iñoiz Alla- santuaren baitura zoritxarreko ura agindu", eta, "orrelakorik egin iza- tea zorakeririk aundiena izan zala" bait zion' Gero ere, bizitza guztian, askotan esango zuan bere naimenaren aurka egiña izan zala Aitasan- tuaren baitura; baiña Napoleon ez da beiñere fiagarri. Beti ere, Aita- santuaren espetxetzerik ez bazuan nai, bere eskuetan zeukan Aita- santuari askatasuna biurtzea, eta, Erroma'ra itzultzeko, arri atek iri

kitzea. Beria, bai zera!. Aitasantua Jenoba-ondoko urixka batera, Sabona'ra, eramateko agindu zuan, eta an katigu gordetzeko. Eta, nolako katigutzan, gaiñera!. Mundu guztitik bereizirik, la iñor ikusteke, idazteko lumarik gabe... eta ertzañek maiz etxea ikertzen ziotela. Orregaitik, itxurak gordetzeko bakarrik emana izan zala dirudi Napoleon'ek alderdi aietako Agintari Nagusiari bidali zion aolkua; "Ez zaiozute espetxeturik dagoala sentiarazi". Agintari au, Borghese'ko Prinzipea, ezkon-anai zuan Napoleon'ek, bere arreba maite Pauline'rekin ezkondua bait zegoan.

Iru urte igaro zituan era orretan Pio VII'ak konfiantzako jenderik ikusi gabe, munduan zer gertatzen zan ez zekiala, bakardaderik gogo rrenean' Uste zuan Bonaparte'k bakartasunak aulduko zuala Aitasantuaren naimen menderakaitza. Ez zekian lekaide beneditar batentzat bakartasuna ez dala mingarri.

Biziera latzak ez du beneditar bat ikaratzen; baiña nolako nazka senti bear izan zuan Pio VII zintzoak egun da egun, erregetza kenduaz naiean, egiten zitzaion azpilana zala-ta. Ez zan gaiñera mutiko koxkorra agertu azpikeri iguingarri ortan Sabona'ko Jaurlea; Pauline Bonaparte'tarraren senarra.

Bere buruaz landa, bazuan zertaz kezkatu Aitasantuak. Elizaren gobernuaz porrokatua zegoan; Kardenalen Kongregazio Doneak, desegiañak; Kardenalak berak, barreiatuak.

Ogeitamabi kardenal Paris'era eramana izan ziran, eta ez Napoleon'en begipean egon zitezzen bakarrik; Paris Erroma Berria biurtzeko baizik.

Aitasantuei Erroma'ko Errege berriro izatera itzuli nai izateko gurari guztiak betirako kentzearren, Elizaren Buruzagitza Paris'era eraman nai zuan Napoleon'ek. Paris izanzen zan Aitasantuaren Uria' Ortarako eramana zituan Paris'era oso agure ez ziran Kardenal guztiak. Orregaitik asi zan Paris'era Erroma'ko artxibo guztiak aldatzen' Pentsatuta ere zeukan Paris'en Erroma'ko San Pedro'rena baiña Jauretze Nagusi aundiago bat egitea; eta Aitasantuentzat, Kirinal edo Batikanoako baiña Jauregi dotoreagoak.

Ots! Ez zuan Napoleon'ek ori egitean Paris'en aunditasuna billatzen, bere buruaren aintza utsa baizik. Bazekian ez zala naikoa ezpata, mundua menderatzeko; ezpatak baiña indar aundiagoa duala izpirituak. Entzun zer esan zion bein Inperioko Unibersitateko Erretoreari: "Bi indar dira munduan; bi bakarrik: Ezpatarena eta Izpirituarena (le Sabre et l'Esprit), eta luzarora, Izpirituak beti Ezpata garaitu izan du".

Izpirituaren indar ori nai zuan Napoleon'ek bere eskuetan artu.

Frantzi'ko Gotzaiak, galikeriaren seme izaki, ez ziran Elizak une aietan jasaten zuan ondamen-zori ikaragarriaz oartu ere egiten, geienak beintzat' Galikeriak oiturik zeuzkan Aitasantuaren Eliz-eskubide berberak punttu askotan zalantzan pintzera' Orain, berriz, Eliz-eskubide izpiritukoi oiek ez zizkiola ukatzen, zegian deadar Napoleon'ek; Errege-eskubide politikazkoak bakarrik kentzen zizkiola, ta oiek ere, Inlanderriari aurpegi emateko Frantzia'ren onurak ala eskatzen ziolako. Ez al zan Galietako Gotzaiak atzipetzetzeko naikoa?

Izan ziran argi-argian Diktatorearen alde irtendako Gotzaiak ere. Angulema'koak, adibidez, "pozik zegoala, (esan zuan itzaldi batean), Aitasantuak erregetza mundukoia galdu zualako".

izan ziran ala ere egiazko kezka sentittu zuten Gotzai batzuk. Baiña, batez ere apaizak! urduritu ziran asarre Napoleon'en aurka. Ara zer esan bear izan zien bere elizbarrutikoei aren osaba Fesch Lion'go Gotzai Kardenalak: "Erroma'n gertatua, Aitasantuen erregetza utsari dagokio; politikazko erregetza mundukoari bakarrik' Frantzi'ko elizgizonok gure ondasun lurkoiak galdu genituan bezala, era berean galdu ditu Aitasantuak orain bereak. Baiña Frantzi'ko Elizak lengoa izanaz jarraitzen duan bezala, lengoa jarraitzen du Aitasantutzak ere, izpirituari dagozkionetan Almen Nagusia lengoa bera dualako"

Oker zebillen Napoleon, ondo itxitako Aitasantu batek nekerik emango ez ziola uste izan zuanean. Ez zuten, noski, ondo ezagutzen Elizaren edestia Bonaparte'ren aolkulariek. Bai, ordea, Pio VII'ak; eta Iñozentzio XI'ak "Errege Eguzkiari" egindakoa bera ber-egin zion Bonaparte Inperatoreari: Gotzaiak berriei jurisdiziorik ez eman. Konkordatoaren erara, Napoleon'ek izendatzen zituan Frantzi zabal artako Gotzaiak; baiña ala izendatutekoei, almena, jurisdizioa, Aitasantuak eman bear zien, legezko Gotzai izan aal zitezten. "Ez zait nere eginkizuna betetzeko, bearrezkoa dedan askatasunarik ematen. Ez det era onetan ezer egingo", adierazi zion Pio VII'ak Bonaparte'ri espexhetik.

Arrazoi zuan Aitasantuak, pekatu larria izango bait zan, nori jurisdizioa ematen zion jakiteko biderik ere izan gabe, bere Almena itxuki erabiltzea.

Igarri dezakezu Napoleon'en asarrea; bai bait zekian, Aitasantuen baiezkorik gabe, ez zuala iñork gotzaigo bat artuko. Ordurarte, gairra, lortu aal izan zuan Frantzi'ko apaizek Aitasantua Sabona'n nola bizi zanik ez jakitea' Inperioko katolikoek adiskidetasuna galtzeko arriskuan aurkitzen zan, ta orixe zan, ain zuzen, iñolaz ere nai ez zua.

zuezkan Napoleon'ek 17 gotzaiak, baiña 17'ak, gotzaigoa artu eziñean aurkitzen ziran, Aitasantuak baiezkorik eman nai ez zielako. Ona auzi onen edestitxoa:

Bonaparte'k asarre bizian dasaio Estaduko kontzejuari zerbait egin bearke dala. (Izaturik gelditu zan Kontzejua Inperatorearen sumintasuna ikustean)'

Teologilarien billera bat antolatzen du orduan Inperatoreak. Osaba Fesch izanen da Billeraren zuzendari. Billerakoak ziran, Maury'ren antzeko gizon salduak; baiña baita Emery sulpizitarra bezalako zintzoak ere' Napoleon geiago zorarazteko, Aitasantuak arrazoi zuala jajiñarazi zion begirunerik aundienarekin, billerak, (1809)'

Ez zitzaion bâ, garai artantxe, Napoleon'i Aitasantuarekin geiegi asarretzerik komeni...! Aspalditik, sendikoei entzunaz, Josefiñe lagata, beste emazte bat artzeko asmoetan bait zebillen! Oitura zan LaterriBuruen ezkontzetako auzien epaiketa Aitasantuaren eskuetan ipintzea. Baiña bildur aundia zion Europa'ko nagusiak Sabona'ko giltzapetuari, naiz "erregeen ezkontzak leiarrezko ontziak bezain errezausten zirala" berak txantxetan aitortu, Paris'en bertan, —Aitasantuagandik urruti—, aztertu zan auzia, eta Paris'ko eliz-epaimaiak, Napoleon eta Josefiñe'k gauez egindako ezkontza ura baliorik gabea zala erabaki zuan, toki artan ezkontz-egiteko jurusdikziorik ez zuan elizgizon baten aurrean egiña izan zalako.

Gaur ez luke Paris'ko epai arek baliorik izango, oraingo Kanon-legeak, errege-jendeen ezkontz-arazoak Aitasantuarentzat gordezten ditualako. Baiña orduango legeak ez zuan orrelakorik eskatzen. Oitura bakarrik zan ezkontza-mota aien epaile Aitasantua izatea. Orregaitik ontzat artu zuten Paris'ko epaimaiaren erabakia Emery bezain teologilari zuzenek. Eta baita Pio VII'ak ere.

Austri'ko Frantzisko II'aren alaba Mari Luise zan andregai berria; erreazale aundia austriarrek ziotenez' 1810'eko Jorrailaren 2'an egin zan ezkontza. Ez zuan asko itxaroten senargai altsuak, ezta aietan artu bearra zuan ostikoa.

Ogeita zazpi Kardenai zeuden orduan Paris'en. 27 aulki prestatu ziran aientzako aldarean. Danei agindu zien Fouché'k, era zorrotzean, ezkontzara joateko. Ala ere 13 aulki utsik zeuden ezkonbearrak iristean, eta utsik egon ziran elizkizun guztian. Lertu zan Napoleon'en amorrua: "Izan dezakedan semeak sasikumeak izango dirala adierazi nai didate Kardenai oiek", zion orruka.

Ori adierazi nai ote zuten aiek? Ezkontz-auzietan erregeek Aitasantuagana jotzeko oitura ura lege biurturik zegoala uste izan ote zu-

ten? Edo, egiitxura geiago duana, LAitasantua ezertarako kontuan aru ez izatearekin oni egin zitzaion iraiñagaitik, beren naigabea agertu bakarrik egin nai ote zuten?

Lertu zan beintzat Napoleon'en asarrea. Kendu zizkien, amairu-kardenal protesta-egille aiei, zituzten ondasun eta aginpide guztiak, galerazi zien jantzi gorria eta kardenaltzaren beste ikurrak erabiltzea, eta barreiatu zituan Paris'tik urruti Frantzi'ko probintzietan erdi-katigu. Amairu aien artean zeuden Pacca eta, danen buruzagi, Consalvi. Ez zan nolanaikoa Napoleon'en zakarraldia. Fouché'k gero idatzi zuanez, berak, Fouché'k, salbatu omen zuan Consalvi fusillatua izateti. Baiña ez du Fouché'ren itzak konfiantza aundiegirik merezi. Ez zan gaiñera Napoleon, Consalvi bezain Kardenal ospetsu bat fusillatzeko, ain tuntun zoroa'

Gorritz jazterik ez zuten ezkeru "Kardenal Beltzak" esango die arrezkeru 13 kardenal aiei mundu guztiak; eta mundu guztiak, eta batez ere Frantzi'ko erriak, egiazko matiritzak, artuko ditu eta egiazko martiri lez maitatuko'

Bitartean geldirik zegoan, kardenalen iskamil arek baiño garrantzi aundiagoa zuan gotzaien jurisdizioariburuzko auzia. Ta naitanaiez zerbait egin bear zuan auzia konpontzeko Munduaren Jabe ezkondu-berriak, eta egin zuan egitekoa'

Maury kardenalari bururatu zitzaion zer egin ori: Koldobika XIV'ak egin zuana bera. Izendatutako Gotzaiak bakoitza bere elizbarrutira "administratore" bezala bialtzea' "Administratores Capitulares" deitu oi zaie gotzai-ordezko auei Kanon-Legean, iiberri dan gotzai baten utsunea betetzeko beste gotzai barri bat etorri artean Kanonigoen "Kapitulu" edo Batzarrak izendatzen ditualako. Zori txarrez ez zuan oroitzen Maury'k Errege Eguzkiari jokaera arek ondorio makturak ekarri zizkiola.

Begi zorrotzagoa izan zuan "Gurketako Ministro" Bigot de Preameneu galikerizale ezagunak. Ara zer esan zion Napoleon'i: "Ez dute apaizak orrelako administralaririk artuko. Administratze ortarako izendatutako Gotzaiak berak ere, gogorik txarrenarekin eta kezkarik izugarrienarekin makurtuko dira eginkizun ori bere eskuetan artzera".

Napoleon'ek, ordea, zulotik atera nai zuan len-bait-len bere burua. Ala agindu zien jurisdiziorik gabe zeuden Gotzai aiei danei, bakoitza bere elizbarrutiaren administrapena artzera joateko. Kezkarik aundienarekin, bai, baiña, ala ere, makurtu ziran Gotzaiak, —iai, Gotzaiak!—, Nagusiaren agindura; baztar guztietan, ordea, aurka irten zitzaizkien apaizak, eta oso gogorki gaiñera toki batzuetan, Napo

leon'ek menperatu berri zituan lurraldeetan batez ere: Olanda'ko Bois-le-Duc'en, Belxika'ko Lieja'n eta Malinas'en; Toskani'ko Florentzi'n; eta Frantzi'ko Paris'en bertan.

Paris'ko administralariaren izendatzeak badu bere kondairatxo pitxia ere. Osaba Fesch, Lion'go Goigotzai kardenalari eskeiñi zion Napoleon'ek aurrena Paris'ko Elizaren Lendakaritza' Illobak uste baiño gizonagoa eta apaizagoa irten zan osaba: "Potius mori" "Lenago ill" erantzun omen zuan; eta osabaren erantzun ori entzutean, Maury gogoratu omen zuan illobak, Napoloen'ek; frantzieraz, "Maury" "mori" esaten bait da: Ala, "potius mori", "lenago Maury" biurtu omen zuan Napoleon'ek, eta Kardenal "gorrien" buruzagi zan Maury oni eskeiñi omen zion orduan Paris'ko goigotzaitza.

Egitasunik gabeko asmakizun utsa da seguruaski kondaira ori dana. Napoleon'ek ez zekian orrenbeste latin. Ez zuan, gaiñera, oroi bearrik Maury'ren izena gogoratzeko, ondotox bait zekian iñork eginkizun zikin ura artzekotan, Maury maltzurra izango zala iñor ori. Izan ere, administratzaillleen iskamilla ura dana onen asmakizuna izan bait zan.

Zer esango zenuke, Kardenai Jauna, nik Paris'ko goigotzai izendatu zaitudala esango benizu"?, galdetu zion. bere aurrera deituta' Napoleon'ek'

Pozaz lertzeko zorian, ieseri egin bear izan zuan kardenalak! atsedeen artzeko.

---"Zer esango zenuke?"

—Baietz!!!, (oiu egin zuan Maury'k pozaren pozez erantzuna gerorako utzi gabe).

Ezetz, esan zuten ordea Paris'ko Apaiz Jaunek, D'Astros Kanonigoa aitzindari zutela.

D'Astros au, "Inperio Kristaubidea" Napoleon'en esanera idatzi zuan ura bera zan, orain inperatorearen etsai biurtua, edo Inperatorea aurreraegi joan zala uste zualako, edo", Inperatoreak, Kristaubide-egitean erabili zituan lanak eta zurikeriak bear bezala ordaindu ez zizkiola iruditzen zitzaiolako. Kanonigo uts jarraitzen bait zuan oraindik, naiz Inperio guztirako Kristau-Bidea idatzi zuana, bera izan! Irue-tako bat, beintzat!

Une artan iritxi ziran, gaiñera, Sabena'tik isillezko bidez, Aitasantuenaren bi "Idazti Labor" (edo "Breves", latiñezko izkeran), Napoleon'ek izendaturiko Gotzai administralari aiek, "usurpatores", "kargu-arrapatzaillle utsak", ziralda adieraziaz, eta Maury lotsagalduari kontuak zorroz artuaz' Ez zegoan Sabona'ko bakartia bururik makur-

tzeko asmotan. Aitasantuaren idazti oiek D'Astros'en etxean aurkitu zituan ertzaindiak' Laister zan espetxean baitua, D'Astros kanonigoa. Ikaratu ziran ezurretaraño beste kanonigo paristarrak, eta ikarak eraginda eman zioten Maury'ri ordezkarrak, kalonjeen izenean Paris'ko Eliza, gauzak zuzendu arte, jaurri eta gobernatu aal zezan.

—Baiña indarkerizko erakuntza arek gauzak zikiñago uzten bait zituan eta asarre begiraten bait zioten apaizek Maury'ri..., eta beste elizbarrutietan ez bait zeuden Kanonigoak Paris'ko aien eginkizuna birregiteko prest., nora deitu asmātu eziñik aurkitzen zan Bonaparte. Eta non deituko-ta, aterik okerrenean jo zuan: iConsalvi'ri ez zion bâ eskatu Aitasantuaren izenean berak, bere buruz, Gotzai izendatu aiei jurisdizioa emateko.'! Eta Consalvi'k ezetz erantzun zionean gauza bera eskatu zien beste kardenal "beltzei" danen aotik ezetza bera jasotzeko. Alperrik eskeintzen zien askatasuna jurisdizioemate aren truke'

—Ostera beste Eliz-gizon ospetsuen Billera bat antolatu zuan 1811'ren Otsaillean. Bost Gotzai (bonapartetarrek) eta bi kardenai "gorri" ziran, Emery apaiz sulpizitarrarekin, Billera osatzen zutenak. Bi kardenalak, Maury eta Caselli ziran. Azkeneko au Pio VII'ak, aitasantutza artzean, konkordatoa prestatzeko Paris'era bidalitako ordezkaria zan. Napoleon'en lagun biurtua, batez ere onek, bere burua Itali'ko Errege egiñik, Jenoba'n inperioko goratzarrerik aundiena eman zion ezkerok: "Légion d'Honneur" edo "Onuragarrien Lejioko" gurutzerik garaiena.

Billaren lendakaria, osaba Fesch izan zan.

Badu bigarren Billera onek ere kondaira polita, baiña au, egiazkoa. Geiegi luzatzen zirala-ta, an agertu zitzairen batzarkideei Inperatorea, Pio VII'aren aurka ordubete luzean berebizikoak esatera. Laister oartu zan batzarkide kuzkurtuen artean bazala bat, zorrotz begiraten ziona: Emery: Larogei urteko agurea, batzar artan bildurrik gabe Aitasantuaren aide, bakarrik zegoan gizona' Gizon onuragarri oni galde-egin zion Napoleon'ek: "Emery Jauna: Lzer deritzaizu zuri Aitasantuaren almena"?. "Sire, (Jauna): zuk antolatutako Kristaubideak erakusten diguna bera", erantzun zion San Sulpizio'ko apaizen zuzendariak. Ta bereala jakiñarazi zion Kristaudibe artan zer erakusten zan: "An, Sire, Aitasantua zein dalako galderari, onela erantzuten zaio: "Elizaren Burua, Kristoren Ordezkaria". Eta Napoleon'ek, almen ori ez ziola Aitasantuari baiezean ipintzen, politikazko erregetza bakarrik mugatu nai ziola erantzun zionean, Bossuet'en itz batzuekin jardetsi zion Emery'k, Napoleon'ek bere burua Bossuet'en maitale sutsu

agertzen zuala bai bait zekian' "Sire: Animeiburuzko Almen Garaia iaretasun osoan eta bearrezkoa dan eskiertasunarekin mundu guztirako erabilli aal zezan eman zitzaion Aitasantuari Erroma'ko Erregetza betea". Eta luzaroan jardun zuten inperatoreak eta Apaizak, an iñor besterik egon ez balitz bezala, alkarrizketan.

"Iñor beste" aiek danak baiño gizonagoa zan Napoleon. Asi ziran bâ azkenean aiek larri Emery sulpizitarra babesteko, —uste bait zuten gogor zigortua izanen zala—, Inperatorea goxatu nalean. Asarre is llarazi zituan Napoleon'ek eta errukirik gabe jaurti zien aurpegira beren koldarkeria; ta abegirik onenarekin eskertu zuan Emery zârra, onek "irteerarik gabeko bidera sartu aal izatetik bére Inperatorea libratu zualako". Bazituan Napoleon'ek orrelako ekite bikaiñak' Laister aztuzten zitzaizkion, ordea, tamalez.

—Billera arek ez bait zuan erabaki argirik eman, iru Gotzai bidali zituan Bonaparte'k Sabona'ko Bakarti ospetxuarengana' Ondo ezaguna zan iruetako bat: Duvoisin, Nantes'ko Gotzaia, Bonaparte'ren kuttunik laztanenetakoa, izlari yayoa, Inperatorearen iritiz Bossuet'en kidekoa, "mon oracle et mon flambeau" deitu ere deitzen bait zion: "nere igarlea ta argiemaillea". Goigotzaiek Gotzaiei jurisdizioa eman aal izateko eskubidea eskatzera joan ziran irurak, eta joan ziran bideetik eta joan ziran bezala itzuli ere ziran: utsik; ain gogoko zuten esku-bide ura gabe.

—Ezin askatua zirudian korapillo ura askatzeko, XIV Koldobika'k "L'Assemblée du Clergé" edo "Eliz-Jendeen Batzarra" Inozentzio XI'aren denboran bildu zuan bezala, Napoleon'ek "Frantzi'ko Elizaren Kontzilioa" bilduarazi zuan, 1811 aren Ekaiñaren 17'an.

95 gotzai etorri ziran Batzar artara; aien artean, 6 kardenal "gorri", jurisdizio-zai zeuden Gotzai guztiak eta, Napoleon'en "zaintzapean" zeuden laterritxoetatik, bat edo beste. Auetan, aipatuena, Dalberg doixtarra, Napoleon'en baietsiarekin bere buruari Alemani'ko "Primas" edo Lenen Gotzaia deitzen zion elizkume saldua. "Notre Dame" esan oi zaion "Andra Mariren" Jauretxean bildu zan sasi kontzilio bonapartetarra, osaba Fesch lendakari zuala.

XIV Koldobika'k "Elizjendearen Batzarret k" lortu zituan "Lau Ataltxo" aiek atera nai zituan Napoleon'ek "Kontzilio" ontatik bereztat. Egoki baiño egokiagoa zirudian aroak, orduantxe bertan argitaratu berria bait zuan Tabaraud oratoritarrak idazki astun bat, Van Espe'ren aburu zârarak lurpetik bir-ateriaz, Gotzaiek beren Elizetan Aitasantuaren baiezkorearen bearrik gabe eskubide osoa bazutela erakusteko'

Berbizturik agertzen zan oster a iñoiz osoro il ez zan galikeria, baiña ez zuan emeretzigarren mendean eliztarren biotzetan, amazazpigarrean izan zuan indarrrik. Ez zuan ori Bonaparte'k ikusi, ta orregaitik irten zitzaion uts borobilla kontzilioketa ura, naiz, Duvoisin aurreneko zala, gotzaia-sail txiki bat Inperatorearen aide zismaraño joateko ger-turik egon; geienak ez bait ziran orrelako zakarkeri bat egitearen mai-tale' Eta bazan gaiñera beste sail bat eta ez txikia, oso-osoan Aitasan-tuaren alderdiko zana kosta-ala-kosta. Bi belxikatar, (Tournai'ko Hirn; Gante'ko Broglie), eta frantziar bat, (Troyes'ko Boulogne), ziran sail onen zuzendariak. Arrigarriagoa eta onuragarriagoa dana: Alderdi on-takoen laguna zan Fesch bera ere: kontzilioaren lendakaria, Lion'go goigotzai kardenala, Frantzi'ko Eliza'ren "Lenen Gotzaia", Inperato-rearen osaba. Zenbat eta zârrago orduan eta Elizaren maitaleago ari-zan biurtzen Fesch Kardenala'

Boufogne'tar Eztebe Troyes'ko Gotzaiak egin zuan sarrerYI(itzaldia, "Kepa'ren Aulkiarekin Gotzai orok izan bear duan batasuna ezergaitik eten ez daitekeana dala esanaz. Era berean mintzatu zan Bordele'ko Goigotzai D'Aviau jatorra, eta bi auen buruzpidea jarraituaz, Kontzilio'ko Gotzai guziak berri- zuten Aitasantuaren esanara egoteko bakoitzak bere sagaraketakoan egin zuan ziña'

Aurrera igaroaz, Maientza'ko Gotzailaguntzaille Zu Droste- -Fischering Jaunak, beste ezer egin baiño lénago, Aitasantuaren as- katasuna eskatu bear ziola Kontzilioak Napoleon'i adierazi zuan, eta asko izan ziran alde atera zitzaizkion FrantziFrantzi'ko gotzaiak ere. Larri zebiltzan napoieondarrak, eta auen buruzagi Duvoisin'ek Napo- leon'en aide ere zerbait egin bearrean aurkitzen zala Kontzilioa-ta, onen eskomikuaren aurka Aitasantuari protesta bat bidaltzea aurrera- tu zien batzarkideei: kontuan ere artu ez zan gogakizuna, ez bait zion iñork jaramonik egin. Kixkaltzen zegoan Bonaparte, (Fouché'ren er- tzaintzak adierazi bait zion osaba Fesch bera ere Aitasantuaren alde zebillela), eta diktatore guztien jokabidera jo zuan: Iru aitasantuzale- -alderdiko Gotzai buruzagiak espetxera jaurtiaz. Beste Gotzaiek, pu- rrustada zakarrak jaso ondorean eskuetan ipiñi zitzaien, Inperatorea- ren Erabakiari, banaka beren baiezkua emateko agindua artu zuten. Erabaki arek, Gotzaiei jurisdizioa ematea Goigotzaien eskuetan jar- tzen zuan, Aitasantuak berak emaitza ori sel illabetetan egiten ez ba'zuan. Eskubide ori bera ematen zien gaiñera "Erabaki" arek, Napo- leon'ek aurrerantzean artu zezazkean lurraldeetako Goigotzaiei ere.

Zemai eta ikara guztien azpian zapalduta, Gotzai geienak eman- zioten baiezkua Erabaki zorigaiztoko arri. Izan ziran aia ere, ezetz esa-

teko ausardi donea izanz zuten 13 Gotzai; eta, baietz esandakoek be-
raiek ez zioten Napoleon'i ezertxo ere konpondu, baiezko ura Aitasan-
tuak onartzekotan bakarrik ematen bait zuten baliozkoa bezala. Bal-
dintza ori ipintzean Aitasantuaren eskuetan uzten zuten azkeneko
erabakia. Alperrikakoa izan zan beraz "Kontzilio" guztia.

¿Ez al zan Bonaparte'ren arrokeria garrartzutzeko naikoa?. Euro-
pa'ko Errege danak oinpera menderatu zituanak, lez zezazkean bere
jaurerri bereko Gotzaiak eskura erakarri!

"Bedeaux", "Laches", "Morroitxoak", "Makalak", deitu zien arek
aurpegira "Morroitxoak?", makalak?, koldarrak? ain gizonki, ezer ez
zezakean Aitasantuaren aide, Munduko Jaunaren aurrean jeiki diran
gizakumeak"? erantzun zion zorrotz Osmond, Florentzi'rako izendatu-
ta zegoan gotzaiak' Osmond au izan zan Aitasantuaren baimenik ga-
be Florentzi'ren administralari etorrita apaizak artu ez zutena. Bizkor
zegoan orain Aitasantuaren alde. Bada ori, Pio VII'aren santutasuna
jendearen biotzak nala irabazten ari zanaren adigarri egokia!.

—Bost kardenal "gorri" bidali zituan Bonaparte'k Sabona'ra
Aitasantu atxilotuaren onetsia lortzeko. Txukun billi ziran aiek. Zis-
rnaren arriskua aipatu ondorean, "Goigotzaiek Gotzaiei jurisdizio-
-ematea Aitasantuaren izenean eginen zutela beti", azaldu zioten Pio
VII'ari. Astiro buruan iraulka zerabilkian onek auzia. baiña Napo-
leon'en urduritasunak bota zituan ankaz gora konpoketa eroso baten
posibilitate guztiak, Aitasantu nekepetua bere esanera erakartzeko,
zentzurik gabeko zemaigintzan asi bait zan; alegia, "Inperatorearen
Gotzaiak orrela Aitasantuaren itz baten zai egon-bear utsa inperato-
rearen izen onarentzat iraingarri zala" deadarka. Nekeak eta bakarda-
deak batere auldu ez zuten Pio VII'ak, patxada osoan gogorkeri bat
esan gabe ausi zituan trata guziak.

Bonaparte zapuztuaren erantzuna espetxean zeuzkan iru Gotzai
aiei kargua lagaarzte, eta eliz-gizon geiago espetxaratzea izan zan.
Osaba Fesch, kortean zituan kargu guztietaz erantzita Lion'era bidali
zuan. Jende asko biltzen zuten sermoiak eta errietako mixioak gala-
ziak izan ziran. Iñoiz baiño zorrotzago jarri zan Fouché'ren ertzaindia
Elizari begira... Agiri-agirian ari zan Napoleon burua galtzen.

e Pentsatu zuan zisma bat egitea? Ez dirudi. izanen zuan gotzai-
-taldetxo bat Duvoisin'ekin agian zismaraiño jarraituko ziona, baiña
zisma batek ez zion ezertxo konpontzen, bai bait zekian ordurako
Europa'n eta Frantzi'n bertan aurka zeuzkala katoliko guztiak. Aurka
ere demokrazi zaleak, gero eta nabarmenago. Aurka buru-laneko jen-
dea. Aurka borboitarak' Aurka, egunetik egunera geiago, zergek as-

perturik zeukaten erri landerra. Zerbait egin bearrean aurkitzen zan, bere ospea gorago jasota, Frantzi'aren jaiera berriro bereganatzeko; eta Inghlanderrria menderatzerik ez zeukan ezkerero, Errusi'ari eraso zion, eunen bat urte geroago Hitler'ek arrazoi beragaitik eginen zuan bezala. An itxaro zion, ordea, "pope" edo "apaiz ortodoxiarrek" gogoia suta zioten erri abertzale kementsu batek 1812'ko Ekaiñ artan.

Espetxeko zaindarien jakiñarazi zizkieten Pio VII'ari ekiñaldi artako Napoleon'en aurreneko garaitzak' Ez ziran zaindari aiek egi garratz batez oartzen: garaipen aiek errusitarren atzeruntzko jokoera yayo baten ondorio izanik, Napoleon'entzat arras kategorriak zirala, Frantzi'tik gero ta geiago urrunerazten zutelako. Oartzen ote zan ortaz, ertzainek ondo aztertu ondorean iristen zitzaizkion berriak besterik ainbeste denboraz jakin ez zituan Pio VII'a? Bai, agian, ez bait zan gizon motela. Ez zitzaion orduan arrigarri izango Napoleon, gudarozte guztia galdu ondorean, arrezkero betirako ondatua, Frantzi'ra itzuli bearrean arkitu zala jakitea.

Errusi'ari ekin baiño amabost egun lenago, garagarrillaren 9'an Sabona'tik Fontenebleau'ra eraman zuan isillean Napoleon'ek Pio VII'a. bora Errusi'n zebillelarik inglanderritarrek Aitasantua iaretuko ote zioten bildurraz.

Ainbeste gizon alperrik Errusi'ao zelaietan galdu izateak ez zuan batere Napoleon'ik kezkatu. Zoro-zoro ziardun oraindik, Bistula edo Elba ibaien ertzetan irabazitako borrokaidi orokor baten bitartez Europaren jabetasuna ostera bereganatuta, Aitasantua Paris'en ezartzeko asmotan. Iñoiz baiño geiago bear zuan orain Aitasantuaren laguntza erriaren biotza irabazteko. Baiña an zegoan Pio VII a Fontenebleau'ko baitegian, bakartasunik itxienean, bururik makurtzeke.

Duvoisin erdi zismatikoa bidali zion Napoleon'ek alkarrizketa berrikitzeko. Osasunaz oso gaizki zegoan Aitasantua. Izugarriko sabel-miñak izan zituan Sabona'tik ekarri zutenean, baiña ez zioten ertzainek atsedeen-astirik eman' Oge batean etziñik. erdi illean iritxi zan Fontenebleau'ra' Oñaze oiek auldu zutelakoedo. alkarrizketarako gerturik aurkitu zuan Duvoisin'ek, eta ala jakiñarazi zion oraindik aunditasun-ametsetan murgildurik zebillen Napoleon'i.

—Azkenean, Duvoisin'ek ekarri zizkion berriekin zuzpurturik, Aitasantua berarekin aurrez-aurre itzegitea erabaki zuan Napoleon'ek, ortarako Fontenebleau'ko basoetan laisterka antolatutako eizaketa bat estalkitzat piñiaz' Ez bait zuan nai alkarrizketa aren berri iñork jakiterik. Ortaraño "makurtzearen" lotsa? Jakiñezkero erriak artu zezakean jokoeraren bildurra?

1813'ko urtarrillaren 19'an sartu zan Napoleon Aitasantuaren gelan onek ezer ez zekiala, eta "seme maitekorraren antzera besarkatu ta laztandu zuan bere Aita", ; Komeri utsa, dana!

Berekin eraman zuan MariLuise emazte erreza-zaillea, goxakeri emekoein bitartez arek Aitasantua biguindu aal ote zezan.

Iñork ez daki Aitasantua eta Inperatorea alkarrekin egon ziran bost egun aietan, an zer esan zan, zer egin zan, eta nolako jokaerak erabilli ziran. Bi gauza dira egiak. Bata, Napoleon'ek ez ziola Aitasantuari gaiñean eskurik jarri, "L'Antinapoleon" izeneko liburuak dizkion ikaragarrikeri danak borboizaleek asmatutako gezur borobiilak bait dira.

Beste egiazko gauza, auxe da: Napoleon idazki bat eskuan zuala irten zala Fontenebleau'tik, eta idazki arek Inperioko gotzaieiburuz eskatutako guzia ematen ziola Napoleon'i. Zer gertatu ote zan egun aietan?

Batzuek diotenez, errenditu egin omen zitzaion azkenean Aitasantua; orrenbeste denboran, bakarrik, Elizagandik bereizia, iñoren laguntzarik eta aolkurik gabe, ta munduan zer gertatzen zan ez zekiala bizi izanik, azkenean nekatuta, eta aulduta, eta aspertuta, egun batzuk leenago iizorian egon zalako ia zer egiten ez zekiala, errenditu egin omen zan azkenean Inperatorearen aurrean. Ori egitzat ematea, Pio VII'aren bizkortasuna ez ezagutzea litzake, eta bere adimenari amen txikiegia egitea. Bazekian Pio VII'ak, naiz munduko gertakizunetatik ondo gordea egon, Napoleon amaitua zegoala..., inork sinistu lezake len garaillearen aurrean makurtu ez zana, garaituaren aurrean orain makurtu zanik?

Ez da sinisgarri. Eta ez da egia ere. Pio VII'ak ez zion ezertxo eman alkarrizketa aietan; Napoleon'ek atera zuan idazti ura ez bait zan "azken-erabaki" bat, eta, askoz gutxiago, kontzientziak bearizeko indarra zuan Aitasantuaren agindu bat; "azken erabaki" ori antolatze-ko lagundu zezakean lan-tresna utsa baizik: "comme devant servir de base à un arrangement définitif".

Baiña zikin jokatu zuan Napoleon maltzurak' Geroago astiro landu-bearra izateko eskema bat besterik ez zan idazti ura, Konkordato Berri bat bezala agertu zuan mundu guziaren aurrean, eta Inperioko lege biurtu gaiñera, Aitasantuari ezer adierazi gabe'

Ortan egon zan Pio VII'ren obena: edo Napoleon'ek idazti ura gaizki erabilliko zualaz ez konturatzean, edo Napoleon'i idazti aren "balloeza" eta "ixillik-godabearra" argiago ez jakiñarazian..', ;oh jakiñarazi ez ba'zion beintzat!!!

Pozik zeuden bonarpartetarrak' "Irten naiz nere bizitzako larrita-sunik aundienetako batetik", zion Napoleon'ek. "Konpondu ditu Inperatoreak Kristaud aren auziak", idatzi zion Mari- Luise'k Austri'ko Frantzisko II bere aitar .

Gotzaia marnaka batzuek ere etorri ziran Fontenebleau'ra, Aitasantuari, "pakea erakarri zualako", zorionak ematera. Laga zitzaion erriari Aitasantuarengana urbiltzen. Bildu ziran orobat 25 kardenal, —"gorriak" eta "beltzak"—, Fontenebleau'n Aitasantuaren ondoan bizitzeko. Napoleon'ek "Konkordato Berna" esaten zion misteriozko idazti aren aldekoak ziran, jakiña, Kardenal "gorriak", eta aurkakoak berriz Kardenal beltzak". Auek zuten arrazoi, idazti ura, lanerako pres baliorik-gabeko aurre-eskema bat besterik ez bait zan.

Betillun, barruko kezkez beterik, artega zegoan Aitasantua bera. Ta au izan zan Napoleon`en utsa: Pio VII'a isillik geldituko zala uste izatea. Miñ aundiegia ematen zion Pio VII'ari diplomazikeritan ibilli izateak, garbiago ez jokatuak, gero Paris'en gaizki erabilliak izanen ziran eskemak izenpetzen ari gabe "ezetz" argita-garbi Napoleon'i sendo erantzun ez izanak'

—Bereala konpondu zituan gauzak, 1813 artako Epaillaren 24'ean Inperatoreari bidali zion eskutitz baten bitartez' Eskema artako puntu guztiei indar oro kendu-ostean, baliorik gabea zala adierazten zuan dokumentu ura, Napoleon'ek "Konkordato Berria"ren izenarekin iragarri zuan idazti doakabe ura' Pacca eta Consalvi Kardenalak biak izan zituan Aitasantuak eginkizun ontan laguntzaillerik zintzoenak.

Orduan agertu zan ederki Napoleon'en asmoen txarkeria. Isillean gorde zuan Aitasantuaren eskutitza; "Konkordato Berna" Inperioko Lege egiña izan zan; Di Pietro Kardenala, erbestera jaurtia; Gotzaiei "Konkordato Berna" onartzeko agindu zitzaien; eta ertzaindiari, elizako jendeak arretaz begipean eukitzeko. Frantzi'ko Kardenal danak Aitasantuaren ondotik uxatuak izan ziran, eta Aitasantua bera atzera, estuago zaindua. Lasai bizi zan au bere obena garbitu eta okerra zuzendu zuan ezkeru.

Agindu zitzaien ioraindik! jurisdiziorik gabe zeuden Gotzaiei ba-koitza bere eliz-barrutira joateko, baiña oartu zan Napoleon bera, agindu au alperrikakoa zala. "Laga dezagun oraingoz, kutxatillean lo, Gotzaien izendaketako ixkamil moldaezin au. Elba edo Bistula'ren ertzetan irabaziko dugun garaitza orokorraren ondorean, aterako dugu berriz argitara". Ez zegoan Napoleon bere galikeriasmoak baztarrera botatzekotan. Eta oraindik Europa'ren jabe izateko asmotan zebillen.

Zentzu geiagorekin esan zuan egun aietan osaba Fech kardena-

lak: "Nere illoba, galdua da; baiña Eliza salbatua da: "mais l'Eglise est sauvée". Ez zan gauza zailla-ta, igarle irten zan Fesch: berealaxe, Urrillaren 18 eta 19'an Leipzig'eko borroka odoltsuak zearo porrokatu zituan Napoleon'en gudaroztearen indarrak!

Orduan. VII Pio'ri, bere Gotzairik lagunetak, ostera 1802'ko Konkordatora itzultzeko aolkua eman zioten. Baiña, aurretik Napoleon'i Erroma Aitasantuari itzultzeko erarik egokienean eskatuta! Alperrik ordea!, burua galdua noski, bere semetxo bakarra Erroma'ko Errege koroiazteko prestaketak egiteko asmotan bait zebillen Napoleon!

Aitasantua, bitartean, baretasun osoan, (uste-ezean bizia galdu ere zezakeala-ta) bere eriotz-ondorengo Konklabea nola bildu antolatzen ari zan.

Leipzig'eko borrokaldiaren ondorean, 1813'aren Uztaillan, borrokaldi artan Napoleon garaitu zuten Erregeek "Praga'ko Batzarra" eratu zuten. Eta batzar artara, Frantzisko II Austri'ko Inperatoreari bidali aal izan zion Pio VII'ak estutitz bat Elizako Laterrien itzulketak eskatuaz. Ez zion austriarrak erantzunik eman, bai bait zuan berak ere Laterri aietan atzaparrak sartzeko gogoia.

Une larri aietan artu zuan Napoleon'ek bere adiskiderik onenagandik onen azken-aolkua: eskutitz bat: iltzear zegoan Duvoisin Gozaiaren eskutitz bat. Ondo damaturik zegoan au eriotzaren aurrean eta ona zer eskatzen zion ain maite izan zuan Inperatoreari: "Len-bait-len amaia emateko" «a cette captivité qui afflige a toute la chrétienté», "Kristaudi guzia samintzen ari zan Aitasantuaren baitura arri", amaia emateko'

Biotz-zirrara aundia egin amen zion Bonaparte'ri "bere Bossuet'en" izkera onek. Eskatzen zion (Duvoisin'ek) beste gauza bat ere: Erroma Aitasantuari itzultzeko. Aitasantua! Prusi, Austri ta Errusi'ko gudarozteak Frantzi'ren barruan zebiltzanez gero, kezketarako besterik ez zion balio Aitasantua Fontenebleau'n gordetzeak. Ala ai datuarazi zuan ostera Sabona'ra.

Luzea izan zan ibillialdia' Frantzi'ko mugara ez urbiltzearren, —an, bertan bait zebiltzan austriarrak—, Limoges, Montauban, Montpellier, eta Niza-zear inguruketa aundi bat egiñaz eramane zuten bñ Aitasantua Sabona'ra. Luzea eta geldia eta arras mingarria, oso gairorik, oiñaze aundiz josia bait zegoan VII Pio aldi artan. Luzea izan zan bidea, eta mingarria, baiña baita pozgarria ere, ez bait zekian jendeak Aitasantua goratzeko zer egin' Bein baiño geiagotan za!purdiz aldatubearrean aurkitu ziran ertzaiñek, Aitasantua ikusi ta ukitu naiean Frantzi'ko kristau-erriak zalpurdia puskatzen zualako.

1814'eko Otsaillean Pio VII'a ostera bere lengo Sabona'ko espetxe zarean zan.

Ordurako Napoles'ko Errege Murat, bere ezkon-anai Napoleon salduta, onen etsaien alderdira igaroa zan, eta bere Jaurerria zabai tzeke asmoarekin indarrez artu zien Erroma, Napoleon'ek an zeuzkan gudari urrie '.

Laister pentsatu zuan Napoleon'ek zer egin, ezkon-anai ukatu arri Erroma'ren arrapaketa samingarri biurtzeko: Aitasantua askatu, Erroma'ra joan zedin. Ala egin ere egin zuan, 1814'garren urte artako Loreiflaren 24'ean.

Alperrik irten zitzaion Murat Aitasantuari bidera, Erroma'n ez sartzeko eskatzera, Pio VII'ak ez bait zion, jaramonik egin. Gaiñera, bidea, iare laga bear izan zion bestela ere, Murat'ek; austriarrek Erroma'tik irtetzeko agindu bait zioten!

Semeak aita berbiztua artuko luteken eran artu zuten erromatarrek Aitasantua, txaloka, pozez karraxika, maitasunak eraginda negarrez kantari. Egiatzkoa zan erromatarren alaitasuna, zalantzarik gabe. Ala ere erri ura ez zan lengoa; aldakuntza aundiak egin ziran bere pentsatzeko moduan, Elizako Laterrien agintariek laister ikusi aal izango zuten bezala.

Laterri garaille guztietako enbaxadariak eman zioten Pio VII'ari Erroma'ko atarian ongi etorria' Aitasantuaren Pertsona ez zan aspai diko mendeetan ain erpiñean agertu.

Irten bear izan zuan urrengo urtean ostera Erroma'tik Aitasantuak Murat'ek uria kendu ziolako' Napoleon'en "Eun Eguneke Agintaritzakoan" izan zan ori; 1815'eko Epaillaren 1'etik Ekaiñaren 22'ra. Lister izan zuan bâ Murat'ek Napoleon bere ezkon-anaia ostera berriz Europa'ren jabe egingo zitzaiola, eta, austriarrak salduta, Napoleon'en aidera etorri zan berriro' Baiña Ekaiñaren 18'an, Wellington'ek porrokatu zuan betirako Napoleon'en inperioametsa, Beixika'n, Waterloo'ko borrokan. Napoleon Sant Elena ugartera katigu eramana izan zan, eta Murat, fusillatua, ostera Fernando IV'ari Napoles'ko Jaurerria kendu nai izan ziolako. Bonaparte'tarrak, Napoleon'en aideak, bazter guztietatik boteak, Erroma'ra jo bear izan zuten, Aitasantuaren babesera.

Orduantxe agertu zan mundu guztiaren aurrean Pio VII'aren aunditasuna. Oso-osoan barkatu eta lagundu zien bere etsai guztiei' Sabona'tik iare irten zanean ere itz auek esan zizkion espetxe-zaiñen buruzagiari: "Esaiozu Inperatoreari asarretuko naula, eta miñ emango didala nik gorrotorik edo apentza-asmorik izan nezaiokeala pentsa-

tzen ba'du".

Toskani'ko dukesa Napoleon'en arreba zan. Agian dukaterria gordetzearren napoleonkeri ororen etsai agertu nai zualako, ez zion bere amari, Andre Lutezia'ri, Flolorentzi'n babesik eman. Bai ordea Pio VII'ak, Erroma'n. Maiz joaten zitzaion, gaiñera, ikustalditxo bat egitera, eta maiteki itzegiten zion "gure inperatorearen" zona zenbat ajola zitzaion Andre erori minberatu arri jakiñarazteko.

Eta Pio VII'aren jarduketa aiek ez ziran itz goxoak bakarrik' Bene-benetan saiatu zan Errege garaillengandik Napoleon'entzat katigutza xamurrago bat lortzen' Ara zer idatzi zion Inghlanderriko Printzipe Erregeordezkoari: "Ez da ontara ezkerro Napoleon iñorentzat arrisku. Gaur arrisku ez dana, ez bedi izan biar iñorentzat kontzientziko kargu"

Erroma'n gorde zituan Napoleon'en iru anai; Luzian, Luis, eta Jeronimo; ta iru arreba: Pauline, Jule, eta Ortentsi. Eta osaba Fech giza-gaixoa ere, nora jo ez zekiala, Erroma'ra joatea eskatu naiean zebillela jakin zuanean, "etorri dedila len-bait-len, esan zuan, ez bait zaigu aztu, al zuan guztia gure aide egiten saiatu zala".

VII Pio Erroma'ra iritxi zanean, Sant'Anxelo'ko gazteluan itxia aurkitu zuan, ordurako, Mauyri Kardenala. Berealaxe eman zion Aitasantuak askatasuna, eta ez zion sekulan Kardenaltzarik kendu nai izan. Alperrikakoak izan ziran ori lortzeko "zelanti" eskubitarrek egin zituzten saiaketa guztiak'

Ez zuten, iez orixe! pozik ikusten borboitarrek Pio VII'aren biotz-baretasun ori. Asarreak eraginda jakiñarazi zion Koldobika XVIII'ak berak, Bonaparte'tarrak orrela onartzea "Errege Txit Kristauari" iseka egitea zala". Ez zion Pio VII'ak jaramonik egin.

Egin zion, ordea jaramon, eta arretarik bizienarekin gaiñera, Sant'Elene'tik iritxitako eskari bati. Napoleon'ek apaiz bat eskatzen zaula esan zioten Aitasantuari. Apaiz ori kortzegatar bat izatea nai izan zuan Pio VII'ak, ori egitean, Napoleon makurtuari atsegiñ aundia-goia emango ziola bazekialako.

1821'eko Loreillaren 5'ean il zan Napoleon. Edestian agertu zaizkigun buruzagietan aundienetakoa izan gendua bera. Baiñan Aingeru izan zitekeana, deabru geiago izan zan aingeru baiño, izugarrizko gaitzak bota bait zizkigun Europa'ko erri gaixo guztien gaiñera'

Fr-antzi'a ere, arras ondaturik laga zuan, ekonomiako ondamentaz (anda, bi milloi seme gazte erailen odola ere alper-alperrik ixuria-razi bait zion, Siri eta Ejito'ko ondar gorrietan, Errusi'ko zelai elurpetu

amaigabeetan, Portugal eta Espāñi'ko malkarretan, eta..., non ez?: Europa'ko bazter guztietan!

Alatagutziz, gaitz oiek aztuta, bere garaitzak bakarrik kontuan artuta ere, Gizon Aundia izateko gauza bat bakarra falta izan zitzaion; Sinismena; dirudianeaz, eriotzako orduan aurkitu zuan sinismena. Sinismen orren faltaz, eman zituan, urrats oker asko.

Biotz-biotzez barkatu zion Pio VII'ak. Obeto esan. ez zion iñoiz gorrotorik izan. Beti maitatu zuan. Ez zitzaion iñoiz aztu Napoleon'ek egin zuala, Errepublikaren Kontsul Nagusi zalarik, Frantzi'ko Elizaren pakea. Beti, baita Sabona'ko eta Fontenebieau'ko unerik latzenetan ere, betibeti gorde zion, orregaitik, esker ona'

Biak izan ziran garaitasunean, Aitasantua eta Inperatorea, bata bestearen kide. Baiña bien artean garaiena, aundiena", zalantzarik gabe, Aitasantuan dugu.

AURKIBIDEA

Eliz-Edesti onen iturburuak	5
Argikuntza	13
X Iñozentzio	29
Elizen Batasunerako saiaketak	37
VII Alexander	47
IX Klemente	59
X Klemente	65
Argikuntza-Aroko Elizaren Soziologia	67
XI Iñozentzio	89
Galikeria	
VIII Alexander	
XII Iñozentzio	117
Eraspenkeri lizuna	121
Turkitarren menpeko Eliza	129
XI Klemente	145
Jantsenikeria	157
XIII Iñozentzio	199
XIII Benedikto	203
XII Klemente	207
Masoitza	
XIV Benedikto	219
Sortaldeko erlijio-oituren auzia	223
XII Klemente	237
Utrecht'eko Katoliko Zaarrak	249
XIV Klemente	253
Paraguay'ko indibildumak	275
Febronikeria	279
Josepekeria	283
Pistoia'ko Sinodoa	291
VI Pio	297
Argikuntza-Aroko Elizaren Donetasuna	309
Iraultza-Aroko Eliza	333

	341
Amerika'ko Iraultza	345
Frantzi'ko Iraultza Nagusia	363
Frantzi'ko Iraultza Nagusia (II)	367
Burgesarren Iraultza	373
L'Assemblée Législative	401
La Convention Nationale	411
"Les Thermidoriens"	427
"Les Thermidoriens"	427
Iraultza Frantzi'k menderatutako Lurraldeetan	443
Napoleon	453
VII Pio	465
18 01'ko Konkordatoa	473
Frantzi'ko Elizaren Berbizkundera	483
Inperioa ta Aitasantutza aurrez-aurre	497